

# Kasu eta preposizioen jabekuntza-garapena haur elebidun batengan

Egilea: **KRISTINA ELOSEGI ADURIZ**  
Urtea: 1996  
Zuzendaria: ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI  
Unibertsitatea: UPV-EHU  
ISBN: 978-84-8438-211-9

## Hitzaurrea

Haur hizkuntzak edozein herrialde edo kulturatan, eta bereziki gaur egun gure herri honetan, garrantzia handia du, kontuan izanik gure inguruko haur gehienek egoera elebidun edo diglosikoan murgildurik daudela, beraien hizkuntz jabekuntza aurrera eraman behar dutenean.

Honek zenbait arazo sortzen du bai haurrengan, bai guraso eta irakasleengan eta uste dugu asko ikasi daitekeela egoera hauetatik, eta laguntza ere eskaini daitekeela egoera horiek arintzeko

Horrela, elebidun hizkuntz jabekuntza eremuan egin nahi izan dugu Doktorego tesia. Zehaztuz: euskararen kasu sistemaz eta gaztelaniaren preposizioaz haur bat nola jabetzen den aztertu nahi izan dugu, kontuan edukiz euskara eta gaztelania hizkuntz ezberdinak direla zenbait puntutan, eta aukeratu dugun eremuan, guztiz kontrakoak.

Galdera asko sortzen dira gai honen inguruan:

- Haurrek zer ikasten dute lehenago, posposizioz osatutako morfologia, ala preposizioz osatutakoa?
- Nahasten al dituzte bi sistemak, ala gai dira biak bereizteko, eta noiztik?
- Bi hizkuntzak batera ikasteak, bietako hizkuntza bat ondo ez ikastea ala bata bestea baino hobeto ikastea esan nahi du?
- Edo, alderantziz, bata bestearen lagungarri gertatzen da?

Ikerketa honen ondorioz, zuzenki ez bada ere, mota honetako euskara-gaztelania jabekuntzaren deskribapen batek, garrantzia eduki dezakeela uste dugu irakaskuntza eremuan, hizkuntz jabekuntzaren prozesua hobeto ezagutu eta haurrei benetako elebidunak izaten lagundu ahal izateko, kontuan izanik gainera gure herrian haur elebidun eta haur eskolen kopurua gehitzen doala.

Hizkuntz jabekuntzaren alorrean bestalde, beste edozein ikasketatan bezala, hainbat joera dago. Ez dugu uste, ordea, hizkuntz jabekuntza bezalako prozesu zabal eta garrantzizkoa ikuspegi mugatu batetik aztertu eta adierazi daitekeenik. Gure ustez, gizakiak berezkoa duen ahalmen berezia baztertu gabe, haurraren heldutasunak, ingurugiroak, gurasoek, etab. luze batek ere badute zerikusi handia trebetasun hau lortu ahal izateko.

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

**FILOLOGIA ETA GEOGRAFIA-HISTORIA FAKULTATEA**

**KASU ETA PREPOSIZIOEN JABEKUNTZA-GARAPENA**

**HAUR ELEBIDUN BATENGAN**

**Kristina Elozegi Adurizek  
aurkezturiko doktorego-tesia**

**Itziar Idiazabal Gorrotxategi  
doktorearen zuzendaritzapean**

**GAZTEIZ, 1996ko UZTAILA**

*Umetan entzunak ditut  
hitzik eta urrunenak.  
Lehenengo hitz haiek ditut  
gehien deragidatenak.*

*Gure hitzok ez dira  
gure zelulen halakoak:  
zelulek ez bezala,  
hitzik eta sakonenek  
deragigute gehien.*

(B. Gandiaga: Denbora galdu alde, 1985)

## ESKER-ONAK

Doktorego-tesi honen azalpena egin aurretik, nere lana aurrera eramaten eta burutzen lagundu didaten guztien aipamena egin nahi nuke, beraiei zor diodan esker-ona adieraziz:

- Lehenik eta behin eskerrak Peru haurrari, bere hizketa baita tesi honen bizkarrezurra eta muina. Ez ditut ahaztu nahi, ordea, bere gurasoak eta zaintzailea, beraiei esker datu-bilketa posible izan delako.
- Eskerrak Hamburgoko Unibertsitateko BUSDE taldeko lankideei, gure aurretik hizkuntz jabekuntza arloan egindako beraien lana eta esperientzia, ezinbestekoa izan delako nere lana burutu ahal izateko.
- Euskal Herriko Unibertsitateko HEGEHJ taldearen zuzendari den Itziar Idiazabal eta, bertan parte hartu duten lankide guztiei eskerrak, beraiek egindako lanak lagungarri izan zaizkidalako.
- Eskerrak Gazteizko Udalari, HEGEHJ taldea datu-bilketa garaian zegoen urteetan, ekonomikoki bere laguntza eskeini zigulako.
- Urruntasunak bere baitan dauzkan mugak gaindituz, Hamburgotik bidalitako aholku eta laguntzagarriak eta, batez ere momentu zailtan bere elkartasuna eskeini didalako, eskerrak Marijo Ezeizabarrena lankideari.
- Eskerrak Andoni Barreña lankide eta irakasleari, beti prest egon delako, bai tesiaren kapitulu bakoitza irakurri ondoren, gaia ondo menderatzen duenaren aholkuak eskeintzeko, bai eta une zailtan ikerketa burutzera bultzatu nauelako.
- Miren Azkarate irakasleari ere eskerrak luzatu nahi dizkiot, euskarari dagokion atal teorikoa zuzentzerakoan bere maisutasuna eskeini didalako.
- Eskerrak Andolin Eguzkitza irakasleari, garai hartan ezezagunak izan arren, gaztelaniari dagokion atal teorikoa gogo onez eta arretaz irakurri zidalako, ondoren bere aholkuak eskeiniz.
- Eskerrak Fuensanta Hernández Pina irakasleari, eskeinitako denbora eta aholkuengatik.
- Gaztelaniazko corpusean azaltzen diren klitikoekin burrukan ari nintzen garaian, Hernaniko Agustin Iturriaga ikastetxeko filologian lizentziatua den Patxi Vicentek eskeini zidan laguntza paregabeagatik, eskerrak.

- Eskerrak Donostiako HABE liburutegiko zuzendari den Imanol Irizarri, eskeini dizkidan arreta eta denborak nere lana erreztu dutelako.
- Oiartzungo herri zoragarritik, Euskaltzaindiako azken arauak ezagutarazi eta tesiaren barna aurkitu ditun akatsak zuzendu dizkidan Esteban Agirrerri eskerrak.
- Eskerrak Itziar Idiazabal irakasleari, HEGEHJ taldean lana egiteko aukera eskeini zidalako, eta nere ikerlanaren zuzendaritza bere ardurapean hartu eta burutzen lagundu didalako.
- Eskerrak hainbat laguni, ikerketarekin zerikusirik ez izan arren, gertu sentitzen ditudalako eta, beraien adiskidetasuna lagungarri gertatu zaidalako.
- Guraso, anai-arreba eta senitartekoak ere ez ditut ahaztu nahi, beti gertu izan ditudalako, eta lan honen amaieran nerekin pozten direlako.
- Esker beroak azkenik, etxeko guztiei. Eskerrak Felixi, beti ondoan eduki dudalako, lehenago egindako bideak gauzatzen duen laguntza eskeintzeko eta, beti nigan sinistu duelako. Eskerrak Kristina, Amaia eta Rafa seme-alabei, urteetan zehar lan honetan murgildurik onartu nautelako eta, beraien adorea sentitu dudalako.

## **KASU ETA PREPOSIZIOEN JABEKUNTZA-GARAPENA**

# HAUR ELEBIDUN BATENGAN

## AURKIBIDEA

### *I.-LEHEN ATALA*

<b>1.- SARRERA</b>	12
<b>2.- HIZKUNTZ JABEKUNTZARI BURUZKO TEORIAK</b>	16
2.1.- Sarrera	16
2.2.- Behaviorismoa	18
2.3.- Hurbiltze linguistikoa edo innatismoa	19
2.4.- Ezagutza bidezko elkarrekintza	21
2.4.1.- Mintzaira eta pentsamendua	
2.4.2.- Innatismoaren eta konstruktibismoaren arteko konponbide bat.	
2.5.- Elkarrekintza soziala	23
2.6.- Aipatutako teoriaren balorazio kritikoa	25
2.6.1.- Behaviorismoa edo konduktismoa	
2.6.2.- Innatismoa	
2.6.3.- Ezagutza bidezko elkarrekintza	
2.6.4.- Elkarrekintza soziala	
2.7.- Ondorio orokorrak	27
<b>3.- HIZKUNTZAREN JABEKUNTZA ETA ELEBITASUNA</b>	29
3.1.- Zer da elebitasuna?	30
3.2.- Haur elebidunen sailkapena	31
3.3.- Elebitasuna eta garapen kognitiboa	32
3.4.- Elebitasunaren garapenean eragina duten faktoreak	33
3.4.1.- Ingurune soziokulturala	
3.4.2.- Elebitasunaz jabetzeko adina	
3.5.- Ikasketa elebidunaren mailak	34
3.6.- Nahasketa edo bategitea	35
3.7.- Hizkuntzen bereizketa eta elebitasuna	38
3.8.- Hizkuntz sistemen garapena	39
3.9.- Gramatikaren garapena	40
3.10.- Ondorioak	

### *II.-BIGARREN ATALA*

<b>4. - ZENBAIT IKERKETAREN BERRAZTERKETA</b>	43
4.1.- Sarrera	43
4.2.- Lehen atala: kasu markak aztertzen dituzten ikerketak	45
4.2.1.- Ikerketen azterketa	
4.2.2.- Ikerketen ondorio orokorrak	
4.3.-Bigarren atala: haur elebidunak aztergai dituzten ikerketak	47
4.3.1.- Ikerketen azterketa	
4.3.2.- Ikerketen ondorio orokorrak	
4.4.- Hirugarren atala: preposizioak aztergai dituzten ikerketak	51
4.4.1.-Ikerketen azterketa	
4.4.2.- Ikerketen ondorio orokorrak	
4.5.- Laugarren atala: izenordainak aztergai dituzten ikerketak	57
4.5.1.- Ikerketen azterketa	
4.5.2.- Ikerketen ondorio orokorrak	
4.6.- Ikerketa hauetan azaltzen diren korrente teorikoei buruzko komentarioa	61
4.6.1.- Imitazioa	
4.6.2.- Kognitibismoa	
4.6.3.- Helduen eredia	
4.6.4.- Hornidura genetikoa	
 <i>III.- HIRUGARREN ATALA</i>	
<b>ATAL TEORIKO HONEN JUSTIFIKAPENA</b>	67
<b>5.- EUSKAL KASUEN DESKRIBAPEN GRAMATIKALA</b>	67
5.1.- Zer da deklinabidea?	67
5.2.- Eratorpena eta deklinabidea	70
5.3.- Euskal deklinabidearen egitura	70
5.4.- Kasuak zenbait gramatikalariren arabera	71
5.5.- Deklinabide mugagabe edo indeterminatua	78
5.6.- Izen sintagmaren determinazioa eta "a" organikoz bukatzen diren hitzen deklinabidea	79
5.6.1.- Izen-sintagmaren determinazioa euskaraz	
5.6.2.- "-a" organikoz bukatzen diren hitzen deklinabidea	
5.7.- Kasu bakoitzaren deskribapena	81
5.8.- Desinentzia bakoitzak	91
5.9.- Zenbait kasuk aditzarekiko gordetzen duen komunztadura	92



<b>6.- GAZTELANIAZKO PREPOSIZIO ETA IZENORDAIN PERTSONALEN DESKRIBAPEN GRAMATIKALA</b>	94
6.1 .- Preposizioak	95
6.1.1.- Zer dira preposizioak?	95
6.1.2.- Preposizioen zeregin edo funtzioa.	96
6.1.3.- Preposizioen ezaugarriak	97
6.1.4.- Preposizio motak	98
6.1.5.- Preposizioen elkarketa	100
6.2.- Izenordain pertsonalak	102
6.2.1.- Izenordainak	102
6.2.2.- Izenordain pertsonalak	103
6.2.3.- Izenordain pertsonalak eta kasu edo deklinabidea gaztelaniaz	104
6.2.4.- Izenordainek betetzen dituzten funtzio sintaktikoak.	106
 <i>IV.-LAUGARREN ATALA</i>	
<b>7.- HIPOTESIAK</b>	111
7.1.- Lehen hipotesia	111
7.2.- Bigarren hipotesia	113
7.3.- Hirugarren hipotesia	115
<b>8.- CORPUSA ETA LANERAKO METODOLOGIA</b>	118
8.1.- Aztertutako haurra	118
8.2.- Datu-bilketa	119
8.3.- Transkribaketak	120
8.4.- Erreferentzi-indizeak	121
8.5.- Aztertutako hizkuntza-unitateak	125
 <i>V.-BOSGARREN ATALA</i>	
<b>9.- EMAITZAK ETA AZTERKETAK</b>	129
EUSKARAZKO KASUAK	130
9.1.- Absolutibo kasua	130
9.1.1.- Izen sintagmaren determinazioaren jabekuntza-bilakabidea.	130
a) Emaitzak eta azterketa	
b) Laburpena	
9.1.2.- Absolutibo kasuaren jabekuntza-bilakabidea subjektua eta objektu zuzena funtzioen arabera, aditz jokatua duten ekoizpenetan.	142
a) Emaitzak eta azterketa	
b) Laburpena	

9.1.3.- Absolutibo kasuaren jabekuntza orokorrari buruzko laburpen eta erkaketa.	148
a) Laburpena	
b) Eraitzen eztabaida	
9.1.4.- Ondorioak	153
9.1.5.- Taulak	155
9.2.- Ergatibo kasuaren jabekuntza-bilakabidea	160
a) Eraitzak eta azterketa	
b) Laburpena	
d) Eraitzen eztabaida	
9.2.1.- Ondorioak	168
9.2.2.- Taulak	170
9.3.- Datibo kasuaren jabekuntza-bilakabidea	174
a) Eraitzak eta azterketa	
b) Laburpena	
d) Eraitzen eztabaida	
9.3.1.- Ondorioak	180
9.3.2.- Taulak	182
GAZTELANIAZKO KASUAK	184
9.4.- Nominatibo kasua	184
9.4.1.- Izenordain subjektuen jabekuntza-bilakabidea	184
a) Eraitzak eta azterketa	
b) Laburpena	
9.4.2.- Izen-sintagmaren determinazioaren jabekuntza-bilakabidea	189
a) Eraitzak eta azterketa	
b) Laburpena	
9.4.3.- Subjektu funtzioa betetzen duten izen-sintagmen jabekuntza-bilakabidea	198
a) Eraitzak eta azterketa	
b) Laburpena	
9.4.4.- Nominatibo kasuaren jabekuntza orokorrari buruzko laburpena	202
a) Laburpena	
b) Eraitzen eztabaida	
9.4.5.- Ondorioak	207
9.4.6.- Taulak	210

9.5.- Akusatibo kasua	214
9.5.1.- Izenordain klitikoen jabekuntza-bilakabidea	214
a) Emaidzak eta azterketa	
b) Laburpena	
9.5.2.- Objektu zuzenaren funtzioa betetzen duten izen-sintagmen jabekuntza-bilakabidea	217
a) Emaidzak eta azterketa	
b) Laburpena	
9.5.3.- Akusatibo kasuaren jabekuntza orokorrari buruzko laburpena	222
a) Laburpena	
b) Emaidzen eztabaida	
9.5.4.- Ondorioak	225
9.5.5.- Taulak	227
9.6.- Datibo kasuaren eta zehar objektuaren jabekuntza-bilakabidea	233
a) Emaidzak eta azterketa	
b) Laburpena	
d) Emaidzen eztabaida	
9.6.1.- Ondorioak	238
9.6.2.- Taulak	240
9.7.- Aditzarekin pertsona komunztadurarik erakusten ez duten euskal kasuen jabekuntza-bilakabidea	243
a) Emaidzak eta azterketa	
9.7.1.- Inesiboa	243
9.7.2.- Jabego genitiboa	246
9.7.3.- Ablatiboa	249
9.7.4.- Adlatiboa	251
9.7.5.- Xedezko destinatiboa	253
9.7.6.- Soziatiboa	254
9.7.7.- Muga adlatiboa	257
9.7.8.- Leku genitiboa	257
9.7.9.- Instrumentala	258
b) Laburpena	
d) Emaidzen eztabaida	
9.7.10.- Ondorioak	264
9.7.11.- Taulak	266
9.8.- Gaztelaniazko preposizioen jabekuntza-bilakabidea	268

a) Emaitzak eta azterketa	
9.8.1.- "Para" preposizioa	268
9.8.2.- "De" preposizioa	270
9.8.3.- "A" preposizioa	262
9.8.4.- "Con" preposizioa	274
9.8.5.- "Por" preposizioa	275
9.8.6.- "En" preposizioa	277
9.8.7.- "Hasta, sin " preposizioak	278
b) Laburpena	
d) Emaitzen eztabaida	
9.8.8.- Ondorioak	285
9.8.9.- Taula	287
<b>10.- ADITZ JOKATUAREN JABEKUNTZA-BILAKABIDEA</b>	<b>288</b>
10.1.- Aditz jokatuaren jabekuntza-bilakabidea euskaraz	288
a) Emaitzak eta azterketa	
b) Laburpena	
10.1.1.- Ondorioak	295
10.1.2.- Taulak	297
10.2.- Aditz jokatuaren jabekuntza-bilakabidea gaztelaniaz	298
a) Emaitzak eta azterketa	
b) Laburpena	
10.2.1.- Ondorioak	303
10.2.2.- Taula	305
<b>11.- KASU ETA PREPOSIZIOEN SISTEMEN BEREIZKETA GOIZTIARRA</b>	<b>306</b>
11.1.- Subjektuak	306
11.2.- Objektuak	308
11.3.- Kasuak eta preposizioak	310
11.4.- Izen-sintagmaren determinazioa	315

<b>12.- ONDORIO OROKORRAK</b>	320
12.1.- Lehen hipotesiari dagozkion ondorioak	320
12.2.- Bigarren hipotesiari dagozkion ondorioak	325
12.3.- Hirugarren hipotesiari dagozkion ondorioak	326
<b>13.- MUGAK, IRADOKIZUNAK, ETA GALDERAK</b>	330
<b>14.- BIBLIOGRAFIA</b>	333

***I.- LEHEN ATALA***

1.- SARRERA

2.- HIZKUNTZ JABEKUNTZARI BURUZKO TEORIAK

2.1.- SARRERA

2.2.- BEHAVIORISMOA

2.3.- HURBILTZE LINGUISTIKOA EDO INNATISMOA

2.4.- EZAGUTZA BIDEZKO ELKARREKINTZA

2.4.1.- Mintzaira eta pentsamendua

2.4.2.- Innatismoaren eta konstruktibismoaren arteko konponbide bat.

2.5.- ELKARREKINTZA SOZIALA

2.6.- AIPATUTAKO TEORIEN BALORAZIO KRITIKOA

2.6.1.- Behaviorismoa edo konduktismoa

2.6.2.- Innatismoa

2.6.3.- Ezagutza bidezko elkarrekintza

2.6.4.- Elkarrekintza soziala

2.7.- ONDORIO OROKORRAK

*I.- LEHEN ATALA*

## 1.-SARRERA

### 1.1.-AURREKARIAK

Euskal Filologiako ikasketak 1986an Donostian kokaturik dagoen Deustuko Unibertsitatean amaitu ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateak Gazteizen duen Euskal Filologia sailan matrikulatu nintzen hirugarren zikloko ikasketak jarraitzeko asmotan. Doktorego kurtso hauetan, aukeran zegoen ikastaro bat Itziar Idiazabalek zuzentzen zuen: "La adquisición del lenguaje. Metodología de investigación" zen. Oso gai erakargarria iruditu zitzaidan, haur hizkuntzak edozein herrialde edo kulturatan, eta bereziki gaur egun gure herri honetan duen garrantzia kontuan izanik. Izan ere, gure inguruko haur gehienek egoera elebidun edo diglosikoan murgildurik daude, beraien hizkuntz jabekuntza aurrera eraman behar dutenean. Honek zenbait arazo sortzen du bai haurren, bai guraso eta irakasleengan. Alde batetik asko ikasi daiteke egoera hauetatik, eta bestetik laguntza ere eskaini daiteke egoera horiek arintzeko asmotan. Horrela bada, nire interesak eta kezak kontuan harturik, gogoz jarraitu nuen ikastaro hura. Gainera hizkuntz jabekuntza alorreko ikerketaren lehen pausoak ikusi nituen eta gaia gero eta erakargarriagoa iruditu zitzaidan. Hori dela eta, beranduago hartuko nuen erabakiaren lehen oinarriak eman ziren ikastaro honetan.

Ikastaroa amaitu aurretik, Itziar Idiazabalek bere ardurapean zegoen ikerketa batean parte hartzeko aukera eskaini zidan. Lehen aipaturiko interes pertsonala kontuan hartuz, oso gustura onartu nuen bere eskaintza, kontuan izanik, gainera, aztertu behar genituen haur gehienak elebidunak zirela. Beraz, "HEGEHJ" (Haur Euskaldun eta Gaztelaniadun Elebidunen Hizkuntz Jabekuntza) taldeko partaide bilakatu nintzen. Berehala lanean jarri nintzen, beti ere I. Idiazabalen ardurapean. Ikastaroan ikasitako metodologia praktikan jartzeko aukera ederra izan nuen. Bestalde, DUFDE (Hamburg-eko Unibertsitateko Irakaslea den Jurgen Meisel eta izan den Axel Mahlau jaunek aurrera daramaten ikerketa, aleman-frantses haur elebidunekin) proiektuko partaideekin egin ziren zenbait topaketatan ere parte hartu izan dut, batzuetan Gazteizen bertan, beste batzuetan Hamburg-eko Unibertsitatean.

1989an Donostiako VIII. Udako Ikastaroen barruan, Itziar Idiazabalek antolatutako "Hizkuntz Jabekuntza Haur Elebidun eta Elebakarren" ikastaroan, "Lexikoaren garapena eta kasu-markak haur elebidun baten euskarazko jabekuntza prozesuan" lana aurkeztu nuen, eta Euskal Herriko Unibertsitateko argitarapen zerbitzuak, 1991. urtean argitaratutako alean azaltzen da. Ekintza hau beste pauso bat gertatu zen nire ikasketen barruan, kontuan izanik ordura arte transkribatu nituen haurren datuak nolabait organizatu eta zenbait argibide aurkitzen saiatu nintzela. Garai horretan, euskarazko datuak bakarrik aztertu nituen, erdarazko transkribaketak oraindik egin gabeak zeudela kontuan harturik. Haur baten azterketari ekin nion, urtebete eta hamaika hilabete zituenetik hiru urte bete zituen bitartean. Lan honetan eta, izenburuak aurreratzen duen bezala, lexikoaren jabekuntza aztertu nuen lehen puntu gisa. Bigarren puntu gisa kasu-markek lehen aipaturiko lexikoan zuten eragina aztertu nuen. Azkenik, aztertutako haurren corpuseko aditzen behaketa egin nuen. Gerora begira, lan honen ondorio interesgarriena, espero zen zenbait emaitzatatik aparte, sortu ziren hipotesietan zegoen: deskribapen hutsetik azalpenerako bidea urratzen zutenak.

Ikasturte honetan, bestalde, lehen aipaturiko Hamburg-eko irakasleaz gain, I.Vila, M<sup>~</sup>

Jose Azurmendi eta Arabako Magisteritza-eskolako zenbait irakaslek parte hartu zuten, gure proiektuko partaide guztiak ere ahaztu gabe. Horrela, zenbait ikuspegi ezberdin erkatu ahal izan genuen hizkuntz jabekuntzako alor honetan, hala nola, generatibismoa, funtzionalismoa, lan deskriptiboak, eta elebitasunaren problematika. Bestalde, hizkuntz jabekuntzaren zenbait alor ikusi ahal izan genuen ikastaro hartan: denbora, aspektua eta modua haur frantses-aleman elebidunengan; garapen lexikal eta morfosintaktikoa haur katalan - gaztelera elebidunengan; hitzen ordena, aditza, artikulua, ezeztapena, izen kategoriak eta kasu markak, eta hizkuntzaurrea, guzti hauek haur euskaldun elebatar edo euskaldun - gaztelaniadun haur elebidunengan. Zenbait alderdi teoriko ere aztertu zen bertan, adibidez "parametroen modelo", haur jabekuntza alorrean teoria generatiboaren aportazio berri bat delarik; teoria funtzionalistaren aurkezpen bat eta, azkenik, euskararen jabekuntza, bigarren hizkuntza bezela. Ikusten denez, nahiko ikuspegi zabala izan genuen gure ikasketak bideratu eta aurrera eraman ahal izateko.

## 1.2.- IKERKETAREN GAUZATZEA

Aipatu ikastaroaren ondorioz, lexikoaren azterketa alde batera uztea erabaki nuen eta, euskal deklinabidean jarraitzeko asmoak hartu nituen, euskal kasu sistemak aukera handiagoak ematen zituenez haurren hizkuntz jabekuntza aztertu ahal izateko. Beraz, gaia gero eta mugatuagoa ikusten nuen. Honen ondorioz, 1991an Donostian antolatu zen "Elebitasuna eta hizkuntz jabekuntza" zeritzan AESLaren IX. Kongresu Nazionalean komunikazio bat aurkeztu nuen "Kasu sistemaren jabekuntza euskaraz, haur elebidun batengan" izenburuarekin.

Sakontze lan honen eraginagatik, zenbait kasuren agerpena azaldu ahal izateko, aditzarekin konkordantzia dutenak konkretuki, aditzaren jabekuntzaren berri ematea beharrezkotzat ikusi nuen. Horrela bada, lan honi ekin nion eta, urte berean --hau da 1991n lana-- "Aditzaren sorrera eta bilakabidea euskaraz, haur elebidun batengan, hiru urte bitartean" lana prestatu nuen. Lan honen bidez, aztertzen ari nintzen haurren jabekuntza-prozesuaren ikuspegi zabalagoa lortu nuen.

Bestalde, eta kontuan harturik herri elebidun batengan murgildurik gaudela, eta gure proiektuan aztertzen ari garen haur gehienak ere elebidunak direla, handitzen joan zen jabekuntza elebidunari buruzko interesa. Lehenago esan dudanez, interes honen sustraia Doktorego programa barruan Mari Jose Azurmendik emandako "Psicolingüística del contacto de lenguas y del Bilingüismo" ikastaroan egon daiteke. Ikastaro honetan, bada, elebitasunaren alderdi positiboak eta arazoak ezagutu ahal izan genituen, ikuspegi sakon eta zabala lortuz gai honen inguruan. Gai honi buruzko nire interesa, ordea, hemen bizkortu bazen ere, lehenagotik zetorren: Hau diodanean nire esperientzia pertsonala dut buruan, kontuan izanik famili euskaldun batean jaioa naizela, eta nire ama-aita hizkuntza euskara dela. Hiru-lau urterekin monjen ikastetxe batean nire ikasketak hasi nituenean ez nekien erdararik eta, gogoratzen ez badut ere, adin horretako haur batentzat arazo larria izango zen, noski. Horrela bada, hamar urte bitartean nire ikasketak erdaraz egin ondoren, batxilergoa egitera Donostiara joan nintzen, "Santo Tomas Lizeora", eta han, nahiz eta batxilergoa gaztelaniaz egin, zenbait ikasketa euskaraz egiten genituenez, euskaraz alfabetatu nintzen. Alderantzizko prozesua ere oso gertutik bizi izan dut. Nire seme-alabek ere familia euskaldun batean jaioak direlarik, ikastolan egin dituzte ikasketak. Gaztelania ere ondo dakite, baina ikasketa hau nola eman den "misterio" ttiki bat da. Ez, noski,



kontuan edukiz inguruak gaztelania zein mailatan eskaintzen duen ikusirik. Beraiek, beste askok bezala, gaztelania kalean ikasi dute, irratian, telebistan, hau da irakaskuntzarekin zerikusirik ez duen inguruan. Ez da harritzekoa, bada, hizkuntz jabekuntza eta elebitasunarekiko nire interesa.

Esperientzia pertsonala eta urte hauetan zehar egindako bidea kontuan izanik, elebidun hizkuntz jabekuntza eremuan kokatu nahi izan dut nire Doktorego tesia. Zehaztuz: euskararen kasu sistemaz eta gaztelaniaren preposizioaz haur bat nola jabetzen den aztertu nahi izan dut, kontuan edukiz euskara eta gaztelania hizkuntz ezberdinak direla zenbait puntutan, eta nik aukeratu dudako eremuan, guztiz kontrakoak. Jakina denez, euskararen kasu sistema posposizioz osatua dagoen bitartean, gaztelaniazko preposizio sistema, berak dioen bezala, preposizioz osatua dago.

Eta gure hurrek bi hizkuntza hauek ikasten dituztelarik, galdera asko sortzen dira gai honen inguruan: adibidez, hurrek zer ikasten dute lehenago, posposizioz osatutako morfologia, ala preposizioz osatutakoa?, edo, nahasten al dituzte bi sistemak, ala gai dira biak bereizteko, eta noiztik?. Bi hizkuntzak batera ikasteak, bietako hizkuntza bat ondo ez ikastea ala bata bestea baino hobeto ikastea esan nahi al du? edo, alderantziz, bata bestearen lagungarri gertatzen da?

Ikerketa honen ondorioz eta, zuzenki ez bada ere, mota honetako euskara-gaztelania jabekuntzaren deskribapen batek, garrantzia eduki dezakela uste dugu irakaskuntza eremuan, hizkuntz jabekuntzaren prozesua hobeto ezagutu eta haurrei benetako elebidunak izaten lagundu ahal izateko, kontuan izanik gainera gure herri honetan haur elebidun eta haurtzaindegi edo haur eskola kopurua gehitzen doala. Edo, Ignasi Vilaren (1984) hitzak erabiliz, "Los bilingües familiares constituyen un pequeño laboratorio experimental que mediante su observación puede aportar datos importantes que aumenten nuestro conocimiento de los procesos generales que permiten la aparición y desarrollo del lenguaje, así como de los procesos particulares implicados en las lenguas de estudio".

Horrela bada, gai honi buruz hasiera batean sentitu nuen erakarpena sendotu egin zait denbora eta lanaren baitan, alde batetik euskal hizkuntzalaritzaren ikasketen barruan kokatzen delako, eta bestalde praktikotasun handia ikusten diodalako, lehen aipatu ditudan arrazoiengatik. Hizkuntz jabekuntzaren alorrean, bestalde, beste edozein ikasketatan bezala, hainbat joera dago. Hasiera batean generatibismoaren bidea hartu nuen, baina, bide horrek jartzen zituen mugak kontuan edukiz eta nire zuzendariaren aholkuak jarraituz, joera irekiago baten barruan kokatu nahi izan dut nire lana. Ez dut uste hizkuntz jabekuntza bezalako prozesu zabal eta garrantzizkoa, ikuspegi mugatu batetik aztertu eta adierazi daitekeenik. Nire ustez, gizakiak berezkoa duen ahalmen berezia baztertu gabe, haurren heldutasunak, ingurugiroak, gurasoek, etab. luze batek ere badute zerikusi handia, trebetasun hau lortu ahal izateko. Iritzi honetara, azterketa bera hasi aurretik atal teorikoa moldatzeko hizkuntz jabekuntzari buruz dauden teoriak aztertu ondoren iritsi naiz.

### 1.3.- IKERKETAREN ANTOLAKETA

Orain arte azaldu ditugun asmoak aurrera eraman ahal izateko, jarraian azalduko ditugun atalez osatu dugu gure ikerketa:

- **Lehen atalean**, hizkuntz jabekuntza alorrean dauden teoria garrantzitsuen azalpena egin dugu.

Aldi berean, hizkuntzaren jabekuntza eta elebitasunari buruz dauden lanen adierazpena ere azaltzen dugu.

- **Bigarren atalean**, gure azterketarako lagungarri izan diren hizkuntz jabekuntzaren alorrean, kasu-markak, izenordainak edo preposizioak aztertuak izen diren beste hizkuntzetako --euskerak eta gaztelaniakoak barne-- hainbat ikerketa berraztertu dugu.

- **Hirugarren atalean**, euskarazko kasu-markak eta gaztelaniazko izenordain eta preposizioak aztertzea gindoazela ikusirik, unitate hauen deskribapen gramatikala azaldu dugu.

- **Laugarren atalean**, orain arte aipatu ditugun lanen ondorio gisa, gure hiru hipotesiak aurkezten ditugu. Atal berean, corpora eta lanerako metodologia azaltzen ditugu, hau da, aukeratutako haurren eta corpusaren ezaugarriak, bere corpusari dagozkion erreferentzi indizeak, corpora osatzen duten datuak nola lortu ditugun, etab. Gure lanean erabili dugun metodologia azaltzen ere ahalegindu gara, hau da, corpuseko zein unitate erabili ditugun gure azterketak aurrera eramateko, azterketa bakoitzaren antolaketa, etab.

- **Bosgarren atala**, aurkeztutako hipotesiei erantzun ahal izateko egin ditugun azterketek osatzen dute. Gorago aipatu dugunez, azterketa hauek euskarazko kasu-marka eta gaztelaniazko izenordain zein preposizioetan oinarritzen dira batik bat.

- **Seigarren atalean**, gure hipotesiei erantzuten ahalegindu gara, ondorio orokorren bidez. Lanaren mugak, iradokizunak, galderak eta proposamenekin amaitzen dugu gure ikerketa.

## 2.-HIZKUNTZ JABEKUNTZARI BURUZKO TEORIAK

### 2.1.- SARRERA

Badirudi haurren hizkuntz jabekuntza betidanik ardura izan duen gaia dela. San Agustinek (K.o.400) (1984) barneikusketa eta oroimen bidez bere ama-hizkuntzaren jabekuntza deskribatu aurretik, gai honekin zerikusia duten ipuin eta kondairen berri ematen digu. Geroago, hizkuntz jabekuntzarekin berarekin baino, gertakari harrigarriekin zerikusia duten kontaketak ezagutzen dira. Hizkuntz jabekuntzari buruzko egiazko interesa, ordea, --haurren munduarekin zerikusia duen oro bezala--, oraingoa da.

Gizaldi honen hasierakoa da Clara eta William Stern psikologoena. Horrela 1907an argitaratutako *Die Kindersprachen* (Siguan, 1984a-an) lan psikologiko eta filosofikoaz gain, hizkuntz jabekuntzari buruzko gramatika ikuspegi zabala eskeintzen digute. Urte batzuk beranduago, 1913an hain zuzen, Ronjat-en *Le développement du langage observé chez un enfant bilingue* argitaratu zen, gaur egun oraindik lan balioduna. Ikusenez, beraz, hizkuntz jabekuntza elebidunari buruzko interesa ere azaltzen ari dela. Gai honi buruzko bilakabidea, aurrerago ikusi ahal izango dugun bezala, erabateko gaitzespen batetik hasi eta, onarpena eta, inguruneak hala eskaturik, jaiotzetik haurrari bi hizkuntzatan hitz egitearen mesedea bultzatzen duen ikuspegiaraino doa. Beranduago, Piaget-ek (1965) haurtzaroko mintzaira eta pentsamendua erlazionatzen dituen lana argitaratu zuen. Haren ondorioak, oso bestelakoak dira gai berdinez diharduen Vygotsky (1981a) sobietarraren aldean. Bestalde, hizkuntz jabekuntzari buruzko tradizio errusiarra autore honekin hasten da.

Bitartean, eta Europa alde batera utziz, gai honi buruzko interesa sortzen ari zen Estatu Batuetan. Garrantzi handia izan zuen 1957an argitaratutako Skinner-en *Verbal Behavior* lanak<sup>1</sup>. Bertan, eta lehen aldiz, hizketaren argibide behaviorista proposatzen da. Urte berean Chomsky-k oinarritzko eta jadanik klasikoa den *Syntactic Structures* lana argitaratu zuen. Bi urte beranduago "*A review of verbal behavior*" idazlanean (Siguan 1984a), mintzairari buruzko bere ideiak azaldu zituen Skinner-i erantzuteko asmoz. Chomsky-ren ustez, hizkuntza, gramatika da batez ere; hau da, hitzak antolatu ahal izateko arau multzo bat; arau hauek ezin dira ikasi asoziazio bidez, behavioristek zioten bezala, sortzezkoak dira baizik. Chomsky-k, hizkuntz jabekuntza zuzenki ez aztertu arren, bere teoriak oihartzun handia izan zuten eta lan asko egin ziren ikuspegi honetatik.

Bestalde, J. Engelkamp-en (1981) ustez, mintzairaren psikologiaren historia bi zatitan bereiz daiteke: 1957a baino lehenagokoa eta ondorengoa, hau da, bi aldien arteko muga aipatu Noam Chomsky-ren *Syntactic Structures* (1957) lanean legoke.

Hizkuntzalari amerikarraren teoria iraultzaleak azaldu aurretik, hizkuntzalaritza lanak hitzetan kokatzen ziren, asoziazio- eta baldintzapen- teoriaren ikuspegitik. Mintzairaren psikologiaren hizkuntzalaritzak bestalde, ez zuen ia eraginik (Wundt, 1900; Karl Bühler, 1933; -Engelkamp, 1981-an i zan ezik).

Chomsky-ren teoria gramatikala 1957.an azaldu ondoren, lanak esakunetan oinarritu ziren. Esakune hauek, sinbolo eta arau mugatu batzuetan oinarrituz, arau bidez sortzen direla adierazten dute; beste hitzetan esanda, ez dira ikasten esaldi eginak, arauak baizik. Aldaketa hauez gain, hizkuntzalaritzak eragin handia izango zuen mintzairaren psikologian.

---

<sup>1</sup> Gaztelaniazko bertsioa "Conducta verbal" (1981)

Innatismoaren korrante barruan egin diren lanek, fonologia, morfologia edo sintaxia izan dute aztergai batez ere, baztertuta geratuz lexikoa, semantika eta mintzairaren alderdi funtzionala zein komunikaziozkoa.

Azken aldian ordea, aspektu hauek eta haurrak inguru zehatz batean, bera bizi den pertsonetikiko --ama zein aitarekiko-- elkarrerlazioan hizkuntzaz jabetzearen garrantzia ere berreskuratzen ari dira. Horrela, interakzionismo sozialaren barruan kokatzen den hizkuntz jabekuntza, gai ikusten da haurren ama-hizkuntzaren jabekuntzari buruzko gaur egungo teoria batzuek eta besteek eskeintzen duten zenbait ikuspuntu batzeko.

Ikusi dugun bezala, hizkuntzaren jabekuntza bezalako fenomeno konplexu eta garrantzizkoa adierazteko, historian zehar teoria oso ezberdinak azaldu izan dira. Gai ote da teoria hauetako bakoitza, bera bakarrik, hizkuntzaren jabekuntza eta bilakabidearen berri emateko? Horietako korronte batek eragin handiagoa izango ote du jabekuntzaren atal bat edo bestea aztertzerakoan? Teoria batzuk eta besteak ezartzerakoan, adina erabakigarria izan daiteke? Zientzi ikuspegi zehatzetik begiraturaz, bidezkoa ote da teoria bakar baten zalantzagabeko bai espina aldarrikatzea? Hizkuntz jabekuntzari buruzko teoria hain ezberdinen ikuspuntuak elkartzea daitekeena ote da? Hizkuntz jabekuntzak dituen ikuspuntu anitz eta galderak era konplexu eta elkarrerlazioan azalduko dituen ondorio multzo bat lor ote daiteke?

Jarraian aurkeztera goazen lanean, galdera hauei eta beste zenbaitei erantzuteko asmotan gara.

Lehenengoz, behaviorismoaren ikuspegia eskaintzen saiatuko gara, beti ere hizkuntz jabekuntzaren ikuspuntutik, eta korrante honek ingurune estimuluaren erreakzio soil gisa aurkezten duela ikusiko dugu. Bestalde, korrante honen adarrak ere kontuan izango ditugu: alde batetik Skinner-en teoria erradikala eta beste muturrean dagoen Bandura-rena.

Bigarren atalean, hizkuntz jabekuntza gizabanako bakoitzaren mende dagoela dioen teoria linguistikoz arituko gara. Chomsky-ren teoria gramatikaletik abiatuz, teoria honen baitan dauden korranteak azaltzen saiatuko gara. Mintzairaren ikuspegi biologikoaren ikuspuntua ere adieraziko dugu.

Azalduko dugun hirugarren teoria, ezagutza bidezko interakzionismoa izango da eta honen ordezkari goren Genevako eskolako Piaget da.

Azkenik, interakzionismo sozialaren ikuspegia eskaintzen saiatuko gara. Alde batetik, Vygotskyk eta eskola errusiarrak eskeini zuen ikuspegia azalduko dugu eta, bestetik, amaren rola garrantzia azpimarratu eta "baby talk" edo haur-hizketa zer den adieraziko dugu.

Korronte bakoitzaren aurrean pertsonalki kokatzen saiatuko gara, bakoitzaren balorapena eginez eta hizkuntzaren jabekuntza-bilakabidearen aurrean ondorio pertsonaletara iristen ahaleginduz.

Gainera, gure lana euskaldun-gaztelaniadun haur elebidun batengan oinarritzen dela kontuan izanik, elebitasuna hizkuntz jabekuntzarekin erlazionatuz aztertuko dugu, gaia zehaztu eta arazo garrantzitsuenei erantzuna ematen saiatuz.

Lan honen alderdi teorikoa aurkeztu ondoren, haur euskaldun-gaztelaniadun baten datuak aztertzen ahaleginduko gara, alde batetik posposizio bidez gauzaten diren euskarazko kasuak eta bestetik preposizio bidez burutzen diren gaztelaniazko preposizioak. Interesgarria eta beharrezkoa delakoan gaude ikerketa hau, kontuan izanik hizkuntzaren atal baten azterketa, formari dagokionez, guztiz ezberdinak diren bi hizkuntzetan azalduko dugula.

## 2.2.- BEHAVIORISMOA

Korronte hau Ameriketara sortu zen XIX. mende bukaeran giza gogamena aztertu ahal izateko, barneikusketa- psikologiaren aurreko erreakzio gisa. Pavlov-en (1968) erreflexologian oinarritzen da eta bereziki Watson (1913, -Siguan 1984a-n) psikologoak garatu zuen, haur batengan aplikatuz ikertzaile sobietarraren teoria. Horrela, kondizionamenduak guztiz aldatzen duela giza-jokabidea erakutsi zuen. Korronte honek erabat objektiboa izan nahi zuen, pertsona kanpotik begiratuz, eta barruan gertatzen zena baztertuz. Hori dela eta, "sentipena", "pertzepzioa" eta "hunkipena" bezalako kontzeptuak baztertu egin ziren, eta hauen ordean "estimulu", "erantzuna", "ikaskuntza" eta "aztura" erabili.

Hizkuntz jabekuntza jokabide hutsa, manipula daitekeen aztura (Watson, 1924; Bohannon eta Warren-Leubecker 1985-ean) edo jokabide berezitat (Skinner, 1981) hartzen da teori honen ikuspuntutik. Funtsean, organismo bati elkartzeko zaion estimulua (input) eta haren erantzuna (output) litzateke. Teoria hau gehiago da funtzionala estrukturala baino, mintzairaren funtzioan, hizketa portaerak eragiten duten estimulutan eta gauzatze linguistikoaren ondorioetan oinarritzen denez.

Behaviorista askok, nahiago dute "hitzezko jokabidea" terminoa "mintzaira" baino, Skinner-ek *Conducta Verbal* (1981) lanean aipatzen duen bezala, "mintzaira" pertsonak eskuratu eta duen "gauza" den bitartean, "hitzezko jokabidea" askoz emankorragoa ikusten denez.

Horrela bada, "kondizionamendu klasikotik" abiatuz, hau da, arestian aipatu dugun "input-output" prozesua kontuan hartuz, hizkuntzaren jabekuntza adierazi daitekeela diote. Honez gain, berrindartzeak du hizkuntzaren jabekuntza-garapenean rol garrantzitsua. Hizketa emankorra adierazteko ordea, Skinner-en (1981) "kondizionamendu operantea" ezarri beharrean aurkitu dira. Printzipio honek, saritzen diren jokabideak errepikatzen eta zigortzen direnak desagertzera jotzen dutela dio. Teoria honetatik gertu dagoen Osgood-en (1979) "bitartekotasunaren teoriak" "barne-estimulua" hartzen du kontuan. Bere aldetik Bandura-k (1984) "ikaskuntza sozialaren teoria" edo "ezagutza bidezko teoria soziala" eskaintzen digu. Egile honentzat berrindartzea nahikoa ez denez, hizkuntz jabekuntza eredu bidez lortzen dela dio, jokabide gehienak behaketaren bidez ikasten direlako. Teoria honek, garrantzi handia ematen die, bestalde, haurren ezagutza bidezko trebetasunei, ezagutza ez linguistikoei eta inguruak haurrari eskeintzen dion estimulazio linguistiko nahiz laguntza semantikoari. Horrela bada, hizkuntza menperatzeko biderik egokiena, eredu lana hizkuntzaren ekoizpenarekin elkartu eta feed-back zuzenkor bat ezartzea litzateke Banduraren ustetan.

Haurrak hitzen konbinaketen trebetasuna nola lortzen duen "Markov-en kateak" (Mowrer, 1960; -Bohannon eta Warren-Leubecker 1985-ean) deitzen bidez adierazten da. Horrela, lehen hitza

bigarrenaren estimulua da eta hau, testuinguruarekin batera, hurrengoaren estimulu bilakatzen da.

Arau gramatikalei dagokienez, Whitehurst-ek (1982; -Bohannon eta Warren-Leubecker 1985-ean) (adib: "the boy's shoe"; "the boy's bike, "the boy's dog") bezalako hitz ereduak, egitura gramatikal (the boy's X) bilakatzen direla dio. Behaviorista gehienek, ordea, ez dute onartzen egitura gramatikal hauek benetako arau direnik, inguruneke zenbait estimuluk hainbat erantzun oroitarazi eta indartzen dituela baizik. Skinner-ek (1969; -Bohannon eta Warren-Leubecker 1985-ean) ere, haurren hizketa zuzenki kontingentziaz osatua dagoela onartzen du, eta ez araez gobernatua.

Hala eta guztiz ere, behaviorista askok hizkuntz jabekuntzan imitazioak garrantzi handia duela dioten bitartean (Bandura eta Walters, 1963), Whitehurst eta Vasta-k (1975) haurrak imitazioaren bitartez lortu ditzakela arau gramatikalak aldarrikatzen dute (Bohannon eta Warren-Leubecker 1985-ean).

Orain artekoa laburtuz, korronte honen barruan hainbat teoria eta ikuspuntu topatzen dugu: Skinner-en behaviorismo erradikalenetik hasi eta Bandura-ren eklektikotasuneraino. Skinner, "Estimulu-Erantzun"ean eta "Indartze"an oinarritzen den behaviorismo garbiaren ordezkaria den bitartean, Osgood-ek "bitarteko estimulua" ezartzen du Pavlov-en "hurbiltasunaren teorian" oinarrituz, hizkuntz jabekuntza adierazteko Skinner-ek aurkitzen dituen zailtasunak konpondu nahiez. Teoria askoz irekiagoa eta zabalagoa Bandura eta Walters-en eskutik dator kigu, eta, bestek beste, "hizkuntza eragile askoren emaitza" (1987) dela diote autore hauek.

### 2.3.-HURBILTZE LINGUISTIKOA EDO INNATISMOA

Joera honen barruan kokatzen diren teoria guztiek, mintzairak erabileratik aske den egitura edo gramatika duela diote. Bestalde, gizakiok dugun sortzezko ezaugarria dela ere azpimarratzen dute. Horrela izanik, jokabide honek oinarri genetiko sendoa dauka eta inguruneak eragin gutxi du hizkuntzaren heldutasunean.

Chomsky-k 1957an *Syntactic Structures* argitaratu zuen. Bertan dioenez, gramatika egokiak bihurtzaile-sortzaile behar du izan, hizkuntza bateko hitzunek ekoiztu eta ulertu ditzaketen perpaus guztien berri eman ahal izateko.

Sortzezko osagai linguistikoa Chomsky-k (1965)<sup>2</sup> L.A.D (Language Acquisition Device) deituraz izendatu zuen *Aspects of the Theory of Syntax* lanean, hau da: hizkuntz jabekuntza-mekanismoa; eta bera litzateke hizkuntzaren bilakabidean espezializatua dagoen garuneko zati fisiologikoa. Mekanismo honen bidez, helduen hizketa konplexutik abiatuz, haurra gai da egitura gramatikalak eratzeko. Gauza da, sortzez, "unibertsal linguistikoak" ezagutzeko eta inoiz entzun ez dituen perpausak ulertu eta ekoizteko. Ingurunearen beharra onartzen bada ere, aipatu sistema linguistikoaren (LAD) heldutasuna martxan jartzeko besterik ez da.

---

<sup>2</sup> Erabili dugun edizioa 1976. urtekoa da "Aspectos de la teoría de la sintaxis".

Gramatika bihurtzaile-sortzailearen teoriaren berrazterketa eskeini zigun Chomsky-k aipatu lanean. Bi egitura ezberdinaz mintzo zaigu: "azaleko egitura" eta "sakoneko egitura". Lehenengoa, perpaus ahoskatu edo idatziari dagokio eta bigarrena aipatu "unibertsal linguistikoei. Egitura batetik besterako bidea transformazio arauen bidez egiten da.

Ondoren, 1981. urtean *Lectures on Government and Binding* argitaratu zuen. Gramatika, sistema modulatu gisa aurkezten digu bertan. Horrela, mintzairaren erabileran gogamenaren zenbait moduluk parte hartzen du, erabiltzen den hizkuntzaren gramatika, pragmatika edo munduarekiko gizabanakoaren ezagupena eta mezu linguistikoen ulergarritasun ataria zehazten duten zenbait pertzepziozko mekanismoak besteak beste.

Teoria honetako hizkuntzaren ikuspegi parametrizatuak, hizkuntza naturaletan ikusten diren ezberdintasunak aldakuntza mugatu eta sistematiko batzutara mugatzen direla erakusten du. Horrela, gramatika unibertsalak, haurraren baitan estrukturazko zenbait aukera jartzen du. Haurrak aukera hauek ez ditu bere inguruan nabari duen hizkuntzaren arabera ikasi behar, aipatu estruktura horietako bat bere hizkuntzara moldatu baizik, hau da, parametroa ezarri beharko du dagokion balioan.

Printzipio unibertsaletik abiatuz eta dagozkion parametroak ezarriz, haurrak gramatika konplexu eta aberatsa eraikitzen du. Gramatikaren jabekuntza, ezagutza bidezko garapen orokorra eta lexikoaren parametrizatu gabeko ikaskuntza gero eta zabalagoarekin batera doa.

Radford-ek, bere aldetik, helduek eta haurrek ekoizten dituzten perpausak aztertu ondoren, *Small children's small clauses* (1988a) lanean, antzekotasunak eta ezberdintasunak aurkitu zituen. Haur txikiek oinarritzko lau kategoria lexikalak (izena, aditza, adjektiboa eta preposizioa) ezagutzen dituztela dio, baina oraindik ez, abstraktuagoa den kategoria gramatikalen sintaxia. Horrela, bere aurkikuntzak tradiziozko hizkuntz jabekuntzari buruzko ikerketen ekarpenekin bat datozela adierazten du, hau da, kategoria lexikalak kategoria gramatikalak baino lehenago ikasten direla (Brown eta Fraser, 1964; -Radfor, 1988-an)

Gramatika sortzailearen teoria barruan lan asko egin ziren arren, semantika alde batera utziz gero, hiztunek eta entzuleek ez dutela lortzen hizkuntzarekiko duten ezaguera adieraztea onartu beharrean aurkitu zen zenbait hizkuntzalari. Horrela Katz eta Fodor-en (1963) semantikaren teoriak, sintaxiaren eta semantikaren hurbilketa proposatzen du. Clark-ek (1969, a, b; 1970b; -Engelkamp, 1981-ean) ere, perpausak ezaugarri semantikoz eta esanahien erlazioz oroitzen direla dio, hau da, perpaus bat entzun ondoren, erlazio funtzionalak eta esanahi lexikalak ezagutzen direla. Schlesinger-ek (1971) semantikaren nagusitasuna defendatzen du. Berak dioenez, esanahiak dira lehenik ikasten direnak, eta beranduago, haurrak esanahi hauek gaurkotzen dituenean, forma linguistikoa emango lieke. Horrela, sintaxia bere ustez, semantikaren elementu laguntzailea litzateke.

Garunaren zati bat mintzairan espezialduta dagoela onartzen duen Chomsky-ren innatismoaren teoria eta gero azalduko dugun Piaget-en hizkuntzaren jabekuntza-teoriaren artean kokatzen da Lenneberg-ena, kontuan izanik azken biak elkarrekintzak ingurunearekin duen garrantzia azpimarratzen dutela. Eric. H. Lenneberg-en (1974) ustez, gure espeziean bakarrik izan litekeen komunikazioa gauzatzen duen hornidura genetikoa legoke. Mintzairaren oinarria, ikertzaile honen ustez (1975), nerbio-sistema zentrala eta heltze prozesua behar duten organo

periferikoetan legoke. Horrela bada, hizkuntzaren gaitasun-ahalmenaren oinarriak, genetikoki transmititu daitezkeela uste du. Mintzairaz jabetzeko ahalmenari dagokionez bestalde, adimenetik hein batean aske dagoen garapen biologikoa defendatzen du. Hala eta guztiz ere, sortzekotasun linguistikoa baino, ingurunearekin elkarrekintzan --nahiz eta hau ez izan erabakitzaile-- adinaren eta beste trebetasunen garapenean kokatzen du hizkuntzaren jabekuntza.

## 2. 4. - EZAGUTZA BIDEZKO ELKARREKINTZA

Orain arte ikusitako teoriak erradikalak badira ere, hurrengo hau bien arteko zubitzat har daiteke, bakoitzaren argudio sendoenak onartzen dituenek. Faktore askok (sozialak, linguistikoa, heldutasun biologikoa eta ezagutza mailakoak) dutela eragina garapenaren bilakabidean eta bata bestearen mendeko direla onartzen du. Chomsky-ren tradiziozko linguistikak sortzeko egiturak azpimarratzen dituen bitartean, aztertzen ari garen teoriak, Piaget aintzindari dela, azaltzen du, egiturak ez direla ez sortzekoak ez ikasiak, eraikiak baizik. Datuei dagokienez, Chomsky eta bere mintzairaren ikuspegia "gaitasunean" oinarritzen diren bitartean, Piaget eta bere jarraitzaileak "ekintzaz" arduratzen dira, hitz egiterakoan hurrek egiten dituzten erruak barru.

Mintzaira, teoria honen ustetan, giza ezagutza bidezko jarduera orokorrago baten adierazpena litzateke. Ezagutza bidezko sistemaren garapena, beharrezkotzat jotzen da adierazpen linguistikoa lortu ahal izateko. Eginkizun garrantzitsuena, horrenbestez, ezagutza bidezko heltze sekuentziak ezagutu eta ezagutza bidezko garapen hau hizkuntz jabekuntzan nola isladatzen den adieraztea litzateke.

Piaget eta Genevako eskolaren teoria, beraz, konstruktibismoa da. Baina Piaget bera ez da zuzenki hizkuntzaren jabekuntza-teoria zehatz bat adierazten ahalegindu. Bere benetazko interesa, giza-ikaskuntza eta ezagutza-garapena izan dira. Garapenaren heltze-aroak ezberdinak ikertu ditu eta lau aro nagusi ikusi (Piaget, 1981):

- 1.- Aro sentso-motorea (2. urtea arte)
- 2.- Aro aurre-operatiboa (2. - 7. urteak arte)
- 3.- Operazio zehatzen aroa (7. - 12. urteak arte)
- 4.- Operazio formalen aroa

Aro bakoitza, organismoaren heldutasunaren eta ingurunearen arteko elkarrekintzaren emaitza da Piaget-entzat.

Hizkuntz jabekuntzari dagokionez, adimen sentso-motoreko adinean, mintzaira funtzio semiotiko edo sinbolikoaren kasu berezi bat besterik ez litzateke, garrantzizko kasua bada ere. Funtzio honen ezaugarri nagusia, adierazleak eta esanahiak bereiztea da. Funtzio semiotikoa bigarren urtean zehar azaltzen da, eta testuinguru honetan azaltzen da mintzaira. Bi gaitasun hauen arteko aldiberekotasuna ez da ustekabekoa Piaget-en ustez (1965). Bestalde, imitazioaren testuinguruan batez ere, haurra hizkuntzaz jabetzen dela dio .

Piaget-en hizkuntzaren jabekuntza-teoria sendotu egin da bere zenbait lankidek eginiko ikerketei



esker, hizkuntza eta operazio intelektualen arteko erlazioa aztertu zutenean. Ikerketa hauek *Adquisición del lenguaje y desarrollo de la mente* (1978) lanean Sinclair de Zwart-ek bildu zituen. Lan honetan azaltzen diren emaitzek diotenez, mintzaira ez da logikaren iturria, honek mintzaira egituratu egiten du.

Sobietar eskolako eta konkretuki Vygotsky-ren munduarekiko ikuspuntua, filosofia materialista dialektikoan oinarritua zegoen, eta honen arabera ahalegindu zen gizakiaren jardura psikologikoaren irudi bat eraikitzen. Hizkuntz jabekuntzari dagokionez, beste adimen-operazioek jarraitzen dituzten bide eta lege berdinak jarraitzen dituela adierazten du. Bestalde, Vygotsky-k (1981a) barne-mintzairaren sorrera ikertu zuen bereziki eta bere iritziak Piaget-enei aurrejartzen zaizkie.<sup>3</sup>

Vygotsky-rentzat hitzen lehen funtzioa haurrengan nahiz helduengan komunikazioa da, gizarte harremana. Hori dela eta, haurrengan lehen mintzaira soziala da batez ere. 3.-4. urte bitartean, hizkuntzak bi funtzio betetzen ditu: barne-pentsamendua zuzentzeko balio duen barne-funtzioa eta besteei pentsamendua adierazteko kanpo-funtzioa. Haurra bi funtzioak bereizteko gai ez denez, Piaget-ek "hizketa egozentrikoa" izendatzen duena sortzen da, Vygotsky-rentzat "hizketa sozializatua eta barne-hizketa" dena. Hizketa mota hau ez da hizketaren azpisaila, guztiz askea den funtzioa baizik. Pentsamenduaren garapenaren egiazko norabidea ez doa banakotik sozializaturara, alderantziz baizik. Eskola errusiarreko beste ikertzaile garrantzitsu batek ere, A. R. Luria-k (1980) hain zuzen, Vygotsky-ren bide berdintsua jarraitzen du.

#### **2. 4. 1. - Mintzaira eta pentsamendua**

Mintzairaren eta pentsamenduaren arteko erlazioaren arazoak, filosofiaren nahiz psikologiaren eremuetan interesa sortzen jarraitzen du.

Watson, behaviorismo amerikarraren aitak, pentsamendua hezkutuko hizketa besterik ez dela adieraztean, bi jakintzagaien arteko erlazio estuaren alde dagoela erakusten digu. Vygotsky-k (1981a) eta eskola errusiarrek, bere aldetik, haurtzaroan mintzaira eta pentsamendua loturik aurkitzen direla badio ere, pentsamendua heldutasunera iristen denean, mintzairatik nolabaiteko askatasuna lortzen duela baieztatzen du. Genevako eskolak, eta honen barruan Piaget-ek (1965), mintzairak isladatu egiten duela dio garapen kognitiboan, ez erabaki. J.S. Bruner (1986) Piaget eta Vygotsky-ren jarrerak irizkidetzen saiatzen da.

#### **2. 4. 2. - Innatismoaren eta konstruktibismoaren arteko konponbide bat.**

Ikusi dugunez, bi joera hauetako ikertzaile nagusienak Chomsky eta Piaget dira. Portaeraren eta ezagueraren teoria enpiristen gaitzezpena da biek onartzen duten puntu garrantzitsuena.

---

<sup>3</sup> Kontuan eduki behar da kritika hauek Piaget-en lehen lanetan oinarritzen direla, 1923-1924 urteetakoetan, hain zuzen, eta ikertzaile honek gerora bere teoriak birformulatu egin zituela.

Eztabaidatzen dutena ordea, innatismoaren arazoa da, kontuan edukiz Piaget-entzat (Chomsky eta Piaget, 1983) ezagutza bidezko edozein portaerak, funtzionamenduan behintzat, sortzezkoa den zati bat izan arren, egitura pixkanaka eraikiz doala, autorregulazioz. Hau da, Piaget-en ustez herentziazkoa den bakarra adimenaren funtzionamendua den bitartean, Chomsky-k "giza mintzaira" bihotza edo begiak bezain sortzezko egituraren jabe da "buru-organoa" dela baieztatzen du.

Hala ere, Piaget-ek berak adierazten duenez, bien arteko akordioak funtsezkoak direla-eta, mintzairaren innatismoari edo herentziari ote dagokion arazoa azalekoa da. Haren ustez, ez dago gatazka garrantzitsurik Chomsky-ren eta beraren linguistikaren artean.

Bestalde, Slobin-ek (1985) proposatutako ereduak ere bi teoria hauen arteko hurbilketa gisa ikus daiteke, eredu honen aspektu asko giza-ezagutza bidezko gaitasun orokorrean oinarritzen diren bitartean, beste batzuek espezifikoki mintzairari baitagozkio bere ustez.

## 2. 5. - ELKARREKINTZA SOZIALA

Korronte honek, tradiziozko behaviorismoa eta ikuspegi linguistikoen zenbait alderdi elkartzen ditu bere baitan. Mintzairak baduela egitura onartzen du --eta honekin korronte linguistikora hurbiltzen da-- baina, egitura hau lortzeko, ingurunearen rolak duen garrantzia ere azpimarratzen du, behavioristen ikuspuntuarekin bat eginez.

Vygotsky (1981a) izan zen ikuspegi honetako aintzindarietako bat. Gorago aipatu dugunez, hasiera batean haurrentzat, hizkuntza elkarrekintza sozialerako tresna bat da, eta geroago, barne-mintzaira bilakatzen da.

Ikuspegi hau sendotu duen eta aipatu beharreko beste ikertzailea J.P. Bronckart (1978a) da. Autore honentzat, haurrak eta helduek duten elkarrekintzak, eragina du haurren jokabide orokorrean eta hizkuntzaren bilakabidean.

Teoria honen arabera, haurrak hizkuntza ikasteko behar duen esperientzia lortzeko, gurasoak hartzen ditu eredutzat. Haurra eta bere inguru linguistikoa sistema eragileak dira, eta komunikazio sozial eraginkorra lortu ahal izateko, elkarrenganako beharra dute.

Hizkuntzaren garapena, arauen jabekuntzaren pareko ikusten da, baina azpiko egituraren antolaketa ez da sortzezkoa, elkarrekintza sozialaren zehar konbentzionalizatua baizik.

Errepikapena eta imitazioa garrantzizkotzat hartzen dira hizkuntz jabekuntzan, garapenean funtzio inportanteak bete ditzaketelako, nahiz eta behaviorismoak ematen dion adinakoa ez izan.

Haurren inguruneke rol linguistikoa haren beharretara moldatzen da, hasieran gramatikazko input xumea eduki behar badu ere, haurra heldutasun linguistikoa lortzen doan neurrian, ingurunetik lortzen dituen datuak gero eta konplexuagoak baitira. Horrela bada, amaren rolak<sup>4</sup>

---

<sup>4</sup> Hau esaterakoan, normalki amari buruz ari badira ere, haurren inguruan dagoen edozeini dagokio, 3-4

garrantzi handia du haurren hizkuntzaren garapenean, teoria honen arabera (L. Wyatt, 1973), kontuan izanik ama --edo haren ordezkaria-- izango dela bere talde sozialeko hizkuntzaren berri emango dion lehena.

"Ama-hizkuntzaren" ikaskuntza beraz, esperientzia guztiz emozionala da haurrentzat, eta ikaskuntza emozional guztiak bezala, imitazio ohartuaren eta identifikazio oharkabearen bidez egiten da.

Hizkuntzaren jabekuntza ikuspegi honetatik aztertu duten Snow eta Ferguson-ek (1977) diotenez, ama-hizketari buruzko lehen lanak 60. urteetakoak dira, eta hizkuntzaren jabekuntza sortzekoa dela eta inguruetik aske gertatzen dela ideia baztertzeko balio izan dutela azpimarratzen du. Aldi berean, alderdi sintaktikoen ordez, semantiko zein ezagutza-bidezkoek garrantzi handiagoa eman behar zaiela erakutsi dute.

J. B. Gleason-ek ere (1977) ama-hizkuntza aztertu ondoren, haurrengan Chomsky-k (1986) aipatutako ezaugarri unibertsalak dauden bezala, agian haurri zuzendutako hizkuntzan ere ezaugarriak unibertsalak izango lirakeela adierazten du. Hizkuntz jabekuntza elkarrekintzazko bilakabidea da ikertzaile honentzat, eta neurologikoki ondo hornitutako haurraz gain, haurrekin konprometzuzko komunikazio-harremana edukiko lukeen pertsona heldua eta haurrengandik kanpo dagoen zenbait objektu direla beharrezko adierazten du.

Horrela bada, "ama-hizketa" eta "haurren hizketari" (baby talk) buruzko lan asko egin dira, hizketa hauen ezaugarri nagusiak azpimarratuz (Snow, 1976; Phillips, 1973; Satz eta Gelman, 1973; Sachs eta Devin, 1976, Andersen eta Johnson, 1973; Gleason, 1973; -Ferguson 1977-an). Charles A. Ferguson-ek (1977) "erregistro sinplifikatua" bezala ikusten du "haur-hizketa". Rondal-ek (1990) bere aldetik, momentu bakoitzean haurren gaitasun linguistikoaren arabera hitz egiten zaiola dio. Gleason-entzat (1977), berriz, haurra bera da helduen jokabide linguistikoa martxan jartzen duena.

## **2. 6. - AIPATUTAKO TEORIEN BALORAZIO KRITIKOA**

Haurren hizkuntz jabekuntzari buruzko teoria batzuen eta besteen aurkezpena egin ondoren, horien alderdi ahulenak azpimarratzen saiatuko gara orain:

### **2. 6. 1. - Behaviorismo edo konduktismoa**

Korronte behavioristak jasan behar izan duen kritika zorrotzenetako bat bere ikerketek dagokiena da. Izan ere, hizkuntzaren jabekuntza-bilakabidearen ereduaz azaldu nahian, korronte honek aurkeztu dituen lan gehienak subjektu heldu eta hizkuntza artifizialean oinarritutakoak dira. Oso bestelakoa da, ordea, helduek jadanik ezagutzen dituzten egitura gramatikalen erabilpena gehitzea eta haurrek erregela berriak ikasi ahal izatea. Hori dela eta, beraien ikerketak haurrengan oinarriturik egin beharko lituzkete behavioristek.

---

urte bete dituzten haurrak ere barne. Hala eta guztiz ere, hau gure gizartean horrela gertatzen den bitartean, beste zenbaitetan, adibidez Luo, Samoyano edo Kao (Indian) herrietan ez da izaten ama input garrantzitsuena eskaintzen diona haurri; eginkizun hau gehiago dagokio sendi osoari.

Bestalde, imitazioak hiztegia edo fonologia bezalako zenbait datu fisiko argitu dezakeela onartzen bada ere gaur egun, ezin du argitu imitazio fisiko hutsetik nola iritsi daitekeen arauen ezagupenera. Skinner-en teoriak ez ditu kontuan hartzen teoria morfologikoa, sintaktikoa, etab. Horrela bada, imitazioak beste zerbaiten menpe egon beharko luke. Gainera, korrante honek ez du argitzen hurrek zenbait aspektu imitatzearen eta beste batzuk baztertzearen zergatia.

### **2. 6. 2. - Innatismoa**

Teoria honen printzipio nagusia, hau da, gramatika programatutako sortzezko mekanismoz bakarrik ikas daitekeela dioena, bere aurka dago hizkuntzaren jabetzea sintaxiari baino, semantikari dagokiola frogatzen ari denez. Gainera, gramatika ikasi ahal izateko printzipiorik ez ezagutzeak, ez du esan nahi sortzezkoa denik.

Hizkuntz jabekuntza, teoria honen barruan aztertzen saiatu direnek, hizkuntza oso goiz garatzen dela diote: hau da, 3.-4. urte inguruan dagoeneko garrantzizkoenaz jabetu direla adierazten dute. Beranduago ere, ordea, arau konplexuagoak ikasten jarraitzen du haurrak Chomsky berak onartzen duen bezala (adibidez, erlatibozko perpausak).

Inguruak hizkuntzarengan duen eraginaren garrantzia ez onartu izana da teoria honen beste puntu ahul bat, haurrak hiztun helduekin elkarrekintza behar duenez. Eredu linguistiko-formala hizkuntzaren zenbait aspektu aztertze oso egokia dela adierazten badu ere Idiazabal-ek (1991), giza-hizkuntza funtsez soziala eta komunikatiboa dela esaten du eta, bere jabekuntza aztertzerakoan, ezin direla alderdi hauek baztertu.

Ez da nahikoa hurrek duten sistemarekiko barne-egitura azaltzea, egitura hau nola erabiltzen duten ere adierazi behar dela dio I. Vila-k (1990). Eta hizkuntzaren erabilketa edo funtzioa, arau edo egituraren aurretik doala adierazten du.

### **2. 6. 3. - Ezagutza bidezko elkarrekintza**

Haurrak ez du erregulariki eta gramatikalki ikasten, morfemaren markek erakusten duten kontzeptuaren ezagupena lortzen ez duen bitartean. Horrela, teoria honen arabera, ezagutza bidezko eta semantika kategorietan oinarrituko litzateke gramatika goiztiarra.

Horrela, korrante honek innatismoak dituen arazo asko alde batera uzten ditu, hizkuntza sortzezkoa ez dela, baina hizkuntzaren ezagutza bidezko aitzindari ez-linguistikoak agian jaiotzetik haurraren daudela onartzerakoan. Hala eta guztiz ere, zenbait kritika egiten zaio korrante honi.

Ezagutzen diren zenbait azterketatan (Curtis eta beste, -Bohannon eta Warren-Leubecher, 1985-ean) ezagutza bidezko trebetasunak eta linguistikoak alderatu behar direla ikusi izan da. Horrela,

zenbait hurrek<sup>5</sup> ezagutza bidezko eginkizun ahulak erakutsi arren, hizkuntza normalki ikasi zuen eta alderantziz. Hori dela eta, ikertzaile hauen ustetan, Piaget-ek eraikitako teoria ez dator bat beren aurkikuntzekin.

Egia bada ere kasu hauek ohikoak ez direla, bai ordea kontuan eduki beharrezkoak. Horrela bada, ezagutza bidezko garapenak hizkuntzaren garapena baldintzatzen duela dioen baieztapena, frogatu gabe geratzen da. Bestalde, ordea, korrante honetako hipotesia kontrajartzen duten kasu gutxi ezagutzen dira.

#### **2. 6. 4. - Elkarrekintza soziala**

Teoria honen abantaila, korrente behaviorista eta sortzekotasuna edo korrente linguistikoaren alderdiak onartzen dituela da. Horrela, haurrak sortzez hizkuntzarekiko duen joeraren eta ingurune linguistikoaren arteko erlazioan garatzen dela hizkuntzaren egitura onartzen du.

Vygotsky (1981a) ikuspegi honetako aintzindarizat har dezakegu, berak adierazi zuenez, hizkuntzaren lehen funtzioa komunikazioa baita, gizarte harremana. Bronckart-en ekarpena, bestalde, azpimarragarria da, bere ikuspegi eta lanek erakusten dutenez.

Korrante hau onartzen duten zenbait ikertzailek, bestalde, hurrei zuzendutako hizkuntzak duen eragina aztertzen dute.

Ezaugarri bereziak dituen hizkuntza mota hau hizkuntz jabekuntza lortu ahal izateko beharrezkoa bada ere, agian helduen hizkuntzaren ezaugarri linguistiko edo paralinguistiko gutxi batzuk besterik ez dira derrigorrezkoak. Nahiz eta amak eskaintzen duen estimulazio linguistikoa haurren hizkuntzan isladatu, erlazio kuantitatibo hau ez da nahikoa hizketa mota honek eskaintzen dituen errepikapen edo sinplifikazioek, haur-hizkuntzaren egitura erakusten dutela dioen hipotesia frogatzeko Bates eta besteek (1983; -Bohannon eta Warren-Leubecher, 1985-ean) dioten bezala.

Bestalde, Gleitman, Newport eta Gleitman-ek (1984; -Bohannon eta Warren-Leubecher, 1985-ean) inguruneak zenbait item linguistikotan bakarrik duela eragina diote. Ezaugarri hauek, azenturik gabe azaltzen diren delako "klase itxi"koak dira eta hor sartzen dira inflexioak eta determinanteak, osagarriak, zenbait preposizio eta denbora marka. Azentudun diren elementuek eta gainera edukina dutenek, hau da "klase irekia" osatzen dutenek, ez lukete inguruneko eraginik jasoko, hau da input-etik aske geratuko lirateke. Badirudi bereizketa honek, input-a eta ekoizpenaren arteko erlazioa aztertzeko, eta hizkuntz jabekuntzaren mekanismo bat deskribatzeko bidea eskaintzen digula.

Input linguistikoarentzat atari baten beharra ere eztabaidatua da, amaren input-a ona bada ere, honek ez baitu esan nahi zenbat eta input gehiago jaso haurrak, hobeagoak izango direnik emaitzak. Horrela, beharrezkoa ikusten bada ere, input gehigarria alperrikakoa izan daiteke.

---

<sup>5</sup> Ikerketa hauek Turner sindromea zuten haurrengan (sortzetiko kromosoma-anormaltasuna) edo aski ezaguna den Genie bezalako kasuetan oinarritutakoak dira.

Hala eta guztiz ere, hizkuntz jabekuntza aztertzen duten ikertzaile askok, teoria bat adierazteko aurkitzen dituzten arazo multzoei erantzuna emateko bidea ikusten dute hemen. Korrante honen izaerak, hizkuntz jabekuntza atal soil batean oinarritzea baino zeregin konplexuagoa dela ikusten duten ikertzaile asko erakartzen ditu.

## 2. 7. - ONDORIO OROKORRAK

Ikusi ahal izan dugunez, hizkuntz jabekuntzari buruzko teoria batzuk eta besteak, guztiz urrun dauden bi muturren tartean kokatzen dira. Alde batean, haurra jaiotzez huts dagoela eta ingurunekeo estimuluei esker lortuko duela dena dioen Skinner-en ingurunerkeria hutsa dago, eta bestean hizkuntzaren jabekuntza gizabanako bakoitzaren gain dagoela batez ere dioen Chomsky-ren teoria. Bi mutur hauen tartean, hizkuntz jabekuntzari buruzko ikuspuntu eklektikoagoa erakutsiz, aurkitzen dira beste teoria guztiak. Lenneberg-en heldutasunaren teoria, inguruneari dagokionez, Chomsky eta Piaget-en teorien artean aurkitzen da. Ezagutza bidezko teoriari dagokionez, Chomsky-ren innatismoa onartzen ez duen Piaget-en konstruktibismoa aurkitzen dugu. Piaget-en jarraitzaile den Genevako eskolak, berriz, Piaget-en teorian dauden hutsuneak gainditu nahiean, Piaget, Chomsky, Vygotsky etab.en ideiak onartzen ditu. Vygotsky eta eskola errusiarra ere aurkitzen dugu eta hauen ustetan hizkuntz jabekuntzan sortzezko nahiz jabetutako faktoreek hartzen dute parte. Sortzezkoa, hizkuntzarekiko ahalmena da, baina ahalmen hau ez litzateke kanporatuko gizarteak eskaintzen duen estimulaziorik gabe. Elkarrekintza sozialak ere behaviorismoa eta teoria linguistikoen zenbait ikuspuntu bateratzen ditu, eta teoria horren punturik sendoena haurraren hizkuntz garapenean amak betetzen duen rola da.

Horrela bada, haur-hizkuntzaren jabekuntza ikuspuntu ezberdinetatik azaldu daitekeela ikusi dugu, hainbat hipotesi eta munduaren ikuspegi kontrajarriak ere kontuan hartuz,. Gure aldetik, teoria hauetako bakoitzean printzipio baliagarriak eta gaitzetsi beharrekoak ikusi ahal izan ditugu.

Alde batetik, beraien printzipioetan gehiegi fidatu direlako, behavioristak ez dira gai izan hizkuntzaren jabekuntza-teoria adierazteko, baina korrante honek, bestalde, guztiz onartua duen imitazioak baliagarria izaten jarraitzen du hizkuntzaren jabekuntza-bilakabidearen zati bezala, eta innatismoaren defendatzaile sutsuenek ere, inguruko jokabide linguistikoekin harremanetan egoteko haurrak duen beharra onartzen dute.

Teoria linguistikoak ere gehiegi fidatu dira hizkuntzaren innatismoaz, zenbait hizketa formaren jatorria adierazteko gai izan ez badira ere.

Ikusi dugu, horrenbestez, bi teoria hauek beren printzipioetan gehiegi oinarritzen direla hizkuntz jabekuntzaren berri eman ahal izateko. Teoria hauek, gorago adierazi dugun bezala, kontuan eduki beharreko ikuspegiak badituzten arren, elkarrekintzaren teoriak -- ezagutza bidezko zein soziala -- behaviorismoaren eta teoria linguistikoaren arteko eztabaidan irtenbide bat eskaini dezaketela uste dugu. Ezagutza bidezko teoriarentzat, hizkuntz jabekuntza, haurrak jabetu behar dituen beste ezagutzen arteko bat besterik ez den bitartean, teoria sozialak haurra kokatuta dagoen eta hizkuntza ikasiko duen ingurunean jartzen du ardura berezia. Elkarrekintzaren teoria

hauek, bestalde, ez dituzte erabat baztertzen aurrekoak, eta hizkuntzak egitura bat eta unibertsal linguistikoak dituela, edota haurrak ingurunearen rola zein imitazioaren beharra duela onartzen dute, besteak beste. Gramatika funtzionalak, bestalde, Bates eta McWhinney (1982; -Bohannon eta Warren-Leubecher, 1985-ean) hizkuntzaren dimentsio funtzional eta egiturazkoak elkartuz, bide berriak irekitzen dituzte ikerketan.<sup>6</sup>

Hizkuntz jabekuntza bezalako eginkizun konplexua, gure ustez, ezin da aspektu bakar batean oinarritu, eta lan honetan zehar azaldu diren puntu gehienek dutela garrantzia iruditzen zaigu haurren hizkuntz garapenean. Hizkuntzak, giza-trebetasuna den neurrian, berezia den zerbait -- sortzezkoa zein jabetua-- duen iritzikoak gara, baina trebetasun hau garatu ahal izateko, haurrek ingurunearen beharra dute: inguruko helduekiko elkarrekintzan lortuko dute hizkuntz jabekuntza. Bestalde, haurren ezagutza bidezko trebetasunak denboran zehar garatzen doazela uste dugu eta haurren hizkuntzarekiko jarrera ez dela berdina bilakabide honetan, gaitasun hauek eragina dutela baizik hizkuntzan. Horrela bada, hainbat aspektu elkartzen duen eta, denak baturik, mintzairaren "misterioa" errealitate bihurtzen duen jarrera eklektikoan kokatzen gara.

### **3.- HIZKUNTZAREN JABEKUNTZA ETA ELEBITASUNA**

#### **3. 1. - ZER DA ELEBITASUNA?**

---

<sup>6</sup> Ingelesean adibidez, hitzen ordenak subjektua edo egilea adierazten du. Italiarrek berriz, askeagoa du hitzen ordena. Horrela, haur ingelesek perpausen hasiera subjektuaren kokagune gisa erabiliko dute haur italiarrek baino lehen.

3.2.- HAUR ELEBIDUNEN SAILKAPENA

3.3.- ELEBITASUNA ETA GARAPEN KOGNITIBOA

3.4.- ELEBITASUNAREN GARAPENEAN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK

3.4.1.- Ingurune soziokulturala

3.4.2.- Elebitasunaz jabetzeko adina

3.5.- IKASKETA ELEBIDUNAREN MAILAK

3.6.- NAHASKETA EDO BATEGITEA

3.7.- HIZKUNTZEN BEREIZKETA ETA ELEBITASUNA

3.8.- HIZKUNTZ SISTEMEN GARAPENA

3.9.- GRAMATIKAREN GARAPENA

3.10.- ONDORIOAK

### **3. - HIZKUNTZAREN JABEKUNTZA ETA ELEBITASUNA**



### 3. 1. - ZER DA ELEBITASUNA?

Elebitasunaren kontzeptua oso erlatiboa da; berez gehiago da galdera termino absolutua baino. Ezagutzen ditugun definizioak oso ugariak dira eta oso ezberdinak, eta bakoitzak elebitasunaren ikuspegi konkretu bati erantzuten dio. Hori dela eta, zailtasun handiak aurkitzen ditugu termino hau definitzerakoan. Bestalde, elebidunak berak ere mota askotakoak dira, aurrerago ikusi ahal izango dugunez.

Horrela bada elebitasunari buruz definizio ugari dago. Batzuek "elebakarrak ez izatearen parekotasuna erakusten dutenen egoera" bezala (Hugen, 1956; -Tabouret-Keller, 1977-an) ikusi izan dute, edota "bi hizkuntzen erabilera txandakatu" bezala (Weinreich, 1953; -Hamers eta Blanc, 1983-an). Bestalde, Charlotte Hoffman'ek (1989) jaiotzetik bi hizkuntza edo gehiagorekin harremanetan dagoen eta aldi berean eskuratzen dituen haurraz mintzatzeko erabiltzen du elebidun hitza.

J.F. Hamers eta M. Blanc (1983) *Bilingualité et Bilinguisme* lan ezagunean, bai hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen dituen pertsonaren psikologi egoera aipatzeko, bai norbanakoen eta taldeen arteko harremanetan bi kode edo gehiagoren erabilpena adierazteko, hizkuntzen arteko harremanaz mintzo zaizkigu. Bestalde, "elebitate" eta "elebitasun" terminoak ere bereizten dituzte, lehena norbanakoari, hau da, hizkuntza kode bat baino gehiago ezagutzen dituenaren psikologi egoerari egokituz eta bigarrena banakako elebitasunari zein bi hizkuntza ezagutzen diren komunitateari leporatuz. Egoera honetan bada, bi kode erabil daitezke eta pertsona kopuru bat elebiduna da.

Idazle hauek, haurtzaroko elebitatea haurraren garapen orokorrarekin batera doan esperientziaz parekatzen dute, hau da, haurrak bere garapenaren osagaietan oraindik heldutasuna lortu ez duenean. Haurra bigarren hizkuntzarekin harremanetan jartzen den unea kontuan hartuz, bi eratako elebitasunen bereizketa egiten dute gainera:

a) Une bereko elebitate goiztiarra: hizkuntz jabekuntza hasi orduko, haurra bi ama-hizkuntzaz (LA eta LB) jabetzen denean.

b) Hurrenkerazko elebitate goiztiarra: haurra goiz jabetzen denean bigarren hizkuntzaz, baina bere ama-hizkuntzaz jabetu eta gero.

Zenbait ikerketaren ondoren, elebiduna bi elebakarren batuketa soila ez dela frogatu izan da, elebakarrek sortzen ez duen elebitate-egoerari dagozkion jokaera bereziak sor ditzakeela baizik.

Annick de Houwer-ek (1987) ere bi elebidun mota bereizten ditu. Alde batetik, jaiotzetik bertatik bi hizkuntzarekin harremanetan egon diren haurrak. Kasu honetan, Meisel-ena den "Lehen jabekuntza elebiduna" terminoa proposatzen du. Bigarren mota, bigarren hizkuntzarekin bizitzako lehen hilabetearen ondoren harremanetan egon diren haurrei dagokie. Kasu honetan erabiltzen duen esamoldea "Bigarren hizkuntzaren jabekuntza goiztiarra" da. Hau da, irekia uzten du jaiotzetik bi hizkuntzarekin harremanetan egon den haurraren bilakabidea eta jaio eta hilabete beranduago bigarren hizkuntzarekin harremanetan egon den haurrarena ezberdina izan daitekeen

posibilitatea.

Elebitasunaren definizioa, bestalde, bi koderen ezaguera zehatza duen pertsona dela dioena, edo bigarren hizkuntzaren ezaguera alor zehatz bateko gaitasunera mugatzen dela dioena kontuan hartzen bada, aldatu egiten dela ikus daiteke. Pertsonak, trebetasun eta erraztasun maila ezberdinak izan ditzakete bi hizkuntza edo gehiagotan. Hasieran aipatu dugunez, elebitasuna kontzeptu oso erlatiboa bada, "elebitasun maila" da aurrez aurre dugun arazoa, edo beste hitzetan esanda, zein neurritan ezagutzen dituen norbaitek bi hizkuntzak.

Arazo hau ikertzen saiatu diren jakintzagaiek gainera, beren ikuspegitik bideratzen saiatu dira, hala nola, hizkuntza, soziologia, fisiologia etab. Baina, alderdi guzti hauek beren artean zerikusia dutenez, gizon edo emakume elebiduna jakintzagai hauen gehiketa da ezbarik gabe.

Fishman-en (1982) arabera, hizkuntzalariek eta psikolinguistek bi taldetan sailkatzen dituzte elebidunak. Lehenengoan "elebidun konposatuak" egongo lirake, hau da, bi hizkuntzetako batean pentsatzen dutenak, gehienetan jatorrizko hizkuntzan. Bigarren taldea "elebidun koordinatuei" legokieke, bi hizkuntzak bereizteko ahalmena dutenei alegia. Autore honentzat ordea, elebidunak ez ditu bakarrik bi hizkuntzak menderatzen, baita bi izaera ezberdin ere, errealitatearekin harremanak antolatzeke bi ere ezberdin.

Mackey (1976) bere aldetik, gizarte-giroaz arduratzen da eta elebitasuna ez dela hizkuntzaren fenomeno dio, erabilpenaren ezaugarria baizik, eta ez dela "hizkuntzaren" alorrekoa, "hizketaren" alorrekoa baizik.

Elkarren artean lotuta dauden ikuspegi ugari lotzen dituen gai baten aurrean gaudela ikusten da, beraz, eta kontuan hartu beharke dira hainbat ikuspegitik gaira hurbiltzen diren ikerketa ezberdinak, egunen batean jakintzagai guztien begikoa den definizioa lortu ahal izateke. Orduan gai izango gara jakintzagai guztientzat baliozko definizioa adierazteke.

### **3. 2. - HAUR ELEBIDUNEN SAILKAPENA**

Famili zein gizarte-ingurunea eta giro batetik eta bestetik jasotzen diren presio eta laguntzak kontuan hartuz, elebidun mota asko dagoen datu ukazina dela-eta, Tove Skutnabb-Kangas-ek (1981; Hoffmann, 1989-an) munduko elebidunak lau ataletan sailkatzea proposatzen du, nahiz eta aitortu ikerketa gehienak familia elebiduneko haurren eta goi mailako elebidunen inguruan eginak direla:

- 1.- Goi mailako elebidunak: Elebitasuna beren kabuz erabakitzen duten pertsonak izango lirake.
- 2.- Hizkuntz gehiengotako partaide direnen seme alabak eta aldi berean murgiltze osoko ikastaroetako partaide edo bigarren hizkuntzan eskolatzen direnak.
- 3.- Ama-hizkuntza ezberdineko gurasoak dituzten familia elebidunetako haurrak. Haur hauek familiako zein gizarteko presioa jasaten dute.

4.- Hizkuntz gutxiengoetako haurrak. Gehienbat gizarteko edo kanpoko presio gogorra jasan eta aldi berean, laguntza eraginkor gutxi duten pertsonak izaten dira.

Ikus daitekeenez, oso ezberdinak izango dira lau aukera hauetako bakoitzetik gauzatzen diren elebidunak, batzuetan elebitasuna aberasgarri gertatuko den bitartean, besteetan alderantzizkoa gertatuko baita.

### **3. 3. - ELEBITASUNA ETA GARAPEN KOGNITIBOA**

Elebitasunaren eta gogamenaren garapenaren arteko zerikusiarri buruzko lehen ikerketak 1960a baino lehenagokoak dira, eta, dirudienez, elebitasunak ondorio kaltegarriak dituela diote haurraren adimenaren garapenean (Pintner eta Keller, 1922; Saer, 1923; -Hamers eta Blanc, 1983-an)

Beren lanetan Ronjat-ek (1913) eta Leopold-ek (1939) horrelako eragin kaltegarririk ez zuten ikusi; alderantziz, haien arabera elebitasunak pertsona aberastu egiten duen arren, ez zuten ideia hau zorrotasunez adierazi.

Lambert-en, (1982) ikerketa da, zalantzarik gabe, metodologi zorrotasunari erantzuten dion lehena, elebakarren eta elebidunen arteko baliozko erkaketa bideratuz. Ikertzaile honek frogatu ahal izan zuen elebidunek nolabaiteko adimenaren nagusitasuna erakusten dutela, -- ezagutza bidezko malgutasun handiagoan adieraziz--, sinbolo-sistema batetik bestera igarotzeko erreztasunari esker. Ezagutza bidezko malgutasun honek laguntzen dio elebidunari, hitzaren azpian dauden eginkizun semantikoen azterketa xeheagoa egiten.

Ikerketa mota hauen ondoren, "ezagutza bidezko abantaila" egiaztatu duten lanak ugariak izan dira, esate baterako Balkan, 1970; Cummins eta Gulutsan, 1974; Liedke eta Nelson, 1968; Bain, 1975; etab. (Hamers eta Blanc, 1973-an). Ikerketa hauek adierazten dutenez, badirudi abantailak sormenezko eginkizunen mailan daudela, eta haur elebidunek esanahi linguistiko baten hautazko izaera ezagutzeko gaitasun handiagoa garatuko luketela.

Hamers eta Blanc-ek diotenez, hitza bere esanahiagandik bereizteko elebidunen ahalmen hori, ezagutza bidezko garapenaren alor guztietan agertuko litzatekeen ezagutza bidezko gaitasun orokorrago baten adierazpena izan daitekeela ikertzaile batzuek adierazten duten bitartean (Genesse, 1980 b), beste batzuk zuhurrago agertzen dira adierazpen honen aurrean (Gorrell, Bregman, McAllistair eta Lipscomb, 1982; -Hamers eta Blanc, 1983-an)

Horrela, lehen lanek elebitasunaren eta adimenaren arteko harremana gaitzesten zuten bitartean, ikerketa berriek harreman hau baikorra dela adierazten dute.

### **3. 4. - ELEBITASUNAREN GARAPENEAN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK**

#### **3. 4. 1. - Ingurune soziokulturala**

Lambert-i, (1982) jarraituz, elkar-menpekotasuna dago bi hizkuntzaren balio soziokulturalen eta estatusen barneratzearen artean. Hau da, inguruneak berdin balioztatzen baditu bi hizkuntzak eta haurrak horrela nabari badu, egoera horrek elebitasunaren garapen egokia bultzatuko du eta ezagutza mailan probetxua jasotzeko eran ikasiko ditu bi hizkuntzak. Ama-hizkuntza gutxi balioztatzen bada ordea, elebitasuna, garatzen den kasuetan, galerazkoa izango litzateke.

Lambert-en ekarpen hauek, Hamers eta Blanc-ek (1983) diotenez, behaketa esperimentaleko ikerketa ugarik eta gehiengoa duten elkarteetako haurrentzako murgiltze-programen azterketek baieztatuak daude.

Hala ere, gizarte-balorapeneko mekanismoak adimenaren egituraketan duen rola azalduko lukeen teoria nagusi baten hutsunea nabari dute ikertzeile hauek; izan ere elebitate motaren eta ama-hizkuntzaren balorapen sozio-psikologikoaren artean dagoen zerikusiak ez du rol honen zergatia adierazten.

Hizkuntzen testuinguruak bereiztea gomendatzen dute elebitasuna ikertzen duten autore ugarik. Arau hau, elebitasunaren jabekuntza laguntzeko asmoz ematen da eta ohiz Ronjat-i izendatutako Grammont-en (1902) legea deritza "hizkuntza bat - pertsona bat", edo geroago, Wilder Penfield'ek adierazi zuenez "giro bat - hizkuntza bat" hipotesia litzateke Hoffmann-en (1989) ustetan. Gai honetaz egin diren lan urriak kontuan hartuz ordea, hipotesi honek haur elebidunen hizkuntzak eta ezagutzak garapenean eragin txikia duten ondoriora heltzen dira.

### **3. 4. 2. - Elebitasunaz jabetzeko adina**

Bigarren hizkuntza ikasten hasteko adin egokiaren kezka eraginda, UNESCO'k 50eko hamarkadan gai honi buruzko ikerketa multzoa antolatu zuen. Ez zen, ordea, espero zen erantzuna aurkitu.

Hainbat autorek, bestalde, haurrek hizkuntza bat baino gehiago ikasteko duten erraztasuna landu izan dute. Autore batzuen ustez, lateralitatea jaiotzerakoan ez da oraindik ageri, haurtzaroen garatuko litzateke, eta, honenbestez, garunaren plastikotasun handiagoari gaineratzen diote erraztasun hori.

Lenneberg (1975) plastikotasun neuropsikologikoaren azkeneraino, hau da, pubertaroraino, joango litzateken "aro kritiko" batez mintzo zaigu. Iparramerikako eskola Transformazional eta Sortzaileko hizkuntzalariek ere, haurrek helduarengan galdua dagoen hizkuntz gaitasun berezia dutela zioten.

Zenbait ikerketak ordea, mintzaira pubertaroa baino geroago lor daitekeela frogatu du (Genie'ren kasua: 13 urte bete arte isolaturik bizi izan zen gazte kaliforniarra). Hori dela-eta, zenbait ikertzailek nahiago dute errezeptibitatea handiagoa den "aro ohargarri" batez mintzatzea. Hala ere zenbait autorek "aro ohargarri" baten hipotesia baztertu egin du, adin handiagoko haurrek bigarren hizkuntza baten zenbait alderdi ikasterakoan abantailak dituztela frogatu ahal

izan baitute.

Hamers eta Blanc-ek (1983) Ekstrand (1981) aipatzen dute. Aro ohargarriari buruzko 40 lanen emaitza aztertu ondoren, ez da aro ohargarri honen aldeko ageri ikertzaile hau. Gainera, bigarren hizkuntza ikasteko biologikoki zehaztutako adin ezin hobea dagoenik ezin dela ziurtatu adierazten du. Horrela, haurrak ez luke ikasteko erraztasun handiagorik erakutsiko: bere eginkizuna txikiagoa litzateke (eskuratu beharreko hizkuntz multzoa helduarengan baino txikiagoa da) eta denbora gehiago izango luke ikasketa egiteko.

Hamers eta Blanc-ekin (1983) jarraituz, elebidun izateko adinik onena, egile hauen ustez, adin goiztiarra da, ez bigarren hizkuntza lortzeko erraztasunagatik, haur elebitasunetik beti ere gehigarria bada, erator daitezkeen ezagutza bidezko abantailengatik baizik.

Gaur egun, mintzairaren funtzionamenduari dagokionez, lehen uste baino malgutasun handiagoa dagoela aitortzen da. Autore askok, gainera, faktore biologiko hutsen aurrean, gizarte-, kultur eta giro-faktoreen garrantzia azpimarratzen dute.

Charlotte Hofmann-ek (1989) adierazten duenez, aro kritikoaren hipotesia onar daiteke, baldin eta soilki jabekuntzaren alderdi motoreei ezartzen bazaie, jatorrizko azentuari adibidez. Baina didaktika egokia eta ikastearen aldeko giroa eta jarrera psikologiko aproposa edukiz gero, adin handiagoko ikasleek ere bigarren hizkuntzaren ahozkeraz zehatza lortu ahal izango dutela uste duenik ere bada.

McLaughlin-en (1985) ustez, bestalde, zenbat eta lehenago jarri haurra bigarren hizkuntzarekin hartu emanetan eta, hizkuntza horrekin duen erlazioa zenbat eta esanahikorra bada, hainbat eta hobe bigarren hizkuntzaren jabekuntza lortzeko.

Esandakoaren ondorio gisa, bigarren hizkuntzaren jabekuntza goiztiarra errazagoa dela onartzen den bitartean, atzerapenak jabekuntza burutu gabea eramango lukeela adierazten da, hizkuntzaren alor batzuetan behintzat, fonologiarena kasu.

Puntu hau amaitzeko, esan dezagun lehen haurtzaroan gomendagarria dirudien arren bigarren hizkuntza baten ikasketa, hori ez dela oztopoa helduentzat. Haurrek eta helduek antzeko arrakasta-mailak lor ditzakete bigarren hizkuntzaren ikasketan, beharrezko motibazio eta saiatze-baldintzak betetzen diren guztietan (Etxeberria, Felix. 94).

### 3. 5. - IKASKETA ELEBIDUNAREN MAILAK

Volterra eta Taeschner-en (1983) lan ezagunean, idazle hauek hiru maila proposatzen dizkigute haurra elebiduna izatera iristen den arteko bilakabidean:

- **Lehen maila:** Aldi honetan haurrak bi hizkuntzetako hitzak hartzen dituen lexiko-sistema du: hau da, badirudi haurrak ezagutzen dituen hitz guztiek lexiko-sistema bakarra osatzen dutela. Gainera, hitz batek hizkuntza batean ia ez du inoiz izaten parekiderik esanahi berdinez, beste hizkuntzan. Horrela bada, haur elebidunaren hizkuntz garapena elebakarraren antzekoa da maila honetan, bi edo hiru hitzezko ekoizpenetan hizkuntza batetik eta bestetik eratorritako hitzak

agertzen direnez elkarrekin. Hizkuntza bataren edo bestearen erabilera, beraz, haurrak esan nahi duenari baldintzatuta dago eta ez horrenbeste hitz egiten ari den hizkuntzari. Berez, haur elebidunak berea den hizkuntz sistema bakar bat hitz egiten du. Oso zaila da, bestalde, sintaxiari buruzko inolako balorapenik egitea.

- **Bigarren maila:** Haurra gai da bi lexiko ezberdin bereizteko, hau da, bi lexiko-sistema ditu eta objektu nahiz gertaera berdina hala dagokion hitzaren bidez adierazten du bi hizkuntzetako bakoitzean. Honek, ahalegin handia eskatzen du ezagutza mailan, haurrak hitza testuinguru jakin batetik atera eta beste hizkuntzan dagokion hitzarekin identifikatu behar baitu. Aro honetan, dena den, haurrek bi hizkuntzetako hitzak nahasten jarraitzen dute esaldi berean. Lexiko-malguketaz jabetu den arren, hizkuntz kode bakoitzaren ezagupen burutura iritsi eta orokortze prozesua ohikoa egin beharko duen aldia da. Orain, haurraren esaldien gehiengoa hizkuntza batean zein bestean izango da, eta hitz egiten ari den pertsonari baldintzatuko dio kode bataren zein bestearen erabilera.

Hala ere, nahiz eta haurrak malgutasun handia lortu duen lexiko mailan, sintaxi-arau berak ezartzen ditu bi hizkuntzetan; hau da, sintaxi-sistema bakarra duela dirudi.

- **Hirugarren maila:** Haurrak bi hizkuntzak bereizten ditu lexiko zein sintaxi mailan. Hau bideratu ahal izateko baldintza bakarra, hizkuntza bakoitza pertsona bati elkartua egotea da, hau da, jadanik aipatutako formula ezaguna "pertsona bat - hizkuntza bat" kontuan izatea. Gorago aipatu dugunez ordea, ikertzaile guztiak ez datoz bat betebeharrarekin (Hamers-Blanc, 1983). Hirugarren maila honen bukaeran beraz, ia burutua dagoela esan daiteke ikasketa elebiduna, eta haurra gai da bi hizkuntzetan zuzen hitz egiteko, bai lexiko mailan, bai sintaktikoan. Baina bigarren mailan bezala, hemen ere interferentzia ugariarekin topo egiten dugu. Interferentzia hauek, gehienbat haurra gatazka-egoeran jartzen denean nabaritzen direla diote Volterra eta Taeschner-ek (1983); esate baterako hizkuntza batetik bestera bat batean aldatu behar duenean, edota hizkuntza desberdinak hitz egiten dituzten pertsonekin diharduenean, etab. Pertsona bi hizkuntzetako batekin erlazionatzeak, haurrak egin beharreko ahalegina gutxitu egiten duela diote. Denborak aurrera egin ahala, eta haurrarentzat desberdintasun sintaktikoak handiagotzen diren heinean, pertsona hizkuntzarekin erlazionatu beharrak behera egingo du.

Esku artean dugun gaia amaitzeko, Hoffmann-en (1989) iritzia dakargu. Ikertzaile honek ez du uste aro nozioa hizkuntz garapenaren deskribapenari egokitzen zaionik; desitxuratu ere egin dezakeelakoan dago, urrats berri bat eman aurretik lehenagokoa osatu behar dela baitirudi. Hizkuntza beti mailaz maila garatzen dela dio, zenbaitetan saltoka, beste batzuetan ia aurrerapenik nabaritu gabe eta inoiz atzera pausoak emanez ere. Egile honentzat, hizkuntz garapena eta jabekuntza elebiduna bereziki, gizarte-, psikologi eta giro-faktoreei baldintzatuta dago.

### 3. 6. - NAHASKETA EDO BATEGITEA

Aldi berean bi hizkuntzaz edo gehiagoz jabetzen diren haurrak gai ote diren bi kodeak bereizteko edo hizkuntzen artean interferentziarik ematen ote den, jabekuntza elebidunarekin

batera doan gaia dirudi. Aurreko gaia --hau da, "elebitasunaren mailak"-- lantzerakoan puntu hau aipatu dugun arren, oraingoan ere saiatuko gara eskuartean dugun honetan sakontzen.

Gai hau aztertu zuten Meisel & Mahalau-k, Donostian 1987an ospatu zen "Euskal Mundu Biltzarrean" aurkeztutako txosten batean. "Banaketa edo bereizketa", "Bategitea", "Code Switching edo hizkuntza aldaketa" eta "Mixing edo nahasketa" bezalako kontzeptuak zehaztu ondoren, eta ikerketa gehienetan "nahasketa" eta "bategitea" terminoak bereizten ez direnez, "nahaste" hitza erabiltzea erabaki zuten.

Ikertzaile hauen arabera, bada eraikuntza mistoak bazterten laguntzen duen faktore multzo bat:

- Hizkuntza bakoitza eremu zehatz batzuei egokitu behar zaie; beste hitzetan esanda, "pertsona bat, hizkuntza bat" printzipioa kontuan izatea litzateke.

- Hizkuntzek pisu berdina izan behar dute gutxi gorabera, hau da, "oreka" gorde.

- Bi hizkuntzen arteko egitura-antza handiak zein ondoriozko ulergarritasunak, zaildu egin dezakete banaketa.

Bestalde, "bategiteak" eta "nahasketak" eragin ezberdina dute gramatikako zenbait ataletan. Horrela, eragin txikiena duen arloa fonologia litzatekeen bitartean, lexikoa alde batetik, eta morfologia eta sintaxia bestetik era ezberdinetara ikusiak dira ikertzaile bakoitzaren arabera. Lexikoaren banaketa oso goiztiarra dela adierazten dute, eta morfologia eta sintaxiari dagokienez, bi hizkuntzak hasieratik arazorik gabe banatzen direla uste dute. Baieztapen hauek, "bategitearen" edo "nahastearen" aldeko lanei egin zaizkien berrikuspenetan oinarritzen dira, aurkeztutako bategite-frogak hizkuntzetako bat argi eta garbi nagusitzen den testuinguruetatik eratorriak direla adieraziz. Hizkuntzen banaketarako beharrezko diren baldintza psikosozialak betetzen ez direnean, nolabaiteko "nahasketa" edo "bategitea" eman daitekeela onartzen dute. Beraien benetako interesa, ordea, bategitearen arazoa ezinbestekoa ote den argitzea da; hau da, mintzairaren giza gaitasunari esker, haurra testuinguru egoki batean ez ote den gai zenbait gramatika gaitasun lortzeko, bategite unetik igaro gabe. Hizkuntzaz jabetzeko giza mekanismoari esker, hasieratik haurra hainbat gramatika sistema banaturik mantentzeko gai den galdetzen dute.

Galdera honi erantzuteko, bi ikerketaren kritika aurkezten dute. Haurtako bat, bi haur italiar-aleman elebidun aztertzen dituzte Volterra eta Taeschner-ena da, eta bestea Redlinger-Park-en lau haur frantses-aleman elebidunena. Bestalde, bi hizkuntza kodeen bereizketa oso goiztiarra dela erakusten duen zenbait lan aipatzen dute: Mikes, 1967; Padilla-Liebman, 1975; Eergman, 1976; eta Lindholm & Padilla, 1978 (Meisel eta Mahlau, 1987-an).

Sistema sintaktikoen "bategitearen" froga enpirikorik aurkeztu ez den ondoriora iristen dira, eta are gutxiago gorago aipatutako bigarren mailan, elebidun guztiek gramatika sistema bakarra dutela frogatzera. Honenbestez bada, orain arte II. fasea eta ondorioz "bategitea" dagoen froga enpirikorik ez da aurkeztu.

Kritika hau azaldu ondoren, gramatika sistemen banaketa oso goiztiarra dela haur elebidunen artean erakusten saiatzen dira, horrela "bategitea" ere baztertuz. Frantses-aleman hizkuntzetan elebidun ziren hamar haurrekin burututako ikerketa longitudinal bat aurkeztuz egin

zuten, eta bertan bi hizkuntzetan ezberdinak diren gramatikako formak aztertu zituzten, ondorio hauetara iritsiz:

- Hitzen ordenaz mintza daitekeen une beretik, haurrek bi hizkuntzak bereizten dituzte.
- Elebidunek bi hizkuntzetan duten gramatika-gaitasuna, ez da bereizten kualitatiboki, haur elebkarren gaitasunaz.
- Bi hizkuntzaz aldi berean jabetzeak "bategia" berarekin daraman ustea bazter daiteke.
- Haur elebidunek oso goiz egiten dute -- agian elebkarrek baina lehenago -- hizkuntza bakoitzaren ahalmen sintaktiko berezien erabilpena .

Linguistikoki urrun samar dauden euskara eta gaztelania aldi berean ikasten ari zen haur baten izenaren determinazioaren garapena aztertu zuen ikerketa batean, ondorio hauetara heltzen da I. Idiazabal (1991b): haurra erlazio orekatuan badago jabetzen ari den bi hizkuntzekin, garbi bereizten ditu morfologiaren hasieratik bertatik bi hizkuntzak, naiz eta lexiko trukatuak edo mailegatuak, elebidun helduengan baino eragin handiagoa duela aitortu.

Charlotte Hoffmann-ek (1989) adierazten du bestalde, haur elebiduna bi eta lau urte bitartean ohartzen dela inguruan dituen bi hizkuntzaz. Eta haurrek hasieran egiten zituzten "nahasketak", inguruan hitz egiten ziren bi hizkuntzez ohartzen zirenean amaitutzat ematen zituzten Leopold (1939) eta Ronjat (1913) bezalako ikertzaileetara jotzen du.

Haur elebiduna bi sistemaz ohartzera nola iristen den ere aipatzen du Hoffman-ek. Ikertzaile hau, bi hizkuntzen banaketa-prozesuan giza testuinguruak duen garrantziaren aldeko ageri da, eta jadanik aipaturiko "persona bat - hizkuntza bat" printzipioa bereganatzen du. Era berean, haurrak bi hizkuntzetako jatorrizko eleanitzekin etengabeko harremanetan edukitzearen premia ere nabaritzen du, bi hizkuntzek garrantzi funtzionala edukitzea bezala. Bestalde, hizkuntza bateko sinonimoak edo parekideak bestean, haurrak bi kodeak ezagutzen dituen seinalerik garbiena dira.

Benetako interferentzi kasuak maileguak besterik ez direnengandik bereiztearen garrantzia azpimarratzen du: izan ere haur elebidunak, egokitzapen morfologikoaren bitartez, hitz berriak asmatzeko edo sortzeko erabiltzen baititu batzuetan hizkuntza batean dituen ezaguerak. Interferentzia, balego, maila semantikoan ageri da, hau da, haurrak onartzen duenean zenbait hitz edo esamoldek esanahi berbera duela hizkuntza batean zein bestean. Maila sintaktikoan, ordea, interferentzi kasu asko perpausetako hitzen ordenari buruzkoak dira.

Hizkuntz nahasketei dagokienez, hau da, hizkuntza bateko hitz, esaldi nahiz esamoldeak beste hizkuntzan erabiltzeari buruz, ikertzaile honen iritziz, gehienbat jabekuntza-ingurunea argi eta garbi banatua mantendu gabeko haur elebidunen artean edo bi hizkuntzen arteko desoreka nabaria ematen denean gertatzen dela dirudi.

Besteak beste Hamers & Blanc-ek (1983), Meisel & Mahlau-k (1987) eta McLaughlin-ek (1985) diotenez, "Code-Switching" deitu elebidunaren jokaera berezietako bat --kode batetik



bestera aldatzeko gaitasuna alegia-- sarritan interferentzi fenomenoarekin nahastu izan da. Badirudi kodeak txandakatzeko ahalmen hau, haur elebidunaren gaitasun bikoitzagatik dela, kontuan hartuz beharrezkoak direla alde batetik hizkuntza bakoitzeko hizkuntz produktio arauak izatea, eta bestetik hizkuntz txandaketako arauetan ere gai izatea. Bi hizkuntzen arteko harremana gertatzen den elkartaren kode berezia izatera ere iritsi daiteke; kasu honetan ezaugarri etnolinguistikoa izango litzateke.

Ikertzaile hauen arabera, trebetasun hau oso goiztiarra izaten da haur elebidunarengan, hizkuntz gaitasuna A hizkuntzan (LA) zein B hizkuntzan (LB) agertuz, elebakarrek ez duten elebidunen era berezia izango litzatekeen gaitasun berri batez gain (L).

Interferentzia, bestalde, zenbait ikertzailek kode bat bestearen baitan era desegokian sartzea bezala definitu duela adierazten dute. Hamers eta Blanc-en (1983) ikuspegitik, ordea, dirudenez bigarren hizkuntza ikasten duenaren edo elebidun dominatzaileen hizkuntz ezgaitasun bereziaren adierazpena litzateke, ez elebidun orekatuarena.

### **3. 7. - HIZKUNTZEN BEREIZKETA ETA ELEBITASUNA**

Haurra zein unetan elebidun bilakatzen den eta bere elebitasunaz nola ohartzen den zehaztu nahia, bi hizkuntzaren jabekuntzari buruzko ikerketa guztietan nabari da.

Idiazabal'ek (1984) *Conciencia bilingüe del niño bilingüe* lanean adierazten duenez, ez da bat-batean gertatzen den ikasketa, bilakaera-prozesua baino. Sistemen bikoiztasunaren ohartze-prozesu hau, bi hizkuntzen jabekuntza garatua gertatu baino askoz lehenago ezartzen da. Horrela, gaitasun metalinguistikoa oso goiz hasten da garatzen, eta badirudi elebitasunak lagundu egiten duela, hau da, hizkuntzari buruz gogoetak egiteak ikasketa osatu eta bizkortu egiten duela.

Gai hau, gaztelania eta ingelesa aldi berean ikasten zituen haur baten hizkuntz garapenaz egindako ikerketa enpiriko batean ere landu izan da. Beste ikertzaile askok bezala, A. E. Fantini'k (1982) erabileran bi hizkuntzak banatuta mantentzeak, --helduen aldetik ez dadila interferentziarik gerta-- duen garrantzia azpimarratzen du. Zenbat eta handiago banaketa hau, orduan eta azkarrago eta errazago haurrak bi hizkuntz sistemak bereizten ikastea.

Ikertzaile hau, bere lana aurkeztu ondoren, honako ondorioetara iristen da hizkuntzen bereizketaz eta elebitasunaz:

1) Haurra bi edo hizkuntz sistema gehiagorekin harremanetan den guztietan, hizkuntzen bereizketa etengabeko bilakabidea da.

2) Hizkuntzen bereizketa, hitz egiteko eta ulertuak izateko giza premiarekin lotua dago. Ikerketan aipaturiko haurra, edozein egoeratan komunikatu ahal izateko, esku artean zituen sistemak banatzera behartuta zegoen.

3) 2;08;00 adinarekin, bi hizkuntz sistema ezberdin eta banaturen erabilpena nabari zen. Bereizketa goiztiar hau, haurrak bigarren hizkuntzarekin harreman berantiar eta noizbehinkakoa izan arren gertatu zen.

4) Bi hizkuntzetako bakoitzaz jabetu zen testuinguruaren banaketa, eta bakoitzari zegokion ingurunean hizkuntzen erabilpenaren sendotasuna, bi hizkuntzen arteko bereizketa goiztiar eta baikorra bideratu zuten bi faktore adierazgarri gertatu ziren.

5) Badirudi hizkuntza bat baino gehiagoren ezaguera, haurrari giza adierazpenaren beste tankeretarako arreta orokorra izaten lagundu zion faktorea gertatu zela.

6) Hizkuntzaren erabilera bereziak, "mintzairaren" kontzeptu abstraktua osatzen lagundu zion haurrari, elebakarrengan gertatzen den baino lehenago seguruenik.

7) Bi hizkuntz sistemen erabilerak, metamintzaira, hau da --mintzaira deskribatzeko bailo duen hizkuntza-- erabiltzera bideratu zuen haurra.

8) Kontzeptu bera adierazteko hitz ezberdinak zeudela ohartarazten lagundu zion faktorea izan zen elebitasuna.

9) Espainieraren eta ingelesaren jabekuntza, ez zegoen bakarrik behar adinako harreman jarraituari baldintzatua, baita haurraren gizarte beharrei ere.

Hizkuntzaren aukeraketari dagokionez, badirudi hizketa-laguna dela bata zein bestea aukeratzeko erabakitzailea.

### **3. 8. - HIZKUNTZ SISTEMEN GARAPENA**

Haur elebidunaren garapen fonologikoa haur elebakarrarena baino eginkizun korapilatsuagoa da, elebakarrak baino ezaugarri fonetiko gehiago ikasi behar baititu, bi soinu-sistemaz jabetu beharra duenez. Ezagutza bidezko zama handiago honek, aho-ekoizpenaren hasiera atzera dezake, eta agian hasierako nahasketa aro bat ere sortarazi.

Dirudenez gerora inolako ondoriorik ez duen lehen atzerapen honez gain, haur elebidunen garapen fonologikoan, bi sistemak banaturik jabetzen dira; hau da: hasierako nahasketa bat edo beste alde batera utziz, haur elebidunek paraleloki garatzen dituzte hizkuntza bakoitzeko soinu-sistemak (Hoffmann, 1989).

Kontuan hartu behar da, beren ezaugarri fonologiko eta morfologikoetan linguistikoki hurbil dauden hizkuntzen artean, interferentziak errazago gerta daitezkeela. Jabetzen ari den hizkuntza bakoitzarekiko harreman etengabeak, eta nahikoak edukitzea izango da komenigarriena haurarentzat.

Garapen lexiko-semantikoari dagokionez, holofrasezko edo hitz bakar bateko aroan, badirudi hizkuntza bateko zein besteko hitzak erabiltzen dituela haurrak; edo beste hitzetan esanda, bi hizkuntzetako hitzez osatutako sistema lexiko bakarra duela (Volterra eta Taeschner, 1983). Honi buruz ordea, behin betiko baieztapena egiteko beren tesien alde dakartzaten frogak, ez direla nahikoak dio Hoffmann'ek (1989).

Hori horrela, haur elebidunaren lehen hiztegia aztertzeraz zuzendutako ikerketa gehiago beharko dira, benetan lexiko-sistema bakarra edo oinarritzko bi sistema ote dituen erabakitzeke. Oraingoan, badirudi haurrak bere lana errazten duen estrategia darabilkiela, gauzei izen bakar bat emanez.

### **3. 9. -GRAMATIKAREN GARAPENA**

Garapen morfologikoari eta sintaktikoari dagokienez eginiko lanak kontuan hartuz, oro har sintaxia morfologia baino lehenago garatzen dela ikus daiteke, bi atal horien arteko harremana oso estua den hizkuntzetan izan ezik (McLaughlin, 1978 eta 1984; Hoffmann, 1989an). Kontuan hartu behar da, garapen morfologikoak ezagutza bidezko bilakabide konplexu samarrak behar dituen hizkuntz jabekuntzaren atal bat dela. Alderdi hau ikertzerakoan, gainera, hizkuntzen konplexutasun maila ezberdina kontuan hartu beharko litzateke, egitura konplexuko hizkuntzak jabekuntza atzera dezakeenez.

Haur elebidunak gramatikaz eta lexiko-semantiko sistemez une ezberdinetan jabetzen diren lekukotasun gutxi dagoen arren, ikuspegi honek onarpen ugari jaso du. Hala ere, Meisel-Mahlau-ek (1987) sakonki aztertu ditu bi lan hauek eta ondorio honetara iristen da: bi lanetan aurkeztutako frogak bakar batek ere ez duela justifikatzen, alegia, delako sintaxi nahasketako lehen aroa, huts ugari aurkitu baititu bi ikerketetan. Haur elebidunen sintaxi jabekuntzak, bestalde, elebarkarrek jarraitzen dituzten oinarri berak dituen ondorioa iristen diren lan ugari dago. Haur elebidunen sintaxiaren jabekuntza-bilakabidea aztertu duen Jürgen Meisel-ekin jarraituz, gramatikaltasuna haur elebidunen eta elebarkarren baitan aldi berean agertzen ote den aztertu du. Zenbait ikerketa enpirikoren ondoren, hizkuntzaren jabekuntza-bilakabidean inolako alderik ez dagoen ondorioa iristen da, haur elebidunek zein elebarkarrek hizkuntz unitate berberak eta ordena berean jabetzen dituztenez gero. Haur elebidunek, ordea, hitzen ordenei dagokienez, hasieratik eredu estuagoak dituztela ikusi ahal izan du. Elebidunek era berean, elebarkar alemanek baino lehenago adierazten zituztela funtzio sintaktikoak morfologiaren bidez. I. Vila-k (1984) bere aldetik, hiru haur elebidun eta hiru elebarkar erkatu ondoren, hizkuntzaren garapena antzekoa dela bietan dio.

### **3. 10. -ONDORIOAK**

Haur bat bi hizkuntzaz edo gehiagoz jabetzeaz, hau da, elebitasunaz hitz egiten den gehienetan, horren aurka mendebaldeko gizarte gehienetan betidanik oso errotuak dauden aurriritziak ateratzen dira. Gogora dezagun gai honi buruz "elebitasunaren izurritea" bezalako adierazpenak eman zituen 1928an (Ries 1932) ospatutako Luxemburgeko Nazioarteko Konferentzia. Elebarkartasunaren aldeko defentsa, gehiago zen politikoa zientifikoa baino, kontuan izanik bertaratu ziren gehienek hizkuntzak, estatu-hizkuntzaren mehatxuarean zeuden eskualdeetatik zetozela. Elebitasunari buruzko ikuspegi hau aldatzen ari da zorionez, gai hauetaz arduratzen diren ikertzaileen arretari eta elebidunen artean nabari eta jaso diren emaitza enpirikoei esker.

Haur elebidunen hizkuntz jabekuntzari buruzko lehen ikerketak, mende honen lehen erdikoak dira, hizkuntz jabekuntzaren ikuspegi oraindik oinarritzkoenak oraindik landu gabe zeuden

garaikoak. Haur elebidunentzat abantaila multzo bat eta inolako eragozpenik adierazten ez duten Ronjat-en (1913) eta Leopold-en (1939) lanak dira zehazki. Hala ere, 60. hamarkadako ikerketak behar izan dira elebitasunaren garapena hizkuntz garapenaren teoria orokor gisa deskribatzen saiatzeko, eta elebakarraren nahiz elebidunaren hizkuntz garapenaren arteko erkaketa zuzen bat egiteko, horrela abantaila hauek baieztatuz.

Garapen-garaian haur elebidunak eta elebakarrak alderik ez duten ekarpena gramatika sortzaile-bihurtzaileari zor zaio. Hau argitzeko, perpaus nuklearrak munduko hizkuntza guztietan daudela diote. Hori horrela, hizkuntza ezberdinetako hiztunak, ikasten dituzten arau bihurtzailengatik bakarrik bereizten dira, bere inguruko hizkuntzan bereziak diren arauak hain zuen. Honenbestez bada, haur elebidunak duen aparteko lana, sistema bakoitzari zein arau dagokion bereiztea da.

Atal honetan bertan ikusi dugunez, haurren elebitasuna aztertu duten zenbait ikertzailek, inguru elebidunean hazitako haurraren hizkuntzaren jabekuntza-erritmoa eta haur elebakarrarena, orokorrean bera dela diote, ñabardura batzuek: hizkuntza bakoitzeko hitz ezberdinez jabetzea, adibidez, famili ingurunean bi hizkuntz sistemen erabilpen-proportzioari baldintzatuta dagoela (Tabouret-Keller, 1977) bezalako ñabardura aipatuz.

Hoffmann (1989) ere, elebidunak funtsean elebakarren berdina direla dioen baieztapenaren aldeko azaldu da, nahiz eta arreta berezia behar dutela adierazi. Ikertzaile honen arabera, fonologi, lexiko- eta gramatika-sistemen jabekuntza elebidunean ematen diren prozesuak, elebakarrengan ikusten diren berak dira funtsean. Ez du zalantzarik, ordea, jabekuntzaren erritmoa geldiago izango dela haiengan, bi hizkuntza sistemen prozesaketak, asimilazioak eta gordeketak inplizitoki daraman ezagutza bidezko zama handiagorekin eraginez.

Komunikazio-gaitasunari dagokionez, elebiduna elebakarra bezain eraginkorra dela defendatzen du ikertzaile honek berak. "Code-switching" edo hiztun elebidunak egoeraren, solasgaiaren, hizketa-lagunen, etab.en arabera hizkuntzaz aldatzeko duen gaitasuna (Meisel-Mahlau, 1987) gainera, hizkuntz malgutasunaren ondorio bezala, balio pragmatikoa duen elebidunaren tasuntzat hartzen da gaur egun. Erantsi daiteke gainera, zenbat eta hobekiago ezagutu hizkuntzetako bakoitza, orduan eta baliabide horren erabilpen handiagoa egiten dutela elebidunek.

Kontuan hartu behar da, bestalde, elebitasuna ez dela automatikoki garatzen haurrak ingurune elebidunean bizi eta bi hizkuntzekiko harreman hutsagatik, bi hizkuntzen jabekuntza ondo lortu ahal izateko, baldintza batzuek bete behar direla baizik. Hau da, ingurugiroko, gizarteko eta psikologiako baldintzak.

Haurra hasieratik ala bi edo hiru urte dituenetik, bi edo hizkuntza gehiagoren aurrean jarri behar ote den arazoa, elebitasunaren gaiak inplizitoki berarekin dakarrena da. Eztabaida handia dago gai honen aurrean, eta oraindik ez da lortu azken erabakia. Gehiengoaren joera, ordea, bi edo hiru urte bete arte ez itxoitzearen aldekoa dela dirudi. Baina adin ideala kontuan hartzeaz gain, garrantzizkoa da jabekuntza nola burutzen den jasotzea; gizarteratzea, harremanen maila eta maiztasuna, hizkuntzen bereizketa, gizarte-premia eta jarrerak bezelako ikuspegiak ahaztu gabe (Fantini, 1982).

Nahiz eta eztabaida oraindik ez amaitutzat jo, argituz doan beste gaia, haur elebidunaren ezagutza bidezko nagusitasuna da. Hala, Hamers eta Blanc (1983) bezelako ikertzaile ospetsuek diotenez, elebitasun positiboa duten haurrek, elebakarren aldean, besteak beste, arrazonamendu abstraktuan maila handiagoa eta pentsamendu dibergenteagoa garatzen dutela diote. Ezagutza bidezko garapen handiago honen azalpen bat ematerakoan, hizkuntza bakoitzerako eta mintzairarako (L1, L2 eta L) balio pertsonal baikorrak bereganatzen baditu haurrak, bietako edozein hizkuntza erabiltzeko motibazioa izango lukeela azpimarratzen dute. Bi hizkuntzetan (L1 eta L2) eta mintzairan lortzen den komunikazio-gaitasunen garapenak, maila orokorrean zein zehatzean balioztatzen eragingo dio.

Egoera honetan, elebakarraren aldean ezberdina den nortasun berezia lortuko du haur elebidunak. Nortasun hau orekatua izango da bi kulturekin identifikatua sentitzen den heinean eta inguruak horretara motibatzen badu.

Aipatu ditugun ikertzaileen ustez, garapen elebidunaren funtsezko osagaia, gizartearen nahiz ingurunearen eta norbanakoaren balorapen erlatiboa litzateke.

Lamber-ek, 1982 bere aldetik, erabateko elebiduna izatea iristeko, psikologikoki librea izan behar dela dio.

Hizkuntzaren jabeakuntza elebidunari buruz ikusitako ikerketen ondorio gisa, elebidun guztien hizkuntz jokabidea azal dezakeen eredu bakar bat ez dagoela ikus daiteke. Jokabide hau, historia, adina, hizkuntzez jabetzeko era eta testuingurua bezelako faktore ezberdinek erabakiko dute. Horiez gain, bi hizkuntzen arteko antolaketa alorreko interdependentzi mailak eta oroitzapeneko mekanismoek ere eragina izango dute.

Aurkezten dugun lanarekin erlazionatuz, II. Euskal Mundu Biltzarrean - Euskararen Kongresuan (1987) Meisel-Mahlau-k esandakoa dakargu: bi hizkuntzen arteko egitura- kontraste gorena duen egoera elebidunaren azterketak (gaztelaniaren eta euskararen kasuan gertatzen den bezala), izaera morfologikoetan bereziki, gramatika markaketako era ahalik eta aberatsenekin batera, oraindik erabaki gabe dauden arazoentzako erantzun adierazgarriak aurkitzen lagundu dezaketela, alegia.

Gure lana, hau da, euskarazko "kasuen" eta gaztelaniazko "preposizioen" jabeakuntza, kontraste honen esparruan kokatua dago, adierazi ohi diren erak erabat ezberdinak direnez: Izenaren ondoren doan kasu-morfema eta izenaren aurretik doazen preposizioak.

## ***II.-BIGARREN ATALA***

### **4. - ZENBAIT IKERKETAREN BERRAZTERKETA**

#### **4.1.- SARRERA**

4.2.- LEHEN ATALA: KASU-MARKAK AZTERTZEN DITUZTEN IKERKETAK

- 4.2.1.- Ikerketen azterketa
- 4.2.2.- Ikerketen ondorio orokorrak

4.3.-BIGARREN ATALA: HAUR ELEBIDUNAK AZTERGAI DITUZTEN IKERKETAK

- 4.3.1.- Ikerketen azterketa
- 4.3.2.- Ikerketen ondorio orokorrak

4.4.- HIRUGARREN ATALA: PREPOSIZIOAK AZTERGAI DITUZTEN IKERKETAK

- 4.4.1.- Ikerketen azterketa
- 4.4.2.- Ikerketen ondorio orokorrak

4.5.- LAUGARREN ATALA: IZENORDAINAK AZTERGAI DITUZTEN IKERKETAK

- 4.5.1.- Ikerketen azterketa
- 4.5.2.- Ikerketen ondorio orokorrak

4.6.- IKERKETA HAUETAN AZALTZEN DIREN KORRENTE TEORIKOEI BURUZKO KOMENTARIOA

- 4.6.1.- Imitazioa
- 4.6.2.- Kognitibismoa
- 4.6.3.- Helduen eredua
- 4.6.4.- Hornidura genetikoa

*II.-BIGARREN ATALA*

**4. - ZENBAIT IKERKETAREN BERRAZTERKETA**

**4.1. - SARRERA**

Gure ikerketaren helburua haur bat euskarazko kasuez eta gaztelaniazko preposizioez nola eta noiz jabetzen den delarik, alor hauetan egin diren zenbait ikerketaren aurkezpena azalduko dugu jarraian.

Ikerketa hauetako batzuk, ingeles hizkuntza dute aztergai, hau da, hizkuntza-jabekuntza gehien aztertu den hizkuntzari dagozkionak dira. Baina bada zenbait beste hizkuntza ere aztergai. Hizkuntza Indo-Euoparren artean, eta orain aipatutako ingelesa alde batera utzita, alemaniera, italiara, gaztelera, errusiera eta serbo-kroaziera aztertu dira (azken bi hauek hizkuntza eslaboak). Familia linguistiko honetatik at, hiru hizkuntza uralikoak ere aztertu dira; estoniera, hungariera eta finera. Bestalde, turkiera (famili altaikoa) hebraiera (famili kamito-semitikoa), warlpiria (hizkuntza australiarra) eta euskara ere aztertu ditugun ikerketetan azaltzen diren hizkuntzak dira. Horrela bada, guztira hamalau hizkuntza ezberdinetako ikerketak aztertu ditugu. Hizkuntza hauetako batzuk, oso ezberdinak dira beraien artean egiturari dagokionez. Kontraste sakon hauek oso baliagarriak dira, haurra, egitura guztiz ezberdinen aurrean, nola hizkuntzaz jabetzen den aztertu ahal izateko. Ezberdintasun hauek oso interesgarriak dira, hizkuntz jabekuntza elebidunetan aztertzen denean. Aipaturiko ikerketen artean, lau dira haur elebidunei dagozkienak: Ikerketa hauetako bi, alemaniera eta frantsesa aldi berean ikasten duten haurrei dagozkie, beste bat errusiera eta georgiera hizkuntzei, eta laugarrena euskara-gaztelera jabekuntzari. Beste azterketa batzuetan, hizkuntza ezberdinen konparaketa ere egiten da.

Hizkuntza ezberdin hauetan aztertu diren atalak ere ezberdinak dira, askotan hizkuntza beraren arabera. Batzuetan kasu-markak edo flexioak aztertu diren bitartean, bestetan preposizioak edo ta izenordeak aztertu dira, hiru atal hauek ere aztertu dira zenbait hizkuntzatan. Gure lanerako hain zuzen, hiru atal hauen beharra izango dugu, alde batetik euskarak dituen kasu gramatikalak, gaztelaniak oraindik gordetzen dituen zenbait izenordeen kasuekin parekatzen baitira, eta bestetik gure hizkuntzako kasu ez gramatikalak (batzuentzat posposizioak: Eguzkitza, 1993; De Rijk, 1972) gaztelera preposizioekin parekatzen direlarik. Ikerketak azterketa zabalagoa erakusten badu, hau da, hizkuntzaren atal asko aztertu baditu, gure lanerako interesgarriak diren atalak aztertu ditugu.

Bestalde, gure arakatu ditugun ikerketetan zehar, haurren adinak berdintsuak dira: urte bete duten haurrak gazteenak eta lau urte dituztenak zaharrenak. Batzuetan haur kozkurtuagoak ere agertzen dira, baina ikerketa espreski haur helduagoekin egin denean, gure baztertu egin dugu, gure interesa lehen hizkuntzan kokatzen baita.

Ikerketa hauen artean, mota ezberdinetakoak ageri dira haurraren behaketa nolakoa izan den kontuan hartzen badugu. Horrela, zenbait ikerketa "longitudinalak" diren bitartean, hau da, epe jakin batean haurrak egin duen bilakabidea jarraitzea, beste zenbait "zeharkakoak edo transbersalak" dira, hau da, haur talde bat hartu eta beraien jokabidea oso epe labur batean behatzea. Beste batzuk aldiz, "crosslinguistikoak" dira, hau da, hizkuntza ezberdinetan hizkuntzako alor berdintsuak begiratzen dira.

Haurren kopuruari dagokionez ere, ezberdintasun handiak ageri dira. Horrela, zenbait ikerketa haur bakar batengan oinarritzen den bitartean ("case studies"), beste batzuek 180 haur ere aztertu dituzte. Erdibidean dauden azterketak ere ugariak dira.

Horrela bada, beren morfologian kasu-markak erakusten dituzten hizkuntzekin hasiko gara. Ondoren haur elebidunak aztergai dituzten ikerketak aztertuko ditugu. Hirugarren atalean preposizioak erabiltzen dituzten hizkuntzak, hauen arteko azpiatal bat, leku-preposizioei dagokiolarik. Eta azkenik, oinarri bezala izenordainak dituzten zenbait ikerketa aztertuko dugu.

## **4. 2. -LEHEN ATALA: KASU-MARKAK AZTERTZEN DITUZTEN IKERKETAK**

### **4. 2. 1. -Ikerketen azterketa**

Kasuak aztergai dituzten zenbait ikerketa aztertu ditugu. Hauetako bat, A. A. Aksu - Koç eta D. I. Slobin-ek (1985) egindakoa da. Ikertzaile hauek, turkieraren jabekuntzaz egin diren ikerketa ezberdinetan oinarriturik, hizkuntza honen sistema inflexionala oso goiztiarra dela adierazten dute. Horrela, izenen inflexioak eta aditz paradigma gehienak lortuak dituztela diote bi urte betetzerako. Konkretuki, eta gure gaiari dagokionez, Akusatibo, Datibo, Ablatibo, Posesibo eta Instrumentalaren flexioez jabetu dira adin honetarako haur turkiarrak, eta lehen emaitzak 15. hilabeterako ikusten dira. Hori dela eta, ez dute ohiko "haur hizkuntza" ezagutzen, ezta "aro telegrafikoa" deritzana ere. Haurren ekoizpenak motxak eta sinpleak izan daitezke, baina helduen ikuspegitik, ekoizpen ez-gramatikalak edo osatu gabeak ia inoiz ez, hau da, ez dute errurik egiten. Hau dena ordea, perpaus bakun eta nagusien gramatikari dagokio, menpeko perpausen sintaxia eta morfologiak arazoak sortarazten baitizkie haur turkoei, eta hauen artean daude erlatibozko perpausak.

Inflexiodun sistema duten beste bi hizkuntza estoniera eta hungariera dira. Turkieran bezala, hungarieran ere inflexioak lehen hitzetan azaltzen dira, baina ekoizpen emankorra sei hilabete beranduago hasten da (Brian Macwhinney, 1976). Bi urte betetzerako Instrumentala, Alatiboa, Posesiboa, Akusatiboa eta Ilatiboa ikasiak zituen aztertutako haurrak, eta Datiboaz bi urte bete eta berehala jabetu zen. Estoniera hizkuntzan ematen diren inflexioen jabekuntza bi taldetan banatua aurkezten du Ellen Lipp-ek (1977). Alde batetik goiz ikasten direnak (hauetatik gehienak morfema bakar batez osatuak) eta bestetik beranduago ikasten direnak (zenbait morfemen konbinaketaz osatuak) azaltzen ditu. Kasuei dagokienez, lehen atalean izenen plurala Nominatibo kasuan eta Genitiboa aurkitzen dira. Bigarrean berriz, Inesiboa eta Ilatiboaren ondoren, Komitatiboa eta Alatiboa. Ez du adin zehatzik aipatzen, baino ikerketaren hasieran aztertutako hiru haurrak 2;05;00 tik 2;08;00 adina bitartean zeuden. Ikerketa 8 astetan zehar luzatu arren, hiru haurretako batek ez zuen lortu behar zen maila bigarren taldeko flexio motak lortu ahal izateko. Horrela bada, nahiz hizkuntza hau, aurrekoa bezala, uralikoa izan, flexioen jabekuntza hizkuntza honetan, aurrekoarekin kontrajarriz, ezin daiteke kontsideratu oso goiztiarra.

Georgieran ergatibo kasuaren deskonposaketa edo "split-ergative" antzeko fenomenoak ematen da. Kasu asignaketaren jabekuntza, bost arotan bereizten dute Natela Imedazde eta Kevin Tuitek (1992). Haurrek hiru urte betetzen dituztenerako, menderatua dute aditz batek zein kasu ezartzen duen, hau da, ezagutzen dituzte Ergatiboaren deskonposaketaren bi ereduak. Izenaren deklinabideari dagokionez, sei kasuren bilakabidea erakusten digute. Lehen azaltzen den morfema, kontsonante gaia duten Nominatiboko "i" marka da. Ondoren Genitibo kasua menderatzen dute 1;08;21 etik 2;04;17 adinen bitartean haur bakoitzaren arabera. Ia aldi berean,



Datiboko "s" desinentzia agertzen da. Baina kasu honen jabekuntza osoa, beranduago lortuko da. Pixka bat beranduago, Ergatiboa ikasten dute, kasu honek dituen bi aldaera ezberdinekin batera. Hiru urte bete ondoren, Bokatiboa azaltzen da, nahiz eta aztertutako bost haurren artean, bat bi urte lehenago jabetu. Instrumental kasuari dagokionez, ez da besteak adina erabiltzen.

Alemanieran kasu morfologikoa nahiko berandu bereganatzen dute haurrek, normalki hiru urte bete ondoren, E.B.B.L 4 denean A.Collings-ek (1990) dioenez.

Bi ikerketa ezberdinetan, A. Barreñak (1993 eta 1994b) euskararen kasu gramatikal eta deklinabidearen jabekuntza azterketzen du. Lehenengoan, Infl. eta Komp. funtzio-kategorien azterketa helburu duen lanean, Ergatibo, Absolutibo, Datibo eta Partitibo kasuak ere aztertzen ditu hiru haurrengan. Zenbait ezberdintasun nabari dira, haur bakoitzaren adinaren arabera. Lehen hiru kasuei dagokienez, hiru haurretatik batengan bi urte bete aurretik ikus daiteke Absolutiboa eta Ergatiboaren hasiera, nahiz eta Ergatiboaren emankortasuna 2 urte bete ondoren lortu. Bigarren haurrak hiru kasuak bi urte bete zituen momentuan lortu zituen, eta hirugarrenaren bilakabidea mantxoagoa izan zen kontuan izanik Absolutiboa 2;03 adinez lortu zuela, Ergatiboa bi hilabete beranduago eta Datiboa 2;07 adinez. Partitibo kasuari dagokionez, beranduagoko prozesua da aztertutako haur guztiengan. Bigarren ikerketan, deklinabidearen jabekuntza aztertu zuen haur batengan. Honek 1;11;05 adina bitartean ez zuen inongo markarik ezagutzen, eta 2 - 3 urte bitartean lortzen zituen deklinabidearen kasu gehientsuenak.

#### **4. 2. 2. -Ikerketen ondorio orokorrak**

Horrela bada, aztertutako ikerketen arabera eta guk aztertuko ditugun kasuekin parekotasuna dutenak kontuan edukiz, ikusi ahal izan ditugun ondorioak aipatuko ditugu:

- Haur turkoak dira inflexioak lehen ikasten dituztenak, lehen hitzetan hain zuzen, lehenengo emaitzak 15 hilabetetan ikusten baitira. Horrela, bi urte dituztenerako<sup>7</sup> Datiboa, Ablatiboa, Posesiboa et Instrumentalaren flexioaz jabetu dira hizkuntza honetako haurrak.
- Hungariera hizkuntzan ematen diren inflexioak ere lehen hitzetan azaltzen dira, ekoizpen emankorra 6 hilabete beranduago lortzen bada ere. Hizkuntza honetako inflexioen jabekuntza ordena honetan ematen da: Instrumentala eta Alatiboa 1;08;06 adina eta 1;08;08 bitartean, Posesiboa 1;10;00 eta 1;10;06 bitartean eta Datiboa 2;00;00 eta 2;00;05 bitartean.
- Euskararen inflexioei buruz egindako ikerketek erakusten dutenez, hizkuntza honetako kasu gehienak 2-3 urte bitartean ikasten dira. Aztertutako hiru haurren artean ezberdintasunak ikusten badira ere, 1;09;00 adina eta 2;07;00 adina bitartean jabetzen dira aztertutako haur euskaldunak, aditzarekin komunztadura duten kasuez. Partitibo kasuari dagokionez, beste kasuak baino beranduago ikasten dute. Deklinabide kasu gehientsuenak berriz, 2-3 urte bitartean azaltzen dira.

---

<sup>7</sup> Kontuan eduki behar da azterketa hauetan azalduko ditugun emaitzak, gure azterketarekin zerikusia dutenak izango direla, ikusitako emaitza batzuek aipatu gabe geratzen diren bitartean, hau da, guk aztertutako ikerketa batzuetan, beste zenbait emaitza ere azal daitezke.

- Epe honen barruan ere, georgierako haurrek menderatua dute aditz batek zein kasu ezartzen duen, hau da, ezagutzen dituzte Ergatiboaren deskonposaketaren bi ereduak, izenaren zenbait deklinazio bezala. Lehen azaltzen den kasua Nominatiboa da, eta Genitiboa ere nahiko erraz ikasten dute, 1;08;21 eta 2;04;17 adina bitartean. Ia kasu honekin batera Datiboa eta ondoren Ergatiboa. Instrumentalari dagokionez, beste kasuak baino gutxiago erabiltzen dute.

- Estonieran berriz, Genitiboa da goizenik ikasten den kasua eta beranduago ikasten direnak, Inesiboa, Komitatiboa eta Alatiboa.

- Alemanieraren kasu morfologikoa nahiko berandu ikasten da, kontuan izanik 3 urte bete ondoren lortzen dutela.

Ikusi ditugun ezberdintasunen zergaitiak, zenbait arrazoitan bilatu beharko ditugu. Hauetako bat, hizkuntzen baitan dago, kontuan izanik turkiera hizkuntza nahiko erregularra dela. Puntu honi dagokionez, A. A. Aksu-Koç eta D.I. Slobin-ek (1985) 12 faktore ezberdin aipatzen dituzte halako jabekuntza erraz eta azkarra ulertu ahal izateko. Hungariar inflexioak bestalde, konplexitate formalari dagokionez, ezberdintasun gutxi dute. Beste muturrean alemaniera egon daiteke, kontuan izanik aleman estandarren kasu-marken sistema sintaktikoa plurifuntzionala dela, hau da, aleman hizkuntzak ez du erlazio garbirik, azaltzen den formaren eta funtzioaren artean. Gainera, kasuaren paradigma morfologikoa alemaniera estandarrean, sinkretismo maila handi xamarra azaltzen du, hau da, forma jakin bat funtzio ezberdinetarako erabili daiteke ("der" forma, artikulua maskulino singular nominatiboa, femenino singular datiboa zein genitiboa, eta plural genitiboa izan daiteke). Beste arrazoi bat, haur bakoitzaren bilakabidean egon daiteke, ikusi dugunez hizkuntza berdinetan ere ezberdintasun nabariak egoten baitira haurren arabera.

#### **4. 3.- BIGARREN ATALA: HAUR ELEBIDUNAK AZTERGAI DITUZTEN IKERKETAK**

##### **4. 3. 1. -Ikerketen azterketa**

Kasu-markak edo preposizioak haur elebidunengan aztergai dituzten ikerketa gutxi aurkitu ditugu. Hauetako batean, haur batek euskaraz eta gaztelaniaz kasu-markak nola lortzen dituen begiratzen du M.P. Larrañagak (1994). Euskarazko kasu gramatikalei dagokionez, Absolutibo kasuaren jabekuntza 2;00;20 adinean koka daiteke, Lokatibo kasuarekin kontrastaturik azaltzen denez. Lehenago ere azaltzen dira zenbait subjektu Absolutiboan, baina kasu ez markatu gisa ikusten ditu autoreak. Ergatibo kasuaren lehen emaitzak 1;09;04 adinaz ikusten dira, baina erabilera erregularra 2;04;00 adinean lortzen da<sup>8</sup>. Datibo kasua 2;01;06az

---

<sup>8</sup> Lan honen helburuetako bat, euskarako ergatibotasunaren inguruan dauden teori ezberdinak kontuan edukiz, aztertutako haurren jabekuntza-bilakabidea, horietako zein eredurekin bat datorren ikustea zen. Horrela, beti ere lanaren egileari jarraituz, Levin (1983) eta Ortiz de Urbina-ren (1989) ustez, euskaraz ez du hizkuntza ergatiboa bezala jokatzen ez sintaktikoki ez semantikoki; hizkuntza honetan garrantzia duen nozioa beraz, funtzio sintaktikoa da, ez kasua. Honen arabera, INFL.(aditz jokatua) azaldu ondoren, Ergatiboa haurren hizkuntzan normalizat hartu beharreko fenomeno litzateke. Hau ez da horrela gertatzen aztertutako haurrengan, INFL.euskeraz 1;06;11 adinaz lortu duelako, eta Ergatibo kasua berriz, gorago esan den bezala 2;04;00 adinaz lortzen du erregularri. Hau gutzia ikusirik, aipatutako hipotesia, hau da, kasu-ezarketa Subjektu argumentuari INFL.

azaltzen da, baina oso eredu gutxi daude eta zaila da kasu hau emankortasunez noiz lortzen duen jakitea. Kasu ez-gramatikal edo Posposizioen<sup>9</sup> artean lehen azaltzen dena haur honen hizkuntzan emankortasunez, Lokatiboa da 2;00;22 adinaz Adlatiboa eta Soziatiboa bi hilabete beranduago agertzen da. Ablatiboa, Instrumentala, Benefaktiboa, Adlatiboa, Genitiboa eta Genitibo-lokatiboa ere haur honek ekoizten duen hizkuntzan azaltzen dira, baina oso eredu gutxi direnez,<sup>10</sup> ezin da ondorioz atera. Hau dena kontuan hartuz, 2;00;22an, haurrak Lokatiboaren nozio semantikoa bereganatua duela esan daiteke, eta 2;02;11 adinaz Adlatibo eta Soziatibo kasuen nozio semantikoak.

Gaztelaniazko emaitzak erakusten dutenez, Nominatiboaren<sup>11</sup> lehen emaitzak 1;07;28an azaltzen dira, baina 2;00;20 adinaz lehen aldiz aditz finituarekin. Akusatibo kasuari dagokionez, ekoizpen emankorra 2;00;00 adinaz lortzen du haurrak, nahiz hilabete lehenago lehen emaitzak ikusten hasi. Datibo kasua ere bi urte bete eta berehala azaltzen da aztertutako hauraren hizkuntzan, 2;00;23an hain zuzen. Kasu honetan ere, lau hilabete lehenago imitazioak agertu ziren. Kasuak bezala, preposizioak ere bi urtetik aurrera erabiltzen ditu haurrak erregulariki eta emankortasunez. Horrela Instrumentala (con), Direkzionala (a), Benefaktiboa (para), eta Lokatiboa (en) erabiltzen ditu. Genitibo kasuari dagokionez, bi adibide besterik ez daudenez, ezin da ezer ziurtatu. Bestalde, harrigarria gertatzen da Soziatiboa ez azaltzea haur honen hizkuntzan. Hortaz, haur honek erabiltzen dituen preposizioen nozio semantikoak honako hauek dira: Instrumentala, Benefaktiboa eta Lokatiboa.

Georgiera eta errusoa aldi berean jabetzen dituen haur bat lau urte bete arte aztertu ondoren, Natela Imezdade eta Kevin Tuitek (1992) lehenengo atalean aipatutako georgiera jabetzen duten haurrekin erkatzen dute. Horrela, batzuetan errusierako kasu-eredua erabiltzen du georgieraz hitzegiteko. Bestalde, ikerketa honen lehen sailean aipatu dugun kasu-aldaketaren fenomenoak (split-ergative), zailtasunak aurkitzen ditu haur honengan. Errusiar gramatikak eragina duela dirudi, kontuan izanik hizkuntza honetan ez dagoela georgierako ergatiboaren pareko kasu-markaturik.

Alemaniera eta frantsesa aldi berean ikasten duten zenbait haur aztertu dituzte Teresa Parodi'k (1989) eta Swantje Klinge'k (1989). Lehenengoak hitzen ordena eta kasu morfologikoa aztertu zituen, eta lau aro bereizten ditu hizkuntza bakoitzaren azterketa egiterakoan. Alemanieraren azterketako aroak hauek dira:

- Lehenengo aroan (2;02;00 adinaren aurretik) ez dago inongo flexiorik, ezta kasu morfologikoa

---

bidez, ez dator bat haur honen jabekuntza prozesuarekin. Oyarçabal-ek (1992) proposatzen duen hipotesia, guztiz ezberdina da kasu ezarketari dagokionez, eta badirudi haur honen Ergatibo kasuaren erabilera ez-erregularra hobeto argituko lukeela, nahiz eredu honek ere arazoak azaldu. Ikerketa honen egilearen ustez, paradigmak azaltzen dituen sinkretismoak, edo Ergatibo kasua lexikoki ezartua izateak azalduko luke Ergatibo kasuaren jabekuntza berankorra haur honengan.

<sup>9</sup> Lan honen egileak kasu ez gramatikalei, posposizioak deitzea erabaki du, Eguzkitza-ri (1993) jarraituz.

<sup>10</sup> Kontuan hartu behar da euskararen azterketa 2;05;19 adinean eta gaztelaniazkoa 2;06;11z amaitzen direla.

<sup>11</sup> Hizkuntza honetan izen-sintagmak eta Izenorde erakusleak kasu-markarik ez dutenez, Izenordain pertsonalak aztertzen ditu, hauek markaturik azaltzen direnez morfologikoki.

eraman dezakeen elementurik ere (determinanteak, izenordeak, adjetibo atributuak)

- Bigarren aroan (2;02;17 - 2;04;25) kasu morfologikoa eraman dezaketen elemento batzuk ageri dira, bereziki artikulua mugagabeak, baina ez dago oraindik inflexiorik. Izenordainak eta artikulua mugatuak ere ez dira ageri oraindik.

- Hirugarren aroan (2;06;07 - 2;08;21) artikulua mugatuak eta izenordeak ageri dira. Kasu sistema osatzen duten bi atalak, hau da, forma ez flexionatuak eta "n" bidez flexionatutako formak ageri dira.

- Laugarren aroan (3;00;00) flexiodun formen artean, Akusatiboak eta Datiboak ondo bereizten dira.

Frantsesaren bilakabideari dagokionez berriz, aztertutako haurrak azentudun izenordainak ikasi zituen lehenik, eta gero subjektu klitikoak<sup>12</sup>. Hauek dira aro bakoitzaren ezaugarriak:

- Lehen aroa hitz bakarreko aroa da eta haurrak ez du izenorderik ekoizten, "ça" izan ezik.

- Bigarren aroa. Bi hitzez osatutako emaitzak ekoizten hasten denean, azentudun "moi" izenordea eta "a" preposizioa azaltzen dira.

- Hirugarren aroan frantseseko osagai nominalak aleman hizkuntzako emisioetan erabiltzen ditu. "ça" beste izenorderik ez du erabiltzen haurrak. Leku preposizioak azaltzen dira, baina ez preposizio sintaktikorik.

- Laugarren aroan, hau da, hiru urte bete ondoren, haurrak zenbait lorpen egiten du, baina 3;08;00 adinaz badirudi haurraren frantsesa ahultzen hasten dela. Hori dela eta frantsesaren paradigma ez dago guztiz osatua.

Bi hizkuntza hauek aldi berean ikasten zituzten hiru haurren preposizioak aztertu zituen bigarren ikertzaileak. Horrela, "Theory of Government and Binding" en arabera, oinarritzko lau kategoria sintaktikoen artean (Izena, Aditza, Adjektiboa eta Preposizio-Adberbioak), Preposizioak dira azken ikasten direnak.

- Lehenik agertzen diren preposizioak "lokatiboak eta espazialak"<sup>13</sup> dira, beranduago "tenporalak" eta azkenik "instrumentalak".

- Bi hizkuntzak kontuan hartuz, bi hitzetako aroan, preposizio frantsesak ekoizten dituzte lehenik, eta azalpena ere ugariagoa da hizkuntza honetan. Baina lehen aroaren ondoren, bilakabidea berdindu egiten da.

---

<sup>12</sup> Meisel-ek (1986) aztertutako haurraren ere, pertsona-izenordain azentudunak dira lehenak.

<sup>13</sup> Puntu hau sakonago aztertuko dugu hurrengo atalean.

- Haur guztiak zenbait preposizioz jabetzen dira. Hortaz ez dago "preposizio unibertsal" bakar bat lehen arorako.

- Beste zenbait preposizio ere azaltzen da: Komitatiboa, Instrumentala eta Benefaktiboa. Mota hauek preposizio gehienak, lehen preposizio espazialak azaldu ondoren ikasten ditu haurrak, 2;00;00 - 3;04;00 bitartean. Jabekuntza bi-hiru hitzen arteko aroaren hasieran kokatzen da (EBBL<sup>14</sup> 2,6 - 3,4 denean), komitatiboa izan ezik, hau normalki (EBBL > 4 denean) agertzen baita.

- Preposizio sintaktikoak dira azken agertzen direnak. Hauek esanahiaren laguntzarik gabe ikasi behar ditu haurrak. Aditzaren mende daude, ez dute inongo esanahirik eta funtzio guztiz gramatikala betetzen dute. Aipatu den bezala, zailtasun handiagoa dute; hau dela eta 3;04;00-4;00;00 adina arte ez dira azaltzen jabetza-prozesuan. Forma hauen jabekuntza, haurrak bi hizkuntz sistemak bereizi dituenean azaltzen da normalki.

#### **4. 3. 2. -Ikerketen ondorio orokorrak**

Haur elebidunen bi hizkuntzen bilakabideak aztergai dituzten ikerketetan, ondorio hauek ikusi ahal izan ditugu:

- Euskara eta Gaztelania aldi berean ikasi dituen haurrari dagokionez, bi urte bete ondoren morfologikoki markatutako subjektuak eta objektuak ekoizten ditu bi hizkuntzetan, ia aditz jokatuaren azalpenarekin batera.

- Aztertutako haurrak, Lokatibo, Adlatibo, Soziatibo, Instrumental eta Benefaktibo nozioak ondo erabiltzen ditu azterketaren amaieran, hau da, bi urte ta erdi inguruan, batzuk hizkuntza batean, beste batzuk bestean. Lokatibo eta Adlatibo edo Norabidezko nozioak bi hizkuntzetan zehar azaltzen diren bitartean, Instrumentala eta Benefaktiboa gaztelaniaz, eta Soziatiboa euskaraz bakarrik. Honek erakusten du nozio hauek azaltzeko modua dela arazoak sortzen dizkiona haur honi, eta ez nozioa bera.

- Alemaniera eta frantsesa aldi berean ikasten dituzten haurren bilakabideei dagokionez, Parodi-  
ren (1989) ikerketan frantseseko "a" preposizioa alemanierako kasu-markaren edozein forma baino lehenago azaltzen da. Beranduago, ordea, desagertu egiten da, hiru urte bete arte, eta honek errepikapenez ikasia den susmoa du. Hau bat dator urte bereko Klinge-ren emaitzekin, kontuan izanik bi hizkuntzetan preposiziozko kasu-markak, inflexioak baino lehenago azaltzen direla honen ikerketan.

- Ohikoak diren preposizioetatik at, haur guztiek zenbait preposizio ezberdin erabiltzen dutenez, ezin daiteke esan aro goiztiar baterako preposizio unibertsal bat dagoenik.

---

<sup>14</sup> EBBL: Esaldien batz besteko luzera. Beranduago argitasun gehiagorekin azalduko badugu ere, erreferentzi gisa, adinaz gain hizkuntz jabekuntzan erabiltzen den beste neurri bat da.

- Preposizio sintaktikoak aditzaren menpe daude eta haurrak bi sistema linguistikoak bereizten dituenean azaltzen dira; hauen ekoizpenean ez dute errurik egiten, eta puntu honek guztiz gramatikalak diren hipotesia indartzen du.
- Orain arte ikusitako azterketek bi hizkuntzen bilakabidea berdintsua dela erakusten duten bitartean, alderantziz gertatzen da errusiar-georgiera hizkuntzak aldi berean ikasten dituen haurraren. Izan ere, haur honek kasu-markaren sintaxi- bilakaera oso ezberdina erakusten du haur georgiar elebarrarekin erkatuz ere.
- Georgieraz ematen den "split-ergative" edo kasu aldaketaren fenomenoak inongo arazorik sortzen ez duen bitartean haur elebarraren artean, aztertutako haur elebidunak zailtasunak ditu.
- Dirudenez, bi hizkuntzen aldi bereko jabekuntzak arazo handiagoak ditu georgieraz alderantziz baino.

#### **4.4. HIRUGARREN ATALA: PREPOSIZIOAK AZTERGAI DITUZTEN IKERKETAK**

##### **4.4.1. -Ikerketen azterketa**

Beste ataletan bezala, preposizioen azterketa ere hainbat hizkuntzatan eta hainbat ikuspegitatik egin izan da. Hauetako ikerketa batzuen helburua, preposizioen azterketa bera izan da, bestetan berriz preposizioen azterketa helburu orokorrago batean kokatzen da. Gaztelaniazko preposizioak aztertu dituenetako bat Gili Gaya (1974) izan da. Ikertzaile honek Puerto Rico-ko eskolaurreko eta eskola garaiko haurrek ekoiztutako preposizioen azterketak bereizten ditu. Horrela, lau urtez ezgeroztik guztiz finkatuta azaltzen diren preposizioak "a, con, de, en, para, por" dira. Oso gutxitan azaltzen direnak: "entre, hasta, sin", eta eskola aurreko adin honetan agertzen ez direnak berriz "contra, desde, hacia, sobre". Bestalde, preposizioaren beharra izan eta ez erabiltzea, hiru kasutan bakarrik gertatu zen. Eskola garaiko lehen mailan, eskolaurrean aipatutako preposizioez gain, "desde, entre, hasta, contra, sin" agertzen dira. Geratzen diren beste preposizioek, hau da, "ante, bajo, tras, hacia, sobre", Puerto Rico-n erabilera kulto edo literarioa dutenez, herri-hizkuntzak ez ditu erabiltzen, hortaz ez dira azaltzen haur-hizkuntzan. Bestalde, "hacia" preposizioaren ordez "para" erabiltzen da (ven pa casa), eta "sobre" preposizioaren ordez "encima de".

M. Peronard-ek (1985) egindako ikerketan ere emaitza berdintsuak ikus daitezke. Ikerketa honetan parte hartu zuten hiru haurrek erabiltzen dituzten preposizioak honako hauek dira: "a, con, de, en, hasta, para, por, sin". Honez gain, haur bakoitzak beste biek erabiltzen ez duten preposizio bana erabiltzen du. Batek "sobre", bigarrenak "entre" eta hirugarrenak "desde". "Bajo" preposizioaren ordez "abajo (de)" esaldi adberbiala aurkitu zuen. Bestalde, helduen hizkuntzaren arabera, "contra" preposizioak azaldu beharko lukeen zenbait inguruetan, "con, en" aurkitzen ditugu. Horrela bada "a, con, de, desde, en, entre, hasta, para, por, sin, sobre" preposizioak aurkitu zituen aipatutako haurren hizkuntzan. Garapen kognitiboaren lehentasuna onartuz, "lekua, instrumentua eta konpainia" zirkunstantziak izan ziren lehenak hiru haurraren. Gili Gaya-ren emaitzekin erkatuz, gure ustez parekotasuna ia osoa da, bai ekoiztutako

preposizioei dagokienez<sup>15</sup>, bai azaldu ez direnak kontuan hartuz ere, hauek "ante, bajo, contra, hacia, según, tras" izan zirenez. Parekotasuna areagotu egiten da "a, en, de, con, para, por" preposizioak lehenengo ikasi eta gehien erabiltzen direnak adierazten duenean, kontuan izanik hauek berak direla, hain zuzen, Gili Gaya-ren eskolaurreko hurrek guttiz finkatuak dituzten preposizioak.

Bi urte eta erdiko 24 hurren garapen morfosintaktikoa aztertu zuen G. Aguado-ren (1988) lanean ere, emaitza berdintsuak ikus daitezke preposizioei dagokienez. Adin honetan aztertutako hurrek erabiltzen dituzten preposizioak "en, con, a, de, por, sin, hasta" dira. Aurreko bi lanetan lehenik azaldutako preposizioetatik, "para" ez beste guztiak azaltzen dira lan honetako hurrengan. Honez gain, Gili Gaya-ren azterketan gutxi azaltzen ziren "hasta,sin" preposizioak, hemen ere azalpen urriena dutenak dira. Zenbaitetan, preposizio bat edo biren bitartez, beste guztiak ordezkatzeko zituzten. Bestetan, garapen fonologiko eskasa zela medio, zaila egiten zen preposizioaren presentzia nabaritzea. Horrela, erabilera ez zen oso ziurra izan, erruak eta hutsegiteak kontuan hartuz. Gure ustez ordea, ikerketa honetako hurren adinaren ondorioa lirarteke zalantza hauek.

Preposizioen azterketa egiten den ikerketa gehienetan, leku erlazioak izaten dira aztergai. Erreferentzi bezala hartzen den J. R. Johnston eta Dan I. Slobinen (1979) ikerketan, Ingelera, Italiara, Serbo-kroaziera eta Turkiera hizkuntzetan funtsezko zazpi leku erlazioaren azterketa egiten dute "in, on, under, beside, between, back, front". Hizkuntza bakoitzean bi, hiru, lau urte bitarteko 48 haur aztertu zituzten.

- Slobinen "Cognitives prerequisites for the development of grammar" (1973) lanean oinarrituz, bi aldagai izan dituzte kontuan:

1) Garapen kontzeptuala

2) Prozesu linguistikoaren zailtasun maila.

Jabekuntzaren determinatzaile bakarra konplexotasun kognitiboa balitz, ondorengo ordena aurkituko genuke lokatiboen agerpenean, garapen kognitiboaren unibertsal moduko funtzesko sekuentziaren arabera:

"IN, ON, UNDER < BESIDE < BACK" f<sup>16</sup> < FRONT" f" < BETWEEN < BACK < FRONT"<sup>17</sup>

<sup>15</sup> M.Peronard'-ek bere emaitzak Gili Gaya-ren eskola-garaiko hurrekin erkatu zituen, eta emaitzak ez datoz bat. Gure ustez ordea, erkaketa ez zuen ondo egin, kontuan izanik Gili Gaya-ren eskolaurreko hurren emaitzak lau urtez ezgeroztikakoak zirela, eta Peronard-en azterketa lehen preposizioaren agerpenetik lau urte bitartean egin zela.

<sup>16</sup> "back, front" preposizioek bi erabilera ezberdin dituzte:  
a) aurrealdea eta atzealdea duten objektuekin (pertsonek, kotxeak,...). Hauek "f" batez markaturik azaltzen dira.  
b) ezaugarri hau gabeko objektuak (zuhaitzak, edalontziak...).

Bigarren erabilera kontzeptualki zailagoa da eta beranduago ikasten da, alde batetik hiztunaren ikuspuntua beharrezkoa delako eta bestetik hiztunaren hurbiltasun erlatiboa, objektuaren erreferentzia eta objektuaren kokapenaren arteko koordinaketa eskatzen dituelako.

Faktore kontzeptualaz gain ordea, hizkuntza bakoitzeko faktore linguistikoak ere kontuan hartzekoak dira. Hizkuntzak ezberdinak dira, haurrentzat behintzat, ez zer esan daitekeela-eta, nola esan daitekeen moduan baizik. Horrela, aipatu Johnston eta Slobin-en lanean, aztertu diren lau hizkuntzen zenbait faktore linguistikoren rolen azterketa onartzen dute:

- 1) Hiru hizkuntza I.E. ( Ingelesa, Italiara eta Serbo-Kroaziera) preposizionalak diren bitartean, Turkoa posposizionala da. Slobin-en (1973) ustez, sistema posposizionala, preposizionala baino lehenago ikasten da. Hortaz, turkierak abantaila izango luke alor honetan.
- 2) Beste faktore linguistiko bat, dibertsitate lexikala da. Horrela, Ingelesak termino ugari ditu hurbiltasuna adierazteko (beside, bay, next to, near, close to), turkierak bakarra (yaninda) duen bitartean. Dibertsitate lexikalak jabekuntza atzera dezakeela iragartzen dute.
- 3) Zenbait termino etimologikoki argiak diren bitartean, ingelesez "in back" gorputzaren atal bat adierazteko, beste batzuk "between" bezala semantikoki ilunak gertatzen dira. Horrela, argitasun etimologikoak jabekuntza lagun dezake.
- 4) Preposizioak eta posposizioak konplexotasun morfologikoari dagokionez ezberdinak izan daitezke, "in" adierazpen morfemiko soiletik, "on top of , in the middle of" multimorfemikoraino. Konplexutasun morfologikoak jabekuntza atzera dezake.
- 5) Azaleko zenbait forma azpiko nozio bat baino gehiagorentzat homonimoak dira. Horrela, haurrak kontzeptu semantikoak eta azaleko morfemak banan bana azaldu nahi baditu, homonimitateak jabekuntza zailagoa egin dezake.

Faktore guzti hauek kontuan hartuz, lokatiboak ekoizteko trebetasuna, adinaren, sexuaren eta ikasten ari den hizkuntzaren arabera gertatzen da.

Ingelesez, Turkieraz eta Italieraz, iragartzen zen moduan ikasten dituzte hurrek lokatiboak, haur Jugoslaviarretan partzialki ematen den bitartean. "In, on, under, beside" beti " between, back f, front f" baino lehenago ikasten dira. Eta hauek "back, front" baino lehenago agertzen dira beti.

Emaitzak laburbilduz, badirudi haur italiarrek eta turkoek, ingelesek eta serbo-kroaziarrek baino azkarrago ikasten dituztela lokatibo hauek. Termino ugariagoak dituzte orohar, erru gutxiago egiten dituzten une berean.

Faktore kontzeptualek eta linguistikoek bakoitzak bere aldetik eragina izango balute bezala azaldu badira ere, parametro linguistikoen eragina, garapen kontzeptualaren mailaren menpe egon daiteke.

Urte berean E. Dromi-k (1979) hebraiera lehen hizkuntza duten 30 haur aztertu zituen:

---

<sup>17</sup> Ikerketa honetako ikertzaile batek, D. I. Salobin-ek hain zuzen, A.A. Aksu-rekin eginiko beste lan batean (1985), haur turkoen preposizio lokatiboak ere ordena berean lortzen ditu.



adina bi hiru urte bitartean kokatzen zen.

Hebraieraz, leku erlazioak gehienetan preposizioen bidez adierazten dira. Baina preposizio hauek forma ezberdinak dituzte:

- a) Aurrizki enklitikoak
- b) Hitz preposizional askeak
- d) Forma fusionatuak

- Bestalde, preposizio ezberdinak daude nozio berdin bat adierazteko.

Ondorengo hipotesiak proposatzen dira Lokatiboen jabeakuntza prozesurako:

- 1) Aurrizkiak nabariagoak dira haurrentzat.
- 2) Forma berrien jabeakuntzan, konplexutasun morfologikoa garrantzizko faktorea da.

Ikerketa honen emaitzek erakusten dutenez, hebraieraren datuak ez datoz guztiz bat Johnston & Slobin (1979) datuekin. Hebraieraz lehen ikasten diren bi preposizioek forma berdina dute: biak aurrizki enklitikoak dira. Aurkikuntza honek adierazten du ez direla bakarrik partikula posposizionalak jabeakuntza laguntzen dutenak (Slobin, 1973), aurrizkiak ere haurrentzat hitz askeak baino nabariagoak gertatzen direla baizik. Dirudienez bi forma ezberdinek nozio lokatibo berdina adierazten dutenean, haur israeldarrek aurrizkiak aukeratzen dituzte, alde batera utziz forma askeak. Bi forma ezberdin hauen maiztasuna helduen hizkuntzan, eta batez ere amek haurrari eskeintzen dioten "input-a" da kontuan eduki behar den beste faktore bat autore honentzat. Bestalde, nolabaiteko konplexutasun formal edo morfologikoa duten gainerako preposizio lokatiboak, oso gutxitan ekoizten dira, eta hori EBBL altua duten haurretan bakarrik gertatzen da. Esan daiteke, hiru morfema ezberdinez osatuta dauden preposizio lokatiboak ez direla arruntak bi-hiru urteko haur hebraiarren ekoizpenetan, eta agian nahiko berandu ikasiko direla.

Hebraieraren datuen araberrako aurkikuntza nabariena, "mixtaxat le-" (under) preposizioaren ekoizpen urria da, eta erabilitako probetan haurrak espreski motibatzen ziren arren. "Under" nozioa kognitiboki "in, on" baino konplexuagoa eta "beside, between, behind" baino errazago hartu izan da ikertzaileen gehiengoaren aldetik. Hori dela eta, nozio hauek adierazten dituzten espresio linguistikoak izan dira proposatuak haurrak lehen ulertu edo ekoizten dituenak bezala, "in, on, under" preposizioak hain zuzen. Ordena hau Johnston & Slobin-ek (1979) ikertutako hizkuntza guztietan ematen da. Baita ingelesez egindako lanetan ere (Clark, 1972; Grieve et al., 1977; Washington & Naremore, 1978; -autoreen aipamenak-). Guk aztertu dugun Kevin Durkin-en (1981) lanean ere, aztertutako haur ingelesek hiru preposizio hauek erabiltzen eta ulertzen dituzte, hiru urte inguruan. Hebraiera hitz egiten duten haurrek ordea, zailtasun morfologiko bat gainditu behar dutela dirudi, haur hauek morfema bakar batez osatutako lokatiboak ikasten baitituzte lehenago, ikerketa honetako datuek argi erakusten duten bezala. Hortaz, haseran aipatutako konplexutasun morfologikoa preposizio lokatiboez jabetzeko orduan erabakiorra den hipotesia, kontuan eduki behar den arazoa da.

Horrela bada, leku erlazioen artean "containment, support eta occlusion" kontzeptuak beste erlazio espazialak baino errazagoak direla, hau da, "in, on, under" terminoak besteak baino

lehenago ikasten diren zalantza, besteak beste Edith L. Bavin-ek (1990) warlpiri<sup>18</sup> hizkuntzako leku-erlazioak aztertzen dituen lanean eta Paul Van Geert-ek (1985/86) leku-erlazioen gaitasuna haur ingeles batean nola ematen diren ikertzen duen lanean ikus daiteke.

Beste zenbait lanetan ematen den eta gorago aipatu den ordena ez da ematen warlpirian. Ulermenaren eta ekoizpenaren emaitzak, "kulkurru" (between), "kamparru" (front) eta "pirdangili" (behind) baino lehenago azaltzen direla erakusten dute. Bestalde, "on, in, under" arteko bereizketa goiztiarrik ez da ematen haur txikietan, "up - down" arteko bereizketa ematen den bitartean. Gainera, "pirdangirli" (behind) eta "kamparru" (front) terminoak ez dira kontrakoak 3-4 urteko haurrentzat. Oposaketa hau, haur handiagoetan lortzen da.

Aipaturiko P.V.Geert-ek ohikoa den teoria kontzeptuala alde batera utziz, "modularitatearen teorian" oinarrituz, hau da, pertzeptzioa, ekintza eta hizkuntzaren atal ezberdinen arabera "in, on, under" termino espazialen ikerketa egiten du. Alde batetik ez du ikusten arrazoi teorikorik "in" bezalako kontzeptu batek "on" kontzeptuak baino konplexutasun gutxiago izan dezan eta azken hau "under" baino errezagoa dadin. Teoria honen arabera, preposizioen jabekuntzak preposizioen banaketa lexikalaren erregelak ezagutzera eskatzen du, eta erregela hauek ez dira oinarritzen erlazio espazialen kontzeptu soiletan.

Beren hizkuntza ingelera hizkuntza duten hamar hurrek erabilitako % 30 perpausetan termino espazial bat ageri zen, David Furrow, Patricia Murray eta Melissa Furrowek (1985/86) leku-erlazioak aztertu zituzten ikerketa batean. Bestalde, autoreen ustez, termino espazialez egin diren lan gehienek (Charney, 1979; Clark, 1973; Johnston & Slobin, 1979; Durkin, 1978; autoreak aipatutakoak) erabiltzen duten metodologia ez da zuzena, ulermenaren eta ekoizpenaren berri emateko, ikertzaileek manipulatu egiten dutelako ingurunea. Arazo honen aurrean, hurrek beren amekin jolasean ari direnean ekoiztutako hizkuntza aztertu zuten.

Leku preposizioekin jarraituz, G. G. Abkarian-ek (1983) egindako lan batean, "in front of, in back, ahead of, behind" preposizioen azterketa egin zuen. Egile honek dioenez, Clark-ek 1.973. urtean azaldutako hipotesiaren aurkako emaitzak lortu zituen, hau da, aipatutako pare hauen artean, preposizio "positiboak" edo ez markatuak (front, ahead), "negatiboak" (back, behind) baino lehen ikasiko direla zioen hipotesiaren aurkako emaitzak. Abkarian-en emaitzek diotenez, hiru urteko haurren erdiak baino gehiagok, eta lau urteko haurren laurdenak, delako preposizio positiboak "in front of, ahead of" gaizki interpretatzeak, "in back of, behind" preposizioak, hau da, negatiboak, semantikoki indartsuagoak direla adierazten dute. Ikertzaile honen ustez, lan honen bidez garbi dago "in back of - behind" preposizioak termino primarioak direla, ez eratorriak.

Preposizio espazialek mugatu ez diren zenbait ikerketa ere aztertu dugu. Hauetan ordea, beste preposizio guztiak, oposaketa espazialaren ondoren ikasten direla ikusi da. Michael Tomasello-k (1987) ingeleseko Lokatibo, Norabidezko, Komitatibo, Datibo, Benefaktibo, Instrumental eta Genitibo erlazioen jabekuntza-prozesua azaltzen digu. Behatutako haurra goiztiarra izan zen hizkuntzaren jabekuntzan. Preposizio hitzak, helduen hizkuntzaren arabera,

---

<sup>18</sup> Hizkuntza hau Australian hitzegiten direnetako bat da.

1:05:00 adinarekin azaldu ziren. Preposizio espazialak izan ziren lehen agertu zirenak aztertutako haurraren. Autoreak aipatzen dituen Grimm, 1975 eta Vorster, 1984 ikertzaileek aurkitutako emaitzekin bat datoz bere emaitzak. Sentzu berean ere, haur ingelesen leku-denborazko erlazioak aztertu zituen Richard M. Weist-en (1991) lanean ere, lokazio espaziala tenporala baino azkarrago lortzen dela ikus daiteke. Aipatutako hau bat dator autoreak aipatzen duen Clark (1973)/Traugott-en (1978) hipotesiarekin, hau da, lokazio espaziala tenporalaren aurretik azaltzen dela, eta hizkuntzako sistema tenporala sistema espazialek eratortzen dela hain zuzen. Hau bera dio gorago aipatutako S. Klinge-k (1989) ere alemaniera eta frantsesa aldi berean ikasi zuten hiru haurren preposizioak aztertzerakoan. Ikertzaile honek ikusi zuenez, erlazio lokatiboak dira lehen agertzen direnak hiru haurraren, gero tenporalak eta azkenik instrumentalak. Horrela bada, bilakabide kognitiboaren arabera, denbora kontzeptua espazio kontzeptuaren ondoren azalduko da.

#### 4. 4. 2. -Ikerketen ondorio orokorrak

Preposizioak aztergai dituzten ikerketan ikusi ahal izan ditugun ondorioak aipatuko ditugu jarraian:

- Lehen ikasten diren gaztelaniazko preposizioak "a, con, de, en, por, para" dira. Haurren hizkuntzan agertzen ez direnak, berriz, "ante, bajo, tras, hacia, sobre".
- Preposizio hauen jabekuntza lortu ahal izateko, haurrek 12 -15 hilabete inguru behar dituzte, bakoitzak bilakabide ezberdina erakusten duelarik: haur batzuek, preposizio guztiak 15 egunen barruan eskuratzen dituzten bitartean, beste batzuek sei hilabete eta erdi behar dituzte.
- Hasiera batean, preposizio bat edo biren bitartez, beste guztiak ordezkatzeko dituzte.
- Espresio lokatiboen jabekuntza ordena zehatza hizkuntza bakoitzaren arabera gertatzen da, hizkuntza horren ezaugarrien arabera hain zuzen, baina, haurraren garapen kontzeptualaren arabera, bada ordena orokor bat hizkuntza guztietan zehar: " In, on, under, beside < back "f", front "f", between < back, front".
- Hebraieraz lehen ikasten diren bi preposizioek forma berdina dute, biak aurrizki enklitikoak dira. Aurkikuntza honek adierazten du ez direla bakarrik partikula posposizionalak jabekuntza laguntzen dutenak (Slobin, 1973), haurrentzat aurrizkiak ere hitz askeak baino nabariagoak gertatzen direla baizik.
- Preposizio lokatiboen jabetzeko orduan, konplexutasun morfologikoa erabakiorra den hipotesia kontuan eduki beharrekoa da, hau da, konplexutasun morfologikoak termino lokatiboen jabekuntza atzeratzen du.
- Leku-erlazioen artean "containment, support eta occlusion" kontzeptuak beste erlazio espazialak baino errazagoak direla, hau da, "in, on, under" terminoak besteak baino lehenago ikasten diren hipotesia zalantzarikoa da.
- Haurrek erabilitako % 30 perpausetan, termino espazial bat ageri da.

- Delako preposizio "negatiboak" (in back of, behind) dira termino primarioak eta ez preposizio "positiboak" (in front of, ahead of)

- Preposizio espazialetera mugatu ez diren ikerketetan ikus daitekeenez, leku-preposizioak beste edozein preposizio baino lehenago ikasten dira.

#### **4. 5.-LAUGARREN ATALA: IZENORDAINAK AZTERGAI DITUZTEN IKERKETAK**

##### **4. 5. 1. -Ikerketen azterketa**

Izenordainen jabekuntza-bilakabidea luzea da, eta oinarria haurrak bere bizitzaren lehen urtean egiten duen lehen keinu deiktikoan kokatu behar da. Prozesu honetan, haurrak bereizketa morfologiko, sintaktiko, semantiko eta pragmatikoak ulertu eta menderatu beharko ditu.

Izenordainak aztertu dituzten ikertzaile gehienek adierazten dutenez, kategoria honen jabekuntza goiztiarra izaten da. Horrela ikusi du gaztelania aztertu duen zenbait ikertzailek, Carmen Muñoz-en (1986) lan teorikoak hauen artean. Honek dioenez, lehen kontraste deiktikoa "yo - tu", bigarren urte inguruan kokatzen da, eta hiztunaren izaera mugikorra hirugarren urte inguruan jabetzen da. Hirugarren pertsonaren jabekuntza, haurrak hiru urte dituen hasten da, eta zazpigarren urte inguruan amaitzen.

Hizkuntza berean lehen erreferentzia pertsonala azaltzen den unetik, lehen eta bigarren pertsonako izenordainez jabetu arte eginiko ikerketa enpiriko batean, C. Muñoz eta I. Vila-ren (1985) emaitzak diotenez, forma pronominalak oso goiztiarrak dira aztertutako bi haurren hizkuntzan. Horrela, 2;05;05 adinaz lortu zuen haur batek pertsona-izenordainak subjektu gisa erabiltzen. Bigarrenak, 3;00;27 adinez lortu zuen. Bi haurrek, lehen pertsonako izenordain subjektuak perpausaren atzean jartzeko joera nabaria dute. Hori ez da ingelesa ikasten duten haurren artean gertatzen, eta arrazoa gaztelararen ezaugarri morfo-sintaktikoetan egon daiteke.

Urte berean A. Rom eta R. Dgani-k (1985) hebraiera aztertu zuten lan batean, kasu-marka duten izenordainak, hizkuntza honek erakusten duen konplexutasun morfofonologikoaz gain, oso goiz ikasten direla diote: bi urte bete aurretik, hain zuzen, eta 3;06;00 adinerako egitura hauen erabilera zuzena ia menderatu egiten dela.

Haur ingeles baten erru pronominalak aztertu zituen Yuriko Oshima-Takane-n (1992) emaitzek dioenez, lehen eta bigarren pertsonako izenordainak 1;08;00 inguruan hasta da erabiltzen, eta 2;10;00 inguruan erabilpen zuzena lortzen du haren haurrak.

Hirugarren pertsonari dagokionez, G. Shum, A. Conde eta C. Diaz-ek (1989) gaztelaniaren termino deiktikoen erabilera bi haurrengan aztertu ondoren, jabekuntza beranduago lortzen dela diote, aldakorragoa delako eta, aldi berean, ez dagoelako hain erlazionatua elkarrizketaren rolaekin. Hebraiera lehen hizkuntza zuten 195 haur aztertu zituzten A. Rom eta R. Dgani-k (1985). Ikerketa horren emaitzak erakusten dutenez, faktore pragmatiko-semantikoak kontuan hartuz, lehenago jabetzen dira lehen pertsonaz, bigarren eta hirugarrenaz baino. Hau da, beste zenbait hizkuntzetako haurrek bezala, hiztunaren rola lehenago ikasten dute, ez-hiztunarena

baino.

Bestalde, kategoria honen barruan dauden izenordain ezberdinak kontuan hartuz, hizkuntzen jabekuntza-prozesuan lehen azaltzen direnak, ia lehen hitzekin batera, erakusle izenordainak dira, ondoren pertsona izenordeak singularrean, gero pluralean eta beranduago indefinituak, inpersonalak... Hau da, lehen azaltzen direnak funtzio deiktikoa dutenak dira eta beranduago izaera linguistikoagoa dutenak (G. Shum, 1993). Shum, Conde eta Diaz-en (1989) azterketan, berriz, pertsona izenordainak dira lehen ikasten direnak.

Aztertu ditugun ikerketa guztiak bat datoz, funtzio deiktikoa anaforikoa baino lehen azaltzen dela adieraztean. Horrela, gorago aipatutako ikerketa teoriko batean, C. Muñoz-ek (1986), Karmiloff-Smith-en (1980-1981) lanean oinarrituz, pertsona-izenordainaren erabilera deiktiko eta anaforikoei dagokionez, erabilera deiktikoaren hasiera laugarren urte inguruan kokatzen dela dio, eta garapena bederatzi urteraino luzatzen. Erabilera anaforikoaren hasiera, berriz, beranduago kokatzen da, diskurtso mailan. Iritzi berdinekoa da gaztelaniazko izenordainak aztertu dituen G. Shum (1993). Izenordaina oso goiz azaltzen da haurren ekoizpen linguistikoan, baina kategoria honen jabekuntza formala askoz beranduago lortzen da. Gainera, izenordainaren kategoria morfologikoaren funtzio biko izaera kontuan hartuz, hasiera batean funtzio deiktikoa bakarrik menderatzen du, funtzio anaforikoa beranduago lortuz. Bestalde, gorago aipatutako G. Shum, A. Conde eta C. Diaz-ek (1989) diotenez ere, beraien ikerketaren lehen unetik erabiltzen dituzte bi hurrek termino deiktikoak, "esto, eso, aquí" formak erabiliz. Gainera erabilera zuzena da, bai helduekin sortzen den komunikazio mailan, bai maila sintaktikoan. Baina termino hauen ezaguera ez da nahikoa eta termino hauen jabekuntza beranduago osatzen da, autoreak aipatzen duen Clark eta bere lankideek azpimarratzen dutenez. Bestalde, hebraierazko termino deiktiko edo erakusleen hurbiltasun/ ez-hurbiltasunari dagokionez, A. Rom eta R. Dgani-k (1985) diotenez, hurrek lehen eta bigarren pertsonarekin erlazioa duten izenordainak ikasten dituzte lehenik, eta beranduago hirugarren pertsonarekin zerikusia dutenak. Baina autore hauek diotenez, ordena honekin ezadostasuna erakusten duten emaitzak ere ezagutzen dira (adib: Cruttenden, 1977). Lan honen emaitzak, erakusleen hurbiltasun/ ez-hurbiltasunari dagokionez, zenbait gorabehera erakusten ditu, agian hebraierazko izenordain pertsonaleko bigarren pertsonaren zailtasun morfofonologikoagatik. Horrela, haur batzuek hirugarren pertsona lehenago erabiltzen dute bigarren pertsona baino.

Gaztelaniazko pertsona-izenordainen erabileraren maiztasuna adierazten du G. Aguado-k (1988):

- Pertsona izenordainak subjektu funtzioan %66,66 hurrek erabili zituzten. Kategoria honen barruan, pertsona batzuren eta besteren erabilera honelakoa izan zen:

- Lehen pertsona izan zen gehien erabili zutena, %87,5ek.

- Bigarren pertsonaren erabilera %50koa izan zen.

- Hirugarren pertsona izan zen erabilera urriena erakutsi zuena: %12,5a.

- Osagarri-funtzioaren erabilerari dagokionez, %76,16koa izan zen. Hauen artean azalpen gehiena izan zuena lehen pertsona izan zen (batez ere "me"). Hirugarren pertsonako "le, lo" formak ere azalpen berdintsua izan zuten, "lo" forma gehienetan enklitikoki azaltzen bazen ere. Bigarren pertsona singularrari dagozkion formak, maiztasun gutxiagoz azaldu ziren.

- Izenordain guzti hauek singularrean ekoiztuak izan ziren.

- Pertsona-izenordain hauen artean, osagarri-funtzioan gehiagotan azaltzearen arrazoia, gazteleraz subjektu-funtzioan azaltzen diren izenordainak aukerazkoak direla izan daiteke, hau da, ezaba daitezke, inongo ulermen-arazorik gabe.

Genero-bereizketa dela eta, ikertzaile honek ere aipatzen duenez, bost urte inguruan lortzen da, numero eta kasu bereizketa aurretik.

Orainarte ikusi dugunez, berdintsuak dira hizkuntza batzuetan eta besteetan izenordainen jabekuntzari buruzko emaitzak. Hau bera ikus daiteke J. Weissenborn, M. Kail eta A. Friederick (1990) izenordain-objektuen ulermena hiru hizkuntzetan aztertu zuten ikerketa batean.

Azterketa honen helburua, hizkuntzaren rol bereziak nederlanderaz, frantsesez eta alemanieraz ikertzea izan da. Horretarako, izenordainak diren objektu zuzenaren nahiz zeharkako objektuaren ulermenaren garapenean kokatzen dira autoreak. Hizkuntza hauen sistema prononimalak ezberdinak dira zenbait ezaugarri fonologikoari, izenordainaren kokaketari eta kategoria frasalari dagokienez.

- Hizkuntzaren ezaugarri berezi hauetan oinarrituz, ondorengo garapen-hipotesiak planteatu izan dira:

a) Fonologikoki hitz askeak ez direnak (klitikoak) , hitz fonologikoak (ez-klitikoak) baino zailagoak dira .

b) Kokapen kanonikotik aldentzen den ereduak, garapena atzeratu egingo du.

d) Funtzio sintaktikoa preposizio batez markaturik duten izenordainen ulermena lehenago lortzen da .

- Emaitzak kontuan hartuz, aipatutako hizkuntzaren faktore bereziek (hau da, klitikotasuna, kokapena eta kategoria frasalak) ez dute eraginik, hizkuntzaren garapenean itxaro zen zentzuan behintzat. Nahiz eta hiru hizkuntzetan izenordain zuzenaren sistemak ezberdinak izan, izenordainaren ulermenaren garapena berdina gertatzen da. Hau dela eta, ikertutako faktore "pertzeptualek" ez dute hizkuntzaren garapenean normalki ezarri zaizkien rolik betetzen, hemen aztertutako gramatikaren eremuan behintzat.

Izenordainen azterketa egiterakoan, hurrek egiten dituzten erru pronominalak ere aztergai dira zenbaitetan. Jabekuntza-prozesuan hurrek erru pronominalak egiten dituztela diote zenbait ikerketek. Baina denak ez datoz bat baiespen honekin, haurren artean fenomeno hau ez dela arrunta diotenez. Lehen eta bigarren pertsonako izenordeak ondo erabili ahal izateko, izenordainak eta hizketa-rolen arteko harremanak ulertu behar dituzte hurrek. Inbertsio pronominalaren arazoa aipatzerakoan, Carmen Muñoz eta Ignasi Vila-k (1985) izenordainen hizketa-funtzioa (speech role) jabekuntza goiztiarra dela diote, hurrek bigarren urtean lortzen dutela, baina lorketa hau bilakabide luze eta konplexu baten ondorioa dela, ekintza linguistikoen

aurreko jarduerak eragin garrantzitsua dutelarik. Gainera, aztertutako ikerketan oinarrituz, haurren artean inbertsioak ez direla ohiko arazoa diote. Urtebete beranduagoko gaztelaniazko izenordain pertsonalei buruzko lan teoriko batean, C. Muñoz-ek (1986) hipotesi ezberdinak daudela dio inbertsio pronominalari buruz, baina erru hau berehala zuzentzen dutela haur gehienek, sei hilabeteren barruan hain zuzen, bi urte / bi urte eta erdi bitartean. Yuriko Oshima-Takane-k (1992), 1;07;00 adinetik 2;10;00 raino haur ingeles batek lehen eta bigarren pertsona-izenordainetan egiten dituen erruen azterketa egiten du ondorengo hiru hipotesiak kontuan izanik:

- a) Nahasketa semantikoa
- b) Imitazio hutsa
- d) Norberaren eta besteen arteko nahasketa.

Bere azterketan ikusi ahal izan zuenez, erru pronominalak 1;11;00 - 2;04;00 inguruan agertzen dira, eta erru hauek zerikusi handiagoa dute nahasketa semantikoarekin imitazio hutsarekin edo bere buruaren eta besteen arteko nahasketarekin baino.

Bestalde, Grace Shum-ek (1993), 7 urteko 180 haurrekin egindako lan batean dioenez, haurrek era askotako erruak egiten dituzte hizkuntzaren jabekuntza- prozesuan: behar den kategoria ez agertzea, kategoria ez-egokia ekoiztea, kategoria ordezkatzeta, gehitzea, ordenari zein komuntadurari dagozkien hutsegiteak. Aipatutako azterketak erakusten duenez, hizkuntzaren erabilera formalagoa eskatzen duen diskurtsoko adierazpen eta eraikuntzan, izenordainaren ekoizpenean erru sintaktiko asko egiten dira. Horrela, gaitasun sintaktikoa ez da nahikoa diskurtso edo testu bat egoki ekoizteko, beharrezkoa da ezaguera sozial eta kognitiboen jabekuntza ere. Honek garapenaren heldutasun zehatza eta gogapen eta hizkuntz garapen baikorra eskatzen ditu. Alor hauek ikasketa formal baten bidez lortzen dira egoerarik onenetan. Urtebete beranduagoko ikerketa batean, Matthew Rispoli-k (1994) urtebete eta hiru urte bitarteko haur ingelesaren erru pronominalak aztertu zituen. Hamabi haurren ekoizpenetan 20.908 izenordain aztertu ziren, hauetatik 1.347 erruak ziren. Forma objetiboak (him, her, them, me), forma nominatiboen (he, she, they, I) ordezkari erabiltzen dira. Bestalde, izenordainaren egitura morfologikoak erru hauetan eragina duela dioen hipotesia ere aztertzen da; eta ikerketaren datuak aztertu ondoren, baieztatu egiten da.

#### **4. 5. 2. -Ikerketen ondorio orokorrak**

Izenordainak aztergai dituzten lanak berraztertu ondoren, ikusi ahal izan ditugun ondorioak hauek dira:

- Lehen kontraste deiktikoa lehen eta bigarren pertsonen artekoa izaten da, orohar bi urte inguruan.

- Hirugarren pertsonaren jabekuntza beranduago lortzen da, nahiz eta bigarren eta hirugarren pertsonak bateratsu azaldu zenbaitetan haurren hizkuntzan.

- Izenordainak goiz ekoizten badira ere, funtzio deiktikora mugatzen dira, eta jabekuntza anaforikoa beranduago lortzen da.

- Kategoria honen barruan, lehen azaltzen direnak erakusleak dira, ondoren pertsona izenordeak, indefinituak eta inpersonalak.
- Generoa, numeroaren eta kasuaren aurretik ikasten da.
- Pertsona izenordainak gehiagotan azaltzen dira Osagarri- funtzioan Subjektu-funtzioan baino, gaztelania bezalako "pro-drop" hizkuntza batean, hauetan Subjektua ixil daitekeenez.
- Sistema pronominal ezberdinak dituzten hizkuntzetan eginiko ikerketa "cross-linguistico"etan ere, izenordainak diren objektu zuzenen eta zeharkako objektuen ulermenaren garapena era berdinean gertatzen da.
- Inbertsio pronominalak ematen badira ere, ez dute denbora luzez irauten eta ezin dira ohikotzat hartu. Izenordainen hizketa-funtzioa (speech role) jabekuntza goiztiarra da.

#### **4.6.-IKERKETA HAUETAN AZALTZEN DIREN KORRENTE TEORIKOEI BURUZKO KOMENTARIOA.**

Orain arte azaldu duguna, ikerketa hauetan agertu diren emaitzak izan dira. Zeintzuk dira ordea lan hauetan zehar hizkuntz jabekuntzari buruz azaldu diren iritzi edo korronteak? Hizkuntz jabekuntzaren aurrean, eta konkretuki kasu, preposizio eta izenordeen jabekuntzari dagokien alorren aurrean, ikuspegi guztiz ezberdinak azaldu zaizkigu. Ez dago horretaz irizpide bakarra, inguruko hizkuntza ikasterakoan haurrak jarraitzen duen prozesuari buruz. Gainera, **ikerketa gehienetan trebetasun bakar bat baino gehiagoren beharra ikusten da hizkuntzaren garapena lortu ahal izateko, hau da, aztertutako lan askotan ikuspegi eklektikoa azaltzen da.** Ondoren, korrente batzuetan eta besteetan kokatzen diren ikerketak aipatuko ditugu, kontuan edukiz orain esandakoa, hau da, normalki ez direla korrente bakar batean kokatzen, trebetasun ezberdinen beharra ikusten baita ikerketa gehienetan.

##### **4. 6. 1. -Imitazioa**

Autore batzuentzat, asko ez badira ere, imitazioa da haurrak jarraitzen duen baliabidea zenbait preposizio erabiltzerakoan, batez ere jabekuntzaren haseran. Hemen koka daitezke alde batetik Eve E. Clark - Kathie L. Carpentier (1989) autoreek, zenbait preposiziori buruzko jabekuntza lanean, haurren imitazioak eta errepikapenak aipatzen dituztenean, eta bestetik Gili Gayak (1972) Ameriketako gaztelaniaren jabekuntzari buruz egindako lanean ere, imitazioa helduen hizkuntzaren kalko hutsa baino gehiago, ikasten dituen formak egokitzen dituen ekintza sortaile gisa ikusten duenez.

##### **4. 6. 2. -Kognitibismoa**

Kognitibismoaren jarraitzaileak ugariagoak dira dudarik gabe, nahiz eta korronte honen



jarraitzaileen artean aztertu ditugun ikerketa guztietan garapenaren heldutasuna edo faktore kognitiboak ez izan ez bakarrak, ez nahikoak aztertzen den jabekuntza lortu ahal izateko. Besteak beste, teoria kognitiboa onartzen duten autoreen artean, hauek aipa daitezke:

- Aksu-Koç & Slobin<sup>19</sup> (1985): turkieraren jabekuntzaren azterketan dioenez, hizkuntzaren eduki kontzeptuala, haur beraren garapen kognitiboan datza.

- M. Tomasello (1987): ingelerako preposizioen jabekuntza haur batengan aztertzerakoan, faktore kognitiboak hizkuntzaren jabekuntza-bilakabidean duten garrantzia ez du zalantzan jartzen, beste zenbait faktorek ere eragina eduki arren.

- M. Peronard (1985): gaztelaniazko preposizioen jabekuntza- ordenean, garapen kognitiboaren lehenetasuna onartzen du.

- J.R. Johnston & D.I. Slobin (1979): espresio lokatiboen azterketa "cross-linguistic" a egiterakoan, garapen kontzeptualaren menpe egon daitezkeela faktore kontzeptual eta linguistikoak adierazten dute.

- R.M. Weist (1991): lokazio espazial eta tenporalen jabekuntza aztertzerakoan, ezaguera kognitiboa nahikoa ez izan arren, beharrezkoa dela onartzen du.

- C. Muñoz (1986): gaztelaniazko pertsona-izenordainen azterketa teorikoan, kategoria hau ikasi ahal izateko, garapen kognitiboaren beharra aipatzen du besteak beste.

- G. Shum (1993): izenordaina haurraren hizkuntza formalean aztertzen duenean, honen jabekuntza, heldutasunaren garapenarekin eta garapen kognitibo zein linguistikoaren mailarekin erlazionatzen ditu.

- A. Rom & R. Dgani (1985): hebraieraz kasu-markadun izenordainen jabekuntza-ordena azaltzerakoan, jabekuntza goiztiarrean eragina duten rolak, kognitiboak eta semantikoak diruditela diote.

#### **4. 6. 3. -Helduen eragina**

Helduen eta, batez ere, amaren hizkuntza, jarrera, interpretazio eta hedapenak ere garrantzi handiko faktoretzat jotzen dituzte hainbat ikertzailek. Ikuspegi hau onartzen duten autore gehienek ere, ez dute faktore hau bakarra denik uste haurraren hizkuntz jabekuntza prozesuan, "input" honekin batera beste zenbait trebetasun ere aipatzen denez. Helduen hizkuntzaren eragina ikusten duten autoreen artean, honako hauek aipa daitezke:

- Aksu-Koç & Slobin (1985): turkieraren jabekuntza aztertzerakoan, "input"aren garrantzia aldarrikatzen du haurrari egitura linguistikoak azaltzen zaizkion neurrian.

---

<sup>19</sup> Slobin-ek, 1985ean proposatu zuen eredua, innatismoa eta kognitibismoaren arteko konponketa gisa onar daiteke, bi teoriaren alderdiak onartzen dituenez. Alde batetik giza ahalmen kognitibo orokorrak aintzakotzat hartzen ditu, hizkuntza beraren aspektuen garrantzia baztertu gabe.

- A. Barreña (1993): euskaraz Infl. eta Komp. funtzio-kategorien erabilera adierazterakoan, gramatikaren garapena prozesu askea dela dio, hornidura genetikoak eta inguruko hizkuntzek eskaintzen duten informazioaren batuketara.
- M. Tomasello (1987): ingelerako preposizioen jabeakuntza haur batengan aztertzen duenean, faktore kognitiboak eta helduen erabileraren maiztasunak adieraz dezaketela jabeakuntza-ordena dio.
- M. Peronard (1985): gaztelaniazko preposizioen jabeakuntzaren azterketa adierazten duen lanean, grabaketa-saioetan aurkitzen ziren gurasoen interpretapenak eta hedapenak garrantzi handikoak izan zirela dio
- E.L. Bavin (1990): warlpiri hizkuntzako lokatiboen jabeakuntza ageri den ikerketak erakusten duenez, haurrak espresio lokatiboak mailaka ikasten ditu, "input" linguistikoan oinarrituz.
- C. Muñoz - I. Vila (1985): lehen eta bigarren pertsonako izenordainen jabeakuntza gaztelanian azaltzen dutenean, amek erakusten duten jarrera interaktiboak garrantzi handia duela diote.
- G. Shum - A. Conde - C. Diaz (1989): termino deiktikoen jabeakuntza espainieraz aztertzen duten ikerketan adierazten dutenez, elkarrizketan parte hartuz ikasten dute haurrek izenordainen artean ematen diren kontrasteak bereizten. Helduek ekintza hauetan eskeintzen duten "feed-back" delakoa, garrantzi handikoa da hizkuntza-jabeakuntzan eta konkretuki funtzio honen garapenean.
- Y. Oshima - Takane (1988): haurrari zuzentzen ez zaion hizkuntzatik pertsona-izenordainak nola ikasten dituen lanean azaltzen duen ondorio orokorra, hizkuntza honetatik ere haurrek ikasi egiten dutela dio. Dударik gabe, gurasoak beste pertsona heldu bati zuzentzen dion hizkuntzari, haurrak arreta gutxiago jartzen diola, besteak beste, mota honetako ekoizpenak haurrari berari zuzentzen zaizkionak baino luze eta konplexuagak izaten direlako. Zenbaitetan ordea, haurrak arreta jar dezake berari zuzentzen ez zaion hizketan ere.

#### 4. 6. 4. -Hornidura genetikoa

Chomsky-ren teoriaren jarraitzaileak ere aipatzekoak dira aztertu ditugun ikerketetan zehar. Hizkuntzaren garapena adierazteko eredu hau jarraitu duten gehienek, hasera batean kontzeptu semantikoaren garrantzia aipatzen dute, eta ondoren kontzeptu sintaktikoak, hornidura genetikoa, gaitasun gramatikala, modularitatea etab. kontuan hartzen dituzte. Hauen artean, honako hauek daude:

- M. Boverman (1973): fineraren garapen sintaktikoa aztertzerakoan, gramatika sortzaile-bihurtzaileak eta "case grammar" (gramática de casos) delakoak, ezinbesteko diren ezaugarri batzuen berri ematen dutela adierazten du.
- A. Barreña (1993): euskaraz Inf. eta Komp. kategorien azterketaren agerpena adierazten duenean, gramatikaren garapena prozesu askea dela dio; hornidura genetikoak eta inguruko

hizkuntzak eskaintzen duten informazioaren batuketa.

- P. Larrañaga (1994): euskarazko eta gaztelaniazko kasuen bilakabidea aztertzerakoan, gramatika sortzailean oinarritzen da.
- S. Klinge (1989): preposizioen jabekuntza haur elebidunengan aztertzerakoan, "Theory of Government and Binding" erreferentziatzen hartzen du, eta gaitasun gramatikala garapen kognitibotik at geratzen den aroa dirudiela adierazten du.
- P.V.Geert (1985/86): haurren gaitasun espaziala aztertzen duenean, "Modularitatearen teorian" oinarritzen da.

Jabekuntza-prozesua aurreratzeko edo atzeratzeko hizkuntzaren konplexutasuna eraginkorra dela aipatzen dutenen artean, berriz, hauek aipa daitezke:

- E. Lipp (1977): estonieraren inflexio-sistemaren jabekuntzari buruzko lanean adierazten duenez, haurrek lehen ikasten dituzten inflexioak, morfema bakar batez osatutakoak dira, eta beranduago ikasten dituzte hainbat morfemen konbinaketaz osatutakoak.
- Johnston & Slobin (1979): lokatiboen garapena lau hizkuntzatan aztertzerakoan, lokatibo hauen ekoizpenerako trebetasuna, adinaren, sexuaren eta ikasten ari den hizkuntzaren arabera gertatzen dela adierazten dute.
- E. Dromi (1979): hebraieraz preposizio lokatiboen azterketa egiterakoan, bere ustez hizkuntza honetako haurrek zailtasun morfologiko bat gainditu behar dutela dio, eta konplexutasun morfologikoa erabakiorra dela preposizio lokatiboaz jabetzeko orduan.
- E.L. Bavin (1990): warlpiri jabekuntzaren termino lokatiboen jabekuntza aztertzerakoan, hizkuntzaren berezitasun espezifikoez duten eraginean oinarritzen da.
- A. Rom & R. Dgani (1985): hebraieraz kasu-markadun izenordainen jabekuntzan ikusi zuten, faktore semantiko eta pragmatikoez egiturazko faktoreekin batera, flexioen jabekuntza-ordena erabakitzen dute, batez ere flexio irregularretan.

Ikusi daitekeenez, korrante teoriko batzuk zein besteak baliagarriak dira hizkuntzaren jabekuntza aztertu eta azaltzerakoan. Gainera, ikuspegi ezberdin hauek, askotan, ikertzaile eta ikerketa berean dute lekua, nahiz eta korronte jakin baten jarraitzaile izan. Hori dela eta, gorago aipatu ditugun joeretan, ikerketa berdinak errepikatzen dira. Hemen azaltzen diren ikerketa guztien azterketa egin ondoren, nabarmentzen den ondorioetako bat ikertzaile hauen ikuspegi eklektikoa da, aipatu dugun bezala gehienek trebetasun eta teoria batzuen eta besteen beharra ikusten baitute aztertzen ari diren eremuko hizkuntzaren garapena lortu ahal izateko.

### ***III.-HIRUGARREN ATALA***

#### **ATAL TEORIKO HONEN JUSTIFIKAPENA**

## **5. - EUSKAL KASUEN DESKRIBAPEN GRAMATIKALA**

5. 1.- ZER DA DEKLINABIDEA?

5. 2. - ERATORPENA ETA DEKLINABIDEA

5. 3. - EUSKAL DEKLINABIDEAREN EGITURA

5. 4. - KASUAK ZENBAIT GRAMATIKALARIREN ARABERA

5. 5. - DEKLINABIDE MUGAGABE EDO INDETERMINATUA

5.6.-IZEN-SINTAGMAREN DETERMINAZIOA ETA "-A" ORGANIKOZ BUKATZEN DIREN HITZEN DEKLINABIDEA

5. 6. 1.- Izen-sintagmaren determinazioa euskaraz

5. 6. 2.- "-a" organikoz bukatzen diren hitzen deklinabidea

5. 7. - KASU BAKOITZAREN DESKRIBAPENA

5. 8. - DESINENTZIA BIKOITZAK

5. 9. - ZENBAIT KASUK ADITZAREKIKO GORDETZEN DUEN KOMUNZTADURA

### *III.-HIRUGARREN ATALA*

## **ATAL TEORIKO HONEN JUSTIFIKAPENA**

Jarraian, euskal kasuen eta gaztelaniazko izenordain pertsonalen eta preposizioen azalpen teorikoa egitera goaz. Azalpen honen zergaitia, geroago egingo ditugun azterketetan dago. Izan ere gure asmoa, euskaraz haur bat kasuez nola jabetzen den erakustea da, bai aditzarekin komunztadura duten kasuak, bai komunztadurarik gordetzen ez dutenak ere. Aldi berean, haur bera gaztelaniaz kasua gordetzen duten izenordain pertsonalez alde batetik eta preposizioez bestetik nola jabetzen den azaltzea da, jabekuntza hauen inguruan hipotesiak planteatu ditugunez. Horrela bada, beharrezkotzat jo dugu bai kasuen, bai izenordain pertsonal eta preposizioen azalpen teorikoa egitea.

Hortaz, euskal kasuen deskribapen gramatikala azalduko dugu. Horretarako, historian zehar euskal deklinabidea aztertu duten gramatikariengan oinarritu gara. Bestalde, gaztelaniazko preposizio eta izenordain pertsonalekin ere berdin jokatu dugu. Hemen adierazten ditugun azalpenak deskribapen mailan egin ditugu, gramatika normatiboaren ikuspegitik. Atal hauetan zehar azaltzen diren iritziak, bertan adierazten den bibliografian oinarritutakoak dira. Batzuetan iturria espreski azaltzen da, bestetan ordea -- zenbait autoreren iritzien sintesia adierazten denean -- iturria ez da aipatzen. Aipatu dugun bezala ordea, iritzien iturria bibliografian oinarritzen da.

## 5.- EUSKAL KASUEN DESKRIBAPEN GRAMATIKALA

### 5. 1. - ZER DA DEKLINABIDEA?

Atzikiaren beraren edo bere funtzioaren definizioak ematerakoan, Azkue (1923)<sup>20</sup> berak erabiltzen dituen bi linguista aipatuz hasiko gara. Alde batetik Ferdinand de Saussure (1973) dugu, eta honek horrela dio atzikiari buruz: Erroari eransten zaion elementua da atzikia, azken hau erradikala bihurtzeko, edo lehenengo erradikal bati eransten zaio, hau bigarren graduko erradikala bihurtzeko. Atzikiaren funtzioari buruz, Meillet-ek (1970) esandakoa dakargu. Linguista honek dioenez, hitz indo-europarra hiru atal edo elementu morfologikoz osatua dago: erroa, atzikia eta desinentzia. Erroak hitzaren esanahi orokorra adierazten du, atzikiak bere balioa eta desinentziak perpaus barruan duen lekua. Berrito ere Saussure-rengana itzuliz, bere *Curso de lingüística general* (1973) delakoan, honela dio desinentziari buruz: Flexio ezaugarria edo hitzaren azkenean doan elementu aldakorra da, izen- edo aditz-paradigmen formak bereizten dituen. Normalki, linguista gehienek desinentziak bi klasetan banatzen dituzte: kasu edo deklinabidezkoak eta pertsonal edo konjugaziozkoak.

UZEIko Hizkuntzalaritza hiztegian (1982), erradikalari edo oinarri lexikalari eransten zaion hizkia dela dio. Desinentzi edo flexio-atzikiak eta eratorpenezkoak bereizten ditu. Lehenengoek kasu-markak eratzen dituzten bitartean, bigarrenek erradikaletatik edo oinarri lexikaletatik abiatuz, elementu berriak sortzen dituztela dio.

Bestalde, Lázaro Carreter-ek (1973), atzikia oinarri bati azken partean eransten zaion morfema dela dio, eratorri bat osatuz. Gainera desinentziagandik bereizi beharrekoa dela dio,

---

<sup>20</sup> Guk erabili dugun edizioa 1969koa da.

nahasketa sor daitekeenez azken honi, zenbaitetan, flexio atzizkia deitzen baitzaio. Azken hau, deklinazioan edo konjugazioan gai edo tema bati eransten zaion flexio elementua dela dio. Lehenengoari kasu-desinentzia deitzen dio eta kasua, generoa eta numeroa adierazten ditu. Bigarrena, pertsona- edo aditz-desinentzia gisa aipatzen du, pertsona, numeroa, tenpusa, modua etab. adierazten dituen. Atzizki eta desinentzien arteko bereizketa, bakoitzaren erabileran ikusten da. Horrela, atzizkiak hitzaren kategoria orokorra adierazten duen bitartean, desinentziak hitzak perpausean betetzen duen funtzioa adierazten du.

Euskarak zenbait aurrizki ere baditu gainera, gutxi badira ere. Alde batetik Absolutiboaren pertsona-markak, hau da "n-, h-, d-" (1.- nator, hator, dator ). Bestalde zenbait tempus eta modutan Ergatiboaren pertsona markak ere bai (2.- nuke, hukek, huken). "Ba-" kondizionala ere ahaztu ezinezkoa da (3.- banator). Kasuei dagokienez, hauek beti atzizki bidez gauzatzen dira, eta zentzu honetan esan genezake euskara atzizkidun hizkuntza dela.

Euskaraz, atzizkien bidez, zenbait prozesu eramaten da aurrera (Villasante, 1972). Alde batetik, hitz bati atzizkiak erantsiz, eratorketa lortzen dugu. Bestalde, atzizkien bidez "konjuntzioen egitekoa" ere lortzen da esaldi barruan. Eta nola ez, esaldi barruan hitz batek duen funtzioa ere atzizkien bidez lortzen da. Azken hau da, hain zuzen, aztertzeraz goazen gaia, hau da, deklinabide-kasuen. Esan beharra dago ere, zenbait kasutan ez dela hain erraza funtzio ezberdin hauen mugak bereiztea.

Horrela bada, izen-sintagmak gramatika edo leku-denborazko funtzioak adierazteko, atzizki batzuk hartzen ditu. (EGLU,1985). Izenak, Izenordainak eta Adjektiboak hartzen dituzten atzizki edo kasu-marken paradigmari deitzen zaio deklinabidea, eta kasu hauei deklinabide-kasuak. Deklinabidean agertzen zaizkigun kasu-markak, osoari ezartzen zaizkio, ez Izen-Sintagma osatzen duten atal bakoitzari:

- (4) Nere aitak etxe politak egiten ditu
- (5) \*Nereak aitak etxeak politak egiten ditu

Hortaz, euskaraz ez dira hitzak deklinatzen, Izen-Sintagma osoa da deklinatzen dena. Bestalde, Izen-Sintagmaren ardatza Izena delarik ere, hondarkia ez zaio nahitaez Izenari ezartzen, Izen-Sintagma ixten duen elementuari baizik:

- (6) Egun argi, eguzkitsu eta freskoak gustatzen zaizkit
- (7) \*Egunak argiak, eguzkitsuak eta freskoak gustatzen zaizkit

Gorago aipatu bezala, azken osagaia da kontuan hartu behar dena.

Bestalde, eta gure erreferentzi gisa hizkuntza klasikoak ditugunez, esan beharra dago euskal deklinabidea, aldendu egiten dela hizkuntza hauetatik, hau da, nahiko ezberdina dela. Horrela, latinak bost deklinabide paradigma ezberdinak dituen bitartean, euskarak deklinabide bakarra du. Euskal deklinabideak, badu beste ezberdintasun nabari bat ere hizkuntza klasikoekin kontrajarriz. Izenaren erroarekin zerikusia daukana, hain zuzen. Latinaren deklinabidea aipatuz berriro, hizkuntza honetan hitza aldatu egiten da prozesu honen barruan (8.- hitza "dominus" delarik, "domine, domini, domino...), eta hondarkia kenduz gero geratzen dena ez da forma

askea. Euskaraz, berriz, edozein deklinabide-atzizki erantziz ere, hitzak beti berean jarraitzen du (9.- "jaun" hitza izanik, "jaun-a-k , jaun-a-rentzat, jaun-a-gatik .....), eta arrazoi honengatik hitz hauek hartzen dituzten atzizkiak nabariagoak dira. Baina kategoria gramatikalak eta funtzioak berdinak dira.

Gainera, euskara hizkuntza eranskaria denez, funtzio bakoitzaren ezaugarria bereiz daiteke hondarkian, hau da, morfema bakoitzak funtzio zehatz bat betetzen du, eta hondarkian azaltzen diren morfema guztiak dira bereizgarriak, nahiz eta batzuetan bereizketa hau erraza ez izan:

(10) Mutilak etorri dira (absolutibo plurala)

mutil : deklinagaia  
-a : mugatzailea  
-k : plural marka  
0 : kasu-marka

(11) Mutilari esan nion (datibo singularra)

mutil : deklinagaia  
-a- : mugatzailea  
- (r)i: kasu-marka

Ez da horrela gertatzen aipatu hizkuntza klasikoetan, hauek malgukariak baitira neurri batean, eta hondarkian ematen zaigun informazioa ezin da bereizi, morfemak baturik baitaude: "Ros-is". Hemen "is" hondarkian hiru informazio ageri dira, femeninoa, plurala eta datibo/ablatiboa, baina ezin dugu hondarkia zatitu eta informazio bakoitzari dagokion morfema zatia bereizi.

Lehen euskal gramatikoek, hizkuntza klasikoetan ikasiak zirenez, hizkuntza horien egituran sartu nahi izan zuten euskara ere, bere baitan aztertu beharrean. Honen ondorioz agian, euskarak deklinabiderik ez duela ere esan izan da. Azkuek (1923-25) dioenez, baieztapen honekin bat datozenak Astarloa, Hovelacque eta Van Eys dira. Champion ere aipatzen du, eta honen ustez, ikuspuntu teorikotik begiratzen bada, deklinabidea ez dator bat euskararen natura edo egiturarekin. Euskarak deklinabiderik ez duela esateko Van Eys-ek duen argumentua, berriz, euskarak atzizkiak erabiltzen dituela kasuen orde, eta gainera preposizioak era ba dituela da. Bestalde eta aurkako argudioak azalduz, Schuchardt aipatzen du, kasuak atzizkiak direla esanez. Villasante (1972) ere euskal deklinabidearen alde azaltzen da, nahiz eta zenbait atzizkiren aurrean, deklinabide-kasuak ote diren zalantza sortzen dela onartu. Hizkuntzalari honen ustez, euskal deklinabideari buruzko zenbaiten zalantzak arazo honetan isladatzen dira: errealitate baten aurrean era ezberdinak nola aipatu; hau da, ikuspuntu ezberdinen bat eta deituraren arazoak lirarteke gehienbat.

Zentzu honetan, De Rijk-en ustez (1972), euskarazko kasu-atzizkiak berdintasun handiagoa dute ingeles, frantses edo gaztelaniako preposizioekin, hizkuntza indo europarren kasu bukaerekin baino. Hau dela-eta, berak zenbaitetan "posposizio" hitza erabiltzen du kasu-erlazioak

aipatzerakoan: hau da, preposizioaren antzeko unitate sintaktikoa, baina hitzaren bukaeran kokaturik doana.

R. M. Azkuek (1923-25), bere *Morfologia Vasca* lanean, gaztelaniazko preposizioak aipatzen ditu, hauek hitzaren aurrean doazen bitartean, euskaraz hitzaren atzean doazela esanez. Gaztelaniazko "en, con, de, para, a, etab" preposizioak, euskaraz gramatika-kategoria apartekoa osatzen dute, deklinabide-desinentziak direnez. Aldiz "sobre, bajo, ante, tras" preposizioak, euskal posposizioekin erkatzen ditu, baina azken hauek ere deklinabideko desinentzien beharra dute. Horrela, euskaraz ezin da esan, gaztelaniaz bezala (12) "ante mi, ante Maria", (13) "delante de mi, delante de Maria" baizik, (14) "nire aurrean, Mariaren aurrean". Ez da hau gertatzen izen ez pertsonal edo ez propioekin, kasu hauetan inongo desinentziarik gabe, hitz konposatua bilakatzen delarik: (15) "etxe-gainean".

## 5. 2. - ERATORPENA ETA DEKLINABIDEA

Eratorpena eta Deklinazioa bereizi egin behar dira bi prozesu ezberdin direnez, forma aldetik berdintsuak ba dira ere, biak atzizki bidez lortzen baitira, eta kasu gutxi batzuetan euskal eratorpenean zenbait aurrizki eta artizki ere erabiltzen den arren. Lehenengoan, erator-atzizkien bidez, hitz berriak sortzen ditugu. Bigarrean, berriz, deklinazio-desinentzien bidez perpaus barruan, izenak, substantiboak, adjektiboak eta izenordainak betetzen dituzten funtzioak adierazten dira (subjektu, izenlagun, adizlagun...), hau da, atzizkien funtzioa elementuen arteko erlazioa adieraztea da. Horregatik erlazio atzizki bezala ere ezagutzen ditugu. Kategoria hauek desinentzi deklinatiboen bidez hartzen dituzten formei, "kasuak" deitzen diegu.

## 5.3.- EUSKAL DEKLINABIDEAREN EGITURA

Euskal deklinabidea, lehenago aipatu dugunez, bakarra da. Honen ondorioz, kasu bat adierazterakoan, deklinagai guztiek kasu-marka bera hartu beharko dute, nahiz eta hondarki osoa kontuan hartuz, hau itxura ezberdinetan azaldu kasu berean. Baina ezberdintasun hau ez dagokio kasu-markari, hondarkian azaltzen diren mugatzaile eta pluralaren presentziari edo horren faltari baizik. Berritri ere euskara latinarekin erkatzen badugu, azken honetan funtzio bera adierazteko, adibidez nominatibo singularra, "-a, -us, -u, -es ....." kasu-markak erabiltzen dira:

- Lehenengo deklinazioa: "ros-a"
- Bigarren deklinazioa: "domin-us" - Neutroa: "templ-um"
- Hirugarren deklinazioa: "consul 0"
- Laugarren deklinazioa: "exercit-us" - Neutroa: "corn-u"
- Bosgarren deklinazioa: "di-es"

Euskaraz berriz kasu bakoitzari marka berbera dagokio, adibidez ergatiboari betri "-k":

- (16) "Amak esan du bihar etortzeko"
- (17) "Lagunek diotenez bazkaria ona zegoen"



Euskal deklinabidearen egitura aztertzerakoan, bi osagai nagusi hartu behar ditugu kontuan: Deklinagaia eta Hondarkia. Hondarkiaren barruan ere zenbait osagai bereizi behar dira: Mugatzailea, Plurala eta Kasu-marka:

(18) "Mutilak". Deklinagaia (mutil) + hondarkia (-ak)  
Hondarkia: Mugatzailea (-a) + plurala (-k) + kasu-marka (0)

(19) "Mutilari". Deklinagaia (mutil) + hondarkia (-ari)  
Hondarkia: Mugatzailea (-a) + plurala (0) + kasu-marka (-(r)i)

Baina hiru elementu hauek ez dira nahitaezkoak, mugatzailea eta plurala ez baitira beti agertzen. Hiru elementu hauek azaleko forma askotan nahiko ilun azaltzen badira ere, azterketa baten ondorioz, elementu guztiak ikus daitezke, lehen aipatu dugun bezala.

#### 5. 4. - KASUAK ZENBAIT GRAMATIKALARIREN ARABERA

Euskal deklinabidez idatzia dagoena aztertu ondoren, nahasketa handia dagoela ohartu gara, bai kasu kopuruaren aldetik, bai terminologia aldetik. Orain ikusiko dugun bezala, hartu ditugun sei hizkuntzalariren artean, ez dago adostasunik kasuen kopuruari dagokionez. Horrela, hamairu eta hemezortziko tartean dabilta, hauetako autore batek beste batzuen berdina dela berak proposatzen duen paradigma aitortu arren. Terminologia aldetik ere nahasketa nabari da. Alde batera utziz batzuek euskaraz eta beste batzuek erdaraz aurkeztu dituztela beraien lanak, ikusi ahal izango dugunez, Datiboa, Partitiboa, Destinatiboa, Prolatiboa eta Inesiboa dira nahasketa honetatik at geratzen diran bakarrak. Beste batzuek, ordea, lau edo bost izen ezberdin hartzen dituzte, lana aurkezten duenaren arabera : Nominatiboa, Pasiboa, Absolutiboa, "Paciente" edo Neutroa bezala izendatzen dute autore ezberdinek 0 marka daraman kasua. Bestalde, Euskaltzaindiak 1985ean argitaratu zuen *Euskal Gramatika* lanean, kasu gramatikalentzat proposatu zituen izenetarako, bi urte beranduago argitaratu zuen eraskinean aldaketa batzuk proposatu zituen. Eta azkenik erakunde berak *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* (1993) lanean azaldutako terminologia aukeratu dugu gure lanerako. Gero ikusiko dugun bezala, Azkue (1969) da bere terminologia justifikatu eta argumentatzen duen autore bakarra. Besteek ez dute arazo hau aipatu ere egiten.

Hemen azalduko ditugun kasu-markak, horixe izango dira: kasu-markak huts-hutsean. Gorago aipatu dugunez, kasu-marka bakarra izan arren, forma ezberdinak agertzen dira (adibidez datiboan: 20: gizon-i , gizon-ari , gizon-ei). Ezberdintasun hauek ordea, hondarkian azaltzen diren beste elementuek sortzen dituzte, mugatzailearen eta pluralaren agertzeak edo ez agertzeak, hain zuzen. Gainera, leku-denborazko kasuetan, bizidun eta bizigabeen artean hondarkian azaltzen diren ezberdintasunak ere kontuan hartu beharrekoak dira, hau da, bizidunak direnean, "-ga-" eta bizigabeak direnean "-ta-" artizkia hartzen dutela hain zuzen.

Gorago aipatu dugunez, guk Euskaltzaindiak 1993.urtean proposatutako terminologia erabiliko badugu ere, hemen azalduko diren zenbait egileren zerrendetan, beraien terminologia erabiliko da.

- **R.M.Azkuek** (1923-25) *Morfologia Vasca* lanean, 15 kasu aipatzen ditu, eta egiten duen bereizketa bakarra hau da : konjugazioarekin zerikusia duten hirurak alde batetik --bere terminologiaren arabera pasiboa, aktiboa eta datiboa-- eta konjugazioarekin zerikusia ez duten beste guztiak, bestetik. Azken hauen artean leku-denborazkoak ere bereizten ditu:

- Pasiboa: 0
- Aktiboa: -k
- Datiboa: -i
- Posesiboa: -en
- Destinatiboa: -entzat
- Proverbal: -ko
- Inesiboa: -n
- Ablatiboa: -tik
- Direktibo definitua: -a, -ra
- Direktibo indefinitua: -antz
- Direktibo terminala: -agino
- Direktibo objetiboa: -ako
- Soziatiboa: -gaz, -kin
- Inpulsiboa: -gaitik
- Instrumentala: -z

Kasu-markak bizidun edo bizigabeentzat berdinak ba dira ere, zenbait ezberdintasun dago, deklinagaia mota batekoa edo bestekoa denean. Lehenengo kasuak, Pasiboak, ez du kasu-markarik, baina berdin erabiltzen da bizidun eta bizigabeetan. Hurrengo lau kasuek ere -- hau da, Aktiboa, Datiboa, Posesiboa eta Destinatiboa -- biezat balio dute, baina hobeto moldatzen dira bizidunetan. "Proverbal" deritzan kasua aldiz, bizigabeekin bakarrik moldatzen da. Sei leku-kasuak ( Inesiboa, Ablatiboa, eta lau Direktiboak) lehen esan dugunez, desinentzia berdinak eduki arren, bizidun eta bizigabeentzat, lehenengoetan " -gan- " eta bigarrenagoetan "-ta-" artizkiak hartzen dituzte. Soziatibo kasua, berriz, bizidunen paradigmaman bakarrik aurki daiteke. "Impulsiboa" deritzan kasuak ere nahigo du bizidunetan joan, nahiz bizigabetan ere azaldu."-z" atzizki instrumentala kasu guztietan ezartzen da, baina izenordainetan "-za- , -ta-, -tza-" artizkia hartu behar du.

Laburbilduz, hau litzateke kasuen agerpena, bizidun eta bizigabeen arabera, aipatu ditugun lehentasun eta baldintzak ere kontuan harturik:

KASUA	BIZIDUNAK	BIZIGABEAK
-------	-----------	------------

Pasiboa	+	+
Aktiboa	+	+
Datiboa	+	+
Posesiboa	+	+
Destinatiboa	+	+
Proverbala	-	+
Inesiboa	+	+
Ablatiboa	+	+
Direktibo definitua	+	+
Direktibo indefinitua	+	+
Direktibo terminala	+	+
Direktibo objetiboa	+	+
Soziatiboa	+	-
Inpulsiboa	+	+
Instrumentala	+	+

Gorago esan dugunez, Azkue da kasu hauen deitura nolabait justifikatu edo esplikatzeko duena. Hizkuntza klasikoetako Nominatibo kasua, euskaraz Pasiboa eta Aktiboa izendatzen ditu. Pasiboak, kasu-marka agerikorik ez izan arren, deklinabide-kasuen paradigman azaltzearen zergaitia, beste kasuen abiapuntu izatean legoke, kontuan hartzekoa denez hizkuntza klasikoetan "Nominatiboek" ere kasu desinentziarik ez dutela.

Bonapartek aipatu "Aktiboa, Datiboa, Instrumentala, Inesiboa eta Ablatiboa" izenak onartu ditu. "Genitibo" izena ere onartuko zukeen, baina kontuan izanik euskaraz bi genitibo ditugula, batari "Posesibo" deituko dio -- (-n) atzizkia daramanari -- eta besteari "Proverbal" -- (-ko) atzizkia daramanari hain zuzen --. Azken honi Bonapartek emandako izenez (Relatiboa) edo bere ikasle batek eman zionez (Deribatiboa), Azkue ez dator bat, deklinabide-atzizki guztiak "relatiboak" direla baitio eta, "-en eta -ko" atzizkiak alde batera utziz, deklinabideko gaia aditzarekin erlazioan jartzen baitute. Berrito ere, Bonapartek emandako "Inesibo" izena onartzen du, beste zenbaiten "local edo lokatiboa" baztertuz, lokatiboak beste zenbait kasu direnez (21.-: mendira, menditik, mendiko...) . Baina Bonapartek emandako "Alatiboa" baztertu egiten du Duvoisinekin eskainitako "Direktiboa" onartuz . Azkenik Charencey-ren zenbait deitura ere onartzen du: "Destinatibo eta Directivo indefinido"

- **I. Omaetxebarriak**, 1.962ko EUSKERA aldizkarian 16 kasu aipatzen ditu guztira, Azkuek baino kasu bat gehiago: Distributiboa, hain zuzen. Perpausaren beste elementuekin duten erlazioaren arabera, lau ataletan bereizten ditu:

- Aditz- kasuak. "Pasiboa, Aktiboa eta Datiboa" izena daramate, aditzaren arabera betetzen

dituzten funtzioengatik:

- Pasiboa: -a
- Aktiboa: -a
- Datiboa: -ari

Kasu Adnominalak :

- Adjuntibo edo Kopulatiboa (Atributiboa) -ko
- Posesiboa: -aren

Kasu Adberbalak, hau da aditzaren menpean daudenak:

- Destinatiboa: -arentzat
- Objektiboa: -az  
Objetibo pronominala: -zaz
- Soziatiboa: -arekin
- Motibatiboa: -agatik
- Inesiboa: -an  
Inesibo pronominala: -tan
- Ablatiboa: -tik
- Alatiboa: -ra
- Direktibo edo Orientatiboa ( Alativo tendencial): -rantz
- Terminatiboa (Alativo terminal): -ragino
- Delimitatiboa (Alativo intencional): -rako
- Distributiboa: -ko

- **Salvador Garmendiak** ere 1.968. urteko EUSKERA aldizkarian, urte bereko Arantzazun egin zen biltzarraren ondorioak dakarzkigu. Garmendiak esaten digunez, autore gehienek kasu gehiago aipatzen dituzte, baina berak 13 aipatuko dituela. Paradigmatan hamairu kasuak azaltzen badira ere, berak bederatzi baino ez ditu aipatzen azterketan. Bestalde ez du inongo bereizketarik egiten beren artean:

- Pasiboa (Absolutiboa)
- Aktiboa ( Ergatiboa)
- Datiboa
- Genitibo Posesiboa
- Soziatiboa
- Destinatiboa
- Instrumentala edo Objektiboa
- Ablatiboa
- Partitiboa

- **Luis Villasanteren** "La declinación del Vasco literario común" (1972) lanean, 14 kasu azaltzen dira, eta oinarri bezala deklinabide mugagabea hartzen du. Jakina denez deklinabide mugagabearen ezaugarriarik nabariena, -- "-ta-" artizkiaren presentzia zenbait kasutan kontuan hartuz gero, -- "-a" artikulua inoiz ez agertzea da. Hiru sailetan banatzen ditu 14 kasuak. Lehen hirurak konjugazioarekin erlazio zuzena dutenak dira:

- Paziente edo neutroa: -0
- Agente, aktibo edo Ergatiboa: -k
- Datiboa: -i

Ondoren Partitiboa. Honi buruz dio deklinabide mugagabearen ezaugarri dela. Ondorengo laurak, deklinabide mugatuan ere azaltzen direnak dira:

- Partitiboa: -rik
- Posesiboa: - en
- Destinatiboa: -entzat
- Soziatiboa: -ekin
- Instrumentala: -z

Geratzen diren 6 kasuen funtzioa objektuak non dauden argitzea da. Gainera kasu hauetan desinentziak ezberdinak dira bizigabeak edo bizidunak direnean, "-ta-" edo "-ga-" artizkien bidez.

- Inesiboa: -etan
- Delimitatiboa: -etako
- Ablatiboa (o de procedencia): -tatik
- Direktibo edo Alatiboa: -tara
- Alatibo tendentziala: -tarantz
- Alatibo terminala: -taraino

- **Alfontso Irigoyenek**, 1978. EUSKERA aldizkarian, urte bereko Bergarako biltzar ondoko erabakiak jakinarazten dizkigu. Bertan 18 kasu aipatzen ditu, lau atal ezberdinetan :

Gramatikazkoak.

Numero eta pertsona komunztadura dute aditzarekin nahiz eta desinentziak berez ez markatu ez bata ez bestea. Lau hauek dira:

- Nominatiboa: -0
- Ergatiboa: -k
- Datiboa: -(r)i
- Partitiboa: - (r)ik

Nominalizataileak.

- Genitibo edutezkoa: - (r)en/ (r)e
- Genitibo leku-denborazkoa: -ko /-tako

Aditzari begira erabiltzen diren kasuak, baina komunztadurarik behar ez dutenak:

- Instrumentala: -z / -zaz
- Soziatibo edo komitatiboa: -(r)ekin
- Motibatiboa: -(r)engatik

- Destinatiboa: -(r)entzat / (r)endako
- Prolatiboa: -tzat

Leku denborazko kasuak:

- Inesiboa: -n / -tan
- Elatibo edo ablatiboa: -tik
- Adlatiboa: -(r)a / - tara
- Adlatibo bukatuzkoa: -(r)aino
- Adlatibo bide zuzenezkoa: - (r)antz
- Adlatibo destinatiboa: - (r)ako
- Destinatiboa: -ko /-tako

- **Euskaltzaindiak**, 1993. urtean argitaratutako *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna* lanean , 15 kasu proposatzen ditu, hiru ataletan banatuz:

Kasu gramatikalak edo izen-sintagmaren kasuak.

- Absolutiboa: -0
- Partitiboa: -ik
- Ergatiboa: -k
- Datiboa: -i

Leku-denborazko kasuak:

- Inesiboa: -n
- Leku-genitiboa: -ko
- Adlatiboa: -ra
- Hurbiltze adlatiboa: -rantz
- Muga adlatiboa: - raino
- Ablatiboa: tik

Gainerako kasuak

- Jabego genitiboa: -en
- Soziatiboa: -ekin
- Instrumentala: -z
- Motibatiboa: -gatik
- Destinatiboa: -entzat / -(ra)ko / -tzat. (Kasu honetan azpisail batzuk ageri dira: - Prolatiboa, Banatzailea, Inesiboaren gainean eraikia, Adlatiboaren gainean eraikia).

Ondoren, aztertutako sei autoreek kasu batzuk eta besteak nola izendatzen dituzten azalduko dugu taula batean. Guztira hemeretzi kasu dira:

KASUEN DEITURA EZBERDINAK AZTERTUTAKO AUTOREEN ARABERA

KASU MARKA	AZKUE	ORMAETXEB ERR.	GARMENDIA	VILLASANTE	IRIGOYEN	EUSKALTZAINDI A
0	Pasivo	Pasiv-o	Pasiboa	Paciente edo Neutro	Nominatiboa	Absolutiboa

-k	Activo	Activo	Aktiboa	Agente, Activo, Ergativo	Ergatiboa	Ergatiboa
-i	Dativo	Dativo	Datiboa	Dativo	Datiboa	Datiboa
-ik			Partitiboa	Partitivo	Partitiboa	Partitiboa
-en	Posesivo	Posesivo	Genitibo posesiboa	Posesivo	Genitibo Edutezkoa	Jabego Genitiboa
-ko	Proverbal	Adjuntivo Copulativo Atributivo	<sup>21</sup>		Genitibo Leku- denborazkoa	Leku Genitiboa
-z	Instru- mental	Objetivo	Instrumen- tala edo Objetiboa	Instru- mental	Instrumentala	Instrumentala
-ekin/ -- -gaz	Sociativo	Sociativo	Soziatiboa	Sociativo	Soziatiboa edo Komitatiboa	Soziatiboa
- gatik	Impulsivo	Motivativo			Motibatiboa	Motibatiboa
-entzat	Destinativo	Destinati- vo	Destinati- boa	Destina- tivo	Destinatiboa	Xedezko destinatiboa(1) <sup>22</sup>
- tzat					Prolatiboa	Prolatiboa(1)
- n	Inesivo	Inesivo		Inesivo	Inesiboa	Inesiboa
- tik	Ablativo	Ablativo	Ablatiboa	Ablativo	Elatiboa edo Ablatiboa	Ablativboa
-(r)ja	Directivo definido	Alativo		Directivo o Alativo	Adlatiboa	Adlatibo soila
-(r)aino	Directivo terminal	Terminati- vo (Alativo terminal )		Adlativo Terminal	Adlatibo bukatuzkoa	Muga Adlatiboa
-(r)antz	Directivo indefinido	Directivo edo Orientativo (Alativo tendencial)		Alativo tenden- cial	Adlatibo bide zuzenezkoa	Hurbiltze Adlatiboa
-(r)ako	Directivo objetivo	Delimitati- vo (Alativo Intencional)		Delimita- tivo	Adlatibo destinatiboa	Adlatiboaren gainean eraikia (1)
-ko		Distributi- vo			Destinatiboa	Banatzaila(1)
-ko						Inesiboaren gainean eraikia (1)

<sup>21</sup> Gorago aipatu dugunez, S. Garmendiak hamairu kasu adierazten ditu paradigmetan baina bederatzi bakarrik aipatzen ditu azterketan. Hortaz, berak bederatzi horiek nola izendatzen dituen dakigu bakarrik.

<sup>22</sup> (1) Kasu guzti hauek Destinatioaren azpisailak dira.

## 5. 5. - DEKLINABIDE MUGAGABE EDO INDETERMINATUA

Zer da deklinabide mugagabea? Grekerak singularra, plurala eta duala ezagutzen zituen bezala, euskarak singularra, plurala eta indeterminatu edo mugagabea. Hortaz, hiru aukera dauzka euskarak numeroari dagokionez. Indeterminatu edo mugagabea beraz, ez da ez singularra ez plurala; ezaguna ez-ezaguna eskema barruan sartuko litzateke.

1827. urtean Baionako Darrigolek idatzi zuen liburuxka batean azaldu zen lehen aldiz aztertua, euskararen deklinabide indefinitua, lehenago Humboldt, Larramendi eta Astarloak ere berezitasun hau aipatu bazuten ere. Baina gramatika askotan puntu hau ez da kontuan hartua izan, mugatua/mugagabearen arteko oposaketak garrantzi haundia eduki badu ere ahozko hizkuntzan. Darrigolek proposatutako deklinabideari buruzko paradigman, lehendabizi indefinitua, bigarren singularra eta hirugarren plurala azaltzen dira. Bestalde Baionan 1964an eta Arantzazun 1968an egindako biltzarretan, hain baztertua egon den deklinabide indefinitua bultzatzearen beharra azpimarratu zen, mugatua/mugagabea oposaketa garrantzia galtzen joan denez, eta gaur egun, hizkuntza erromanikoetan bezala, singularra/plurala oposaketa delako nagusi. (Villasante, 1972: 13).

Horrela bada, euskarak deklinabide bakarra duela esan genezake, baina forma ezberdinekin. Gure deklinabidea hirukoitza da: singular eta pluralaz gain "indeterminatua" deritzan beste bat ere ba da, azken hau ez singularra, ez plurala, numeroari dagokionez zerikusirik ez duena izanik. Inguruko hizkuntzetan, adibidez, gaztelanian eta frantsesean, egitura bikoitza dute numeroari dagokienez, hau da, alde batetik singularra (22: el, un monte), eta bestetik plurala (23: los, unos montes). Euskararen egitura, aldiz, ezberdina da eta bereizketa beste bide batetik doa :

- Hiztunetikiko ezagunak edo mugatuak alde batetik (24: mendia/ mendiak)
- Hiztunetikiko ezezagun edo mugagabeak bestetik (25: mendi)

Gure deklinabidea hirukoitza dela diogunean, ezaguna edo mugatua , eta ez-ezaguna edo mugagabea, eta hauetako bakoitza singularrez edo pluralez bereizten dituelako diogu.

Deklinabide indeterminatu edo mugagabearen ezaugarri nagusia "-a" artikularen ez agerpena da. Bestalde, deklinagaia kontsonantez bukatzen bada eta atzizkia ere kontsonantez hasten bada, beraien artean "-e-" epentetiko bat tartekatzen da: (26) "gizon + -k = gizonek". Baina deklinagaia bokalez amaitu eta atzizkia ere bokalez hasten bada, "-r-" tartekatzen da beraien artean: (27) "etxe + -(e)n = etxeren".

Indeterminatu edo mugagabea kasu hauetan erabiltzen da euskaraz

- 1.- Numeraletan: (28) " Mendi bat, bost mendi"
- 2.- "Indefinito" deritzan adjektiboetan: (29) "Mendi asko, zenbait mendi..."
- 3.- Galderetan: (30) " Zer egun da? , Zenbat lore?..."
- 4.- Itxura aldakor, nahasi edo abstraktua duten hitzetan: (31) "Eskubitara joan ginen...". Baita erdaraz "determinanterik" ez dagoenean ere (32) "Bekatutan egon"



5.- Izen propio edo nagusitan. Hauek gainera, ez dute ez "-e-" ez "-r-" epentetikorik hartzen desinentziaren aurretik: (33) "Burgos-ko, Zarautz-a, Usurbil-tik ..". Baina Euskaltzaindiaren azken arauak diotenez, bi formak onartzen dira: (34) " Burgosko, Burgoseko"

## **5. 6. - IZEN-SINTAGMAREN DETERMINAZIOA ETA "-A" ORGANIKOZ BUKATZEN DIREN HITZEN DEKLINABIDEA.**

### **5. 6. 1. - Izen-sintagmaren determinazioa euskaraz**

Euskaraz, izen-sintagmaren ardatza izen arrunt bat denean, normalean determinatu egiten da. Hiru determinatzaile mota daude:

#### MUGATZAILEAK

a) Hitzaren azkenean azaltzen den "a" artikulua. Artikulurik behar ez dutenak, salbuespenak alde batera utzita hauek dira:

- Izen bereziak: (35) Mikel etorri da

- Izenordainak: (36) nik ekarri nuen

- Partitiboak: (37) atzo ez nuen ogirik erosi

- "-en bat"ez osatutako izen-sintagmak: (38) egunen bat hartu beharko dut amona ikustera joateko.

- Zenbait predikatu osagarri: (39) bizilaguna apez egin zen

- izen-sintagman zenbatzaile bat ageri denean: (40) zure aitak lau etxe omen zituen

- Inesibo kasua (euskalki batzuetan ez) eta Instrumentala: (41) gaur goizean belarretan busti ditut anakak

(42) panpina paperez egin dut

b) Erakuslea bere hiru graduekin (hurbiltasun handiago edo txikiago adieraziz: *hau/hori/hura* eta pluralak *hauek/ horiek/haiek*). Erakusle hauek, beraiek bakarrik, izen-sintagma osa dezakete:

(43) liburutegi hau interesgarria da

(44) herri horretan diru asko dago

(45) haiek etorri ziren

Mugatzaile hauek, izen-sintagma osoa mugatzen dute, ez sintagmaren osagaien bat. Hau da, izen-sintagma elementu bat baino gehiagoz osatuta egon arren, mugatzaile bakar bat ageriko

da sintagma osoa determinatuz.

### ZENBATZAILEAK

Determinatzaile hauek zehaztuak, zehaztugabeak eta orokorrak izan daitezke. Zenbatzaile zehaztuak, izen-sintagmaren ezker aldean ageri dira gehienetan. Salbuespen bakarra "bat" da eta zenbait euskalkietan "bi" ere. Azken bi hauek izen-sintagmaren eskubialdean dute bere lekua:

- (46) katu bat
- (47) katu bi / bi katu
- (48) hiru, lau .... katu

### DETERMINATZAILE ZEHAZTUGABEAK

Multzo honetan sailkatzen dira mugatzaile edo zenbatzaile ez diren gainerako determinatzaile guztiak (zein, zer, edozer, beste...). Izenaren ezker aldean jartzen dira gehienetan eta ez dute mugatzaile onartzen "beste" determinatzaileak baizik, hau baita edozein determinatzaile onartzen duen bakarra:

- (49) zein lore nahi duzu?
- (50) edozer gauza esaten du
- (51) beste laguna ezagutu nuen

#### 5.6.2.- "- a" organikoz bukatzen diren hitzen deklinabidea

Euskaraz izen-sintagmak determinaturik azaldu behar du, mugagabea izan ezik.<sup>23</sup> Ikusi dugun bezala, mugatzaileetako bat "-a" artikulua da:

- (52) Etxe-a
- (53) Zuhaitz-a
- (54) Ilargi-a

Baina "-a" guztiak ez dira artikulua, batzuetan hitzek berezkoa dute azken "-a" hori, itsatsia, eta orduan "organikoa" dela diogu: (55) "hizkuntza, makila, aitona". Askotan ez da erraza gertatzen berezko "-a" organiko hori zein hitzek duten eta zeintzuk ez duten jakitea, mugaz bestaldekoek eta bizkaitarrek ondo erabiltzen badute ere. Hitza, numeral edo galdetzaile batekin esatea, "-a" hori berezkoa duen ala ez jakiteko baliabide bat izan daiteke.

Deklinabide mugagabea ondo erabili ahal izateko, beharrezko zaigu hitza bere baitan, hau da, inongo artikulua edo atzizkirik gabe nolakoa den ezagutzea. Hitza ezagutu ondoren, dagokion kasu mugagabearen atzizkia erantzen zaio, tartean ezer jarri gabe. Salbuespen bakarra, fonetikako legeak kontuan edukiz, edozein kontestutan gordetzen diren arauak dira.

---

<sup>23</sup> Gorago aipatu dugu IS noiz den mugagabea euskaraz.

## 5. 7. - KASU BAKOITZAREN DESKRIBAPENA

Kasu bakoitzaren azterketa egiterakoan, hiru atal bereiziko ditugu, "Kasu gramatikalak", "Leku-denborazko kasuak" eta "Gainerako kasuak".

Kasu gramatikalak. Hiru dira kasu hauek (Absolutiboa, Ergatiboa eta Datiboa) eta ezinbestekoa dute aditzarekin komunztadura zaintzea:

### **Absolutiboa (-0)**

Formari dagokionez, markarik gabekoa da kasu hau, eta ondo erabili ahal izateko, beharrezkoa da hitza bere hartan ezagutzea, hau da, euskaraz ohizkoa den azken "-a" hori, hitzak berezkoa duen ala artikulua den jakitea. Hortaz Absolutibo kasuan doazen sintagmek ez dute inongo desinentziarik erakusten: (56) "bi etxe, zenbait aita", artikulua erantsiz: (57) "etxea, aita" lirarteke, eta pluralean berriz: (58) " etxeak, aitak".

Funtzioari begiratu, nahiko aberatsa da kasu hau, kontuan edukiz perpaus iragangaitzeko subjektua: (59) "Ama joan da", perpaus iragankorretako objektu zuzena: (60) "Amak pastela egin du" eta perpaus kopulatiboetako predikatu osagarria: (61) "Mendi hori ederra da" ere Absolutibo kasuan azaltzen dela. Gainera, itzuli adberbialak ere kasu honetan azal daitezke, pisua, neurria, tokia, modua, denbora etab. adierazteko: (62) "Lau urte igaro zituen nire etxean". Bokatiboa ere kasu honetaz baliatzen da gauzatzeko.

### **Partitiboa (-ik )**

Kasu hau autonomotzat hartu izan bada ere, Absolutiboaren azpi kasutzat har daiteke, haren baliokide denez. Hau da, Partitiboa Nor sintagma da berez. Ezezko eta galde-perpausetan azaltzen da. Bestalde, baldintzazko eta konparaziozko perpausetan partitiboa erabiltzea aukerakoa da. Berdin gertatzen da zenbatzaile zehaztugabeekin ere. Azkenik, baiezko perpausetan ere aurkitzen da partitiboa, balio enfatikoa emateko:

- Ezezko perpausetan: (63) "Gaur ez dugu sagarrik jan"
- Galde-perpausetan: (64) "Jostailurik behar al duzue?"
- Baldintzazko perpausetan: (65) "Libururik behar baduzu.  
(66) "Liburua behar baduzu, esan"
- Konparazioko perpausetan: (67) "Etixerik ederrena"  
(68) "Etxe ederrena"
- Zenbatzaile zehaztugabeekin: (69) "Emakumerik franko"  
(70) "Emakume franko"

- Baiezko perpausetan (balio enfatiko): (71) "Bazegoen han gizon sendorik"

Partitiboa beti mugagabeaz azaltzen da, hortaz komuntadura singularrean egin behar da: (72) "Ez du lorerik aurkitu ferian".

Kasu honen atzizkia, bere baitan "-ik" da: (73) "Zuhaitz-ik", baina deklinagaia bokalez bukatzen bada, "-rik" biurtzen da "-r-" epentetikoaren bidez: (74) "Ama-r-ik", beste kasu guztietan bezala. Bestalde kasu honek ez du onartzen ez mugatzailerik, ez pluralik.

Lafon-en ustez (1948), garai batean euskarako deklinazio-paradigmatan ez zen azaltzen alde batetik Partitiboa "-ik" atzizkiarekin eta bestetik Ablatiboa "-ti edo -tik" atzizkiarekin, "-ik" atzizkia zeraman Ablatibo-Partitibo bat baizik. Denboran zehar, ordea, Ablatiboa eta Partitiboa bereizi beharra somatu zen noski, eta Ablatiboa adierazteko "-ti-" atzizkia erabili zen, euskalki gehienetan "-k" atzizkia erantsiz. Azken hau Partitiboaren analogiaz egingo zen noski.

Kasu honen azterketa sakon bat R.P.G. de Rijk (1972) hizkuntzalariak egin du. Zenbait gramatikalariren ikuspuntua azaltzen du historian zehar. Horrela, Oihenart-ek "negativo" deitu ziola dio, agian atzizki honen oinarritzko funtzioa ezezko esaldian nominatibo atzizkiaren ordezkari delako. Larramendik berriz artikulotzat hartzen duela. Lecluse ere aipatzen du, honek hiru nominatibo bereizten zituela adieraziz: nominatiboa, nominatibo aktiboa eta ezezko nominatiboa, partitiboari horrela deitzen diolarik. Van Eys-ek, berriz, pluraltasunaren ezaugarria ikusten duela atzizki honetan, "i" aurrejarriaz. Jean Ithurryri dagokionez, partitiboaren atzizkia dela adierazten omen du. Gavel ere aipatzen du, egile honentzat semantikoki frantsez partitiboaren parekoa dela, baina ezezko eta galderazko perpausetara mugatua eta absolutibo kasuan ematen dela adieraziz. Eta azkenik Laffite-ren ikuspuntua azaltzen du, partitibo kasua euskarak dituen hamabi kasuetako bat bezala ikusten duela esanez.

- De Rijk-ek "-rik" estatikoa eta "-rik" partitiboa bereizten ditu. Lehenengoak "-ko" atzizkia har dezakeen bitartean, partitiboak ezin du hori egin. Bere ustez, antzinan atzizki hau "(r)ika" zen, izenlagun bihurtzeko "ko" eranstea "-(r)ikako" egiten duenez: (75) "Ixilikako".

a) "-rik" estatikoa: Funtzio honetan, egoera bat adieraztea du helburu. Iparraldeko euskalkietan partizipioei erantzen zaio: (76) "Ikusirik...". Euskalki guztietan adjektibo edo izen jakin batzuekin doa: (77) "Bilutsik, Ixilik". Gramatika tradizionalan adberbiotzat hartu izan da, modua agertzen duenez.

b) "-rik" partitiboa. Partitibo kasuaren azterketa bi sailetan bereizten du, erabileraren araberara: Oinarritzko erabilera eta eratorritzkoa.

- Oinarritzko erabilera: Edozein erlazio atzizki bezala, perpausoko beste osagaiekin duen erlazioa adierazten du. Eratorritzko partitibotik bereizten da, posposizio bezala funtzionatzen duelako eta ezezko, galderazko edo baldintzazko transformaketaren bidez sortutako partitiboa ez bezala, baiezko esaldietan ere ager daitekeelako oinarritzko erabileran. Testuinguru hauetan azal daiteke:

- Egitura superlatiboetan: (r)ik + (adj)+ ena: (78) "Honako hau zuhaitzik ederrena da"

- Egitura kuantifikatzaileetan: (79) "Eskerrik asko". Hemen sar daitezke esaldi esklamatiboetako partitiboak: (80) "Bada abeslaririk Euskal Herrian". Esaldi hauen oinarritzko egituran "asko, ugari" kuantifikatzailea dagoela suposa daiteke.

- Erabilera eratorria<sup>24</sup>: Partitibo morfemaren funtziorik ezagunena eta garrantzizkoena da. "Partitive Assignment" deritzan transformazio bidez sortutakoa da. Berez ezezko transformaketa dela medio agertzen da, nominatiboan dagoen I.S. mugatu gabekoari erantsirik. Beste zenbait testuingurutan ere agertzen da:

- Ezezko esaldietan: (81) "Ez dut ogirik nahi"

- "Bakarrik, soilik" adberbioak agertzen diren esaldietan. Oinarritzko egituran ezezko esaldi bat egoten da: (82) "Horrelako txorakeriarik mutil horrek bakarrik esan dezake" (Inork ez luke horrelako txorakeriarik esango, mutil horrek baizik"

- "Beste"partikula daraman I.S.: (83) "Erosi dut beste soinekorik"

- Bai ala Ez galderetan: (84) "Izarrik ikusi al duzu?"

- Galderazko izenordea daramaten galderetan, hauek entzulearengan sinestu ezina edo harridura espero daitekeela adierazten dutenean: (85) "Noiz ikusi duzu hemen txoririk?"

- Baldintzazko esaldietan: (86) "Izarrik ikusten baduzu poztuko zara"

- Menpeko esaldiko I.S. bat partitiboan ager daiteke, bere eragilea esaldi nagusian dagoen bitartean: (87) "Gaur izarrik ikusi duzula uste al du norbaitek?"

### **Ergatiboa (-k)**

Kasu honek hartzen duen desinentzia "-k" da " Zenbait txori-k ogia jaten du" Baina deklinagaia kontsonantez bukatzen bada, desinentzia ere kontsonante bat denez, loturazko "-e-" artizkia behar du: (88) "Zenbait lagun-e-k eman zigun". Artikulua eransten badugu, hondarkia horrela geratzen da: (89) "Lagun-ak oparia ekarri dit". Pluralean berriz: (90) "Lagun-ek opariak ekarri zituzten".

Funtzioa kontuan hartuz, kasu-marka hau daraman izen-sintagma perpausaren subjektua da, beste hizkuntzetan nominatiboak dituen ezaugarri formal eta sintaktiko berdinak gure ergatiboak dituzenez.

Perpaus iragankorretako sintagma ergatiboak betetzen du perpaus horretako egilearen funtzioa: (91) "Umeak egin zuen marrazki polit hori".

---

<sup>24</sup> Artikulu hau ikuspegi transformatzaitetik eginga dago.

### **Datiboa (-i)**

Datiboak "-i" desinentzia hartzen du: (92) "Sei lagun-i eman genizkien opariak". Deklinagaia bokalez bukatzen bada, atzizkia ere bokal bat denez, "-r-" artizkia beharrezkoa du: (93) "Zenbait aita-r-i esan zioten". Izen-sintagmak artikulua hartzen duenean, hau da, mugatua denean: (94) "Lagun-ari eman nion oparia", eta mugatu eta plurala denean: (95) "Lagun-ei eman genizkien opariak".

Bigarren objektu edo zehar objektuaren funtzioa betetzen du.

### ***Leku-denborazko kasuak.***

Orain aztertuko ditugun sei kasu hauek (Inesiboa, Leku-genitiboa, Adlatiboa - Norabide zuzenezkoa, Adlatibo bukatuzkoa- eta Ablatiboa), zenbait berezitasun dituzte. Hain zuzen "egon, etorri, joan,..." eta antzeko aditzen konplementuak adierazten dituzten kasuak dira hauek, hau da, "non, nondik, nora, nongo" galderei erantzuten dieten kasuak.

Gainerako kasu guztietan bezala, hauetan ere paradigmaren hiru aldakiak (mugagabea, mugatua eta mugatu plurala) kontuan hartzeaz gain, leku-genitiboa alde batera utziz, bizigabeek "-(e)tan, eta bizidunek -(en)gan" artizkiak hartzen dituzte kasu hauek, bakoitzaren arteko mugak garbi ez egon arren, bizidun eta bizigabeen arteko mugak ere zenbaitetan garbi ez dauden bezala.

### **Inesiboa (-n)**

Kasu honek norbaiten edo zerbaiten lekua adierazten du orokorki, galdetzailea "Non" delarik, eta bizidunena Nor(en)gan edo Nortan euskalkien arabera. Baina beste balio batzuk ere baditu kasu honek. "Zerbait noiz gertatu den" ere adieraz dezake, galdetzailea "Noiz" izanik. "Zertan" galdetzaileari ere erantzuten dio kasu honek. Hortaz, Inesibo kasuak honako galderei erantzuten dio: "Non, Noiz, Zertan".

Formari begiratzuz, Inesiboaren atzizki nagusia "-n" soila da: (96) "Donostia-n". Baina deklinagaia kontsonantez amaitzen bada, izena eta atzizkiaren artean beharrezkoa izaten da "-e-" epenetikoa: (97) "Gasteiz-e-n".

Euskal deklinabidearen atzizki guztien artean, dudarik gabe hau da emankorra. Horregatik, eduki semantikoari begiratzuz, oso aberatsa da. Gorago aipatu dugun bezala, lekua: (98) "Hernanin bizi naiz", denbora: (99) "Atzo Gasteizen egon nintzen" (puntu edo momentu batekoa, zenbat aldiz, zer ordutan, zenbatetan), iharduera, hau da "zertan" ari den norbait: (100) "Lanean ari naiz", eta modua: (101) "Idazten pasa dut arratsaldea" ere adierazten ditu kasu honek.

## **Leku-genitiboa (-ko)**

"-en" atzizkia duen genitiboari kontrajartzeko deitzen zaio honi leku-genitiboa.

Berez, "Non"en izenlaguna baizik ez da historikoki begiratzuz, baina "hemengo, hango" esaten baditugu ere, inork ez du "etxeango, mendiango" eta horrelakorik esaten. Kasu honek ez du onartzen, beraz, beste leku-kasuek duten "-ga-" forma.

Atzizki hau, gramatika kasuei izan ezik, ia edozein sintagmarekin joan daiteke, izen sintagma hori bizigabea bada. Askotan Inesiboari eransten zaio: "nongo, aurtengo, hemengo".

Aurreko kasuan

aipatu dugun bezala, kasu honek ere "Nongo, Noizko, Zertako" galdetzaileak ditu.

Formari dagokionez, Leku-genitiboaren atzizkia "-ko" da: (102) "Etxe-ko lorea". Deklinagaia kontsonantez bukatzen bada berriz, "-eko": (103) "Lan-eko orduak" Bestalde, mugagabea eta pluralean, oinarrian duen adizlagunak "-ta-" daramanez, "-tako, -etako" bihurtzen da: (104) "Etxe-tako loreak ; Etxe-etako loreak".

## **Adlatiboa -(r)a**

Kasu honen forma nagusia singularrean "-ra" da, pluralean berriz "-etara". Mugagabea deklinagaia bokalez bukatzen bada "-tara" eta kontsonantez bukatzen bada "-etara". Kasu honi dagokion galdekaria "nora" da. Iparraldeko euskalkietan berriz, "-ra" erabili beharrean, "-rat" erabiltzen dute, galdekaria "norat" delarik.

Oinarria biziduna denean, "-ra" atzizkiaren ordean, "-(ren)gana" hartzen dute singular mugatuan, eta "-engana" pluralean. Mugagabea berriz "-(r)engana, deklinagaiaren azken bokala edo kontsonantearen arabera. Bizidunen galdekaria "Norengana edo Norgana" da.

Bestalde atzizki hauetatik sortzen diren beste zenbait atzizki konposatu ere badira.

Hainbat erabilera du Adlatibo kasuak. Alde batetik, zenbait izen adberbializatu egin da: (105) "Gora, behera". Bestalde, euskarak joera handia erakusten du Adlatibo kasuan dagoen edozein forma, aditz bihurtzeko: (106) "Etixeratu, Itsasoratu". Denbora ere adieraz dezake kasu honek: (107) "Hemendik aurrera, egunetik egunera". Inoren ekintza baten helburua edo asmoa ere adierazten du, kasu hauetan galdekaria "zertara" izanik.

## **Hurbiltze adlatiboa (-(r)antz)**

Kasu honen forma nagusia "-rantz" da. Pluralean "-etarantz" eta mugagabea "-tarantz" edo "-etarantz", deklinagaia bokalez edo kontsonantez amaitzen bada.

Hau ere Adlatiboa izanik, hau da, norabidea adierazten duena, beste atzizki ezberdina denez, beste kasu bat da. Baina inor nora doan baino gehiago adierazten du "zein aldetara jo

duen" edo "noranzko bidea hartu duen" norbaitek: (108) "Kalerantz abiatu zen".

### **Muga adlatiboa (-(r)aino)**

"Noraino" galdekaria, "Nora" ren konposatuetariko bat da. "Zerbaiten azken muga edo puntua" adierazten du. Kasu honetan ere, leku-denborazko beste kasuetan bezala, hiru balioak azaltzen zaizkigu (Noraino, Noizeino?, Zertaraino): (109) "Ikastolaraino etorri naiz".

Bizidunen atzizkia "-(ren)ganaino" da.

Denbora ere adierazten du kasu honek. Berez, "Noraino"ren pareko denborazko galdekaria, "Noizeno" behar luke, baina hau ez da ezagutzen. Horren ordez, forma arruntena "Noiz arte" da. Gainera, atzizki honek denborazko balioa duenean, aldaera ugari hartzen du euskalkien arabera: "-no, -ino, -daino, -dano, -dino, -drano, -do, ..."

### **Ablatiboa (-tik)**

Formari dagokionez, kasu honen marka soila "-ik" da, eta beti gertatzen den bezala deklinagaia bokalez bukatzen denean, atzizkia "-rik" da. Halere, beste euskalki batzuetan, aipatutako "-rik" honen ordez, "-tik edo -dik" atzizkiak ere azaltzen dira. Mugagabea denean berriz "(e)tarik" eta pluralean "-(e)tatik". Bizidunek "-gan-" artizkia hartzen dute, eta horren aurreko "-re(n)" batzuetan bakarrik azaltzen da: (110) "Higandik, hiregandik". Bizidunen artean mugagabe eta pluralean "-(r)engan(d)ik"

Balioari begiratuz, aurreko kasuetan bezala, hiru balioak hartzen ditu, eta galdekariak honako hauek dira (Nondik, Noiztik, Zertatik).

Zenbait denborazko adberbiok "-danik" atzizkia har dezake "-tik"en ordez: (111) "Betidanik, Gaurdanik".

Ablatibo kasu-marka duen zenbait sintagma, aditzondo bilakatu da. (112) "Bertatik, Oraindik".

Euskalki batzuen arabera, bi balio ditu Ablatibo markak. Horrela, abiapuntuaz gain: (113) "Menditik dator", nonbaitetik zehar ere esan nahi du: (114) "Basotik etorri da = basoan zehar etorri da).

Kasu-marka hau hartzen duten sintagmak Izenlagun bihur daitezke: (115) "Kontu horiek geroztikakoak dira".

### ***Gainerako kasuak***

### **Jabego genitiboa (-en)**

Kasu honen markari dagokionez, atzizkia "-en" da: (116) "Zenbat zuhaitzen jabe da



emakume hori?". Atzizkia hartzen duen deklinagaia bokalez amaitzen bada, "-r-" epentetikoaren bidez "-ren" biurtzen da atzizkia: (117) "Zenbat irakasleren eredu da gizon hau?". Eta izen-sintagmak artikulua hartzen duenean, "-aren" da atzizkia: (118) "Gure etxeko zuhaitzaren loratzea da". Azkenik, izen-sintagma pluralean dagoenean "-en" da atzizkia: (119) "Gure zuhaitzen loreak politak dira".

Ikusi dugunez, kasu honetan sinkretismo morfologikoa ematen da, hau da, forma bera hartzen du mugagabeak eta mugatu pluralak, "-en", deklinagaia kontsonantez bukatzen denean. Dena den, sinkretismo hau, aditzaren morfologiak hausten du.

Funtzioari begira, kasu honen bidez izenkia Izenlagun bihurtzen zaigu. Hortaz, Genitibo kasu hauek izen-sintagma baten barruan azalduko dira, Izenaren ezkerretara: (120) "Aitaren zapatilak oso beroak dira".

Zenbait erabilera egin daiteke Genitibo kasu honekin:

- "Izan" edo beste aditz kopulatibo baten osagarri izan daiteke: (121) "Liburu hau Chomskyrena da"

- Jabegoa ere adierazi dezake: (122) "Aitaren etxea"

- Posposizio askok kasu hau eskatzen du: (123) "Uraren gainean". Deklinagaia bizigabea denean gramatika-atzizkia ken daiteke: (124) "Ur gainean".

- Ekintza baten egilea adierazten duten izenek, osagarri hau eraman dezakete: (125) "Liburu hauen egilea"

- Aditz izenaren objektua, bai Absolutiboan, bai Genitiboan azal daiteke: (126) "Gauza ederra da euskara ikastea / Gauza ederra da euskararen ikastea"

Leku-genitiboa eta orain aztertzen ari garen Jabego genitiboen artean, batzuetan zalantzak sortzen dira, hau da, "-en eta -ko" ren arteko duda sor daiteke: (127) "Etxeko teilatua, ala Etxearen teilatua?". Arazo honi dagokionez, bada zenbait puntu, bata edo bestea aukeratu ahal izateko, baina beste kasu batzuetan zalantza izan daiteke.

"-en" erabili behar da : - Edukiztailea biziduna denean

- Posposizioetan

"-ko" erabili behar da : - Toki edo denbora bati dagokion erlazioa adierazteko.

## **Soziatiboa (-ekin)**

Kasu honen formak hauek dira :

- Mugagabean :

Deklinagaia kontsonantez bukatzen bada: "-ekin": (128) "Bi arrainekin jolastu naiz"

Deklinagaia bokalez bukatzen bada : "-ekin": (129) "Hiru semerekin bizi naiz"

- Mugatu singularrean "-arekin": (130) "Arrainarekin jolastu naiz"
- Mugatu pluralean "-ekin": (131) "Semeekin bizi naiz"

Kidetasuna adieraztea da bere funtzesko funtzioa.

Honako egoera hauetan erabil daiteke:

- Normalki Instrumentala eskatuko luketen zenbait aditz soziatiboekin :  
(132) "Horrekin konturatu naiz / Horretaz..."
- Zenbait aditz, adjetibo edo adberbiorekin: (133) "Ogi honekin nahikoa dugu"
- Instrumentaltasuna adierazteko erabil daiteke, Instrumental kasua erdi galdua dagoenez: (134)  
"Mailu honekin puskatu du mahaia"
- Denborazko zentzuan ere erabil daiteke, "Noiz " adierazteko hain zuzen: (135) "Larunbatarekin joan zinen"

Azkue-ren (1923-25) ustez, gaur egun Soziatibo bezala erabiltzen diren bizkaierako "-gaz" eta beste euskalkietako "-kin", garai batean ezberdinak ziren, eta aurrenaren esanahia horrelako zerbait izango zen "pertsona edo bizidunen bitartez"

### **Instrumentala (-z)**

Orokorrean kasu hau oso gutxi erabiltzen da, eta Soziatiboarekin nahasten da.

- "-z" atzizkiari dagozkion galderak hauek dira: -Nola?: (136) "Eskuz"  
-Zerez?: (137) "Ardoz"  
-Nortaz?: (138) "Umeez"  
-Zertaz?: (139) "Suz"

Forma hauek hartzen ditu, deklinagaiaren arabera: Forma utsa, "-z" da: (140) "Kantuz bukatu zuten". Izenkia kontsonantez bukatzen denean "-ez" forma hartzen du: (141) "Akatsez betea zegoen idatzia". Mugatuaren forma berriz "-az" da: (142) "Aiztoaz moztu zuen ogia". Eta pluralean berriz "-ez" da bere forma: (143) "Adreiluez egin zuten pareta"

Funtzioari eta erabilerari dagokienez, honako hauek betetzen ditu Instrumental kasuak:

- Aditz askok Instrumentala eskatzen dute bere osagarrietan "baliatu, jabetu..."  
(144) "Gure etxeaz jabetu ziren"
- Gaia adierazteko balioa ere badu, zenbait aditzen "esan, entzun..." osagarrietan erabiliz gero:

(145) "Zer entzun duzu biharko eguraldiaz? "

- Denborazko iraupena adierazteko: (146) "Geltokian hiru orduz egon ginen"

- "Noiz" ere adieraz dezake: (147) "Gau batez "

- Tresna adierazteko ere erabiltzen da: (1468 "Mailuaz egin zuen". Baina zentzu honetan Soziatiboa ere : (149) "Mailuarekin" esan daiteke.

- Zenbait posposizio eta posposizio antzeko hitzak ere kasu honekin erabiltzen dira: (150) "Zutaz gainera beste hiru lagun etortzeko dira"

(151) "Itxasoa olatuz josirik azaldu zen"

- Mugagabeen, atzizkiak modua, kasua eta beste zenbait kontzeptu adierazten dituzten adberbioak eta lokuzio adberbialak sortzen ditu: (152) " Oinez, zaldiz, eskuz..."

- Esapide batzutan ere agertzen da: (153) "Herriz herri ", " Hankaz gora"...

### **Motibatiboa ( -gatik)**

Kasu-marka hau izenlagunetako genitiboari eransten zaio zuzenean. Forma aldetik aldaki hauek ditu:

- Mugagabea: (154) "Enekorengatik etorri ziren"

- Mugatua: (155) "Alabarengatik egin zuen bazkaria"

- Plurala: (156) "Semeengatik ez ziren joan oportetara"

Horrela bada, beti "-gatik" da atzizkia eta genitiboaren kasu-markak erakusten dizkigu mugagabeen, mugatuan eta pluralean. Hala ere deklinagaia mugatu singularra edo mugagabea denean, genitiboaren kasu-marka gal dezake, "-gatik" atzizkia zuzenean erantsiz: (157) " Semeagatik".

Funtzioa: "Kausa" antzeko zerbaitek adierazten du marka honek: (158) "Nigatik etorri dira". Hortaz, "kausatibo" izena ere hartu izan du kasu honek.

Erabilera : - Perpaus kontzesiboak sor daitezke atzizki honen bidez:

(159) "Amak ezagutuagatik ez nintzen joan"

- Zenbait perpaus adbersatibo ere moldatu daiteke:

(160) "Nik ez dut, haatik, horrelakorik pentsatzen"

### **Destinatiboa ( -entzat, -(ra)ko, -tzat)**

Kasu honek hainbat forma erakusten du, eta zenbait azpisail bereizten dira kasu honen barruan:

#### **a) Xedezko destinatiboa (-entzat, -endako)**

Atzizki hau "-en" izenlagunak osatzeko atzizkiaren gainean jartzen da, "-tzat" erantsiz: (161) "Aitarentzat, Neretzat." Ikusten denez, xedea edo asmoa adierazten du.

"-entzat" eta "-rako" atzizkien artean nahasketa sortzen da. Autore batzuek diotenez, badirudi "-entzat" atzizkia bizidun sentitzen ditugun izenek osatutako sintegmentzat gorde behar dela: (162) "Hizkuntzarentzat ". Bizigabe sentitzen ditugun hitzak berriz aipatutako bi atzizkiak aukeran dituzte: (163) "Hizkuntzarako". Ekintza adierazten duten izenek ere "-rako" atzizkia hartzen dute: (164) "Oporretarako, Jolaserako". Dena dela, argitasun hauek ez dira nahikoak bi atzizki hauen arteko nahasketak argitzeko, eta salbuespenak beti aurkituko ditugu.

Bestalde, "-tzat" atzizkia aipatutako "-en" izenlaguna osatzeko atzizkiaren gainean erantsi beharrean, "-ko" atzizkiaren gainean ere jartzen da hizkera batzuetan: (165) "Irabaztekoztat".

Omaetxebarriak (1962) dioenez, atzizki hau "-tza-" atzizkia eta "etxera-t" en aurkitzen dugun "-t" atzizkiak osatutakoa da, posesiboaren gainean jarririk. Azkuek (1923-25) ere kasu hau posesiboari "-tzat" atzizkia gehituz osatzen dela dio.

#### **b) Prolatiboa (-tzat")**

Gaur egun "-tzat" atzizkia kasu-marka bezala onartua bada ere, oso eztabaidagarria gertatzen da beste kasuen parekotzat hartzea. Hori dela eta Destinatibo kasuaren barruan kokatzen du Euskaltzaindiak (1993).

Beste kasu markekin gertatzen ez den bezala, "-tzat" atzizkia inolako mugatzailerik gabeko sintagmekin bakarrik erabiltzen da: (166) "Laguntzat hartu ninduten nahiz ez ezagutu". Bestalde aditzondo soilei ere eranstean zaie: (167) "Garbitzat hartu nuen arropa hori".

Arau fonologikoei dagokienez, atzizki honek ez ditu betetzen gainerako kasu markek betetzen dituztenak. Atzizki honekin osatzen diren sintagmek, aditzondoen jokabidea jarraitzen dute: (168) "Bihartik".

Funtzioari dagokionez, kasu honek predikatu osagarriaren funtzioa betetzen du

Omaetxebarriak (1962) ez du "-tzat" atzizkia kasu marken artean sartzen. Haren ustez, Destinatiboak badu nolabaiteko antza "-tzat" atzizki adberbialarekin osatzen den izenekin, baina garbi bereizten da deklinabideko kasuarekin, azken hau ezin delako deklinazioaren inongo paradigmatan onartu, kontuan hartuz radikalari eranstean zaiola besterik gabe.

#### **d) Banatzailea (-ko)**

Banaketa batean bakoitzari dagokiona adierazteko erabiltzen dugu kasu hau.

Prolatibo atzizkiarekin gertatzen den bezala, atzizki hau ere sintagma mugagabeetan bakarrik erabiltzen da: (169) "Sei seme agertu ziren emakumeko".

Baina Prolatibo kasuan ez bezala, ongi betetzen dira hemen erregela fonologikoak: (170)

"Gizon-e-ko" ez "Gizon-ko".

#### e) Inesiboaren gainean eraikia (-ko)

"Nongo, Zertako, Noizko" galdekariak izenlagunei ez ezik adizlagunei ere badagokie:

(171) Donostiako gazteak langileak dira.

(172) Laneko orduak dira horiak.

(173) Atzoko ogia atsegin zaio.

Esaera adberbialak ere sor daitezke atzizki honen bidez:

(174) Hau, esateko, ez da lanera etortzen, ia beti gaixo baitago

"Dagoeneko" bezalako esapideak ere inesiboan oinarritzen dira:

(175) Bederatzitan gosalduta eta dagoeneko lanean ari da.

#### f) Adlatiboaren gainean eraikia (-rako)

Aurreko kasuan gertatzen den moduan, hemen ere "zertarako, norako" galdekariak izenlagun edo izenondo izan daitezke.

(176) "Etxerako, Mendirako, Lanerako" eta antzeko adizlagunak, (177) "Etxeko, Mendiko, Laneko" bezala erabiltzen dituzte askok, bi formak adizlagun bezala.

Bestalde "-entzat" eta "-rako" kasu marken artean nahasketa sor daiteke gorago aipatu dugunez.

Omaetxebarriak (1962) Delimitatiboa izendatzen du, izen arruntekin "-e-rako", alatiboaren ezaugarria azaltzen duelarik. Baina denborazko adizlagunetan, "-ko" atzizkia zuzenean eranstean zaio deklinagaiari: (178) "Gero-ko, Bihar-ko", batzutan zalantzak sortzen badira ere: (179) "Etziko ala Etzirako".

### 5. 8. - DESINENTZIA BIKOITZAK

Azkuek (1923-25) *Morfologia Vasca* lanean dioenez, zenbait deklinabidezko desinentzia edo kausazko atzizkieri, "-ko" "Proverbal" deritzan atzizkia eranstean zaio, desinentzia bikoitza gertatuz horrela. Zenbait desinentziak, ordea, ez du "-ko" bigarren desinentzia onartzen: (hemen azaltzen den terminologia Azkue berarena da)

- Aktikoak
- Datiboak
- Inesiboak ( badirudi garai batean posible zela tankera honetako desinentzia bikoitza)
- Posesiboak . Kasu honek onartzen du, baina baldintza batzuk betez:

- a) "-ko" atzizkiak bere izaera "proverbal" delakoa galduz
- b) "-e-" elementu epentetikoaren bidez
- c) " etxe " hitza suposatuz

Ondorengo desinentziak ordea , lotura hau onartzen dute:

- Destinatiboa: (180) "Guretzako"
- Ablatiboa: (181) "Nondikoa?"
- Direktiboa: (182) "Bekatuzko"
- Direktibo "indefinido": (183) "Berazko"
- Direktibo "terminal": (184) "Zenbaiterainokoa"
- Soziatiboa: (185) "Lagunagazko, Hirekilako"
- "Impulsivo"
- Instrumentala: (186) "Urrezko"

Bestalde, badira desinentzi bikoitzaren izena merezi ez dutenak ere, bietako elementu bat ez delako kategoria honen barruan sartzen:

- Destinatiboa : ( -entzat). Atzizki hau posesiboaz eta adberbiozko atzizki batez osatua dago.
- "Impulsivo" : ( -gaitik) . Hau, "gai "substantiboaz eta ablatibozko desinentziaz osatutakoa da.
- "-gan -" artizkia eta " -tik, -a, -antz, -agino, -ako" elementu lokatiboz osatutako desinentziak.
- "-ta -" artizkia eta, goian aipatutakoez gain, " -ko " "proverbal" delakoa eta inesiboko " -n"z osatutakoak ere.

## 5. 9. - ZENBAIT KASUK ADITZAREKIKO GORDETZEN DUEN KOMUNZTADURA

Lafon-ek (1980) dioenez, zenbait hizkuntzalarientzat (F.Müller, Stempf, Schuchardt horien artean), euskal aditza pasiboa da, Ergatiboz osaturikoa delako, eta "Nor" hutsezko aditzen sujeta pazientea bilakatzen delako. Berak berriz nahiago du egitura erromanikoen kategoria hori euskarari ez ezarri, eta euskara bere baitan aztertu.

Euskal aditza eta deklinabidearen ezaugarri bereziena Ergatiboa da. Hizkuntza askotan sintaxiaren ardatza nominatibo-akusatibo sisteman oinarritzen den bitartean, euskararen sistemaren ardatza absolutibo-ergatiboa da. Hortaz, euskara hizkuntza ergatiboa dela morfologia mailan esan bagenezake ere, ez da erraza hori bera baieztatzen sintaxi mailan.

Inguruko hizkuntzetan, aditzak subjektoarekin bakarrik du konkordantzia, euskarak berriz Subjektu, Objektu eta Datiboarekin, bai numeroz, bai pertsonaz.

Aditz flexionatuak, hortaz, hiru kasu gramatikalen markak eraman ditzake, Absolutiboa, Ergatiboa eta Datiborena hain zuzen. Sistema honen oinarrian oposaketa hau dago:

- Beti Ergatiboz osatzen diren aditzak , Nor / Nork direnak
- Ergatiborik gabe osatzen diren aditzak, Nor hutsa direnak

Gero, talde bakoitzari datiboaren marka erants dakioko, Nor - Nori eta Nor-Nori-Nork.  
Lafon-en (1980) ustez, diakronikoki begiraturaz, euskal aditzak ez zuen komunztadurarik behar datiboarekin, hau da, adizkietan ez zen "Nori" markarik agertzen, nahiz eta izen-sintagman "Nori" agertu. Gaur egun ere, Iparraldeko hiztunek ez dute behar hau sentitzen.

## **6.-GAZTELANIAZKO PREPOSIZIO ETA IZENORDAIN PERTSONALEN DESKRIBAPEN GRAMATIKALA.**

### 6.1 .- PREPOSIZIOAK

6.1.1 .- Zer dira preposizioak?

6.1.2. -Preposizioen zeregin edo funtzioa.

6.1.3.- Preposizioen ezaugarriak

6.1.4.- Preposizio motak

6.1.5.- Preposizioen elkarketa

### 6.2.- IZENORDAIN PERTSONALAK

6.2.1.- Izenordainak

6.2.2.- Izenordain pertsonalak

6.2.3.- Izenordain pertsonalak eta kasu edo deklinabidea gaztelaniaz

6.2.4.- Izenordainek betetzen dituzten funtzio sintaktikoak.



## 6. 1. - PREPOSIZIOAK

### 6. 1. 1. - Zer dira preposizioak ?

Perpasean elkarrekin kateaturik azaltzen dira hitzak. Hitzen edo hitz multzoen lotura, kasu gehienetan, eginkizun hau betetzen duten hitzen bidez lortzen da. Hitz hauek gramatika tradizionalan preposizioak, juntagailuak eta izenordain erlatiboak dira.

Gaztelaniaz, aditz, substantibo edo adjektiboen termino osagarria substantibo bat denean, askotan preposizio baten bidez lotzen dira bi terminoak. Hau ez da gertatzen aposiziotan, zenbait osagarri zuzen edo zirkunstantzialetan eta izenordain klitikoetan. Bestalde, "pre-posizio" izena, benetan loturik dagoen hitzaren aurrean azaltzen delako da.

Preposizioa oso elementu eraginkorra da hizkuntzaren barruan eta honi buruzko definizioak ugariak dira, hainbat ikuspuntu kontuan harturik. Horrela, irizpide formalak, semantikoak edo sintaktikoak kontuan harturik eman daitezke definizioak, gehienetan irizpide bat baino gehiago azaldu arren.

Preposizioa sintagmaren zati aldaezina da, bi hitzen arteko erlazioa adierazten duena (C. J. Socarrás, 1967). Bi hitz hauetako lehena (aitzinkaria), gehienetan izen substantibo, adjektibo edo aditz bat izaten da, eta bigarren elementua (ondokaria) izen bat edo izenaren baliokideren bat.

Preposizio-sintagmak osatzen dituzte. Hori dela-eta, preposizioz loturik agertzen diren bi elementuek ez dute balio bera. Preposizioa sintagmaren "gunea" dela esaten dugu, eta beraren menpe dagoen elementua, aldiz, "osagarria". Azkenik preposizio sintagma hori eskatzen duen elementua aipatu behar da, -- nolabait "elementu nagusia" -- bera delako preposizio-sintagma horren presentzia eragiten duena: (1) " voy ( en ( coche ))".

Bi hitz lotzeko ahalmena duen preposizioak ez du nahitaez bi elementu horien artean azaldu beharrik. Bete behar den arau bakarra osagarria bihurtzen duen substantiboaren aurrean azaltzea da: (2) "En casa me tratan bien". Gainera substantiboak ez du izan behar izen edo izenordaina, hau da, benetako substantiboa, substantibo funtzioa betetzen duen edozein hitz baizik: (3) "Déjale el libro de ayer, Se fué con los de casa, Eso es difícil de comprender".

Alcina eta Blecuak (1982) diotenez, "Real Academia Española" k delakoak 1931n preposizioa perpausaren parte dela esaten zuen. Definizio honekin ez datoz bat gaur egun gramatikariak. Hauen artean, aipatu Alcina eta Blecua-rentzat preposizioek ez dute inongo baliorik beren baitan. Beren eginkizuna, izenarekin bat eginez, beste hitz baten osagarri bilakatzea da. Hau dela-eta, preposizioa eta izena kontzeptu bakar bat izango balira bezala ahoskatzen dira, eta ahoskatu ere biak bat balira bezela egiten dira, izan ere, sintagma bat (preposizio-sintagma) osatzen baitute.

Bestalde, aipatu "Real Academia Española" k 1982an horrela definitzen ditu preposizioak: "Edozein elementu sintaktiko, osagarri substantibo batekin lotzen duten hitz aldaezinak dira". Partikula proklitikoak ("según") izan ezik, beste hitz baten osagarri nominal baten aurrean doazenak eta hitz horri menperatzen zaizkionak.

Preposizioa hitz gramatikalizatua da Ramon Esquer Torresen (1971) ikuspuntutik, hau da, esanahirik gabea. Honen funtzioa, perpaus barruan hitzak beren artean erlazioan jartzea da, zer nolako funtzioa betetzen duten ere adieraziz.

Substantibo bati, osagarri bilakatzeko aurrejartzen zaion loturazko hitz bat da Manuel Secorentzat (1989).

Esanahi lexikorik gabeko morfema erlazionatzaileak dira preposizioak Francisco Marcos Marinentzat (1980).

Latinaren gramatikan, bestalde, kasuek zuten balioa, gaur egun gaztelaniaz preposizioek, ordena sintaktikoak eta komunztadurak dute.

### 6.1.2.- Preposizioen zeregin edo funtzioa

Preposizioaren zeregina, izena iragartzea da, batzuetan erlazio mota adierazten badu ere.

Preposizioak sintagma nominal substantibo bat beste sintagma baten menpe jartzen du:

- (4) Chocolate con churros
- (5) Trabaja sin herramientas
- (6) Detrás del balcón.

Menpeko elementua preposizioarekin doana da (churros, herramientas, balcón) eta preposizioarekin osatzen duen sintagma honi, preposizio sintagma deitzen zaio, lehenago esan dugunez.

Menpekotasun-erlazio hau dela-eta, aintzinkaria zenbait motatakoa izan daiteke:

- Aditza: (7) Corre con gracia
- Substantiboa: (8) Playa sin arena
- Adjektiboa: (9) Duro al oído
- Izenordaina: (10) Alguno de éstos
- Adberbioa: (11) Detrás de la casa
- Interjekzioa: (12) . Ay de tí!

Batzuetan preposizioa "que" partikularekin batzen da, juntagailu menperatzaile bilakatuz horrela: (13) "Escribe claro para que te entiendan"

Preposizioaren menpekotasunerako izaerak bereizten du preposizioen funtzioa, emendiozko juntagailuen funtzioagandik.

Gaztelaniaz gaur egun substantibo eta adjektiboetan deklinabiderik ez dagoenez, zenbait preposizioen bidez lortzen dira kasuek betetzen dituzten funtzio sintaktikoak (Ramon Esquer Torres, 1971):

- Preposiziorik eza : Subjektu eta Bokatiboarentzat
- "de" preposizioa : Osagarri Determinatzailearentzat
- Preposiziorik eza eta "a" preposizioa : Objektu zuzenarentzat
- "a, para" : Zehar objektuarentzat
- Ia preposizio guztiak : Osagarri zirkunstantzialarentzat.

Bestalde, batzuetan zenbait adberbio ere erabiltzen da preposizio -- berez, gehiago posposizio -- funtzioa betetzeko: (14) "rio arriba, calle abajo". Kasu hauetan duten balioa preposizio eta adberbioaren erdibidekoa da: lokarri izateaz gain, adberbio-balioa erakusten dutelako.

Gainera zenbait preposiziozko perpaus edo perifrasi eta preposizio konposatuak ("a través de, por delante de") ere azal daitezke. Kasu hauetan ere beren balioa mistoa izaten da, hau da, erlaziozkoa eta adberbiala.

### 6. 1. 3. - Preposizioen ezaugarriak

Hiru ezaugarri aurkitzen ditugu preposizioetan:

- 1) Erlazioa adierazten dute
- 2) Osagarria markatzen dute.
- 3) Osagarri hori beste hitz baten osagarri bihurtzen dute, hau da, preposizioz markatutako osagarria, gobernatzen duen beste hitz baten menpe jartzen du.

Beste zenbait ezaugarri ere aipa daiteke. Preposizioak ez dira askeak artikulua ez diren bezala. Bestalde, beti hitzaren ezkerretara doaz. Hau dela-eta, zenbait problema dituzte aurrizkiekin, eta horrela, berezko eta ez-berezko preposizioak, hau da, aurrizkiak, bereizi behar dira.

Izenaren aurrean azaltzen delarik, preposizioa hitz atonua da, jarraitzen dion osagarriarekin bat eginez "azentuzko taldea" osatzen duenez.

Substantiboak aldatzeko era bakarra ez da adjektiboa. Preposizioek mota guztietako hitzak aldatzeko ahalmena dute. Preposizioak aldatzen dituen hitz hauei, beraien osagarriei, "termino" izena ematen zaie. Deitura hau A. Bellori (1982) zor zaio. Normalki "termino" baten aurrean preposizioa azaltzen da, eta honen zeregina delako "terminoa" iragartzea da, erlazioa ere adierazten badu ere. Preposizioaren terminoa beti substantiboa da edo funtzio gramatikal bera betetzen duen edozein hitz edo adierazpen. Preposizio terminoa izateagatik, hitz edo adierazpen guztiak substantibatu egiten dira. Hau dela-eta, preposizio terminoak hauek izan daitezke:

- Substantibo lexikoak: (15) "casa de madera"
- Izenordainak funtzio substantiboan: (16) "amable con ellas, hablemos de aquello"

- Leku-denborazko adberbioak izenordain-funtzioan: (17) "Vienen hacia acá"
- Infinitiboak: (18) "Estudia para aprender, día de cobrar"
- Menpeko perpaus substantibo eta adjektiboak: (19) "El temor de que llegasen tarde me impacientaba, Darán el cargo a quien reúna mejores cualidades".
- Adjektibo substantibatuak: (20) "Está entre los santos"

Esan dugunez, preposizioa beti bere "terminoaren" aurretik doa, aldatu ezin den unitate sintaktiko eta fonetiko osatuz honekin.

"Según" preposizioa izan ezik, besteek ez dute berezko azenturik eta hori dela-eta, proklisian agertzen dira bere terminoarekin, horrela unitate sintaktikoa indartuz.

Terminoaren eta preposizioaren artean bestalde, artikulua edo beste determinatzaile bat ezar daiteke: (21) "Para el balcón" (22) "Con ese sol nos vamos a quemar".

#### 6. 1. 4. - Preposizio motak

Gaur egun, Alcina-Blecuari (1982) jarraituz, alde batera utz daitezke "so" eta "cabe" preposizioak, kontuan izanik "so" zenbait esaera finkotan bakarrik azaltzen dela "so pena, so color, so pretexto" eta gainera gero eta gutxiago, eta "cabe" ez dela inon ere agertzen.

Ohiko preposizioak hauek dira: "a, ante, bajo, con, contra, de, desde, en, entre, hacia, hasta, para, por, según, sin, sobre, tras".

Preposizio hauei, berez preposizio ez badira ere, zenbaitetan preposizio funtzioa betetzen duten hitz batzuk gehitu behar zaizkie:

Sintagma nominal baten aurretik doazen "cuando, donde" adberbioak ere kontuan hartzekoak dira:

- (23) Está donde la casa
- (24) Lo perdió cuando la enfermedad

Bestalde, "excepto, salvo, durante, mediante, obstante, embargante" hitzak "preposizio imperfektuak" gisa onar daitezke:

- (25) Pasea durante la noche
- (26) Lo mantuvo mediante sus influencias

Gutxitan bada ere, gaur egungo literatur-hizkuntzan zenbait antzinako preposizio ere erabiltzen da :

- "allende" (al otro lado de): (27) allende el mar

- "aquende" (a este lado de): (28) *aquende el valle*
- "cabe" (junto a): (29) *se durmieron cabe la lumbre*
- "so" (bajo): (30) *so pretexto de curarla*

Hitz guztiak ez dira gai preposizioekin azaltzeko, izenak bakarrik onartzen du, berez, lotura hau. Ez aditzaren forma pertsonalek, ez interjekzioek ez dute ametitzen preposiziorik. Gerundioak "en" preposizioa bakarrik onartzen du, baina gaur egun galdutzat eman daiteke. Bestalde, adberbio batzuek bakarrik onartzen dute zenbait preposizioen ondoan azaltzea. Azkenik, adjektibo eta partizipioak, "de, por" preposizioekin ager daitezke, baina orduan ezabatua dagoen aditz kopulatibo baten atributu gisa hartzen dira: (31) "*lo hizo por bueno = porque era bueno*". Beste zenbaitetan, izendatzaile-balioa hartzen du: (32) "*Salió de bueno en la película*". Horrela, bada, izena, infinitiboa eta "que anunciativo" bidez lortzen diren proposizioak geratzen dira.

Gramatika klasikoa preposizioak esanahiaren arabera sailkatzen ahalegindu da. Preposizio "beteak" eta "hutsak" izenez ere sailkatu izan dira. Preposizio "beteak" eremu mugatu batean erabiltzen dira, esanahiaren arabera. Hauek "ante, bajo, contra, desde, entre, hacia, hasta, para, por, según, sin, sobre, tras" dira. Preposizio "hutsak" berriz, loturazko marka soil gisa azaltzen dira, erlazionatzeko posibilitate askorekin, eta esanahiak zerikusia du bai erlazionatzen diren hitzekin, bai lotuta azaltzen direnekin. Hauek "a, con, de, en, por (azken hau batzuetan)" lirateke.

Preposizioak polisemikoak dira, hau da, esanahi ezberdina hartzen dute testuinguruaren arabera. Horrela, erraz ikus daitezke leku-denborazko erlazio espazialak, kausa eta finalitatea, instrumentua, konpainia eta modu-erlazioak, delako preposizio "hutsak" badira ere (Alcina-Blecua, 1982):

Leku adierazpenak:

- en: Ekintza egiten den lekua: (33) "*Vives en Bilbao*"
- a: Hurbilketa espazioan: (34) "*Vas a Bilbao*"
- de: Berezketa: (35) "*Vienes de Bilbao*"
- tras: Egoera: (36) "*Estás tras la casa*"
- entre: Egoera: (37) "*Entre los coches de la autopista*"
- hacia: Norabidea: (38) "*Vienes hacia aquí*"
- por: Ekintza aurrera ematen den lekua: (39) "*Viene por la via del tren*"
- con: Konpainia: (40) "*Vive con el gato*"

Denbora adierazpenak:

- a: Espazio-denbora batean momentu berezi bat: (41) "*Δ las once*"
- en: Denbora-unitate bat bere osotasunean: (42) "*En primavera*"
- de: Iraupena edo zehaztu gabeko momentu bat: (43) "*De dia*"
- por: Ekintzaren momentua: (44) "*Por la mañana*"
- desde: Abiapuntua denboran: (45) "*Desde ayer*"
- con: Aldiberekotasuna: (46) "*No te irás con estos zapatos*"
- sobre: Hurbiltasuna: (47) "*Sobre las diez*"

para: Ondorioa: (48) "Para pasado mañana"

Kausa eta helburu adierazpenak:

por: Kausa. Finalitate edo mugimendu aditzekin: (49) "Vengo por pan"

para: Helburua: (50) "Para mi hijo"

a: Helburua: (51) "Util a sus padres"

de: Egilea: (52) "Preferido de todos"

Instrumentu adierazpenak:

con: Tresna: (53) "Con un cuchillo"

de: Egoera baten egilea: (54) "Seguido de un faldero"

a: Tresna: (55) "A sangre y fuego"

en: Materia edo kantitatea: (56) "Comprar en especies"

Modu adierazpenak:

"de, a, por, con, en" modu adberbialak osatzen dituzte: (57) "a gatas, de firme, por ventura, con prudencia, en serio"

Gainera "a" preposizioa, osagarri zuzena eta zehar osagarrien adierazgarri ere izan daiteke; "de" preposizioak latinez genitibo eta ablatiboari zegozkion erlazioak adierazten ditu; eta "por" preposizioak, pertsona agentea, egitura pasiboko perpausetan.

### 6. 1. 5. - Preposizioen elkarketa

Preposizioak eta bere terminoak unitate fonetikoa osatzen dute, sintagma bat eratuz. Unitate honek, ordea, beste preposizio bat eraman dezake aurrean. Hau gertatzen denean, lehen preposizioak lehen elementuaren eta unitatearen arteko erlazioa azaltzen du.

Normalki elkar daitezken preposizioak hauek dira "Real Academia Española"ren arabera (1982):

- "de" preposizioa "a, entre, hacia, por, sobre" preposizioekin.

(58) " De a veinte pesetas el kilo"

(59) " De entre unas zarzas"

(60) " De hacia Occidente"

(61) " De por sí"

(62) " De sobre la mesa"

- "desde" preposizioa "por" preposizioarekin

(63) " Desde por la noche"

- "hasta" preposizioak "con, de, en, para, por, sin, sobre" preposizioekin

- (64) " Hasta con su tía"
- (65) " Hasta de veinte años"
- (66) " Hasta en casa"
- (67) " Hasta para ser alegre"
- (68) " Hasta por las orejas"
- (69) " Hasta sin calcetines"
- (70) " Hasta sobre los tejados más estropeados"

- "para" preposizioa "con,de, desde, en, entre, sin y sobre"

- (71) "Para con chocolate"
- (72) "Para de repente"
- (73) "Para desde cerca"
- (74) "Para en llegando"
- (75) "Para entre vosotros"
- (76) "Para sin estudios"
- (77) "Para sobre la chimenea"

- "por" preposizioa "ante, bajo, de, entre" preposizioekin.

- (78) "Por ante tí el notario"
- (79) "Por bajo la mesa"
- (80) "Por de pronto"
- (81) "Por entre unas matas"

Elkarketa hauek onartzen dituen bezala, beste batzuk gaitzetsi egiten ditu. Horrela, ez du onartzen "a" preposizioa beste edozein preposizioekin elkartuta azaltzea, eta batez ere "por" preposizioarekin. Hala eta guztiz ere, elkarketa hau asko erabiltzen da zenbait lekutan, eta hizkuntza idatzira ere hedatu da. Horrela, (82) "ir a por el pan" esan beharrean, (83) "ir por el pan" esan beharko litzateke. Haurrak ordea "a por" entzuten du.

"bajo" edo "tras" antzeko preposizioak, "de" preposizioa hartzen dute substantibo bati lagundu ahal izateko. Kasu hauetan preposizio-izaera galdu egiten dute eta adberbializatu egiten dira:

Hiru preposizio ere elkar daitezke, elkarketa hau gutxitan ematen bada ere.

Baina askotan gertatzen den fenomenoak, preposizioak eta beste hitzen elkarketak lokuzio finkoak osatzea da. Lokuzio hauek honako esanahiez azal daitezke:

- Adjetibala: (84) "De noche" (traje, mesita), (85) "Sin par" (hermosura)
- Adberbiala: (86) "A bulto, de golpe"
- Konjuntiboa: (87) "Para que, Sin embargo"
- Prepositiboa: (88) "Acerca de, Debajo de"
- Aditezkoa: (89) "El autobús va a partir", (90) "Han ido a comer"

## 6. 2. - IZENORDAIN PERTSONALAK

### 6. 2. 1. - Izenordainak

Izenordainaren definizioa ematerakoan, gorago preposizioei buruz esandakoa errepika daiteke, kontuan izanik ikuspuntu ezberdinak direla-eta (semantikoa, funtzionala, formala, sintaktikoa), definizioak ere aldatu egiten direla.

Tradiziozko gramatikak, bestalde, izenordaina izenaren ordezeko dela esaten zuen. Hauen artean R. Seco (1985) dago. Autore honentzat izenordain deitura hitz multzo bati dagokio, eta hauen berezitasuna substantiboa ordezkatzea da. Ikuspuntu honekin jarraituz, izenordaina etimologikoki "izenaren ordaina (pro-nomine)" da. Horrela balio errepresentatiboa du R. Esquer (1971) gramatikariarentzat. C. J. Socarrasek (1967) ere, izenordaina perpausaren zati aldakorra dela dio, pertsona- edo gauza-izenaren ordezkari erabiltzen dena, hau da, izen hori ordezkatzeko eta pertsona edo gauza izendatzeko aipatu gabe.

Autore askoren ikuspegitik, izenordaina kategoria autonomoa da. Beste batzuk ordea, A. Bello (1982) ez datoz bat ikuspegi honekin. Hizkuntzalari honek dioenez, izenordainek ez dute osatzen kategoria gramatikal askerik, eta izenaren kategoriaren barruan sartzen ditu , substantiboa edo adjektiboa bezala.

Izenordainek klase berezi bat osatzen dute izenen artean. Kasu-morfema duten izenordain pertsonalak izan ezik, besteak ez dira klase morfologiko bat. Gainera, ez dira perpausaren zati berezia, kontuan edukiz substantibo, adjektibo edo adberbio bezala jokatzeko dutela.

Bestalde, izenordain deritzan sailean, ezaugarri hauek dituzten elementuak aztertzen direla diote Alcina-Blecua (1982) hizkuntzalariek:

- a) Sistema morfologiko itxiak osatzen dituzte.
- b) Gehienak, izenak bezala genero/numero-morfemak hartzen dituzte; eta batzuek genero neutroa ere ezagutzen dute.
- d) Erabilketa batzuetan, singularreko genero-oposaketa neutraliza dezakete.
- e) Dirkurtsuaren barruan, substantibo, adjektibo sustantibatuak, adjektiboaren edo adberbioaren antzera funtzionatzen dute. Baina batzuk funtzio bakar batera mugatzen dira.
- f) Semantikoki, beraien esanahia ez da osoa izaten hizkuntz edo hizkuntzaz kanpoko ingurunearekin erlazionatu arte.





adieraz ditzake.

Hauek dira izenordain pertsonalak, eta forma ezberdinak dituzte ez bakarrik "numeroa" edo "generoa" adierazteko, baita lehen, bigarren edo hirugarren pertsona adierazteko ere. Perpaus barruan betetzen duen funtzioaren arabera ere, forma ezberdinak azaltzen dituzte.

Generoari dagokionez, lehen eta bigarren pertsona singularrean ez dago maskulino- eta femenino-bereizketarik. Hirugarren pertsonak, berriz, maskulino eta femenino ez ezik, neutroa ere badu. Komunztadurari dagokionez, forma neutroak beti singularra eta maskulinoa balitz bezala jokatu ohi dute.

Bigarren pertsonarako bi forma bereizten dira, hitz egiten duenak hitz egiten dionari errespetua zor badio (usted, le,la usted) edo ez (tú, te, ti, vosotros,etc) kontuan edukiz. Kortesiazo formak nahiz bigarren pertsonakoak izan, subjektu-funtzioa betetzen dutenean, hirugarren pertsonako aditz-forma erabiltzen dute (usted dirá, usted) saben).

Substantiboak direnez, izenordain pertsonalek izenen funtzio berak dituzte, aposizioa izan ezik.

Izenordainen egonguneari dagokionez, izenordain atonoak, gehienetan, aditzaren aurrean doaz, eta posposizioa oso gutxitan ematen da; hiru kasu hauetan hain zuzen:

- Infinitiboarekin: (92) "irme"
- Gerundioarekin: (93) "marchándome"
- Agintezko adizkiekin: (94) "vete, marchaos"

### 6. 2. 3. - Izenordain pertsonalak eta kasu edo deklinabidea gaztelaniaz

Hitz batek, betetzen duen funtzioaren arabera, hartzen dituen forma ezberdinei "kasu" deitzen diegu, eta forma ezberdin hauen multzoari "deklinazioa". Horrelakorik ez dugu aurkitzen gaztelanian. Funtzioak dira jarraitzen dutenak, eta kasu eta deklinabideen orde, hitzen ordena, preposizioak, komunztadura, etab. aurkitzen ditugu (R. Esquer Torres,1971).

Salbuespen gisa izenordain pertsonalak geratu dira, hauetan forma ezberdinak funtzio sintaktiko ezberdinetarako geratzen baitira, eta deklinazio antzeko zerbait osatzen dute. Beste era batera esanda, izenordain pertsonalek ezaugarri berezi bat dute: kasua.

Horrela, bada, izenordain pertsonalek genero eta numeroko akzidente gramatikalak jasaten dituzte. Honez gain, hitz hauek dira antzinako latin hizkuntzaren deklinazioko atal txiki bat gordetzen duten bakarrak. Hau dela-eta, perpausaren barruan betetzen duten funtzioaren arabera, kasu ezberdinak erakusten ditu. Aldaketa hauek dituzten formak "Izenordain - aldaera" (variante pronominal) izena hartzen dute eta honako hauek dira:

<b>IZENORDAINA</b>		<b>SINGULARRA</b>	<b>PLURALA</b>
1. PERTSONA	Tonikoak	yo, mí, conmigo	nosotros-as
	Atonoak edo klitikoak	me	nos, nos
2. PERTSONA	Tonikoak	tú, tí, contigo	vosotros-as
	Atonoak edo klitikoak	te	os, os
3. PERTSONA	Tonikoak	él, sí, consigo ella, ello, sí, consigo	ellos, sí, consigo ellas, sí, consigo
	Atonoak edo klitikoak	le, lo, se le, lo, la, se	les, los, se les, las, se

Lehen pertsonaren aldaerak hartzen baditugu, hau da, "yo, me, mi, nosotros/as, nos", hiru kasu aurkituko ditugu:

1) "Yo": Subjektu-funtzioa betetzen duena, hau da, Nominatibo kasua :

(95) "Yo soy, yo juego, yo veo"

2) "Me": Osagarri zuzen eta Zehar objektua izan daitekeena edo Akusatibo eta Datibo kasuak.:

(96) "Tú me amas, Tú me das un regalo"

3) "Mi": Preposizio-terminoa edo Ablatiboa nahiz Osagarri zirkunstantziala :

(97) "Tú crees en mí, Llevaron un regalo destinado a mí"

Beraz, hiru kasu hauek, benetan lau kasu dira, kontuan edukiz osagarriaren kasuan, bi kasu daudela, nahiz eta forma berdinez azaldu:

(98) "Tú me amas" . Hemen "ni" naiz maitatua eta kasu honetan "me" bere baitan kasu Akusatiboa litzateke, hau da Objektu zuzena.

(99) "Tú me das un regalo". Kasu honetan, berriz, ematen den gauza oparia da, "me" ez da aditzaren objektu zuzena, eta kasua Datiboa da, hau da, Zehar objektua.

Lau kasuren aurrean gaude hortaz, eta orain arte lehen pertsona izan badugu kontuan.

Hirugarren Atala: Gaztelaniazko preposizio eta izenordain pertsonalen deskribapen gramatikala  
hiru pertsonak berdin funtzionatzen dute.

- 1) Nominatiboa (Subjektua): Yo, nosotros/as; Tú, vosotros/as; Él, ella, ello, ellos, ellas.
- 2) Akusatiboa (Objektu zuzena) : Me, nos ; Te, os; Lo, la, lo, los, las; Se
- 3) Datiboa ( Zehar objektua ) : Me, nos ; Te, os; le, les; Se
- 4) Ablatiboa: Mi, Nosotros/as ; Tí, Vosotros/as; Él, ella, ello, ellos, ellas, Si

Ikus daitekeenez, zenbait sinkretismo agertzen da, forma berak funtzio ezberdinetako erabiltzen baitira. Alde batetik, lehen aipatu dugunez, lehen eta bigarren pertsonako bi osagarriak bai singularrean, bai pluralean, eta bestetik pluralean Nominatiboa eta Ablatiboa hemen ere lehen eta bigarren pertsonetan, hirugarren pertsonako formak, bai singularrean, bai pluralean, berdinak direlarik.

"Mi,Ti,Si" kasu Ablatiboak "con" preposizioaren atzean agertzen direnean, "migo,tigo,sigo" bilakatzen dira, eta preposizioarekin batera hitz bakar bat osatzen dute: "conmigo, contigo, consigo". Hauek beti Lagunarteko Osagarri zirkunstantzialak adierazten dituzte.

Bestalde Objektu zuzenari eta Zehar objektuari dagozkien formak atonoak diren bitartean, beste funtzioetako formak tonikoak dira.

Hirugarren pertsonako formak " él,ella,ellos,ellas" subjektu-funtzioa betetzen dutenean, gizakiak izendatzen dituzte. Gauzak aipatzerakoan "este, esta, estos,estas" erakusleak erabil daitezke.

#### **6. 2. 4. - Izenordainek betetzen dituzten funtzio sintaktikoak**

Ikusi dugunez, izenordain pertsonalek hainbat forma azaltzen dute funtzio bat edo beste bete ahal izateko, nahiz eta batzuetan sinkretismoa gertatu. Horrela bada, bete dezaketen funtzioetako bat, Subjektu funtzioa da.

Izenordain pertsonalek funtzio hau bete dezakete, substantibo bat ordezkatzuz, bere forma tonikoen bidez ( yo, tú, usted, él/ella, nosotros/as, vosotros/as, ellos/as). Izenordaina subjektua denean (yo, tú, él...) gutxi erabiltzen da, kontuan izanik pertsona-desinentziak aditzean oso garbi azaltzen direla. Ez da hori gertatzen beste zenbait hizkuntzatan, adibidez frantses nahiz ingelesean. Hizkuntza hauetan pertsona-desinentziak galdu edo ilundu egin ziren eta izenordaina beharrezkoa gertatzen da, subjektua aditzaren ondoan azaltzen ez bada behintzat. Haatik, badaude horrelakoak ez diren hizkuntzak. Alemanierak, adibidez, desinentzia argiak ditu baina izenordainak beti erabili behar dira. Japonierak, aldiz, ez dauka pertsona-desinentziarik eta ez du izenordainik behar.

Izenordainek bete dezaketen beste funtzio bat aditzaren osagarri izatea da. Preposiziorik gabe azaltzen badira, atonoak dira (me, te, le, lo, la, nos, os, les, los, las, se). Aldiz, preposizioarekin azalduz gero, tonikoak (mí, tí, el/ella, usted, nosotros/as, vosotros/as, ustedes, ellos/ellas). Hauek preposizio gehienekin ager daitezke.

Hiru motatakoak dira aditzezko osagarriak:

- Zuzena
- Zeharkakoa
- Zirkunstantziala

-(100) Él llegó, aunque no lo ví, le manifestaron gran afecto.

- . Él - Subjektua
- . lo - Objektu zuzena
- . le - Zehar objektua

(101) Yo me ví perdido, cuando comprobé que nadie se dirigía a mi, para salir conmigo.

- . Yo - Subjektua
- . me - Objektu zuzena
- . mi - Zehar objektua
- . conmigo - Osagarri zirkunstantziala.

Aipatu forma pronominal guztiek, Objektu zuzenaren funtzioa betetzeko ahalmena dute. Zehar objektuaren funtzioa, (lo/la, los/las) izan ezik, beste guztiak bete dezakete. Osagarri zirkunstantzialaren funtzioa osatzeko, preposizioarekin doazen formak bakarrik balio dute, preposizioek ia beti zirkunstantzi mota bat azaltzen dutenez.

Lehen aipatu dugunez, izenordainak azentudunak edo azentugabeak dira. Honen arabera, funtzioak honela bereizten dira:

- Izenordain toniko edo azentudunak . Hauek zeinu autonomoak dira, eta askatasun funtzionala dute:

- . Subjektu-funtzioa : "él"
- . Preposizio-terminoa : "a él"

- Izenordain atono edo azentugabeak. Menpekoak dira, eta funtzio hauen adierazgarri dira:

- . Aditzaren Objektu zuzena: (102) "Pedro ve a Juan "
- . Aditzaren Zehar objektua: (103) " Doy este libro a mi madre"

"Se" hirugarren pertsonako izenorde pertsonal atonoak, Objektu zuzenaren funtzioa betetzen du. Forma hau ematen da perpausean "le(s) + lo(s)" bateratuta doazenean. Orduan "les" "se" bilakatzen da, kakofonia gertatu ez dadin:

(104) Sí, le dí el lápiz > Sí, le lo dí > ..... > Sí, se lo dí.

Izenordain pertsonaletan, bestalde, "aipamen zuzenekoak" eta "aipamen ez-zuzenekoak"

bezala bereizten dira.

Lehenengoak, hau da, aipamen zuzeneko izenordain pertsonalak, elkarrizketaren aurrean dagoen errealitatea aipatzen dute. Hori dela-eta ez dute generoaren bereizketarik behar (yo/tú, me/te, mí/tí, nos/os). Erdi Arotik (nos/vos) plural tonikoak, (nos-otros /otras, vos-otros/otras) bilakatu ziren.

Funtzio sintaktikoa kontuan edukiz bereizketa hauek egin daitezke:

- a) Sujektu-formak: Denak tonikoak dira (yo/nosotros/as, tú/vosotros/as).
- b) Osagarrien forma azentugabeak: aditzari loturik azaltzen dira (me/nos, te/os).
- d Osagarrien forma azentudunak ( mí/nosotros-as, tí/vosotros-as) eta konpainiako formak (conmigo, contigo)

### Yo/Tú

Perpausaren subjektu gisa erabiltzen dira bakarrik, eta "entre,hasta" preposizioak hartzen ditu.

### Nosotros/Vosotros

Aurrekoen pluralak; haiek ez bezala generoa bereizten dute, "-o/-a" aurkaritzaren bidez.

### Mí/Tí/Sí

Preposizio-termino gisa erabiltzen dira bakarrik, eta "mismo, sólo" rekin elkar daitezke. Edozein preposizio onartzen dute "con " ezik.

### Me/Te/Se

Forma tonikoak dituzten funtzio guztien aurrean, forma atonoek osagarri zuzen eta ez-zuzenaren funtzioa bakarrik bete dezakete. Proklitiko eta enklitiko gisa erabiltzen dira, eta azentu-unitatea osatzen dute aditzarekin.

### Hirugarren pertsona

Aipamen ez-zuzeneko izenorde pertsonalak berriz, azpisistema garrantzitsua osatzen dute, artikuluaekin ahaide direlarik. Generoa, numeroa eta kasua bereizten dituzte.

Bost dira forma tonikoak (él, ella, ello/ellos, ellas). "mismo, solo, todo" rekin joan daitezke eta orduan "entre, hasta, según" preposizioak eraman ditzakete. Forma atonoak objektu zuzeneko formak (akusatiboa) (lo/la/le; los/las) dira, eta objektu ez-zuzenekoa (le) da, "se, les" aldaerekin.

Akusatiboak aipatu substantiboaren generoa eta numeroa bereizten ditu: "lo" da aberatsena. Pertsona edo gauzen izen maskulinoak aipatzen ditu.

Neutro gisa "ser, estar" aditzekin, adjektibo, partizipio edo izen maskulino edo femenino, singular edo plurala aipa dezake, atributu-funtzioan.

"la" Pertsona edo gauzen izen femeninoak aipatzen ditu.

"le" Objektu ez-zuzenaren (datiboa) funtzioan izen maskulino edo femeninoak aipatzen ditu.

"los,las" Pluraleko izen maskulino edo femeninoak aipatzen ditu.

"se" (le, les) datiboaren aldaera, akusatiboko "l"z hasten den edozein forma atonorekin baturik azaltzen denean.

Hirugarren pertsonako izenordain pertsonala, Objektu zuzena edo Zehar objektua.

Hirugarren pertsonako izenorde atonoak direla-eta, hau da, O.zuzena edo Zehar O. direnean, lehenengoak bakarrik onartzen du generoa. Erabilerak zalantza handiak sortzen ditu, Leismoa, Laismoa eta Loismoa izenez ezagutzen ditugun fenomenoak sortaraziz.

- Leismoa: "le, les" Datiboa "lo,los Akusatibo edo O.Zuzen maskulinoaren ordezt erabiltzea da.

- Laismoa: "la, las" Akusatiboa , "le" Datibo edo Zehar objektuaren ordezt erabiltzea da.

- Loismoa: "lo" Akusatiboa, "le" Datibo edo Zehar objektuaren ordezt erabiltzea da.

Arauek dioenez, aipatutako leismoa, laismoa, eta loismoa ez dira zuzenak, eta ondorengo erabilera gomendatzen du irizpide etimologikoa kontuan hartuz :

(O. Zuzena (Akusatiboa) :illum,illam,illud > lo,la,lo ; Zeharkako O. (Datiboa): illi> le.)

### Objektu zuzena

Maskulinoa ; lo/los :

(105) Acompaño a mi padre > lo acompaño ( toleratua: le acompaño)

(106) Dejo el disco > lo dejo

(107) Traigo a mis hijos > los traigo.

Femeninoa ; la/las :

(108) Acompaño a mi madre > la acompaño

(109) Acompaño a mis amigas > las acompaño

Neutro; lo:

(110) Traigo eso > lo traigo

### Zehar objektua

Forma bakarra; le/les:

(111) Traigo el bastón a mi abuelo > le traigo el bastón

(112) Llevas el regalo a tu madre > le llevas el regalo

(113) Canto a mis hijos/as > les canto

## ***IV.-LAUGARREN ATALA***

### **7.- HIPOTESIAK**

7.1.- Lehen hipotesia

7.2.- Bigarren hipotesia

7.3.- Hirugarren hipotesia

### **8.- CORPUSA ETA LANERAKO METODOLOGIA**

8.1.- Aztertutako haurra

8.2.- Datu-bilketa

8.3.- Transkribaketak

8.4.- Erreferentzi-indizeak

8.5.- Aztertutako hizkuntza-unitateak



## **7.- HIPOTESIAK**

Hizkuntz jabekuntzaren arloan, orokorki, eta kasu-marka eta preposizioen arloan, zehazki, ikertu dena aztertu ondoren alde batetik, eta euskara eta gaztelera hizkuntzen ezaugarri eta berezitasunak kontuan hartuz bestetik, ondorengo hipotesiak aurkeztuko ditugu jarraian:

### **7.1.- LEHEN HIPOTESIA**

Ez dugu uste Slobin-ek (1973) "operating principles" (printzipio eraginkorak) delakoen artean, adierazitako printzipioa "pay attention to the end of words" (arreta jarri hitzen azkenetan), eta besteak beste turkieran oinarrituz baieztatu zuen hipotesia emango denik euskararen eta gaztelaniaren jabekuntza elebidunean, hau da, hitzaren azkenean doazen posposizioak (eukaraz kasu-markak), hitzaren aurrean azaltzen diren preposizioak baino lehenago azalduko direnik. Hipotesi honen aurkako arrazoi asko aurki daitezke hizkuntz jabekuntza eremuko bibliografian, eta konkretuki, gure lanerako erabili ditugun irakurketa eta ikerketetan zehar.

- Alde batetik, goian aipatutako turkieraren jabekuntza aztertzerakoan A.A. Aksu - Koç & I. Slobin-ek beraiek (1985) adierazten dutenez, hizkuntza honetako sistema inflexionalaren jabekuntza oso goiztiarra da eta gainera errurik gabea. Bestalde, ordea, turkiera oso erregularra dela diote, eta morfologiaren jabekuntza goiztiarra adieraziko luketen hamabi faktore aipatzen dituzte. Horrela, hizkuntza honetako morfema bakoitzak aipatutako hamabi ezaugarriak ditu. Ezaugarri hauetako bat, morfemak atzizkidunak direla da. Baina beste hamaika ezaugarri dituzte turkierako morfemek, eta beraiek aitortzen dutenez, faktore guztiak dira jabekuntza errazten dutenak. Hortaz, morfema atzizkidunak izatea, faktore bakarra litzateke eta gainera ez erabakigarria, beste ikerketetan ikusi izan den bezala.

- Slobin berarekin jarraituz, Johnston & Slobin-ek (1979) adierazpen lokatiboen ikerketa "cross - linguistiko" batean (ingelesa, italiera, serbo-kroaziera eta turkiera) azaldu zuten bezala, lau hizkuntza hauek zenbait faktore linguistikoren rol azterketa onartuko lukete:

Lau hizkuntza hauetatik, hiru indoeuroparrak dira, eta gainera, preposizionalak, turkiera ez indoeuroparra eta posposizionala. Hortaz, eta gorago aipatu dugun printzipioari jarraituz (Slobin, 1973), turkierak abantaila izango luke alor honetan.

Dibertsitate lexikalari dagokionez, faktore honek jabekuntza atzera dezakeela iragartzen dute. Horrela, ingelesak hurbiltasuna adierazteko termino ugari dituen bitartean, turkierak bakarra du.

Alderantziz gertatuko litzateke argitasun etimologikoari dagokionez, hau da, faktore honek jabekuntza lagunduko luke. Zenbait termino etimologikoki argiak diren bitartean,

(ingeleseko "in back" gorputzaren atal bat adierazterakoan), beste batzuk semantikoki ilunak dira (ingeleseko "between") bezala.

Bai preposizioak, bai posposizioak ezberdinak izan daitezke konplexutasun morfologikoari dagokionez, batzuk morfema bakar soilez adierazten diren bitartean: "in", beste batzuk morfema bat baino gehiagoz adierazten dira "in the middle of". Hori dela-eta, konplexutasun morfologikoak jabekuntza atzera dezake.

Bestalde, homonimitateak<sup>26</sup> jabekuntza zailagoa egin dezake, haurrak kontzeptu semantikoak eta azaleko morfemak banan-banan azaldu nahi dituenean.

Ikerketa honetan, lokatiboen jabekuntzaren azterketan erabili ziren hizkuntzen arteko ezberdintasunak nabariak diren arren, eta jabekuntza-ordena zehatza hizkuntza bakoitzaren arabera gertatu arren, ordena orokor bat ikusi zen hizkuntza guztietan zehar. Gainera, erlazio lokatiboak, ingelesek eta serbo-kroazirrek baino azkarrago ikasten dituztela haur italiano eta turkoek ikusirik, posposizioak preposizioak baino lehenago ikasten direla dioen printzipioak (Slobin, 1973) ez dirudi garrantzi handia duenik, kontuan izanik italierak erlazio lokatiboak preposizio bidez antolatzen dituela.

- Slobin-en hipotesiaren aurka azaltzen den beste ikerketa bat, E. Dromi-k (1979) hebraierazko lekuzko erlazioei buruz egindakoa da. Hizkuntza honetan, erlazio hauek, gehienetan preposizio bidez adierazten dira, nahiz eta forma ezberdinak eduki: aurrizkiak, hitz preposizionalak eta forma fusionatuak.

Ikerketan adierazten denez, hebraieraren datuak ez datoz bat Johnston & Slobin-en (1979) datuekin, hebraieraz lehen ikasten diren bi preposizioak, formari dagokionez, aurrizki enklitikoak direnez. Horrela bada, datu hauek garbi adierazten dute jabekuntza laguntzen duten morfemak ez direla bakarrik posposizionalak, aurrizkiak ere hitz askeak baino nabariagoak gertatzen direla haurrentzat.

- Aipatu bi hipotesien (atzizkien zein aurrizkien aldekoak) aurka azaltzen den beste bat ere aurkitu dugu. Nederlandera, frantsesa eta alemanieraren izenordain objektuen ulermenari buruz egindago lan batean (J. Weissenborn, M. Kail, A. Friederici, 1990), hizkuntzaren rol bereziak ikertu zituzten: klitikotasuna, kokapena eta kategoria frasala. Ezaugarri hauen inguruan hiru hipotesi abiapuntutzat hartu zituzten:

1) Klitikoak diren hitzak ez-klitikoak direnak baino zailagoak dira.

2) Ohiko kokapenetik aldentzen den ereduak, garapena atzeratu egingo du.

3) Funtzio sintaktikoa preposizio batez markaturik duten izenordainen ulermena lehenago lortzen da.

---

<sup>26</sup> Hitz bat, beste bat bezala ahoskatu edo idatzi arren, esanahi ezberdina dutenean ematen da homonimia.

Nahiz eta hizkuntza hauetan, zenbait ezaugarritan behintzat, sistema pronominalak ezberdinak diren, aztertutako gramatikaren eremuan, hau da, izenordain objektuen eremuan, aipatu faktore horiek ez dute eraginik hizkuntzaren garapenean, eta jabekuntza berdin ematen da hiru hizkuntzetan. Hortaz, aztertutako faktore pertzeptualek ez dute hizkuntzaren garapenean normalki ezarri zaien rolik betetzen.

- Gainera, Johnston & Slobin-ek (1979) faktore ezberdinen garrantzia ikusi zuten bezala espresio lokatiboen jabekuntzaren bilakabidean, hebraieraren jabekuntzan ere (E. Dromi, 1979) hizkuntzaren konplexutasun morfologikoa garrantzizko arazoa dela ikusi zen. Kognitiboki, gaur egun onartua da "under" nozioa, "in, on" baino konplexuagoa eta "beside, between, behind" baino errezagoa dela, eta horrelako ordena proposatu eta baieztatua izan da ikerketa askotan (besteak beste, gorago aipatutako Johnston & Slobin, 1979). Haur israeldarrek ordea, "mixtaxat le-" (under) preposizioa oso gutxitan ekoizten dute, eta badirudi zailtasun morfologiko bat gainditu behar dutela preposizio honetaz jabetzeko, lehen ikasten dituzten preposizioak morfema bakar batez osatutakoak direnez.

Horrela bada, hizkuntza ezberdinetan oinarritutako ikerketen bidez ikusi ahal izan dugu ez dagoela irizpide erabakigarri bakar bat, hizkuntzaren jabekuntza-garapenean edozein atal, eta konkretuki kasu-marka eta preposizioei dagokiena lortu ahal izateko. Batzuentzat atzizkiak dira haurrentzat erakargarriak, besteentzat berriz aurrizkiak, preposizioak ere erabakigarriak direlarik. Hau dena ikusirik, gure ustez faktoreen arteko eragin bidez lortzen da hizkuntzaren jabekuntza-garapena, eta gure lanerako aukeratu ditugun bi hizkuntzak kontuan hartuz, ez dugu uste ezberdintasun nabaririk aurkituko dugunik bien arteko jabekuntza-garapenean.

Beraz, gure lehen hipotesia hau litzateke:

***1.- Kasu-markak eta preposizioak, eta beraien bidez gauzaten diren funtzio eta erlazioak, adin berdintsuan azalduz joango dira bi hizkuntzetan, bi hizkuntza hauek jokabide guttiz ezberdina erakusten duten arren, kontuan izanik euskaraz kasu-markak atzizki bidez ematen direla eta gaztelaniaz aldiz, preposizio edo izenordainen bidez.***

## **7.2.- BIGARREN HIPOTESIA**

Euskaraz, kasu gramatikalek komunztadura dute aditzarekin, hau da, aditzak perpausean ager daitezkeen nor, nor, eta nori sintagmekin eduki dezake komunztadura. Aipatu komunztadura, hiru sintagma horiei dagozkien morfemak aditzari erantzea da. Beraz, ikusten denez, erlazio estua dago kasuen agerpenaren eta aditz inflexioen agerpenaren artean, Bestalde, Absolutibo kasuak ageriko markarik ez duenez, kasu honi dagozkion lehen ekoizpen emankorrak kokatzerakoan, aditz jokatuaren agerpena hartzen da kasu honen azalpenaren frogetako bat bezala.

Puntu hauek kontuan hartuz, euskararen jabekuntza-garapenean egin diren zenbait lanetan, kasuaren eta aditz jokatuaren arteko parekotasuna jabekuntza mailan ikusi izan da. Hona hemen mota honetako ikerketa batzuen aipamena:

- Hiru haur euskaldunengan oinarriturik, zenbait funtzio-kategoriari buruz egindako doktorego tesi lanean, A. Barreña-k (1993) Absolutibo, Ergatibo eta Datibo kasuak INFLek<sup>27</sup> ematen dituela dio. Eta haur bakoitzaren azterketa zehatza ikusi ondoren, erlazio estua ageri da kasuen agerpenaren eta aditz jokatuaren agerpenaren artean, nahiz eta haur bakoitzak ezberdintasunak azaltzen dituen bere bilakabidean. Honek ez du esan nahi adizki jokatua guztiz lortua dutenik, garapenaren hasiera dela baizik, eta komunztadura osoa lortzeak bere denbora eramango duela.

- Bestalde, euskara eta gaztelera aldi berean ikasten duen haur baten kasuen jabekuntza-bilakabidea aztertu zen ikerketa batean, P. Larrañagak (1994) ere, INFL.en jabekuntza aipatzen du kasu-marka morfologikoa duten Subjektu eta Objektuen agerpenaren arazoia bezala. Gainera, INFL. azaldu aurretik normaltzat hartzen du Absolutiboa bakarrik azaltzea, Absolutibo hauek ingurune Absolutiboan edo beste inguruneetan ere azalduz. Baina INFL. azaldu ondoren, Ergatiboak azaltzea espero dela dio.

- Zenbait preposizioen jabekuntza lortu aurretik, aditz jokatuaren agerpenaren beharra azaltzen duen lan bat, alemaniera eta frantsesa aldi berean ikasten duten haurrengan egindakoa da. Izan ere S. Klinge-k (1989) dioenez, oinarritzko lau kategoria sintaktikoren artean, hau da, Izenaren, Aditzaren, Adjektiboaren eta Preposizioaren artean, azken hauek dira azken agertzen direnak. Adberbioak preposizioen atalean sartzen ditu. Besterik gabe, beraz, preposizioa aditza baino beranduago lortzen den kategoria litzateke. Bestalde, preposizio sintaktikoak ere aipatzen ditu: hauek funtzio sintaktiko hutsa izango lukete. Hauen artean, kasu-marka gisa erabiltzen diren preposizioak aurkituko lirake, hau da, zenbait aditzekin nahitaezko unitatea osatzen dutenak.

Ikerketa ugari ez ditugu aurkitu arazo honi erantzuna emateko, baina aztertu ditugunak kontuan hartuz, nahiko garbi ikusten dugu hipotesian aipatutako erlazioa

Beraz, gure bigarren hipotesia hau litzateke:

***2.- Euskarazko Subjektu, Objektu Zuzen eta Zehar Objektuek markaketa bikoitza erakusten dute, alde batetik izen-sintagman eta bestetik aditzean. Bestalde, gaztelaniaz Subjektuak komunztadura erakusten du aditzean. Hau kontuan izanik, haurrengan hizkuntzaren jabekuntza-garapenean aditz jokatua edo inflexioa azaltzen denean, aditzarekin komunztadura duten kasu eta izenordainak azaltzen hasiko dira.***

---

<sup>27</sup> INFL. edo aditzaren inflexioa, besteak beste, konkordantzia, tenpusa, modua eta aspektua besarkatzen ditu.

### 7.3.- HIRUGARREN HIPOTESIA

Eztabaida ugari sortu izan da bi hizkuntza batera ikasten dituen haurrak jasaten dituen zailtasunak edo abantailak direla-eta. Gaur egun, haur batek ikasten dituen bi hizkuntzak maila berdinean ikasten ote dituen edo hizkuntza batek besteak baino garapen handiagoa eta azkarragoa izaten ote duen ala ez eta, batez ere, bi hizkuntzen arteko nahasketa ematen ote den eztabaidan kokatzen da auzia. Nahasketa ematen dela diotenen artean egin diren ikerketetan, nahasketa ematen denaren aurka daudenek berrikusi ondoren zenbait akats aurkitu dituzte. Ondorio gisa, ikerketa hauetan ikusi diren nahasketak ez direla ezinbestekoak diote, haurraren inguruan hitz egin diren hizkuntzek ez dutela pisu berdina eduki baizik.

Ikuspuntu ezberdin hauek direla eta, lan ugari egin dira bi hizkuntza aldi berean ikasten dituen haurrak bi hizkuntzen arteko nahasketak egiten dituen argitu nahian. Lehen aipatu dugunez, bai aldekoak bai aurkakoak aztertu ditugu. Hipotesia aurkezterakoan egin dugun bezala, nahasketarik ez dagoela esaten dutenen ikuspuntutik arituko gara orain ere, ikuspuntu honetan nahasketaren aldekoek egindako kritikak ere azalduz. Hona hemen hauetako batzuk.

- Bi hizkuntza batera ikasten dituen haur batek ez duela derrigorrez nahasketarik egin behar dioten lan batean, J. Meisel & A. Mahlau-k (1987) II Euskal mundu-biltzarrean aurkeztu zuten beraien ikuspegia. Bertan, fusioa<sup>28</sup> ezinbesteko fenomeno den ala ez galderari erantzutea dela arazo garrantzikoena diote. Beste modu batera esanda, ea ingurune egoki batean haurra ez den gai izango, hizkuntzarekiko duen ahalmena kontuan edukiz, gaitasun gramatikal bat baino gehiagoz jabetzeko, fusioa ematen den aro bat igaro gabe.

Horrela bada, aipatu fusioa gerta ez dadin, ondorengo faktoreak aipatzen dituzte:

a) Hizkuntza bakoitza eremu jakin batera mugatu beharko da edo, beste modu batera esanda, Ronjat-en printzipioa kontuan eduki beharko dela "une personne, une langue", hau da haurrarekin hartu-emanetan dauden pertsonak, beti hizkuntza berdina erabiltzea haurrarekin, batzuek bata, besteek bestea.

b) Bi hizkuntzek garrantzi berdintsua eduki behar dute haurrarentzat: hau da, oreka lortu behar da haurra hizkuntza bakoitzaren inguruan jartzerakoan.

d) Bi hizkuntzak, antzekoak badira egiturari dagokionez, bereizketa zailagoa izan daiteke, nahasketak sor daitezkeelako.

Puntu hauek kontuan edukiz, Meisel eta Mahlau-ek (1987) diotenez, fusio bezala aurkeztu izan diren froga guztietan, bietako hizkuntza bat izaten da garrantzi gehiago duena. Arazo hau dela-eta, nahiko ezaguna diren Volterra & Taeschner-en eta Redlinger-Park-en lanak aztertzen dituzte. Ondorio gisa, sistema sintaktikoen fusioa ematen denik ez dela frogatzen diote, eta batez ere ez dela egiaztatzen elebidun guztiek sistema gramatikal bakarra duten aro batetik igaro behar dutenik .

---

<sup>28</sup> "Fusioa" egile hauentzat, haurra ikasten ari den bi (edo gehiago) hizkuntzen gramatiketako elementuak sistema bakar batean elkartzea edo fusionatzea litzateke.

Ondoren, alemaniera eta frantsesa aldi berean ikasten duten hurrekin egindako ikerketetan oinarriturik, hitzen ordenaz hitz egin daitekeen momentu beretik, hurrek bi hizkuntzak bereizten dituztela diote. Elebidunek hizkuntza bakoitzean duten gaitasuna, bestalde, elebarrak dutenarekin parekatuz, ez dela funtsean ezberdina diote. Fusioari buruz, baztertu beharreko gertakaria dela diote bi hizkuntzaz aldi berean jabetzen direnen arteko fenomeno izatea; gaur egun inork ez duela onartzen bi hizkuntza bereizteko ezintasun iraunkorrik gertatzen denik. Azkenik, haur elebidunek oso goiz, agian elebarrak baino lehenago, erabiltzen dituztela hizkuntza bakoitzean aurkitzen diren ahalmen sintaktikoak.

-Haurren elebitasunean eman daitezkeen jabekuntza-ereduak aztertzen dituen Ch. Hoffmann-ek (1989), oinarrian haur elebarretan ikusten diren berak direla dio, sistema fonologiko, lexiko eta gramatikalen jabekuntzan ematen diren prozesuak.

Bi hizkuntza batera ikasteak, karga kognitibo handiagoa suposatzen du eta honek ahozko ekoizpena atzera dezake noski, eta agian litekeena da hasiera batean nahasketa ematea ere.

Haur elebidunen garapen fonologikoari dagokionez, hasiera bateko nahasketaren bat edo beste alde batera utziz, bi hizkuntzetako sistemak paraleloki ikasten dira.

Hizkuntzen arteko interferentzia errazagoa izango da zenbat eta gertuago egon linguistikoki hizkuntzen ezaugarri fonologiko eta morfologikoak.

Haurra jabetzen ari den hizkuntza bakoitzarekiko ukipenak etengabea eta nahikoa izan behar du bi hizkuntzen arteko oreka lortu ahal izateko, haurrak hizkuntza batekin duen ukipena moztuz geroz ez duelako atzerapena bakarrik jasango, hizkuntza horren erabilera desagertzea lortuko delako baizik.

Garapen gramatikalarik dagokionez, haur elebidunetan bi sistema gramatikalak eta lexiko-semanticokoak une ezberdinetan sortzen direla dioten kritika egiten du Hoffmann-ek (1989), froga gutxi aurkeztu izan direlako, besteak beste (hauen artean Volterra & Taeschner, 1983). Sintaxiaren jabekuntzak, bestalde, haur elebidunetan eta elebarretan printzipio berak jarraitzen dituela dioten aipamena egiten du (Leopold - Imedazde - Raffler-Engel - Carrow -Kessler). Ondoren J. Meisel aipatzen du eta, gorago autore hau aipatzerakoan esan den eran, haur elebidunek haur elebarrak bezala, hizkuntzaren unitate berdinak eta ordena berdinean ikasten dituztela dio, baina haur elebidunek, hasiera batetik, hitzen ordena zehatzagoa dutela elebarrak baino. Haur elebidunek, bestalde, funtzio sintaktikoak morfologiaren bidez lehenago adierazten dituztela haur aleman elebarrak baino.

Bere ondorio pertsonal gisa, hizkuntzaren jabekuntzak eredu berdina jarraitzen duela haur elebarrak eta elebidunetan dio. Jabekuntzaren erritmoa agian mantsuagoa izan daitekeela azken hauetan, baina hau lehen aipatutako karga kognitibo handiagotatik izan daitekeela. Azkenik haur elebidunek ezaugarri morfologiko eta sintaktikoez jabetzeko izan dezaketen joera berezia, intereseko puntu gisa azaltzen du.

A. Barreñak (1995d) haur elebidun batengan izen-sintagmaren jabekuntza-bilakabidea

1;06 adinetik 3;06 adina bitartean bi hizkuntzetan aztertu ondoren, ez duela aurkitu ez fusio gramatikalik ez hizkuntz-sistema goiztiar bateraturik dio.

Amaitzeko, Meisel & Mahlau-k, (1987) bi hizkuntza artean egiturazko kontraste handia gertatzen den egoera elebiduna garrantzi handikoa izan daitekeela diote, hemen adierazi diren motako zalantzei erantzun ziur bat eman ahal izateko. Guk aztertu nahi dugun egoera elebiduna mota honetakoa denez, ahaleginduko gara gure ekarpena eskaintzen.

Beraz, gure hirugarren hipotesia hau litzateke:

***3.- Jabekuntza-bilakabidean, euskararen eta gaztelaniaren arteko nahasketarik ez da emango, haurrak bi hizkuntzak ondo bereiziko ditu elementu morfologiko eta sintaktikoak erabiltzen hasten den unetik.***

## **8.- CORPUSA ETA LANERAKO METODOLOGIA**

Adierazi ditugun hipotesiei erantzuteko egingo ditugun azterketei ekin aurretik, azterketa hauek non oinarrituta dauden azaltzera goaz, hau da, azterketa burutzeko aukeratu dugun haurraren ezaugarriak eta erabilitako corpora. Honez gain, corpora lortzeko erabili dugun metodologia ere azalduko dugu. Aukeratutako corpusetik zein hizkuntz-unitate erabili ditugun eta zergatik ere adierazi nahi genuke.

Hizkuntz jabekuntzaren eremuan, haur elebidunei dagozkien lan gehienak haur bati --edo biri gehienez-- mugatuak izan dira (Ronjat, 1913; Leopold, 1939; Fantini, 1982; Houwer, 1987; Hoffmann, 1989, etab). Askotan, ikertzaileen seme-alabak izaten dira gainera. Haur bat baino gehiagoren behaketa eta azterketak, aldiberean egitea zaila gertatzen delako izaten da gehienetan. Kasu bakarreko ikerketa ugari berri ezagutzen dugu. Hauen artean, Taeschner-ek (1983) eta MacLaughlin-ek (1985), bakoitzak mota honetako hoge baina ikerketa gehiagoren berri ematen digute.

Kasu bakarreko lan hauek ("case studies"), alde batetik ikertzaileentzat eskuragarriak gertatzen dira, eta bestetik hizkuntzaren garapenari dagokion bilakabide longitudinalaren azterketa egitea errazten dute. Lan hauek, bestalde, mota askotakoak izan daitezke, zenbait ikuspunturen arabera: aztertutako epea; fonologia, sintaxia edo lexikoaren azterketa; bi hizkuntzen arteko erlazioa; ingurugiroaren edo famili-bizitzaren informaketa; garapen kognitiboa, etab. Eskeintzen duten argibidea, bestalde, oso aberatsa izaten da orokorrean, eta haurrei dagokien elebitasunari buruzko alderdi askoren ezagutza bideratzen laguntzen dute.

Ikerketa hauek, ordea, kontuan eduki beharreko zenbait arazo ere erakusten dute (Hoffmann, 1992):

- Ezin ziuurta daiteke beti, haur batengan gertatzen dena beste batengan gertatzen denik.
- Erabiltzen den metodologia, ikerketa zientifikoak eskatzen dituen arauekin, beti ez datoz bat.
- Egoera sozioekonomikoa, hizketa-lagunaren garrantzia edo eta ingurunearena bezalako aldagarri ez-linguistikoak, gutxitan hartzen dira kontuan.
- Guraso-behatzaileen alderdikeria --guztiz ulergarria, bestalde-- jasan dezakete.

Aipatu arazoak gaindituko ditugulakoan, eta horrelako ikerketa batek dituen alderdi baikorrek kontuan hartuz, kasu bakarraren azterketari ekin diogu, besteak beste "case studies-en" tradizioa jarraituz, eta metodologi zientifikoaren baldintzak zainduz.

### **8. 1. - AZTERTUTAKO HAURRA**

Gure azterketarako erabili dugun haurra, 1985eko Abenduan jaio zen sendi euskaldun batean. Ama euskaldun berria da, baina ondo menderatzen du euskara estandarra. Aitaren ama-hizkuntza, berriz, nafarrera izanik, nabaria du euskara estandarren eragina. Gurasoak, biak,



irakasleak dira, eskola batean zein unibertsitatean, eta biak daude euskaraz alfabetatuak. Senitartean beti erabiltzen den hizkuntza, beraz, euskara da.

Haurra, jaio zenetik, euskara ezagutzen ez duen emakume batek zaintzen du, egunero sei bat orduz, gurasoek lan egiten dutenez. Horrela, emakume hau gaztelaniaz mintzatu zaio haurrari jaiotzetik. Gurasoekin euskara ikasi duen bezala, emakume honekin eta, bizilagun nahiz jolas-giroko hurrekin gaztelania ikasi duela esan genezake.

Orain arte esandakoa kontuan izanik, haurra etxetik elebiduna dela esan daiteke, bi hizkuntzak aldi berean eta oreka baten barruan ikasi dituelako, hain zuzen.

Bi urte eta bederatzi hilabete zituela, bestalde, haurra ikastola batean eskolatua izan zen, euskarazko eremuan hain zuzen.

## 8. 2. - DATU-BILKETA

Datu-bilketaren oinarri nagusia bideo-grabaketa saioak dira. Eta aukeratutako haurrari dagozkion datuak, Gazteizko Unibertsitateko "Haur Euskara Gaztelania Elebidunen Hizkuntz Jabekuntza" (HEGEHJ)<sup>29</sup> taldeak, Alemaniako Hamburg Unibertsitateko B.U.S.D.E.<sup>30</sup> egitasmoarekin batera aurrera daraman zenbait haurren datu-bilketan oinarritzen da.

Bi unibertsitateetan jarraitzen den egitasmoaren barruan, datu-bilketari dagokionez, asmoa honakoa zen: urtebete eta erditik bost urte bitartean, hamabost egunetik behin, bataz-beste ordu erdiko iraupena duten bideo-grabaketak egitea aukeratutako haurrei. Haur gehienak elebidunak direnez, bideo-grabaketak bi hizkuntzetan egin zaizkie. Bost urtetik sei urte bitartean, gainera, beste lau bideo-grabaketa --hiru hilabetetik behin, bakoitza-- egiteko asmoa ere bazen. Hilero hizkuntza bakoitzean bi bideo-grabaketa egiteko asmoa bazen ere, ez da beti lortu, besteak beste, oporrak edo haurraren gaixoaldiak zirela eta.

Hauek dira bideo-grabaketetako partaideak, gehienetan: grabaketa teknikoak egiten duena, haurra, eta berarekin solasaldia aurrera daraman hizketa-laguna. Batzuetan, ordea, gurasoren bat edo haurraren lagun bat ere partaide izan dira. Grabaketak, haurraren etxean egin dira gehienetan, jolas giroan edo egoera arruntetan, adibidez otordutan, beti ere giro espontaneoak bilatuz. Izan ere, saio hauek ez daude bereziki prestatuak, ez elkarrizketa zuzentzeko, ezta haurraren zein hizketa-lagunaren jarrera espontaneoak aldatzeko ere. Hori dela eta, gehienetan hizketa-lagunaren eta haurraren arteko solasalditan gauzatu dira grabaketak, eta galdera-erantzunez osatutakoak izan dira.

---

<sup>29</sup> Haur Euskara Gaztelania Elebidun Hizkuntz Jabekuntza (HEGEHJ) taldea, Gazteizko Unibertsitateko Euskal Filologia sailean, 1987an jaio zen, bertako irakasle den Itziar Idiazabalen gidaritzapean. Taldearen partaideak, berriz, Itziar Idiazabal, Margareta Almgren, Andoni Barreña, Mari Jose Ezeizabarrena, Idoia Imaz, Susana Irizar, Izaskun Soloeta, Elena Urzelai eta Kristina Elozegi dira.

<sup>30</sup> B.U.S.D.E.: "Baskisch und Spanish: Doppelter Erstspracherwerb" (Euskara eta Gaztelania: bi lehen-hizkuntzen jabekuntza). Ikerketa egitasmo hau, Hamburg Unibertsitateko Romanisches Seminar deritzon saileko katedraduna den Jürgen Meisel irakasleak zuzendutakoa da.

### 8. 3. - TRANSKRIBAKETAK

Bideo-grabaketa hauek erabilgarriak izan daitezzen, transkribatu egin behar dira, hau da, haurrak zein hizketa-lagunak edo gurasoek esandakoa edo eginikoa paperean idatzi. Hau, noski, lanik astunenetakoa gertatu da, eta gorago aipaturiko HEGEHJ taldeak burutu du euskarari dagokiona, gaztelaniakoa BUSDE taldekoek burutu duten bezala.

Transkribaketak gauzatzeko irizpideak, BUSDE proiektuko lankideek, lehenago DUFDE<sup>31</sup> proiektuan izandako esperientzian lortutako irizpidetan oinarritzen dira. Horrela bada, aipatu irizpideak euskarazko transkribaketetarako moldatzea eta ondoren ezartzea izan da HEGEHJ taldekideen lana.

Horrela bada, gorago aipatu dugunez, bideo-grabaketan azaltzen den hizketaz gain, bertan partaide direnek egiten duten guztia ere transkribatzen da: zer egiten duten, nondik nora mugitzen diren, zer seinalatzen duten, nora begiratzen duten, zer hartu edo uzten duten, nori hitz egiten dioten, etab. Eta, grabatutako haurrek abesten duten edo imitatzen duten ere azaltzen da transkribaketetan, hitz egiterakoan etenak izan dituzten ere adieraziz.

Hasierako transkribaketetan gehienbat, haurrak esan nahi duena esateko gaitasun osorik ez duenean, haurrek esaten dutenaren interpretazioa ere egiten da, beti ere interpretazio bat dela adieraziz.

Haurren zein helduen hizketa, idazkera ortografikoan adierazten da, transkripzio fonetikoaren erabilpena, ondo ulertzen ez diren hitz eta esaldietarako mugatuz. Guztiz ulertezinak gertatzen diren ekoizpenak ere adierazten dira. Ekoizpenen intonazioa ere --galderak, aginduak, etab.-- aditzera ematen da.

Aipatu HEGEHJ eta BUSDE taldeen asmo garrantzitsuena, haurren gramatikaren jabekuntza aztertzea den neurrian, morfosintaiari dagozkion puntuak izan dira zehatz-meatz jasoak, pragmatika eta fonetikari dagozkionak morfosintaxiaren lagungarritzat hartuz.

Zenbaitetan gertatzen da ekoizpenean azaldu behar lukeen morfemaren bat haurrak ez ekoiztea (Adb. pluralaren morfema). Horrelakoetan, noski, transkribapenean ez da jasotzen, baina falta dela adierazten da. Alderantziz ere gerta daiteke, hau da, haurrak adierazi behar ez lukeen morfemaren bat ekoiztea (Adib. Ergatiboaren morfema). Kasu honetan, ekoiztutakoa jasotzen da, baina soberan dagoela adieraziz. Gerta daiteke ere, morfema bat, beste baten ordeztu azaltzea (Adib. kasu-marka bat beste baten ordeztu). Horrelakoetan, haurrak ekoiztu duena azaltzen da, baina azaldu behar lukeena adieraziz.

---

<sup>31</sup> D.U.F.D.E.: "Deutsch und Französisch: Doppelter Erstspracherwerb" (Frantses eta alemaniera: bi lehen-hizkuntzen jabekuntza). Ikerketa proiektu hau Hamburg Unibertsitateko Romanisches Seminar deritzon saileko katedraduna den Jürgen Meisel irakaslearen zuzendaritzapean burutu zen. Proiektu honen asmoak, haur frantses-alemaniera elebidunen datu-bilketa eta azterketa burutzea ziren. Proiektu hau, BUSDE eta HEGEHJ taldeena hasi orduko amaiturik zegoen, datu bilketari dagokionez.

#### 8. 4. - ERREFERENTZI-INDIZEAK

Haurren corpusean azaltzen diren emaitzak aztertu ahal izateko, eta haurren jabekuntza-bilakabidea adierazteko, erreferentzi-indizeren baten beharra daukagu. Gehienetan, adina adierazten dugu, baina hau ez da beti egokia gertatzen, batez ere jabekuntza-bilakabidea beste haurrekin erkatzen denean, kontuan izanik haurrak ez direla hizkuntzaz adin berdinean jabetzen, haur bakoitzak bere bilakabidea erakusten duela baizik.

Arazo honi aurre egiteko, 1973an Brown-ek "Mean Length of Utterance" deituriko neurria proposatu zuen, haurrak ekoizten dituen hitzen eta esaldien luzera neurtzeko, aldi berean hizkuntza-heldutasuna-balioa ezarritz. Morfema oinarrizatz hartuz, grabaketan transkribapenetako lehen ehun esalditan azaltzen diren batz besteko morfemen kopurua hartuz, bost hizkuntz maila proposatu zituen:

MAILA	MLU
I	1,00 - 1,75
II	1,76 - 2,25
III	2,26 - 2,75
IV	2,76 - 3,50
V	3,51 - 4,00

Haurren hizkuntz maila neurtzeko neurri honen balioa, ordea, 4,00ra iritsi arteko da, eta hau hiru urte inguruan gertatzen da.

Neurketa honek jasan dituen kritikak, esaldiaren definizio ezagatik dira batez ere, hau da, askotan ez da garbi geratzen, haurrak ekoiztutakoaren artean, esaldia non hasten den edo non amaitzen den. Arazo hau, ordea, ez da nahikoa izan neurketa hau baztertzeko, gaur egun ere oso erabilia denez. Neurketa hau, bestalde, hizkuntza bakoitzak dituen berezitasunetara moldatu beharra dago. Euskarari dagokionez, Idiazabal-ek 1988an<sup>32</sup> egin zuen hizkuntza honi dagokion egokipena, eta bera izango da guk erabiliko duguna. Neurri honen moldaketa gaztelaniaz, aipatu HEGEHJ taldekideen artean egin zen.

Neurketa honi dagozkion arauak jarraituz, transkribaketa bakoitzeko lehen ehun esaldien batz-bestekoa egin dugu, transkribaketa batzuetan azken ehun esaldien batz bestekoa ere egin dugun arren, lehen ehunak ez dutelako neurri fidagarria eskaini. Hasierako transkribapen batzuetan, ehun esaldi azaltzen ez direnean, dauden esaldien batz-bestekoa egin dugu. Horretarako hitz soilari bateko balio eman diogu, kopurua honekin azaltzen diren morfema eta kontrasteen arabera gehituz.

<sup>32</sup> Lan hau, 1991an argitaratu zen.

Jarraian, aztertuko dugun haurrari dagozkion EBBL-taulak adieraziko ditugu euskaraz eta gaztelaniaz. Haurraren EBBL-neurria 4,00tik gorakoa denean, "+" markaz adierazi dugu. Gorago aipatu dugunez, neurri hauek haurraren transkribaketei dagozkienak dira, hau da hamabosteroko ordu erdi inguruko epeari dagozkionak. Haurraren jabekuntza-bilakabidearen eredutzat har badaitezke ere, zenbaitetan azaltzen diren ustezko atzerakadak adierazten digutenez, ez dute beti benetako egoera isladatzen, ordu erdi horretako haurraren egoera aldakorra izan daitekeelako.

## **EUSKARARI DAGOKION EBBL-TAULA ADINAREN ARABERA**

ADINA	EBBL-a	MAILA
1;11;00	1,12	I
1;11;10	1,24	I
1;11;29	1,21	I
2;00;20	1,25	I
2;01;03	1,26	I
2;02;14	1,56	I
2;02;25	1,47	I
2;03;12	1,36	I
2;03;25	1,62	I
2;04;15	2,10	II
2;05;00	1,61	I
2;05;12	2,30	III
2;05;26	1,83	II
2;07;09	2,61	III
2;07;30	3,27	IV
2;09;05	3,25	IV
2;09;22	3,95	V
2;10;11	3,57	V
2;10;22	3,11	IV
2;11;25	3,27	IV
3;00;17	2,98	IV
3;01;24	3,45	IV
3;02;14	3,19	IV
3;03;07	3,75	V
3;04;04	3,25	IV
3;05;09	4,25	+
3;06;17	5,13	+

**GAZTELANIARI DAGOKION EBBL-TAULA ADINAREN ARABERA**

ADINA	EBBL-ra	MAILA
-------	---------	-------

1;11;00	1,14	I
1;11;10	1,24	I
1;11;29	1,22	I
2;00;20	1,47	I
2;01;03	1,48	I
2;02;14	1,65	I
2;02;26	1,44	I
2;03;12	2,02	II
2;03;25	1,98	II
2;04;15	2,46	III
2;05;12	1,77	II
2;05;27	2,10	II
2;07;14	2,67	III
2;07;30	1,97	II
2;09;01	2,38	III
2;09;22	2,98	IV
2;10;06	2,83	IV
2;10;24	2,93	IV
2;11;21	3,13	IV
3;01;03	3,50	IV
3;01;19	3,76	V
3;01;24	4,11	+
3;02;14	4,42	+
3;03;07	4,26	+
3;03;22	4,81	+
3;04;26	3,51	V
3;05;09	4,77	+
3;05;23	4,50	+
3;06;17	4,73	+
3;06;29	5,22	+

## 8. 5. - AZTERTUTAKO HIZKUNTZA-UNITATEAK

Zazpigarren atalean aurkeztutako hipotesiak frogatzeko hainbat azterketa egin beharko dugu. Horrela, lehen hipotesia frogatu ahal izateko, alde batetik, euskarazko kasuak -- aditzarekin komunztadura gordetzen dutenak (eta hauen bidez gauzatzen diren funtzioak) zein ez dutenak-- eta bestetik gaztelaniazko izenordainak eta preposizioak nola azaltzen diren ikusiko dugu. Bigarren hipotesiari erantzuteko, berriz, haur berarengan aditzaren sorrera eta bilakabidea bi hizkuntzetan nola gauzatzen den behatuko dugu. Azkenik, hirugarren hipotesia azaltzeko, aurreko bi hipotesiak frogatzeko eginiko azterketak berraztertzen ahalegingiduko gara.

- Kasu-markak alde batetik eta izenordain zein preposizioak bestetik --nahiz eta gure azterketako bi hizkuntzek jokabide guztiz ezberdina erakutsi, kategoria hauen gauzatzean-- bateratsu azaltzen joango direla dioen lehen hipotesia frogatzeko, bi atal nagusi bereziko ditugu. Lehen atalean, euskaraz aditzarekin komunztadura gordetzen duten kasuez -- Absolutiboa, Ergatibo, Datiboa-- eta, gaztelaniaz kasua gordetzen duen Izenordain pertsonalez gain, gaztelaniazko Subjektu eta Objektu zuzen zein Zehar Objektu funtzioa betetzen duten Izen-sintagmen azterketari ekingo diogu. Bigarren atalean, euskaraz aditzarekin komunztadurarik gordetzen ez duten kasuak aztertuko ditugu eta gaztelaniaz, berriz, preposizioak.

Aipaturiko lehen atalean, hortaz, ondorengo azterketak azalduko ditugu:

## EUSKARAZ

- Absolutibo kasuaren azterketa eta honen bidez gauzatzen diren bi funtzioen jabekuntza. Kasu honek euskaraz morfema bereizgarriak azaltzen ez duenez, alde batetik izen-sintagmaren determinazioa aztertuko dugu eta, bestetik, kasu honen jabekuntza, Subjektuaren eta Objektu zuzenaren arabera aditz jokatuarekin erlazionaturik. Kasu honen jabekuntza-bilakabidea kokatzeko, ondorengo unitateak aztertu ditugu:

- Izen-sintagmaren determinazioaren azterketa egiteko, izen-sintagma guztiak aztertu ditugu, eta pluralarekiko komunztadura azaltzen den aditz-sintagmak ere aztertu ditugu.

- Absolutibo kasuaren jabekuntza-bilakabidea, Subjektua eta Objektu zuzena funtzioen arabera, aztertzeko, aditz jokatuaren daramaten esaldietan azaltzen diren funtzio hauek aztertu ditugu. Aditz jokatuaren daramaten ekoizpenen aukeraketaren arrazioa, kasu honen markarik ez dagoela, aditzaren presentziak kasua ziurtatuko duenez.

- Ergatibo kasuaren azterketa eta bere bidez gauzatzen den Subjektu funtzioa. Kasu honen jabekuntza-bilakabidea aztertzeko, alde batetik, batez ere hasierako hizkuntzan, kasu honi dagokion markarik gabe azaltzen diren ekoizpenak aztertu ditugu, eta bestetik, baita dagokion marka daramaten ekoizpen guztiak ere, gehienetan ondo ekoiztutakoak direlako eta zenbaitetan kasu-marka soberan dagoelako. Bi argumentu duten aditzak (Nor-Nork) ere aztertu ditugu bestalde, bertan Ergatibotasuna azaltzen baita.

- Datibo kasuaren azterketa eta bere bidez gauzatzen den Zehar objektuarena. Ergatibo kasuan aipatu dugun bezala, hemen ere Datiboari dagokion kasu-marka daramaten eta eraman beharko luketen ekoizpen guztiak aztertu ditugu. Hiru argumentu duten aditzak (Nor-Nori-Nork) ere behatu ditugu, bertan Datibotasuna adierazten denez.

## GAZTELANIAZ

- Nominatibo kasuaren azterketa eta bere bidez gauzatzen den Nominatibo kasua. Kasu honen azalpena kokatu ahal izateko, izenordain pertsonalen azterketaz gain, izen-sintagmaren determinazioa eta Subjektu funtzioa betetzen duten izen-sintagma ere egingo dugu. Horretarako, ondorengo unitateen azterketa egin dugu:

- Izenordain Subjektua azaltzen den, edo azaldu beharko lukeen ekoizpen guztiena.

- Izen-sintagma guztiak behatu ditugu, eta euskaraz egin dugun moduan, gaztelaniaz ere numeroarekiko komunztadura aztertu ahal izateko, baita komunztadura mota hau erakusten duten edo behar luketen aditz sintagmak ere.

- Aditz jokatua daramaten esaldietan, Subjektu funtzioa betetzen duten ekoizpen guztiak ere aztertu ditugu.

- Akusatibo kasua Izenordain klitikoan eta Objektu zuzena betetzen duten izen-sintagmen arabera. Kasu honen jabekuntza-bilakabidea kokatu ahal izateko, ondorengo unitateen azterketa egin dugu:

- Haurrak ekoizten dituen eta ekoiztu beharko lituzkeen Izenordain klitikoak.

- Aditz jokatua erakusten duten esaldietan, Objektu zuzenaren funtzioa betetzen duten ekoizpenak.

- Datibo kasuaren azterketa: Alde batetik Datibo klitiko edo atonoak, bestetik Datibo tonikoak eta azkenik Zehar objektuaren funtzioa betetzen duten izen-sintagmak. Kasu honen jabekuntza kokatzeko, hortaz, aipatu unitateak aztertu ditugu.

Bigarren atalari dagokionez, ondorengo azterketak egingo ditugu, beti ere hurraren corpusean azaltzen diren kasu eta preposizioak erakusten duten hurrenkera gordez:

## EUSKARAZ

- Aditzarekin pertsona komunztadurarik erakusten ez duten kasuen azterketa: Inesiboa, Jabego genitiboa, Ablatiboa, Adlatiboa, Xedezko destinatiboa, Soziatiboa, Muga adlatiboa, Leku genitiboa, Instrumentala. Kasu hauen jabekuntza-bilakabidea azaldu ahal izateko, kasu-marka hauek azaltzen diren unitate guztiak aztertzeaz gain, azaldu beharko luketen eta haurrak gabe ahozkatzen dituen unitate guztiak ere aztertu ditugu.

## GAZTELANIAZ



- Ondorengo preposizioen azterketa azalduko dugu: Para, De, A, Con, Por, En, Hasta, Sin. Horretarako, alde batetik preposizio hauek azaltzen diren ekoizpenak aztertu ditugu, eta bestetik, haurrak ekoiztu ez arren, baita hauen beharra ikusten den ekoizpenak ere.

- Bigarren hipotesiak dioenez, aditz jokatua azaltzen denean hasiko da haurra euskaraz aditzarekin komunztadura duten kasuak eta gaztelaniazko izenordainak --eta hauen bidez gauzatzen diren funtzioak-- ekoizten. Hau frogatu ahal izateko, aditz jokatua daramaten ekoizpen guztiak aztertu ditugu euskaraz zein gaztelaniaz. Azterketa, ordea, pertsona-komunztadurara mugatu dugu batez ere, aspektua, denbora, etab --azterketaren momentu zehatz batzuetan aipatzen baditugu ere-- alde batera utziz. Aditzari dagokion azterketa bestalde, hiru urteko bitartera mugatu dugu, nahiz eta beranduagoko zenbait aipamen ere egin.

- Jabekuntza-bilakabidean euskararen eta gaztelaniaren arteko nahasketarik ez dela emango, hau da, haurrak bi sistemak ondo bereiziko dituela, elementu morfologiko eta sintaktikoak erabiltzen hasten den unetik dioen hirugarren hipotesia frogatu ahal izateko, lehen bi hipotesietan lortu ditugun emaitza eta ondorioetan oinarrituko gara.

Horrela bada, lan honetan zehar orain arte azaldu ditugun zenbait emaitza eta ondorio izango dira hipotesi honi erantzuteko erabiliko ditugunak. Alde batetik, bi hizkuntzetan Subjektuak gauzatzeko modua guztiz ezberdina da, kontuan izanik euskaraz bi kasutan ager daitekeela Subjektua, Absolutiboan edo Partitiboan -- ezezko eta galderazko perpausetan -- eta Ergatiboan, eta gaztelaniaz, berriz, Subjektua beti Nominatibo kasuan gauzatzen dela, Izenordainetan edo Subjektu funtzioa betetzen duten izen-sintagmetan gauzaturik.

Objektuei dagokienez, euskaraz Objektu zuzena Absolutibo kasuan agertzeaz gain, Partitiboan ere azal daiteke, ezezko eta galderazko perpausetan. Zehar objektua, berriz, Datibo kasuan azaltzen da. Kasu guzti hauek, noski, posposizioen bidez gauzatzen dira. Gaztelaniaz, berriz, Objektu zuzenak Izenordain klitikoak dira, eta Zehar objektuak, berriz, Izenordain klitiko edo atonoak eta tonikoak.

Euskaraz, bestalde, aditzarekiko komunztadura gordetzen ez duten kasuak posposizio bidez gauzatzen diren bitartean, gaztelaniaz erlazio hauek preposizio bidez azaltzen dira.

Aintzakotzat hartuko dugun beste puntu bat, izen-sintagmari dagokiona da. Izan ere, egitura hau oso ezberdina da bi hizkuntzetan, kontuan izanik gaztelaniaz izen-sintagmaren osagai guztiak daramatela numeroaren eta generoaren komunztadura, eta euskaraz izen-sintagma hersten duen elementua dela determinatzailea hartzen duena, ez sintagmako osagai bakoitza. Erakuslea eta zenbatzailea ere, bestalde, modu ezberdinetan gauzatzen dira bi hizkuntzetan.

Orain arte aipatu ditugun unitate hauen erabilerak, ordea, corpus osoa behatzea eskatzen du, hau da, aipatu zenbait unitate hasierako hilabeteetan azaltzen ez badira ere, behatu beharrekoak dira.

Kasu-markak eta preposizioak izen-sintagmaren eremuari badagozkio ere, izen-sintagma zehatzago aztertu ahal izateko, aditz-sintagma ere aztertu dugu zenbaitetan, beti ere

izen-sintagmarekiko erreferentzia eginez, noski.

Azterketa fonetikoa egiteko asmorik ez badugu ere, zenbaitetan fonetikari dagozkion aipamenak ere azalduko ditugu, batez ere haurraren behin eta berriro errepikatzen diren joerak ikusi ditugunean (Adibidez dardarkariaren ezabaketa edo albokaria dardarkariaren ordekoizten duenean)

Bada, bestalde, gure azterketetako erabiliko ez dugun zenbait ekoizpen ere. Honako hauek:

- Haurrak ekoizten duena, zenbaitetan, ez da garbi ulertzen edo guztiz ulerkaitza gertatzen da.
- Bestetan, ordea, ekoizpenaren interpretazioa da zalantzarikoa.
- Hizketa-lagunaren edo gurasoen imitazio zuzenak diren ekoizpenak.
- Abestiak, esamolde eginak eta antzekoak.

Aztertuko duguna, beraz, haurrak berak, bere gaitasunari esker ekoizteko gai izan dena izango da.

Azkenik, atal bakoitzean agertzen den egitura aipatuko dugu. Horrela, atal bakoitzaren hasieran emaitzak eta hauei dagokien azterketa azalduko ditugu. Azterketaren ondoren, laburpena ere adieraziko dugu, lortutako emaitzak argi erakutsiz. Bestalde, bai euskaraz edo gaztelaniaz zein beste edozein hizkuntzatan egindako antzeko azterketekin erkatuko ditugu gure emaitzak, eta kasu bakoitzari dagokion ondorioak azalduz amaituko dugu. Azkenik, aztertutako atalari dagozkion taulak azalduko ditugu.

Aztertutako haurraren corpusetik aukeratu ditugun ekoizpenak, zenbaki batez azaltzen dira. Ekoizpenen kopurua handia denez, azterketa bakoitzean zenbaki berri batez adierazten ditugu.

## ***V.-BOSGARREN ATALA***

## **9.- EMAITZAK ETA AZTERKETAK**

### EUSKARAZKO KASUAK

9.1.- Absolutibo kasua

9.2.- Ergatibo kasuaren jabekuntza-bilakabidea

9.3.- Datibo kasuaren jabekuntza-bilakabidea

### GAZTELANIAZKO KASUAK

9.4.- Nominatibo kasua

9.5.- Akusatibo kasua

9.6.- Datibo kasuaren eta zehar objektuaren jabekuntza-bilakabidea

9.7.- Aditzarekin pertsona komunztadurarik erakusten ez duten euskal kasuen jabekuntza-bilakabidea

9.8.- Gaztelaniazko preposizioen jabekuntza-bilakabidea

## **10.- ADITZ JOKATUAREN JABEKUNTZA-BILAKABIDEA**

10.1.- Aditz jokatuaren jabekuntza-bilakabidea euskaraz

10.2.- Aditz jokatuaren jabekuntza-bilakabidea gaztelaniaz

## **11.- KASU ETA PREPOSIZIOEN SISTEMEN BEREIZKETA GOIZTIARRA**

11.1.- Subjektuak

11.2.- Objektuak

11.3.- Posposizio eta preposizioak

11.4.- Izen-sintagmaren determinazioa

## **EUSKARAZKO KASUAK**

## 9.-EMAITZAK ETA AZTERKETAK

### 9. 1. ABSOLUTIBO KASUA

Kasuen deskribapen teorikoan azaldu dugunez, orain aztertzeraz goazen Absolutibo kasuak ez du morfema bereizgarririk azaltzen eta bere kasu-marka 0 da. Hau dela eta, haurraren hizkuntz jabekuntzaren bilakabidean, zailtasunak topatzen ditugu kasu honen agerrera kokatzerakoan. Arazo hau kontuan edukiz, ikuspuntu ezberdinetatik aztertu dugu kasu honen jabekuntza, datu guzti horien bidez hobeto mugatu ahal izateko jabekuntza. Alde batetik izen-sintagmaren determinazioa aztertu dugu, Absolutibo kasuaren jabekuntza lortu ahal izateko ezinbesteko jabekuntza dela ikusten baitugu. Bestalde, kasu honek bete ditzakeen funtzio sintaktiko ezberdinak kontuan hartu ditugu, hau da, Subjektua eta Objektu zuzena aditz jokatuarekin erlazionaturik. Horrela bada, datu guzti hauen arabera mugatu ahal izango dugu Absolutibo kasua eta haren bitartez buruturiko bi funtzioen agerpena, aztertzen ari garen haurrarenagan.

#### 9. 1. 1. Izen-sintagmaren determinazioaren jabekuntza-bilakabidea.

A) Emaitzak eta azterketa

Corpusean azaltzen den bezala, lehen hiru hilabete eta erditan -- hau da, 1;11;00 - 2;02;14 adinen artean haurrak mota honetako hitz edo emisioak ekoizten ditu:

- (1) tuta (chuta=pelota) (1;11;00)
- (2) papea (1;11;00)
- (3) ndia (haundia) (1;11;00)
- (4) pape (1;11;10)
- (5) tutu (kotxe) (1;11;10)
- (6) wau-wau (txakurra) (1;11;10)
- (7) hau uri (jurgi) (1;11;10)
- (8) Piu pape (Peruk papera) (1;11;10)
- (9) g(r)ua (1;11;29)
- (10) hau mumua (1;11;29)
- (11) ho(r)i tutu (kotxe) (1;11;29)
- (12) bugi (jostailu bat) (2;01;03)
- (13) pipipi (kotxe) (2;01;03)
- (14) t(r)ena (2;01;03)
- (15) ho(r)i txi(ki)a (2;01;03)
- (16) hemen lua (grua) (2;01;03)
- (17) (k)otxe Piu (Peru) (2;01;03)

Ekoizpen hauetan ikus daitekeenez, haurrak hitzak erabiltzen ditu, bai "a" artikulua dutela bai artikulua gabe. Oraingoan, inolako oposaketarik agertzen ez denez, osorik ikasitako

hitzak direla esango genuke, determinazioaren kontzientziarik gabe. Bestalde, 2. eta 4. adibideen bidez, hitz bera artikulua duela eta gabe darabilela ohar gaitzke (papea/pape). Hala eta guztiz ere, epe honetako hitz gehienek artikulua daramate eta artikulurik gabeko emaitza gehienak, ia guztiak, nini hizkuntzako hitzak eta gaztelaniatik mailegatutakoak dira. Izen euskaldun bakar bat azaltzen da artikulurik gabe, corpus osoan zehar:

(18) hau pupi (kurpil) (2;01;03)

Hilabete beranduago ordea artikulua eta guzti ekoizten du:

(19) pupila (kurpila) (2;02;14)

Bestalde, euskal determinazioaren arauak jarraituz, izen propioak eta izenordainak ez ditu inoiz determinatzen.

Erakusleen arteko oposaketa ere agertzen da (hau /ho(r)i) bakarrik edo beste elementu bati lagunduz. Ez dute ordea mugatzaile funtziorik betetzen, deiktikoak dira gure ustez. Ekoizpen hauetan bata bestearen alboan agertzen dira bi hitzak, inolako loturarik gabe (7,11,15 adibideak).

Horrela bada, eta aipatutako hiru hilabete eta erdiko epe honetan (1;11;00 - 2;02;14) ez dugu aurkitu inolako morfema gramatikalik haur honen ekoizpenetan. Bata bestearen ondoan ekoiztutako hitzak dira, lotura gramatikalik gabe. Printzipio gramatikalik gabeko lehen hizkuntzako ekoizpenak edo A.Radford-en (1988a) "small clauses" lirarteke. A. Barreña-ren (1995a) ustez ere, garbi dago euskararen garapenaren hasieran, gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-araurik gabeko aro bat dagoela.

Epe honetako transkribapen batean ordea, 2;01;03 adinean hain zuzen, determinazioari buruzko ariketa bat ikus daiteke. Haurrak jostailu bat hartzen du, eta bere margoari buruz hasten dira hitz egiten bera eta berarekin dagoen hizketa-laguna:

P. haurra : Apula (azula).

Hizketa-laguna: Hori zer da?.

P: Opula.

H: Fula?.

P: Hau, pula, fula.

H: Ui! zer da hori? ez det ulertzen.

P: Ofula.

H: Urdina?

P: Ofula.

H: Fula?. Galdetuko diogu aitari aber zer dan "fula". Nik ez dakit zer dan "fula", eta hau? (momentu honetan jostailu bat erakusten dio)

P: Ulia.

H: Gorria?.

P: Hau fula.

H: Azul?.

P: Aful.

H: A! Urdina da hori?.

P: Ful.

H: Azul!.

P: Aful!

Adibide honen bidez, haur honengan helduek duten eraginaz gain, badirudi haurra konturatzen hasia dela euskal hitzek "a" artikulua daramaten bitartean, gatzelaniazkoek ez daramatela.

Hemendik aurrera determinazioaren lehen urratsak ikusten hasten gara haur honengan. Horrela, 2;02;14 adinean "a" mugatzailea elementu formal gisa erabiltzen hasten da haurra:

(20) ves! autoa (2;02;14)

(21) ni auto punba (auto de choque)(2;02;14)

Lehen ekoizpenak ez digu ezer berririk adierazten, hitza "a" mugatzaileaz erabili duela, besterik ez. Baina bigarren ekoizpenarekin erkatzen badugu, informazio interesgarria lor genezake, kontuan izanik nolabaiteko hitz konposatua erabili duela jostailu bera adierazteko eta izen-sintagma izan dela determinatua, ez bera osatzen duen elementu bakoitza. Gainera, arauak eskatzen duten arabera, aipatu sintagmaren bukaeran jarri du mugatzailea.

Azterketa jarraituz, ondorengo ekoizpenak berrikuntza bat erakusten digu, kontuan izanik lehen aldiz azaltzen dela izen-sintagma bi elementuz osaturik: izenaz eta izenondoaz hain zuzen. Eta ekoizpena ondo determinatu du gainera, sintagmaren bigarren elementuari, hau da, izenondoari jarri baitio artikulua. Zalantza sor daiteke ordea, kontuan edukiz sintagmaren izena nini hitza dela ("txutxu", hau da, silaba bera errepikatua), eta mota honetako hitzak direla gehienetan artikulurik gabe azaltzen direnak haur honengan. Baina hitz hau mugatzaile eta guzti ere ekoiztuko du haurrak (24) hurrengo hilabetean, eta gure ustez hemen determinazioaren araua erabili du:

(22) hau, txutxu (kotxe) (hau)ndia (2;02;25)

Hilabete beranduago, hau da, 2;03;25 adinean bi ekoizpen adierazgarri aurkitu ditugu:

(23) hau, tutu (kotxe) handi handia (2;03;25)

(24) nire tutua (kotxea) (2;03;25)

Lehen ekoizpena, hilabete lehenagokoaren antzekoa da (22). Bertan adierazi dugunez, "tutu" hitza nini hitza da, eta haur honek mota honetako hitz gehienak artikulurik gabe ekoizten ditu. Hortaz, sintagmaren bigarren elementuak artikulua eramateak ez zuen suposatzen determinazioa kontzienteki egin zuenik. Orain ordea, sintagmaren bi elementuak berdinak badira ere, bigarren elementua (handi handia) errepikatu egiten da eta sintagma hersten duen elementuari baino ez dio jartzen mugatzailea. Antzeko ekoizpenak, gainera, sarritan agertuko dira, eta beti ondo daude determinazioari dagokionez. Bigarren ekoizpenaren bidez, garbi geratzen da determinazioa ondo erabili duela, hemen "tutu" hitzari jarri baitio artikulua,

sintagma hersten duen elementuari hain zuzen, nahiz eta nini hitza izan.

Ondorengo hilabeteen adibide interesgarri bat azaltzen zaigu. Gaztelaniatik mailegatutako hitz bati, batzuetan "-a" mugatzailea jartzen dion bitartean, bestean ez dio jartzen:

(25) afofoua (telefonua) (2;04;15)

(26) afofon (telefono) (2;04;15)

Berdin gertatzen da bost hilabete beranduagoko ekoizpen hauetan ere. Hemen ere hitza mailegatutakoa da eta, batean artikulurik gabe erabiltzen duen bitartean, bestean artikulua eta guzti erabiltzen du:

(27) ikusi hemen tantor (traktor) (2;09;22)

(28) tendu (kendu) tatolea (traktorea) (2;09;22)

Ekoizpen hauen bidez ikus daiteke haurra konturatzen dela hitzek "-a" mugatzailea eraman behar dutela euskaraz hitz egiten duenean, baina arau hau batzuetan ez du betetzen. Gainera, 2;04;15 adinetik aurrera, oso hitz gutxi dira artikulurik gabe ekoizten dituenak; gorago aipatu dugun bezala, gehienak nini hizkuntzakoak edo hitz mailegatuak dira:

(29) hemen popo (kotxe) (2;04;15)

(30) Ixia(r) pupu ez (2;05;12)

(31) atou (autobus) 2;03;25

(32) patlol (patrol) (2;07;09)

(33) zu ganbelo (ganberro)(2;09;05)

Hitz gutxi batzuk berriz, batzuetan artikulua eta guzti eta bestetan gabe ahozkatzen ditu:

(34) t(r)ena / t(r)en (2;02;25)

(35) txolizu (txorizo) (2;05;26)

(36) txorizua (2;11;25)

(37) eta jan dut txikle (2;10;11)

(38) ekali (ekarri) txiklea (2;11;25)

(39) nik ikusi du(t) tutu-punba (kotxea) (2;11;25)

(40) ez, ikusi dugu tutu-punba bat, sexiento (seiscientos) bat (2;11;25)

(41) eta gero hondatu da tutu-pun (2;11;25)

Horrela bada, haur honek ekoiztutako izen-sintagma gehienak ondo determinaturik azaltzen dira artikulua erabiltzen duenean:

(42) hemen dato (dago) p(r)oblema (2;04;15)

(43) hau eguzkia (2;05;00)

(44) hemen motoa (2;05;12)

(45) begi(r)a sosila (motxila) (2;05;26)

(46) putida (busti da) bankoa (2;07;09)

(47) butikolut (bustiko dut) kotxea? (2;07;09)

- (48) ez, hemen bizi da olloa (2;07;30)
- (49) ni(k) balu (ba dut) traktorea (2;09;05)
- (50) ikusi, hau da patinina (plastilina) (2;09;22)
- (51) apurtuko dugu pegatina (2;10;11)
- (52) bai, ha(r)tuko dut nere txakurra (2;10;22)
- (53) ekali (ekarri) txiklea (2;11;25)

Izen eta izenondoaz osatutako izen-sintagma gehienak ere ondo determinatzen ditu :

- (54) tutu haundia hemen (2;04;15)
- (55) atutuxixa (hau tutu txikia) (2;04;15)
- (56) pipa holia (horia) (2;05;00)
- (57) ikusi kotxe handia, handi-handia eh? (2;05;12)
- (58) tutu elea (errea/berdea?) (2;05;26)
- (59) patlol zulia (patrol zuria) (2;07;09)
- (60) txatxe (traste) handia (2;07;09)
- (61) igusi (ikusi) ze galtzeli (galtzerdi) polita (2;11;25)
- (62) hemen gor(r)i gor(r)iak (2;11;25)

Ekoizpen guzti hauek gramatikalak dira, kontuan izanik izen-sintagma osatzen duen bigarren elementuari, hau da, izenondoari jartzen diola artikulua. Gainera, (57,62) ekoizpenetan ikus daitekeenez, aditzondo bikoitza erabiltzen du baina behin bakarrik determinatzen du, sintagma hersten duena hain zuzen.

Bestalde, izenondoa graduatzaileekin ere ekoizten du haurrak eta graduatzaileari ez dio inoiz determinatzailearik jartzen:

- (63) hori oso polita ra (da) (2;09;22)
- (64) baina oso handia da zuretako (2;09;22)
- (65) oso lodia (2;10;22)

### *Erakusle mugatzaileak*

Lehen erakusle mugatzailea , "-a" artikulua elementu formal gisa erabiltzen hasten den adin berean ekoizten du haurrak:

- (66) azal ha(u) gorria (da) (2;02;14)

Ikusten denez, mugatzailearik gabeko hitza erabiltzen du, ondoren erakusle bat erabiltzen duelako, hau da, izen-sintagma osoa determinatzen du, sintagma hersten duen elementuari mugatzailea jarriaz. Bestalde, orain arte erakusleak deiktiko gisa bakarrik erabiltzen bazituen ere, ekoizpen honek adierazten digu haurra gai dela determinatzaile bezala ere erabiltzeko, oraingoz mota honetako ekoizpen bakarra izan arren.

Ondorengo ekoizpenetan ere erakusleak erabiltzen ditu, baina kokagunea dela edo determinazio bikotza dela, ekoizpen ez gramatikalak dira. Lehenengoan, mugatzailea izenaren



ezkerretara jarri du<sup>33</sup>:

(67) ka(r)gatu eta hau lua (grua) xxla (2;04;15)

Ondorengo ekoizpenean, gaztelaniazko determinatzaile-erakusle bat aukeratu du: "este". Kokaguneari dagokionez, ondo dago, baina izenari ere euskal artikulua "-a" ipini dio:

(68) ni e(s)te t(r)ena (2;04;15)

Ondorengo ekoizpenetan azaltzen diren erakusleek berriz, deiktikoak dirudite:

(69) tokak (dortokak) handi -handia hori piruna (perurenak) (2;05;12)

(70) tatedoa (traktorea) holi (hori) (2;05;00)

Hortaz, orain arte haur honek behin bakarrik determinatu du ondo izen-sintagma erakusle baten bidez. Ez dago era honetara determinatzen den beste ekoizpenik 2;09;22 adina bitartean eta hiru urte bitarteko corpusean ez dugu besterik aurkitu:

(71) ikusi liburu hau (2;09;22)

Horrela bada, ez du ia erakuslerik erabiltzen hiru urte arte, izen-sintagma determinatzeko.

### *Determinatzaile zenbatzaileak*

Azterketa hasi aurretik azaldu dugun bezala, izen-sintagma hiru modutara determina daiteke. Jadanik mugatzaileen (artikulua, erakuslea) bidez determinatu ditu sintagmak aztertzen ari garen haurrak. Orain, zenbatzaileen bidez determinaturiko izen-sintagmak aztertuko ditugu. Zenbatzaile baten bidez izen-sintagma determinatzen duen lehen ekoizpena gaizki dago, izenari ere artikulua jarri dionez:

(72) txotxia (kotxea) bat (2;02;25)

Ondorengo zenbatzailea hilabete eta erdi beranduago ekoiztu du izen-sintagma determinatzen, eta oraingoan, determinazio mota hau erabiltzen duen gehienetan bezala, ondo dago, hau da ezkerretara doan izena artikulurik gabe azaltzen da<sup>34</sup>:

(73) etxe bat (2;04;15)

(74) palan<sup>35</sup> bat (2;05;00)

---

<sup>33</sup> A. Barreñak(1993) aztertu dituen bi haurren hizkuntzan ere hau bera ikus daiteke

<sup>34</sup> A. Barreñak (1995a) eta I. Idiazabal'ek (1991b-1995) ere joera hau ikusi dute beraiek aztertutako haurrengan.

<sup>35</sup> Zenbait ekoizpenetan, izena eta zenbatzailearen artean "-n" fonema sudurkaria azaltzen da. Dena den,

- (75) patatan bat (2;05;00)
- (76) baloyan bat (2;05;26)
- (77) tutun (kotxe) bat (2;05;26)
- (78) ez, pa:tlo kutukon (patrol turko) bat ez (2;07;09)
- (79) kotxen bala (bat da) (2;07;09)
- (80) ez, papen bat ha(r)tu lut (dut) (2;07;09)
- (81) karera (eskailera) bat (2;07;30)
- (82) andre bat? (2;09;22)
- (83) ostiko bat emango gugu (diogu) bai (2;10;11)
- (84) a(ur)kitu nuen lagun bat (2;10;22)
- (85) atuitxi (hartu Itziar) kotxe bat (2;11;25)
- (86) erositzen (erosten) otobus (autobus) bat (3;00;17)

Hurrengo ekoizpenean aldiz, berezkoa duen "a"rik gabe ekoizten du izena, ondoren zenbatzaile bat erabiltzen duelako. Ez-egokitasun<sup>36</sup> honen bidez, euskal determinazioaren araua jarraitzeko gai dela adierazten digu haurrak:

- (87) ez, holako,pilot bat ha(r)tuko dut (2;10;11)

Ekoizpen hauetan zenbatzailea sintagmaren eskuinera doa, arauak eskatzen duen bezala. Beste zenbatzaile guztiak ordea, izen-sintagmaren ezker aldean kokatzen dira, jarraian ikusiko dugun bezala.

- (88) bi tutu (kotxe) (2;05;26)
- (89) ait(aren) itsian (etxean) bi tutu (2;05;26)
- (90) egingo ru (ditut) bi kot(x)e (2;10;22)
- (91) ha(r)tu ehun peseta (2;11;25)

Ekoizpen guzti hauetan ondo betetzen ditu determinazioaren arauak, zenbatzailea beste determinaziorik ez baitu erabiltzen. Gainera, gorago esan dugunez, nahiz eta mota honetako ekoizpen gehienak ondo determinatuak azaldu, batzuetan ez ditu ondo erabiltzen determinazioaren arauak:

- (92) mutila bat (2;11;25)
- (93) bi paiola (kamioia) (2;07;09)
- (94) ikusi and(r)ea zahar(r)a bat (2;09;22)
- (95) hor and(r)e zar(r)a bat (2;09;22)

Lehen hiru ekoizpenak (92,93,94) bi aldiz determinatu ditu haurrak, zenbatzailearen eta artikulua bidez. Azkenekoan (95) badirudi mugatzaile bakarraren ideia daukala hasieran,

---

2;07;09 adina dueneko transkribapenean bakarrik azaltzen da fonema hau. Hau bera aipatzen du I. Idiazabalek (1991b): " Lo que es un elemento aislado lo convierte P. en sufijo. Parece bastante lógico en una lengua aglutinante como el euskara"

<sup>36</sup> Termino honen erabilera, Barreña 1995b-tik hartu dugu.

izena artikulurik gabe ekoizten duenez, baina aditzondoari artikulua jartzen dio eta gainera zenbatzaile bat erabiltzen du sintagma herstekeo.

Ondorengo bi ekoizpenetan, gaztelaniazko hitza eta artikulua (elelau = el helau) hitz bakarra bezala ekoizten ditu hurrak. Horrela, lehen ekoizpenean (96) legezkoa da zenbatzaile bat erabiltzea, baina bigarreanean (97) ez du hori egiten eta, ikuspuntu honetatik, determinatu gabeko ekoizpen baten aurrean gaude. Gure ustez ordea, helduok ere erabiltzen ditugu zenbaitetan mailegatutako hitzak artikulurik gabe eta ez da harritzekoa hurrak ere hori bera egitea:

(96) elosikogugu (erosiko dugu) elelau (el helau) bat belea (berdea) (2;11;25)

(97) txupatzen dago elelau (el helau) (2;11;25)

### *Determinatzaile zehaztugabeak*

Lehen determinatzaile zehaztugabea, artikulua elementu formal gisa eta lehen erakuslea determinatzaile bezala erabiltzen hasten den hilabete berean ekoizten du:

(98) beste autoa (2;02;25)

Izen-sintagma bi aldiz determinatzen du, alde batetik "a" mugatzaileaz eta bestetik "beste" determinatzaile zehaztugabeaz. Ekoizpena ordea gramatikala da, kontuan izanik "beste" determinatzaileak gainerako mugatzaile, zenbatzaile etab. ametitzen dituela eta izen-sintagmaren ezkerretara azaltzen dela. Bestalde, gure ustez ekoizpen original baten aurrean gaude, ez baita imitazioa. Gainera, transkribapen berean behin eta berriro erabiltzen du gaztelanian kideko den "otro" determinatzailea.

Hurrengo determinatzaile zehaztugabea, hiru hilabete beranduago berragertzen da, oraingoan zenbatzaile batekin ekoiztuz:

(99) etin bat (beste bat) (2;05;26)

Zalantza sortzen zaigu ordea ekoizpen honen aurrean. Bi aldiz esaten du eta hauetako batean hizketa-lagunaren errepikapen bat da. Besteari dagokionez, errepikapena izan daiteke, kontuan edukiz hizketa-lagunak esaten dituen azken hitzak ulertezinak direla. Lau hilabete eta erdi beranduago antzeko zenbait ekoizpen azaltzen da:

(100) be(s)te bat (2;10;22)

(101) hau beste bi (2;10;22)

Aurrekoan bezala, bi ekoizpen hauekin ere zalantza sortzen zaigu errepikapenak direnez. Baina adin berdinean azaltzen diren ondorengo ekoizpenak guztiz originalak dira eta bai izen batekin, bai zenbatzaile batekin azaltzen da determinatzaile hau. Honek adierazten digu determinazio mota honen jabe dela haurra:

(102) ho(r) lago (dago) be(s)te txakula (txakurra) (2;10;22)

(103) hon (hor) be(s)te bat, atzean (2;10;22)

(104) zuk ha(r)tu bat eta nik be(s)te bat bale? (2;10;22)

Hurrengo hilabetetan ere badaude mota honetako ekoizpenak:

(105) nelea bakalat (badaukat) beste bat (2;11;25)

(106) ez, erosi be(s)te bat (3;00;17)

Determinatzaile zehaztugabeen inguruan jarraituz, "zer" eta "zein" determinatzaileak ere ekoizten ditu gure haurrak. Corpus honetan azaltzen diran guztietan, izena ez da azaltzen. Lehen ekoizpenak, gorago aipatu dugun "beste" --hau ere determinatzaile zehaztugabea-- azaldu ondoren agertzen dira. Lehen ekoizpena garbia ez bada ere, bigarrenak argiagoa dirudi:

(107) beitu txelau (zer da hau? / zer dago?) (2;07;10)

(108) hau, zelau (zer da hau?) (2;07;10)

Hilabete berdineko bigarren transkribapenean azaltzen diren ekoizpenak, guztiz garbiak dira:

(109) zer dago (2;07;30)

(110) zer dago ha(u)ndia (2;07;30)

Askotan ordea, adinekoetan gertatzen den moduan, determinatzaile zehaztugabe hau ez du osorik ekoizten, eta amaierako dardarkaria ezabatuta agertzen da:

(111) ze(r) nahi duzu? (3;02;14)

(112) b(e)ida ze(r) (eg)iten ari da, mugitzen kotxea (3;04;04)

Aipaturiko beste determinatzaile zehaztugabea, hau da, "zein" determinatzailea, gehienetan ez du osorik ahozkatzen haurrak:

(113) ikusi ze(in) polita (2;09;05)

(114) ze(in) txar(r)a (3;02;14)

(115) begila (begira) zel (zein) haundia (3;03;07)

Determinatzaile hau lehenengoz ekoiztu eta hilabete berdineko bigarren transkribapenean ordea, osorik ekoizten du, arazoa fonetiko dela adieraziz:

(116) zein n(ahi d)uzu zuk? (2;09;22)

Hiru urte eta erdi arte geratzen diren sei hilabeteetan, aztertzen ari garen haurrak ez du ia errurik egiten determinazioari dagokionez. Salbuespen pare bat izan ezik, izen-sintagma guztiek daramate artikulua. Bai izena eta izenlagunez osatutako sintagmak, bai eta izen, izenlagun eta zenbatzaile batez osatutakoak ere ondo ekoiztu ditu:

(117) bai, konpon e(g)iten ari da bide ber(r)ia (3;04;04)

(118) ain (egin) dugu etxe haundi bat (3;05;09)

Orain arte azaldu ez den egitura berri bat ere azaltzen da aposizio baten bidez, izenondoa eta erakuslea batzen dituen sintagma bat hain zuzen:

(119) iku(s)ten duzu han faro bat, eh: zuri hori (3;02;14)

Bestalde, zenbatzaile bidez determinatutako sintagma bat izan ezik, beste guztiak ondo daude. Gainera orain arte azaldu ez diren bi zenbatzaile ezberdin ere ekoizten ditu haurrak, hauen artean zenbatzaile orokor bat :

(120) apurtuko ru (du) dena (3;05;09)

(121) eta edan dut ura dena (3;06;17)

Azken ekoizpen hau da zenbatzile bidez determinatutakoen artean, gaizki dagoen bakarra, bi aldiz baitago determinatuta, artikulua eta zenbatzailearen bidez. Aipatutako bigarren zenbatzailea, berriz, zehaztugabea da:

(122) holako batean ni montatu naiz tren askotan (3;06;17)

Jadanik azaldu den "beste" zenbatzaile zehaztugabea ere berragertzen da, baina oraingoan izenondo batekin:

(123) hor dago beste haundia (3;05;09)

Izen-sintagma pluralaren lehen agerpena, berriz, 2;05;00 adinean ematen da eta hasieran behintzat, elementu bakar batez osatutako ekoizpenak dira ugariak:

(124) t(r)aktoreak (2;05;00)

(125) iyak (argiak) (2;05;00)

(126) botak (2;05;00)

(127) bota kakekak (gailetak) (2;05;26)

(128) biak (beiak) (2;07;30)

Aditzarekin batera azaltzen diren izen-sintagma pluralak beranduago ekoizten ditu, kontuan izanik aditz pluralaren formen erabilera ere berandu lortzen duela, aurrerago ikusiko dugunez.

(129) naittuzu (nahi dituzu) klomoak (kromoak)? (2;10;11)

(130) saltuko (sartuko) dira umeak (3;02;14)

(131) kotxeak Miguelengana joaten dira (3;04;04)

(132) hemen jarriko ditugu piezak (3;05;09)

Bestalde, elementu bat baino gehiagoz osatutako izen-sintagma pluralak ere aurkitu ditugu, gehienetan aditzarekiko komunztadura gordetzen ez badute ere:

- (133) tokak (dortokak) handia-handia hori Piruna (Peruna) (2;05;12)
- (134) ez ha(r)tzeko zure gozak (gauzak) 3;00;17
- (135) jartzen badut jostailu guztiak (3;05;09)
- (136) nire jolasak ez dira apurtu behar (3;06;17)

Horrela bada, haurrak ezagutu eta erabiltzen du izen-sintagma plurala, baina pluralaren aditzarekiko komunztadura oraindik ez dago guztiz finkatuta bere hizkuntzan.

## B) Laburpena

Izen-sintagmaren determinazioa pausoz pauso ikusi ondoren, laburpen baten bidez determinazioaren garapena azaltzen saiatuko gara.

Ikusi dugunez, hasiera batean, hau da, azterketaren lehen hiru hilabete eta erdian (1;11;00 - 2;02;14), guk aztertutako haurrak "-a" artikulua edo gabe erabiltzen dituzte hitzak; gure ustez, ordea, ez du oraindik determinazioaren kontzientziarik, osorik ikasitako hitzak dira, eta hitz bera batzuetan artikulua edo bestetan gabe ahoskatzen du. Hala eta guztiz ere, hitz gehienak artikulua dutela azaltzen dira eta gabe ahoskatzen dituen hitz gehienak, niri hizkuntza edo mailegatutako hitzak dira. Bestalde, izen propioak eta izenordainak, euskal determinazioaren legeak eskatzen duen eran, mugatzaile gabe ekoizten dituzte beti. Erakusleek oposaketa ere nabari da (hau/ ho(r)i) baina deiktikoak dira oraindik. Aipaturiko hiru hilabete eta erdi hauek, A. Barreñak (1995a) azaldutako gramatika-ezaugarriak eta sintaxi-araurik gabeko aroa osatuko lukete gure haurren bilakabidean.

2;02;14 adinean ordea, "-a" artikulua elementu formal gisara erabiltzearen lehen aztarna ikusi dugu. Adin berdinean ere, erakuslea mugatzaile gisara azaltzen da, eta bere ezkerrean dagoen izena artikulurik gabe ekoizten du gainera, nahiz eta ia ez erabili erakuslerik izen-sintagma determinatzeko.

Zenbait egun geroagoko transkribapenean, hau da, 2;02;25 adinean ziurta genezake izen-sintagmaren determinazioaren hasiera, kontuan izanik ekoiztutako sintagma bat (22) bi elementuz osatuta dagoela, izen eta izenondo hain zuzen, eta sintagma hersten duen osagaiari bakarrik jarri diola mugatzailea. Gainera, adin berdinez ere ekoizten du haurrak lehen aldiz determinatzaile zehaztugabez determinatutako izen-sintagma (98). Zenbatzailea ere, lehen aldiz, adin honetan erabili du, baina honetan ez ditu oraindik ondo betetzen euskal determinazioaren arauak. Hau hilabete eta erdi beranduago lortuko du, hau da, 2;04;15 adinetik aurrera haurra gai da zenbatzaile baten bidez izen-sintagma determinatzeko, euskal determinazioaren arauak jarraituz, hau da, zenbatzailearen aurretik doan izena mugatzaile gabe ekoizteko. Bestalde, "bat" zenbatzailea izenaren eskuinetara kokatzen du, beste zenbatzaileak ezkerretara ipintzen dituen bitartean.

Horrela bada, 2;04;15 adinetik aurrera, izen-sintagma determina daitekeen hiru eretara determinatzeko gai da gure haurra (1. Taula):

- Mugatzaileak:
  - Artikulua (elementu formal gisa) 2;02;14
  - Erakuslea (hau) : 2;02;14
  - Artikulua (determinazio bakarraren erregela ezarriz) 2;02;25
- Determinatzaile zehaztu gabea: 2;02;25
- Zenbatzailearen lehen agerpena (bat): 2;02;25
- Zenbatzailea, ondo determinaturiko izen-sintagman: 2;04;15

Ikusi ahal izan dugunez, lorpen hauen ondoren, izen-sintagmari dagokion determinazioaren bilakabidea eta garapena aurrera doa. Horrela, ia izen-sintagma guztiak determinatuta ekoizten ditu haurrak, elementu bat baino gehiagoz osatutakoak barne. Zenbaitetan determinazio bikoitza egiten badu ere (mugatzailea eta zenbatzailea edo mugatzailea eta erakuslea), sintagma gehienak gramatikalak dira, ondo determinatuta ekoizten baititu. Gainera, determinatzaile berriak ere azalduz doa aurrera doan neurrian. Horrela, zenbatzaile zehaztuen artean, orain arte "bat" azaldu bada, hemendik aurrera, "bi, ehun" zenbatzaileak ere ekoiztuko ditu. Bestalde, "dena" zenbatzaile orokorra eta "asko" zenbatzaile zehaztugabea ere ekoiztu ditu. Determinatzaile zehaztugabeen artean, "zer" eta "zein" ere aurkitu ditugu. Pluralari dagokionez, 2;05;00 adinean azaltzen da lehenengoz izen bakar batez osatutako ekoizpenetan. Aditz jokatuarekiko komunztadura erakutsiz, beranduago azaltzen da izen-sintagma pluralean, 2;10;11 adinean hain zuzen. Zailtasunak ditu haurrak pluralaren komunztadura dela-eta, batez ere aditzarekiko komunztaduran, eta ondo lortutako ekoizpenak azaltzen badira ere, gehiago dira oraingoz ez-egokitasunak.

Atal honen hasieran aipatu dugun bezala, izen-sintagmaren determinazioari buruzko azterketa honen arrazoia, Absolutibo kasuaren jabekuntza kokatu ahal izateko erreferentzia bat izatea da. Horrela bada, eta azterketa osoa kontuan hartuz, izen-sintagmaren determinazioaz 2;02;14 adinetik aurrera hitz egin dezakegu. Ondoren egingo ditugun azterketak (Absolutiboak aditz jokatuarekin duen erlazioa eta kasu honen bidez bete daitezkeen bi funtzioak, hau da, Subjektua eta Objektu zuzenaren funtzioak) orain azaldukoarekin erkatuz, kokatuko dugu kasu honen jabekuntza.

### **9. 1. 2. Absolutibo kasuaren jabekuntza-bilakabidea, subjektua eta objektu zuzena funtzioen arabera, aditz jokatuaren duten ekoizpenetan.**

## A) Emaitzak eta azterketa

Absolutibo kasuaren jabekuntza kokatu nahian gabiltza. Ikusi dugu jadanik izen-sintagmaren determinazioaren jabekuntza eta bilakabidea, eta jabekuntza honek Absolutibo kasuaren azalpena kokatzen lagunduko digulakoan gaude. Honekin batera, ordea, Absolutibo kasu honek betetzen dituen bi gramatika-funtzio ezberdinen (Subjektuarena eta Objektu/ Atributuarena) azterketari ekingo diogu jarraian, beti ere aditzarekiko komunztadura kontuan edukiz.

Azterketa bi zatitan banatuko dugu. Horrela, aditz kopulatiboa duten ekoizpenetan azaltzen diren Subjektuen azterketari ekingo diogu lehenik, eta beste aditzekin azaltzen diren Subjektu eta Objektu zuzenenari ondoren. Partitiboaren bilakabidea ere azalduko dugu atal honetan. Azkenean, ordea, hiru zation laburpena eta ondorioak batera azalduko ditugu.

*Aditz kopulatiboa dutela azaltzen diren Subjektuen emaitzak eta azterketa.*

Funtzio hauekin zerikusia duen lehen ekoizpena 1;11;29 adinean azaltzen da:

(144) hau da Ana (1;11;29)

Ikusten den bezala aditz kopulatiboarekin doazen Subjektua eta Atributua ekoizten ditu. Gure ustez, ordea, formula gisako ekoizpen baten aurrean gaude, osorik ikasitakoa, kontuan izanik ondorengo ia lau hilabetetan ez dugula mota honetako beste ekoizpenik aurkitu, eta gramatikarekin zerikusia duen beste jabekuntzarik ere ez dugula ikusi haur honengan epe honetan.

Horrela bada, 2;03;25 adinari dagokion transkribapenean agertzen da lehen aldiz komunztadura erakusten duen eta orain aztertzen ari garen funtzioa, hau da, lehen Subjektua, erakusle batean gauzatu. Bi ekoizpen aurkitu ditugu hilabete honi dagokion transkribapenean:

(145) hau da tutua (kotxea) (2;03;25)

(146) mulinda<sup>37</sup> (urdin da) hau? (2;03;25)

Hurrengo Subjektu Absolutiboa 2;05;12 adinarekin berragertzen da:

(147) hau la (da) hemeti (hemendik) (2;05;12)

Orain arte "izan" aditz kopulatiboarekin agertu diren Subjektuak, hiru besterik ez badira ere, erakusle baten bidez gauzatu dira, "hau" erakuslearen bidez, hain zuzen. Orain, ordea, bigarren graduko erakuslea ekoizten du haurrak lehenengo aldiz Subjektu funtzioa betetzen:

---

<sup>37</sup> Ekoizpen honetan atributu funtzioa betetzen duen adjektiboari artikulua falta zaio, baina izen-sintagmaren determinazioa jadanik aztertu dugu eta atal honetan, aipatzen baditugu ere, ez ditugu aztertuko ez-egokitasun mota hauek



(148) hori betsa (bezela/beltza?) da (2;05;26)

Bestalde, aditz kopulatiboa duten ekoizpen guztiak aztertu ondoren, Subjektu funtzioa betetzen duen kategoria emankorrena, ia bakarra, erakuslearena da. Izan ere, 3. taulan ikus daitekeenez, 43 erakusle (%92) aurkitu ditugu funtzio hau betetzen. Horrenbeste erakusle azaltzeak, deiktikoak ote diren galdera sortzen digu. Baina izen-sintagmaren determinazioaren azterketan ikusitakoa gogorarazten badugu, ikusi ahal izan dugu, hasiera bateko erakusleek funtzio deiktikoa betetzen bazuten ere, 2;02;14 adinean azaldu dela lehen erakuslea determinatzaile gisa. Hortaz, eta kontuan edukiz lehen erakuslea Subjektu funtzioan 2;03;25 adinean kokatu dugula, erakusle hauek funtzio hori betetzen dutela baieztatu ginezake.

Erakusle ez diren Absolutibo Subjektuak, lau besterik ez dira, bi izenordain (149,150) eta bi izen (151,152), guztira % 8a bakarrik, eta nahiko berandu agertzen dira gainera:

(149) ni naiz okina (2;10;22)

(150) ni Peru naiz (3;00;17)

(151) limoia oso, oso samina da (3;04;04)

(152) baña ze astoak dira tximinoak (3;04;04)

Izenordaina Absolutibo kasuan erabili beharrean, behin Ergatiboan erabiltzen du<sup>38</sup>.

(153) nik e(z) naiz (3;00;17)

Aditz kopulatiboa duten ekoizpenen corpusa aztertu ondoren, ekoizpen ugari aurkitu dugu Subjekturik gabe. Kopuru zehatza interesgarria ez bada ere, ekoizpenen %34a dago Subjekturik gabe. Hau jakina denez, euskara hizkuntza "pro-drop"<sup>39</sup> delako gertatzen da, hau da, Subjektua isil daitekeelako.

Aditz kopulatiboa daramaten ekoizpenen corpusean, Subjektu plural bakar bat topatu dugu, eta komuntadura ondo egin du haurrak:

(154) baña ze astoak dira tximinoak (3;04;04)

Atributuak, kasuz markaturik gabeko sintagmak badira ere, testuinguru honetan azaltzen dira, eta hauen jabeak nola ematen den ere aipatuko dugu. Lehen Atributua 2;02;14 adinean azaltzen da, hau da, Absolutibo kasua baino lehen. Ez da oso ekoizpen garbia, baina, testuingurua kontuan edukiz, badirudi Atributu baten aurrean gaudela:

(155) en (han) Amaiana (Amaia da) (2;02;14)

Hurrengo hilabetean, ordea, zalantzarik gabeko Atributu baten aurrean gaude:

---

<sup>38</sup> A.Barreñak (1993) ere hori bera ikusi zuen berak aztertutako 3;01 adineko haur batengan.

<sup>39</sup> Euskarak pro-drop hirukoitza du: Subjektuarekikoa, Objektu zuzenarekikoa eta Zeharkako objektuarekikoa. Hiru kategoria hauek isil daitezke, aditzean isladatzen direnez.

(156) hau da tutua (2;03;25)

Ondorengo hiru hilabete eta erditan, Atributua izen, adjektibo edo izen propio baten bidez gauzatu da (5. taula). Adina aurrera doan neurrian, ordea, elementu bat baino gehiagoz osatutako Atributuak hasiko da ekoizten haurra:

(157) kotxen bala (bat da) (2;07;09)

(158) hau amatxiren etxea la (da) (2;07;30)

(159) hau golo-golola (goror-gogorra) da (2;09;05)

(160) hori oso polita da (2;09;22)

(161) hau la (da) bere amatxu (3;02;14)

(162) hau da nire eskabadora eta zure kamioa hau x (3;04;04)

(163) hau da Zitloen (Citroen) bx (3;04;04)

*Aditz ez-kopulatiboekin azaltzen diren Subjektu eta Objektu zuzenen emaitzak eta azterketa.*

Aditz ez-kopulatiboa daraman ekoizpen batean azaltzen da lehen Absolutiboa Subjektu funtzioa betetzen:

(164) heme(n) eto (ez dago) kokea (traktorea) (2;02;25)

Hurrengo Absolutiboa, berriz, ia bi hilabete beranduago ekoizten du haurrak, berriro ere Subjektu funtzioa betetzen:

(165) hemen dato (dago) p(r)oblema eta sa(r)tu atzetik (2;04;15)

Hilabete beranduago berragertzen da berriro:

(166) hau doa (2;05;12)

(167) tatoga (dortoka) non dando (dago)?(2;05;12)

Adin honetan azaltzen da lehen aldiz Absolutibo kasua Objektu zuzenaren funtzioan. Erakusle batean gauzatzen dira azaltzen diren bi ekoizpenetan:

(168) hori eztauka haundia?(2;05;12)

(169) holi nik <sup>40</sup> ingot (egingo dut) (2;05;12)

Gorago aipatu dugunez, aditz kopulatiboekin ekoiztutako ia Subjektu guztiak erakusleak ziren bitartean, erakusle gutxi erabiltzen ditu, aditz ez-kopulatiboekin ekoiztutako Subjektuak gauzatzeko (4. taula), %14 hain zuzen, Subjektu gehienak Izenen batean gauzatzen baitira.

---

<sup>40</sup> Hemen Subjektu Ergatibo bat ekoizten du, baina kasu honen azterketa Absolutiboarena amaitu ondoren egingo dugu.

Bestalde, Izenordain Absolutibo gutxi agertzen da funtzio hau betetzen, guztira %13a iristen dira, eta ikusi dugunez, aditz kopulatiboekin ekoiztutako Izenordain Absolutiboak ere, %4a besterik ez dira. Geroago Ergatibo kasuaren azterketan ikusiko dugunez, Subjektu Ergatibo gehienak izenordain batean gauzatzen dira.

Aditz kopulatiboa daramaten ekoizpen ugari dago Subjekturik gabe, %34a hain zuzen. Aditz ez-kopulatiboa daramatenetan, ordea, Subjektu Absolutiborik gabeko bi ekoizpen baino ez ditugu aurkitu corpus osoan zehar, %3a hain zuzen.

Aditz kopulatiboa daramaten ekoizpenetan gertatzen zen bezala, hemen ere Subjektu plural gutxi ekoizten du. Hiru aurkitu ditugu corpus osoan zehar (%5a), baina hauetako bik bakarrik (171,172) gordetzen dute aditzarekiko komunztadura:

- (170) nun (d)ago alakiak (2;07;09)
- (171) eta gu joango gara (2;10;11)
- (172) kotxeak Miguelengana joaten dira (3;04;04)

Objektu zuzenari dagokionez, hasieran hitz bakar batez gauzatzen bada ere, jabekuntza-bilakabidea aurrera doan neurrian, osagai bat baino gehiagoren bidez gauzatzen da:

- (173) konponduko du(t) nire kokiki (sancheski) (2;07;09)
- (174) o(s)tiko bat emango gugu (diogu) bai (2;10;11)<sup>41</sup>
- (175) a(ur)kitu nun lagun bat (2;10;22)
- (176) ez, ikusi dugu tutu-punba (kotxe) bat, Sexiento (Seiscientos) bat (2;11;25)
- (177) ha(r)tu ehun peseta (2;11;25)
- (178) iku(s)ten duzu han faro bat, eh: zuri hori (3;02;14)
- (179) ingorugu (egingo dugu) torre ha(u)ndi bat? (3;05;09)

Horrela bada, O. Zuzenaren kasuan, osagai bat baino gehiagoz osatutakoen kopurua % 34koa da (4. taula).

Pluralean ere azaltzen da zenbait Absolutibo, Objektu Zuzen funtzioa betetzen, %10a hain zuzen, baina aditzarekiko komunztadura ez du lortzen gehienetan. Horrela, ondoren azaltzen diren ekoizpenetatik, lehen bietan (180, 181) ondo dagoen bitartean komunztadura, bestetan gaizki dago:

- (180) naittuzu (nahi dituzu ) klomoak (kromoak)? (2;10;11)
- (181) hemen jarriko ditugu piezak (3;05;09)
- (182) eta hemen eramaten du oiloak (2;09;22)
- (183) eta hemen dauka harriak lotutak (2;10;11)
- (184) Yayek (Xabierrek) ekali (ekarri) zuen ardiak (2;11;25)
- (185) ez dakat botak (3;01;24)

---

<sup>41</sup> Hiru argumentudun aditza behar luke izan, Nor-Nori-Nork aditz mota, hain zuzen, nahiz eta ekoizpen honetan O. zuzena besterik ez azaldu.

- (186) nik ekali (ekarri) dut bonboiak (3;01;24)
- (187) ikusi nahi dut jostailuak (3;02;14)
- (188) jartzen badut jostailu guztiak (3;05;09)

*Partitiboa: Emaitzak eta azterketa*

Partitibo kasua ere Absolutiboarekin batera aztertuko dugu, ezezko eta galderazko perpausetako Absolutiboa denez. Oso ekoizpen gutxi ditu, ordea (bi besterik ez corpus osoan zehar), haur honek kasu honetan eta dituenak oso berandu ekoizten ditu. Horrela, lehen partitiboa 3;03;07 adinean ekoizten du eta bigarrena, hilabete beranduago. Bi ekoizpenetan, Objektu zuzenaren funtzioa betetzen du Partitiboak.

- (189) ez, Miguel Marik erdaka (ez dauka) belarrrik (3;03;07)
- (190) baña elaka (ez dauka) palalik (palarik) (3;04;04)

Bestalde, hiru urtetik aurrera ere aurkitu ditugu kasu honetan azaldu behar luketen hiru ekoizpen, baina ez du kasu hau erabili:

- (191) etu (ez du) nahi laranja ula (ura) (3;00;17)
- (192) nik anak ez ditut (3;05;09)
- (193) nire anak ez ditut (3;05;09)

Badirudi haurrak Partitibo kasua ezagutzen duela eta erabili ere egiten du batzuetan, baina ez behar guztietan. Bestalde, ez da harritzekoa kasu hau behar den guztietan ez erabiltzea, gure inguruan helduok ere askotan erabiltzen ez dugunez.

B) Laburpena

Absolutibo kasuaren jabekuntza Subjektu eta Objektu zuzen funtzioen arabera aztertu ondoren, ikuspegi orokorra eskaintzen ahaleginduko gara orain, azterketa honen ondorioak eta izen-sintagmaren determinazioarenak azkenean batuz, Absolutibo kasuaren jabekuntza kokatu ahal izateko.

Horrela bada, Absolutibo kasuan azaldu den lehen funtzioa 2;02;25 adinean, Subjektuarena izan da. Bi hilabete eta erdi beranduago, 2;05;12 adinean ekoizten du haurrak lehen Absolutiboa Objektu zuzena funtzioan. Hortaz, 2;05;12 adinerako ekoiztu ditu haurrak Absolutibo kasuan azal daitezkeen bi funtzioak, hau da, Subjektua eta Objektu zuzena:

- Subjektua: 2;02;25
- Subjektua (aditz kopulatiboa duela): 2;03;25
- Objektu zuzena: 2;05;12

Partitibo kasuaren agerpena ere aztertu dugu, galdera eta ezezko perpausen Absolutiboaren pareko kasua denez. Kasu honen azalpena, ordea, oso berankorra eta urria da

kontuan harturik lehen ekoizpena hiru urte bete eta gerokoa dela eta guztira bi Partitibo besterik ez ditugula aurkitu azertzen ari garen haurren corpusean. Esan daiteke, 3;03;07 adinetik aurrera, gure haurrak kasu hau ezagutzen duela, baina ez duela beti erabiltzen. Ez da harritzekoa Partitibo kasuaren erabilpen eza, zenbait alderditan helduok ere kasu honen beharra dagoen ekoizpen askotan erabiltzen ez dugunez, ahozko hizketan behintzat.

Horrela bada, lehen Subjektu Absolutiboa 2;02;25 adinean kokatu dugu, eta ia bi hilabete eta erdi beranduago lehen Objektu Absolutiboa. Funtzio hauek azaltzen diren adinetik aurrera, gainera, erregulariki azaltzen direla esango genuke, nahiz eta hasiera batean corpusa ez den oso ugaria.

Aditz kopulatiboa daramaten ekoizpenetan azaltzen diren ia Subjektu guztiak (%92), (3. taula) lau izan ezik, erakusle baten bidez gauzatuak dira. Ez da hori gertatzen beste aditzei dagokionez, hauetan Subjektu funtzioan azaltzen diren erakusleak %14a baitira, eta gehienak izenak (%58), hain zuzen (4. taula). Beraz, ezberdintasuna ikusten da Subjektua gauzaterakoan, ekoizpenak aditz kopulatiboa daramaten edo ez kontuan izanik.

Bestalde, ikusi ahal izan dugu Subjekturik gabe azaltzen diren ekoizpenak ugariak direla aditz kopulatiboak azaltzen diren ekoizpenetan, %34a hain zuzen. Aditz ez-kopulatiboak dituzten ekoizpenetan, ugariagoak izan arren Subjekturik gabeko ekoizpenak<sup>42</sup>, Subjektu Absolutiborik gabeko bi ekoizpen (%3) besterik ez dugu aurkitu corpus osoan. Beraz, hemen ere ezberdintasuna ikus daiteke, aditza kopulatiboa edo ez-kopulatiboa bada. Lehenengoetan, ugariak diren bitartean Subjekturik gabeko ekoizpenak, bigarregotan ia ekoizpen guztiak Subjektu Absolutiboz azaltzen dira.

Subjektu eta Objektu zuzen gutxi ekoizten ditu haurrak pluralean eta nahiko berandu. Bi corpusak kontuan edukiz, 17 besterik ez (%7). Gainera, batzuetan komunztadura ondo egiten duen bitartean, gehienetan ez du ondo lortzen.

Atributua sintagma ez-markatua izan arren, Absolutibo kasuaren testuinguruan azaltzen da eta honen jabeakuntza-bilakabidea ere azaldu dugu. Lehen Atributua, oso garbia ez bada ere, 2;02;14 adinaz ekoiztu du haurrak eta hurrengo hilabete beranduago.

### **9. 1. 3. - Absolutibo kasuaren jabeakuntza orokorrari buruzko laburpena eta erkaketa**

#### **A) Laburpena**

Izen-sintagmaren determinazioaren azterketa eta jabeakuntza, alde batetik, eta Subjektu eta Objektu zuzenaren arabera Absolutibo kasuarena bestetik, ikusi ondoren, Absolutibo kasuaren jabeakuntza kokatzen saiatuko gara.

Taula batean azalduko ditugu orain arte esandakoak

---

<sup>42</sup> Gehienak ordea, Ergatiboari dagozkionak direnez, hurrengo atalean ikusiko ditugu.

ADINA	I.S. DETERMINAZIOA	FUNTZIO SINTAKTIKOA
2;02;14	- Artikulua (eduki formala duela) - Erakuslea	
2;02;25	- Artikulua (Det. bakarraren araua) - Det. zehaztu gabea - Zenbatzailea (I.S. bi aldiz determinaturik)	- Subjektua
2;04;15	- Zenbatzailea (Determinante bakarra)	
2;05;12		- Objektu Zuzena

Alde batetik, izen-sintagmaren determinazioaren jabekuntza, 2;02;25 adinetik aurrera kokatu dugu. Absolutibo kasuaren agerpena, berriz, betetzen dituen bi funtzioen arabera, 2;02;25 adinetik 2;05;12 adina bitartean. Horrela bada, 2;02;25 adinean kokatuko dugu kasu honen lehen azalpena, kontuan izanik adin horretarako determinazio bakarraren arauaz ohartu dela haurra eta Subjektu funtzioa ere erabili duela.

Bestalde, kasu honen jabekuntza frogatu ahal izateko, beste kasu baten erabilerari kontrajarri diezaiokegu, hau da, Absolutibo kasuak marka 0 duenez, beste kasu baten erabilera azaltzen denean ziurta daiteke kasu honen jabekuntza. Aditzarekiko komunztadura duten kasuen artean (Absolutiboa-Partitiboa, Ergatiboa eta Datiboa), Absolutiboa da azaltzen den lehena, ikusiko dugun bezala. Hortaz, ezingo diegu kasu hauei kontrajarri. Bai, ordea, beste kasuei, hau da, aditzarekin komunztaturik ez dutenei. Horrela, geroago ikusiko dugunez, Inesibo kasua da haurrak lehen ekoizten duena, 2;02;14 adinean. Hortaz, Absolutiboaren jabekuntza 2;02;25 adinean kokatu dugunez gorago, Inesibo kasuaren erabilerari ere kontrajarri diezaiokegu Absolutiboa, honen jabekuntzaren froga berri bat azalduz.

Pluralaren ekoizpenari dagokionez bi irizpide dauzkagu, kontuan edukiz izen-sintagmaren determinazioan ikusi dugun bezala, lehen ekoizpenak pluralean 2;05;00 adinean azaldu direla izen bakar batez osatutako ekoizpenetan. Bestalde, Subjektu eta Objektu funtzioa betetzen azaltzen diren Absolutiboak pluralean (beti ere aditz jokatu baten testuinguruan), gutxi dira (%7a) eta geroago ekoizten ditu haurrak. Lehen Subjektu plurala 2;07;09 adinean, eta O. zuzena 2;10;11n. Hizkuntz jabekuntzako ikerketetan, pluralaren azalpena Absolutiboaren jabekuntzaren froga gisa azaldu arren, ezin dugu gure kasuan argudio hau erabili, nahiko berandu azaltzen delako aipatutako plurala haur honengan eta froga hau baino lehenago beste batzuk azaldu direlako, ikusi ahal izan dugunez.

## B) Emaitzen eztabaida

Jarraian, izen-sintagmaren determinazioa eta Absolutibo kasua aztertu duten zenbait ikerketarekin erkatuko ditugu gure emaitzak. Lan hauen artean Itziar Idiazabalek (1991b, 1995)

egindakoak daude. Ikerketa hauetan determinazio nominalaren bilakabidea aztertu du guk aztertu dugun haur berdinean, eta azterketaren epea 1;11 adinetik, 3;02 adina bitartean kokatzen du. Artikuluari dagokionez, lehen transkribapenetik ekoizten du haurrak. Mugatzaile hau hartzen ez duten hitzak, nini hitzak edo mailegatutakoak dira. Bestalde, euskal determinazioaren arauaren arabera, izen propioek ere ez dute artikulurik hartzen. Zenbatzaileak beranduago ekoizten ditu haurrak, eta lehena "bat" da 2;4 adinean. Bestalde, determinatzaile bakarraren araua 2;3 adinetik aurrera ezartzen du. Pluralari dagokionez, "bi" zenbatzailea 2,3 adinaz ekoiztu arren, 2,6 adina arte ez du erabiltzen atzizki pluralgilea, eta ezin du ziurtatu hiru urterekin pluralaren komunztadurarik lortu duen. Erakusleak, berriz, deiktikoak dira denak, ez du erabiltzen forma hau determinante bezala.

Gure emaitzetan ere ikusi dugu lehen transkribapenetik azaltzen dela "-a" mugatzailea, eta determinatzaile hau gabe azaltzen diren hitzak nini hizkuntzakoak edo mailegatutako hitzari dagozkienak direla. Guk ere ez dugu aurkitu izen propio bakar bat mugatzailea daramala, euskal determinazioaren arauak eskatzen duenez hain zuzen. Bestalde, determinatzaile bakarraren araua guk ere nahiko goiz kokatu dugu, 2;02;25 adinean, hau da, Idiazabalek (1991b) baino 15 egun lehenago. Zenbatzailearen agerpena determinatzaile funtzioan bat dator bere azterketarekin, 2;02;25 adinean kokatu dugunez. Berak aipatzen duen bezala, zenbatzailea determinatzaile gisa azaltzen denean, haurrak ez du beste determinaziorik erabiltzen. Pluralari dagokion atzizkiari buruz ordea, berak baino hilabete lehenago ikusi ahal izan dugu gure corpusean, eta aditzarekiko komunztadura, berriz, 2;10;11 adinean lortzen du haurrak, nahiz eta gehienetan ez duen ondo erabiltzen. Erakusleei dagokienez, Idiazabalen azterketan ez da azaltzen inoiz kategoria hau determinatzaile funtzioan. Gure azterketan, berriz, nahiz eta ekoizpena urria izan eta hauetatik gehienak ez egon ondo determinatuta, 2;02;14 adinean kokatu dugu determinazio mota hau.<sup>43</sup>

A. Barreñak (1993) hiru haur aztertu zituen, hauetako bat elebakarra (euskalduna) eta beste bi elebidunak (euskara-gaztelania). Haur elebidunetako bat, gure azterketan erabili dugun bera da. Azterketaren hasierako adina ezberdina bada ere, hiru haurrentzat (1;05;19 tik 1;11;00 bitartean dago) lau urte inguruan amaitzen dira hiru haurren azterketak. Aipatutako lanaren helburua kasuen azterketa ez bada ere, atal batean determinazioari eta gramatika kasuen garapenari buruzko azterketa azaltzen da. Nahiz eta izen-sintagmaren determinazioaren jabekuntza adin ezberdinetan kokatzen duen haur bakoitzean, (1;09;22 adinetik 2;03;12 ra bitartean), jabekuntzaren bilakabidea oso antzekoa da, kontuan edukiz hiru haurrek hitz arrunt gehienak "-a" mugatzailea erantsiz ekoizten dituztela. Mailegatutako zenbait hitz ere ekoizten dute mugatzaile honekin, nahiz eta hemen ere ezberdintasunak egon, haur batzuek besteek baino gehiagotan ekoizten dituztelako. Bestalde, nini hitz gehienak artikulurik gabe ekoizten dituzte hiru haurrek eta, bai izen propioak, bai izenlagunak beti mugatzailearik gabe. Ikerlari honek berak 1995eko lan batean dioenez, haurrek "-a" mugatzailea besterik ez dute erabiltzen hasera batean, eta beranduago hasiko dira erakusle edo zenbatzaileaz baliatzen eta izen eta adjektiboz osatutako izen sintagmaren bigarren elementua bakarrik determinatzen. Horrela bada, eta gorago aipatu dugun bezala, haur bakoitzak bere bilakabide pertsonala darama hizkuntz jabekuntzaren aurrean, baina jabekuntza honetara iristeko pausoek berdintasun handia erakusten dute.

---

<sup>43</sup> Azaltzen diren ezberdintasunen arrazoia, gure azterketan Idiazabalen azterketetan erabili ez zen zenbait transkribapenen erabilera izan daiteke.

Hiru haur hauek daramaten bilakabide berdina darama guk aztertutako haurrak ere. Hauek bezala, hitz arrunt gehienak artikuluz ahoskatzen ditu, baita mailegatutako hitz gehienak ere. Bestalde, mugatzailerik gabe ekoizten ditu, bai izen propioak, izenordainak eta nini hizkuntzako hitz gehienak ere. Determinatzaile bakarraren erregela, hau da, izen-sintagmaren determinazioaren jabekuntza kokatzerakoan, ordea, gure azterketa ez dator bat Barreñaren lanarekin (1993) kontuan edukiz berak 2;03;12 adinean kokatzen zuela eta guk 2;02;25 adinean.<sup>44</sup>

M.P. Larrañagak (1994) kasuaren bilakabidea aztertu zuen haur batengan<sup>45</sup>, bai euskaraz (1;07;04 adinetik 2;06;11 adina bitartean), bai gaztelaniaz (1;07;14 adinetik 2;05;19 adina bitartean). Azterketa honetan, izen-sintagmaren determinazioa ere aipatzen du, eta euskaraz, ia sintagma guztiak hasieratik artikulua dutela ekoizten dituela dio. Artikulurik gabe ekoizten dituenak, gaztelaniatik mailegatutako hitz batzuk eta onomatopeiak dira. Euskal hitzen artean, ordea, oso gutxi azaltzen dira artikulurik gabe. Bestalde, haurra hitz bat baino gehiagoz osatutako izen-sintagma erabiltzen hasten den momentutik, sintagma hersten duen elementuari erantzen dio markazio morfologikoa.

Gorago esan dugunez, gure haurraren bilakabidean ere ikusi ahal izan dugu hasieratik hitz gehienak artikulua eta guzti ekoizten dituela. Bestalde, mugatzaile hau gabe ekoizten dituen hitz gehienak gure haurraren ere, mailegatutakoak edo nini hitzak dira eta oso euskal hitz gutxi ekoizten ditu artikulurik gabe.

Berriro Barreñaren (1993) lanera itzuliaz, Absolutibo kasuari dagokionez, kasu honetaz eraiki daitezkeen bi gramatika funtzio ezberdinak 1;09;04 adinetik 2;05;26 adina bitartean azaltzen dira, haur bakoitzaren arabera. Horrela, haur elebidunetako bat da bi funtzio hauek lehen erabiltzen dituen, lehena Subjektu funtzioa 1;09;04 adinean eta ondoren Objektuarena 1;09;22an. Tartean haur elebakarra dago, 2;00;05 adinaz bi funtzioak ekoizten dituela. Azkenik, gu aztertzen ari garen haurraren bi funtzioen jabekuntza, Barreñak 2;05;26 adinean kokatzen du. Horrela, bada, kasu hau lehen ekoizten duen haurraren eta bigarrenaren artean hiru hilabeteko epea dago, eta bigarrenaren eta hirugarrenaren artean, berriz, ia sei hilabetekoa. Pluralari dagokionez, Absolutiboa ekoizten duten adin berean azaltzen da kasu bereko plurala, bi haurraren behintzat.

Partitibo kasua ere aipatzen du eta haur guztietan Absolutiboa baino askoz ere beranduago azaltzen da (5 -11 hilabete arteko epea bi kasuen artean, haur bakoitzaren arabera), eta gainera oso urria da.

Ikusi dugunez, ezberdintasun nabariak daude haurren artean kasu honen jabekuntza kokatzerakoan. Hau guztiz normala da hizkuntz jabekuntzaren bilakabidean, haur bakoitzak bere garapen pertsonala erakusten baitu. Datu hauek gure emaitzekin erkatzen hasi aurretik, lehen

<sup>44</sup> Kontuan eduki behar da, ordea, Barreñak erabilitako corpusean, oraindik ez zegoela guk erabilitako zenbait datu.

<sup>45</sup> Haur hau, Barreñak (1993) aztertu zituenetariko bat da.



izen-sintagmaren determinazioan esan duguna aipatu beharrean gaude, hau da, guk Barreñak baino transkribapen gehiago erabiltzeko aukera izan dugula, batez ere azterketaren hasieran, eta arrazoi honegatik apur bat aldatzen direla gure emaitzak. Horrela bada, Barreñak guk aztertutako haur berdinean Absolutiboaz gauzatzen diren bi funtzioen jabeakuntza 2;05;26 adinean kokatzen duen bitartean, guk hiru hilabete lehenago kokatu ahal izan dugu kasu honen azalpena Subjektu funtzioan, 2;02;25 adinean hain zuzen.

Kasu honen pluralari dagokionez bestalde, gure emaitzak eta Barreñarenak aurrejarritz, pluralaren azalpena Absolutiboarena baino bi hilabete beranduago ematen da gure haurrengan.

Azkenik, Partitibo kasuaren emaitzak berdinak dira bi azterketetan, alde batetik Barreñaren hiru hurrek, gureak bezala, Absolutiboa baino askoz ere beranduago ekoiztu dutelako, eta bestetik, bi lanetan aztertutako haurrari dagokionez, kasu honen azalpena adin berdinean kokatu izan delako.

Larrañagaren lanera itzuliz (1994), absolutibo kasuaren bilakabideari dagokionez, aztertutako haurrengan, bi urtetik aurrera ikus daitezke Subjektuak Absolutibo kasuan, eta Objektuak, berriz, 1;09;04 adinetik aurrera. 2;00;00 adina arte, ordea, kasu ez-markatuaren aurrean gaudela dio. Adin honetatik aurrera Absolutibo kasua eta Lokatiboa aurrejartzen dira, Absolutibo kasuaren jabeakuntza ziurtatuz horrela. Kasu honen pluralari dagokionez, 1;11;06 adinaz erabiltzen duela dio, nahiz eta askotan ez erabili dagokion morfema (arazo fonetikoak direla medio). Baina pluralaren erabilera, emankorragoa dela adierazten du 2;04;00 adinetik aurrera.

Datu hauek gure emaitzei aurrejartzen badizkiegu, berak aztertutako haurrak hiru hilabete lehenago jabetzen duela Absolutibo kasua ikusi ahal izango dugu. Bestalde, pluralari dagokionez ere, gure haurrak atzerapena azaltzen du Larrañagaren haurraren aldean, kontuan izanik Larrañagak aztertutako haurrak Absolutiboarekin batera ekoizten dituela kasu honetan pluralak, eta gure haurrak kasu hau ekoiztu eta bi hilabete beranduago ekoizten duela kasu bera plurallean.

Absolutiboaren jabeakuntza aztertu dugu. Alde batetik izen-sintagmaren determinazioaren bilakabidea ikusi dugu. Gero Subjektu eta Objektuaren funtzioak betetzen ageri diren Absolutiboak ere aztertu ditugu, eta azkenean, gure emaitzak beste ikerketen emaitzei aurrejarri dizkiegu. Azterketa osoa oro har harturik, parekotasunak eta ezberdintasunak aurkitu ditugu. Ezberdintasunak haur bakoitzaren bilakabide pertsonalari dagokienak direla iruditzen zaigu batez ere. Horrela, bi - hiru hilabeteko atzerapena edo aurrerapena hizkuntzaren atal batean edo hizkuntzaren jabeakuntza orokorrean, haur bakoitzaren bilakabide pertsonalarekin lotu beharrekoak dira gure ustez. Jabeakuntzaren bilakabidean, ordea, haur gehienek jarraitzen duten bilabidea berdintsua dela ikusi dugu.

#### **9. 1. 4. - Absolutibo kasuari dagozkion ondorioak**

Lortu ditugun emaitzak kontuan izanik eta horiek sakonki aztertu ondoren, ondorio zehatz batzuetara iritsi gara:

1.- Izen-sintagmaren determinazioa, alde batetik, eta Subjektu, eta Objektu zuzen funtzioak betetzen dituen Absolutiboa, bestetik, aztertu ondoren, 2;02;25 adinean koka daiteke Absolutiboaren lehen jabekuntza gure haurrarenan.

2.- Absolutibo kasuak betetzen dituen bi funtzioen arabera, jabekuntza horrela gertatu da:

a) Lehendabizi, Subjektu funtzioan azaldu da, 2;02;25 adinean:

(194) **hau** da tutua

b) Ondoren Objektu funtzioan, 2;05;12 adinarekin:

(195) **hori** nik ingot (egingo dut)

Horrela, 2;05;12 adinerako bereizten ditu harruak kasu honen bidez gauzatzen diren bi funtzioak. Eta bi funtzio hauek erakusleen bidez gauzatzen ditu hasiera batean.

3.- Partitibo kasua oso berandu ekoizten du, 3;03;07 adinean lehenengoz, eta oso urria da.

4.- Pluralaren azalpena eta bilakabidea horrela izan da gure haurrarenan:

a) Morfema pluralgilea, 2;05;00 adinean ekoizten du lehen aldiz, hitz bakarreko ekoizpenetan:

(196) t(r)aktoreak

b) Subjektu funtzioa betetzen duen Absolutibo batean berriz, bi hilabete beranduago azaltzen da, 2;07;09 adinean, oraindik aditzarekiko komunztadura lortu gabe bada ere:

(197) nun (d)ago alakiak

Aditzarekiko komunztadura hiru hilabete beranduago lortuko du, 2;10;11 adinaz:

(198) eta gu joango gara

d) Lehen Objektu zuzena pluralean, 2;10;11 adinean ekoizten du haurrak, eta ez du aditzarekin komunztadurarik lortzen.

e) 2;10;11 adinean lehen Subjektu eta Objektu zuzen pluralek aditzarekiko komunztadura erakusten badute ere, plurala azaltzen den ekoizpen gehienetan ez du lortzen komunztadurarik:

(199) ez dakat botak

f) Ekoizpen pluralak %7a besterik ez dira.

5.- Aditz kopulatiboa daramaten ekoizpenetan azaldutako Subjektuak eta aditz ez-kopulatiboetan azaldutakoen artean, zenbait ezberdintasun aurkitu dugu:

a) Aditz kopulatiboetan:

- Subjekturik gabeko ekoizpenen kopurua, %34koa da.
- %92tan erakuslean gauzatzen da Subjektua:

(200) hau da zulo bat

b) Aditz ez-kopulatiboetan:

- Subjektu Absolutiborik gabeko ekoizpenen kopurua, %3koa da.
- %58tan izenean gauzatzen da Subjektu Absolutiboa:

(201) ez, hemen bizi da olloa

eta erakuslean % 14tan:

(202) hau doa

6.- Kasuaz markaturik gabekoa den Atributua, Absolutibo kasua baino pixka bat lehenago ekoiztu du gure haurrak, 2;02;14 adinean.

7.- Dagokigun kasua aztertu duten zenbait ikerketarekin egindako erkaketaren ondorioz, puntu hauek ikusi ahal izan ditugu:

a) Izen-sintagmaren determinazioa haur euskaldunetan aztertu duten ikerketa guztiek erakusten dutenez, jabekuntza-bilakabidea berdintsua da haur guztietan.

b) Absolutibo kasuaren eta horren bidez gauzatzen diren bi funtzioen lehen ekoizpenen adina aldatu egiten da haur bakoitzaren arabera. Horrela, haur batzuk besteek baino lehenago hasten dira kasu hau erabiltzen, haur bakoitzaren bilakabidearen arabera.

d) Haur bakoitzaren bilakabide pertsonalaz gain, Absolutibo kasuaren bidez gauzatzen diren bi funtzioen bereizketa oso goiztiarra da haur guztietan.

e) Partitibo kasua Absolutiboa baino askoz beranduago azaltzen da eta oso urria da gainera aztertutako haur guztiengan.

### 9. 1. 5. - TAULAK

**1. TAULA: DETERMINAZIOEN LEHEN AGERPEN DATA**

ADINA	MUGATZAILEAK		ZENBATZAILEAK			DETER . ZEHAZTUGAB EAK
	ARTIKULUA	ERAKUSLEA	ZEHAZTUAK	ZEHAZTUGAB EAK	OROKORRAK	
2;02;14	Elementu formala bezala	HAU				
2;02;25	Determinazio bakarraren erregela		BAT			BESTE
2;04;15			BAT (Det. bakarra)			
2;05;26			BI			
2;07;10						ZER
2;09;05						ZEIN
3;05;09					DENA	
3;06;17				ASKOTAN		

**2. TAULA: ABSOLUTIBOAK**

	ADITZ KOPU- LATIB.OEKIN	ADITZ EZ KOPULATIBOEKIN	PARTITIBOA
--	----------------------------	-------------------------	------------

ADINA	SUBJEKTUA	SUBJEKTUA	O.ZUZENA	O.ZUZENA
1;11;29	1 (?)	-	-	-
2;00;20	-	-	-	-
2;01;03	-	-	-	-
2;02;14	-	-	-	-
2;02;25	-	1	-	-
2;03;12	-	-	-	-
2;03;25	2	-	-	-
2;04;15	-	1	-	-
2;05;00	-	-	-	-
2;05;12	1	2	2	-
2;05;26	1	1	-	-
2;07;09	2	5	5	-
2;07;30	4	11	2	-
2;09;05	2	2	7	-
2;09;22	2	3	12	-
2;10;11	1	7	20	-
2;10;22	1	4	8	-
2;11;25	2	6	9	-
3;00;17	2	2	7	-
3;01;24	1	3	4	-
3;02;14	6	2	15	-
3;03;07	3	3	6	1
3;04;04	15	2	6	1
3;05;09	-	6	12	-
3;06;17	2	4	12	-
GUZTIRA	47	64	127	2

(?) Zalantzakoa

**3. TAULA: ADITZ KOPULATIBOA AZALTZEN DEN EKOIZPENETAN, SUBJEKTU ABSOLUTIBOA GAUZATZEN DEN KATEGORIAK.**

SUBJEKTUAK
------------

ADINA	ERAKUSLEA	IZENORDAINA	IZENA
1;11;29	1 (?)	-	-
2;02;14	-	-	-
2;03;25	2	-	-
2;04;15	-	-	-
2;05;00	-	-	-
2;05;12	1	-	-
2;05;26	1	-	-
2;07;09	2	-	-
2;07;30	4	-	-
2;09;05	2	-	-
2;09;22	2	-	-
2;10;11	1	-	-
2;10;22	-	1	-
2;11;25	2	-	-
3;00;17	1	1	-
3;01;24	1	-	-
3;02;14	6	-	-
3;03;07	3	-	-
3;04;04	13	-	2 (1)
3;05;09	-	-	-
3;06;17	2	-	-
GUZTIRA	43	2	2
PORTZENTAIA	% 92	% 4	% 4

(?) Zalantzakoa

(1) Hau, plurala da.

**4.-TAULA: ADITZ EZ-KOPULATIBOA AZALTZEN DEN EKOIZPENETAN, ABSOLUTIBOAK SUBJEKTU ETA O. ZUZEN FUNTZIOETAN GAUZATZEN DIREN KATEGORIAK.**

ADINA	SUBJEKTUAK					O. ZUZENAK				
	ERAKUSL EA	IZENOR DAINA	IZENA	IZEN PROPIOA	BI OSAGAI	ERAKUS LEA	IZENA	IZEN PROPIOA	BI OSAGAI	BESTE OSAGAI
2;02;25	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
2;03;12	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
2;03;25	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
2;04;15	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
2;05;00	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
2;05;12	2	-	-	-	-	2	-	-	-	-
2;05;26	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
2;07;09	1	-	3(1)	1	-	1	2	-	2	-
2;07;30	-	-	10	-	-	1	1	-	-	-
2;09;05	-	-	-	-	2	-	6	1	-	-
2;09;22	1		2	-	-	4	7 (1)	-	-	1
2;10;11	1	2 (1)	4	-	-	5	13(5)	-	2	-
2;10;22	-	1	3	-	-	-	3	-	4	1
2;11;25	-	-	3	2	1	1	4 (1)	-	4	-
3;00;17	2	-	-	-	-	3	3	-	1	-
3;01;24	-	1	2	-	-	1	2 (2)	-	1	-
3;02;14	-	-	2	-	-	2	4 (1)	-	8	1
3;03;07	1	-	1	-	-	-	1	-	4	1
3;04;04	-	-	2(1)	-	-	-	2	-	4	-
3;05;09	1	2	1	1	1	2	3 (3)	-	6	1
3;06;17	-	1	2	1	-	1	4	-	7	-
GUZTIRA	9	8	37	6	4	23	55	1	43	5
PORTZEN TALA	% 14	% 13	% 58	% 9	% 6	% 18	% 43	% 1	% 34	% 4

Parentesi artean azaltzen direnak pluralak dira.

#### 5.-.TAULA: ATRIBUTUA GAUZATZEN DEN KATEGORIAK

ADINA	ATRIBUTUAK			
	IZEN PROPIOA	IZENA	ADJEKTIBOA	BI OSAGAI
1;11;29	1 (?)	-	-	-
2;02;14	1	-	-	-
2;03;25	-	1	1	-
2;04;15	-	-	-	-
2;05;00	-	-	-	-
2;05;12	-	-	-	-
2;05;26	-	1	1	
2;07;09	3	6	2	1
2;07;30	1	-	-	1
2;09;05	-	2	1	-
2;09;22	1	1	-	2
2;10;11	1	2	-	-
2;10;22	-	1	-	-
2;11;25	1	2	-	-
3;00;17	1	-	3	-
3;01;24	-	-	-	1
3;02;14	-	1	1	4
3;03;07	-	-	2	1
3;04;04	-	3 (1)	1	10
3;05;09	-	-	-	-
3;06;17	-	-	1	-
GUZTIRA	9	20	13	20
PORTZENTAIA	% 15	% 32	% 21	% 32

(?) Hau, zalantzakoa da

## 9. 2 . ERGATIBO KASUAREN JABEKUNTZA-BILAKABIDEA

### A) Emaizak eta azterketa



Ergatiboaren lehen morfema azaldu aurretik, kasu honen beharra duten zenbait ekoizpen aurkitu dugu. Kontuan edukiz haur honen corpusaren lehen datuak 1;11;00 adinekoak direla, hasiera batean mota honetako ekoizpen gehienak hitz bakar batez edo bi hitzez osatutakoak dira eta erreferentea bere burua edo ingurukoren bat izaten da. Ikus ditzagun hauetako batzuk:

(1) Gure haurra eta bere lagun bat yogur bana ari dira jaten. Hizketa-lagunak ere lagundu egiten die eginkizun horretan, oraindik gai ez direnez beraiek bakarrik jateko. Bitartean yogurraren paperari buruz ari dira hitz egiten, eta haurrak honela dio:

Haurrak: Piu (Peruk) pape(ra) (1;11;10)

Hizketa-lagunak: Peruk kendu du papera, oso ondo.

(2) Hizketa-lagunak haurrari galdetzen dio ea non egiten duen lo berak eta bere aitak:

Hizketa-lagunak: - Eta hemen zeinek? aitatzok hemen?

Haurrak: aita (aitak) (1;11;29)

Hizketa-lagunak: aitak hor lolo? seaskan aitak?

(3) Jostailuzko tren batekin ari dira jolasten:

Hizketa-lagunak: ai! askatu inda. Ipini, ipini ondo.

Haurrak: Itzia(rrek) (2;01;03)

Hizketa-lagunak: nik, nik jarriko dut.

(4) Ipui bat ikusten ari dira eta honela dio haurrak:

Haurrak: ni(k) igela (2;02;25)

Hizketa-lagunak: igela eskatuko duzu zuk?

Haurrak: ba(i)

Ergatiboaren kasu-marka izan daitekeen lehen aztarna 2;03;25 adinean aurkitu dugu. Hitz bakar bateko ekoizpena da, eta Ergatiboaren fonema azaldu behar duen lekuan, hau da, hitzaren azkenean, aspirazioa adierazten duen fonema ekoizten du.

(5) Jostailuzko kamioi batekin ari dira jolasten, eta hizketa-lagunak honela galdetzen dio:

Hizketa-lagunak: ta zeinek ekarri dizu hori?

Haurrak: aitattuh (2;03;25)

Hizketa-lagunak: aitatzuk?

Haurrak: bai

Ezin dugu ziurtatu Ergatibo baten aurrean gaudenik, noski, baina bai agian kasu honi dagokion fonema izan nahi duenaren aurrean. Bestalde, ordea, ekoizpen hau nahiko isolaturik dago, kontuan hartuz lehen Ergatibo marka hilabete eta erdi berandago azalduko dela.

Gainera, adin berdinean Ergatibo kasuan egon behar lukeen beste ekoizpen bat aurkitzen dugu:

(6) hau Piu (Peruk) (2;03;25)

Bitartean ordea, bi argumentudun (Nor-Nork) aditzetan subjektuarekiko lehen eta hirugarren pertsona singularraren komunztadura azaltzen da, horrela ergatibotasuna adieraziz:

(7) Peu (Peruk) azin (ezin) du (2;04;15)

(8) lalut (nahi dut) be bota (2;04;15)

(9) bota lu (du) (2;04;15)

Ergatibotasuna azaldu arren, zortzi ekoizpen aurkitu ditugu 2;05;12 adina bitartean Ergatibo kasu-marka behar eta ez dutenak.

Bestalde, 2;05;00 adinean ekoizpen harrigarri baten aurrean gaude. Izan ere Ergatibo kasuari dagokion kasu-marka garbia ekoizten du Jabego-genitiboarenaren orde. Azken kasu honen lehen ekoizpena hamabost egun lehenago azaldu da eta badirudi Ergatiboaren kasu-markarekin --oraindik ekoiztu ez duen markarekin-- nahastu duela.

(10) Txakur batzuei buruz ari dira hizketan. Hizketa-lagunak honela dio:

Hizketa-laguna: klaro! Txarpa. Orduan Hiru du izena Miguel Mariren txakurrak?

Haurrak: no Piuk (2;05;00)

Hizketalagunak: a! Peruna da?

Haurrak: bai

Horrela bada, nahiz eta Ergatiboari dagokion kasu-marka ekoiztu duen, lehen Ergatiboa 2;05;12 adinarekin ekoizten du aztertzen ari garen haurrak. Alde batetik aditzik gabeko ekoizpenak aurkitzen ditugu:

(11) totokak?<sup>46</sup> (dortokak?) (2;05;12)

(12) hori Begok (2;05;12)

(13) hau Piuk (Peruk) kottote (kotxe) ha(u)ndia (2;05;12)

Aditz jokatua azaltzen den ekoizpenetan ere agertzen dira ordea, bai bi argumentudun aditzetan (nor-nork) (14), bai hiru argumentudun aditzetan ere (Nor-Nori-Nork) (15):

(14) holi (hori) nik ingot (egingo dut) (2;05;12)  
eman behar diot (2;05;12)

(15) nik

Gainera, hemendik aurrera transkribapen guztietan aurkituko dugu kasu hau emankortasunez, nahiz eta ikusiko dugunez, behar den guztietan ez ekoiztu. Izan ere,

---

<sup>46</sup> Ekoizpen hau imitazioa izan daiteke, errepikapena baita.

Ergatiboaren kasu-marka azaltzen den transkribapen berean, marka hau behar duten zenbait ekoizpen badaude kasu-markarik gabe. Hauen artean, Ergatibo markaz ekoiztu duen hitz bera:

(16) Piu (Peruk) ebili (ibili)(2;05;12)

(17) Piru(k) haundia (2;05;12)

Arazo hau bera corpus osoan zehar ikus genezake, hau da, Ergatiboaren kasu-markaz ekoiztutako zenbait hitz, adin berean edo beranduago kasu honi dagokion markarik gabe azaltzen dira:

(18) etsunai (ez du nahi) amak ( 2,05;26)

(19) ama hemen da(u)ka (2;07;09)

(20) nile Malgak (nire Margak) (3;03;07)

(21) nile (nire) Ma(r)ga laka (dauka) miña (3;03;07)

Kasua ezagutu arren batzuetan erabili eta besteetan ez erabiltzearen arrazoietako bat, gure ustez, arazo fonologikoetan egon daiteke. Ergatiboaren kasu-marka, hitzaren amaieran doan leherkari belarea dugu, eta badirudi haur honek zailtasunak dituela, ez bakarrik fonema honekin, hitzaren azkenean doan leherkari horzkariarekin ere.<sup>47</sup> Horrela bada, corpus honetan azaltzen diren 162 Ergatiboetatik 81 (%50) bokalurreko posizioan ekoizten ditu, 58 (%36) ekoizpenaren azkenean azaltzen dira eta 23 (%14) kontsonante aurreko posizioan (8. taula). Azken posizio hau da gutxien azaltzen dena eta ahozkatzen zailena, kontuan edukiz Ergatiboaren morfema behar eta azaltzen ez den ekoizpenen kopurua 55ekoa dela, eta gehienetan, %54an, kontsonanteaurreko posizioa behar lukeela morfemak, ekoizpenaren bukaeran %24an eta bokalurrean %22an (9. taula). Baina hiru urtetik aurrera, portzentaia hauek aldatu egiten dira eta kasu honi dagokion morfema behar eta azaltzen ez den posizio guztiak, bat izan ezik, kontsonanteaurrekoak dira. Gure haurren datu hauek, arazo fonologikoen aurrean gauden hipotesia indartzen dutela dirudi.

Beste arrazoi bat, kasu honen jabekuntza ondo finkatua ez egotea izan daiteke, baina Ergatiboaren ekoizpena eta ez-ekoizpena ia azterketa amaitzen den bitarteraino ematen denez, ez dugu uste arrazoi honek pisu handirik duenik. Gainera, gorago aipatu dugunez, ergatibotasunak ere, hau da, Subjektuarekiko komunztadurak aditzean, adierazten du kasu honen jabekuntza. Ergatiboaren kasu-marka azaldu aurretik, ergatibotasuna azaltzen dela adierazi dugu. Geroztik ere, eta corpus osoan zehar, adierazitako komunztadura azaltzen da.

(22) hori eztauka (dauka) haundia? (2;05;12)

(23) butikulut (bustiko dut) kotxea? (2;07;09)

(24) t(r)ena egingo lut (dut) (2;07;30)

(25) hemen ipintzen du kamiona (kamioia) (2;09;05)

(26) o(ra)in kenduko dut (2;09;22)

(27) jan dut txikle(a) (2;10;11)

(28) etuko (hartuko) dut peñelo (painuelo) bat Iti (Itziar)?

---

<sup>47</sup> Beste ekoizpen askotan gertatzen den moduan, Ergatiboari dagokion corpusean ere aurki daitezke fonema leherkari horzkari gabeko ekoizpenak: "ta hau rauka (daukat) (he)men" , "etu (ez dut) nahi".....

- (29) ikusi dugu tutu punba (kotxe) bat, sexiento (seiscientos) bat (2;11;25)  
(30) ho(r)i nahi dut (3;00;17)<sup>48</sup>

Hiru urte bitartean<sup>49</sup> Subjektu Ergatiboa dutela azaldutako ekoizpenak 76 dira, eta Subjekturik gabeak, hau da, Ergatibotasuna aditzean bakarrik erakutsiz, 106. Horrela, Subjektu Ergatiboen azalpena %42koa da eta %58tan ez du Subjekturik adierazten<sup>50</sup>. Hau ordea, Absolutiboaren azterketa egiterakoan aipatu dugunez, ohikoa da euskara bezalako hizkuntza "pro-drop" batean.

Ergatibo kasua behar ez denean ere ekoizten du zenbaitetan gure haurrak. Hau gutxitan egiten du, nahiz eta azterketaren azken transkribapenean ere behar ez diren Ergatiboak ekoiztu. Mota honetako lehen ekoizpena jadanik ikusi dugu (10.adibidea) eta bigarrena, Ergatiboa lehen aldiz ekoizten duen adin berekoa da. Hizketa-laguna eta haurrak jostailuzko grua eta kamioi batekin dabilta, hauek norenak diren eztabaidatzen. Momentu batean hizketa-lagunak kamioi bat erakutsiz honela dio:

(31) Hizketalagunak: bueno, Perunak bai, baina jolastekun. Itxiten doztazuz niri? tratora eta hau? ala zutzako hau?

Haurrak: hau Begok (2;05;12) (kamioiari begira)

Ergatiboaren ordeztu, Destinatiboa edo agian Datiboa beharko luke. Destinatibo kasua, geroago ikusiko dugunez, adin honetan azaltzen da eta Datiboa, berriz, 2;07;09 arte ez da ageri haur honen corpusean. Badirudi, Ergatiboa ikasten ari dela, eta kasu hori erabili duela, ezagutzen ez duen kasu baten ordeztu. Beste ekoizpen guztietan, Absolutiboaren ordeztu dago Ergatiboa eta azterketa amaitzen den arte aurki daitezke ordeztaketa hauek:

(32) nik oso handia naiz eta zuk oso txikia zara eta nik montatzen naiz (2;09;22)

(33) nor zara zuk? (2;10;22)

(34) holako batean Iñigok etorri zan korrika (3;06;17)

Ergatibo plurala, lehen Ergatiboa azaldu eta bi hilabete ta erdi beranduago ekoizten du. Hitz bakar batez osatutako ekoizpena da, eta kasu-marka erakusle batean gauzatzen du:

(35) hauek (2;07;30)

---

<sup>48</sup> Ikus daitekeenez, lehen aipaturiko fonema leherkari horskaria aditz askotan falta bada ere, arazo fonologikoengatik dela uste dugu, ez haurrak aditz forma hori ezagutzen ez duelako, ekoizpen hauetan ikusi daitekeenez.

<sup>49</sup> Nahiz eta azaltzen ari garen azterketa guztiak hiru urte eta erdi bitarterainokoak izan, azterketa konkretu hau hiru urte arteraino mugatu dugu.

<sup>50</sup> Gogoratu joera berdina ikusi dugula Absolutiboaren bilakabidea azaltzerakoan, Aditz kopulatiboa duten ekoizpenetako Subjektu Absolutiboetan.

Ekoizpen hau ordea, oso isolatuta dago, hurrengo Ergatibo plurala hiru urte bete ondoren ekoizten baitu:

(36) eta ho(ri)ek? (3;00;17)

Bi plural horiek besterik ez ditu ekoizten (%1) Ergatibo kasuan corpus osoan zehar. Ergatiboak beharko lituzketen beste bi ekoizpen aurkitu ditugu:

(37) txikiak? (txikiek) (3;02;14)

(38) gizonak (gizonek) ematen dute dinerua (3;04;04)

Ikusten denez, Ergatibo plurala eta singularra ez ditu bereizten, baina hau guztiz normala da, kontuan edukiz helduok ere askotan, batez ere solasean ari garenean, ez dugula Ergatibo plurala ondo erabiltzen. Konkretuki, haur honen hizketa-lagunak ez du bereizketa hau egiten berarekin hizketan ari denean<sup>51</sup>.

Hasiera batean, hitz bakar batez osatutako sintagma batean gauzatzen bada ere Ergatiboa (gehienak izenordainak edo izen propioak) (6. taula), bi hitzez osatutako sintagmetan ere azaltzen da, mota honetako ekoizpen guztietan kasu-marka sintagma hersten duen elementuari bakarrik jarriaz, hau da, behar den bezala:

(39) baino ume txikiak ez (2;09;05)

(40) be(s)te txaku(rr)ak (3;02;14)

(41) nile Malgak (nire Margak) (3;03;07)

(42) autobus bat apurtu zuen atzeko anderrek (3;06;17)

(43) hemen eramaten du kamioi honek (3;06;17)

(44) eta jarri nuen (zuen) kolonia bat nire amak (3;06;17)

Gorago aipatu dugunez, Ergatibo kasua batez ere izenordainetan gauzatzen da, corpus osoaren arabera %67a suposatuz. Hauetatik gehienak, %76a, lehenen pertsonari dagozkio (6. taula). Bera da lehen agertzen dena eta transkribapen gehienetan zehar azaltzen da. Izenordainaren bigarren pertsona Ergatibo kasuan, lau hilabete beranduago azaltzen da 2;09;05 adinaz ekoizten du lehen aldiz eta transkribapen gehienetan azaltzen da:

(45) zuk e(z) dakizu (2;09;05)

(46) zein n(ahi d)uzu zuk? (2;09;22)

(47) zuk ha(r)tu bat eta nik be(s)te bat bale? (2;10;22)

Subjektu Ergatiboa gauzatzen den beste kategoria batzuen artean, izen propioa dago %13an, izen arrunta %9an eta erakuslea %4an. Geratzen den %6a bi osagai edo beste kategoriaren bati dagokie.

## B) Laburpena

---

<sup>51</sup> Alfabetatua denez, ordea, zihur gaude gai dela bereizketa hau egiteko.

Ergatibo kasuaren jabekuntzaren azterketa amaitu ondoren, orain arte esandakoa laburbiltzen saiatuko gara. Absolutibo kasuan gertatzen ez den bezala, oso erraza da kasu honi dagokion fonema identifikatzea. Bestalde, ordea, ez da hain erraza fonema honen ahoskera, eta konkretuki guk aztertu dugun haurrak zailtasunak ditu fonema hau ahoskatzerakoan, batez ere kontsonante aurrean. Hori dela-eta, badirudi Ergatiboari dagokion kasu-marka behar den askotan ez duela erabiltzen, eta honen arrazoietakoa bat arazo fonologikoetan egon daiteke.

Ergatiboa ekoiztu baino hilabete lehenago, aditzean Subjektuarekiko komuntzadura azaltzen da, horrela ergatibotasuna adieraziz. Lehen Ergatiboak 2;05;12 adinaz ekoizten ditu, eta kasu honen emankortasunaz haseratik hitz egin daiteke, kontuan edukiz corpus osoan zehar azalduko dela kasu hau (6. taula).

Bestalde, honek ez du esan nahi kasu hau behar den guztietan erabiltzen duenik, ekoizpen ugari baitago kasu-markarik gabe, konkretuki %25. Arazo hau, ordea, azterketaren azken aurreko transkribapenean ere ikus daiteke, hau da, 3;05;09 adinean. Gainera, kasu-markarik gabe azaltzen diren zenbait hitz, behin eta berriro kasu-markarekin jadanik azaldu diren berak dira. Hau da, batera ekoizten ditu kasu-marka dutela eta gabe hitz berak. Hori dela-eta, laburpenaren hasieran aipatutako fonetika arazoak izan daitezke zenbaitetan, gure ustez, kasu-marka honen agerpen ezaren arrazoiak. Izan ere, eta azterketan aipatu dugunez, Ergatiboaren kasu-marka hitzaren amaieran doan leherkari belarea dugu, eta zenbaitetan zaila gertatzen da fonema honen ahoskera, batez ere kontsonante baten aurrean ahoskatzen denean. Posizio honetan, %14 Ergatibo besterik ez du ekoizten (8. taula) eta kasu honen beharra izan eta azaltzen ez denean, portzentaia handiena kokagune honi dagokio, %54a hain zuzen (9. taula). Arazo fonetikoek, ordea, ez dute Ergatibo marka-ezaren arazo guztia argitzen, Ergatibo kasua ekoiztu aurretik, kasu honek duen marka bera ekoiztu baitu haurrak testuinguru ez-Ergatiboetan.

Azterketan ikusi ahal izan dugunez, Ergatibotasuna Ergatiboaren kasu-marka bera baino lehenago azaltzen da aztertzen ari garen haurraren hizkuntzan. Ugariak dira gainera mota honetako ekoizpenak: %58ra iristen dira hiru urte bitartean. Ergatibotasunaren presentzia, hortaz, Ergatiboa bera azaldu gabe, nabaria da haur honen hizkuntzan.

Orain arte behar diren Ergatiboen ez-azalpenari buruz aritu bagara ere, alderantziz ere gertatzen da, hau da, kasu hau behar ez den ekoizpenetan agertzea. Ez da askotan gertatzen eta ekoizpen batean izan ezik, Absolutiboaren ordez daude.

Pluralaren lehen ekoizpena, Ergatiboa azaldu eta bi hilabete eta erdi beranduago ekoizten du haurrak, eta bigarrena hiru urte bete ondoren. Ez dugu aurkitu beste Ergatibo pluralik corpus osoan zehar, eta bestalde ez ditu bereizten Ergatibo singularra eta plurala. Aipatu dugunez, hau guztiz normala da, kontuan izanik helduok ere gehienetan ez dugula bereizketa hau egiten hitz egiterakoan.

Azkenik, Ergatiboa gauzatzeko haur honek gehienetan erabiltzen duen kategoria (%67) izenordaina da (6. taula), eta lehen pertsona da aurrena azaltzen dena eta ugariena. Absolutibo kasuan ekoiztutako subjektuetan, ordea, kategoria hau oso gutxitan azaltzen da, eta erakuslea da ugariena.

#### D) Emaizten eztabaida

Jarraian, Ergatibo kasua aztertu duten beste ikerketa batzuekin erkatuko ditugu gure emaitzak. Berrero ere Barreñaren (1993) ikerketa hartuz, berak aztertutako hiru hurrek -- hauetako haur bat, gure azterketan erabili dugun bera da-- nahiz eta bi hurrek lehenago ekoiztu Ergatibo batzuk, kasua emankortasunez 2;04;11 adinetik, 2;05;26 adina bitartean erabiltzen dute. Hala eta guztiz ere, bi hurrek lehenago erabiltzen dute Subjektuarekiko komunztadura, horrela ergatibotasuna adieraziz. Ikus daitekeenez, ikerketa honetan azaltzen diren emaitzak eta gureak nahiko berdinak dira, guk aztertutako haurrak 2;05;12 adinaz ekoizten baitu Ergatiboa eta Subjektuarekiko komunztadura aditzean, hilabete lehenago.

Bestalde, Ergatiboaren erabilpen-eza ere aipatzen du Barreñak (1993) hiru haurretan. Haur batek, elebakarrak hain zuzen, arazo hau goiz gainditzten duen bitartean, beste biek, agian arazo fonologikoak direla medio, agian elebidunak direlako edo haur bakoitzaren bilakabidea ezberdina delako, epe luzeagoan jarraitzen dute Ergatiboaren kasu-marka ez adierazten. Gure azterketan aipatu dugunez, hori bera ikusi dugu gu aztertzen ari garen haurraren ere.

P. Larrañagaren (1994) azterketan, berak aztertutako haurrak 1;09;04 adinaz ekoizten du lehen Ergatiboa. Baina kasu hau emankortasunez 2;04;00 adinean hasten da ekoizten. Hala eta guztiz ere, ez du kasu hau erabiltzen behar den testuinguru guztietan eta, adina aurrera doan neurrian, Ergatibo-testuinguruetan Absolutiboak gutxitzen badoaz ere, ikerketa amaitu arte jarraituko du Absolutiboak erabiltzen Ergatiboaren orde. Autore honek ere Ergatiboaren kasu-marka ekoizteko zailtasunetako bat, arazo fonetikoetan egon daitekeela ikusten du. Horrela bada, parekotasun nabaria ikus genezake Larrañagak eskainitako emaitzen eta gureen artean, kontuan edukiz haren haurrak 2;04;00 adinaz ekoizten duela Ergatiboa emankortasunez, eta gureak 2;05;12 adinaz, hau da hilabete eta erdi beranduago, baina bestalde ergatibotasuna aditzean 2;04;15 adinaz ikus daitekeela gure haurraren. Guk adierazten dugunez, hark ere Ergatiboa ez ekoiztearen arrazoietako bat, zailtasun fonetikoetan egon daitekeela ikusten du, nahiz eta argudio honek ez dion balio hasierako ekoizpenetarako.

N. Imedazde- K. Tuiteren (1992) azterketaren aipamena ere egina dugu jadanik. Bertan zantxak kasuren azterketa egiten dute eta horien artean orain aztertzen ari garen Ergatibo kasuarena azaltzen da. Kasu honen azalpena goiztiarra dela diote<sup>52</sup>, Absolutibo kasuaren jabeak ondoren, ia Genitiboarekin eta Datiboarekin batera ekoizten baitute beraiek aztertutako bost hurrek, nahiz eta georgieraz Ergatibo kasuak dituen bi aldaeretatik, hasieran bat besterik ez erabili. Guk ere ikusi ahal izan dugu Ergatibo kasua Absolutiboaren ondoren ekoizten duela gure haurrak, eta ikerketa honetako partaideen adin berdintsuan gainera.

M. J. Ezeizabarrena eta M. P. Larrañagak (1994) ergatibitateari buruzko lan batean haur elebidun bat aztertu zuten 1;07 adinetik 4;00 bitartean. Bertan, Ergatiboaren morfema ekoizteko

---

<sup>52</sup> Ikerketan ez dute adinaren aipamen zehatzik egiten, kasu honi dagokionez. Baina Datiboarekin parekatu edo pixka bat beranduago azaltzen dela diote, eta Datiboa ia Genitiboarekin batera ekoizten du, hau da, 1;08;21 adinetik 2;04;17 adina bitartean, haur bakoitzaren arabera. Hortaz, adin hauen inguruan kokatzen dute Ergatiboaren azalpena.

haurrak dituen arazoak azpimarratzen dituzte. Alde batetik arazo fonologikoak aipatzen badituzte ere, beraien ustez ez da hori azken arazoa, kontuan edukiz bokal aurreko posizioan ere huts egiten duela haurrak eta posizio honetan inolako arazorik ez duela fonema bera ahoskatzeko beste hitzetan. Gainera, arazoak fonologikoak bakarrik balira, Absolutibo pluralean ere berdin gertatuko litzatekeela diote, baina pluralaren morfemen ez-agerpen gehienak ekoizpenaren amaieran gertatzen direnez, arazo fonologikoekin erlazionatzen dituzte hauek. Bestalde, Ergatiboa bai izen-sintagman bai aditzean azaltzen denez, aditzean ez dute arazorik aurkitu, baina izen-sintagman 2;04 adina arte ez dela agertzen eta 3;02 adinean ere oraindik nahasketak ikus daitezkeela bokalurreko posizioetan ere. Horrela bada, Ergatibitatearen jabekuntza euskaraz, era ezberdinetan lortzen dela izen-sintagman eta aditzean diote.

Gure haurraren datuetan ere ikusi ahal izan dugu bokal aurreko posizioan, %22tan (9. taula), ez duela Ergatiboaren morfemarik ekoizten. Hiru urtetik aurrera ordea, ekoizpen batean salbu (hau azken posizioan), hutsegite guztiak posizio prekонтsonantikoan egiten ditu. Datu hauek, arazo fonetikoaren aurrean gauden argudioa indartzen dute. Baina zailtasun honez gain, beste arazoren baten aurrean gaudela dirudi kasu honen jabekuntzari dagokionez, kontuan izanik kasu honi dagokion morfema, kasua bera azaldu aurretik beste tetuinguru ez Ergatiboetan ekoiztu duela haurrak bokalurrean, lehena 1;11;00 adinaz, hau da, azterketa hasten den momentutik. Ergatibo kasua, ordea, sei hilabete beranduago ekoiztuko du lehen aldiz. Ezeizabarrena-Larrañagaren (1994) haurrak bezala, gureak ere lehenago ekoiztu du ergatibotasuna aditzean izen-sintagman baino, nahiz eta bi ekoizpenen arteko epea txikia izan gure haurraren, hilabete batekoa konkretuki. Horrela bada, gure ustez Ergatiboaren jabekuntza-bilakabidean, haurrak zailtasun fonologikoekin topo egiten badu ere, azaldu ditugun emaitzek erakusten dute ez dela arazo bakarra, Ergatibo kasuak berak zailtasunak dituela jabekuntzan baizik.

### **9. 2. 1. Ergatibo kasuari dagozkion ondorioak**

Aztertzen ari garen kasuaren emaitzen argitan eta hauen azterketa egin eta gero, ondorio hauek atera ditugu:



1.- Ergatibo kasuari dagokion morfema bera baino hilabete lehenago azaltzen da Subjektuarekiko komunztadura aditzean, horrela Ergatibotasuna adieraziz:

(48) bota du (2;04;15)

Aipatutako komunztadura, Ergatibo-marka bera baino gehiagotan azaltzen da gainera.

2.- Lehen Subjektu Ergatiboa, 2;05;12 adinean ekoizten du haurrak:

(49) nik eman behar diot

3.- Ergatiboa ezagutu arren, zailtasunak ditu morfemaren ekoizpena lortzeko, %25etan Subjektuak dagokien kasu-markarik gabe azaldu baitira, eta gure ikerketa amaitu baino hilabete lehenago arte zailtasun artean jarraituko du:

(50) ni(k) lagunduko dizut (3;05;09)

Bestalde, ordea, ikerketa hersten duen transkribapenean azaltzen da Ergatiboen kopuru gehiena. Hortaz, azken datuek zailtasunaren gaitzitatea erakusten badute ere, azterketa jarraitu egin beharko litzateke haur honek zailtasunak gaitzitu dituen ala jarraitzen duten argitzeko.

4.- Ergatibo kasuaren morfema ekoizterakoan aurkitu ditugun zailtasunak, gehienetan kontsonante aurreko<sup>53</sup> testuinguruari dagozkio. Testuinguru honek zailtasun handienak ditu indartzeko, kasu honen beharra izan arren ekoiztu ez dituen Ergatiboen erdia baino gehiago testuinguru honetan azaldu behar luketeela esan genezake. Datu hauek, arazo fonetikoaren aurrean gauden argudioaren aldekoak dira.

5.- Arazo fonetikoaren aldeko argudioa indartzeko, hiru urtetik aurrera ekoiztu ez dituen Ergatibo marka guztiak, bat izan ezik, kontsonante aurreko testuinguruak direla da. Bestalde ordea, arazo fonetikoaz gain, badirudi beste arazoren bat dagoela, kontuan izanik, alde batetik, bokal aurreko posizioan ere huts egiten duela hiru urte bitartean:

(51) badaki jon(ek) egiten hau (2;10;11)

eta bestetik, posizio berean ekoiztu duela testuinguru ez-Ergatiboetan kasu honek duen morfema bera, Ergatiboa azaldu aurretik.

6.-Aditz kopulatiboa daramaten ekoizpenetako Subjektu Absolutiboetan gertatzen den bezala, ugariak dira Subjektu Ergatiborik gabeko ekoizpenak, %58a hain zuzen<sup>54</sup>.

7.- Ergatiboari dagokion kasu-marka, gehienetan (%67) izenordain batean azaltzen da.

---

<sup>53</sup> Gorago aipatu dugunez, Ergatiboari dagokion kasu-marka, hitzaren amaieran doan leherkari belarea dugu, ahoskatzerakoan zailtasunak dituen.

<sup>54</sup> Gogoratu, datu hau hiru urte bitartekoa dela Ergatiboaren kasuan.

8.- Ergatibo pluralaren azalpena oso urria da (%1) eta hitz bakarreko ekoizpenetan azaltzen da. Bestalde, Ergatibo plurala eta singularra ez ditu bereizten guk aztertutako haurrak.

9.- Kasu hau azertu duten beste ikerketekin egindako erkaketaren ondorio gisa, puntu hauek ikusi ahal izan ditugu:

a) Subjektuarekiko komunztadura aditzean, hau da Ergatibotasuna, lehenago azaltzen da Ergatiboaren marka bera baino, guk aztertutako ikerketetan euskaraz jabetzen diren haurretan.

b) Ergatibo kasua, Absolutiboaren ondoren azaltzen da guk azertu ditugun ikerketetako haur gehienetan, geurea barne.

d) Euskaraz jabetzen diren haur guztiek, zailtasunak dituzte Ergatiboaren kasu-markarekin, ikerketa bateko haur elebakarrak arazoa lehenago gaintitzen duen arren. Arazo fonetikoak izan daitezke zenbaitetan, baina honek ez du arazo guztia argitzen, batez ere jabekuntzaren hasieran.

## 9.2.2. - TAULAK

### 6.TAULA: ERGATIBO MARKAREN AZALPENA HAINBAT KATEGORIATAN

ADINA	IZENA	IZENORDAINA	I.PROPIOA	ERAKUSL	BI OSAGARRI	BESTE	GUZTIRA
-------	-------	-------------	-----------	---------	-------------	-------	---------

					EA		BATZUK	
		1. P	2.P					
2;05;12	1	2	-	2	-	-	-	5
2;05;26	1	-	-	2	-	-	-	3
2;07;09	-	3	-	1	-	-	-	4
2;07;30	2	1	-	3	2 (1)	-	-	8
2;09;05	1	2	1	1	-	1	1	7
2;09;22	-	7	2	1	-	-	-	10
2;10;11	-	6	-	1	-	-	-	7
2;10;22	1	3	3	1	-	-	-	8
2;11;25	-	5	6	6	-	-	-	17
3;00;17	-	3	3	-	1 (1)	-	-	7
3;01;24	1	4	-	1	-	-	1	7
3;02;14	2	7	1	-	1	1	1	13
3;03;07	-	5	5	2	-	1	-	13
3;04;04	1	8	3	-	1	-	2	15
3;05;09	-	9	-	-	1	-	-	10
3;06;17	5	17	2	1	-	3	-	28
GUZTIRA	15	82	26	22	6	5	6	162
PORTZENTAI AK	% 9	% 51	% 16	% 13	% 4	% 3	% 4	

Parentesi artean azaltzen direnak, pluralak dira.

## 7. TAULA: ERGATIBO MARKAREN EZ AZALPENA HAINBAT KATEGORIATAN

ADINA	IZENA	IZENORDAINA	I.PROPIOA	ERAKUSLEA	BI OSAGAI	GUZTIRA
-------	-------	-------------	-----------	-----------	--------------	---------

		1. P	2. P				
2;05;12	-	-	-	2	-	-	2
2;05;26	-	-	-	4	-	-	4
2;07;09	1	2	-	1	1	-	5
2;07;30	2	-	-	-	2	-	4
2;09;05	-	1	-	-	-	-	1
2;09;22	-	-	-	1	1	-	2
2;10;11	1	2	2	2	4	-	11
2;10;22	-	1	-	2	-	-	3
2;11;25	-	2	-	2	-	-	4
3;00;17	-	2	-	-	-	-	2
3;01;24	-	1	-	-	-	-	1
3;02;14	1	-	-	-	-	-	1
3;03;07	-	-	1	-	1	1	3
3;04;04	-	3	-	-	-	-	3
3;05;09	-	3	-	-	-	-	3
3;06;17	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	6	17	3	19	9	1	55
PORTZENTAIA K	% 11	% 31	% 5	% 35	% 16	% 2	

## 8. TAULA: ERGATIBO-MARKAREN KOKAGUNEA

ADINA	BOKAL AURREA	KONTSONANTE AURREA	AZKENA	GUZTIRA
2;05;12	2	1	2	5
2;05;26	-	-	3	3
2;07;09	1	2	1	4
2;07;30	1	2	5	8
32;09;05	3	-	4	7
2;09;22	3	3	4	10
2;10;11	3	1	3	7
2;10;22	3	2	3	8
2;11;25	10	2	5	17
3;00;17	5	-	2	7
3;01;24	4	-	3	7
3;02;14	5	4	4	13
3;03;07	9	-	4	13
3;04;04	9	1	5	15
3;05;09	7	1	2	10
3;06;17	16	4	8	28
GUZTIRA	81	23	58	162
PORTZENTAIK	% 50	% 14	% 36	

**9. TAULA: ERGATIBOAREN MARKA AZALTZEN EZ DENEAN, AZALDUZ GERO BEHAR LUKEEN KOKAGUNEA**

ADINA	BOKAL AURREA	KONTSONANTE AURREA	AZKENA	GUZTIRA
2;05;12	2	-	-	2
2;05;26	1	1	2	4
2;07;09	1	3	1	5
12;07;30	1	1	2	4
32;09;05	-	1	-	1
2;09;22	-	1	1	2
2;10;11	3	6	2	11
2;10;22	1	1	1	3
2;11;25	1	3	-	4
3;00;17	-	2	-	2
3;01;24	-	1	-	1
3;02;14	-	-	1	1
3;03;07	-	3	-	3
3;04;04	-	3	-	3
3;05;09	-	3	-	3
3;06;17	-	-	-	-
GUZTIRA	12	30	13	55
PORTZENTAIK	% 22	% 54	% 24	

### 9. 3. DATIBO KASUAREN JABEKUNTZA-BILAKABIDEA.

#### A) Emaitzak eta azterketa

Aditzarekin komuntadura duen azken kasuaren azterketari ekingo diogu. Ikusiko

dugunez, Partitibo kasua alde batera utziz, Datibo kasua da beranduen agertzen dena eta kopuru aldetik urriena ere.

Datiboari dagokion kasu-markarekin azaltzen den lehen ekoizpena --hau da, lehen Zehar objektua-- 2;07;09 adinaz agertzen da aztertzen ari garen haurraren, eta, ikusten denez izen bati erantzen zaio kasu-marka, bera baita ekoizpena osatzen duen elementu bakarra:

(1) gizonari ( 2;07;09)

Bi hilabete lehenago ordea, aditzean kasu honi dagokion komunztadura azaltzen da, Datibotasuna adieraziz:

(2) nik eman behar diot (2;05;12)

Ergatibo kasua azertu dugunean ere antzeko zerbait ikusi dugu, hau da, Ergatibotasuna aditzean Ergatiboaren kasu-marka bera baino hilabete lehenago azaldu dala.

Baina bi ekoizpen hauek nahiko isolaturik azaltzen dira, kontuan edukiz lau hilabetetan zehar hauek direla kasu honekin zerikusia duten ekoizpen bakarrak. Horrela, Datibo kasuan azaltzen diren ondorengo ekoizpenak 2;09;22 adinaz ekoizten ditu gure haurrak, oraingoan aditz jokatuarekin batera baina ez kasu honi aditzean dagokion komunztadurarekin:

(3) beti etu (ez du) hartzen zuli (zuri) (2;09;22)

(4) etu (ez du) u(z)ten eneko(k) zuli (zuri) (2;09;22)

(5) u(z)ten du nili (niri) eta beti u(z)ten du nili (2;09;22)

Adin berdinean agertutako beste ekoizpen batean, ordea, nahiz eta Datibo kasua agerian ez egon<sup>55</sup>, aditzarekiko komunztadura agertzen da.

(6) iku(s)ten dizut (2;09;22)

Ekoizpen honetan, ordea, hiruargumentudun (nor-nori-nork) adizkia erabili ordez, biargumentuduna (nor-nork) erabili beharko zukeen haurrak, hau da, "ikusten zaitut" litzateke ekoizpen egokia testuingurua kontuan izanik. Kontuan hartzekoa da, ordea, erabilera mota hauek helduon hizkuntzan ere sarritan ikusten direla.

Hiru urte eta erdi bitarteko corpus osoan zehar Datibo kasuaren marka dutela azaltzen diren ekoizpen gehienak, edo aditz jokatu gabekoak dira:

(7) gosaliari (gosariari) ez (2;10;11)

(8) o(s)tiko bat holi (horri) (2;10;11)

(9) ez d(e)itu Lideli (Lideri) (2;10;22)

(10) honei (2;11;25)

---

<sup>55</sup> Absolutibo kasua aztertzerakoan aipatu genuenez, euskarak Zehar objektuarekiko "pro-drop" a dauka. Hortaz ez da harrizkoa ekoizpenean Zehar objektua espreski ez azaltzea, aditzean islatzen denez

- (11) zorionak zuri (3;01;24)
- (12) zuri hori (3;02;14)
- (13) zuri dinerua eta niri dinerua (3;04;04)
- (14) lagundu niri (3;05;09)

edo aditzarekiko komunztadura ez du ondo egiten haurrak:

- (15) ikusi lugu (dugu) aita telebi(s)tan, esan du (diot) abu (agur) aitali abu (aitari agur) (2;10;11)
- (16) kenduko det (diot) Itziarri (2;10;22)
- (17) zabalduko dut (dizut) zuri atea (2;10;22)
- (18) ze(r)gatik eman duzu aitari (3;04;04)

Datibo kasua eta aditzarekiko komunztadura ondorengo bi ekoizpenetan besterik ez da azaltzen:

- (19) ez, niri ez zait gustatzen ezer (2;10;22)
- (20) ematen didazu niri ? (3;04;04)

Horrela bada, Datibo kasuari dagokion kasu-marka eta aditzarekiko komunztadura ekoizpen berean azaltzen badira, ekoizpena bitan bakarrik gertatzen da gramatikala. Baina Datiboari dagokion kasu-marka, hau da, Zehar objektua azaltzen ez bada, aditzarekiko komunztadura ia beti ondo egiten du. Ikusi dugunez, hiru urte aurretik bi ekoizpen besterik ez ditugu aurkitu kasu honi dagokion komunztadura azalduz, hortaz, aditzarekiko komunztadura emankortasunez, hiru urtetik aurrera gertatzen da:

- (21) gu(s)tatzen zaizu? (3;00;17)
- (22) pletatu (prestatu) dizut zure laranja ula (ura) (3;00;17)
- (23) txakurra, jango zaitut (3;02;14)
- (24) berandu egin zaigu (3;02;14)
- (25) entzuten dizut (3;02;14)
- (26) elakutsiko (erakutziko) dizut grua haundia (3;03;07)
- (27) ni(k) lagunduko dizut (3;05;09)
- (28) e(g)ingo diot hola (3;06;17)
- (29) ta apurtuko diot (3;06;17)
- (30) nik utziko dizut hau (3;06;17)
- (31) atera zait (3;06;17)
- (32) nik irabaziko dizut (3;06;17)

Aditzarekiko komunztadura ez du ondo egiten ondorengo bi ekoizpenetan. Lehenengoan (33) aditza ondo dago orainaldian, baina lehenaldian egon behar luke, eta bigarrenengan berriz (34) berak asmatutako forma ekoizten du:

- (33) hori erakutsi dizut atzo (3;04;04)
- (34) gustatzen zitzat (zait) (3;05;09)



Hortaz, haur honek ez dauka arazorik edo kasu-marka edo aditzarekiko komunztadura ekoizten dituenan. Badirudi, ordea, zailtasunak dituela aldi berean Datiboari dagokion morfema eta aditzarekiko komunztadura ekoizten dituenan, kasu hauetan komunztadura gaizki egiten baitu gehienetan. Esan genezake, haurrak erredundantea nabari duela bi prozedurak batera azaltzea, eta nahikoa iruditzen zaiola bietako bat adierazita. Horrela da, hain zuzen, helduen hizkuntzan ere, baina harrigarria gertatzen da ekoizpenean Datiboaren kasu-marka azaltzen bada, aditzarekiko komunztadura ia beti gaizki egotea, nahiz eta komunztadura ondo egin Datiboaren markarik azaltzen ez denean.

Bestalde, aztertzen ari garen kasu-markaren beharra izan eta gabe azaltzen diren ekoizpenak bi besterik ez dira<sup>56</sup>:

(35) bai, e(s)katuko dut (diot) olentzero(ri) (2;09;22)

(36) baina u(z)ten du (dio) zakola (zakurrari) jaten (2;09;22)

Adin berean ere, ez du behar den kasu-marka erabiltzen ondorengo bi ekoizpenetan. Badirudi Datibo eta Ergabiboz osatutako marka bat dela:

(37) zulik (zuri) ez (2;09;22)

(38) baina zulik (zuri) ez (2;09;22)

Ohar gaitezen, gainera, ekoizpen hauek Datibo kasua emankortasunez hasten den momentukoak direla eta, hasiera batean behintzat, haurrengan erabilera zuzena eta ez-zuzena aurkitzea ohikoa dela. Geroztik ordea, eta gure azterketa amaitzen den bitarteko corpusean zehar, ez dugu horrelako hutsegiterik aurkitu.

Horrela bada, corpus osoan zehar Datibo kasuari dagokion hogeita bost morfema zuzen ekoiztu ditu aztertzen ari garen haurrak, hau da, hogeita bost Zehar objektu (10. taula). Datibo gehienak (hamabost, %60a) izenordain baten bidez gauzatzen dira. Kasu honi dagokion marka hartzen duten beste kategoriak, izena (bost aldiz, %20a), izen propioa (hiru aldiz, %12a) eta erakuslea (bi aldiz, %8a) dira. Bestalde, Datibo kasu-marka hartzen duen izen-sintagma, beti elementu bakar batez osatutakoa da, corpusean ez baitugu aurkitu ekoizpen bakar bat ere bi elementuz osatutako izen-sintagma Datiboarekin. Gainera Datibo pluralik ere ez du ekoiztu haur honek nahiz eta ekoizpen batean (24) aditzean datiboarekiko komunztadura plurala azaldu. Bestalde, ordea, Datiboaren komunztadura aditzean, Datiboaren kasu-marka azaltzen ez den ekoizpenetan, hamasei aldiz ikus daiteke (11. taula). Aditz horiek bi argumentudunak (Nor-Nori) edo hiru argumentudunak (Nor-Nori-Nork) dira, eta singularreko hiru pertsonak erakusten dituzte, eta jadanik aipatu dugun lehen pertsona plurala ere ekoizten du behin.

## B) Laburpena

Jadanik aztertu ditugu aditzarekin komunztadura duten hiru kasuak: Absolutiboa,

---

<sup>56</sup> Ikus daitekeenaz, aditzarekiko komunztadura ere gaizki dago.

Ergatiboa eta Datiboa edo Subjektua, Objektu zuzena eta Zeharkako Objektua funtzioak. Hiruretatik, orain aztertu dugun Datiboa da haurrak azken ikasi duena eta, aldi berean, emankortasun gutxiena erakusten duena. Baina, laster ikusiko dugunez, emaitza hauek ez ditugu gure haurraren bakarrik ikusi, aztertu ditugun lan gehienetan antzeko zerbait gertatzen denez.

Horrela bada, kasu honen lehen ekoizpena 2;07;09 adinean azaltzen da aztertzen ari garen haurraren, nahiz eta hurrengo ekoizpenak bi hilabete eta erdi beranduagoak izan, hau da, 2;09;22 adinekoak. Hemendik aurrera, kasu hau emankortasunez ekoizten duela esan dezakegu. Bestalde, Datiboarekiko komunztadura erakusten duen aditz jokatu, lehen Datiboa bera baino bi hilabete lehenago azaltzen da, nahiz eta hau ere ekoizpen bakarra eta isolatua izan. Datiboa bera bezala, Datiboarekiko komunztadura ere 2;09;22 adinaz ekoizten du haurrak emankortasunez.

Azterketan zehar ikusi ahal izan dugunez, nahiz eta 2;09;22 adinerako bai Datibo kasua bera, bai kasu honekiko komunztadura aditzean emankortasunez azaldu haur honen hizkuntzan, arazoak ditu komunztadurarekin, ekoizpen berean Datiboaren kasu-marka, hau da, Zehar objektua eta komunztadura ekoizten dituen. Izan ere ekoizpen hauetako gehienetan, komunztadura ez du ondo egiten. Baina ekoizpenean Datibo kasurik ez bada azaltzen, komunztadura ondo egiten du. Badirudi bi prozedura hauek ekoizpen berean erabiltzea erredundantea gertatzen dela haurarentzat, eta bi prozedura hauetatik bati bakarrik jaramon egiten diola.

Datibo gehienak izenordainean gauzatzen dira. Bestalde, ez dugu aurkitu corpus osoan zehar Datibo pluralik, nahiz eta aditzarekiko komunztadura plurala behin ekoiztu.

#### D) Emaizak eztabaida

Ondoren, azterketa guztien jarraian egin dugun bezala, Datibo kasuaren jabekuntza aztertu duten zenbait ikerketetan azalduko emaitzekin erkatuko ditugu gureak.

Berriro ere A. Barreñaren (1993) ikerketa hartuz, berak aztertutako hiru haurretatik -- hauetako haur bat, gure azterketan erabili dugun bera da-- bik Datibo kasua Ergatiboa eta Absolutiboa baino beranduago ikasten dute<sup>57</sup> eta, gainera, emankortasuna oso du urria kasu honek beste biekkin parekatuz. Beste kasuetan ikusi ahal izan dugunez, hemen ere ezberdintasunak daude haurren artean, kasu honen jabekuntza 2;01;06 adinetik 2;07;09 adina bitartean kokatzen baitu Barreñak haur bakoitzaren arabera. Guk aztertutako haurraren ere 2;07;09 adinean kokatu dugu lehen ekoizpena<sup>58</sup>. Baina kasu honek aditzean duen komunztaduraren jabekuntza berriz, Barreñak 3;00;17 adinean kokatzen duen bitartean, guk 2;05;12 adinean kokatu dugu.

---

<sup>57</sup> Hirugarren haurrak hiru kasuak adin berdinean ikasi ditu.

<sup>58</sup> Emaizak hauek bi lanetan ikertutako haur berdinari dagozkie, eta ezberdintasunak, gorago aipatu dugunez, guk corpus osatuagoa erabiltzeko izan dugun aukerari zor zaizkio.

Aurreko azterketetan aipatutako P. Larrañagaren (1994) lana dakarkigu berriro. Kasu honi dagokionez, berak aukeratutako corpusean zehar aurkitu dituen ekoizpen gutxi azpimarratzen du lehenik eta behin<sup>59</sup>. Hori dela eta, ezin du gehiegi esan kasu honen jabekuntzari dagokionez, azaltzen diren Datiboak oso isolaturik daudelako edo imitazioak direlako. Baina Datiboaren kasu-marka, kasu honi aditzean dagokion komunztadura baino lehenago azaltzen dela baieztatzen du<sup>60</sup>. Hau ez dator bat gure emaitzekin, ikusi ahal izan dugunez, Datiboarekiko komunztadura, Datiboa bera baino lehenago azaltzen baita gure haurraren.

N. Imezdade eta K. Tuiteren (1992) ikerketa ere jadanik aipatu dugu. Bertan georgieraren jabekuntza aztertzen dute, horretarako bost haurren bilakabidea aztertuz lau urte arte eta beste 27 hurrekin ekoizpen eta ulermen saio bana eginez. Datibo kasuaren "s" desinentzia ia Genitibo kasuarekin batera agertzen dela dio. Genitibo kasua 1;08;21 adinetik 2;04;17 adina bitartean azaltzen da lehen aldiz haur bakoitzaren arabera. Nahiz eta Datibo kasuaren "s" desinentzia adin horietan kokatu, kasu honen jabekuntza osoa beranduago lortzen dela dio. Gure haurrak Datiboaren kasu-marka beranduago lortu badu ere --2;07;09 adinean hain zuzen-- Datiboarekiko komunztadura 2;05;12 adinaz lortu du.

B. Macwhinneyek (1976) hungarieraren morfologiaren eta sintaxiaren jabekuntza aztertu zuen haur batengan, 1;05;02 adinetik 2;02;03 bitartean. Lehenik eta behin, haur hungariarrak haur indo-europarrek baino lehenago erabiltzen dituztela inflexioak emankortasunez dio, azken hauek bi urte edo bi hitzen aroaren aurretik emankortasun morfologiko gutxi erakusten dutenez. Baina orain aztertzen ari garen kasuari dagokionez, jabekuntza 2;00;00 -2;05;00 adinen tartean kokatzen du. Guk aztertutako haurraren emaitzak ikusirik, ez dugu alde handirik ikusten kasu honi dagokionez, Datiboaren marka bera ez, baino Datiboarekiko komunztadura 2;05;12 adinean azaltzen baita.

Turkieraren jabekuntzari buruz egin diren ikerketetan oinarritutako lan batean, A.A. Aksu - Koç & D. I. Slobinek (1985) turkieraren jabekuntzaren sintesia eskaintzen digute. Hungariera hizkuntzaren jabekuntzan bezala, hemen ere bi urte betetzen dituztenerako izenen inflexioak eta aditz paradigma gehienak lortuak dituztela diote<sup>61</sup>. Datiboaren flexioa ere adin honetarako lortua dutela adierazten dute. Agerian dago, gure haurraren emaitzak kontuan edukiz, ezin dugula parekotasunik aurkitu turkiera ikasten duten hurrekin, bi urte aurretik gure haurrak ez baitu inolako inflexiorik.

Alemana - Frantsesa hizkuntzetan hitzen ordena eta kasu morfologikoaren jabekuntza ikertu zuen T. Parodik (1989) haur batengan 1;11;00 adinetik 3;08;00 adina bitartean. Bere azterketa lau aro ezberdinetan bereizten du eta azken aroa hiru urte bete ondoren kokatzen du. Aro honetan, flexiodun formen artean, Akusatiboak eta Datiboak ondo bereizten direla dio. Guk ere hori bera esan dezakegu, hiru urte baino hilabete batzuk lehenago, gure haurrak ondo bereizten baititu orain arte aztertu ditugun kasu guztiak.

---

<sup>59</sup> Kontuan eduki behar da bere azterketa haurrak 2;06;11 adina duenean amaitzen dela.

<sup>60</sup> Baieztapen hau Ezeizabarrenak (1994) egindako azterketetan oinarritzen da.

<sup>61</sup> Lorpen goiztiar honen arrazoiak, beste atal batean ikusi ditugu.

### **9.3.1. Datibo kasuari dagozkion ondorioak**

Datibo kasuaren sorrera eta bilakabidea haurraren emaitzen argitan aztertu ondoren, ondorio hauetara iritsi gara, gure datuen arabera:

1.- Datiboaren kasu-marka azaldu baino bi hilabete lehenago, Zehar Objektuaren komuntadura azaldu da aditzean, horrela Datibotasuna adieraziz:

(39) nik eman behar diot (2;05;12)

2.- Datiboaren lehen kasu-marka 2;07;09 adinean ekoiztu du haurrak, horrela lehen Zehar Ojektua ekoiztuz:

(40) gizonari

3.- Datibo kasuaren emankortasuna, aditzarekin komunztadura duten beste bi kasuen -- Absolutiboa eta Ergatiboa-- arabera, oso urria da.

4.- Aztertutako haurrak, Datiboaren kasu-marka eta Zehar objektuaren komunztadura aditzean, hau da, Datiboa adierazteko dauden bi prozedurak ez ditu ia inoiz erabiltzen batera, bi ekoizpenetan besterik ez:

(41) ez, niri ez zait gustatzen ezer (2;10;22)

Beste ekoizpenetan hau gertatzen da:

a) Datiboaren kasu-marka ekoizten badu, ez du aditzik ekoizten:

(42) o(s)tiko bat horri (2;10;11)

edo aditzarekiko komunztadura ez du ondo egiten:

(43) kenduko det Itziarri (2;10;22)

b) Datiboaren kasu-marka ekoizten ez badu, komunztadura aditzean ondo lortzen du:

(44) gu(s)tatzen zaizu? (3;00;17)

Hau da, Datiboa adierazteko prozedura bat baino ez du erabiltzen, eta biak erabiltzea "erredundantea" nabari duela dirudi.

5,- Ez da Datibo edo Zehar Objektu plural bakar bat ere azaltzen corpus osoan zehar.

6.- Beste ikerketetako emaitzak eta ondorioak gureekin erkatu ondoren, ondorio hauek atera ditugu:

a) Gure haurrak Datiboarekiko komunztadura Datiboaren kasu-marka bera baino lehenago ekoizten badu ere, ez da hori gertatzen haur guztietan.

b) Beste kasuetan ikusi dugunez, Datiboaren lehen kasu-marka ekoizteko, hilabete batzuen aldea ikusi dugu haur bakoitzaren arabera, hau da, haur batzuek lehenago ikasten dute beste batzuek baino.

d) Beste hizkuntza batzuk (georgiera, hungariera) aztertu dituzten ikertzaileek

Datiboaren kasu-markaren lehen ekoizpena gure haurrarena baino lehenago kokatzen badute ere, ezberdintasuna desagertu egiten da komunztadura kontuan edukiz. Hau da, jabekuntza-adina nahiko parekatuta dago, bi prozedurak kontuan hartzen badira.

e) Turkieran berriz, agian hizkuntza beraren ezaugarriak direla medio, Datiboaren flexioa bi urterako lortzen dute haurrek.

e) Aztertutako ikerketa gehienetan, gurea barne, haurrek hiru urte betetzen dituztenerako, gai dira aditzarekiko komunztadura duten kasuak bereizteko.

### 9.3.2. - TAULAK

#### 10. TAULA: DATIBO KASUAREN AZALPENA, HAINBAT KATEGORIATAN

ADINA	IZENORDAINA		IZENA	I.PROPIOA	ERAKUSLEA	GUZTIRA
	1. P	2. P				

2;07;09	-	-	1	-	-	1
2;07;30	-	-	-	-	-	-
2;09;05	-	-	-	-	-	-
2;09;22	2	2	-	-	-	4
2;10;11	-	-	3	-	1	4
2;10;22	2	1	-	3	-	6
2;11;25	-	-	-	-	1	1
3;00;17	-	-	-	-	-	-
3;01;24	1	1	-	-	-	2
53;02;14	-	2	-	-	-	2
3;03;07	-	-	-	-	-	-
3;04;04	2	1	1	-	-	4
3;05;09	1	-	-	-	-	1
3;06;17	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	8	7	5	3	2	25
PORTZENTAIK	% 60		% 20	% 12	% 8	

**11. TAULA: DATIBOAREN KOMUNZTADURA/ EZ KOMUNZTADURA ADITZEAN.**

ADINA	KOMUNZTADURA	EZ KOMUNZTADURA
2;05;12	1	-
2;05;26	-	-

2;07;09	-	-
2;07;30	-	-
2;09;05	-	-
2;09;22	1	6
2;10;11	-	1
2;10;22	-	2
2;11;25	-	-
3;00;17	2	-
3;01;24	-	-
53;02;14	3	-
3;03;07	1	-
3;04;04	-	2
3;05;09	1	1
3;06;17	7	-
GUZTIRA	16	12



## GAZTELANIAZKO KASUAK

Jakina denez, gaztelaniaz kasua gordetzen duen kategoria bakarra Izenordain pertsonala da. Horrela bada, Izenordain pertsonalak lau kasu ezberdinetan azal daitezke: Nominatiboan, Akusatiboan, Datiboan eta Ablatiboan. Lehen hirurak "gramatikaltzat" har daitezke eta laugarrena, Ablatiboa hain zuzen, preposizio baten menpean dagoena da. Kasu hauek betetzen dituzten funtzio sintaktikoak, berriz, honako hauek dira:

- Nominatiboak: Subjektu funtzioa
- Akusatiboak: Objektu zuzena
- Datiboak: Zehar Objektua
- Ablatiboak: Osagarri Zirkunstantziala.

Horrela bada, Nominatibo, Akusatibo eta Datibo kasuak betetzen dituzten funtzio sintaktikoak aztertuko ditugu, hauek parekotasuna dutelako euskaraz aditzarekin komunztadura duten hiru kasuek betetzen dituzten funtzioekin. Bestalde, funtzio hauek betetzen dituzten beste izen-sintagmak ere aztertuko ditugu. Ablatibo kasua, berriz, preposizioen azterketa barruan azalduko da.

### 9. 4. - NOMINATIBO KASUA.

#### 9. 4. 1. - Izenordain subjektuen jabekuntza-bilakabidea

##### A) Emaizak eta azterketa

Gorago aipatu dugunez, Subjektu funtzioa betetzen duten Izenordainak eta beste izen sintagmak aztertuko ditugu. Izenordainetatik hasiko gara. Aztertzen ari garen haurren gaztelaniazko lehen datuak 1;11;00 adinekoak dira. Baina ia bi hilabete beranduago aurkitu dugu lehen Izenordain pertsonala (1). Lehen pertsona singularrari dagokiona, hain zuzen, eta hizketa-lagunak egiten dion galderari erantzuteko erabili du. Hilabete horri dagokion transkribapenean aurkitu dugun Izenordain bakarra da orain azal dutakoa. Hurrengo hilabeteari dagokion transkribapenean ere lehen pertsona singularraren hiru ekoizpen aurkitzen ditugu (2). Ikusten denez, ekoizpen berean errepikapenak egiten dira. Hamaika egun beranduago bigarren pertsona singularra azaldu da (3). Horrela bada, adin honetan lehen eta bigarren pertsonen arteko kontrastea lortu du haurrak.

(1) Hizketa-lagunak: ese de abajo . quien es?

Haurrak: yo ( 2;00;20)

(2) yo no, no yo,yo (2;01;03)

(3) tú e(s)te tú (2;02;14)

Adin berean, lehen aldiz aditz jokatua azaltzen den perpaus batean, deiktikoa ez den Izenordainaren lehen pertsona singularra ekoiztu du aztertzen ari garen haurrak. Ekoizpena ordea, ez da batere garbia eta, Subjektuarekiko komunztadura lortu duenaren zalantza dugu:

(4) yo (quiero edo quiere) juga(r) (2;02;14)

Ondorengo hiru hilabetetan, ez du izenordainik ekoizten aditz jokatuarekin batera:

- (5) yo éso (2;03;12)
- (6) tú x éso, tú éso (2;03;12)
- (7) yo aquí (2;04;15)
- (8) .yo malo?, no! (2;05;12)

2;05;27 adinari dagokion transkribapenean ekoiztu du lehen aldiz, Izenordainaren bigarren pertsona singularra aditz jokatuaz azaltzen den perpaus batean. Horrela bada, adin honetan kokatuko genuke Izenordaina Nominatibo kasuan Subjektu funtzioa betetzen

- (9) mira!, ése ha(h)<sup>62</sup> pintaú tú (2;05;27)
- (10) ése ha(s) quinta(?)pintado) tú con dembel (el verde) ese (2;05;27)

Bi ekoizpen hauetan Subjektuarekiko komunztadura lortzen ote den zalantza sortzen zaigu, kontuan hartuz lehen adibideko aditz laguntzailean zalantzan dagoela bigarren pertsonaren fonema, aspirazio moduko zerbait azaltzen denez, eta bigarren adibidean, berriz, ez dela fonema hau agertzen. Uste dugu, ordea, arazo fonetikoak daudela tartean, kontuan izanik Subjektuarekiko bigarren pertsona singularraren komunztaduran batzuetan azken fonema txistukaria "-s" ahoskatzen duela eta bestetan ez:

- (11) . (a) quien ves tú xxx ? (2;07;30)
- (12) tú no sabes (2;10;06)
- (13) tú, . si sabes? (2;10;24)
- (14) lo hace(s) tú (3;01;03)
- (15) tú no y yo sí... y yo ma (me) bajo y tú te caes ahi (3;01;19)
- (16) . tú hace(s) rápido? (3;02;14)

Adin honetatik aurrera, bigarren pertsonari dagokion fonema gehienetan ahoskatzen du, baina azterketa amaitzen den adineko corpusean ere, bitan ez du morfema hori ahoskatzen:

- (17) tú no canta(s) (3;06;29)
- (18) que tu no coge(s) nada (3;06;29)

Horrela bada, badirudi haurrak zailtasunak dituela fonema honen aurrean. Ikusi ahal izan dugunez, ez du inoiz huts egiten bokalaurrean, bai ordea ekoizpenaren azkenean eta kontsonante aurrean, nahiz eta azken bi posizioetan hutsegiteak baino ugariagoak diren azalpenak. Adina aurrera doan neurrian, ordea, zailtasun gutxiago erakusten du.

Izenordainaren lehen pertsonari dagokionez, aditzarekin komunztadura erakusten duen lehen ekoizpena, bigarren pertsonari dagokiona baino lau hilabete beranduago ekoizten du haurrak:

- (19) poe (pues) yo quielo (quiero) (2;09;22).

---

<sup>62</sup> Corpusean zehar ikus daitekeenez, haurrak zenbait fonema eta kokagunerekin zailtasunak ditu, batez ere hasieran.

Ikusten denez, ekoizpen hau zazpi hilabete aurrerago azaldutako ekoizpenaren antzekoa da (4). Hura zalantzazkoa zen bitartean, oraingo honetan ez dago zalantzarik. Hemendik aurrera - - hau da, 2;09;22 adinetik aurrera -- Izenordain Subjektuarekin azaltzen diren ekoizpen gehienak ondo lortuta daude komunztadurari dagokionez. Bigarren pertsonari dagozkion zenbait ekoizpen azaldu ditugunez, jarraian lehen pertsonari dagozkion ekoizpen batzuk azalduko ditugu:

- (20) yo ya pintaba (2;10;06)
- (21) yo si sé (2;10;24)
- (22) yo quiero jumar (jugar) (2;11;21)
- (23) a ver si pongo yo (3;01;03)
- (24) yo no tengo un Forecó (Ford escort) (3;01;19)
- (25) en éste me voy yo (3;02;14)
- (26) yo he hecho (3;03;07)
- (27) yo le cojo (3;03;22)
- (28) etoe (entonces) yo te dejo este (3;04;26)
- (29) yo quiero mirar otras co(sas) (3;05;09)
- (30) (es)to pongo yo (3;05;23)
- (31) no, yo no te dejo, no te dejo (3;06;17)
- (32) que yo quiero chichi (carne) (3;06;29)

Subjektua eta aditzarekiko komunztadurari dagokionez, hiru ez-egokitasun besterik ez dugu aurkitu corpus osoan zehar. Lehenengoan, lehen pertsona singularrari dagokion aditz forma erabili beharrean, hirugarren pertsona singularrari dagokiona erabili du:

- (33) ...y yo al coger así la tier(r)a ponponpon (sonido onomatopéyico), y yo lo<sup>63</sup> coge (cojo) así... (2;11;21)

Bigarrengoan, berriz, aurrenekoaz azaltzen da lehen pertsona pluralaren komunztadura: lehen ekoizpena eta bakarra, gainera. Ikusten denez, komunztadura da pluralean dagoena, ez Izenordaina bera. Haurra bere burua zuzentzen ari dela dirudi. Hasieran lehen pertsonarekin egiten du komunztadura, ondoren bigarren pertsonarekin egin nahi duela dirudi, lortzen ez badu ere, eta, azkenik, lehen pertsona pluralari dagokion aditza erabiltzen du komunztadura ondo lortuz nahiz eta aditzaren azken "-s" fonema falta.

- (34) ahora me duermo tú y yo vale? tú y yo, te duerma, . tu y yo! si dormimo(s) (3;03;07)

Komunztadurari dagokion hirugarren ez-egokitasunari dagokionez, aditz forma bera lau hilabete lehenago jadanik erabili du haurrak behin baino gehiagotan (24) eta ez-egokitasuna azaltzen den adin bereko beste ekoizpen batean ere (36) ondo erabiltzen du. Hortaz, nini hizkuntzan erabiltzen den forma dirudi:

- (35) pues yo no tene (tengo) juguete (3;05;23)

- (36) yo tengo (3;05;23)

---

<sup>63</sup> "lo" Izenordain atonoari dagokion ez-egokitasuna, hurrengo atalean aztertuko dugu.

Ikusten ari garenez, aztertzen ari garen haurren corpusean Subjektu funtzioa betetzen duten izenordainak, lehen eta bigarren pertsonari dagozkionak dira. Kopuruari dagokionez (12. taula), lehen pertsonari dagozkion izenordainak dira ugariak: %70a. Bigarren pertsonari dagozkionak, berriz, %29a dira, hau da, lehen pertsonaren presentzia bikoiztu baino gehiago egiten da bigarren aldean. Joera hau guztiz ulerkorra da adin honetan, jakina baita haurrak bere burua hartzen duela behin eta berriz erreferentetzat edozein ekintza edo egoeraren aurrean. Joera hau, ordea, azken transkribapenean --hau da, 3;06;29 adinean-- hautsi egiten da eta ia berdindu, lehen eta bigarren pertsonari dagozkion Izenordainak. Bestalde, hirugarren pertsonari dagokion Izenordain bakar bat besterik ez dugu aurkitu<sup>64</sup> corpus osoan zehar, eta hau azterketarako erabili dugun azken transkribapenean ekoizten du haurrak, Izenordaina ondo ahoskatu ez arren:

(37) al(el) bebe agua, y luego ha tirau (3;06;29)

Izenordain bakarra ekoiztu badu ere, hirugarren pertsonari dagokion zenbait aditz ekoiztu du:

(38) no qu(i)ere (2;01;03)

(39) no llega (2;05;27)

Era berean, gorago aipatu dugunez, ez da Subjektu funtzioa betetzen duen Izenordain pluralik azaltzen aztertutako corpusean, nahiz eta aditz forma pluralak azaldu lehen pertsona pluralean:

(40) . pintamos?" (2;05;27)

(41) . le tiramos? (2;05;27)

(42) . subimos? (2;05;27)

Ekoizpen ugari dago haur honen corpusean lehen pertsonari dagokion Izenordain subjekturik gabe<sup>65</sup>. Kategoria honen azalpen urriaren zergatia, gaztelania, euskara bezala, pro-drop hizkuntza motakoa izatea da, hau da, azaleko egituran --hizketan gauzatzen den egituran-- Izenordain Subjektuaren azalpenaren beharra ez duen hizkuntza izatea, aditzean ere pertsona marka azaltzen delako. Horrela bada, honako ekoizpen hauek ondo eratuta daude helduen hizkuntzaren arabera, nahiz eta, Subjektua adierazita ez egon:

(43) hago así ( 2;02;26)

(44) xx<sup>66</sup>pongo aqui ot(r)o (2;03;25)

(45) no sé (2;04;15)

(46) no te veo (2;05;12)

(47) no saco (salto) (2;05;12)

---

<sup>64</sup> Hemen gertatzen den berdina azaltzen dute P. Larrañagak (1994) eta Rosengren-ek (1974). Ez da hau gertatzen frantsesaren jabekuntzan, Meisel (1986).

<sup>65</sup> Gogoratu hori bera ikusi ahal izan dugula euskaraz, Subjektu Ergatiboetan.

<sup>66</sup> Agian, transkribatzerakoan ulertezina gertatu dena Izenordaina edo beste Subjekturen bat da.



## A) Emaizak eta azterketa

Aztertzen ari garen corpuseko lehen datuak 1;11:00 adinekoak dira. Hasierako transkribapenetan ez dugu determinatzailearik aurkitu. Haurrak ekoizten dituen hitz gehienak (substantiboak, adjektiboak) bakarrik azaltzen dira:

- (52) nina (niña) (1;11;00)
- (53) tuta (balón) (1;11;00)
- (54) tote (coche) (1;11;00)
- (55) azu(l) (1;11;10)
- (56) paquete (1;11;00)
- (57) udi (Jurgi) (1;11;10)
- (58) mi(r)a lalo (árbol) (2;00;20)
- (59) esa e cache (coche) (2;00;20)

Hasierako transkribapenetan hitz gehienak horrela ekoizten baditu ere, hitz bakar batzuk fonetikoki artikuluen itxura duen bokal batekin azaltzen dira:

- (60) a tuta (balón) (1;11;00)
- (61) e tutu (coche) (1;11;10)
- (62) u ñiño (1;11;29)
- (63) a pupa (1;11;29)
- (64) a tuta (pelota) (2;00;20)

Mota honetako ekoizpen ugariak, ordea, 2;01;03 adinean ikus daitezke:

- (65) a pape (2;01;03)
- (66) a tital (cristal) (2;01;03)
- (67) e kital (cristal) (2;01;03)
- (68) etital (crista l) (2;01;03)

Hemendik aurrera ere azaltzen joango dira, baina gero eta gutxiago, nahiz eta 2;05;12 adinean ere mota honetako ekoizpen bat aurkitu dugun:

- (69) a chechas (fresas) (2;05;12)

Geroztik azaldutakoak arazo fonetikoei zor zaizkie gure ustez:

- (70) u balo(n) (2;07;14)
- (71) e otobus g(r)ande (2;09;01)
- (72) con e cit(r)oen (2;09;22)
- (73) con g(r)ande e columpio (2;10;06)

Horrela bada, "pseudo-artikulu" (Idiazabal, 1991b) edo "auredeterminatzaile" (Barreña, 1996) izenez ezagutzen diren elementu horien ekoizpenak, badirudi 2;01;03 adinetik aurrera beherantz doazela. Beste zenbait ikertzailek ere gauza bera ikusi izan du; hauen artean, gaztelaniaz Hernandez Pina (1984) eta López Ornat (1994). Katalaneraz, berriz, izen, adjektibo,

izenordain eta aditzen aurrean ere azaltzen dira (Capdevilla eta Serra, 1995). Ingelesez ere "schwa" izendatzen duten (Dore eta besteak, 1976) "a" bokala agertzen dela diote; Ramer-ek, (1976) berriz, sintagma nominalen aurrean ez ezik, aditzen aurrean ere azaltzen dela dio.

Artikuluaren aitzindari diren elementu hauek alde batera utziz, lehen ekoizten duen determinatzailea, artikulua mugagabea da:

(74) un tota (pelota?) (1;11;10)

Ekoizpen bakarra da, eta hilabete bereko bigarren transkribapenean, bi artikulua azaltzen dira, mugagabea eta mugatua:

(75) un iargi( camión?)( 1;11;29)

(76) el t(r)en (1;11;29)

Imitazio bat izan ezik, artikulua mugagabea bi hilabete eta erdi beranduago arte ez da berriro azaltzen haurren corpusean. Bitartean, artikulua mugatu bat ekoizten du:

(77) el lalo (árbol) (2;00;20)

Esan dugunez, 2;02;14 adinean berragertzen da artikulua mugagabea, eta hemendik aurrera bi artikulua azalduz joango dira behar den gehienetan:

(78) un tsotse (coche) (2;02;14)

(79) el tsotse (coche) (2;02;14)

(80) un tren (2;02;26)

(81) el lelo (helicóptero) (2;02;26)

(82) mia un choche (coche) (2;03;12)

(83) la vaca aquí (2;03;25)

(84) un nene a ti (2;04;15)

(85) la pelota aquí (2;04;15)

(86) un bollo (2;05;12)

(87) la tocula (tortuga) (2;05;12)

(88) la (a)marilla(2;05;27)

(89) un yoyo (2;05;27)

Ekoizpen bat azaltzen da artikulurik gabe:

(90) y te voy a hacer esto con (la) escopeta (3;06;17)

Beste ekoizpen batean gaztelaniazko artikulua mugatua erabili arren, euskarazko artikulua ere ezarri dio hitzari:

(91) el t(r)ena(2;09;01)

Bestalde, arauak eskatzen duen moduan, izen propio guztiak artikulurik gabe ekoizten ditu, bat izan ezik:

(92) a ver a la Maria (3;06;29)

Artikuluak ez diren determinatzaileak gure haurrak noiz eta nola ekoizten dituen azalduko dugu jarraian (13. taula).

### *Mugatzaile-erakusleak*

Erakusleak oso gutxi diren arren<sup>67</sup>, hauetako lehena nahiko goiz azaltzen da:

(93) eze niño (2;01;03)

Hurrengoa, ordea, bi hilabete eta erdi beranduago:

(94) esa paca (vaca) no (2;03;25)

Hiru urte bitartean ekoiztutakoak, honako hauek dira:

(95) ese tutu (2;04;15)

(96) con el verde ese (2;05;27)

Azken ekoizpen honetan, badirudi determinazio bikoitza topatzen dugula, artikuluaz gain, erakuslea ere ekoizten baitu. Badirudi, ordea, erakusle hauek deiktikoak direla. Horrelako beste ekoizpena ere aurkitu dugu:

(97) en la gasolinera esta (3;01;03)

Agian ondorengo ekoizpena ere antzekoa izan nahi zuen

(98) otobus ese (2;09;01)

Horrela bada, erakusleen formen artean, lehen pertsonari dagokion femenino singularra (esta) eta bigarren pertsonari dagozkion maskulino (ese) eta femenino (esa) singularrak ezagutzen ditu gure haurrak azterketaren amaieran. Bestalde, behin lehen pertsonari dagokion maskulino singularra erabili beharrean, neutroa erabili du.

(99) si eto<sup>68</sup> (este) camión (2;10;06)

### *Determinatzaile zehaztugabeak*

Kronologikoki, ondoren azaltzen den determinatzailea "otro" indefinitu edo zehaztugabea da. Lehena 2;02;14 adinaz ekoizten du eta erakuslea baino gehiagotan azaltzen

---

<sup>67</sup> Euskarazko azterketan ere determinatzaile-erakusle gutxi aurkitu dugu.

<sup>68</sup> Haur honek generoarekin dituen gora-beherak berehala ikusiko ditugu.



da:

- (100) mia ot(r)o ajajan (naranja?) (2;02;14)
- (101) pongo aqui ot(r)o (2;03;25)
- (102) ot(r)o balón (2;04;15)
- (103) ot(r)o guala (paraguas?) (2;05;27)
- (104) ot(r)o chic(1)e (2;07;14)
- (105) ahora otra vez (2;07;30)

Bi urte eta hamar hilabete dituela "más" determinatzaile-zehaztugabea ekoizten du haurrak, eta hemendik aurrera biak azaltzen dira corpusean zehar:

- (106) a ver si hay más (2;10;06)
- (107) ete (esta) e(s) más chiquitina (3;01;19)
- (108) yo voy a comprar más grande y tú no (3;06;17)

Ikusi dugunez, "otro" eta "más" determinatzaile-zehaztugabeak ere ezagutzen ditu haurrak.

#### *Determinatzaile-Posesiboak*

Determinatzaile posesiboa aurreko biak baino beranduago agertzen da gure haurraren hizkuntzan:

- (109) dónde está mi pi (?) (2;07;14)
- (110) en mi t(r)a(c)to (2;09;01)
- (111) mi pollito (2;09;22)
- (112) se ha iso aita, mi padre (2;09;22)
- (113) mi ama (2;10;14)

Ikusten denez, orain arte azaldu den forma bakarra, lehen pertsona singularrari dagokion forma apokopatua da. Hiru urtetik aurrera, forma honez gain, beste hiru ere ekoizten ditu haurrak. Bigarren pertsona singularrari dagokion forma apokopatua:

- (114) mañana, . tú estarás en tu casa? (3;04;26)
- (115) yo no soy tu amigo (3;06;29)

Forma osoen artean, berriz, lehen pertsona singular femeninoari dagokiona:

- (116) e(s) mía esa (3;06;17)

eta lehen pertsona singular maskulinoari dagokiona:

- (117) éste es el de Marga y éste es mío (3;06;29)

#### *Determinatzaile zenbatzaile zehaztuak*

Lehen determinatzaile posesiboa azaltzen den adin berean ekoizten du haurrak lehen zenbatzaile zehaztua ere. Sintagmak plurala izan nahi duen arren, pluralari dagozkion morfemak ahoskatu beharrean, aspirazio modukoa ahoskatzen du sintagmako bi osagaietan:

(118) doh mo(s)cah(2;07;14)

Zenbatzaile honez gain, beste bat besterik ez du ekoizten gure haurrak "uno" hain zuzen:

(119) aqui falta uno (2;10;06)

(120) mira, se ha caído uno (3;04;26)

(121) tú coges uno (3;06;29)

### *Determinatzaile zenbatzaile zehaztugabea*

Determinatzaile hau da gu aztertzen ari garen haurrarengan agertzen den azkena:

(122) no te hago nada (2;09;22)

Hiru urte bete ondoren beste zenbait forma eta aldaera azaltzen da. Alde batetik maskulino plurala:

(123) se ha(n) gasta(d)o todos (3;02;14)

(124) yo te doy xx muchos (3;05;23)

Bestetik femenino plurala:

(125) me voy comiendo todas (3;02;14)

Maskulino singularra ere azaltzen da:

(126) y ahora cojo para mi todo (3;05;09)

Hortaz, gure azterketa amaitzen denean, honako hauek dira haur honek ezagutzen dituen determinatzaile zenbatzaile zehaztugabeak: "nada" neutroa, "todo" maskulino singularra, "todos" maskulino plurala, "todas" femenino plurala, eta "muchos" maskulino plurala.

### *Generoa*

Generoaren azterketa egiterakoan, artikulua eta beste determinatzaileak bereiziko ditugu.

Haurrak, ikusi dugunez, lehen ekoizten dituen artikulua maskulinoak dira, bai mugatuak zein mugagabeak. Lehen artikulua mugatu eta mugagabe femeninoak, adin berean ekoizten ditu :

(127) la landa (?) (2;02;14)

(128) una etsesa (estrella) (2;02;14)

Hurrengo artikulua determinatu femeninoa, hilabete beranduago ekoizten du haurrak, eta hemendik aurrera ia transkribapen guztietan azaltzen da:

(129) la vaca (2;03;25)

Artikulu mugagabea berriz, bi hilabete beranduago:

(130) una pinzanona (apisonadora) (2;05;27)

Artikulu mugatuaren inguruan ez du ia genero arazorik. Corpus osoan zehar hiru ekoizpen besterik ez dugu aurkitu generoari dagokion komunztadurarik gabeak, corpus osoa kontuan edukiz, %3a besterik ez:

(131) y en el calle (2;10;24)

(132) y se rompe(n) todo(s) la <sup>69</sup>(los) a(g)ujeros (2;11;21)

(133) por aqui se sube la coche (3;02;14)

Artikulu mugagaberi dagokionez, gauzak ez dira horrela gertatzen, eta generoarekiko komunztadura eza askotan ikus daiteke:

(134) un pala (2;02;26)

(135) un casa (2;03;12)

(136) un floe (flor) (2;05;27)

(137) una coche quemao (2;09;01)

(138) una teneo (tenedor) (2;09;22)

(139) mi(r)a un calletera (carretera) (2,10;06)

(140) y en el calle (2,10,24)

Horrela, adin honetaraino generoarekiko komunztadurarik gabeko ekoizpenak % 21a osatzen dute. Baina adin honetatik aurrera, generoa beti ondo erabiltzen du artikulua honekin:

(141) a que te doy una to(r)ta g(r)ande (3;01;19)

(142) estos tienen una sirena (3;04;26)

(143) yo tengo una pistola de agua (3;06;17)

(144) y tomar una coca-cola (3;06;29)

Gure azterketa amaitzen denerako, 3;06;29 adinerako hain zuzen, % 14ra jeisten da generoari dagokion komunztadurarik gabeko ekoizpenen ehuneko orokorra.

Bi artikulua mota hauek orokorrean hartuz, artikulua mugagabea ugariago da mugatua baino, aztertutako haurraren corpusean. Bestalde, artikulua maskulinoak ere askoz ugariagoak dira femeninoak baino, azken hauek % 25 baitira.

Artikuluak ez diren beste mugatzaileetan, berriz, ez-egokitasun bat besterik ez dugu aurkitu generoari dagokionez:

---

<sup>69</sup> Ekoizpen honetan numeroarekiko arazoak ere badaude, baino aurrerago ikusiko ditugu.

(145) si, e(s)to camión (2;10;06)

Artikuluetan gertatzen den bezala, hemen ere determinatzaile maskulinoak dira ugarietak.

### *Numeroa*

Mugatzaile pluralen kopurua oso murrizta da, eta nahiko berandu azaltzen dira gainera<sup>70</sup>. Lehen mugatzaile plurala, jadanik aipaturiko zenbatzailea da (118). Hurrengo artikulua mugatzaileari dagokio, eta aditzarekin komunztadura erakusten du:

(146) lo quitan los señores (2;10;24)

Beste hiru ekoizpen besterik ez dugu aurkitu artikulua plurala dutela, eta hauek hiru urte bete ondoren:

(147) a mi masutan (me asustan) loh<sup>71</sup> payaseteh (3;01;03)

(148) por aqui se pasan los coches (3;02;14)

(149) esto es para abrir las cartas (3;05;23)

Artikulu pluralgilerik gabeko beste hiru ekoizpen aurkitu ditugu. Badirudi pluralgilea sintagma hersten duen osagaiari bakarrik jarri diola, euskaraz egiten den moduan.

(150) . quieres que pase(n) lo(s) coches? (3;02;14)

(151) golo (luego) pasan lo(s) coches . quieres? (3;02;14)

(152) lo(s) monos andan... (3;05;09)

Ondorengo ekoizpenean, bi mugatzaileak (zenbatzaile zehaztugabea eta artikulua) daude singularrean, aurreko ekoizpenetan bezala, pluralgilea sintagmaren azkenean bakarrik azalduz:

(153) y se rompe(n) todo(s) la<sup>72</sup>(los) a(g)ujeros (2;11;21)

Pluralgilea, ekoizpenen %50ean, azkenean bakarrik azaltzen da. Honek euskararen eragina adieraz dezake, euskaraz izen-sintagmaren azkenean bakarrik jartzen baita pluralgilea<sup>73</sup>. Gaztelaniaz jabetzen diren haur elebakarrengan ere, ordea, numeroarekiko ez-egokitasunak ikusi izan dira (Hernandez Pina, 1984; López Ornat, 1995). Agian, arazo fonetikoak ere tartean egon daitezke.

---

<sup>70</sup> F. H. Pinak (1984) ikusi zuenez, pluralaren erabilera 24 hilabetetik aurrera gertatu zen berak aztertutako haurrengan. Bestalde, 26 hilabetetik aurrera, haur honek ez zuen arazorik pluralarekin bokalez amaitutako hitzetan, baina kontsonantez amaitutako batzuetan bai.

<sup>71</sup> Ekoizpen honetan, morfema pluralgilearen orde, aspirazioa ahoskatzen badu ere, pluralgilearen funtzioa betetzen duela dirudi.

<sup>72</sup> Generoari dagokion komunztadura eza, aurrerago ikusi dugu.

<sup>73</sup> Barreñak aztertutako haur elebidunarengan (1996) ere, ez-egokitasun hauek ikusi zituen.

Beste ekoizpen honetan, berriz, plurala behar lukeen izen-sintagma osoa ekoiztu du haurrak singularrean, hau da, zenbatzaile zehaztugabea, artikulua eta izena:

(154) yo te gano toda la vez (todas las veces)

Ikusi dugunez, artikulua mugatzaileari dagozkio haurrak ekoiztutako plural guztiak.

Pluralean azaldu diren beste mugatzaileak, beraiek bakarrik osatzen dute izen-sintagma:

(155) me voy comiendo todas (3;02;14)

Ikusten denez, mugatzaile pluralaren azalpena, nahiko berankorra eta urria da. Determinatzaile mota guztiak oro har harturik, pluralaren azalpena %4,5koa besterik ez da. Aditzarekiko komunztadurari dagokionez, ezin dugu ezer ziurtatu, kontuan edukiz oso ekoizpen gutxi daudela, gehienetan komunztadura ondo badago ere.

## B) Laburpena

Gaztelaniaz izen-sintagmaren determinazioaren jabekuntza eta bilakabidea aztertu ondoren, honen laburpena azaltzen saiatuko gara.

Hasieran, hitzak bakarrik ekoizten ditu haurrak, inolako mugatzaile gabe edo "pseudo-artikuluak" edo "aurre-determinatzaile" izenez ezagutzen diren bokal soil batzuen laguntzaz. 2;01;03 adinetik aurrera, hauek beherantz doazela ikus daiteke,

Mugatzaileen artean lehen azaltzen dena artikulua mugagabea da 1;11;10 adinean, eta artikulua mugatua bi urte bete aurretik, 1;11;29 adinaz, hain zuzen.

2;02;14 adinetik aurrera bi artikulua ikus daitezke.

Hasierako artikulua maskulinoak dira, eta generoarekin arazo batzuk erakusten ditu haurrak, batez ere artikulua mugagabearekin. Horrela, 2;10;24 adina bitartean %21etan ez du lortzen generoarekiko komunztadura artikulua honetan. Adin honetatik aurrera, ordea, beti lortzen du. Corpus osoa kontuan edukiz, bada, %14ean geratzen da komunztadura eza. Artikulu mugatuarekin berriz, %3koa besterik ez da.

Bestalde, bi artikuluen artean, mugagabea da ugariena. Generoari dagokionez, artikulua maskulinoa da gehien azaltzen dena, femeninoa %25a baita, eta lehena 2;02;14 adinaz ekoizten du.

Artikuluak ez diren determinatzaileei dagokienez, ondorengo adinetan gertatu da haien lehen azalpena (13. taula):

- Erakuslea: 2;01;03

- Det. Zehaztugabea: 2;02;14

- Det.Posesiboa: 2;07;14
- Det. Zenbatzaile zehaztua: 2;07;14
- Det. Zenbatzaile zehaztugabea: 2;09;22

Artikuluak ez diren determinatzaile hauetan, generoarekiko komunztadura eza, behin bakarrik gertatu da corpus osoan zehar. Artikuluetan gertatzen den moduan, hauetan ere determinatzaile maskulinoak dira ugariak.

Determinatzaile guztien (artikuluak eta besteak) corpora kontuan hartuz, generoarekiko komunztadurarik gabeko ekoizpenen kopurua %8koa besterik ez da.

Lehen mugatzaile plurala 2;07;14 adinaz ekoizten du haurrak, eta hauen azalpena %4,5koa besterik ez da. Artikuluaren artean, determinatuak bakarrik ekoiztu ditu haurrak pluralen. Azterketan aipatu dugunez, %50eko ez-egokitasuna aurkitu dugu, pluralgilea ekoizpenaren azkenean jartzen baitu. Arazo hau euskararen eragina izan daiteke, baina haur gaztelaniadun elebakarretan ere numeroarekiko ez-egokitasunak aurkitu dira. Aditzarekiko komunztadurari dagokionez, gehienak ondo badaude ere, ekoizpen gutxi direnez, ezin dugu ezer adierazi.

#### **9. 4. 3.- Subjektu funtzioa betetzen duten izen-sintagmen jabekuntza-bilakabidea, aditz jokatuak duten ekoizpenetan.**

##### A) Emaizak eta azterketa

Nominatibo kasuaren azterketa amaitu ondoren, Subjektu funtzioa betetzen duten izen-sintagmak aztertuko ditugu jarraian.

Lehen azaltzen diren Subjektuak erakusleak dira, eta ikusiko dugunez, lehen Subjektu erakuslea ekoiztu eta ondorengo hiru hilabeteetan, ez du beste Subjektu motarik ekoizten, hau da, denak erakusleak dira:

- (156) este e(s) un tutu (2;00;20) (Imitazioa)
- (157) esa (eso) e(s) caché (coche) (2;00;20)
- (158) ete (esto) e(s) ua (ura?) (2;00;20)
- (159) e(s)te e(s) Peru (2;00;20)
- (160) ese (esa) e(s) Ameyna (amaya) (2;02;14)
- (161) eso es g(r)ande (2;02;26)
- (162) este es gange (grande) (2;03;25)

Ikus daitekeenez, ekoizpen batzuetan (157,158,160) generoarekin zailtasunak ditu<sup>74</sup> aztertzen ari garen haurrak. Azterketan zehar ikusi ahal izango dugunez, generoari dagozkion zailtasunak erakusleekin, hiru urte bete ondoren ere jarraituko dute.

<sup>74</sup> F. H. Pinak (1984) ere, 31 hilebete arte horrelako erruak ikusi zituen izenetan.

Orain arte, bada, aditz kopulatiboekin bakarrik azaldu dira Subjektuak eta denak erakusle batean gauzatzen dira gainera. Formula gisara ikasitakoak diren susmoa sortarazten digu honek, nahiz eta corpusean ikus daitekeenez, mota honetako zenbait ekoizpen azaldu adina aurrera doan neurrian ere. Baina 2;03;25 adinaz aditz ez-kopulatibo batekin ekoiztu du lehen aldiz Subjektu erakuslea:

(163) asi baja esto (2;03;25)

(164) ese baja (2;03;25)

Horrela bada, 2;03;25 bitartean erakusleak bakarrik<sup>75</sup> azaltzen dira Subjektu funtzioa betetzen. Hurrengo hilabetean ordea, izen propio bat ekoizten du lehen aldiz Subjektu gisa:

(165) Piu (Peru) no бага (. baja, llega?) (2;04;15)

Hilabete bat beranduago ekoizten du haurrak lehen aldiz erakuslea ez den Subjektu bat aditz kopulatiboekin. Nahiz eta lehen ekoizpena imitazioa izan, bigarrena ekoizpen originala da eta gainera lehen aldiz "estar"<sup>76</sup> aditz kopulatiboa azaltzen da, nahiz eta ez duen osorik ahoskatzen:

(166) Piu (Peru) e(s) feo (2;05;12)

(167) . donde ata (está) (la) pintula (pintura)? (2;05;27)

Ikusten denez, ekoizpen honetako Subjektuari, artikulua falta zaio. Baina adin berean azaldutako beste ekoizpen honetan, artikulua mugagabea azaltzen da:

(168) mira, ha pasau (pasado) un tutu (coche) (2;05;27)

Subjektu gisa azaltzen diren izenen artikulua mugagabe hau, aditz ez kopulatiboekin bakarrik ekoizten du haurrak eta denak ondo daude bai generoari bai numeroari dagokionez:

(169) una goma de aqui ya no anda (2;11;21)

(170) y por aqui se mete un señor (3;01;19)

(171) po(r) aqui se metió<sup>77</sup> un camión (3;01;19)

Adin honetatik aurrera ez da azaltzen gehiago artikulua mota hau Subjektu izenekin.

Subjektu funtzioa betetzen duten izen-sintagmetako artikulua determinatua, izen-sintagmaren determinazioan aipatu dugunez, beranduago azaltzen da<sup>78</sup>. Ikusiko dugunez, adin

<sup>75</sup> 9.4.1. atalean aztertutako Izenordainak alde batera utziz, noski.

<sup>76</sup> Corpus honetan, "estar" aditza "ser" aditza baino askoz ere gutxiagotan azaltzen da, % 17tan hain zuzen. Bestalde, aditz kopulatiboei dagokienez, aditz honetan bakarrik gauzatzen da lehenaldia.

<sup>77</sup> Corpus honetan azaltzen den lehen aditza, lehenaldian.

<sup>78</sup> H. Pinak (1984) aztertutako haurrak, ordea, lehenago ikasi zituen artikulua determinatuak, nahiz indeterminatuak arruntagoak izan bere hizketan.

berean ez du artikulurik erabiltzen, gaizki erabiltzen du eta ondo ere erabiltzen du:

- (172) se ha ilo (ido) t(r)a(c)to(r) (2;09;01)
- (173) se ha caído la Panda (el coche Panda) (2;09;01)
- (174) no entra el t(r)a(c)tor (2;09;01)

Horrela bada, bi ekoizpen aurkitu ditugu artikulurik gabe (167,172). Hemendik aurrera ordea, artikulua mugatua, bai maskulinoa zein femeninoa behar den guztietan erabiltzen du eta, ekoizpen batean izan ezik (180), beste guztietan ondo azaltzen dira generoari dagokionez:

- (175) aquí e(s)ta la pila (2;10;24)
- (176) el taladro no está (3;01;24)
- (177) el Seat no e(s)ta (3;01;24)
- (178) pon (por) donde ha talido (salido) la luz (3;01;24)
- (179) . dónde está la ambulancia? (3;02;14)
- (180) por aquí se sube la coche (3;02;14)
- (181) el Citroen también cabe (3;02;14)
- (182) está el txakurra (perro) (3;03;07)
- (183) . en dónde está el perro? (3;03;22)
- (184) por aquí viene el tlen (tren) (3;03;22)
- (185) está ahí la mano (3;06;17)

Subjektu pluralari dagokionez, oso gutxitan ekoizten du, (%4a) besterik ez<sup>79</sup>:

- (186) e (?) andan moscas (2;07;14)
- (187) . lo<sup>80</sup> (la) quitan los señores ? (la moqueta) (2;10;24)
- (188) por aquí se pasan los coches (3;02;14)
- (189) y golo (luego) pasan lo(s) coches (3;02;14)
- (190) estos tienen una sirena (3;04;26)
- (191) lo(s) monos andan, suben aquí y se suben hasta ahí... (3;05;09)
- (192) si, estas son (3;05;09)

Izen-sintagmaren determinazioa aztertzerakoan esan dugunez, artikulua pluralek batzuetan ez daramate pluralgilea (189,191).<sup>81</sup>

Subjektu hauek zein kategoriatan gauzatzen diren ikusterakoan, ezberdintasun nabariak bilatu ditugu hauek azaltzen diren ekoizpenetan, aditza kopulatiboa edo beste aditz-motaren bat denean :

---

<sup>79</sup> Izen-sintagmaren determinazioa aztertu dugun atalean --9.4.2. atalean-- arazo hau adierazi dugu.

<sup>80</sup> Akusatibo kasua aztertzerakoan, klitiko hauei dagozkien ez-egokitasunak aipatuko ditugu.

<sup>81</sup> Ez-egokitasun honi dagozkion gora-beherak, izen-sintagmaren determinazioa aztertu dugunean aipatu ditugu, 9.4.2. puntuan, hain zuzen.



*Aditz kopulatiboa azaltzen den ekoizpenetako Subjektuak:*

Aipatu dugunez, lehen Subjektuak erakusle batean gauzatzen dira. Eta Subjektu erakusleak dira, hain zuzen, ugarienak aditz kopulatiboekin: %81era iristen dira (14. taula). Horrela, lehen eta bigarren pertsonari dagozkien singularreko hiru formak ezagutzen ditu eta pluralean, berriz, lehen pertsonari dagokiona bakarrik. Ezagutzeak, ordea, ez du beti ondo erabiltzen dituenik esan nahi. Askotan, lehen pertsona singularreko forma maskulinoa erabiltzen du, femeninoa edo neutroaren orde:

(193) ete (esto) e(s) una flo(r) (2;09;22)

(194) ete (esta) también e(s) mu(y) monita (bonita) (3;01;19)

Horrela bada, artikuluetan, mugatu zein mugagabeetan, generoari dagokionez, gehienetan arazorik ez badu erakusten, erakusleekin arazoak ditu.

Erakusleak ez diren Subjektuak %19a dira eta gehienak, artikulua eta izenez osatutako izen-sintagmak (14. taula).

*Aditz ez-kopulatiboa azaltzen den ekoizpenetako Subjektuak:*

Aditz ez-kopulatiboa dutela azaltzen diren Subjektuak, hainbat kategoriatan banatzen dira. Hiru talde nagusi aurkitu ditugu (15. taula). Alde batetik eta kopuru handienaz, artikuluz eta izenez osatutako izen-sintagmak; eta %35a osatzen dute. Kopuruaren arabera, ondoren azaltzen direnak erakusleak dira, %28an. Hirugarren taldean izen propioak aurkitzen ditugu; hauen azalpena, %21koa. Haez kanpo, beste zenbait Subjektu mota aurki daiteke: izenordain posesiboa eta izenez osatutakoak:

(195) se ha ido aita, mi pa(dr)e (2;09;22)

(196) y po(r) aqui se cae mi camión (3;01;19)

(197) . que ha hecho mi ambulancia? (3;02;14)

(198) pero mi aita tiene (3;05;23)

edo numeral batean gauzatzen direnak:

(199) aqui falta uno (3;01;03)

(200) mira, se ha caido uno (3;04;26)

Determinatzaile indefinitu soil batean ere gauzatzen da behin Subjektua:

(201) ahora nene (viene) ot(r)o (2;07;30)

**B) Laburpena**

Azterketan ikusi dugunez, lehen Subjektuak erakusleak dira eta aditz kopulatiboekin ekoizten ditu haurrak. Corpusean azaltzen den lehena 2;00;20 adinean ekoizten du eta, imitazio bat bada ere, adin berean badago beste zenbait ekoizpen. 2;03;25 adina bitarteko ekoizpenek, ordea, formula gisara ikasitakoak dirudite. Aditz ez kopulatiboekin ekoiztutako lehen Subjektuak

ere erakusleak dira, eta 2;03;25 adinaz azaltzen dira. Hortaz, 2;03;25 adina arte erakusleak bakarrik azaltzen dira Subjektu funtzioa betetzen. Hemendik aurrera hasiko dira azaltzen erakusleak ez diren Subjektuak. Horrela, izen propioak dira ondoren agertzen direnak eta beranduago artikulua eta izenez osatutako izen-sintagmak.

Hortaz, Subjektu funtzioaren jabekuntza, horrela ematen da aztertzen ari garen haurraren:

- Lehen Subjektu erakuslea, aditz kopulatibo batekin: 2;00;20 (Formulak dirudite)
- Lehen Subjektu erakuslea aditz ez-kopulatibo batekin: 2;03;25
- Lehen Subjektu ez erakuslea: 2;04;15

Ikusi ahal izan dugunez, ezberdintasun handiak daude bi aditz mota ezberdinetan Subjektua gauzaterakoan. Aditz kopulatiboa duten ekoizpen gehienek Subjektua (% 81a) erakusle batean gauzatzen den bitartean, beste aditzekin azaltzen diren Subjektuak erakusle batean % 28an bakarrik gauzatzen dira. Aditz ez-kopulatiboa duten ekoizpenekin jarraituz, artikulua eta izenez osatutako izen-sintagmak %35a osatzen dute eta izen propio baten bidez %21ean gauzatzen da. Oro har harturik ere, hau da, bi corpusak kontuan izanez, erakusleak dira gehien azaltzen direnak Subjektuak gauzatzen: %58a osatuz. Subjektu pluralak, 2;07;14 adinetik aurrera eta oso gutxitan azaltzen dira; guztira %4a besterik ez dute egiten.

#### **9.4.4.-Nominatibo kasuaren jabekuntza orokorrari buruzko laburpena**

##### **A) Laburpena**

Hainbat azterketa egin dugu gaztelaniazko Subjektu funtzioa kokatu ahal izateko. Izenordainekin hasi gara; jakina denez hauek gordetzen baitute gaztelaniaz Nominatibo kasua, hau da, Subjektuaren kasua. Ondoren, izen-sintagmaren determinazioa aztertu dugu. Bestalde, Subjektu funtzioa betetzen duten izen-sintagmen azterketa ere azaldu dugu. Horrela bada, azterketa hauen ondorio gisa azaldutako emaitzen bidez, Subjektuaren jabekuntza eta bilakabide orokorra azalduko dugu jarraian.

Hasteko, sail bakoitzean azaldutako emaitzak gogoraraziko ditugu:

*Izen sintagmaren determinazioa:*

- Lehen artikulua ( Mugagabea) : 1;11;10
- Lehen artikulua Mugatua : 1;11;29
- Bi artikulua : 2;02;14 adinetik aurrera

*Izenordainak Nominatibo kasuan:*

- Izenordain pertsonalaren lehen ekoizpena Subjektu funtzioan : 2;05;27

*Izen-sintagmak Subjektu funtzioa betetzen:*

- Lehen Subjektuaren ekoizpena ( erakusle bat aditz kopulatiboekin) 2;00;20 (formulak dirudite)
- Subjektua (erakuslea): 2;03;25
- Subjektu (ez erakuslea): 2;04;15

Ikus daitekeenez, artikulua lehen azalpenak alde batera utziz, 2;02;14 adinetik aurrera esan daiteke haurrak ekoizten dituela normaltasunez bi artikulua. Bestalde, azaltzen den lehen Subjektua, erakusle batean gauzatzen da 2;00;20 adinean. Hiru hilabetez ekoiztutako Erakusleek ordea, ez dugu uste Subjektu funtziorik betetzen dutenik, deiktikoak dira baizik. Bestalde, lehen izen-sintagma Subjektu funtzioan, 2;03;25 adinean kokatu dugu, eta lehen Izenordain Nominatiboa, hau da, Subjektu funtzioa betetzen duena, 2;05;27 adinaz ekoizten du haurrak. Horrela bada, Subjektu funtzioaren jabekuntza-bilakabidea haur honengan, 2;03;25 adinean hasten da izen-sintagma Subjektuen bidez, Izenordain Nominatiboak beranduago azalduz.

Subjektu pluralari dagokionez, oso urria da agerpena: %2 besterik ez, eta nahiko berankorra gainera, lehena 2;07;14 adinean azaltzen baita.

Orain arte Subjektuen azalpena aipatu badugu ere, gaztelania bezalako hizkuntza pro-drop batean, ekoizpen ugari azal daitezke Subjekturik gabe, funtzio hau aditzean islatzen denez. Hori bera ikusi ahal izan dugu gure haurraren, hau da, Subjektuarekin azaltzen diren ekoizpenak askoz urriagoak direla Subjekturik gabe ekoizten dituenak baino. Konparaketa hiru urtetara mugatu dugu, Subjekturik gabeko corpusa oso ugaria denez. Horrela, hiru urte bitartean, Subjekturik gabe azaltzen diren ekoizpenak % 62raino heldu dira.

## B) Emaizten eztabaida

Jarraian, izen-sintagmaren determinazioa eta Subjektu funtzioa betetzen duten Nominatibo kasua edo Izenordainak aztertu dituzten zenbait ikerketekin erkatuko ditugu gure emaitzak.

Gaztelaniazko artikulua bilakabidea haur batengan aztertu zuen F. Hernandez Pinak (1984). Hitz bakarreko aroan, artikulua antzeko elementu batzuk nukleo nominalarekin bat eginez azaltzen direla dio. Bi hitzetako aroan azaltzen dela artikulua, generoarekiko komunztadura beti azaltzen ez bada ere. Artikulu mugatua lehena izan arren, mugagabea izan zen ugariena, berak aztertutako haurraren. Artikulua eta izenaren artean generoarekiko ez-egokitasunak, 31 hilabetekin ere ikusi zituen. Hiru urte zituela, berak aztertutako haurra artikulua guztiak ondo erabiltzeko gai zen.

Gu aztertzen ari garen haur berarengan, Determinazio nominalaren bilakabidea euskaraz eta gaztelaniaz, aztertu zuen I. Idiazabalek (1991b, 1995) 1;11 adinetik 3;02 adina bitartean. Hasieran haurrak artikulua gogorarazten dizkiguten elementu batzuekin ekoizten dituela hitzak dio, "seudo- artikulua" izendatuz. Hauek 2;03 adinaz desagertu egiten dira. Lehen artikulua, bestalde, bi urtetik aurrera azaltzen dira. Gehien azaltzen dena "un" mugagabea da, eta generoari dagozkion ez-egokitasunak egiten dituela dio. 2;07 adinetik aurrera generoarekiko komunztadura gehienetan egiten du berak aztertutako haurrak, nahiz eta ez-egokitasunak oraindik iraun. Plurala gutxitan azaltzen da, eta aditzarekiko komunztadura ez du beti ondo

erabiltzen. Erakusleak oso goiztiarrak diren arren, ez dute determinatzaile funtziorik betetzen.

A. Barreñak (1996) haur elebidun batengan izen-sintagmaren determinazioa euskaraz eta gaztelaniaz 1;06 adinetik, 3;06 adina bitartean aztertu du, beste haur elebatar batzuekin erkatzeko asmotan. Hasierako aro "aurremorfoloikoa", "aurredeterminatzaileak" azaltzen direla dio; morfoloikiaren bilakabidea, berriz, 1;10 adinetik aurrera hasten dela, eta lehen determinatzaileak ere adin honetan kokatzen ditu. Determinatzaile femeninoak, maskulinoak baino hilabete beranduago ekoizten ditu berak aztertutako haurrak. Determinazioaren ondoren generoa eta numeroa azaltzen dira. Generoari dagozkion ez-egokitasunak ez dira %10era iristen. Lehen determinatzaile pluralen azalpena 2;02 adinaz gertatzen da. Pluralean azaltzen diren ekoizpenetatik, %40ean, pluralgilea izen-sintagma hersten duen osagaien bakarrik jartzen du, euskaraz egiten den moduan.

Gure azterketako emaitzetara itzuliz, hiru azterketa hauetako emaitzetan ikus daitekeenez, gure azterketaren hasieran ere "pseudo-artikuluak" edo "aurredeterminatzaileak" ikusi ditugu. Ugariagoak dira, dudarik gabe, artikulu mugagabeak bai gure haurraren, bai Idiazabalen eta H. Pinaren haurraren ere. Gure haurraren ere artikulu femeninoak maskulinoak baino beranduago azaltzen diren arren, goiztiarrak dira, eta generoarekiko ez-egokitasun gehienak 2;10;24 adina bitartean ikusi ditugu (Hernandez Pinaren haur elebatarak 2;07 adina bitartean). Ez-egokitasun hauek, ordea, determinatzaile guztiak kontuan hartuz %8ra besterik ez dira iristen (Barreñaren haurraren %10era ez dira iristen). Zenbait izen-sintagma pluralatan, Barreñaren haurrak egiten duen bezala, gureak ere pluralgilea sintagmaren azken osagaiari bakarrik jartzen dio, euskaraz egiten den moduan.

Nominatibo kasua aztertzen duten ikerketa gutxi aurkitu ditugu, agian kasu honen marka 0 delako. Ugariak dira, ordea, Izenordainak aztertu dituztenak.

Nominatibo kasuaren jabekuntza Natela Imezdade - Kevin Tuitek (1992) aztertu zuten georgieran bost haurraren lau urte bitartean. Gainera, beste 27 haurren ekoizpen- eta ulermen-saio batez osatu zuten azterketa. Izenaren deklinabideari dagokionez azaltzen dituzten sei kasuetatik (Nominatiboa, Genitiboa, Datiboa, Ergatiboa, Bokatiboa eta Instrumentala), kontsonante gaia duen Nominatiboko "i" marka da lehenengo azaltzen den morfema. Bestalde, adin honetan atzizki honek duen esanahia edo funtzioa ez dute garbi ikusten. Ez dute adinik aipatzen, baina ondoren azaltzen den kasua Genitiboa da eta, 1;08;21 - 2;04;17 adinen artean kokatzen dutenez, Nominatiboa ere adin horren inguruan kokatu beharko litzateke. Gure azterketan ikusi ahal izan dugunez, Nominatiboaren jabekuntza gure haurraren ere adin hauen tartean kokatu dugu: 2;03;25 adinean, hain zuzen.

Nominatibo kasua aipatzen duen beste ikerketa bat, E. Lipp-ena (1977) da. Estatu Batuetan bizi, baina lehen hizkuntza estoniera zuten hiru haur ikertu zituen. Haurren adina 2;05;00 tik 2;08;00 bitartean zegoen ikerketaren hasieran eta zortzi astetan zehar luzatu zen. Inflexioaren jabekuntza bi taldetan banatuta aurkeztu du, alde batetik goiz ikasten direnak eta, bestetik, beranduago ikasten direnak. Lehen taldean azaltzen da izen eta aditzen plurala Nominatibo kasuan. Hortaz, Nominatibo plurala aipatu adinen inguruan kokatzen du, hau da, ikerketa hasi zenean hurrek zuten adinean. Gure haurrak ez du Izenordain Nominatibo pluralik ekoiztu corpus osoan zehar, eta Subjektu funtzioa betetzen duen lehen izen-sintagma plurala

2;07;14 adinaz ekoiztu du; gutxitan, gainera.<sup>82</sup>

Gaztelania eta Euskara aldi berean ikasten duen haur baten kasuaren bilakabidea aztertu zuen Larrañagak (1994). Berak dioen bezala, izen-sintagmak eta Izenorde erakusleak kasu-markarik ez dutenez, Izenordain pertsonaletara mugatu zuen bere azterketa, hauek morfologikoki markaturik azaltzen direnez. Izenordain hauen lehen emaitzak 1;07;18 adinekoak direla dio, baina aditz mugatuarekin bost hilabete beranduago azaltzen direla, hau da, 2;00;20 adinean.

Subjektu funtzioaren jabekuntza kokatu ahal izateko, beste azterketen artean, guk ere Izenordainak aztertu ditugu. Bertan azaldu dugunez, haurrak lehen Izenordaina 2;00;20 adinaz ekoizten badu ere, bost hilabete beranduago ekoizten du aditz jokatu batekin, hau da, 2;05;27 adinaz.

Lehen eta bigarren pertsonetako Izenordainen jabekuntza eta erabilpena gaztelaniaz aztertu zuten C. Muñoz eta I. Vilak (1985) bi haurrengan. Azterketaren hasiera 1;02;00 eta 0;10;00 adinetan kokatzen da. Amaiera, berriz, Izenordain hauen jabekuntza lortzen denean. Lan honen emaitzek diotenez, forma pronominalak oso goiztiarrak dira bi haurren hizkuntzan. Aztertutako haur batek 2;05;05 adinaz lortzen du pertsona-Izenordainak Subjektu gisara erabiltzea. Bigarrenak, ordea, beranduago, 3;00;27 adinaz lortuko baitu. Aztertutako beste puntu bat, bi pertsona hauen arteko lehentasuna izan zen. Horrela, haur batek Izenordainen agerpen orokorra jarraitzen duen bitartean, hau da, lehen pertsona-Izenordaina besteen aurretik azaltzen den bitartean, bigarren haurrak bi pertsonak ia batera ekoizten ditu. Bestalde Izenordain hauek perpausaren atzean jartzeko joera nabaria erakusten dutela diote bi haurrek.

Gure haurrak Izenordaina Subjektu gisa 2;05;27 adinaz ekoizten du, hau da, Muñoz eta Vila-k (1985) aztertutako haur baten adin berean. Bestalde, Izenordainen lehentasunari dagokionez, lehen pertsona izan da aurrena ekoizten duena, eta ugariagoak dira, gainera, pertsona honi dagozkionak. Izenordain hauen kokaguneari dagokionez, guk aztertutako haurrengan joera nabaria perpausaren aurrean jartzea da, atzean % 15a besterik ez baita azaltzen.

G. Aguadok (1988) zehar-ikerketara batean, 24 haurren gaitasun morfosintaktikoa aztertu zuen gaztelaniaz. Haur hauen adina 2;06;00 zen (zazpi egunen gorabehera zegoen beraien artean). Adin honetan bada, % 66,66 haurrek erabili zituzten pertsona-Izenordainak Subjektu funtzioan. Kategoria honen barruan, lehen pertsona izan zen gehien erabili zutena, % 87,5 haurrek erabili zuten. Bigarren pertsonaren erabilera berriz % 50 haurretara mugatu zen eta hirugarren pertsonaren erabilera % 12,5 haurrek besterik ez zuten erabili. Gainera, Izenordain guztiak singularrean ekoiztuak izan ziren.

Alde batetik, ikusi dugunez, gure haurra adin horretan hasten da erabiltzen Izenordainak Subjektu funtzioan. Bestalde, gure haurrak ere gehien erabiltzen duen pertsona, lehenengoa da %70etan. Ondoren bigarren pertsona erabiltzen du %29an eta hirugarren pertsona ez da ia azaltzen: %1ean besterik ez. Aguadok (1988) aztertutako haurrek bezala, gureak ere ez du Izenordain pluralik erabiltzen, ez adin horretan, ezta azterketa osoan zehar.

Beste zehar-azterketa batean ere, A. Rom eta R. Dganik (1985) markadun Izenordainen

---

<sup>82</sup> Kontuan eduki behar da gorago aipatutako zailtasun fonologikoak tartean daudela.

jabekuntza aztertu zuten hebraieraz, 105 haurrengan. Haur hauen adina 2;00;00 eta 5;05;00 bitartean zegoen. Ikerketa honen emaitzek erakusten dutenez, faktore pragmatiko-semantikoak kontuan hartuz, lehenago jabetzen dira lehen pertsonaz, bigarren eta hirugarrenaz baino. Hau da, beste zenbait hizkuntzatakako hurrek bezala, hiztunaren rola lehenago ikasten dute ez-hiztunarena baino. Termino deiktiko edo erakusleen hurbiltasun ez-hurbiltasunari dagokionez bestalde, hurrek lehen eta bigarren pertsonekin erlazioa duten Izenordainak ikasten dituzte lehenik, eta beranduago hirugarren pertsonarekin zerikusia dutenak. Baina haur batzuek hirugarren pertsona lehenago erabiltzen dute bigarren pertsona baino, agian hebraierazko Izenordain pertsonalaren bigarren pertsonaren zailtasun morfofonologikoengatik.

Gure azterketan ere, nahiz eta bi pertsonak bateratsu ikasi, aurrena agertzen dena lehen pertsona da, hau da, hiztunaren rola daramana. Erakusleen hurbiltasun/ez-hurbiltasunari dagokionez, gure haurrak lehen eta bigarren pertsonekin erlazioa dutenak ikasi ditu, konkretuki singularreko hiru formak, pluralean, berriz, lehen pertsonari dagozkionak bakarrik. Kontuan edukitzekoa da, ordea, gure haurraren azterketa hiru urte eta erdi dituenean amaitzen dela eta Rom eta Dganiren (1985) zenbait hurrek 5;05;00 adina dutela.

Gaztelaniaz termino deiktikoak nola erabiltzen diren aztertu zuten G. Shum, A. Conde eta C. Diazek (1989) bi haurrengan 2;00;00 urte eta 3;00;00 urte bitartean. Bertan diotenez, ikerketaren lehen momentutik zuzen erabiltzen dituzte hurrek termino deiktikoak "esto, eso, aqui", nahiz eta bi haurren artean ezberdintasunak nabari diren, termino deiktiko ezberdinen azalpenaren ordena, garapen eta ezaguera mailan. Diotenez, ordea, ezaguera maila hau ez da oraindik nahikoa, zenbait ikerketatan<sup>83</sup> termino deiktikoen jabekuntza osoa nahiko berankorra denez. Izenordainen artean<sup>84</sup>, "ni" hiztunaren erreferentea eta "zu" entzulearena goiz ikasten direla diote. Hirugarren pertsonaren jabekuntza, berriz, beranduago lortzen da, aldakorragoa delako eta, aldi berean, ez dagoelako hain erlazonatuta elkarrizketaren rolaekin.

Gure emaitzetara itzuliaz, lehen Izenordainak eta erakusle deiktikoak adin berean ekoizten ditu haurrak, 2;00;20 adinean hain zuzen. Bestalde, gure haurrak lehen eta bigarren pertsona-izenordainak baino ez ditu ekoizten. Bai Izenordainetan, bai erakusleetan, hirugarren pertsona falta da, nahiz eta gure haurra, azterketa amaitzerakoan, orain erkatzen ari garen bi haurrak baino sei hilabete zaharragoa izan.

M. Rispolik (1994) 12 haur ingeles aztertu zituen 1;00;00 adinetik 3;00;00 adina arte. Haur hauen ekoizpenetan, Izenordainei dagozkien ez-egokitasunak aztertu zituen. Horrela, forma objetiboak (him, her, them, me), forma nominatiboak (he, she, they, I) ordez erabiltzen dituztela dio. Gure azterketan era honetako ez-egokitasun bakar bat besterik ez dugu aurkitu.<sup>85</sup>

---

<sup>83</sup> Clark eta bere laguntzaileek 1974, 1978a, 1978b azaldutako lanak aipatzen dituzte.

<sup>84</sup> Beraiek lortutako emaitza hau, beste zenbait ikerketarekin bat datorrela diote, hala nola Clark 1978a, De Villiers y De Villiers 1980, Oleron 1985 eta Wales 1979.

<sup>85</sup> "mio quie(r)o hace(r)". Testuinguruaren arabera badirudi "yo quiero hacer" dela, baina agian "el mio quiero hacer" izan daiteke. Ez dago garbi.

#### 9. 4. 5. - Nominatibo kasuari dagozkion ondorioak

Gaztelaniazko corpusean kasu honi dagozkion emaitzak kontuan izanik, eta hauek aztertu ondoren, ondorio hauetara iritsi gara,

1.- Izen-sintagmaren determinazioa, alde batetik, eta Nominatibo kasua gordetzen duten pertsona-izenordainak eta Subjektu funtzioa betetzen duten izen-sintagmak, bestetik, aztertu ondoren, Nominatiboa edo Subjektu funtzioaren lehen ekoizpena 2;03;25 adinean kokatu dugu. Kasu honen jabekuntza-bilakabidea horrela izan da:

a) Lehen Subjektua, erakusle batean gauzatu den izen-sintagma izan da, eta 2;03;25 adinaz ekoiztu du haurrak:

(202) asi baja esto

b) 2;04;15 adinaz ekoizten du erakuslea ez den izen-sintagma Subjektua:

(203) Piu (Peru) no baja

d) Azkenik, Izenordain Subjektua azaldu da, 2;05;27 adinean, aditz iragankorra azaltzen den ekoizpen batean:

(204) mira!, ése ha(h) pintaú tú

2.- Izenordain gehienak lehen eta bigarren pertsonari dagozkionak dira, hirugarren pertsonari dagokion bakarra besterik ez baitu ekoiztu haurrak. Azalpena honela izan da:

1. Pertsona : % 70a (Yo )

2. Pertsona : % 29a (Tu )

3. Pertsona : %1a (El)

Ikerketako azken transkribapenean, ordea, lehen eta bigarren pertsonako Izenordainen kopurua ia berdindu egiten da.

3.- Izen-sintagma Subjektuak

3.1.- Izen-sintagma Subjektua, gehienetan (%58an), erakusle batean gauzatzen da. Erakusle hauek lehen eta bigarren pertsona singularrari dagozkio. Ezberdintasuna dago, ordea, Subjektu horiek azaltzen diren ekoizpenen aditza kopulatiboa edo beste aditz motaren bat bada:

a) Aditz kopulatiboetan. Subjektu gehienak erakusle batean gauzatu dira (%81):

(205) este es el tubo de escape (3;03;07)

b) Aditz ez-kopulatiboetan. Subjektu erakusleak %28a besterik ez dira:

(206) ese baja (2;03;25)

3.2.- Subjektua gauzaten den izen-sintagmetan, lehen artikulua mugagabea azaltzen da:

(207) mira, ha pasau (pasado) un tutu (2;05;27)

eta ondoren mugatua

(208) no entra el tra(c)tor (2;09;01)

3.3.- Generoari dagokionez, erakusleekin arazoak dituen bitartean, artikuluekin ez du inolako arazorik.

4.- Subjekturik gabeko ekoizpenak ugariak dira. Hiru urte bitarteko corpusean<sup>86</sup>, %62 ekoizpen daude Subjekturik gabe<sup>87</sup>.

5.- Kasu honi dagokion plurala horrela gauzatu da:

a) Izenordain pluralik ez dugu aurkitu.

b) Bi Izenordain singularrek aditzean eskatzen duten komunztadura plurala, behin eman da 3;03;07 adinaz:

(209) tu y yo si dormimo(s)

d) Nahiz eta Izenordain pluralik ez ekoiztu, aditzean pluraltasuna azaldu da zenbaitetan:

(210) . subimos? (2;05;27)

e) Izen-sintagma Subjektuak pluralean 2;07;14 adinaz ekoizten hasten da, eta %4a besterik ez dira:

(211) andan moscas

f) Bi corpusak --Izenordain Subjektuena eta izen-sintagma Subjektuena-- kontuan hartuz, bada, pluralen azalpena %2ra mugatzen da.

6.- Nominatibo kasua eta Izenordainak aztertu dituzten zenbait ikerketarekin egindako erkaketaren ondorio gisa:

---

<sup>86</sup> Hiru urte arte mugatu gara datu hau azaltzerakoan, mota honetako corpora ugaria delako eta nahiko eredugarria iruditu zaigulako.

<sup>87</sup> Gogoratu, euskaraz ere Subjektu Absolutibo eta Ergatiborik gabeko ekoizpen ugari aurkitu genituela



a) Kasu honen jabekuntzari dagokionez, hainbat ikerketatan zehar ikusi dugunez, hilabete batzuen aldea dago haurren arabera. Aldea, ordea, haur bakoitzaren bilakabide pertsonalari dagokio gure ustez, hizkuntza berdinetako haurren artean ere alde hauek ikusten baitira.

b) Izenordainen hiru pertsonen artean (yo,tu,él), lehen pertsonak (yo) --hiztunaren rola duenak-- du lehentasuna ikerketa gehienetan, nahiz eta haur batek lehen eta bigarren pertsonak batera ekoiztu. Ikerketa guztietan adostasuna dago hirugarren pertsonari (él) dagokionez: ikasten den azkena da beti.

- Izenordain hauen kokagunea aztertu den ikerketa batean, perpausaren atzean azaltzeko joera nabaria ikusi dute. Gure haurraren corpusean berriz, %15ean besterik ez dira azaltzen kokagune horretan:

(212) a ver si pongo yo (3;01;03)

gehienak hasieran azaltzen baitira:

(213) tú no vienes (2;10;06)

- Guk erabili ditugun ikerketetan aztertutako haur guztiek, Izenordainak singularrean bakarrik ekoizten dituzte.

d) Termino deiktiko edo erakusleen hurbiltasun/ez-hurbiltasunari dagokionez (este,ese,aquel), haur gehienek hasieran lehen eta bigarren pertsonekin erlazioa dutenak ikasten dituzte (este,ese) eta beranduago hirugarren pertsonarekin (aquel) erlazioa dutenak. Gure haurraren ez dugu aurkitu hirugarren pertsonari dagokionik.

e) Aztertutako ikerketa batean, forma objetiboak (him) Nominatiboen (he) ordez azaltzen dira. Gure haurraren ez dugu horrelakorik aurkitu, zalantzazko ekoizpen bat izan ezik.

### 9.4.6.- TAULAK

#### 12. TAULA: IZENORDAINAK

ADINA	1□ PERTSONA	2□ PERTSONA	3□ PERTSONA	GUZTIRA
2;00;20	1	-	-	1
2;01;03	1	-	-	1
2;02;14	1	1	-	2
2;02;26	-	-	-	-
2;03;12	1	1	-	2
2;03;25	-	-	-	-
2;04;15	1	-	-	1
2;05;12	3	-	-	3
2;05;27	4	3	-	7
2;07;14	1	-	-	1
2;07;30	4	2	-	6
2;09;01	-	-	-	-
2;09;22	6	1	-	7
2;10;06	3	2	-	5
2;10;24	3	3	-	6
2;11;21	6	-	-	6
3;01;03	4	1	-	5
3;01;19	5	3	-	8
3;01;24	-	-	-	-
3;02;14	3	1	-	4
3;03;07	5	4	-	9
3;03;22	1	2	-	5
3;04;26	13	2	-	15
3;05;09	11	1	-	12
3;05;23	9	1	-	10
3;06;17	12	6	-	18
3;06;29	13	13	1	27
GUZTIRA	111	47	1	159

PORTZENTAIK	% 70	% 29	% 1	
-------------	------	------	-----	--

### 13. TAULA: DETERMINAZIOEN LEHEN AGERPEN DATA

ADINA	ARTIKULUAK					ERAKUS LEAK	DET. ZEHAZTU GABEAK	POSESI BOAK	ZENBA TZAILE ZEHAZ TUAK	ZENBA TZAILE ZEHAZTU GABEAK
	MUGATUAK			MUGAGABEAK						
	MASK.	FEM.	PLURALA	MASK.	FEM.					
1;11;10				UN						
1;11;29	EL									
2;01;03						ESE				
2;02;14		LA			UNA		OT(R)O			
2;03;25						ESA				
2;07;14								MI	DO(H)	
2;07;30							OTRA			
2;09;22										NADA
2;10;06							MAS		UNO	
2;10;24			LOS							
3;01;03						ESTA				
3;02;14										TODOS/ TODAS
3;04;26								TU		
3;05;09										TODO
3;05;23			LAS							MUCHOS
3;06;17								MIA		
3;06;29								MIO		

**14 TAULA: SUBJEKTU FUNTZIOA BETETZEN DUTEN IZEN-SINTAGMAK, EKOIZPENEKO ADITZA KOPULATIBOA DENEAN.**

ADINA	ERAKUSLEA		IZENA+ARTIKULUA		IZEN PROPIOA	BESTE BATZUK	GUZTIRA
	1□ P	2□ P	DET.	INDET.			
2;00;20	3	1	-	-	-	--	4
2;01;03	-	-	-	-	-	-	-
2;02;14	2	-	-	-	-	-	2
2;02;26	1	1	-	-	-	-	2
2;03;12	-	-	-	-	-	-	-
2;03;25	1	-	-	-	-	-	1
2;04;15	3	7	-	-	-	-	10
2;05;12	-	-	-	-	1	-	1
2;05;27	2	-	-	1	-	-	3
2;07;14	3	1	-	-	-	-	4
2;07;30	-	-	-	-	-	-	-
2;09;01	4	1	-	-	-	-	5
2;09;22	2	-	-	-	-	-	2
2;10;06	-	-	-	-	-	-	-
2;10;24	-	-	1	1	-	-	2
2;11;21	-	-	-	-	-	-	-
3;01;03	4	1	-	-	1	1	7
3;01;19	6	2	-	-	-	-	8
3;01;24	-	-	2	-	-	-	2
3;02;14	4	-	1	-	-	-	5
3;03;07	3	-	1	-	-	-	4
3;03;22	2	-	3	-	-	-	5
3;04;26	2	1	1	-	-	-	4
3;05;09	4 (1)	1	-	-	-	-	5
3;05;23	1	1	-	-	-	-	2
3;06;17	1	1	1	-	-	-	3

3;06;29	3	-	-	-	1	-	4
GUZTIRA	69		12		3	1	85
%	% 81		% 14		% 4	% 1	

Parentesi artean azaltzen dena, plurala da.

**15. TAULA: SUBJEKTU FUNTZIOA BETETZEN DUTEN IZEN-SINTAGMAK, EKOIZPENEKO ADITZA KOPULATIBOA EZ DENEAN.**

ADINA	ERAKUSLEA		ARTIKULUA+IZENA		IZEN PROPIOA	IZENA	BESTE BATZUK	GUZTIRA
	1□P	2□P	DET.	INDET.				
2;03;25	1	1	-	-	-	-	-	2
2;04;15	-	-	-	-	1	-	-	1
2;05;12	-	-	-	-	-	-	-	-
2;05;27	-	-	-	1	2	-	-	3
2;07;14	-	-	-	-	2	2 (1)	-	4
2;07;30	-	-	-	-	-	-	1	1
2;09;01	-	1	7	-	-	-	-	8
2;09;22	-	-	-	-	1	1	1	3
2;10;06	-	-	-	-	-	-	-	-
2;10;24	-	1	1 (1)	-	-	-	-	2
2;11;21	-	-	1	1	-	-	-	2
3;01;03	3	-	-	1	3	-	1	8
3;01;19	1	1	-	2	-	-	1	5
3;01;24	1	-	1	-	-	-	-	2
3;02;14	2	-	4 (2)	-	-	-	1	7
3;03;07	-	-	3	-	4	-	-	7
3;03;22	-	-	1	-	-	-	-	1
3;04;26	3 (1)	2	-	-	-	-	2	7
3;05;09	-	-	1 (1)	-	-	-	-	1
3;05;23	-	-	-	-	-	-	1	1
3;06;17	-	-	-	-	-	-	-	-
3;06;29	1	1	-	-	1	-	-	3
GUZTIRA	19		24		14	3	8	68

PORTZENTA IAK	% 28	% 35	% 21	% 4	% 12	
------------------	------	------	------	-----	------	--

Parentesi artean daudenak, pluralak dira.

## 9. 5. - AKUSATIBO KASUA

### 9. 5. 1. - Izenordain klitikoen jabekuntza-bilakabidea

#### A) Emaitzak eta azterketa

Objektu zuzenaren funtzioaren jabekuntza eta bilakabidea aztertuko dugu jarraian. Horretarako gatzelaniaz Akusatibo kasua gordetzen duten Izenordain klitikoak aztertuko ditugu hasiera batean, eta ondoren Objektu zuzenaren funtzioa betetzen duten izen-sintagmak. Horrela, bada, Izenordain Akusatiboen azterketarekin hasiko gara.

Klitiko akusatibo hauek nahiko berandu hasten dira azaltzen aztergai dugun haurrarenen. Lehena 2;05;12 adinaz ekoizten du eta bigarren pertsonari dagokio:

(1) no **te** veo (2;05;12)

Ekoizpena, ordea, nahiko isolaturik dago, kontuan izanik ondoren ekoizten duena lau hilabete beranduago azaltzen dela. Oraingoan lau ekoizpen ditugu eta lehenengo aldiz azaltzen dira lehen (4,5) eta hirugarren (3) pertsonari dagozkionak:

(2) a ti no **te** llevo (2;09;22)

(3) y pontelo . eh? (2;09;22)

(4) Itziar, . **me** cojes? (2;09;22)

(5) . **me** llevas! (2;09;22)

Hurrengo hilabetean ere ekoizten ditu haurrak klitiko hauek, oraingoan denak hirugarren pertsonari dagozkionak:

(6) . **lo** quito? (2;10;06)

(7) **lo** que quieras (2;10;06)

(8) **lo** ha (he,has) quita(d)o, e(s)to (2;10;06)

Horrela bada, hiru urte bete aurretik oso klitiko gutxi ekoiztu ditu, baina jadanik hiru pertsonak azaldu dira.

Akusatibo hauen hirugarren pertsonak generoa onartzen du, baina femeninozko formak oso gutxitan azaltzen dira haur honengan, % 11tan (16. taula), eta azaltzen direnak, azterketaren azken aldean aurkitu ditugu:

- (9) pon(me)**la**<sup>88</sup> a mi (3;03;07)  
 (10) porque yo **la** he cerrau (cerrado) así (3;06;29)  
 (11) tú . **la** has visto? (3;06;29)  
 (12) es **la** que come aquí (3;06;29)

Objektu zuzenaren funtzioa betetzen duten klitiko akusatibo hauen artean, ugarienak, dudarik gabe, hirugarren pertsonari dagozkionak dira. Ondoren kopuruari dagokionez, bigarren pertsona dator eta azkenik lehen pertsona dago. Portzentaien bidez argiago ikusiko dugu hemen esandakoa (16. taula):

- Lehen pertsona : % 11a
- Bigarren pertsona: % 27a
- Hirugarren pertsona: % 62a

Akusatibo hauen kokagunea, hitzaren aurrean (proklitikoak) (13) edo atzean (enklitikoak) (14) egon daiteke<sup>89</sup>:

- (13) mañana **te** invito (3;06;29)  
 (14) **dámelo** (3;06;29)

Bi eratakoak aurkitu ditugu, baina ugarienak, dudarik gabe, proklitikoak dira %87a baitira (17. taula).

Pluralari dagokionez, bi klitiko besterik ez ditugu aurkitu corpus osoan zehar, biak hirugarren pertsonari dagozkionak, bata maskulinoa eta bestea femeninoa. Biak hiru urte bete ondoren ekoizten ditu (16. taula):

- (15) si, **los** metemos (3;04;26)  
 (16) no te **las** dejo (3;05;23)

Ekoizpen ugari aurkitu ditugu klitikorik gabe, nahiz eta kontestuaren bidez hauen beharra ikusi. Hasteko, esan beharra dago haur honek maiz erabiltzen duela "mira" aditza, honi dagokion enklitikorik gabe. Hauek ez ditugu kontuan eduki portzentaiak egiterakoan, esan dugunez, ekoizpen berdina behin eta berriro azaltzen delako. Horrela bada, azaldu behar luketen klitikoak, %36a dira eta guztiak hirugarren pertsonari dagozkionak, hauetatik bi pluralak (18. taula). Hemen ere proklitikoak dira gehien falta direnak, %72a hain zuzen (19. taula).

Puntu honetan esan beharra dago, oso hedatua dagoela jarrera hau helduengan ere, hau da, askotan ekoizten ditugula esaldiak klitiko akusatiborik gabe. Eta honen eredu, aztertzen ari garen corpusean bertan ere aurkitu dugun horrelako hutsune bat azalduko dugu. Jostailu bat egiten ari dira piezak batuz eta, momentu batean, honela dio hizketa-lagunak haurrari:

<sup>88</sup> Ekoizpen honetan datiboko klitikoa falta da. Datiboari dagokion azterketan adieraziko dugu.

<sup>89</sup> Aztertzen ari garen klitikoak bi kokagunetan azal daitezke. Alde batetik "proklitikoak" dauzkagu, hau da, ondoren doan hitzaren menpe daudenak, azentuari dagokionez. Bestalde "enklitikoak" ditugu, hauek berriz azentu nagusia daraman hitzaren ondoren azaltzen dira.

(17) Hizketa-lagunak: igual (lo) puedo hacer ( 3;05;09)

eta aurrerago, honela esaten du haurrak:

(18) Haurrak: yo no (lo) puedo hacer ( 3;05;09)

Bestalde, alderantziz ere gertatzen da, hau da, klitiko honen beharra ez egon arren, ekoizpenean azaltzen da:

(19) no **lo** toques mi excavadora (3;05;09)

Ekoizpen honetan, nahiz eta klitikoa soberan egon, generoari dagokionez ere gaizki dago, maskulinoa azaldu beharrean, femeninoa behar luke-eta.

Klitiko hauekin sortzen den beste arazo arrunt bat ere aurkitu dugu haur honengan, leismoa hain zuzen. Jakina denez, oso arrunta da gu bizi garen lurraldean hirugarren pertsonari dagokion Objektu zuzena Datibo kasuari dagokion klitiko batez ekoiztea, hau da, "leismoa" deritzana. Horrelako lau ekoizpen aurkitu ditugu:

(20) . **le** tiramos? (2;05;27)

Hemen "baloi" bati buruz ari da haurra eta, dudarik gabe, "lo" behar luke izan klitikoak.

(21) yo **le** cojo (3;03;22)

(22) cóge**le** (3;04;26)

(23) a Carmen, a buscar**le**<sup>90</sup> (2;11;21)

Ekoizpen hauetan, berriz, erreferenteak femeninoak dira (pala/rata-rana/carmen) eta beharko lukeen klitikoa akusatibo femeninoa da, "la" hain zuzen.

Helduengan ere "leismoa" hedatua dagoela esan dugu gorago. Eta honen eredu, 23. ekoizpenaren ondoren hizketa-lagunak esaten duena :

(24) claro, hay que ir a buscar**le**<sup>91</sup> a Carmen (2;11;21)

Bestalde, beste lau ekoizpenetan, klitiko femeninoa erabili beharrean, maskulinoa erabiltzen du:

(25) ot(r)a pon**lo** aqui (1;11;29)

(26) . **lo** quitan los señores? (la moqueta) (2;10;24)

(27) y **lo** coge así (la tierra) (2,11;21)

(28) no **lo** toques . eh? (la excavadora) (3;05;09)

---

<sup>90</sup> RAEk (Real Academia Española,1982) onartzen duen "leismo" bakarra, pertsona maskulinoa eta singularra denean da.

<sup>91</sup> Ekoizpen honetan, leismoaz gain, klitikoa sobran legoke.



Azterketa amaitu ondoren, esan beharra dago 25. ekoizpena ez-ohikoa dela, ekoiztu duen adina kontuan edukiz, bi urte baino lehenago azaldu denez. Gure ustez, osorik ikasitako formula baten aurrean gaude.

## B) Laburpena

Ikusi ahal izan dugunez, klitiko Akusatiboen azalpena, aztertzen ari garen haurraren, nahiko berandu azaltzen da, ia bi urte eta erdi dituela (2;05;12). Hurrengo, 2;09;22 adinean azaltzen da, eta ekoizpen mota hauek ez dira oso ugariak gainera. Klitiko hauen hirugarren pertsonak generoa onartzen du, baina Akusatibo femeninoa oso gutxitan ekoizten du (%11) eta, gainera, azterketaren azken aldian. Bestalde, singularreko hiru pertsonak azaltzen dira, eta ugariena, dudarik gabe, hirugarren pertsona da; %62ko azalpenaz. Ondoren, kopuruari dagokionez, bigarren pertsona azaltzen da %27an eta azkenik lehenengo pertsona, %11n (16. taula). Izenordain hauen kokagunea dela-eta, aipatu dugu hitzaren aurrean (proklitikoak) edo atzean (enklitikoak) azal daitezkeela. Eta haur honengan ere bi kokaguneetan azaltzen dira, baina askoz ugariagoak dira proklitikoak, hau da, hitzaren aurrean azaltzen direnak, %87tan kokagune hori dutenez (17. taula). Pluralari dagokionez, bi klitiko Akusatibo besterik ez ditu ekoiztu haurrak (%4), biak hirugarren pertsonari dagozkionak, bata maskulinoa eta bestea femeninoa. Biak hiru urte bete ondoren ekoiztutakoak dira.

Izenordain klitikoekin helduek egiten ditugun erru berberak ikus daitezke haur honengan ere. Alde batetik Izenordain hauek gabe azaltzen diren ekoizpenak ugariak dira, %36, hain zuzen, denak hirugarren pertsonari dagozkionak. Ekoiztutakoekin gertatzen den bezala, ekoiztu behar lituzkeen Izenordain Akusatibo gehienak ere proklitikoek behar lukete (% 72) (19. taula). Leismoa gure lurraldean helduengan hedatua dagoen ohitura da eta haur honek ere Datibo kasuari dagokion klitikoa erabiltzen du zenbaitetan, Akusatiboari dagokiona erabili beharrean, eta, corpus osoaren arabera, %9ra iristen dira. Bestalde, generoari dagozkion ez-egokitasun batzuk ere aurkitu ditugu, Izenordain femeninoak erabili ordez, maskulinoak erabiltzen baititu: hauek ere %9a dira. Hau guztia kontuan edukiz ere, gehienak ekoizpen zuzenak dira.

## 9. 5. 2. - Objektu zuzenaren funtzioa betetzen duten izen-sintagmen jabekuntza-bilakabidea, aditz jokatuak duten ekoizpenetan.

### A) Emaitzak eta azterketa

Objektu zuzenaren funtzioa betetzen duten klitiko Akusatiboen azterketa amaitu ondoren, funtzio bera betetzen duten izen-sintagmen azterketari ekingo diogu jarraian.

Azaltzen den lehen Objektu zuzena, 2;03;25 adinaz ekoizten du haurrak, eta bakarra da adin honetan. Ikusten denez, funtzio hau betetzen duen elementua, determinatzaile bat da, eta aditzaren ondoren azaltzen da:

(29) pongo aqui ot(r)o (2;03;25)

Hurrengo hilabeteko transkribapenean, beste bi Objektu zuzen aurkitu ditugu, oraingoan

erakusle batean gauzaten direnak:

(30) ahora (a) coger esa (2;04;15)

(31) ahora a mete(r) esa (2;04;15)

Hilabete eta erdi beranduago ekoizten du haurrak Objektu zuzenaren funtzioa betetzen duen bi elementuz osatutako lehen izen-sintagma, artikulua mugagabea eta izen batez osatutakoa, hain zuzen:

(32) aqui pi(n)tamos un tutu (coche) (2;05;27)

Orain arte azaldu diren izen-sintagma Objektuak, aditzaren ondoren ekoiztu ditu haurrak, hau da, gaztelaniazko hitzordena gordez. Adin honetan azaltzen da, lehen aldiz, aditzaren ezkerretara azaltzen den lehen izen-sintagma Objektua:

(33) pisanona (apisonadora) no hay (2;05;27)

Mota honetako ekoizpenak, ordea, oso gutxitan ekoizten ditu: %8tan besterik ez. Hauen artean gainera, arauari dagokion hitzordena aldatua erakusten duen zenbait ekoizpen, loturik dago, gure iritziz, mintzagaiaren arazoarekin:

(34) mila (mira) ése hah (has) pinta(d)o tú (2;05;27)

Azterketan zehar ikusiko dugunez, ekoizpen gehienetan, izen-sintagma Objektua dagokion ordenan ekoizten du aztertutako haurrak.

Artikulu mugatua daraman lehen izen-sintagma Objektua berriz, bi hilabete beranduago azaltzen da :

(35) quita la mano xx (2;09;22)

(36) ha (he) comido el pa(s)tel (2;09;22)

Adin honetatik aurrera, Objektu funtzioa betetzen duten izen-sintagma asko azaltzen da artikulua eta izen batez osatuta. Testuinguru honetan haurrak gehien erabiltzen duena (%22) artikulua mugagabea da (20. taula):

(37) parezco una pilina (aspirina) (3;01;03)

(38) a que te loy (doy) una to(r)ta g(r)ande (3;01;19)

(39) hacemos un coche (3;03;07)

(40) y ha hecho un salto (3;03;22)

(41) te voy a romper una oreja (3;04;26)

(42) ha tilado (tirado) un poquito (3;05;09)

(43) se ha compra(d)o un chite (chicle) (3;05;23)

(44) yo tengo una pistola de agua (3;06;17)

(45) y tomar una coca-cola (3;06;29)

Artikulu mugatuaren ekoizpena, berriz, %11ra mugatzen da:

- (46) está cogiendo la grúa (2;11;21)
- (47) porque está lompiendo (rompiendo) la casa (3;03;07)
- (48) ahora tengo el sanchesqui nuevo (3;04;26)
- (49) que si no se rompe la casa (3;05;23)
- (50) cierra la puerta (3;06;17)

Pluralari dagokionez, 2;09;22 adinaz ekoizten du lehen aldiz gure haurrak izen-sintagma Objektua pluralean:

- (51) comiento patatas (2;09;22)

Hurrengo bi hilabete beranduago azaltzen da, eta hemendik aurrera ia ekoizpen guztietan izen-sintagma Objektu pluralen bat ekoizten du:

- (52) y se rompe(n) todo(s) la (los) a(g)ujeros<sup>92</sup> (2;11;21)
- (53) que no se dicen cosas feas (3;01;03)
- (54) no hay luedas (ruedas) aqui (3;01;03)
- (55) tiene pilas (3;02;14)
- (56) aqui hay tiburones (3;03;07)
- (57) que no tiene bolas (3;04;26)
- (58) con esto hay que hacer colores (3;05;23)
- (59) el miercole(s) me traen vaqueros (3;06;29)
- (60) yo quiero mirar otras co(sas) (3;05;09)

Azken esaldi honetan, berriz, azken silaba osoa da ekoiztu ez duena<sup>93</sup>, baina transkribapen bereko ekoizpen batean (61) hitz bera dugu ondo ekoiztuta, pluralean hau ere:

- (61) si, hay mas cosas (3;05;09)

Horrela bada, pluralaren azalpena, aurreko azterketetan ikusi ahal izan dugunez, nahiko urria da hemen ere, %15eko azalpena besterik ez baitu.

- (62) pues yo no tene (tengo) juguete (3;05;23)

Ekoizpen honetan, edo pluralaren morfema falta da, edo determinatzaile bat.

### *Atributuak*

Euskarari dagokion azterketan egin dugun bezala, hemen ere sintagma ez markatuak diren Atributuen jabekuntza-bilakabide labur bat azalduko dugu.

---

<sup>92</sup> Numeroa eta generoari dagozkion ez-egokitasun hauek, izen-sintagmaren determinazioa aztertu dugunean, hau da, 9.4.2. puntuan argitu ditugu.

<sup>93</sup> Hori esaten duenean, ez dago oso gustura egiten ari direnez, eta kexa adierazten duen ahotsez ahoskatzen du.

Atributuen itxura duten lehen ekoizpenak 2;00;20 adinaz azaltzen dira:

- (63) este e(s) un tutu (imitazioa) (2;00;20)
- (64) esa (eso) e(s) caché (coche) (2;00;20)
- (65) ete (esto) e(s) ua (. ura?) (2;00;20)
- (66) e(s)te e(s) Pe(r)u (2;00;20)
- (67) ese (esa) e(s) aaja (. naranja?) (2;02;14)
- (68) e(s)to en (es) g(r)ande, g(r)ande (2;02;26)
- (69) este es gange (grande) (2;03;25)

Ekoizpen guzti hauetatik osatuena lehenengoa da, Atributua artikulua ta guzti azaltzen baita. Ekoizpen hau, ordea, imitazio bat da eta beste guztiak, gure ustez, formula gisara ikasitakoak.

Lehen Atributuak 2;04;15 adinaz ekoizten ditu. Adjektibo batean gauzatzen dira eta honi batzuetan artikulua mugagabea jartzen dion bitartean, bestetan ez dio jartzen<sup>94</sup>:

- (70) e(s)te e(s) un g(r)ande (2;04;15)
- (71) ese e(s) g(r)ande (2;04;15)
  
- (72) e(s)te e(s) un blanco (2;04;15)
- (73) ese e(s) blanco (2;04;15)

Hurrengo hilabetean ere Atributu funtzioa betetzen duen izen propio bati artikulua jarri dion bitartean, beste bati ez dio jarri:

- (74) e(s)te e(s) un Duli (Jurgi) (2;05;27)
- (75) e(s)te e(s) Peru (2;05;27)

Hurrengo transkribapena 2;07;14 adinekoa da, eta hemen agertzen da lehen aldiz artikulua determinatua Atributu funtzioa betetzen duen izen-sintagma batean:

- (76) este es el aita (2;07;14)

Hemendik aurrera Atributua osatzen duten izen-sintagmen determinazioa ondo ekoiztuko du haurrak bi artikuluekin, hau da, artikulua mugagabearekin:

- (77) e(s) un muñeco (2;07;14)
- (78) ete (esta) e(s) una flo(r) (2;09;22)
- (79) . ete (esto) es una pila? (2;10;24)
- (80) e(s)te no es un señor, es un payaso (3;01;19)
- (81) esto no es un tubo de escape (3;03;07)
- (82) e(s)to es un elefante (3;06;17)

zein artikulua mugatuarekin:

---

<sup>94</sup> Izen-sintagmaren determinazioari dagokion atalean, argitu ditugu arazo hauek.

- (83) es la gasolinera e(s)ta (3;01;03)
- (84) . dónde está la ambulancia? (3;02;14)
- (85) porque está lompiendo (rompiendo) la casa (3;03;07)
- (86) este es el tubo de escape (3;03;07)
- (87) e(s)te es el torero (3;04;26)

Objektu zuzenaren funtzioa betetzen duten izen-sintagmen determinazioan gertatzen den bezala, hemen ere ugariagoak dira artikuluko mugagabeak: %28. Artikulu mugatuak, berriz, %15 dira (21. taula)

Atributua gauzatzen den sintagmetan, generoari dagozkion bi ez-egokitasun besterik ez dugu aurkitu corpus osoan zehar. Lehen ekoizpenean (88) artikuluko femeninoa erabiltzen du, maskulinoa erabili ordez. Adin berean, ordea, ondo erabiltzen du hitz berarekin (89):

- (88) e(s)te es una pollito (2;09;22)
- (89) eres un pollito (2;09;22)

Bigarrenean, berriz, alderantziz gertatzen da, hau da, artikuluko maskulinoa erabiltzen du femeninoa erabili ordez:

- (90) a ve(r) si hago un dole (torre) (2;10;24)

Atributu bakar bat besterik ez dugu aurkitu pluralean, azterketaren amaiera aldean:

- (91) no son canicas (3;05;23)

## B) Laburpena

Objektu zuzenaren funtzioa betetzen duten sintagmen azterketa amaitu ondoren, honen jabekuntzaren laburpena eskaintzen saiatuko gara.

Lehen ekoizten duen Objektu zuzena 2;03;25 adinarekin azaltzen da.

Azterketan zehar adierazi dugunez, funtzio hau gauzatzen den izen-sintagmetako lehen determinazioa, artikuluko mugagabea da, 2;05;27 adinean, hain zuzen, hurrengo bost hilabete beranduago azaltzen den arren. Bi hilabete beranduago artikuluko mugatua erabiltzen hasten da, Objektua gauzatzen den izen-sintagma determinatzeko. Kopuruari dagokionez, ugariagoak dira artikuluko mugagabeak, kontuan izanik hauen ehunekoa %22koa dela eta artikuluko mugatuena, berriz, %11koa (20. taula). Izen-sintagma Objektuak pluralean 2;09;22 adinaz hasten da ekoizten haurra, eta %15a dira. Izen-sintagma Objektu hauen kokaguneari dagokionez, %92a aditzaren ondoren azaltzen dira, hau da, gaztelaniazko hitzordenaren arabera.

Kasuz markaturik gabeko sintagma izan arren, Atributuen jabekuntza-bilakabidea ere aztertu dugu. Hasieran Atributu diruditenak, formula gisara ikasitakoak dira, gure ustez. Lehen Atributua, hortaz, 2;04;15 adinean ekoizten du haurrak, Objektu zuzenaren funtzioa betetzen

duen lehen izen-sintagma baino ia hilabete beranduago<sup>95</sup>. Atributuan erabiltzen duen lehen determinazioa ere, artikulua mugagabea da, adjektiboekin azalduz. Hasieran arazo batzuk ditu determinazio mota honekin, baina ondo erabiltzen du 2;07;14 adinetik aurrera, eta adin honetan, gainera, artikulua mugatua ekoizten du haurrak lehen aldiz. Bietan ugariena artikulua mugagabea da, %28an erabiltzen baitu, eta artikulua mugatua, berriz, % 15ean (21. taula). Atributu plural bakarra aurkitu dugu corpus osoan zehar, ia hiru urte eta erdi dituenean, gainera.

### 9.5.3.- Akusatibo kasuaren jabekuntza orokorrari buruzko laburpena

#### A) Laburpena

Objektu zuzenaren jabekuntza eta bilakabidea ikusi ahal izateko, alde batetik klitiko Akusatiboak aztertu ditugu, jakina denez aipatu funtzioa betetzen baitute hauek. Bestalde, Objektu zuzen funtzioa betetzen duten sintagmak ere aztertu ditugu. Azterketa hauetan ikusi ahal izan dugunez, honela kokatu dugu funtzio hauen jabekuntza:

- Objektu zuzenaren funtzioan azaltzen den lehen izen-sintagma: 2;03;25

- Klitiko akusatiboaren lehen ekoizpena: 2;05;12

Horrela bada, lehen Objektu zuzena 2;03;25 adinean koka genezake. Lehen ekoizpen honetatik, klitiko Akusatiboaren lehen ekoizpena ia bi hilabete epea dago. Klitikoak emankortasunez hiru urtetik aurrera hasten dira azaltzen. Bitartean, ordea, Objektu zuzen funtzioa betetzen dituzten izen-sintagmak ekoizten ditu.

Izen-sintagma hauen bilakabidea aztertuz, zenbait berezitasun ikusi dugu. Alde batetik sintagma hauetan azaltzen den lehen determinatzailea, artikulua mugagabea da. Artikulu honen agerpena ugaria da, %22etan ekoizten baitu. Garrantzia duen beste determinatzailea, artikulua mugatua da. Hau, beranduago ekoizten du eta azalpena ere mugatuagoa da (%11). Pluralaren presentzia ere, aurreko ataletan ikusi izan dugun moduan, nahiko berankorra eta urria da, 2;09;22 adinaz ekoizten baitu lehen aldiz eta %15a osatzen du.

Aipatu dugunez, nahiko berandu hasten da haurra Objektu zuzen funtzioa betetzen duten klitiko Akusatiboak ekoizten, 2;05;12 adinaz, hain zuzen. Ugariak --erdiak baino gehiago--, hirugarren pertsona singularrari dagozkionak dira. Gainera, klitiko hauetatik gehienak, %87a, proklitikoak dira, hau da, ondoren doan hitzaren menpe daudenak azentuari dagokionez. Pluralaren azalpena, berriz, oso eskasa da, bi besterik (%4) ez baititu ekoiztu corpus osoan zehar. Bestalde, klitiko Akusatiborik gabe azaltzen diren ekoizpenak, helduengan gertatzen den bezala, ugariak dira: %36, hain zuzen.

#### B) Emaitzen eztabaida

Jarraian, aurreko azterketetan egin dugun bezala, kasu eta funtzio hauek aztertu dituzten zenbait ikerketetako emaitzekin erkatuko ditugu gure emaitzak.

---

<sup>95</sup> Euskaraz alderantziz gertatzen da, hau da, Atributua Objektu Absolutiboa baino lehenago azaltzen da.

Turkieraren jabekuntzaz egin diren ikerketa ezberdinetan oinarriturik egindako lan batean, A. A. Aksu - Koç eta D.I. Slobinek (1985) hurrek hizkuntza horretako sistema inflexionala oso goiz jabetzen dutela diote. Hori dela eta, izenen inflexioak eta aditz paradigma gehienak lortuak dituzte bi urte betetzen dituztenerako. Hauen artean, orain aztertzen ari garen kasua dago, hau da, Akusatiboa.

Morfologia eta sintaxiaren jabekuntza hungarieraz aztertu zituen B. Macwhinney-k (1976) haur batengan. Turkieraz gertatzen den bezala, hemen ere inflexioak oso goiz azaltzen dira haurren hizkuntzan, lehen hitzetan ikus daitezkeenez. Ekoizpen emankorra, ordea, sei hilabete beranduago lortzen dute. Bestalde, inflexio emankorrik ez da ikusten bi hitzeko lehen ekoizpenaren aurretik. Hala eta guztiz ere, ekoizpen emankorra bi urte aurretik lortzen da. Konkretuki Akusatibo kasuari dagokionez, berak aztertutako haurrak 1;10 adinaz ekoizten du lehenengoz.

Aurreko bi azterketetako emaitzak kontuan hartuz, Akusatibo kasuaren jabekuntza lortua dute bi urtetarako hizkuntza horietako hurrek. Ez da hala gertatzen gu aztertzen ari garen haurraren, honek bi urte aurretik ez baitu ekoiztu ez Akusatiborik ez beste kasurik.

Euskaraz eta gaztelaniaz aldi berean jabetzen den haur baten kasuaren jabekuntza eta bilakabidea aztertu zituen M.P. Larrañagak (1994). Akusatibo kasuaren jabekuntzari dagokionez, kasu honetan azaltzen den lehen klitikoa 2;00;00 adinaz ekoizten badu ere, ekoizpen isolatu baten aurrean gaudela dio. Bestalde, oso klitiko gutxi azaltzen dira, azaldu beharko luketen testuinguru ugari aurkitu arren. Hau guztiz normala da, kontuan hartzen badugu azterketa 2;06;11 adinean amaitzen dela. Lehen azaltzen den forma, eta ugariena gainera, "lo" da. Nahiz eta azal daitezkeen bi kokagunetan ekoiztu kasu hau, gehiagotan ekoizten ditu enklitikoki, hau da, hitzaren ondoren. Oso gutxitan ekoizten ditu hirugarren pertsonari ez dagozkion klitiko Akusatiboak. Bestalde, eta lanaren egileak harrigarritzak jotzen badu ere, ez da azaltzen leismo kasu bakar bat ere.

Gure haurrak Larrañagarenak baino bost hilabete beranduago ekoizten du lehen klitikoa eta oso urria da hauen ekoizpena hiru urte bitartean. Hemendik aurrera hasten da klitiko akusatiboak emankortasunez ekoizten. Hala eta guztiz ere, Larrañagaren (1994) haurraren bezala, gurean ere ugariak dira klitikorik gabe azaltzen diren ekoizpenak, %36, hain zuzen. Nahiz eta ez izan hirugarren pertsona lehen ekoizten duena, gure haurraren ere ugariena da (%62). Beste bi pertsonak ere azaltzen dira, ordea. Bietatik gehien ekoizten duena bigarren pertsona da %27ko maiztasunez eta lehen pertsona, berriz, %11koaz. Akusatibo hauen kokaguneari dagokionez, Larrañagaren (1994) haurraren erkatuz, alderantziz gertatzen da gure haurraren, gureak klitiko gehienak (%87) hitzaren aurrean ekoizten baititu, hau da, proklitikoak dira. Azkenik, "leismo" kasu batzuk ere sumatu ditugu, hauetako lehena 2;05;27 adinean.

Alemaniera eta frantsesa aldi berean ikasten dituen haur bat aztertu zuen T. Parodik (1989) 1;11;00 adinetik 3;08;00 adina arte. Lau aro ezberdin bereizten ditu, eta azken aroa hiru urtetik aurrera kokatzen du. Bertan, forma flexiodunen artean Akusatiboak eta Datiboak alemanieraz ondo bereizten direla dio. Gure haurraren azterketara itzuliz, klitiko Akusatiboak adin honetan emankortasunez ekoizten dituela ikusi dugu. Datiboari dagokionez, ondoren azalduko dugu kasu honen azterketa.

#### 9. 5. 4. - Akusatibo kasuari dagozkion ondorioak

Gure datuen arabera, lortu ditugun emaitzak kontuan izanik eta hauek aztertu ondoren, ondorio hauek iritsi gara:

1.- Alde batetik klitiko Akusatiboak eta bestetik Objektu zuzenaren funtzioa betetzen duten izen-sintagmak aztertu ondoren, Akusatibo kasuaren lehen jabekuntza 2;03;25 adinean kokatu dugu.

2.- Kasu honen azalpena horrela eman da haur honengan

a) Lehen azaldu dena Objektu zuzena da, izen-sintagma batean gauzatua, 2;03;25 adinean:

(92) pongo aqui ot(r)o

b) Ondoren, ia bi hilabete beranduago, Klitiko akusatiboa, 2;05;12 adinean

(93) no **te** veo

3.- Akusatibo klitikoa, emankortasunez, hiru urtetik aurrera ekoizten hasiko da gure haurra.

4.- Akusatibo klitikoen hiru pertsonak ekoiztu ditu haurrak, baina ugariena hirugarren pertsonari dagokiona da, %62ko ehunekoaz

(94) no **lo** voy a guardar (3;05;23)

5.- Klitiko Akusatibo hauek proklitikoak, hau da, azentuari dagokionez, ondoren doan hitzaren menpe daudenak:

(95) éste **te** come (3;04;26)

eta enklitikoak edo azentu nagusia daraman hitzaren ondoren azaltzen direnak dira:

(96) eso es para arreglar**lo** (3;01;19)

baina gure haurrak ekoiztu dituen gehienak (%87) proklitikoak dira.



6.- Klitiko Akusatiborik gabe azaldutako ekoizpen ugari dago (%36) guk aztertutako haurraren corpusean:

(97) dame(la) (2;09;22)

Hau, ordea, helduen hizkuntzan ere ohikoa da.

7.- Izen-sintagma objektu gehienak, %92a hain zuzen, aditzaren ondoren azaldu dira, gaztelaniazko hitzordenaren arabera.

8.- Beste azterketetan zehar ikusten ari garen bezala, hemen ere urria da pluralaren azalpena, %11koa besterik ez baita, eta gainera berandu azaltzen da. Kasu honi dagokionez, horrela gertatu da:

a) Lehen plurala Objektu zuzenari dagokiena da, eta 2;09,22 adinaz azaltzen da (Adib: comiendo patatas)

b) Bi klitiko Akusatibo besterik ez, eta berandu gainera; lehena 3;04;26 adinaz (Adib: si, **los** metemos)

9.- Kasuaz markatu gabeko sintagma atributua 2;04;15 adinaz azaltzen da, hau da, Objektu funtzioa betetzen duen sintagma baino ia hilabete beranduago:

(98) ese e(s) blanco

Euskaraz, alderantziz gertatzen da, hau da, lehenago ekoizten du haurrak Atributua Objektu zuzena baino.

10.- Beste ikerketekin egindako erkaketaren ondorioz, puntu hauek ikusi ahal izan ditugu:

a) Gure haurrak ere, klitiko Akusatiboak ez-klitikoak baino beranduago ekoizten ditu.

b) Klitiko Akusatiboen kopurua urria da orokorki, eta batez ere jabekuntzaren haseran.

d) Helduengan gertatzen den moduan, ekoizpen asko (gure haurraren %36) beharrezko klitiko Akusatiborik gabe azaltzen dira

e) Klitiko hauen artean gehien azaltzen dena singularreko hirugarren formari dagokiona da: "lo".

f) Aztertutako ikerketa batean enklitikoak ugariak ziren bitartean, gure haurraren corpusean proklitikoak dira gehien azaltzen direnak.

g) Aipaturiko ikerketa horretako haurraren "leismorik" aurkitu ez zuen bitartean<sup>96</sup>, gure haurraren 2;05;27 tik aurrera azaldu da.

<sup>96</sup> Kontuan eduki behar da aipaturiko ikerketa 2;06;11 adinean amaitzen dela.

### 9. 5. 5. - TAULAK

16 TAULA: KLITIKO AKUSATIBOAK

ADINA	ME	TE	LO	LOS	LA	LAS	GUZTIRA
2;05;12	-	1	-	-	-	-	1
2;05;27	-	-	-	-	-	-	-
2;07;14	-	-	-	-	-	-	-
2;07;30	-	-	-	-	-	-	-
2;09;01	-	-	-	-	-	-	-
2;09;22	2	1	1	-	-	-	4
2;10;06	-	-	3	-	-	-	3
2;10;24	-	-	-	-	-	-	-
2;11;21	-	-	-	-	-	-	-
3;01;03	-	-	4	-	-	-	4
3;01;19	-	-	2	-	-	-	2
3;01;24	-	-	-	-	-	-	-
3;02;14	-	-	-	-	-	-	-
3;03;07	2	2	3	-	1	-	8
3;03;22	-	-	1	-	-	-	1
3;04;26	-	4	1	1	-	-	6
3;05;09	-	-	1	-	-	-	1
3;05;23	-	-	1	-	-	1	2
3;06;17	-	3	1	-	-	-	4

3;06;29	1	1	4	-	3	-	9
GUZTIRA	5	12	22	1	4	1	45
PORTZENTA IAK	% 11	% 27	% 51		% 11		

**17. TAULA: KLITIKO AKUSATIBOEN KOKAGUNEA**

ADINA	ENKLITIKOAK	PROKLITIKOAK	GUZTIRA
2;05;12	-	1	1
2;05;27	-	-	-
2;07;14	-	-	-
2;07;30	-	-	-
2;09;01	-	-	-
2;09;22	1	3	4
2;10;06	-	3	3
2;10;24	-	-	-
2;11;21	-	-	-
3;01;03	-	4	4
3;01;19	1	1	2
3;01;24	-	-	-
3;02;14	-	-	-
3;03;07	2	6	8
3;03;22	-	1	1
3;04;26	-	6	6
3;05;09	-	1	1
3;05;23	-	2	2
3;06;17	-	4	4
3;06;29	2	7	9

GUZTIRA	6	39	45
PORTZENTAIK	% 13	% 87	

**18. TAULA: AGERTU BEHAR LUKETEN KLITIKO AKUSATIBOAK**

ADINA	ME	TE	LO	LOS	LA	LAS	GUZTIRA
2;05;12	-	-	1	-	-	-	1
2;05;27	-	-	-	-	1	-	1
2;07;14	-	-	-	-	1	-	1
2;07;30	-	-	-	-	-	-	-
2;09;01	-	-	2	-	-	-	2
2;09;22	-	-	-	-	1	-	1
2;10;06	-	-	-	-	-	-	-
2;10;24	-	-	1	-	-	-	1
2;11;21	-	-	1	-	-	-	1
3;01;03	-	-	2	-	-	-	2
3;01;19	-	-	1	1	1	-	3
3;01;24	-	-	1	-	-	-	1
3;02;14	-	-	-	-	-	-	-
3;03;07	-	-	-	-	-	-	-
3;03;22	-	-	-	-	1	-	1
3;04;26	-	-	-	-	1	-	1
3;05;09	-	-	1	-	-	-	1
3;05;23	-	-	-	1	-	-	1
3;06;17	-	-	-	-	-	-	-
3;06;29	-	-	7	-	-	-	7
GUZTIRA	-	-	17	2	6	-	25

PORTZEN TAIAK		% 76	% 24	
------------------	--	------	------	--

**19. TAULA: KLITIKO AKUSATIBOEK AGERTUZ GERO EDUKIKO LUKETEN KOKAGUNEA**

ADINA	ENKLITIKOAK	PROKLITIKOAK	GUZTIRA
2;05;12	1	-	1
2;05;27	-	1	1
2;07;14	-	1	1
2;07;30	-	-	-
2;09;01	1	1	2
2;09;22	1	-	1
2;10;06	-	-	-
2;10;24	-	1	1
2;11;21	-	1	1
3;01;03	-	2	2
3;01;19	2	1	3
3;01;24	-	1	1
3;02;14	-	-	-
3;03;07	-	-	-
3;03;22	1	-	1
3;04;26	1	-	1
3;05;09	-	1	1
3;05;23	-	1	1
3;06;17	-	-	-
3;06;29	-	7	7
GUZTIRA	7	18	25

PORTZEN TAIAK	% 28	% 72	
------------------	------	------	--

**20. TAULA: OBJEKTU ZUZENAREN FUNTZIOA BETETZEN DUTEN IZEN-SINTAGMAK**

ADINA	ERAKUSLEA		ARTIKULUA + IZENA		IZENA	BESTE BATZUK	GUZTIRA
	1 □ P	2 □ P	DET:	INDET			
2;03;25	-	-	-	-	-	1	1
2;04;15	-	2	-	-	-	-	2
2;05;12	-	-	-	-	-	-	-
2;05;27	-	2	-	1	1	-	4
2;07;14	-	-	-	-	3	-	3
2;07;30	-	-	-	-	-	-	-
2;09;01	-	-	-	-	-	-	-
2;09;22	-	-	2	-	3 (1)	2	7
2;10;06	-	1	-	-	-	2	3
2;10;24	-	-	-	1	1	-	2
2;11;21	1	-	3	-	1(1)	-	5
3;01;03	-	-	-	1	3 (1)	4 (1)	8
3;01;19	-	-	1	3	-	1	5
3;01;24	-	-	-	-	-	-	-
3;02;14	1	-	-	-	1(1)	3 (2)	5
3;03;07	-	-	2	1	1(1)	-	4
3;03;22	-	-	-	2	-	-	2
3;04;26	1	-	1	5	2 (2)	2	11
3;05;09	-	1	-	2	-	6 (2)	9
3;05;23	1	-	1	1	2 (1)	2	7

3;06;17	2	-	1	3	-	1	7
3;06;29	1	-	-	1	4 (1)	5	11
GUZTIRA	7	6	11	21	22	2	
PORTZEN TAIAK	% 14		% 11	% 22	% 23	% 30	

( ) Parentesi artean azaltzen direnak, pluralak dira.

## 21. TAULA: ATRIBUTU FUNTZIOA BETETZEN DUTEN IZEN-SINTAGMAK

ADINA	ARTIKULUA +IZENA		IZENA	I.PROPIOA	ADJEKT.	BESTE BATZUK	GUZTIRA
	DET.	INDET.					
2;04;15	-	-	-	1	6	3	10
2;05;12	-	-	-	-	1	-	1
2;05;27	-	-	-	1	-	-	1
2;07;14	1	1	-	-	1	3	6
2;07;30	-	-	-	-	-	-	-
2;09;01	-	-	1	2	2	-	5
2;09;22	-	3	-	-	-	-	3
2;10;06	-	-	-	-	-	-	-
2;10;24	-	1	-	-	-	-	1
2;11;21	-	-	-	-	-	-	-
3;01;03	1	-	-	-	-	4	5
3;01;19	-	4	-	2	-	4	10
3;01;24	-	2	-	-	-	-	2
3;02;14	1	4	-	-	-	-	5
3;03;07	1	-	-	1	-	2	4
3;03;22	1	1	-	-	-	-	2
3;04;26	3	1	-	-	-	-	4
3;05;09	2	-	1	-	-	1	4
3;05;23	-	1	1 (1)	-	-	-	2

3;06;17	-	1	-	-	-	-	1
3;06;29	-	-	-	-	-	2	2
GUZTIRA	10	19	3	7	10	19	68
PORTZENT AIAK	% 15	% 28	% 4	% 10	% 15	% 28	

( ) Parentesi artean dagoena plurala da

## 9.6.-DATIBO KASUAREN ETA ZEHAR OBJEKTUAREN JABEKUNTZA-BILAKABIDEA

### A) Emaizak eta azterketa

Atal honi dagokion tauletan ikus daitekeenez, bereizi egin ditugu, alde batetik, Datibo klitiko edo atonoak eta, bestetik, Datibo tonikoak, hauek "a" preposizioa aurrean dutelarik. Aldi berean, nahiz eta gutxi izan, Zehar objektuaren funtzioa betetzen duten izen-sintagmak, hauek "a" preposizioaren laguntzaz azaldu ditugu. Hiru atal hauen azterketari ekingo diogu Datibo kasua eta Zehar osagarriaren jabekuntza kokatu ahal izateko.

Nahiz eta Zehar objektua betetzen duten izen-sintagmen agerpena oso urria izan, beraietako bat da lehen ekoizten duena gure haurrak 2;02;26 adina duela, nahiz eta hurrengoak hiru urte bete arte ez azaldu. Hortaz, lehen azaltzen den Datiboa, Zehar osagarriaren funtzioa betetzen duen izen-sintagma batean gauzatzen da:

(1) y a Itziar (2;02;26)

Hilabete eta erdi beranduago, 2;04;15 adinean, hain zuzen, ekoizten du lehen aldiz Datibo toniko bat, bigarren pertsonari dagokiona:

(2) un nene . a tí? (2;04;15)

Aipatu ditugun hiru atal hauetatik, haurrak azken ekoizten duena klitiko edo atonoa da. Nahiko berandu azaltzen da, Akusatiboko lehen klitikoa azaldu zen adin berdinean hain zuzen. Han bigarren pertsonari dagokiona bazen, oraingoan lehen pertsonari dagokio:

(3) dime(lo)<sup>97</sup> (2;05;12)

<sup>97</sup> Ekoizpen honetan, klitiko akusatiboa falta da. Ez da, ordea, harritzekoa, haurrak horrela ekoiztea, helduen hizkuntzan ere gehienetan falta baita.



Hurrengo ekoizpena bi hilabete beranduago azaltzen da. Ikus daitekeenez, bi Datiboak batzen dira ekoizpen honetan, atonoa eta tonikoa, orain ere lehen pertsonari dagozkionak:

(4) a mi si **ma** (me) gustan (2;07;14)

Ondorengo bi hilabeteetan ez du Datiborik ekoizten haurrak. Baina Datiboa berragertzen den transkribapenean, zenbait ekoizpen aurkitu dugu Datiboan.

(5) **te** doy (2;09;22)

(6) **dime**(lo) (2;09;22)

(7) . (p)o(r) qué no **me** dejas? (2;09;22)

(8) no **te** hago nada (2;09;22)

(9) y no **te** tego (traigo) bolita (2;09;22)

(10) y **pontelo**<sup>98</sup> . eh?, ponte aquí (2;09;22)

Adin honetan, Datibo toniko bat ere aurkitu dugu aztertzen ari garen haurraren corpusean:

(11) a ti no te<sup>99</sup> llevo (2;09;22)

Hiru urte bitartean, beste sei ekoizpen ditugu Datibo kasuan. Hiru klitiko edo atonoak, lehen pertsonari dagozkionak:

(12) y **me** gustan (2;10;06)

(13) no **me** pica (2;10;24)

(14) . uy! se **ma** (me ha) quitau (quitado) (2;11;21)

Beste hirurak, berriz, tonikoak dira:

(15) ahora a mi me X (2;10;24)

(16) a mi no (2;10;24)

(17) a ti (2;11;21)

Ikusi dugunez, hiru urte bitartean Datibo kasua daramaten ekoizpen gutxi ekoizten du haurrak. Gauza bera ikusi ahal izan dugu Klitiko Akusatiboei dagokionez. Akusatiboan, ordea, hiru pertsonak azaldu ziren bitartean, Datiboari dagokionez, ez da oraindik azaldu hirugarren pertsona.

Hiru urte bete ondoren, aurrerago ikusi dugun antzeko ekoizpen batekin (4) topatzen gara, hau da, Datiboa azal daitekeen bi erak baturik azaltzen dira ekoizpen batean:

---

<sup>98</sup> Hitz honetan bi klitiko batzen dira, alde batetik orain aztertzen ari garen Datiboari dagokiona, eta bestetik aurreko atalean aztertu dugun Akusatiboari dagokiona.

<sup>99</sup> Ekoizpen honetan, Datibo tonikoaren ondoren, Akusatibo klitiko bat ere azaltzen da. Hemendik aurrera Akusatiboko klitikoak azaltzen direnean, ez ditugu aipatuko, aurreko atalean jadanik aztertuak izan direnez.

(18) a mi **masutan** (me asustan) lo(h) payasete(h) (3;01;03)

Aipatu dugun moduan, hirugarren pertsona ez du oraindik ekoiztu haurrak. Ikus daitekeenez, nahiko berandu azaltzen da, eta azal daitekeen bi moduen artean "le/se", lehena -- "le" forma-- azaltzen da:

(19) mira lo que **le** he roto (3;04;26)

(20) y **le** pone (3;05;09)

(21) **le** ha (he) toca(d)o (3;06;17)

(22) yo no **le** cambio a ese (3;06;29)

Hirugarren pertsonari dagokion "le" Datiboa ekoiztu eta berehala azaltzen da ordea "se" Datiboan azaltzen diren bi ekoizpenak:

(23) **ponerse** (3;05;09)

(24) **se** ha comprado un chite (chicle) (3;05;23)

Datibo klitiko edo atonoei dagokienez, bigarren pertsona da gehien azaltzen dena, eta honen azalpena beste bi pertsonena baturik baino handiagoa da ( 22. taula):

- Lehen pertsona : % 28
- Bigarren pertsona : % 58
- Hirugarren pertsona : %14

Bestalde, gehienak (% 88) proklitikoak dira (22. taula), hau da, ondoren doan hitzaren menpekoak azentuari dagokionez. Numeroari dagokionez, ez dugu klitiko plural bakar bat ere aurkitu corpus osoan zehar, hau da, denak singularrean ekoiztu ditu.

Klitiko Akusatibo asko falta baziren ere, hemen oso gutxi dira dagokion klitiko Datiborik gabe azaltzen diren ekoizpenak:

(25) no (**te**) pone(s) el colla(r) (3;03;07)

(26) el colla(r) . pon(**te**)! (3;03;07)

(27) pon(**me**)la a mi (la cadena) (3;03;07)

Horrela bada, klitikorik gabe azaldu diren ekoizpenak %5 besterik ez dira. Hau da, ekoizpen gehienak (%95) beharrezko klitiko Datiboa dutela ekoizten ditu haurrak.

Datibo tonikoei dagokionez (23. taula), gehienak (%70) lehen pertsonan azaltzen dira, atonoetan gertatzen ez den bezala. Bestalde, ez da azaltzen hirugarren pertsonari dagokion Datibo tonikorik, ezta pluralik ere:

- Lehen pertsona: %70
- Bigarren pertsona: %30

Zehar osagarri funtzioa betetzen duen izen-sintagma izan da lehen Datiboa. Gorago aipatu dugunez, bigarrena hiru urte bete ondoren ekoiztu du haurrak:

- (28) a mi y a Itziar caramelos también (3;01;03)  
 (29) al coche nuevo (3;01;03)

Hauez kanpo, beste lau ekoizpenetan bost Datibo besterik ez ditugu aurkitu, aztertzen ari garen haurraren corpusean zehar:

- (30) mátale a éste, ahora a e(s)te mue(r)to ( . mávalo?) (3;04;26)  
 (31) nosotros pintamos a mi aita (3;05;09)  
 (32) yo no le cambio a ese (3;06;29)  
 (33) a la amiga (3;06;29)

## B) Laburpena eta ondorioak

Zehar objektuaren funtzioaren jabekuntza kokatu ahal izateko, Datibo kasuan azaltzen diren klitikoak edo Izenordain atonoak eta Datibo tonikoak aztertu ditugu. Bestalde, funtzio bera betetzen duten izen-sintagmak ere aztertu ditugu. Eta hauetako bat izan da, hain zuzen, haurrak ekoizten duen lehen Datiboa, 2;02;26 adinean, nahiz eta mota honetako bigarren ekoizpena hiru urte bete ondoren azaldu, eta hortik aurrera ere oso gutxitan (%9). Hilabete eta erdi beranduago, 2;04;15 adinaz ekoizten du lehen Datibo tonikoa eta beste hilabete beranduago berriz, 2;05;12 adinean, Datibo atono bat. Bestalde, hiruretatik gehien ekoizten duena Datibo klitiko edo atonoa da, %67tan. Klitiko hauen artean, gehien azaltzen dena (%58) bigarren pertsona da (22. taula). Tonikoen artean, berriz, alderantziz gertatzen da, gehien azaltzen dena (%70) lehen pertsona baita (23. taula). Bestalde, oso ekoizpen gutxi azaldu dira klitikorik gabe, hau da, gehienak Datiboko Izenordain atonoa behar duten ekoizpenak dira (%95).

## D) Emaizten eztabaida

Gure emaitzak, ondoren, Datibo kasua aztertu duten zenbait ikerketetan<sup>100</sup> azalduko emaitzekin erkatuko ditugu. Horrela, berriro ere A. Aksu-Koç & D.I. Slobinek (1985) turkieraren jabekuntzaz egin diren ikerketa ezberdinetan oinarrituriko lana aipatuz, izenen inflexio gehienak bi urterako azaltzen direla diote, eta horien artean, Datiboa aipatzen dute. Garbi dago gure haurrak ez duela sasoi horretan ez kasu hau, ez beste kasurik erabiltzen.

Georgieraren jabekuntza aztertu zuten N.Imezdade - K.Tuitek (1992) bost haurrengan lau urte bete arte. Izenaren deklinabideari dagokionez, Nominatiboa eta Genitiboaren ondoren eta azken honekin ia parekaturik kokatzen dute Datiboaren "s" desinentzia (Genitiboa 1;08;21etik 2;04;17 adina bitartean kokatzen dute, haurren arabera). Kasuaren jabekuntza osoa, ordea, beranduago lortzen dela diote. Gure haurraren Datiboarekiko jabekuntza ere tarte honetan koka daiteke.

<sup>100</sup> Datibo kasuari dagokion euskarazko azterketen erkaketarako erabili genituen autore berak berriro hemen aipatzen ditugun arren, gaztelaniazko emaitzekin erkatzeko egin dugu.

Hungarieraren morfologia eta sintaxia aztertu zituen B. Macwhinneyk (1976) haur batengan 1;05;02 adinetik 2;02;03 adina bitartean. Bertan dioenez, inflexioak lehen hitzetik azaltzen dira haur honengan, baina ekoizpen emankorra sei hilabete beranduago hasten da. Horrela, Datiboaren jabekuntza 2;00;00 adinetik 2;05;00 adina bitartean kokatzen du. Guk aztertutako haurrak ere Datiboa gauza daitekeen bi erak 2;02;26 adinetik 2,05;12 adina bitartean ekoiztu ditu.

Hitzen ordena eta kasu morfologikoa aztertu zituen T. Parodik (1989) alemaniera eta frantsesa aldi berean ikasten zituen haur batengan 1;11;00 adinetik 3;08;00 adina bitartean. Azterketan lau aro bereizten ditu. Laugarrenean, hau da, haurrak hiru urte bete dituean, Akusatiboak eta Datiboak ondo bereizten direla dio. Guk ere gauza bera esan dezakegu, gure haurrak ere adin horretarako ondo bereizten baititu bi kasu horiek, nahiz eta kasu hauek emankortasunez hiru urtetik aurrera ekoiztu.

P. Larrañagak (1994) euskara eta gaztelania aldi berean ikasten dituen haur bat aztertu zuen. Gaztelaniaren azterketa 1;07;14 adinetik 2;06;11 adina bitartean kokatzen da. Datibo kasuari dagokionez, bi urte bete eta berehala azaltzen dela dio berak aztertutako haurraren. Lehen ekoizpenak oso garbiak ez badira ere fonetikoki, hilabete beranduago, hau da, 2;01;20 adinean Datibo original eta garbiak ekoizten dituela adierazten du. Datiboa hiru erataraz azaltzen dela dio: klitiko gisa, "a" + Izenordain tonikoa eta "a" + izen-sintagma. Klitiko gehienak proklitikoak direla dio, nahiz eta enklitikoak ere azaldu. Azaltzen diren ekoizpen urriak kontuan edukiz, ordea, datu hau ez du oso adierazgarritzat hartzen. Bestalde, Akusatiboan gertatzen ez den bezala, Datiboaren argumentua oso gutxitan falta da. Gure azterketara itzuliz eta jabekuntzaren adinari dagokionez, gure haurrak lehen Datiboa hilabete beranduago ekoizten du. Bestalde, Larrañagaren (1994) haurrak bezala, gureak ere Datiboa aipatu hiru erataraz ekoizten du. Gure haurraren ere, Datibo proklitikoak askoz ugariagoak dira enklitikoak baino (% 88), eta Larrañagaren corpusa urria bada hori ziurtatzeko (kontuan eduki bere azterketa 2;06;11 adinean amaitzen dela), klitiko hauen kokagunearen lehentasunari dagokionez, guk ziurta dezakegula uste dugu. Ados gaude gu ere Datiboaren argumentua oso gutxitan falta den baieztapenarekin, Akusatiboko klitikoekin gertatzen ez den bezala.

### 9. 6. 1. - Datibo kasuari dagozkion ondorioak

Datibo kasuaren azterketa amaitu ondoren, ondorio hauetara iritsi gara:

1.- Datibo kasuaren lehen jabekuntza horrela gertatu da aztertzen ari garen haurraren:

a) 2;02;26 adinaz lehen Zehar objektua ekoizten du gure haurrak, nahiz hurrengo hiru urte bete ondoren azaldu:

(34) **y a** Itziar

b) 2;04;15 adinaz lehen Datibo tonikoa azaltzen da:

(35) un nene . **a tí?**

d) 2;05;12 adinaz ekoizten du lehen aldiz Datibo klitiko edo atonoa:

(36) **dime**

Hortaz, Datiboaren lehen azalpena 2;02,26 adinean koka daiteke, eta hurrengo hiru hilabeteetan osatuz joango da.

2.- Hiru urte bitartean oso Datibo gutxi azaltzen da gure haurraren corpusean.

3.- *Datibo klitiko edo atonoak:*

3.1.- Hiru urte bete aurretik, lehen eta bigarren pertsonari dagozkionak bakarrik azaltzen dira:

- (37) **no me** pica (2;10;24)  
(38) **a tí** no te llevo (2;09;22)

Azterketaren azkenaldian ekoizten du lehen aldiz hirugarren pertsonari dagokiona:

- (39) mira lo que **le** he roto (3;04;26)

Ugarienak bigarren pertsonari dagozkionak dira dudarik gabe.

3.2- Datibo klitiko edo atonoen azalpena horrela izan da:

- a) Lehen pertsona: % 28 - (40) . por qué no **me** das? (3,06;17)  
b) Bigarren pertsona: %58 - (41) ahora yo **te** gano (3;06;29)  
d) Hirugarren pertsona: %14 - (42)ponerse (3;05;09)

3.3.- Gure haurrak ekoiztu dituen Datibo klitiko edo atono gehienak (%88) proklitikoak dira, hau da, ondoren doan hitzaren azentuaren menpe daudenak:

- (42) **te** voy a romper una oreja (3;04;26)

3.5.- Akusatibo kasuan gertatzen ez den bezala, Klitiko Datiborik gabeko ekoizpenak oso urriak izan dira (%5) gure haurraren.

#### 4.- *Datibo tonikoak*

4.1.- Lehen eta bigarren pertsonari dagozkion Datibo tonikoak ekoiztu ditu haurrak. Hirugarren pertsonari dagozkionak ez dira azaltzen aztertutako corpusean:

- Lehen pertsona: (%70) - (43) **a mi** me matas (3;03;07)  
- Bigarren pertsona: (%30) - (44) **a ti** no te llevo (2;09;22)

#### 5.- *Izen-sintagma Datiboak*

5.- Zehar objektuaren funtzioa betetzen duten izen-sintagma gutxi ekoiztu du haurrak:

- (45) nosotros pintamos **a mi aita**

Datiboari dagokion corpus osoa kontuan edukiz, izen-sintagma Datiboak %9 besterik ez dira, hau da, Datibo gehienak klitiko edo atonoak dira (%67). Alderantziz gertatzen da Akusatibo kasuan, bertan % 32 baitira klitikoak.

6.- Ez dugu Datibo plural bakar bat ere aurkitu.

7.- Beste ikerketen emaitzak eta ondorioak gureekin erkatu ondoren, ondorio hauetara iritxi gara:

a) Klitiko Datiboak, beranduago azaltzen dira guk aztertutako haurraren ere.

b) Kasu honen jabekuntza, bi urte eta bi urte eta erdi bitartean kokatzen da, jabekuntza osoa beranduago kokatzen den bitartean, hiru urte inguruan hain zuzen.

d) Hurrek ekoiztutako Datibo klitiko gehienak proklitikoak dira.

e) Akusatibo kasuan ez bezala, Datibo klitikorik gabeko ekoizpenak oso gutxitan azaltzen dira.

## 9. 6. 2. - TAULAK

### 22. TAULA: DATIBO KLITIKO EDO ATONOEN AZALPENA ETA KOKAGUNEA

ADINA	KLITIKO EDO ATONOAK			KOKAGUNEA		GUZTIRA
	1□P -ME	2□P - TE	3□P-LE/SE	PROKLITIKOAK	ENKLITIKOAK	
2;05;12	1	-	-	-	1	1
2;05;27	-	-	-	-	-	-
2;07;14	1	-	-	1	-	1
2;07;30	-	-	-	-	-	-
2;09;01	-	-	-	-	-	-
2;09;22	2	5	-	4	3	7
2;10;06	1	-	-	1	-	1
2;10;24	1	-	-	1	-	1
2;11;21	1	-	-	1	-	1
3;01;03	1	-	-	1	-	1
3;01;19	-	1	-	1	-	1
3;01;24	-	-	-	-	-	-
3;02;14	-	-	-	-	-	-
3;03;07	-	-	-	-	-	-

3;03;22	-	1	-	1	-	1
3;04;26	-	4	1	5	-	5
3;05;09	1	2	2	4	1	5
3;05;23	-	4	1	5	-	5
3;06;17	2	7	1	10	-	10
3;06;29	5	9	3	15	2	17
GUZTIRA	16	33	8	50	7	57
PORTZEN TAIAK	% 28	% 58	% 14	% 88	% 12	

### 23. TAULA: DATIBO TONIKOEN AGERPENA

ADINA	TONIKOAK		GUZTIRA
	1□ P (A MI)	2□ P (A TI)	
2;04;15	-	1	1
2;05;12	-	-	-
2;05;27	-	-	-
2;07;14	1	-	1
2;07;30	-	-	-
2;09;01	-	-	-
2;09;22	-	1	1
2;10;06	-	-	-
2;10;24	2	-	2
2;11;21	-	1	1
3;01;03	2	1	3
3;01;19	-	-	-
3;01;24	-	-	-
3;02;14	1	-	1
3;03;07	3	-	3
3;03;22	-	-	-



3;04;26	-	1	1
3;05;09	-	-	-
3;05;23	-	-	-
3;06;17	4	1	5
3;06;29	1	-	1
GUZTIRA	14	6	20
PORTZENTAIK	% 70	% 30	

**24. TAULA: ZEHAR OSAGARRI FUNTZIOA BETETZEN DUTEN IZEN-SINTAGMAK**

ADINA	IZEN PROPIOA	ARTIKULUA + IZENA	ERAKUSLEA	POSESIBOA + IZENA	GUZTIRA
2;02;26	1	-	-	-	1
2;03;12	-	-	-	-	-
2;03;25	-	-	-	-	-
2;04;15	-	-	-	-	-
2;05;12	-	-	-	-	-
2;05;27	-	-	-	-	-
2;07;14	-	-	-	-	-
2;07;30	-	-	-	-	-
2;09;01	-	-	-	-	-
2;09;22	-	-	-	-	-
2;10;06	-	-	-	-	-
2;10;24	-	-	-	-	-
2;11;21	-	-	-	-	-
3;01;03	1	1	-	-	2
3;01;19	-	-	-	-	-
3;01;24	-	-	-	-	-

3;02;14	-	-	-	-	-
3;03;07	-	-	-	-	-
3;03;22	-	-	-	-	-
3;04;26	-	-	2	-	2
3;05;09	-	-	-	1	1
3;05;23	-	-	-	-	-
3;06;17	-	-	-	-	-
3;06;29	-	1	1	-	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>2</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>8</b>

Aditzarekin komunztadura duten kasuen azterketa azaldu ondoren, euskarazko beste kasuen eta gaztelaniazko preposizioen azterketari ekingo diogu gure lehen hipotesia frogatu ahal izateko. Lehenengo euskal kasuetatik hasiko gara, eta ondoren gaztelaniazko preposizioekin jarraituko dugu. Horretarako, kasu eta preposizio bakoitzaren bilakabidea aztertuko dugu. Ondoren atal bakoitzaren laburpena eta emaitzen eztabaidari ekingo diogu, azkenik ondorioak eta taulak azaltzeko.

## **9. 7.- ADITZAREKIN PERTSONA KOMUNZTADURARIK ERAKUSTEN EZ DUTEN KASUEN JABEKUNTZA-BILAKABIDEA**

### A) Emaitzak eta azterketa

Haur honen euskararen azterketa 1;11;00 adinean hasten da. Adin honetan ohikoa denez, hitz bat edo biz osatutako ekoizpenak azaltzen dira. Hitz hauetako asko "nini hizkuntza" bezala ezagun dira, eta beste zenbait onomatopeiak dira. Bestalde, ez dugu aurkitzen inolako morfologiarik garai honetako hizketan, kasu-markak ere ez dira azaltzen hortaz.

#### **9.7.1.- Inesiboa**

Azterketa hasi eta hiru hilabete eta erdi beranduago, hau da, 2;02;14 adinean, azaltzen da haur honengan lehen kasu-marka, Inesibo kasuari dagokion "-n" marka hain zuzen

- (1) ai! g(r)ua (gar)ajea (2;02;14)
- (2) hau ajajan (garajea) (2;02;14)

Hilabete bereko beste transkribapenean, kasu-marka hau daraman atzizkia errepikatzen

du behin eta berriro. Ez dakigu zertaz ari den, baina, testuingurua kontuan hartuz, badakigu kotxea edo traktorea dagoen lekua adierazi nahi duela:

(3) tzean, zean (2;02;25)

Hilabete beranduago, kasu hau daramaten bi hitz ekoizten ditu. Bigarrenkoa (5) imitazioa da, eta garbi adierazi ez arren lekua, berriro ere testuingurua kontuan edukiz dakigu zertaz ari den:

(4) hemen ongian (haundian?) bai (2;03;12)

(5) alulan (Baionan) (2;03;25)

Hurrengo bost hilabeteetan, Inesibo kasua erakusten duten ekoizpenak hauek dira:

(6) hau atzean, hau (2;04;15)

(7) hau atzean alolo (2;04;15)

(8) balean (kalean) (2;05;00)

(9) olandean (oihalean) (2;05;00)

(10) ait(aren)<sup>101</sup> itxian (etxean) bi tutu (kotxe) (2;05;26)

(11) ba(n)koan (2;07;09)

(12) baluan (barruan) dago (2;07;09)

(13) behian, katan (?)tokian ta(dago?) potxo (2;07;30)

Ondorengo ekoizpenean, lehen hitza nahiz eta formaz Inesiboa izan, gaztelaniazko aditzondoan<sup>102</sup> parekoa da. Jarraian, ordea, zehaztu egiten du lekua, beste Inesibo bat erabiliz.

(14) hemen barruan (2;07;30)

(15) gasolina baluan (barruan) dago (2;07;30)

Hemendik aurrera, berrikuntza emankortasunean dago batez ere, kontuan izanik orain arteko corpusean nahiko urria izan dela kasu honen presentzia. Bestalde kasu hau agertzen den egitura ere asko aberastuz doa:

(16) ez, be(s)te etxean dago (2;09;05)

(17) fo(r)mal egoten naiz kotxean (2;09;05)

(18) ikusi kolunpioan (2;09;22)

(19) al(d)apan oso zaila da niretzako (2;09;22)

Orain arte lekua adierazten duten erlazioak ekoiztu ditu haurrak, kasu honen bidez. Orain, lehen aldiz, denbora adierazten duen ekoizpen baten aurrean gaude:

(20) olain egualdin (orain eguerdin) kalera ( 2;10;11)

---

<sup>101</sup> Ikusten denez, azken ekoizpen honetan Inesibo kasua azaltzeaz gain, Genitibo kasuaren beharra ere egon arren, ez du kasu hori gauzatzen. Genitiboa aztertzerakoan aipatuko dugu.

<sup>102</sup> Mota honetako ekoizpen ugari aurkitu ditugu corpusean zehar.

Gure ustez lexikalizaturik dagoen hitza da eta haurrak horrela ikasi du. Gainera adiera hau erakusten duen beste ekoizpenik ez dugu aurkituko 3;06;17 adina arte. Oraingoz ezin dugu esan hortaz, Inesibo kasuaz denbora adieran jabetu denik.

Hilabete beranduago jarduera adierazten duen ekoizpen baten aurrean gaude, aditz izen bat mugagabeen hain zuzen:

(21) toritu (txoritxo) bat hegan ( 2;11;25)

Azterketaren azken hilabete hauetan berrikuntza batzuk nabari dira. Orain arte azaldutako Inesibo guztiak, jarduera adierazten duen aditz izena izan ezik, mugatu singularrean ekoiztu ditu haurrak. Orain, ordea, bai plurala, bai mugagabea ere ekoizten ditu, ikusiko dugun bezala. Alde batetik, Inesibo plurala ekoizten du bi aldiz, baina hitz bera da bietan:

(22) oinetan bai (3;01;24)

(23) oinetan (3;03;07)

Mugagabea ere erabiltzen du, gehienetan leku izenekin:

(24) hau ere bai elosi (erosi) dut Elizondon (3;01;24)

(25) Korten (Corte Ingles dendari buruz ari da) (3;03;07)

(26) Madriden (3;04;04)

(27) eta Palladaron (Playa de Aro) (3;06;17)

(28) Bilbon (3;06;17)

Bestalde, zalantzakoa den ekoizpen bat ere aurkitu dugu:

(29) eta salto baten (3;06;17)

Hemen, kontrakzio bat gertatzen dela dirudi. Horrelako formak gaur egun bizirik diraute bizkaiera mintzatuan, eta agian honen eragina ere izango du aztertzen ari garen haurrak.<sup>103</sup>

Gorago aipatu dugu, 2;10;11 adinean hain zuzen, denbora-adiera duen ekoizpen bat azaldu dela (20). Baina formula gisa ikasitakoa zela adierazten genuen, lexikalizaturik dagoen hitza denez. Orain, ordea, denbora adierazten duen beste ekoizpen baten aurrean gaude:

(30) eta mendian egon ziren egun guztian ( 3;06;17)

Adibide honetan bi inesibo azaltzen dira, bata "mendian" lekua adieraziz, eta bestea "egun guztian" denbora adieraziz.

Hiru urte bete aurretik, jarduera adierazten zuen ekoizpen bat azaldu zen haur honen corpusean. Orain berragertzen da, orduan bezala aditz izen baten bidez emana:

---

<sup>103</sup> Nahiz eta aztertzen ari garen haurra Bizkaian bizi, ez du ia bizkaieraren eraginik bere hizkuntzan.

(31) ikasten ari da (3;04;04)

Inesibo kasua da lehen agertzen dena aztertzen ari garen haurraren, 2;02;14 adina duela hain zuzen. Kasu honen emankortasuna, ordea, beranduago lortzen du haurrak, eta korpus osoari dagokionez, bera da emankorra Genitibo kasuaren ondoren (25. taula). Kasu-marka hau, izenetan gauzatzen da gehienbat, %63tan hain zuzen (26. taula). Mugatu singular eta pluralean azaltzen da, baita mugagabeen ere. Adierari dagokionez, gehien adierazten duen erlazioa lekuarena da, nahiz eta behin denbora ere azaldu eta bitan jarduera. Kasu honetan azaltzen diren ekoizpen guztiak bizigabeei dagozkienak dira<sup>104</sup>. Azkenik, esan beharra dago Inesibo kasu-marka behar eta azaltzen ez diren ekoizpenak, hiru direla hiru urte arte. Hiru urtetik aurrera, berriz, bat besterik ez. Hortaz, corpus osoa kontuan edukiz, %4era ez dira iristen.

### 9. 7. 2. - Jabego genitiboa

Kasu honen agerpena, aztertzen ari garen haurraren, lehen kasu-marka, Inesiboarena, hain zuzen, azaldu eta hilabete eta erdira azaltzen da lehen aldiz. Izenlaguna da Genitibo kasuan dagoena:

(32) nire tutua (kotxea) (2;03;25)

Hona hemen Genitibo kasuari dagokion bigarren ekoizpena. Hizketa-lagunak jostailu bat nongoa den galdetzen dionean haurrari:

Hizketa-laguna: oi!, beste eskabadora!, hau berria da, nungua da hau?  
Haurra: (33) peru(re)na (2;04;15)

Hau ekoizten duen une berean, ordea, hizketa-lagunari jostailua kentzen dio. Hortaz, esan duena bat dator intentzioaz, eta badirudi benetako Genitibo baten aurrean gaudela.

Genitibo kasuari dagokion mugagabearen hondarkiak "r" bat hartzen du deklinagaia bokalez amaitzen denean. Gertatzen da, ordea, bokal arteko "r" guztiak oso erorkorrak direla eta haur honek, helduen ahozko hizkuntzan gertatzen den bezala, ez duela erabiltzen.

Ondorengo ekoizpenean, Genitibo kasuak azaldu behar duen izen-sintagmaren egitura ondo dago, hau da izenlagun eta izenez osatuta. Bestalde, ordea, badirudi izen-sintagma hori bi aldiz determinaturik dagoela, edo agian ordenari dagokion arazoa besterik ez da: "pagoga (eskabadora) ama(re)na (da)":

(34) ama(re)na pagoga (eskabadora) (2;04;15)

Hurrengo hilabetean izenordainak berak azaltzen dira Genitibo kasuan :

(35) hau nilea, nilea (nirea) (2;05;26)

(36) nilea ( nirea) (2;05;26)

---

<sup>104</sup> Kasu honek, leku-denbora kasuen barruan dagoenez, besteak ez bezala bi eratako atzizki ezberdinak ditu bizidunentzat eta bizigabeentzat.

Bi ekoizpen hauetan azaltzen diren izenordain Genitiboek formula gisa ikasitakoak dirudite kontuan izanik ez dituela ekoizten "norena" galderari erantzunez, beste edozein testuingurutan errepikatzen duela baizik, behin eta berriro zerbait berea dela adierazi nahi duenean. Hitz hau oso arrunta da eta asko erabiltzen dute adin honetan haurrek.

Izenordainak, ordea, kasu honetan azaldu den lehen ekoizpenaren antzera azaltzen dira berriro, orduan bezala ekoizpen originaletan:

- (37) konpondu dut nire kokiki (santxeski) (2;07;09)
- (38) ta nire ama (2;07;09)

Orain arte izenordainaren lehen pertsona besterik ez du ekoiztu haurrak Genitibo kasuan. Izenordainaren bigarren (40) eta hirugarren (39) pertsonak ere ekoizten ditu, ordea, kasu honetan:

- (39) olago (hor dago) bere etxean mamurrua (2;10;11)
- (40) ni monta(tu)ko naiz zure kotxean (2;10;22)

Ondorengo ekoizpenetan, goragoko 35.ean bezala, izen-sintagmako izena ez da adierazten. Hori dela eta, Genitiboaren kasu-marka daraman izenak artikulua hartzen du. Mota honetako ekoizpenak askotan ikusiko ditugu haur honen corpusean, bai kasu honetan, bai geroago ikusiko dugun Leku Genitiboan:

- (41) bia (begira), hau aita(re)na bezala (2;04;15)
- (42) x Peluna (Perurena) bezala (2;04;15)
- (43) ai! Piuna (Perurena) txikia (2;05;12)
- (44) (dor)tokak<sup>105</sup> handi handia hori Piruna (Perurena) (2;05;12)
- (45) ta hau traktoreana da (2;07;30)
- (46) olloa(re)na (2;07;30)
- (47) hau aita(re)na da (2;07;30)
- (48) holi nilea (hori nirea) da (2;07;30)

Kasu honen azalpena ez da egitura soil honetara mugatzen ordea, kasu honi berez dagokion egituran ere, hau da, kasu-markadun izenlagun eta izenez osatutako izen-sintagman ikus daitekeenez:

- (49) Tulin (Jurgin) aita (2;07;09)
- (50) ez, ha(u) amatxi(re)n etxea da (2;07;30)
- (51) olao (hor dago) amatxi(re)n etxea (2;07;30)

Hurrengo transkribapenean ere, bi eratako ekoizpenak ikusten ditugu:

- (52) Paulena (2;09;05)
- (53) nun dago nile pilota? (2;09;05)

---

<sup>105</sup> Testuingurua kontuan edukiz, ez da plurala.

Gorago aipatu dugu bokal arteko "r" ez duela inoiz erabiltzen, hasiera batean behintzat. Orain, lehenengo aldiz, izena bokalez amaitzen bada eta kontuan hartuz kasu honen hondarkia "-en" dela, bokal arteko "r" ekoizten du, nahiz eta oraingo batzuetan "l" bidez gauzatu, haur honengan aldaketa hau bokal arteko dardarkari gehienetan gertatzen den bezala:

- (54) ez, amamarena (2;11;25)
- (55) olain Iulilena (orain Jurgirena) (2;11;25)

Azterketa amaitzeko geratzen diren sei hilabeteetan zehar, aurrerapen handiak ikusten dira haur honengan kasu honi dagokionez. Alde batetik, izenordainaren bigarren pertsona ekoizten du emankortasunez genitibo kasuan:

- (56) ez ha(r)tzeko zure gozak (gauzak) (3;00;17)
- (57) pletatu (prestatu) dizut zure laranja ula (ura) (3;00;17)
- (58) zurea gogor(r)a dago (3;04;04)
- (59) hau da nire kotxea eta hau zurea (3;04;04)

Pluralari dagokionez, lehena 2;05;12 adinaz ekoizten badu ere, hiru urte bete ondoren azaltzen dira beste pluralak:

- (60): Piunak (Perurenak) (2;05;12)
- (61) ez ha(r)tzeko zure gozak (gauzak) (3;00;17)
- (62) nire anak (3;01;24)
- (63) nireak ez (3;01;24)
- (64) eta zureak? (3;04;04)
- (65) nire anak ez ditut (3;05;09)
- (66) nire jolasak ez dira apurtu behar (3;06;17)

Ikusten denez, plural gehienak izenordain eta izenez osatutako izen-sintagma batean gauzatzen dira, edo izenordaina bera dago pluralean. Ekoiztu ditu, ordea, izen soilez osatutako pluralak. Lehendabizikoari buruz (67) zalantza sortzen zaigu testuingurua kontuan hartuz. Badirudi jadanik ikasitako formula bat dela. Izan ere enbor batzuk ilaran jarrita daude lorategian. Haurra leihotik begira dago eta enbor horiek, borobilak diren neurrian, aspirinekin erlazionatzen ditu. Aldi berean, badirudi bere etxean aspirinak ipotxen ipuinetan azaltzen diren bideetako harriekin parekatzen dituztela. Gainera, bere amak ekoiztu ondoren esaten du haurrak pluralean azaltzen den izen-sintagma. Elkarrizketaren pusketa bat ipiniko dugu arazoa ikusi ahal izateko:

- Haurrak: ikusi, apilina (aspirina)
- Hizketa-lagunak: eh?
- Haurrak: pilinak (aspirinak) hor
- Hizketa-lagunak: aspirinak al dia hoiek?
- Haurrak: ikusi, hor
- Bere aitak: bai, tronko hoiek aspirinak dira
- 
- 
-

Hizketa-lagunak: borobilak bai eh?, aspirinak bezelakoak bai, ze politak eh? ....  
Bere amak: nola esaten genion pelli peru?  
Bere amak: ipotxen bidea  
Haurrak:(67) ipotxen bilea (bidea) (3;00;17)

Bigarren ekoizpena ordea, dudarik gabekoa da, hau da, plurala eta originala:

(68) txorien zarata ( 3;02;14)

Bestalde, kasu honen beharra dagoen zenbait ekoizpenetan ez du dagokion markarik erabiltzen. Hona hemen hauetako batzuk:

(69) Pelu (Peruren) etxea (2;04;15)

(70) Damaso(ren) aita (2;07;09)

(71) elunkalia (egunkariaren) bila bagoaz (2;10;11)

(72) entzun, entzun, tlen (trenaren) zarata (3;02,14)

Kasu honen bilakabidea aztertu ondoren, ikusi ahal izan dugu lehen ekoizpena 2;03;25 adinean azaldu dela. Hasiera bateko ekoizpen gehienak, kasu-marka daramaten izen soilez osatutakoak dira. Bestalde, izenordainetan gauzatzen da gehienbat kasu hau, %57tan hain zuzen (26. taula). Hasieran izenordainaren lehen pertsona bakarrik ekoizten badu ere, beranduago bigarren eta hirugarren pertsonak ere azaltzen dira, nahiz eta hau behin bakarrik gertatu. Bestalde, Jabego genitiboa da corpusean azaltzen diren kasuetatik emankorra, dudarik gabe, eta, transkribapen batean izan ezik, beste guztietan azaltzen da (25. taula). Kasu honetan azaltzen diren izen-sintagmak, mugatu singular zein pluralean eta mugagabe ekoizten ditu haurrak. Lehen plurala, kasu honetan, 2;05;12 adinaz azaltzen da, eta ondorengoak hiru urte bete ondoren. Genitibo pluralaren azalpena %8ra mugatzen da. Kasu honen beharra izan arren, gabe azaltzen diren gehienak, bat salbu, hiru urte aurretikoak dira, eta %9a suposatzen dute.

### 9. 7. 3. -Ablatiboa

Kasu honen lehen agerpena 2;04;15 adinaz ematen da. Kasu hau adierazten duten bi ekoizpen daude adin honetan:

(73) hemen dato (dago) p(r)oblema, eta sa(r)tu atzetik ( 2;04;15)

(74) hemen pasa, xx hoti(k) atera (atzera?) (2;04;15)

Bigarren ekoizpen honetan Ablatibo kasuaren azken fonema falta bada ere<sup>106</sup>, gure ustez Ablatibo kasuaren adibide baten aurrean gaude. Hurrengo hilabetean ere beste ekoizpen bat azaltzen da:

(75) ez, ni hementik (hemendik) (2;05;12)

Hasierako ekoizpen hauek originalak badira ere, ondorengo lau hilabeteetan ez du

---

<sup>106</sup> Fonema honen erorketa hitzaren azken posizioan, fenomeno arrunta da, lehenago Ergatibo kasuan ikusi dugunez.



ekoizten kasu hau. Horrela bada, lau hilabete beranduago berriro kasu honen aurrean gaude.

- (76) eta baloa (badoa), joaten da hemendik (2;09;22)
- (77) ulundik (urrundik) (2;09;22)
- (78) kendu ho(r)tik (2;09;22)

Hemendik aurrera, transkribapen batean salbu, beste guztietan agertzen da kasu hau:

- (79) bai, xxtik bere etxera (2;10;11)
- (80) hemendik badoa (2;10;11)
- (81) ho(r)tik (2;10;11)
- (82) u(r)ten hemendik, uretatik (2;10;22)
- (83) hemendikan, asetik (atzetik) ateratzen da lelau (el helado) (2;11;25)
- (84) handik igo da (2;11;25)

Ikus daitekeenez, 79. ekoizpenean oinarriko hitza ez da ageri, baina kasu-marka garbia da eta ekoizpen osoa eta testuingurua kontuan hartuz, kasu honen aurrean gaudela dirudi. Beste ekoizpen guztietan kasu-marka adberbio bati eransten zaio, nahiz 83ean adberbioaren ondoren dagokion hitza ere ekoiztu kasu berean. Ikusiko dugunez, kasu-marka hau daramaten hitz gehienak horixe dira hain zuzen, adberbioak. Bestalde "-tik" atzizkia "-dik" bilakatzen da oinarrian dagoen hitzaren azken kontsonantea "-n" denean.

Ondorengo sei hilabeteetan zehar gertatzen dena azaltzen saiatuko gara orain. Alde batetik galdetzailea bera erabiltzen du Ablatiboan:

- (85) nundik ha(r)tu (du)zu, nundik? (3;00;17)

Leku izenekin mugagabea ere behin ekoizten du:

- (86) Bilbotik (3;01;24)

Aipatu dugun bezala, adberbioak dira kasu-marka hau daramaten oinarriko hitz gehienak. Baina zenbait izenekin ere azaltzen da:

- (87) bidetik joateko (3;01;24)
- (88) eta atera naiz dutxatik (3;06;17)
- (89) Jurgi atera da ere bai dutxatik? (3;06;17)

Beste ekoizpen guztiak adberbioz osatutakoak dira:

- (90) ikusi nahi lut (dut) ho(r)tik (3;00;17)
- (91) olatuak dauden lekuan, ho(r)tik ebiltzen (ibiltzen) da (3;01;24)
- (92) hemendik dator kotxe bat (3;04;04)
- (93) hemendik jungo (joango) gera, bale? (3;05;09)
- (94) eta han, mendi horretatik xx otsoa (3;06;17)

Kasu hau ez du pluralean ekoizten, nahiz eta behin saiatu den. Plurala, hau da "-etarik" erabili beharko zukeen ekoizpen batean, "-etik" atzizkia darabil:

(95) botako ditugu zuloe(ta)tik? (zuloetatik) (3;05;09)

Kasu honi dagokion lehen ekoizpena, 2;04;15 adinean azaltzen da. Hasierako ekoizpenak, nahiko isolaturik egon arren, originalak dira. Beranduago hasten da, ordea, kasu hau azaltzen erregularri, eta transkribapen batean izan ezik, corpus osoan zehar ikusi ahal izango dugu kasu hau. Kopuruaren aldetik, ondoren ikusiko ditugun beste kasu guztiak bezala, Inesiboa eta Genitiboa baino askoz gutxiago azaltzen da (25. taula). Hiru urte bitartean azaldutako Ablatibo kasu-marka guztiek, bi izan ezik, oinarrian adberbioa dute. Corpus osoa kontuan edukiz ere, Adberbio Ablatiboak %72a dira (26. taula). Ekoizpen guztiek lekua adierazten dute eta bizigabeak dira. Mugatu singularrean azaltzen dira ekoizpen guztiak, mugagabeen azaltzen den ekoizpen bat salbu. Gure haurrak ez du kasu hau pluralean ekoizten. Ez dugu aurkitu kasu hau behar eta ekoizten ez den adibiderik.

#### 9.7.4. - Adlatiboa

Aztertzeraz goazen kasu hau, jadanik aztertu dugun Ablatiboa azaltzen den adin berean ekoizten du lehen aldiz gure haurrak:

(96) joan da etxe(r)a (2;04;15)

Ekoizpen hau zalantzazkoa izan daiteke. Alde batetik, kasu honi dagokion lehen adibidea delako eta ondorengo hiru hilabete eta erdian ez delako kasu hau berriro azaltzen. Bestalde, kasu-marka guztia ez adierazteak zalantzak sortarazten dizkigu, nahiz eta bokal arteko fonema dardarkariaren erorketa guztiz arrunta izan, bai haur honengan<sup>107</sup>, bai helduen hizkuntzan, euskararen fonetikan gertatzen den ohiko erorketa denez.

Kasu honi dagokion marka, 2;07;30 adinaz berragertzen da, oraingoan zalantzarik gabeko ekoizpenetan. Haur honengan ohikoa den bezala, batez ere jabekuntza hasieran, bokal arteko dardarkaria, albokaria bihurtzen du:

(97) hondaltzala (hondartzara) (2;07;30)

(98) Plentzila (plentzira) ez (2;07;30)

(99) itxasora (2;07;30)

Hemendik aurrera, eta hiru urte bitartean, transkribapen guztietan azaltzen da:

(100) eh: paiala (plaiara) (2;09;05)

(101) paiala lun (plaiara jun) (2;09;05)

(102) paiala lun kunsean (plaiara jun kotxean) (2;09;05)

(103) eta joaten da ikastolala (ikastolara) (2;09;22)

(104) olain egualdin (orain eguardin) kalera (2;10;11)

(105) bai, juten da fulolela (futbolera) (2;10;11)

---

<sup>107</sup> Geroago ikusiko dugu nola kasu hau ondo menderatua duenean ere, batzuetan bokal arteko "r" hau ahoskatzen duen, eta bestetan ez.

- (106) bai, xxtik bere etxera ( 2;10;11)
- (107) aiba! goango (joango) gara etxe(r)a? (2;11;25)
- (108) etxera (2;11;25)

Orain arteko kasu-marka guztiak mugatuak izan dira. Orain mugagabeak ere azaltzen hasten dira:

- (109) guazen uretara (2;10;22)
- (110) bar(r)aketara (2;10;22)
- (111) eroriko xx uretara, beitu uretara (3;05;09)
- (112) hau botako dugu ureta(ra) (3;05;09)

Hiru urte bitartean bizigabeekin bakarrik azaldu bada kasu-marka hau, orain bizidunekin eta mugagabeen ekoizten du haurrak :

- (113) Migelengana (3;04;04)
- (114) kotxeak Migelengana joaten dira (3;04;04)
- (115) banoa Migelengana ( 3;04;05)

Kasu-marka erakusleetan eta zenbatzaileetan ere ikus daiteke:

- (116) eta joan zen mendi honetara (3;06;17)
- (117) mendi horretara (3;06;17)
- (118) txoko batera (3;06;17)
- (119) beste batera (3;06;17)

Aditzondoak ere ekoizten ditu haurrak :

- (120) botako dugu horra (3;05;09)
- (121) ba, sartzen dut horra (3;05;09)

Azterketaren azken hilabeteaz azaltzen da bizidunei dagokien atzizkia "basoa" hitzarekin, hau da, bizigabea den hitzarekin<sup>108</sup>:

- (122) otsoa joan zen basoarengana (3;06;17)

Laburbilduz, Adlatibo kasua 2;04;15 adinean azaltzen da lehen aldiz. Ekoizpen bakarra da, ordea, eta zalantzazkoa. Hurrengo Adlatiboak hiru hilabete eta erdi beranduago ekoizten ditu haurrak. Hortaz, 2;07;30 adinean kokatu beharko dugu Adlatiboaren lehen jabekuntza. Kopuruari dagokionez, Ablatiboa baino pixka bat ugariagoa da (25. taula). Adlatibo gehienak, bestalde, Izen batean gauzatzen dira, %71, hain zuzen (26. taula). Kasu honi dagozkion ekoizpen guztiak lekua adierazten dute. Mugatu singular, eta mugagabeen ekoizten du haurrak kasu hau, bai bizidunetan zein bizigabeetan.

---

<sup>108</sup> "basoa" hitza biziduna bezala ere har daiteke, bertan bizi asko dagoelako, baina atzizkiaren aukeraketari dagokionez, bizigabea da eta ekoizpena ez gramatikala suertatzen da.

### 9. 7. 5. - Xedezko destinatiboa

Destinatibo kasuari dagokion lehen agerpenaren eta bigarrenaren artean, lau hilabete baino gehiagoko tartea dago. Hona hemen lehen ekoizpena:

(123) piueentzat (2;05;12)

Atzizkia garbi dago adierazita, baina esan dugunez, hurrengo ekoizpenak lau hilabete beranduago azalduko dira:

(124) al(d)apan oso zaila da niretzako (2;09;22)

(125) baina oso zaila da zuretako (2;09;22)

Hurrengo hilabetean azaltzen den ekoizpenean, adberbio bati eransten dio haurrak kasu honi dagokion marka. Horrela, ekoizpena gaizki dago, bai testuinguruaren arabera, bai gramatikari dagokionez. Testuinguru honetan, erakusle bati (honi) erantsi beharko litzaioke dagokion marka:

(126) hementzako (honentzako) (2;10;11)

Ikusiko dugunez, hurrengo hilabetean kasu-marka hau ondo eratuta berragertuko da:

(127) hau niletako (niretzako), e(z) dago gehiago, ikusi (2;11;25)

Hiru urte bitartean azalduko ekoizpenak bost besterik ez dira. Azterketa jarraitu baino lehen, aipatu behar dugu Xedezko destinatiboaren kasu-marka "-tzat" dela eta, "-en" izenlagunaren gainean eraikitzen dela. Kasu honek badu, ordea, zenbait lekutan erabiltzen den beste aldaera bat: "-tako". Aldaera hau eta honen beste aldaera "-tzako" dira, hain zuzen, gure haurrak erabiltzen dituenak, kasu hau ekoizterakoan. Hona hemen "-tako" atzizkiarekin ekoizten dituenak:

(128) holi da zuletako (zuretako) (3;00;17)

(129) xxtako eta niretako (3;00;17)

(130) ez, niletako (niretako) da koño! (3;00;17)

(131) ha(r)tu! zuretako (3;04;04)

Gorago aipatu dugunez, "-tzako" atzizkia ere erabiltzen du:

(132) eta neletzako (neretzako) ere bai (3;00;17)

(133) niretzako da santxeski haundi haundi bat (3;02;14)

(134) zuretzako ere bai (3;02;14)

(135) ta hau zan niretzako (3;06;17)

(136) nik badaukat hau zuretzako (3;06;17)

Horrela bada, kasu honi dagokion lehen ekoizpena 2;05;12 adinean azaltzen da, eta izen

propioari erantsi dio kasu-marka. Bigarren ekoizpena lau hilabete beranduago azaltzen da, hau da, 2;09;22 adinean, eta gehienetan izenordainei eransten zaio kasu-marka (26. taula). Guztira, hamalau ekoizpen baino ez ditu ekoizten gure haurrak (25. taula). Ez du kasu hau pluralean ekoiztu. Hala eta guztiz ere, gure ustez kasu honen jabekuntza-bilakabidea martxan dago, haurrak ezagutzen du jadanik kasu hau nola erabili, erabilera oraingoz nahiko mugatua bada ere. Ez dugu aurkitu, gainera, kasu honen beharra duen testuingururik, kasu-markarik gabe.

### 9. 7. 6. - Soziatiboa

Badirudi 2;07;09 adinean kasu honen aurrean gaudela. Dirudiela diogu, kontuan harturik, Soziatibo kasuaren atzizki osoa ondo adierazia egon arren, ez duela hitz osoa ekoizten. Hala eta guztiz ere, testuingurua begiraturaz, badirudi honako hau esan nahi duela:

(137) nekin? (honekin?) (2;07;09)

Kausa edo instrumentaltasuna adierazi nahi du, "zerbaitekin" pintatuko al duen galdetzen baitu. Bi hilabete beranduagoko corpusean ikusi ahal izango ditugu kasu honi dagozkion zenbait ekoizpen. Hauen bidez ziurtatuko dugu kasu honen jabekuntza:

(138) pitola(re)kin bai (2;09;05)

(139) kakekiakin (santxeskiarekin) (2;09;05)

(140) joan da kotxea(re)kin (2;09;05)

(141) mina gero balesakin (paretarekin) (2;09;22)

Ekoizpen hauek instrumentaltasuna adierazten dute. Kasu hau aztertzerakoan esan beharra dago gaur egun gehienetan Instrumental kasuaren ordeztar erabiltzen dela batez ere sartaldeko euskalkietan. Horrela tresna adierazterakoan, haur honek, inguruko beste edozeinek bezala,<sup>109</sup> Soziatibo kasua erabiltzen du Instrumentala erabili ordeztar. Ikusten denez, ekoizpen hauek mugatu singularrean daude, nahiz eta bokal arteko dardarkaria ez agertu.

Aurreko ekoizpenetan izenek hartzen zuten kasu marka. Erakusleak ere ba daramate kasu honi dagokion kasu-marka:

(142) bai, eta hau jartzen du patinina (plastilina) honekin (2;09;22)

(143) honekin? (2;10;11)

(144) jola(s)tuko gogu (dugu) honekin, bale? (2;10;11)

Ezin dugu esan bigarren ekoizpenak (143) kidetasuna edo tresna adierazten duenik, ez baitakigu zertaz ari den hitz egiten. Besteek instrumentaltasuna adierazten dute, hilabete honetako beste ekoizpen guztiak bezala:

(145) jola(s)tuko gugu (dugu) laketakin? (raketarekin) (2;10;11)

(146) hartuko du(t) jola(s)teko laketalekin (raketarekin) (2;10;11)

(147) eta gero pilota(n) jola(s)tera paleta(re)kin, bale? (2;10;11)

<sup>109</sup> Corpusean zehar haurraren hizketa-lagunek ere Soziatibo kasua erabiltzen dute Instrumentala erabili ordeztar.

(148) ze inkingo (egingo) gugugu (dugu) peakin? (kanoarekin?)(2;10;22)

Kasu honi dagokionez, lehenengo aldiz (146) mugatu singularrari dagokion dardarkaria (haur honengan oraingo albokaria) ekoizten du.

Hurrengo hilabeteetan, kasu honi dagokion kidetasuna adieraziz ekoizten du kasu hau:

(149) nahi lut (dut) Itxilekin (Itziarrekin) (2;11;25)

(150) etunai juan Magalekin (ez dut nahi joan Margarekin) (2;11;25)

Ondorengo sei hilabeteetan zehar kasu honen jabekuntza sendotuz doa. Hiru urte bitarteko azterketaren azken aldean ikusi ahal izan dugu, kidetasuna adieraziz ekoizten duela haurrak kasu hau, pertsona erreferenteei dagokienez. Orain, berriz, izen arruntei edo izenordainei erantzen die kasu-marka, kidetasuna adieraziz:

(151) panpiña gitalalekin (gitarrarekin) (3;00;17)

(152) gulinalekin (gurinarekin) (3;00;17)

(153) koro (gorro) batekin (3;01;24)

(154) gurekin (3;02;14)

Instrumentaltasuna edo kausa ere, lehenago bezala, orain ere kasu honen bidez adierazten du gure haurrak, atzizkia izenei edo erakusleei erantsiz. Instrumentaltasuna Soziatibo kasuaren bidez adierazten duen galdekaria ere azaltzen da (157):

(155) e(s)kua(re)kin egin (agur) (3;00;17)

(156) jokoyot (joko diot) ma(i)lu batekin (3;06;17)

(157) zerekin egiten, honekin? (3;01;24)

(158) ez, zuk horrekin (3;04;04)

(159) eta nik honekin, bale? (3;04;04)

Nahiz eta testuinguru batean pluralaren beharra izan, kasu-marka ez du ondo erabili:

(160) muletakin (muletekin) ibili beal (behar) du (3;01;24)

Hurrengo hilabeteetan, lehen plurala ekoizten du haurrak:

(161) gurekin (3;02;14)

Eta ia hilabete beranduago, beste bat:

(162) holan tlonkoekin (tronkoekin) (3;03;07)

Kasu honen beharra izan arren, gabe azaltzen diren bi testuinguru aurkitu ditugu:

(163) jola(s)teko laketak (raketarekin) (2;10;11)

(164) klomoak jolatuko lugu (kromoekin jolastuko dugu) (2;10;11)

Adibide hauen bidez garbi ikus daiteke hizkuntz jabekuntza-bilakabidean sarritan

gertatzen dena, hau da, kategoria baten ezagupena eta erabilera, erabili ezarekin batera ematen direla garai batean, jabekuntza guztiz finkatzen den bitartean.

Ekoizpen batean, kasu-marka izen-sintagmaren lehen elementuari jarri dio, izen-sintagmaren azkenean jarri ordeztu:

(165) atearekin laranja (3;04;04)

Baina berehala konturatu da gaizki esan duela eta segidan zuzendu egiten du ekoizpena. Honek adierazten du izen-sintagmaren egitura ondo ezagutzen duela:

(166) atea laranjarekin (3;04;04)

Beste batean berriz, mugagabea erabiltzen du mugatu singularra erabili ordeztu:

(167) saltoka santxeski(a)rekin (3;06;17)

Horrela bada, kasu hau izan daitekeen lehen ekoizpena 2;07;09 adinean azaltzen da. Bi hilabete beranduago, ordea, kasu honen aurrean gaudela esan genezake, hau da, 2;09;05 adinean. Kasu honek, berez kidetasuna adierazten du, baina askotan Instrumental kasuaren ordeztu erabiltzen da. Hori da, hain zuzen, haur honek egiten duena, tresna adierazi nahi duenean, Sozietate kasuaren bidez adierazten du. Hiru urte bitarteko ekoizpen gehienek tresna edo instrumentaltasuna adierazten dute, baina azken aldean kasu honen bidez kidetasuna ere adierazten da. Mugatu singular eta pluralean azaltzen da kasu-marka hau. Azterketan zehar ikusi dugunez, bi ekoizpenetan kasu-marka hau behar eta ez du ekoizten.

Azterketa laburbilduz, esan genezake nahiko berandu ekoizten duela haurrak kasu hau: 2;09;05 adinaz hain zuzen. Kopuruari dagokionez, Inesiboa eta Jabego genitiboa baino askoz gutxiagotan azaltzen bada ere, kasu hau da ugariena beste guztien artean (25. taula) eta nahiko erregularra da, gainera. Sozietate kasua gehienbat izenetan gauzatzen da (%44), baina %31 erakusle ere azaltzen dira kasu marka honekin (26 taula). Berez kidetasuna adierazten duen kasu hau, instrumentaltasuna adieraziz ekoizten du haurrak hasieran. Kontuan izan behar dugu, geroago ikusiko dugunez, Instrumental kasua behin bakarrik ekoizten duela haur honek, gaur egun toki askotan ohikoa den bezala, funtzio hau Sozietate kasuak betetzen baitu. Hiru urte bete aurretik ordea, kidetasuna adierazteko ere ekoizten du kasu hau. Horrela bada, kidetasuna eta instrumentaltasuna adierazten ditu haur honek kasu honen bidez. Bestalde, hiru atzizkiak ere erabiltzen ditu, hau da, mugatu singularra, mugagabea eta plurala. Azken hau behin bakarrik azaltzen da, eta azaldu behar lukeen testuinguru bat ere badago. Beste batean mugagabea erabiltzen du mugatu singularra erabili ordeztu. Hiru urte bitartean, kasu-markarik gabe azaltzen dira kasu honen beharra erakusten duten bi ekoizpen. 2;10;11 adinaz geroztik bada, behar den ekoizpen guztietan adierazten du Sozietate kasua. Kontuan eduki, hau kasu honen lehen ekoizpena baino hilabete beranduago gertatzen dela.

### 9. 7. 7. - Muga adlatiboa

Tarte baten azken muga adierazten duen Muga adlatibo kasua ere agertzen da. Nahiz eta ekoizpen bakarra eta isolatua izan (hurrengo hiru urte bete ondoren azalduko da), oso garbia da:

(168) bai, itxasolaño ( itxasoraino) (2;07;30)

Aipatu dugunez, kasu hau behin bakarrik azaldu da hiru urte bitartean. Emankortasuna ez da handitzen harrezkero, azterketa amaitzen den bitartean beste bitan bakarrik ekoizten baitu kasu hau aztertzen ari garen haurrak. Bietan, erakusle batekin ekoizten du kasu-marka:

(169) olalano ( horreraino) (3;00;17)

(170) eskapo intzuen (egin zuen) mendi ho(rre)raño (3;06;17)

Horrela bada, corpus osoan zehar hiru ekoizpen besterik ez dago (25. taula). Ekoizpen batean kasu hau izen batean gauzatu den bitartean, beste biak adberbio batean gauzatu dira (26. taula). Hirurak bizigabeekin, eta mugatu singularrean daude adieraziak, eta hirurak lekua adierazten dute. Ezin da asko esan hiru adibide besterik ez dituen kasu bati buruz, baina ez dugu aurkitu kasu honen beharra duen beste testuingururik, eta, gure ustez, kasuaren jabekuntza-bilakabidea martxan jarri da.

### 9. 7. 8. - Leku genitiboa

Kasu-marka hau eta Genitiboa beste kasuetatik bereizten dira batez ere, bi lehenengoek bi izen jartzen dituztelako harremanetan, eta besteek berriz izen-sintagma eta aditzaren arteko erlazioak adierazten dituztelako. Hortaz, kasu-marka hau daraman izena izenlagun bihurtzen da, eta beti beharko du izen-sintagma bat bere ondoan. Horrela ez bada, hau da, Izen hau ezabatuta geratzen bada, atzizkiak artikulua hartuko du.

Hori da gure haurrak egiten duena corpusean zehar azaltzen diren ekoizpen gehienetan, batean izan ezik. Kasu hau nahiko berandu azaltzen da, eta oso gutxitan erabiltzen du:

(171) hemengoa (3;01;24)

(172) ez, hemengoa (3;01,24)

Kasu hau daramaten hurrengo ekoizpenak 3;03;07 adinekoak dira. Hauetako lehena (173) errepikapen bat izan daiteke, baina ez bestea.

(173) bai, zirkokoa (3;03;07)

(174) hau ra (da) tlatloreakoa ( traktorekoa) (3;03;07)

(175) nile (nire) Ma(r)ga(k) laka (dauka) t(r)ipako miña (3;03;07)

Azken ekoizpen honetan izen-sintagma osoa ikus daiteke, hau da izenlaguna eta izenez osatutakoa. Hurrengo hilabetean ere kasu honi dagokion ekoizpen bat aurkitu dugu:

(176) lu(r)peko tlenean (trenean) (3;04;04)

Naiz eta azterketa bukatu arteko corpusean, hau da, 3;06;17 bitartean kasu hau gehiago ez azaldu, badirudi jabekuntzaz hitz egin daitekeela.

Kasu honi dagokion kasu-marka, izenei eta adberbioei eransten zaie (26. taula). Bestalde,



kasu honen izena leku genitiboa izan arren, atzizkia Inesibo kasuari eranstea, beste zenbait adiera ere izan ditzake, hala nola denbora eta ekintza, hiru galdera ditugunez (nongo, zertako, noizko). Baina haur honen corpusean ez dugu lekua beste adierarik aurkitu. Gainera, mugatu singularra besterik ez du ekoizten.

### 9.7.9. -Instrumentala

Instrumental kasua 3;02;14 adinean azaltzen da, hau da, gure azterketan azkena azaltzen den kasua. Gainera ekoizpen bakarra dugu corpus osoan eta eredu bakar batekin ezin dugu esan kasu hau jabetua duenik:

(177) kotxez (3;02;14)

Esan dugunez ekoizpen bakar batengatik ezin da ziurtatu jabetuntza. Sozietibo kasuaren azterketa egiterakoan esan dugunez, Instrumentala erabili ordez, batez ere sartaldeko euskalkietan, Sozietiboa erabiltzen da. Hortaz ez da harrizkoa hizkuntzaz jabetzen ari den haurrak ere kasu hau ez erabiltzea, edo oso gutxitan egitea.

#### B) Laburpena

Aditzarekin komuntadura gordetzen ez duten kasuen azterketa amaitu ondoren, jabetuntzaren bilakabidearen laburpen bat egingo dugu. Hiru urte bete aurretik, aztertzen ari garen haurrak ondorengo kasuak ezagutzen ditu jadanik: Inesiboa, J. Genitiboa, Ablatiboa, Adlatiboa, X. Destinatiboa, Sozietiboa eta Muga Adlatiboa.

Hauetako batzuen agerpena ugaria da eta haurraren hizkuntzan nahiko finkatuta daudela dirudi (Inesiboa, Genitiboa, Ablatiboa, Adlatiboa eta Sozietiboa). Beste batzuek ordea (Muga adlatiboa, Destinatiboa), ekoizpen gutxi erakusten dituzte eta adibideak garbiak badira ere, beranduxeago ziurtatuko da beraien jabetuntza.

Azterketa amaitu bitartean geratzen diren sei hilabetetan, alde batetik bi kasu berri azaldu dira, Leku-genitiboa eta Instrumentala. Emankortasunari dagokionez, Genitibo kasua da, dudarik gabe, emankorra. Ondoren, eta presentzia nabarian Inesibo kasua dator. Bi hauek alde batera utziz, emankortasuna asko jaisten da, eta bigarren talde honetan azaltzen diren kasuak, emankortasunaren arabera, honela geratzen dira: Sozietiboa, Adlatiboa, Ablatiboa, Destinatiboa, Leku-Genitiboa, Muga adlatiboa eta Instrumentala. Ez dugu aipatzen Motibatibo kasua (-gatik), honen agerpena hitz bakar batera mugatzen delako: "horregatik". Kasu-marka hau beste hitz batera hedatu ez denez, uste dugu osorik ikasitako hitz baten aurrean gaudela.

Azterketan zehar, bestalde, ez ditugu posposizioak aipatu, hauen azalpena oso urria delako, eta "bezala" eta "billa" besterik ez ditugulako aurkitu aztertutako haurraren corpusean zehar. Lehena, 2;03;25 adinean ekoiztu du haurrak lehen aldiz, eta bera da gainera ugariena. Bigarrenari dagokionez, 3;06;17 adinean ekoiztu du, hau da, azterketa amaitzen den hilabetean.

## KASUEN LEHEN AGERPENA ADINA ETA EBBLAREN ARABERA

KASUA	ADINA	EBBL
INESIBOA	2;02;14	1,56
JABEGO GENITIBOA	2;03;25	1,62
ABLATIBOA	2;04;15	2,10
ADLATIBOA	2;04;15 - 2;07;30 <sup>110</sup>	2,10 - 3,27
DESTINATIBOA	2;05;12	2,30 - 3,95
SOZIATIBOA	2;07;09 - 2;09;05	2,61 - 3,25
MUGA ADLATIBOA	2;07;30	3,27
LEKU GENITIBOA	3;01;24	3,45
INSTRUMENTALA	3;02;14	3,19

Corpusean zehar azaldu diren bederatzi kasuetatik, hiru urte betetzerako, aztertzen ari garen haurrak jadanik zazpi ikasi ditu; beste biez hiru urte bete eta berehala jabetu da. Haur honen corpusean, ordea, ez dira kasu guztiak azaltzen, bai ordea hizkuntzan ohikoen eta erabilien direnak. Hortaz, Euskarak aditzarekin komunztadurarik ez duten hamabost kasuetatik, bederatzi ekoiztu ditu gure haurrak. Azterketaren azkenean, hau da, haurrak hiru urte eta erdi dituenean ekoiztu ez dituen kasuak hauek dira: Motibatiboa (-gatik), Hurbiltze Adlatiboa (-(r)antz), Adlatiboaren gainean eraikia (-(r)ako), Banatzailea (-ko) eta Inesiboaren gainean eraikia (-ko).

Kasu hauek hainbat kategoriatan gauzatzen dira 26. taulan ikus daitekeenez. Kasu-marka gehienak hartzen dituen kategoria izena da (%41). Izenordainak ere % 23 kasu hartzen ditu. Ondoren datozen kategoriak adberbioa (%13), izen propioa (%12) eta erakuslea (%6) dira. Adjektiboak eta zenbatzaileak kasu-marka batzuek hartzen badituzte ere, oso gutxitan gertatzen da hori.

Azterketan zehar ikusi ahal izan dugunez, kasuek dituzten zenbait adiera ezberdin ere ikasi ditu haurrak. Adiera ezberdin hauen artean, "lekua" da lehen adierazten dena eta ugariena. Bestalde, jarduera, jabegoa, xedea edo helburua, tresna eta kidetasuna ere adierazten ditu kasu hauen bidez. Azkenik "denbora" adierarekin ere azaltzen da Inesibo kasua, azterketaren azken aldian bada ere: 3;06;07 adinean, hain zuzen. Leku-denborazko erlazioak aztertzen dituzten egile guztiek diotenez, gure haurrak ere lekua adierazten duten erlazioak ekoizten ditu lehendabizi, eta denbora adierazten dutenak beranduago. Hala eta guztiz ere, ikuspuntu hau zabalago ikusi ahal izango dugu preposizioen azterketan.

Bestalde euskal deklinabideak kasu bakoitzean dituen hiru atzizkiak (mugagabea, mugatu singularra, eta mugatu plurala) ere azaldu dira zenbait kasutan. Leku-denbora kasuetan

<sup>110</sup> Bi adin eta EBBL azaltzen direnean, lehenengoan zalantzak daudelako da.

bizidunekin eta bizigabeekin erabiltzen diren atzizkiak ere azaldu ditu haurrak zenbaitetan. Hau guztia taula baten bidez azaltzen saiatuko gara.

### ADIERA ETA ATZIZKI EZBERDINAK ERAKUSTEN DITUZTEN KASUAK

KASUA	ADIERAK	MUGATU SINGULARRA	MUGATU PLURALA	MUGAGABEA
INESIBOA	Lekua Debora Jarduera	+	+	+
J.GENITIBOA	Jabegoa	+	+	-
ABLATIBOA	Lekua	+	-	+
ADLATIBOA	Lekua	+	-	+
X. DESTINAT.	Xedea edo Helburua	+	-	+
SOZIATIBOA	Tresna Kidetasuna	+	+	+
M.ADLATIBOA	Lekua	+	-	-
L.GENITIBOA	Lekua	+	-	-

Azterketan zehar ikusi dugunez, oso urria da pluralaren azalpena. Kasu guztiei dagokien corpora orohar harturik %4ra ez dira iristen pluralak. Gehienak, gainera, hiru urte bete ondoren azaltzen dira. Mugagabeari dagokionez, honen azalpena ere urria da.

Corpus osoa oro har harturik, ekoizpen gutxi aurkitu dugu beharrezko kasu-markarik gabe ekoiztuak, eta guztira ez dira %5era iristen. Badirudi haurra oso erregularra dela jabekuntza-bilakabidean, eta kasu bat ezagutu ondoren, behar den guztietan erabiltzen duela, hiru urtetik aurrera batez ere.

#### D) Emaitzen eztabaida

Kasuen jabekuntza aztertu duten zenbait ikerketa behatu ondoren, guk aztertutako haurraren jabekuntzarekin erkatzen ahaleginduko gara. Ikusiko dugunez, zenbait parekotasun eta ezberdintasun aurkituko dugu. Hasteko, euskaraz egindako azterketekin erkatuko dugu gurea, eta ondoren beste hizkuntzetakoekin.

Euskal deklinabidearen jabekuntza-garapena haur euskaldun elebakar batengan aztertu zuen A.Barreñak (1994b) 1;05;19 adinetik 3;06;24 adina arte. Haur honek 1;05;19 tik 1;11;05<sup>111</sup>

<sup>111</sup> 1;11;05 adinaz hain zuzen, Inesiboari dagokion kasu-marka bat ekoizten du.

arte ez du deklinabide-markarik ezagutzen. Bi-hiru urte bitartean lortuko ditu deklinabide kasu gehientsuenak. Bestalde toki kasuetan, bizidun-bizigabeen arteko bereizketaz ere jabetzen da berak aztertutako haurra. Mugagabea ere ezagutzen du hiru urterako. Guk aztertutako haurrarekin erkatuz, gureak atzerapen ttiki bat erakusten du, adinari dagokionez, baina honelako atzerapenak guztiz arruntak dira hizkuntzaren jabekuntza-bilakabidean<sup>112</sup>. Kontua da, gure haurrak ere hiru urte betetzen dituenerako eguneroko hizkuntzan eragin haundiena duten kasu gehienez jabetu dela, denak ez izan arren. Bestalde, toki kasuetan bizidun - bizigabeen arteko bereizketa alde batetik eta, mugatu singularra eta plurala, eta mugagabea bestetik ere bereizten ditu.

Kasuaren bilakabidea euskaraz eta gazteleraz haur batengan nola ematen den aztertu zuen P. Larrañagak (1994). Euskararen azterketa 1;07;14 adinetik 2;06;11 adina arte egin zuen. Azaltzen den lehen posposizioa<sup>113</sup> Lokatiboa da, 2;00;22 adinean. Kasu hau singularrean besterik ez du erabiltzen eta lekua bakarrik adieraziz. Bi hilabete beranduago Adlatibo eta Soziatibo kasuen jabekuntza lortzen du haurrak. Beste zenbait kasu ere agertzen hasten dira, baina imitazio hutsak dira edo egitura jakin batzuetara mugatzen da haurra edo, ekoizpen oso gutxi eta zalantzasak direnez, egileak dio ezin dela jabekuntzaz hitz egin. Esan dugunez, ikerketa hau, euskaraz, 2;06;11 adinean amaitzen da. Adin honen inguruan bost kasu ekoiztu ditu guk aztertutako haurrak: Inesiboa, Jabego genitiboa, Ablatiboa, Adlatiboa eta Destinatiboa -- azken bi hauetan ekoizpen bana bakarrik--. Inesiboari dagokionez, Larrañagaren haurrak bezala, gureak ere lekua besterik ez du adierazten adin honetan eta mugatu singularrean besterik ez du ekoizten, oraindik, kasu hau.

Georgieraren jabekuntza aztertu zuten N.Imezdade eta K. Tuitek (1992). Horretarako bost haur aztertu zituzten lau urte bitartean eta beste 27 haur ekoizpen eta ulermen saio batean. Izenaren deklinabideari dagokionez, sei kasuren bilakabidea azaltzen dute egileek: Nominatiboa, Genitiboa, Datiboa, Ergatiboa, Bokatiboa eta Instrumentala. Hauetatik, bi dira atal honetan interesatzen zaizkigunak: Genitiboa eta Instrumentala. Genitibo kasua, diote, nahiko erraz menderatzen dutela hurrek: 1;08;21 adina 2;04;17 adina bitartean, beti ere haurren arabera. Ikusi ahal izan dugunez, gure haurraren ere kasu hau da aurrenetarikoa: 2;03;25 adinaz azaltzen baita. Instrumental kasuari dagokionez, beste kasuak adina ez dela erabiltzen diote. Hori da, hain zuzen, gure haurraren gertatzen dena, gutxien erabiltzen den kasua dela, eta erlazio hau adierazteko Soziatibo kasuaz baliatzen da.

Estonieraren inflexioa aztertu zuen E. Lipp-ek (1977) 2 haur elebakar eta elebidun batengan zortzi astetan zehar. Haur hauen adina ikerketaren hasieran honakoa zen: 2;05;00-2;07;00 - 2;08;00. Inflexioen jabekuntza bi taldetan banatua aurkeztu zuen: alde batetik goiz ikasten direnak eta bestetik beranduago ikasten direnak. Goiz ikasten direnen artean, guri orain interesatzen zaiguna, Genitibo kasua dago. Bigarren taldean agertzen diren inflexioei dagokionez, hau da, beranduago ikasten direnen artean, lehena Inesiboa da eta Soziatiboa eta Adlatiboa beranduago ikasten dira. Gure haurrak ere, Genitiboa eta Inesiboa lehenago ikasten

---

<sup>112</sup> Arazo honetan faktore askok dute eragina. Haurraren beraren bilakabide kognitiboa, inguruak eskeintzen dion "input" delakoa, haurra elebakarra edo elebiduna izatea, grabaketa egindako egunean haurraren jarrera, etab.

<sup>113</sup> Egile honek kasu ez gramatikalei, hau da aditzarekin komuntadura ez duten kasuei, posposizioak deitzen die A. Eguzkitzari (1993) jarraituz.

ditu Soziatiboa eta Adlatiboa baino. Bi talde hauetan, ordea, jabekuntza alderantziz gertatzen da gure haurrari dagokionez, hau da, Inesibo kasua Genitiboa baino lehenago ekoizten du eta Adlatibo kasua Soziatiboa baino lehenago.

Turkieraren jabekuntza aztertu zuten A.A.Aksu-Koç & D.I.Slobinek (1985). Turkieraren jabekuntzari buruz egin den hainbat ikerketatan oinarrituriko lana da. Hizkuntza hau eranslea da eta nahiko erregularra gainera. Sistema inflexionala oso goiztiarra da hizkuntza honetako haurrengan. Horrela, izenen inflexioak eta aditz paradigma gehienak lortuak dituzte bi urte betetzen dituztenerako. Aditzaren eta izenaren flexioak agertzen dira hitz bakarreko aroan, lehen emaitzak hamabost hilabetean agertuz. Horrez gain ez dute errurik egiten morfema eransleen ordenan, gorago aipatu denez, oso hizkuntza erregularra delako. Jabekuntza goiztiar hau kontuan harturik, haur turkoek ez dute ohiko "haur hizkuntza" ezagutzen, ezta "aro telegrafikoa" deritzana ere, atzizki flexionatuak hasieratik dituztenez. Haurren ekoizpenak laburrak izango dira, baina ia inoiz ez ez-gramatikalak edo osatu gabeak helduen ikuspuntutik. Hau dena perpaus bakun eta nagusietan gertatzen da, menpeko perpausetan arazoak sortarazten baitizkie sintaxiak eta morfologiak. Lan honen egileek, hamabi faktore aipatzen dituzte jabekuntza erraz eta azkar hau ulertu ahal izateko. Bestalde, "operating principles" (Slobin 1973) nozioak, hizkuntzarekiko pertzepzio, ekoizpen eta azterketa hartzen ditu kontuan. Harrera printzipioen artean, lan honetan aplikatu daitekeen printzipioa dela dio "Arreta eduki hitzen azkenari" (Slobin 1973), kontuan izanez atzizkidun morfologia eta preposizioen jabekuntza goiztiarra. Horrela bada, bi urte betetzen dituztenerako, atal honetan guri interesatzen zaizkigun honako flexioak ezagutzen dituzte: Ablatiboa, Posesiboa eta Instrumentala. Garbi dago ez dela hori gertatzen gure haurraren, nahiz eta euskarari dagokionez ere morfologia atzizkiduna izan, lehen kasu-marka bi urte bete ondoren azaltzen baita, eta hauen emankortasuna, berriz, beranduago.

Hungarieraren morfologia eta sintaxiaren jabekuntza ikertu zuen B. Macwhinneyek (1976) haur batengan 1;05;02 adinetik 2;02;03 adina arte. Hizkuntza uralikoa da, aglutinantea eta flexio asko duena (34 gutxienez). Hungariar inflexioek, konplexutasun formalari dagokionez, ezberdintasun gutxi dute. Inflexioak, turkieran bezala, lehen hitzetan azaltzen dira, baina ekoizpen emankorra sei hilabete beranduago hasten da. Bi urte bete aurretik, Instrumentala, Adlatiboa, Posesio zeinua eta Inesiboa bereganatu ditu haurrak (atal honetan aztertzen ari garenak hartu ditugu). Hortaz, egileak dioenez, haur hungariarrek, haur indo-europarrek baino lehenago erabiltzen dituzte inflexioak emankortasunez, azken hauek bi urte edo bi hitzen aroaren aurretik emankortasun morfologiko gutxi erakusten dutenez. Gure aldetik esan dezakeguna zera da: Euskara ere ez dela hizkuntza indoeuroparra, baina guk aztertutako haurrak ez duela morfologiarik erakusten bi urte bete aurretik.

Kasu-marken jabekuntzaren zenbait azterketa ikusi dugu hizkuntzetan zehar. Zenbait parekotasun ikusi ahal izan dugu oro har, gure haurraren jabekuntza- bilakabidearekin, baina baita zenbait ezberdintasun ere. Azken hauei dagokionez, turkiera eta hungariera hizkuntzen jabekuntzan gertatzen dena da gehien azpimarra dezakeguna. Izan ere bi hizkuntza hauetan, bi urte bete aurretik izenen inflexio gehienak azaltzen direla diote lan hauen egileek, hau da, A.A. Aksu-Koç & I. Slobin (1985) eta B. Macwhinney (1976). Ez da hau gertatzen gu aztertzen ari garen haurraren, honek ez baitu inolako inflexiorik erakusten bi urte bete aurretik, azterketan zehar frogatu daitekeenez.

Bestalde, Genitibo eta Instrumental kasuei dagokionez, gure emaitzak bat datoz N. Imezdade eta K. Tuitek (1992) georgieraren jabekuntza aztertzerakoan aurkitu zutenekin, hau da,

Genitibo kasua nahiko erraz menderatzen dela. Berdintasun hau adinari ere badagokio. Instrumental kasua, berriz, beste kasuak baino gutxiago erabiltzen dute, bai haur georgiarrek, bai gure haurrak. Genitibo kasuarekin jarraituz, berriro ere gure emaitzak bat datoz E. Lipp-en (1977) emaitzekin, honek goiz ikasten direnen artean kokatzen baitu kasu hau. Bigarren taldean kokatzen ditu Inesibo, Soziatibo eta Adlatibo kasuak. Hemen, ordea, emaitzak ezberdinak dira gure haurrak Inesiboa Genitiboa baino lehen ikasten baitu, eta beste biak, ondoren.

Guk bezala, euskarako kasuen jabeakuntza aztertu dutenen emaitzak begiratu, Larrañagak (1994) 2;06;11 adina bitartean erakusten dituenak eta gureak berdintsuak dira gorago ikusi dugunez. Barreñaren (1994b) emaitzak eta gureak, lehen begirada batean, oso ezberdinak badirudite ere, eta gure haurrak atzerapena erakusten badu ere, haren haurrarekin erkatuz, bai bata bai bestea hiru urte betetzerako jabetu dira gehien erabiltzen diren kasuez.

Jakina denez eta azterketan zehar ikusi dugunaren arabera, euskaraz bi Genitibo daude: Jabego Genitiboa (-en) eta Leku Genitiboa (-ko). Lehena, hau da, Jabego genitiboa da aurrena agertzen dena, bai gure haurraren, bai Barreñak (1994b) aztertutako haurraren ere. Bestalde ordea, lekua adierazten duten kasuak eta preposizioak dira goizen agertzen direnak haur gehienetan, euskaraz gure haurraren ikusi dugunez eta ondorengo atalean gaztelaniazko preposizioen azterketan azaltzen ditugun ikerketetan ikus daitekeenez. Arazo hau dela-eta, Leku Genitiboa, Jabego Genitiboa baino lehen ez agertzearen zergaitia sortzen zaigu. Semantikaren gainetik, gramatika-jabeakuntzaren lehentasunaren adierazpena ote?

### 9. 7. 10. -Aditzarekin pertsona komunztadurarik erakusten ez duten kasuei dagozkien ondorioak

Euskaraz aditzarekin komunztadurarik ez duten kasuen azterketak amaitu ondoren, eta gure datuen arabera, ondorio hauek ikusi ahal izan ditugu guk aztertutako haurraren:

1-Azterketa amaitzen denerako, 3;06;17 adinerako, haurra ondorengo kasuaz jabetu da:

KASUA	ADINA
- Inesiboa	2;02;14(178) g(r)ua (gar)ajea.
- Jabego genitiboa	2;03;25 (179) nire tutua.
- Ablatiboa	2;04;15 (180) eta sa(r)tu atzetik.
- Adlatiboa	2;04;15(181) joan da etxe(r)a
- Destinatiboa	2;05;12 (182) Piueentzat
- Soziatiboa	2;07;09(183) (ho)nekin?
- Muga adlatiboa	2;07;30(184) bai, itxasolaño (itxasoraino)

- Leku-Genitiboa 3;01,24(185) hemengoa
- Instrumentala 3;02;14(186) kotxez

2.- Kasu gehienak, bi izan ezik, hiru urte bete aurretik ekoiztu ditu haurrak. Eta gure azterketa amaitzerako, hau da, haurrak hiru urte eta erdi dituenetako, kasu gehienak ikasiak ditu.

3.- Jabego-genitiboa eta Inesiboa dira kasu emankorrenak. Bi kasu hauen arabera, besteen emankortasuna askoz urriagoa da.

4.- Kasuen bidez azal daitezkeen adieren artean, "lekua" da lehen azaltzen dena. Ondorengo adierak ere azaltzen dira:

- Jarduera
- Jabegoa
- Xedea edo helburua
- Kidetasuna
- Tresna
- Denbora

Adieren artean, lehen azaltzeaz gain, ugariena "lekua" da. "Tresna" eta "denbora" behin bakarrik azaltzen dira corpus osoan zehar.

5.- Kasu-marka bakoitzak dituen hiru atzizkiak, hau da, mugatu singularra , mugatu plurala, eta mugagabea, ekoiztu ditu haurrak zenbait kasutan.

6.- Leku-denborazko zenbait kasutan, bizidunei eta bizigabeei dagozkien atzizkiak bereizi ditu.

7.- Pluralari dagokionez, oso gutxitan ekoizten du gure haurrak. Corpus osoaren arabera, %4ra ez dira iristen pluralean ekoiztutako kasu-markak. Plural guztiak, gainera, bat salbu, hiru urte bete ondoren ekoiztutakoak dira.

8.- Kasu batzuetan ekoizpena oso urria bada ere, ekoizpen gutxi aurkitu dugu beharrezko kasu-markarik gabe. Corpus osoan zehar %5era ez dira iristen horrelako ekoizpenak.

9.- Kasu hauek zenbait kategoriatan gauzatzen dira:

- Izenetan: % 41
- Izenordainetan: % 23
- Adberbioetan: % 13
- Izen propioetan: % 12
- Erakusleetan: % 6
- Zenbatzaileetan: % 2
- Adjektiboetan: % 1
- Beste kategoria batzuetan: % 2

Izenak eta izenordainak dira, beraz, kasuak gauzatzeko gehien erabiltzen diren kategoriak, biak baturik %64raino iristen baitira.

10.- Kasu hauek aztertu dituzten zenbait ikerketarekin egindako erkaketaren ondorioz, honako puntu hauek ikusi ahal izan ditugu:

- Haur euskaldunak, hiru urte betetzen dituztenerako, gehien erabiltzen diren kasuez jabetzen dira.
- Euskarak dituen bi Genitiboen artean, Jabego genitiboa da haurrek lehen ekoizten dutena.
- Turkiera eta hungariera hizkuntzetan bi urte bete aurretik izenen inflexio gehienak azaltzen badira ere, ez da hori gertatzen gure haurrarentan.
- Genitibo kasua erraz menderatzen den kasua da.
- Instrumental kasua, berriz, beste kasuak baino gutxiago azaltzen da.
- Ikerketa guztietan zehar, lekua/denbora erlazioen artean, lekua adierazten duten kasuak dira lehen azaltzen direnak<sup>114</sup>. Gorago aipatu dugunez, ordea, euskarak dituen bi genitiboen artean, Jabego-genitiboa goiz agertzen den bitartean, Leku-Genitiboa hiru urte bete ondoren azaltzen da. Honek pentsa arazten digu, zenbaitetan semantika lagungarri den bitartean jabekuntzarako, bestetan gramatikaren jabekuntza dela erabakitzen duena.

### 9. 7. 11. - TAULAK

#### 25.TAULA: ADITZAREKIN KOMUNZTADURARIK ERAKUSTEN EZ DUTEN KASUEN AZALPENA, ADINA ETA EBBL, KOPURUAREN ARABERA.

ADINA	EBBL	INESIBOA	J. GENITIB	ABLATIBOA	ADLATIBOA	DESTINA TIBOA	SOZIA TIBOA	MUGA-ADL	L.GENI TIB	INSTRUMENT.
2;02;14	1,56	2								
2;02;25	1,47	1								
2;03;12	1,36	1								
2;03;25	1,62	1	1							
2;04;15	2,10	2	4	2	1 (?)					
2;05;00	1,61	2	1							
2;05;12	2,30		5 (1)	1		1				

<sup>114</sup> Hurrengo atalean, preposizioetan ere hori bera ikusi ahal izango dugu.



2;05;26	1,83	1	2										
2;07;09	2,61	2	5				1 (?)						
2;07;30	3,27	4	9		3			1					
2;09;05	3,25	11	5		3		3						
2;09;22	3,95	5		5	1	2	3						
2;10;11	3,57	9	3	3	3	1	5						
2;10;22	3,11	1	2	3	3		1						
2;11;25	3,27	9	8	2	3	1	2						
3;00;17	2,98	2	11 (1)	2		4	5	1					
3;01;24	3,45	6 (1)	2 (2)	4	3		3			2			
3;02;14	3,19	4	4 (1)		2	2	4(1)					1	
3;03;07	3,75	6 (1)	10	1			1 (1)			5			
3;04;04	3,25	3	18 (1)	2	6	1	8			1			
3;05;09	4,25	3	1 (1)	3	5								
3;06;17	5,13	11	15 (1)	4	5	2	3	1					
		<b>86</b>	<b>106</b>	<b>32</b>	<b>38</b>	<b>14</b>	<b>39</b>	<b>3</b>	<b>8</b>	<b>1</b>			

(?) Zeinu hau, ekoizpenak formula gisara ikasitakoak direnean azaltzen da.

Parentesi artean azaltzen direnak, pluralak dira.

## 26.TAULA.-ADITZAREKIN KOMUNZTADURARIK EZ DUTEN KASUAK GAUZATZEN DIREN KATEGORIAK: KOPURUAK ETA PORTZENTAIK

KASUA	IZENA		I PROPIOA		ADBERBIOA		IZENORDAL		ERAKUSL.		ADJEKT.		ZENBATZ.	
	KANT	%	KANT	%	KANT	%	KANT	%	KANT	%	KANT	%	KANT	%
INESIBOA	54	63	10	12	15	17	-	-	-	-	2	2	4	5
J.GENITIB.	23	22	20	19	-	-	60	57	2	2	-	-	-	-
ABLATIB.	5	16	1	3	23	72	1	3	1	3	-	-	-	-
ADLATIB.	27	71	5	13	-	-	-	-	4	11	-	-	2	5
DESTIN.	-	-	1	7	1	7	12	86	-	-	-	-	-	-
SOZIAT.	17	44	3	8	-	-	2	5	12	31	1	3	2	5

M.ADLAT.	1	33	-	-	2	67	-	-	-	-	-	-	-	-
L.GENIT.	5	62	-	-	3	38	-	-	-	-	-	-	-	-
INSTRUM	1	100	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	133	41	40	12	44	13	75	23	19	6	3	1	8	2

## 9. 8. - GAZTELANIAZKO PREPOSIZIOEN JABEKUNTZA-BILAKABIDEA

Jadanik aztertutako euskarazko kasuekin, hau da, aditzarekin komunztadura gordetzen ez duten kasuekin erkatu ahal izateko, gaztelaniazko preposizioak aztertuko ditugu jarraian. Horrela bada, azterketari ekingo diogu preposizio bakoitzaren bilakabidea azalduz. Ondoren, laburpena eta emaitzen eztabaida adieraziko ditugu, ondorioez amaitzeko.

### A) Emaizak eta azterketa

Ikertzen ari garen haurrak ekoizten dituen preposizioen azterketa egiterakoan, esan beharra dago lehen hiru transkribapenetan azaltzen diren ekoizpen gehienak hitz bakarrekoak direla, nahiz eta bi hitzeko zein hiruko bakar batzuk ere ageri. Garai honetan hurrek erabiltzen dituzten hitzak bi motatakoak dira. Alde batetik "nini hitzak" izenez ezagutzen direnak eta bestetik onomatopeiak. Hortaz, egoera hau kontuan edukiz ez da harrizkoa preposiziorik ez aurkitzea. Hala eta guztiz ere bigarren transkribapenean "a" preposizioa ikusten dugu:

(1) a jugar o no ( 1;11;10)

Gure ustez preposizioa eta aditza infinitiboz osatutako ekoizpen hau dena batera ikasitako formula da, eta ez guke preposizio-jabekuntzaz hitz egingo. Gainera bi urte bete arte ez da beste preposiziorik aurkitzen haur honen ekoizpenetan, 1;11;29 adinari dagokion transkribapenean azaltzen den ekoizpen bat kenduz:

(2) aita, de ita (1;11;29)

"de" preposizioa ahoskatu arren, ez dakigu zertaz ari den hitz egiten.

### 9. 8. 1. - "PARA" Preposizioa

Aipatu ditugun bi ekoizpenak alde batera utziz, preposizio hau da gure haurrak, ondoren aztertuko dugun "de" preposizioarekin batera, lehen ekoizten duena 2;00;20 adinean. Arazoa ordea, ikusiko dugunez, hiru urte bitartean preposizio honen emankortasuna oso urria izatea da. Lehen agerpen honek helburua adierazten du:

(3) pa(ra) uri (jurgi) (2;00;20)

Ikusten denez, ez du preposizio osoa ahozkatzen, agian fonetika legeak direla medio.<sup>37</sup> Gainera helduen hizkuntzan ere, ohikoak dira horrelako erorketak. Bestalde, badirudi ekoizpen originala dela, hau da, ez dela ikasitako formula ezta imitazioa ere.

Hiru hilabete beranduago berragertzen da preposizio hau, oraingoan ere osorik ahoskatu gabe. Lehen azaldu zen uneko emaitza originala bazen ere, oraingoak imitazioa dela dirudi:

<sup>37</sup> Bokal arteko ezabaketari buruz, euskaraz gertatzen den moduan, gaztelaniaz ere erorketa ematen da.

(4) pa(ra) subi(r) (2;03;25)

Ekoizpen hau imitazioa bada ere, bi hilabete beranduago ekoiztutakoa formula dela iruditzen zaigu:

(5) palatras ( para atrás) (2;05;27)

Hurrengo ekoizpenean, galdera moduan ekoizten du preposizio hau:

(6) e(s)to, para qué? (2;07;14)

Hiru urte bitartean beste bi ekoizpen besterik ez ditugu aurkitu:

(7) para magalita (margarita) (2;09;22)

(8) eso para romper(r) a punta, para romper aqui el (2;11;21)

Horrela bada hiru urte arteko ekoizpena oso urria da. Preposizio honi dagokionez, hiru urte ondoren lortzen du emankortasuna gure haurrak, nahiz eta preposizio honen azalpena ez den oso ugaria. Partikula hau, orain arte helburu adierarekin azaldu da eta ekoizpenak oso sinpleak izan dira: preposizioaz eta beste osagai batez osaturik. Orain, ordea, ekoizpen zabalagoetan agertzen hasten da zenbaitetan, beti ere helburua izanik adiera ugariena preposizio honi dagokionez:

(9) e(s)to es para bajar coches (3;01;03)

(10) para come(r) 3;01;19

(11) un monte para pase (pasar) los coches (3;01;19)

(12) eso es para meter en la talad(r)o (3;01;24)

(13) para pasar los coches por aquí (3;02;14)

(14) para dormir (3;03;07)

(15) que para ver lo abro (3;05;09)

(16) y eso para abrir las cartas (3;05;23)

(17) es para andar

(18) éste para peinar (3;06;29)

Bestalde balio berri batean ere ikus daiteke preposizio hau, leku balioarekin, hain zuzen:

(19) y ahora para aaliba (arriba) 3;01;03

Denbora adieran ere ekoizten du haurrak preposizio hau, aukeratutako epea amaitu baino hilabete lehenago:

(20) pero éstos, para luego ( 3;05;23)

Preposizio honi dagokion azterketan, testuinguru batean preposizio falta da (21) eta beste batean soberan dago (22):

(21) (para) aita si (3;01;03)

(22) para así (3;01;19)

### 9. 8. 2. - "DE" Preposizioa

Jadanik aztertutako "para" preposizioarekin batera azaltzen da "de" preposizioa. Hiru aldiz azaltzen da preposizio hau genitibo nozioa adieraziz, hiruretan ekoizpena berdintsua bada ere, nahiz eta batzuetan aditzik gabeko emaitza izan eta bestetan aditz laguntzailearen hirugarren pertsona singularrarekin azaldu:

- (23) es de uri (Jurgi) (2;00;20)
- (24) de uri (Jurgi) (2;00;20)
- (25) es de udi (Jurgi) (2;00;20)

Emaitzak sortzen diren testuingurua aztertu ondoren, guztiz originalak direla esan daiteke.

Hurrengo hilabeteari dagokion transkribapenean, preposizio bakarra ageri da, "de" preposizioa hain zuzen, berriro ere nozio genitiboarekin eta aditzik gabeko emisio batean:

- (26) de piu (peru) (2;01;03)

Ekoizpen berdina berragertzen da bi aldiz ia lau hilabete beranduago:

- (27) de peru (2;05;12)
- (28) de pelu (peru) (2;05;27)

Preposizio hau, aurrekoa bezala, oso gutxitan azaltzen da lehen hamar hilabeteetan, eta ikusi dugunez, ekoizpen guztiak berdinak dira epe honetan, hau da, preposizioz eta izen propioz osatutakoak. Hemendik aurrera, hau da, 2;10;06 adinetik aurrera, transkribapen guztietan azalduko da preposizio hau.

Genitiboazko erlazioa adieraziz azaldu da orain arte, eta hemendik aurrera erlazio hau eta beste adiera batzuk ere erakusten ditu, hau da, lekua, instrumentua eta modua:

Lekua: (29) de aqui (2;10;06)

- (30) una goma de aquí , ya no anda (2;11;21)
- (31) de at(r)a(s) sólo (3;01;19)
- (32) el de aliba (arriba) (3;02;14)
- (33) hay más, éste es de aquí (3;05;09)

Instrumentua: (34) de tomate (tortilla) (2;10;24)

- (35) de chocola(te) (3;01;19)
- (36) yo tengo una pistola de agua y te voy a mojar (3;06;17)
- (37) un camión de butanco (butano) (3;01;03)

Modua: (38) xxx ( . eso se?) rompe del todo (2;10;24)

Genitiboa: (39) del ot(r)o olentz(ero) (3;01;19)

- (40) a la casa de Itziar (3;03;22)

(41) y ése, . de quien es? (3;06;29)

(42) no, éste es el de Laura (3;06;29)

Preposizio hau, denbora adieraziz ere azaltzen da lehenengoz:

(43) ahora otlabo ( otro árbol) de navidad (3;01;03)

Baina zalantza daukagu azken ekoizpen hau produkzio originala ote den, kontuan edukiz "árbol de navidad" esamolde egina dela eta agian haurrak horrela, bat eginik ikasi duela. Hortaz, ezingo dugu esan preposizio honetaz denbora adieraziz jabetu denik, alde batetik eredu bakarria daukagulako, eta bestetik zalantzazkoa delako.

Azkenik "de" preposizioa helburua adieraziz ekoizten du aztertzen ari garen haurrak, ondorengo adibideetan ikus daitekeenez:

(44) son de carrera (3;02;14)

(45) es un tubo de escape (3;03;07)

(46) si, pero el tuyo no es un coche de carrera (3;04;26)

Preposizio honekin doan izen bat pluralean azaltzen da, agian imitazio bat izanik. Testuingurua honako hau da: jostailuzko zaldi batzuekin ari dira jostatzen eta honela galdetzen dio hizketa-lagunak:

-Hizketa-lagunak: qué quieres, . de indios o de vaqueros?

Haurrak: (47) de vaqueros (3;04;26)

Testuinguru batean preposizio hau falta da, hizketa-lagunak egiten dion galderaren ondoren, ematen duen erantzunean ikus daitekeenez:

Hizketa-lagunak: el otro día, . dónde estuviste?, . en la casa de quién?

Haurrak: (48) a:tsi (de amatxi) (2;05;12)

Beste ekoizpen batean, preposizioa ekoiztu du behar ez den testuinguruan:

Hizketa-lagunaren galdera: ése, . de qué color es?

Haurrak: (49) de uli (oria- amarillo) (2;09;01)

Hurrengo ekoizpenean, testuingurua kontuan hartuz, artikulua beharko luke preposizioaren ordeaz:

Hizketa-lagunak: trae el otro, el que tiene ruedas

Haurrak: (50) . de (el) avión? (3;01;03) .

Azkenik, ondorengo ekoizpenean interferentzia baten aurrean gaudela dirudi, kontuan

izanik izen-sintagmaren osagaiak euskararen ordena erakusten dutela. Bestalde, euskarazko Inesibo kasua erabili arren (amatxi(re)n) "de" preposizioa ere erabili du eta bigarren "de" preposizioa "en" preposizioaren ordeztu:

(51) es que ahora están de amatxin de casa (en casa de amatxi) (3;01;03)

Ez-egokitasun hauek kontuan eduki arren, %91 ekoizpen ondo lortuta daude

### 9. 8. 3. - "A" Preposizioa

Preposizio hau nahiko goiztiarra da haur honen hizkuntzan, 2;02;26 adina duela ekoizten baitu lehenengoz, helburua eta lekua adieraziz:

(52) y a Itzi(ar) (2;02;26)

(53) al lau (lado) (2;02;26)

Azken ekoizpenean, "a" preposizioa eta artikulua bat eginik azaltzen dira, preposizio hau artikulua maskulinoaren aurretik doanean ematen den arauaren arabera.

Adin honetan preposizio honekin transkribapenean zehar behin eta berriro azaltzen diren ekoizpen gehienak formulak dira, gure ustez:

(54) a guaga (guardar) aquí (2;02;26)

(55) a momi (dormir) (2;02;26)

Azterketarekin jarraituz, 2;03;12 adinari dagokion corpusean ere "a" preposizioa aurkitu dugu. Aurreko hilabeteetan bezala, hemen ere, osorik ikasitako formulak dira gehienetan:

(56) a ve(r) (2;03;12)

Hurrengo bi hilabeteetan ere "a" preposizioa agertzen da ondorengo bi ekoizpenetan, infinitiboarekin bat eginik, helburua adieraziz:

(57) ahora a mete(r) esa (2;04;15)

(58) a subi(r) yo (2;05;12)

Hirugarren ekoizpena, berriz, jadanik gorago aipatutako formula bat dirudi:

(59) a ve xx (2;05;27)

Ikusi dugunez, orain arteko produkzioa oso urria da. Bestalde, orain arte helburua eta lekua adieraziz ekoizten du preposizio hau gure haurrak. Lekua adierazten duen ekoizpenean, adberbio soil batekin azaltzen da (53). Orain, ordea, beste zenbait egituratan azaltzen da lekua adierazten duen "a" preposizioa:

(60) a la (es)cuela (2;09;01)

(61) yo al baco (baño) (2;11;21)

- (62) . a dónde? (2;11;21)
- (63) tú no, y yo sí, y me voy a la blampa (rampa) por aquí (3;01;19)
- (64) si, voy al monte (3;02;14)
- (65) el verano no se puede allar ( . llevar?) a la ikastola (3;02;14)
- (66) le echabas al agua ( 3;02;14)
- (67) que ha ido a la policia (3;03;07)
- (68) se va a casa (3;03;22)
- (69) a la casa de itziar ( 3;03;22)
- (70) se cae al agua (3;05;09)
- (71) al pueblo (3;05;23)
- (72) yo me voy a la calle (3;06;17)
- (73) lo tiran al suelo (3;06;29)

Helburua adieraziz ere ekoizten du preposizio hau hemendik aurrera, batzuetan orain arte ekoiztu dituen baino egitura konplexuagotan. Ia ekoizpen guzti hauetan, preposizioa infinitibo batekin azaltzen da:

- (74) me voy a mete(r) aqui (2;10;06)
- (75) a dormir no (2;10;06)
- (76) a limpia(r) el coté (coche) 3;01;19
- (77) . va a veni(r) a juga(r) no? (3;03;07)
- (78) te van (vas) a marcha(r) (3;03;22)
- (79) se va a caer e(s)te (3;04;26)
- (80) te voy a romper una oreja (3;04;26)
- (81) yo voy a hacer un coche (3;05;09)
- (82) jugamos a esto? (3;05;09)
- (83) no, lo voy a guardar (3;05;23)
- (84) a poner ahora aquí (3;06;29)

Corpus honetan zehar preposizio honi dagokionez, modua da azaltzen den azken adiera:

- (85) si, al dominó (jugar) (3;02;14)
- (86) voy a ju(xx) (jugar) al balcón (balón) (3;05;23)

Preposizioaren beharra izan arren, gabe azaltzen diren bi ekoizpen ere aurkitu ditugu:

- (87) . uni na? = . a Unai no? (2;02;26)
- (88) ahora coger esa = ahora a coger ésa( 2;04;15)

Ondorengo ekoizpenetan preposizioa ondo dago baina, edo ez du kontrakziorik egin preposizioaren eta artikularen artean (89), hau egiteko gai dela erakutsi duen arren lehenago (53,71) edo artikulua ez du ekoiztu (90).

- (89) me voy a la coche ( 3;01;19)
- (90) si, a (al) ho(s)pital (3,04;26)

Horrela bada, preposizio beraren ekoizpenari dagozkion ez-egokitasunak, bi besterik ez dira izan corpus osoan zehar.



#### 9. 8. 4. -"CON" Preposizioa

Preposizio hau 2;05;27 adinaz ekoizten du haurrak lehendabizi. Bi ekoizpen azaltzen dira, hain zuzen, adin honetan adierazpen instrumentala (91) eta sozietatiboa (92) erakutsiz:

(91) ése ha(s) quinta: (pintado) tú con dembel ese ( . con el verde ese?) (2;05;27)

(92) . con tomeno? ( . tomate?) (2;05;27)

Ondorengo hiru hilabeteetan ez da azaltzen, baina gure haurrak preposizio hau berriro ekoizten duenean, emankorra dela esan genezake. Horrela, 2;09;01 adinean berragertzen da, hemen ere konpainia adieraziz:

(93) con Ano:a (Ainhoa) (2;09;01)

(94) con eso? (2;09;01)

Ikusi dugunez, orain arteko ekoizpen guztiak preposizioz eta beste osagai bakar batez osatutakoak dira, hau da, substantibo, izen propio edo erakusle bat. Hemendik aurrera, ordea, elementu gehiago azaltzen joango dira haurren ekoizpenetan:

(95) con e(l) Citroen (2;09;22)

(96) con (la) e(s)calela (2;10;06)

(97) con g(r)ande e(l) columpio (2;10;06)

(98) con e(s)to no (2;10;06)

(99) con un coche (2;10;24)

(100) con un cambio (2;10;24)

(101) con Namaso (Dámaso) y con Raquel (3;01;03)

(102) con una pixx (pistola) (3;01;19)

(103) asi no es, con la mano no (3;02;14)

(104) pue(s) yo con esto (3;03;07)

(105) pero ahora xx ha venido con él (3;03;07)

(106) si, con el sanchesqui nuevo (3;04;26)

(107) yo con la moto (3;04;26)

(108) hacemos con esto, con esto hay que hacer colores ( 3;05;23)

(109) con uno ya vale (3;05;23)

Ikus daitekeenez, lehen hiru adibideetan zenbait akats egin ditu haurrak, baina akats hauek ez dute zerikusirik preposizioarekin. Lehen ekoizpenean (95) artikulua ez du osorik ahozkatu eta hurrengoan (96) artikulua osoa falta da. Hirugarrenean (97), berriz, artikulua, substantibo eta adjektiboarekin batera ekoizten du preposizioa, baina elementuen ordena ez da ohikoa, adjektiboa substantiboaren aurretik doanez.

Orain arte azaldutako instrumental eta sozietatiboaz gain, modua adieraziz ere azaltzen da, behin bakarrik bada ere:

(110) no lo toques mi e(x)caba(dora), eque (es que) e(s)tá con la marcha (3;05;09)<sup>38</sup>

<sup>38</sup> Ekoizpen honetan zenbait erru ikus daiteke, baina ez dagozkio preposizioari eta beste puntu batean ikusi

Preposizio honekin doazen kategoria guztiak, beste preposizioekin bezala, singularrean ekoizten ditu haurrak. Zenbatzaile pluralarekin ere ekoiztu du preposizio hau, zenbatzailearen azken fonema ahoskatu ez badu ere:

(111) con do(s) no vale (3;05;23)

Ekoizpen bakar bat aurkitu dugu preposizio honen beharra izan arren, gabe azaltzen dena:

(112) (con) un tractor (2;05;12)

Beste ekoizpen batean, ez dakigu ziur preposizio hau falta den ala "en" preposizioa, biak egokiak direlako testuingurua kontuan harturik:

(113) con/en a: (el) patrol (2;05;12)

Beste ekoizpen batean preposizio hau soberan dago:

(114) con aquí uno pa- (2;10;06)

### 9. 8. 5. - "POR" Preposizioa

Aztertzen ari garen corpusean preposizio hau lehen aldiz agertzen denean, imitazioa bat dela dirudi. Gainera ez du preposizio osoa ahoskatzen, azken fonema falta baita:

(115) ama, po(r) dios (2;05;12)

Hilabete honetako bigarren transkribapenean, berriz, originalak diren hiru ekoizpen azaltzen dira "por" preposizioarekin, hirurak adberbio bati loturik, lekuzko adierazpenetan:

(116) por allí (2;05;27)

(117) par (por) alliba (arriba) (2;05;27)

(118) se ha quido (caido) por allí ( 2;05;27)

Horrela bada, preposizio honen jabekuntza, aurrerago aztertutako "con" preposizioa bezala, 2;05;27 adinean kokatuko dugu, gorago ikusi ahal izan dugun bezala lehen ekoizpena (115) formula gisa ikasitakoa denez. Orain arteko ekoizpenetan azaldu den "por" preposizioak, lekua adierazten du eta kasu guztietan adberbio soil batekin azaldu da. Mota honetako ekoizpenetara mugatzen da ondorengo hilabeteetan:

(119) por aquí ( 2;07;14)

(120) no cabe el t(r)a(c)to(r) po(r) aqui (2;09;01)

(121) por aqui onitatela (unibertsitatera) (2;09;22)

(122) pol ( po)r aquí, por la rampa (2;09;22)

---

ditugu: izenordain pertsonalen atalean, hain zuzen.

Azken ekoizpenaren hasieran orain arteko eskema berdina erabiltzen badu ere, hau da, preposizioaz eta adberbioz osatutako ekoizpena, jarraian artikulua eta substantiboa azaltzen den ekoizpen batean ageri da preposizioa lehen aldiz.

Baina preposizio hau adberbio bati loturik ekoizten jarraituko du haurrak beste hiru hilabetetan, hau da, preposizio hau ez da beste elementu batekin azalduko, nahiz eta ekoizpenak gero eta aberatsagoak izan:

- (123) y se mete por aquí (3;01;03)
- (124) pero por (por) aquí se cae, . lo ves? (3;01;03)
- (125) no cabe, sólo por aquí (3;01;03)
- (126) un camión, por ahí no cabe (3;01;03)
- (127) y por aquí se mete un señor (3;01;19)

Hemendik aurrera "por" preposizioa bai substantiboarekin, bai adberbioarekin azalduko da gure haurren corpusean:

- (128) por el tunel este (3;01;19)
- (129) pon (por) donde ha talido (. salido?) la luz (3;01;24)
- (130) por el agua, por el aire (3;02;14)
- (131) sólo por el aire(3;02,14)
- (132) por debajo no (3;02;14)
- (133) . se ha ido por el agua? (3;02;14)
- (134) por aquí viene el tren (tren), . ves? (3;03;22)
- (135) si, por la via (3;03;22)
- (136) hay que agarrar por aquí (3;04;26)
- (137) el coche va por la carretera (3;04;26)
- (138) ahora a ver si se mete por aquí(3;05;23)
- (139) por aquí . hay camino? (3;06;17)
- (140) por la escalera (3;06;17)
- (141) por la ventana (3;06;29)

Preposizio honekin azaltzen diren ekoizpen guztiek, lekua adierazten dute.

Bi ekoizpen aurkitu ditugu ondo eratu gabe, bata (142) preposizioa soberan dagoelako, eta bestea (143) falta delako:

- (142) y se lleva así, por así (2;11;21)
- (143) si, (por) aquí se sube (3;01;19)

### 9. 8. 6. - "EN" Preposizioa

Preposizio honen lehen azalpena nahiko berandu ematen da gure haurraren. Azaltzen den hilabetean, ekoizpen bakarra aurkitu dugu preposizio honekin eta lekua adierazten du:

(144) en la pitina (piscina) (2;07;14)

Ekoizpen honen ondoren dagoen beste batean ordea, preposizio beraren beharra egon arren ez da azaltzen:

(145) otá (está) a calle (2;07;14)

Hurrengo preposizioa hilabete eta erdi beranduago ekoizten du. Hemendik aurrera preposizio hau erabiliz ekoizten dituen esaldiak, lekua adierazteaz gain, instrumentua ere adierazten dute, lehenengoak askoz ugariagoak badira ere:

Lekua:

(146) hauek en mi t(r)a(c)to(r) (2;09;01)

(147) en el x (. agua?) (2;10;06)

(148) aquí no sé, aquí e(s)ta moja(d)o y en la calle (2;10;24)

(149) aquella en la plaza (2;10;24)

(150) están en el otro cua(r)to (3;01;03)

(151) se monta en el camión ese y logo (luego) se baja y logo se va (3;01;19)

(152) y ahora se monta en un puente y en el camión (3;01;19)

(153) en el g(r)ande cabo (quepo) (3;02;14)

(154) en el azul?(3;02;14)

(155) y due(r)me en la ambulancia (3;03;07)

(156) este está (es)condido en un árbol (3;03;22)

(157) mañana tu estarás en tu casa (3;04;26)

(158) en la calle (3;05;09)

(159) en la pata no vale (3;05;23)

(160) en la grande (piscina) (3;06;17)

(161) en la chiquitina no me dejan sitio (3;06;17)

Instrumentua:

(162) en el torbus ( autobus) (2;09;01)

(163) en el Sioten (Citroen) (2;09;01)

(164) ese en dotobús (autobús) (ese viene en autobús) (2;09;22)

(165) en éste me voy yo (abioneta batean) (3;02;14)

Preposizio hau, 3;02;14 adina duela ekoizten du haurrak denborazko adieran lehenengo aldiz. Bi emaitza ditugu hilabete honi dagokion transkribapenean, bata galdera egiten duenean, eta bestea ezeztapen batean, nahiz eta biak aditzik gabeko ekoizpenak izan. Haur honen corpusean ez dugu beste ekoizpenik aurkitu denbora adieraziz preposizio honekin:

(166) . en verano, éste es un verano? (mostrando una pieza del puzzle) (3;02;14)

(167) en verano . no! (3;02;14)

Haurrak, preposizio hau askotan " . dónde?" galderaren aurrean jartzen du. Kontuan hartu behar da helduok ere askotan horrela esaten dugula. Ez du ordea beti horrela esaten, lekua

adierazten duen adberbio honekin galdera egiten duen askotan preposiziorik gabe azaltzen baita:

- (168) . dónde está la ambulancia? (3;02;14)
- (169) el osito, . dónde está? (3;03;22)
- (170) . dónde ha compra(d)o é(s)to? (3;06;17)

Galdera ez den ekoizpen batean ere, lekua adierazi nahi duenean, adberbio hau erabiltzen du preposizioarekin, baina segidan preposiziorik gabe errepikatzen du. Badirudi konturatu egin dela, eta zuzendu egin nahi duela:

- (171) en donde, donde xx, mirá, en esa tienda de xx (3;06;17)

### 9.8.7.- "HASTA, SIN" Preposizioak

Azkenik 3;03;07 adinean bi preposizio berri ekoiztuko ditu aztertzen ari garen haurrak, "hasta" eta "sin" preposizioak eta hauek izango dira aukeratu dugun corpusean azaltzen diren azken preposizioak. Bi ekoizpen aurkitu ditugu adin honetan "hasta" preposizioa dutela. Lehenengoa zalantzazkoa izan daiteke, kontuan izanik haurra mikrofono bidez hitz egiten ari zaiola hizketa-lagunari, eta formula gisara ikasitako agur bat izan daitekeela:

- (172) poe (pues) hasta ahora? (3;03;07)

Baina transkribapen berean eta egoera berdinarean aurrean, beste ekoizpen bat aurkitu dugu. Badirudi ekoizpen honek argitzen duela preposizio hau ez dela formula edo imitazioa, ekoizpen emankor baten aurrean gaudela baizik. Bi kasuetan, denbora adierazten du preposizioak:

- (173) vale, hasta las ocho (3;03;07)

Bi hilabete beranduago, lekua adieraziz ekoizten du preposizio bera:

- (174) y suben hasta ahí (3;05;09)

Guztira hiru ekoizpen besterik ez ditugu aurkitu corpus osoan zehar preposizio honi dagokionez. Egia esan, oso adibide gutxi ditugu, baina lehen ekoizpena zalantzazkoa izan badaiteke ere, beste biak guztiz originalak dira, batak denbora eta besteak lekua adieraziz.

Bigarren preposizioari dagokionez, "sin" preposizioari hain zuzen, guztiz originala den ekoizpen baten aurrean gaude, nahiz eta ez duen lortu aditza ondo eratzea. Adiera instrumentala erakusten du preposizio honek:

- (175) ahora sin pistola te he mue(r)to (3;03;07)

Aipatu dugunez, aditza ez dago ondo eratua, baina transkribapen honen beste momentu batzuetan aditz hau ondo erabiltzen du:

- (176) pium,pium,pium (sonidos onomatopéyicos) te he matau (matado) (3;03;07)

- (177) ahora a mi me matas (3;03;07)  
 (178) mira cómo se ha mue(r)to (3;03;07)

Hilabete bereko hurrengo transkribapenean ere, preposizio bera azaltzen da eta, azkena izango da. Preposizioarekin doan izena pluralean azaltzen da:

- (179) sin guesos (huesos) y con gueso (las aceitunas) (3;03;22)

Arestian "hasta" preposizioari dagokionez esan duguna esan behar dugu berriro: oso emankortasun urria erakusten duela "sin" preposizioak ere. Baina ez batean, ez bestean ez dugu ez-egokitasunik aurkitu eta ekoizpen gehienak originalak dira.

## B) Laburpena

Preposizioen bilakabidea aztertu ondoren, laburpen orokor bat egingo dugu ikuspegi zabalagoa edukitzeko.

Haur honen corpuseko lehen preposizioak, osorik ikasitako ekoizpenetan azaltzen dira gure ustez, preposizio beraren kontzientziarik eduki gabe. Preposizio originalak azaltzen hasten direnean, emankortasuna oso urria da, eta hauekin batera, aipatu ditugun formulak ere ekoizten ditu. Lehen preposizioak, haurrak bi urte bete eta berehala ekoizten ditu, 2;00;20 adinaz hain zuzen. Bi preposizio ekoizten ditu adin honetan, "para" eta "de" preposizioak. Bi hilabete beranduago "a" preposizioa azaltzen da eta hiru hilabete beranduago beste bi preposizio "con" eta "por". Hiru urte bete aurretik beste preposizio bat besterik ez du ekoizten haurrak: "en" preposizioa, hain zuzen. Hiru urte bete ondoren, berriz, 3;03;07 adinaz, aukeratu dugun corpusean azaltzen dira azken bi preposizioak, "hasta" eta "sin". Ondorengo taulan ikusiko ditugu argitasun handiagoarekin datu hauek:

### PREPOSIZIOEN LEHEN AGERPENA ADINA ETA EBBL-REN ARABERA

PREPOSIZIOA	ADINA	EBBL
PARA	2;00;20	1,47
DE	2;00;20	1,47
A	2;02;26	1,44
CON	2;05;27	2,10
POR	2;05;27	2,10
EN	2;07;14	2,67
HASTA	3;03;07	4,26
SIN	3;03;07	4,26

Ikus daitekeenez, gure azterketa mugatzen den corpusean, hau da, 1;11;00 adinetik, 3;06;29 adina arte, aztertu dugun haurrak zortzi preposizio ekoiztu ditu. Hiru urterako, gainera,

hautako sei preposizio ekoiztu ditu jadanik: arruntenak, hain zuzen.

Dakigunez bestalde, preposizioak polisemikoak dira, hau da, esanahi ezberdina eduki dezakete testuinguruaren arabera, leku-denborazko erlazio espazialak, helburua, instrumentua, konpainia etab. adieraziz. Hauek dira gure azterketan azaldu diren preposizioek erakutsi dituzten adiera ezberdinak:

PARA: - Helburua: 2;00;20  
- Lekua: 3;01;03  
- Denbora: 3;05;23

DE: - Genitiboa: 2;00;20  
- Lekua: 2;10;06  
- Instrumentala: 2;10;24  
- Modua: 2;10;24  
- Helburua: 3;02;14

A: - Helburua: 2;02;26  
- Lekua : 2;02;26  
- Modua: 3;02;14

CON: - Instrumentala: 2;05;27  
- Konpainia edo Soziatiboa: 2;05;27  
- Modua: 3;05;09

POR: - Lekua : 2;05;27

EN: - Lekua: 2;07;14  
- Instrumentala: 2;09;01  
- Denbora: 3;02;14

HASTA:  
- Denbora: 3;03;07  
- Lekua: 3;05;09

SIN: - Instrumentala: 3;03;07

Preposizio bakoitzak erakutsi dituen adierazpenak banan-banan ikusi ondoren, adiera hauen lehen azalpena adinaren arabera horrela gertatu da:

- Helburua: 2;00 ;20  
- Genitiboa : 2;00;20  
- Lekua :2;02;26  
- Instrumentala: 2;05;27  
- Konpainia edo Soziatiboa: 2;05;27  
- Modua: 2;10;24  
- Denbora: 3;02;14

Ekoiztu dituen preposizioen emankortasuna asko aldatzen da batzuetatik besteetara. Horrela, gehien ekoizten dituen preposizioak, "a" (%25) eta "por" (%22) dira. Hauen atzetik "con" (%15), "de" (%14), "en" (%13) eta "para" (%9ko azalpenarekin) (27. taula). Azkenik, "hasta" eta "sin" preposizioak, eta hauek bakoitzaren azalpena %1era ere ez da iristen.

Gure haurraren corpusean azaldu diren preposizioekin doazen hitz gehienak, lau izan ezik, singularrean doaz. Hortaz, preposizioekin ekoiztutako pluralen portzentaia %1a da, denak hiru urte bete ondoren ekoiztutakoak.

Azkenik, preposizioei dagokien corpusean aurkitu ditugun ez-egokitasunei buruz ikusi duguna adieraziko dugu. Esan beharra dago, preposizioen azalpena urria izan bada ere zenbaitetan, oso gutxitan azaldu direla testuinguruak eskatzen duen preposiziorik gabeko ekoizpenak. Horrela, preposiziorik gabe ekoiztutako ekoizpenak, testuinguruak eskatu arren, zortzi besterik ez dira, hau da, %2,5a. Beste lau ekoizpen aurkitu ditugu preposizioen batekin, honen beharrik gabe, eta hauek %1a osatzen dute. Hauez gain aurkitu ditugunek ez dute preposizioekin beraiekin zerikusirik; izen-sintagmaren barruan gertatzen diren beste arazoekin baizik (generoa, artikulua etab)<sup>39</sup>

#### D) Emaizten eztabaida

Preposizioen jabeakuntza aztertua izan den beste lanekin erkatuko dugu orain gure haurraren jabeakuntza. Hauek dira aztertutako lanen artean erkaketa egiteko interesgarrienak iruditu zaizkigunak:

P. Larrañagak (1994) kasuaren bilakabidea aztertu du euskaraz eta gaztelera haur batengan. Gaztelera azterketa 2;06;11 adina artekoa (EBBL 3,08) izan da eta berak aztertu duen haurrak lau preposizio ikasi ditu: "con, a, para, en". Adin horretarako, hau da, 2;05;27 adinerako (EBBL 2,10), gure haurrak bost preposizio ekoiztu ditu: "con, a, para, de, por". Ikusten denez, azterketa hauek bi hurrek, EBBL ezberdina dute adin berean, eta gure haurrak EBBL txikiagoarekin, Larrañagaren haurrak baino preposizio gehiago ikasi ditu. Bestalde, gure haurrak "en" preposizioa 2;07;14 adinaz ekoiztu du lehen aldiz, EBBL 2,67 denean, hau ere Larrañagaren haurrak preposizio hau ekoiztu duenean baino EBBL txikiagoarekin.

G.Aguadok (1988) gaztelera jabeakuntzan bi urte eta erdiko haurrengan garapen morfosintaktikoa nolakoa den aztertu zuen, 24 hurrekin egindako zehar-ikerketa batean. Preposizioei dagokienez, adin honetarako hurrek jabetuak dituztela dio "en, con, a, de, por, sin, hasta" preposizioak. Preposizio hauek eta "para" dira, hain zuzen, gure haurrak ikasi dituenak 3;03;07 adina bitartean, Aguadok aztertutako haurrak baino 8 hilabete beranduago.

Puerto Ricoko gaztelera aztertu zuen Gili Gayak (1974) lau urteko eta eskola garaiko haurrengan. Lau urteko haurrengan guztiz finkatuak azaltzen diren preposizioak "a, con, de, en, para, por" dira. Oso gutxitan azaltzen direnak, berriz "entre, hasta, sin" preposizioak eta "contra, desde, hacia, sobre" eskola aurreko adin hauek agertzen ez direnak omen dira. Geratzen diren beste preposizioak, hau da, "ante, bajo, tras, etab." erabilera kulto edo literarioa dutela, eta ez direla azaltzen haur hizkuntzan dio ikerketa honen egileak. Gure emaitzak ere gauza bera

<sup>39</sup> Hauek jadanik aztertu ditugu beste atal batean.



adierazten dute, "entre" preposizioa salbu, gure haurrak ez baitu aztertutako adina bitartean preposizio hau ekoizten.

Hiru haurren gaztelerazko preposizioak aztertu zituen M. Peronardek (1985), lehen preposizioaren agerpenetik lau urte arte. Aldi berean, gorago aipatu dugun Gili Gayaren azterketako emaitzekin erkatu zituen bere emaitzak. Datu batzuk berdinak diren bitartean, beste batzuk ez datoz bat. Horrela, "a, con, de, desde, en, entre, hasta, para, por, sin, sobre" preposizioak aurkitu zituen hiru haurren datuetan. Hauetatik "a, con, de, en, hasta, para, por, sin" preposizioak dira hiru haurrengan aurkitutakoak, hain zuzen gure ikerketan aurkitu ditugun preposizio berak, eta, aldi berean, Gili Gayaren haurretan aurkitutakoak. Hortaz, honeraino adostasuna osoa dago Gili Gayarekin eta gurekin. Preposizio hauez gain, ordea, bere ikerketako haur bakoitzak beste biek erabiltzen ez duten preposizio bana erabiltzen du. Batak "sobre", bigarrenak "entre" eta hirugarrenak "desde". Ezberdinatasuna, hortaz, hemen legoke: haur bakoitzak preposizio ezberdin bat gehiago ezagutzean. Azaltzen ez diren preposizioei dagokionez, bere emaitzak eta Gili Gayarenak berdinak dira, hau da, "ante, bajo, contra, hacia, según, tras" preposizioak. Lehen aipatu dugunez, hau bera ikusi ahal izan dugu gure ikerketan zehar. Bestalde, berak dioenez, "a, en, de, con, para, por" preposizioak dira lehen ikasten direnak, guk aztertutako haurrengan gertatzen den moduan.

Espainolaren jabekuntza ama hizkuntza eran aztertu zuen F.H. Pinak (1984). Bertan, preposizioen jabekuntza ere aztertzen da. Horrela, hiru urte bitarteko epean, hauek dira berak aztertutako haurrengan aurkitu zituen preposizioak: "a, en, de, para, por, con, hasta, desde". Gure datuak hiru urte eta erdi bitartekoak dira, baina emaitzak ia berdinak, kontuan hartuz Pinaren azterketan azaltzen den "desde" preposizioa falta dela, baina bertan ez dela ageri gurean azaltzen den "sin" preposizioa. Bestalde, gorago aipatu dugunez, kasu honetan ere "a, en, de, para, por, con" preposizioak dira lehen agertzen direnak, nahiz eta ordena ez izan kasu guztietan berdina.

Preposizio hauengan leku eta denbora adierazpenak nola ematen diren azaltzen saiatuko gara. Arazo hau aztertzen duten lan gehienetan puntu bat azpimarratzen da bereziki: erlazio lokatibo eta espazialak denbora adierazten duten erlazioak baino goiztiarragoak direla.

Gure azterketan, leku eta denbora adieran azaltzen diren preposizioak, "para, en, hasta" dira. Bi lehenengoetan leku adiera da lehen ekoizten dena, baina hirugarrenean, hau da, "hasta" preposizioan, denbora adiera da lehen agertzen dena. Aztertzen ari garen haurrengan jabekuntza-bilakabidea orokortasunez hartuz ordea, leku adiera ia urtebete lehenago azaltzen da denbora baino. Beraz, lekua adierazten duen lehen preposizioa 2;02;26 adinaz ekoizten du haurrak, eta denbora adierazten duena berriz, azterketaren azken aldean azaltzen da, 3;02;14 adinean. Bestalde, emankortasunaren aldetik, leku adiera denbora adiera baino askoz ugariagoa da.

Berriro ere gorago aipatutako P.Larrañagaren (1994) ikerketan azaltzen duenez, jabetutako preposizioen bidez honako nozioak erabiltzen ditu berak aztertutako haurrak 2;06;11 adina eta EBBL 3,08koa denean: Instrumental, Destinatibo eta Lokatiboeko nozio semantikoak, hain zuzen. Genitiboari dagokionez, zalantzan jartzen du honen jabekuntza. Bestalde, lan honen egileak harridura adierazten du Sozietiboa agertzen ez delako. Gure haurrak 2,05,27 adina duenean berriz, hiru nozio hauez gain, jabetuak ditu Genitiboa eta Sozietiboa ere. Leku-denborazko erlazioei buruzko konparaketa ezin dugu egin, adin honetan oraindik ez baitute denboraren adierazpenik ekoiztu preposizioen bidez, ez batak ez bestek.

S. Klingek (1989) preposizioak aztertu zituen hiru haur elebidunetan (alemaniera - frantsesa) eta bere azterketaren ondorio gisa, lehen agertzen diren erlazioak, hiru haurretan, lokatiboak direla ikusi zuen. Denborazko erlazioari dagokionez, gutxi azaltzen direla, eta gainera ikerketaren azken aldian. Beste zenbait preposizio ere aztertu zituen: Instrumentala, Benefaktiboa (Destinatiboa) eta Komitatiboa (Soziatiboa). Hauek, lehen preposizio espaziala azaldu ondoren ikasten omen ditu haurrak bere datuen arabera. Erlazio hauen azalpena EBBL 2,6 - 3,4 tartean dagoenean ematen dela dio aipatutako autoreak. Gure haurraren emaitzetara itzuliz, erlazio hauek bere EBBL 2,10ekoa denerako azaltzen dira. Bestalde, gure emaitzetan lehenengo ikusten den erlazioa lokatiboa ez bada ere, lekua eta denbora adierazten duten erlazioei buruzko emaitzak berdinak dira haien arteko lehenetasunari dagokionez.

Sailkapen semantikoaren arabera, Lokatibo, Norabidezko, Komitatibo, Datibo, Benefaktibo, Instrumental eta Genitibo erlazioak izan zituen kontuan M. Tomasellok (1987) haur batek ingeleseko preposizioak nola erabiltzen dituen aztertzen den lan batean. Behatutako haurra goiztiarra izan zen hizkuntzaren jabeakuntzan. Erabilera goiztiar hau bereizketa espazialari dagozkion lau oposaketa hauetan kokatu zen: "up - down, on - off, in - out, over - under". Beste preposizio batzuk ere ( with, by, to, for, at, of) ikertuak izan ziren. Haurtako gehienak oposaketa espazialaren ondoren ikasi ziren. Ondorio hau bat dator preposizio espazialak beste preposizioekin konparatu diren ikerketetan azaltzen diren ondorioekin, hau da, preposizio hauek direla lehenetarikoak. Gure haurrerengan, lekua adierazten duten preposizioak azaldu aurretik, helburuari eta genitiboari buruzko adierazpenak azaldu diren arren, lekua da lehenetarikoa.

M. Weistek (1991) hainbat adinetako (2;06:00 - 4;06:00 - 6;06:00) hamabi haur aztertu ondoren, hizkuntzako sistema espaziala, denborazkoa baino azkarrago lortzen dela ikusi zuen, hau da, denborazko sistema, sistema espazialek eratortzen dela, hain zuzen.<sup>40</sup>

Bestalde, leku-adierazpenak soilik aztertzen dituzten hainbat ikerketa ikusi ahal izan ditugu, beraien arteko ezberdintasunak, lehenetasunak etab. ikusiz, hizkuntz jabeakuntzaren lehen arotan ikasten diren erlazio hauek, interes berezia sortzen dutelako dirudienez<sup>41</sup>

Horrela bada, ikusi ahal izan dugu lekua adierazten duten preposizio eta erlazioak direla lehenetarikoak hizkuntz jabeakuntza-bilakabidean, eta behatutako kasu guztietan beranduago azaltzen direla denbora adierazten duten preposizio edo erlazioak.

### 9. 8. 8. - Preposizioei dagozkion ondorioak

Gure datuen arabera, preposizioak aztertu ondoren lortu ditugun emaitzen argitan,

---

<sup>40</sup> Baieztapen hau, ikusten ari garen egileak dioenez, bat dator Clark (1973)/ Trangotten (1978) hipotesiekin.

<sup>41</sup> Hauen artean hauek azpimarra daitezke: J.R. Johnston /D.I.Slobin-ek (1979) 48 haur ingeles, italiar, serbo-kroaziar eta turkoekin egindako azterketa; E. Dromik (1979) hebraiera hitz egiten duten 30 haurrengan egindako lekuzko preposizioen analisia, E.L. Bavinek (1990) warlpiria hizkuntza hitz egiten duten 27 haurrek nola jabetzen dituzten lekuzko terminoak, etab.

ondorio hauetara iritsi gara:

1.- Gaztelaniak dituen preposizioetatik, gure azterketarako aukeratutako epe barruan, hau da, 1;11;00 adinetik - 3;06;29 adina arte, aztertutako haurrak zortzi preposizio ekoiztu ditu: "a, de, para, por, con, en, hasta, sin"

2.- Preposizio hauek, bi urte bete eta berehala hasi da ekoizten gure haurra. Hauek dira ekoiztu dituen preposizioen lehen ekoizpenak, adina eta EBBLren arabera:

- PARA, DE: 2;00;20 (1,47)
- A: 2;02;26 (1,44)
- CON, POR: 2;05;27 (2,10)
- EN: 2;07;14 (2,67)
- HASTA, SIN: 3;03;07 (4,26)

3.- Preposizio hauen emankortasuna asko aldatzen da batzuetatik besteetara. Horrela, gehien azaltzen den preposizioaren artean --"a"--, eta gutxien azaltzen denaren artean --"sin"-- kokatzen dira, jarraian ikus daitekeenez:

- A (%25)
- POR (%22)
- CON (%15)
- DE (%14)
- EN (%13)
- PARA (%9)
- HASTA (%1)
- SIN (%1)

4.- Aztertutako haurrak ekoiztu dituen preposizioek, honako adierazpen ezberdinak erakutsi dituzte: Helburua, Genitiboa, Lekua, Instrumentala, Konpainia, Modua eta Denbora.

5.- Adiera hauen artean, leku/denbora adierak kontuan hartuz, lekua lehenetarikoa den bitartean, 2;02;26 adinean azalduz, denbora da azkena, 3;02;14 adinean ekoizten baitu lehen aldiz.

6.- Corpusean zehar preposizioekin azaldu diren hitz gehienak singularrean doaz, eta azaldutako pluralak (%1), hiru urtetik aurrera ekoiztutakoak dira.

7.- Preposizio batzuen azalpena urria izan bada ere, testuinguruaren arabera preposizioen baten beharra izan eta gabe azaltzen diren ekoizpenak %2,5 besterik ez dira. Hau da, testuinguruak preposizioen bat eskatzen duen ia guztietan, haurra gai da dagokion preposizioa ekoizteko.

8.- Beste ikerketetako emaitzak eta ondorioak gurekin erkatu ondoren, ondorio hauetara iritsi gara:

a) Haur gehienek aurrena ikasten dituzten preposizioak hauek dira: "a, en, de, para, por, con". Beste preposizioen artean, "entre, hasta, sin" beranduago azaltzen dira haurren hizkuntzan.

b) Adostasun handia nabari da haurrak ekoizten ez dituen preposizioei dagokienez, hau da, "contra, desde, hacia, sobre" preposizioak ez dira azaltzen lau urte bitarteko haurrengan. Geratzen diren preposizioak, hau da, "ante, bajo, tras", erabilera kultoan azaltzen direnez, haurrek ez dituzte erabiltzen.

d) Lekua adierazten duten preposizioak eta erlazioak dira lehenetarikoak hizkuntz jabekuntza-bilakabidean, eta behatutako kasu gehienetan, beranduago azaltzen dira denbora adierazten dutenak.

## 9.8.9.- TAULA

### 27.- TAULA: PREPOSIZIOEN AZALPENA, ADIN, EBBL ETA KOPURUAREN ARABERA

ADINA	EBBL	A	DE	PARA	POR	CON	EN	HASTA	SIN
-------	------	---	----	------	-----	-----	----	-------	-----

1;11;10	1,24	1(?)							
1;11;29	1,22	-	1(?)						
2;00;20	1,47	-	3	1					
2;01;03	1,48	-	1						
2;02;14	1,65	-	-	-					
2;02;26	1,44	2 +3(?)							
2;03;12	2,02	1(?)							
2;03;25	1,98	-	-	1(?)					
2;04;15	2,46	1							
2;05;12	1,77	1	1	-	1(?)				
2;05;27	2,10	1(?)	1	1(?)	3	2			
2;07;14	2,67	1	-	1	1	-	1		
2;07;30	1,97	-	-	-	1				
2;09;01	2,38	2	-	-	3	2	4		
2;09;22	2,98	-	-	1	8	1	1		
2;10;06	2,83	5	3	-	2	7	1		
2;10;24	2,93	-	4	-	-	3	3		
2;11;21	3,13	3	1	2	1	1			
3;01;03	3,50	1	3	2	7	5	1		
3;01;19	3,76	3	3	5	6	1	6		
3;01;24	4,11	-	3	1	2	-	1		
3;02;14	4,42	7	4	2	13	6	5		
3;03;07	4,26	6	2	3	-	2	1	1(?) + 1 + (1)	1
3;03;22	4,81	3	1	1	5	2	1	-	1 (1)
3;04;26	3,51	6	3 (1)	1	2	5	3		
3;05;09	4,77	7	5	2	3	1	3	1	
3;05;23	4,50	9	1	5 (1)	5	7	4		
3;06;17	4,73	13	2	-	4	2	6		
3;06;29	5,22	4	3	1	2	-	1		
<b>GUZTIRA</b>		<b>80</b>	<b>45</b>	<b>30</b>	<b>69</b>	<b>47</b>	<b>42</b>	<b>3</b>	<b>2</b>
<b>PORTZENTAIA</b>		<b>% 25</b>	<b>% 14</b>	<b>% 9</b>	<b>% 22</b>	<b>% 15</b>	<b>% 13</b>	<b>% 1</b>	<b>% 1</b>

(?) zeinu hau, ekoizpena formula gisa ikasitakoa edo zalantzakoa denean azaltzen da.

(1) Parentesi artean azaltzen direnak, pluralak dira

## 10.- ADITZ JOKATUAREN JABEKUNTZA-BILAKABIDEA

Bigarren hipotesia frogatu ahal izateko, aditz jokatuaren jabekuntza-bilakabidearen azterketa egitera goaz. Izan ere, hipotesi honen arabera, aditz jokatua azaldu ondoren hasiko baitira agertzen aditzarekin komunztadura duten kasuak eta izenordeak.

Aztertzen ari garen haurrengan, euskaraz eta gaztelaniaz aditzaren jabekuntza-bilakabidea nola ematen den ikusiko dugu. Kontuan izanik azterketa hauek bigarren hipotesiari erantzuteko direla, batez ere pertsona-komunztadurara mugatuko ditugu, aspektua, denbora etab. --azterketaren momentu zehatz batzuetan aipatzen baditugu ere-- alde batera utziz. Bestalde, aditzari dagokion azterketa, hiru urte bitartera mugatuko dugu, nahiz eta beranduagoko aipamen batzuk ere adierazi.

### 10. 1. - ADITZ JOKATUAREN JABEKUNTZA-BILAKABIDEA EUSKARAZ.

A) Emaizak eta azterketa

*Subjektuarekiko komunztadura*

Aztertzen ari garen haurren hasierako korpusean ez dugu aurkitzen aditz jokaturik. Haur-hizkuntzan sarritan ageri diren holofraseak edo onomatopeiak ekoizten ditu:

- (1) papo (1;11;00)
- (2) pipa = plis-plas = listo (1;11;00)
- (3) ez, hemen panba (2;01;03)

Aditz lexema ugari ere ageri dira epe honen barruan, gehienetan agintera zentzua dutela:

- (4) utzi (1;11;00)
- (5) beitu uriuri, attu (beitu Jurgi, hartu) (1;11;00)
- (6) apu(r)tu pupila (kurpila) (2;02;14)

Haur-hizkuntzako forma eta aditz lexemekin batera, aditz trinko batzuk ekoizten hasten da haurra, beti ere orainaldiko singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak:

- (7) hau da Ana(1;11;29)
- (8) Amaia da (2;02;14)
- (9) habe (hemen) da (2;02;25)
- (10) non da(g)o (2;03;12)
- (11) hau da tutua (2;03;25)
- (12) hemen dato (dago) p(r)oblema (2;04;15)

Aditz trinkoen ondoren hasten dira azaltzen aditz laguntzaileak; aurreko aditz trinkoetan bezala, orainaldiko singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak hauek ere. Aditz jokatu hauek argumentu bakarreko (nor) zein biargumentudunak (nor-nork) dira:

- (13) ha(u)ndia ingo da (2;03;25)
- (14) bota lu (du) (2;04;15)
- (15) joan da etxe(r)a (2;04;15)

Esan dugunez, ordea, aditz hauek orainaldiko hirugarren pertsona singularrari dagozkionak dira, eta kontuan izanik, alde batetik, aditz hauek euskaraz marka berezirik erakusten ez dutela, eta bestetik ez dela beste pertsonarik azaltzen<sup>42</sup>, ezin dugu ziurtatu aditz hauek hirugarren pertsonarekiko komunztadura dutenik, aditz-lexema hutsak lirateke hortaz<sup>43</sup>.

Hurrengo transkribapenean, lehen pertsonari dagokion komunztadura ekoizten du lehen aldiz, aditz laguntzaile eta iragankor batean:

- (16) hori nik ingot (egingo dut) (2;05;12)

Horrela bada, hemendik aurrera ziurta daiteke, gure datuen arabera, Subjektu Ergatiboarekiko komunztadura egiteko gai dela aztertzen ari garen haurra, aditz iragankorretako lehen eta hirugarren pertsonen arteko oposaketa azaldu ondoren.

Aditz iragangaitzetan, lehen eta hirugarren pertsonen arteko oposaketa, ia lau hilabete beranduago ikusten da:

- (17) fo(r)mal egoten naiz kotxean (2;09;05)

Adin honetan ziurta daiteke, hortaz, Subjektu Absolutiboarekiko komunztadura haur honengan. Honek ez du esan nahi, ordea, orain arte haurrak ekoiztutako aditzetan, Subjektuarekiko komunztadurik ez dela azaldu. Izan ere, gure datuek orain arte aipatutako oposaketaren berri eman ez badute ere, honek ez du esan nahi aztertutako haurra gai ez denik hori egiteko. Puntu honetan, gure datuen mugak aipatu beharko lirateke, kontuan izanik hamabostean behin lortutakoak direla. Hemendik aurrerako ekoizpenetan ikus daitezke singularreko hiru pertsoneri dagozkien pertsona-komunztadurak, aditz iragankor eta iragangaitzetan, trinko zein laguntzaileetan:

### *Lehen pertsona*

Bi aditz motetan subjektu singularrarekiko komunztadura azaldu ondoren (16,17), behar den guztietan azaltzen ez bada ere, beste zenbaitetan ondo erabiltzen du haurrak, aditz trinko zein laguntzaileetan, hasieran aditz iragankorretan:

- (18) jan dut (2;05;26)
- (19) ni(k) kakikia (santxeskia) ha(r)tuko dut (2;07;09)
- (20) t(r)ena egingo lut (dut) (2;07;30)

---

<sup>42</sup> Meisel-ek (1992) zenbait baldintza jartzen du jabekuntzaren hasieran gramatika-pertsonen komunztadura ematen dela baieztatu aurretik: emankortasunez erabiltzea eta pertsona ezberdinei dagozkien markak erabiltzea, besteak beste.

<sup>43</sup> Ezeizabarrenak (1994) hori bera uste du eta "flexioaren azaleratzea" bezala aurkezten du.

- (21) ni(k) xxx daukat (2;09;05)
- (22) eman dut (2;09;05)
- (23) ni(k) balakit (2;10;11)

eta beranduago aditz iragangaitzetan:

- (24) ni(k)<sup>44</sup> oso oso handia naiz (2;09;22)
- (25) ni nago bakalik (bakarrik) (2;10;22)

### *Hirugarren pertsona*

Hirugarren pertsonarekiko komunztadura, erabiltzen duen lehena izateaz gain, haurrak gehien erabiltzen duena da:

- (26) hori estauka (ez dauka) haundia (2;05;12)
- (27) hau doa (2;05;12)
- (28) etsunai (ez du nahi) amak (2;05;26)
- (29) ama(k) hemen da(u)ka (2;07;09)
- (30) hemen bizi da oiloa (2;07;30)
- (31) hemen dago belar(r)a jaten (2;07;30)
- (32) jemen ipintzen du kamiona (2;09;05)
- (33) nun dago nile (nire) pilota? (2;09;05)
- (34) balaki (badaki) jon(ek) egiten hau (2;10;11)

### *Bigarren pertsona*

Gutxitan bada ere, bigarren pertsonarekiko komunztadura 2;09;05 adinarekin ekoizten hasten da haurra:

- (35) ikusi behar duzu (2;09;05)
- (36) zuk e(z) dakizu (2;09;05)
- (37) oso oso ha(u)ndia zala (zara) (2;09;22)
- (38) nora zoaz (2;10;22)
- (39) bestela kenduko zara (2;10;22)

Orain arte ikusi dugunez, Subjektuarekiko pertsona-komunztadura erakusten duten aditzak, singularreko hiru pertsonetan azaldu dira. Lehena eta ugariena hirugarren pertsonari dagokiona, ondoren lehen pertsona azaldu da eta azkenik, oso azalpen urrian bigarren pertsonari dagokiona.

### *Subjektuarekiko komunztadura plurala*

Subjektuarekiko komunztadura plurala, beste ataletako azterketetan ikusi dugun moduan,

---

<sup>44</sup> Mota honetako ez-egokitasunak jadanik aztertu ditugu dagokien atalean.



beranduago azaltzen da eta oso urria da gainera. Lehen komunztadura pluralak ere hirugarren pertsonari dagozkionak dira, eta aditz trinko eta laguntzaileetan gauzatzen dira:

- (40) hau(ek) baloaz (badoaz) zabazean (zabaltzen/ea) atea (2;09;22)
- (41) eta hemen dagoz<sup>45</sup> zauazen (zabaltzen) atea (2;09;22)
- (42) hemen sa(r)tzen di(r)a txorisuak (2;11;25)
- (43) pre(s)tatu dute (3;00;17)

Lehen pertsona pluralari dagokion komunztadura beranduago azaltzen da, hemen ere aditz trinko zein laguntzaileetan:

- (44) bagoaz (2;10;11)
- (45) apurtuko dugu pegatina? (2,10,11)
- (46) gu joango gara (2,10;11)
- (47) epini (ipini) behar dugu altuago (2;10;22)
- (48) etxean lakau (daukagu) (2;11;25)
- (49) goango (joango) gara etxe(r)a? (2;11;25)
- (50) no(r)a goaz (3;00;17)
- (51) sabaluko (sabalduko) gugu (dugu) (3;00;17)

Aditz inergatibo<sup>46</sup> gutxi erabiltzen ditu aztertutako haurrak. Bi ekoizpen aurkitu ditugu korpus osoan zehar aditz mota honekin, biak bigarren pertsona pluralari dagozkionak, hain zuzen:

- (52) jola(s)tuko gugu (dugu) laketakin? (raketarekin) (2;10;11)
- (53) klomoak (kromoekin?) jola(s)tuko dugu? (2;10;11)

Ikus daitekeenez, pluralean ere aditz iragankor eta iragangaitzak azaltzen dira. Bestalde, bigarren pertsona pluralari dagokion komunztadurarik ez dugu aurkitu, hirugarren pertsona besterik ez baitu ekoiztu.

### *Iragana*

Subjektuarekiko komunztadurari dagokion azterketa amaitzeko, iraganean azaldu diren aditzen azalpena egingo dugu. Lehen aditza 2;09;22 adinaz ekoizten du haurrak, komunztadura plurala ekoizten duen adin berean, eta hirugarren pertsona singularrari dagokiona da:

- (54) hori nor zen? (2;09;22)
- (55) holi (hori) nilea (nirea) xen (zen) (3;00;17)

Ondoren lehen pertsona singularrari dagokiona azaltzen da:

- (56) atzo ikusi nuen (2;10;11)

---

<sup>45</sup> Aztertzen ari garen haurrari bizkaierako eraginik ia nabari ez ba zaio ere, hemen bizkaierako forma darabil.

<sup>46</sup> Aditz hauek Objektu zuzenik ez daramate, iragangaitzak dira, baina Subjektu Ergatiboa dute.

(57) apu(r)tu nu(e)n ala(r)ma (2;10;22)

*Objektu zuzenarekiko komunztadura*

Objektu zuzenarekiko pertsona-komunztaduraren jabekuntza kokatzerakoan, bigarren pertsonari dagokion testuinguru batean ez da gauza izan beharrezko aditz forma erabiltzen, eta biargumentudun (Nor-Nork) aditza erabili beharrean, hiruargumentuduna (Nor-nori-nork) erabili du:

(58) iku(s)ten dizut (zaitut) (2;09;22)

Hirugarren pertsonarekiko komunztadura egiteko gai da haurra:

(59) ikusi dugu aita telebitan (2;10;11)

Hiru urte bete aurretik, ordea, ez dugu aurkitu lehen eta bigarren pertsonari dagozkien aditz formarik. Horrela, lehen kontrastea, hau da, plurala ekoizten duenean esan dezakegu Objektu zuzenarekiko komunztadura egiten duela haurrak. Bi ekoizpen besterik ez dugu aurkitu corpus osoan zehar, hauetako lehena 2;10;11 adinean eta bigarrena azterketaren azkenaldian:

(60) naittuzu (nahi dituzu) kromoak? (2,10;11)

(61) hemen jarriko ditugu piezak (3;05;09)<sup>47</sup>

Beste zenbait ekoizpenetan ordea, Objektu zuzenarekiko komunztadura plurala ez du ondo lortzen gure haurrak:

(62) eta hemen eramaten d(it)u oiloak (2;09;22)

(63) eta hemen dau(z)ka harriak lotutak (2;10;11)

(64) Xabierrek ekali (ekarri) z(it)uen ardiak (2;11;25)

(65) ez da(uz)kat botak (3;01;24)

(66) nik ekali (ekarri) d(it)ut bonboiak (3;01;24)

Gure ustez, ordea, pluralarekiko komunztadura da aditzean azaltzen ez dena, eta honek ez du zerikusirik Objektu zuzenarekiko komunztadurarekin.

Bigarren pertsonari dagokion Objektuareriko komunztadura, hiru urte bete ondoren ekoizten du haurrak:

(67) txakurra, jango zaitut (3;02;14)

Hortaz, lehen Objektu zuzenarekiko komunztadura plurala azaltzen denetik aurrera ziurta daiteke honen komunztadura aditzean islatzen dela, baina gorago aipatu dugunez, honek ez du esan nahi orain arte haurra ez dela gai izan Objektu zuzenarekiko komunztadura singularra ekoizteko. Gure ustez, 2;05;12 adinetik aurrera, hau da, lehen Objektu zuzenaren jabekuntza kokatu dugun momentutik (ikus 9.1.2 atala), hitz egin daiteke honen komunztaduraz aditzean,

---

<sup>47</sup> Azterketa hiru urte bitartekoa bada ere, atal honetan ekoizpen gutxi daudenez, geroagoko ekoizpenak erabili ditugu hemen.

nahiz gure datuen arabera ezin dugu hori ziurtatu.

### *Zehar objektuarekiko komunztadura*

Hauek dira hiru urte bitarteko Zehar objektuarekiko komunztadura erakusten duten aditzak. Lehena hiruargumentuduna den bitartean, azken biak biargumentudunak dira. Lehena 2;05;12 adinaz ekoizten du gure haurrak:

(68) nik eman behar diot (2;05;12)

(69) ez, niri ez zait gustatzen (2;10;22)

(70) gu(s)tatzen zaizu? (3;00;17)

(71) pletatu (prestatu) dizut zure laranja-ula (ura)(3;00;17)

Gorago aipatu dugunez, Nor-nork biargumentudun aditza ekoiztu beharrean (zaitut), honen ordez Zehar objektuarekiko komunztadura adierazten duena ekoizten du:

(72) ikusten dizut (2;09;22)

Bestalde, hiru urte bitartean, ez du gehienetan Zehar objektuarekiko komunztadurarik lortzen. Hiru urtetik aurrera, ordea, alderantziz gertatzen da, eta gehiago dira komunztadura erakusten duten ekoizpenak. Korpus osoa oro har hartuta ere, gehiago dira Zehar objektuarekiko komunztadura aditzean dutenak, % 57 hain zuzen.

### B) Laburpena

Aditzean pertsona-komunztaduraren jabeakuntza-bilakabidea aztertu ondoren, orain arte esandakoa laburtzen saiatuko gara. Lehen azaltzen den komunztadura, orainaldiko hirugarren pertsona singularrari dagokiona da, aditz trinkoetan eta beranduago, aditz laguntzaileetan. Gorago esan dugunez, ordea, hau ez da nahikoa Subjektuarekiko komunztadura aditzean islatua dagoela ziurtatzeko. Horrela, 2;05;12 adinean azaltzen da lehen aldiz lehen pertsonarekiko komunztadura aditz iragankorretan. Adin honetan ziurta genezake, hortaz, Subjektu Ergatiboarekiko komunztadura adierazten duela haurrak aditzean. Aditz iragangaitzetan, ordea, kontrastea beranduago lortzen da, lehen pertsonarekiko komunztadura 2;09;05 adinean azaltzen baita. Hemendik aurrera, bada, Subjektu Absolutiboarekiko komunztaduraz hitz egin daiteke. Gorago aipatu ditugun arrazoiak kontuan izanik, ordea, honek ez du esan nahi haurrak lehenago komunztadura egiten ez duenik. Bigarren pertsonarekiko komunztadura ere azaldu da, 2;09;05 adinean.

Subjektuarekiko komunztadura pluralari dagokionez, hemen ere lehena hirugarren pertsonari dagokiona azaltzen da, 2;09;22 adinean hain zuzen, eta ondoren, lehen pertsonari dagokiona. Ez dugu aurkitu bigarren pertsona pluralari dagokion komunztadurarik.

Azkenik, Subjektuarekiko komunztadura iraganean ere azaltzen da, komunztadura plurala azaldu den adin berean, hau da, 2;09;22 adinean, lehenik hirugarren pertsona singularraren komunztadura adieraziz eta ondoren, lehen pertsonarekiko.

Zehar objektuarekiko komunztadura duen aditza 2;05;12 adinaz azaltzen da lehen aldiz,

corpus osoa kontutan harturik, komunztadura mota hau; %57tan ondo lortzen du haurrak.

Objektu zuzenarekiko komunztadura, berriz, beste biak baino beranduago ekoizten du haurrak lehen aldiz, 2;10;11 adinean<sup>48</sup>, Objektu zuzenarekiko komunztadura plurala azaltzen denean. Momentu honetan kontrastea lortu da, lehen eta bigarren pertsona singularrei dagozkien formak ez baitira azaltzen hiru urte bitartean. Hemen koka daiteke, hortaz, Objektu zuzenarekiko pertsona komunztadura. Lehen adierazi dugun moduan, berriro ere esan beharra dugu, ordea, honek ez duela esan nahi lehenago ez denik agertu, eta konkretuki gure haurrari dagokionez, lehenago singularreko komunztadura azaldu dela uste dugu. Aldi berean, haurra aditz jokatu hauek ekoizteko gai dela ikusi badugu ere, honek ez du esan nahi behin ekoiztu ondoren beti ondo erabiliko dituenik, zenbaitetan aditz forma ez-egokiak ere ekoizten baititu. Hau da, haurra gai da forma berriak erabiltzeko, baina oraindik ez daude guztiz finkatuta bere hizkuntzan, eta bilakabide baten barruan kokatu behar ditugu lorpen hauek. Arazo hau guztiz ohikoa da hizkuntz jabekuntzaren alor guztietan.

### **10.1.1.- EUSKARAZKO ADITZ JOKATUARI DAGOZKION ONDORIOAK**

Aditz jokatuaren jabekuntza-bilakabidea, pertsona-komunztadurari dagokionez aztertu

---

<sup>48</sup> Ezeizabarrenak aztertutako haur batek, ordea, lehenago erabiltzen du Objektu zuzenarekiko komunztadura.

eta gero, ondorio hauetara iritsi gara:

1.- Singularreko hirugarren gramatika-pertsonari dagozkion aditzak dira haurrak lehen erabiltzen dituenak, aditz iragankor zein irangaitzetan:

(73) bota **lu** (du) (2;04;15)

(74) joan **da** etxe(ra) (2;04;15)

2.- *Subjektuarekiko komunztadura.*

a) Subjektuarekiko komunztadura da lehen agertzen dena.

b) Euskarak dituen bi Subjektuen artean, lehen azaltzen den komunztadura, Subjektu Ergatiboari dagokiona da. Horrela, aditz iragankorretako lehen pertsonari dagokion komunztadura azaldu ondoren ziuarta daiteke Subjektu Ergatiboarekiko komunztadura. Hori 2;05;12 adinean gertatzen da:

(75) hori nik **ingot** (egingo dut)

d) Ondoren Subjektu Absolutiboari dagokion komunztadura azaltzen da, aditz irangaitzetako lehen pertsonari dagokion komunztadura azaltzen denean, 2;09;05 adinean:

(76) ni **nago** bakalik (bakarrik)

e) Hirugarren eta lehen pertsonen arteko oposaketa azaltzen denean, Subjektuarekiko komunztadura ziuarta badaiteke ere, honek ez du esan nahi haurrak lehenago gauzatzen ez duenik:

(77) hemen **dago** p(r)oblema (2;04;15)

f) 2;05;12 adinetik aurrera, hortaz, singularreko lehen eta hirugarren pertsonetikiko komunztadurak gauzatzen dira gure haurrak ekoiztutako aditzetan.

g) Bigarren pertsona singularrekiko komunztadura beranduago azaltzen da, 2;09;05 adinean:

(78) zuk e(z) **dakizu**

h) Ondoren, 2;09;22 adinean hain zuzen, Subjektuarekiko komunztadura plurala azaltzen da, lehendabizi hirugarren pertsonari dagokiona eta ondoren, lehen pertsonari dagokiona:

(79) eta hemen **dagoz** (2;09;22)

(80) **bagoaz** (2;10;11)

i) Subjektuarekiko komunztadura aditz trinko eta laguntzaileetan, irangaitz zein iragankorretan azaltzen da.

3.- *Zehar-objektuarekiko komunztadura.*

a) Subjektuarekiko komunztadura azaltzen den adin berean, hau da, 2;05;12 adinean, azaltzen da Zehar-objektuarekiko komunztadura:

(81) nik eman behar **dizut**

b) Aditz singularrak bakarrik ekoizten ditu komunztadura hau erabiliaz.

4.- *Objektu zuzenarekiko komunztadura.*

a) Objektu zuzenarekiko komunztadura plurala, 2;10;11 adinean azaltzen da gure haurraren:

(82) **naittuzu** kromoak?

Plurala azaldu ondoren ziurta daiteke komunztadura azaltzen dela aditzean, hiru urte bete arte lehen eta bigarren pertsonen dagozkien formak ekoizten ez dituzenez.

b) Gure ustez, ordea, Objektuarekiko komunztadura lehenago azaltzen da, aztertzen ari garen haurraren, lehen Objektu zuzenaren azalpena kokatu dugun adinean, hain zuzen: 2;05;12 adinean:

(83) **hori** nik **ingot** (egingo dut)

Izan ere, Objektu zuzenarekiko komunztadura, hau pluralean azaltzean ziurta badaiteke ere, lehenago erabiltzen ez duenik ezin da esan.

5.- Iraganeko aditzak, 2;09;22 adinetik aurrera hasten dira azaltzen guk aztertutako haurraren:

(84) hori nor **zen**?

6.- Aztertu ditugun ikerketetan azaldu diren emaitzekin gure emaitzak erkatuz, hau ikusi ahal izan dugu:

a) Bat datozela ikerketak (H.Pina, 1984/Meisel, 1992/Barreña, 1994d) gure ikerketako emaitzek adierazten dutenarekin, hau da, singularreko hirugarren pertsonari dagozkion aditzak direla haurrek lehen erabiltzen dituztenak.

b) Objektu zuzena eta Zehar objektuarekiko komunztaduraren lehentasunari dagokionez, gure datuak bat datoz Barreñak (1994d) ikusi zuenarekin, hau da, lehenago azaltzen da Zehar osagarriarekiko komunztadura, Objektu zuzenari dagokiona baino. Ezeizabarrenak (1995) ordea, beste emaitzak lortu zituen, aztertutako haur batengan lehenago azaltzen baita Objektu zuzenarekiko komunztadura, Zehar objektuarekikoa baino.

## 10. 1. 2. - TAULAK

### 28.- TAULA: ADITZ JOKATU TRINKOEN LEHEN AGERPENAK HIRU URTE BITARTEAN

ADINA	JAKIN			IZAN			EGON			EDUKI			JOAN		
	1p	2p	3p	1p	2p	3p	1p	2p	3p	1p	2p	3p	1p	2p	3p
1;11;29						X									
2;03;12									X						
2;05;12											X				X
2;09;05		X								X					
2;09;22				X	X	L			xx						xx
2;10;11	X		X										xx		
2;10;22							X							X	
2;11;25										xx					

X = Orainaldi singularra

xx = Orainaldi plurala

L = Lehenaldi singularra

**29.-TAULA: ADITZ JOKATU LAGUNTZAILEEN LEHEN AGERPENA HIRU URTE BITARTEAN**

ADINA	NOR			N-NORK	N-NORI-NORK	NOR-NORI
	1p	2p	3p			
2;03;25			da			
2;04;15				du		
2;05;12				dut	diot	
2;09;05	naiz			duzu		
2;10;11	gara			dugu dituzu nuen		
2;10;22		zara				zait
2;11;25			dira			
3;00;17				dute	dizut	zaizu

**10. 2. - ADITZ JOKATUAREN JABEKUNTZA-BILAKABIDEA GAZTELANIAZ.**

A) Emaitzak eta azterketa

Euskarazko azterketan ikusi ahal izan dugunez, gaztelaniari dagokion hasierako corpusean ere ez dugu aurkitzen aditz jokaturik. Onomatopeiak edo haur-hizkuntzan ohikoak diren esamoldeak ekoizten ditu haurrak:

- (85) tata (salto) (1;11;00)
- (86) punba (1;11;10)
- (87) aqui no, aqui alolo, lolo (1;11;29)
- (88) . lolos no? (2;01;03)

Infinitiboak eta agintera adiera duten aditz lexema ugari ere ekoizten ditu azterketaren hasieran:

- (89) a jugar o no (1;11;10)
- (90) mila (mira) aqui (1;11;29)
- (91) quira uri (jurgi) (2;00;20)
- (92) mi(r)a guaguau (2;01;03)
- (93) mi(r)a un tutu (2;02;14)

Ugariak dira osorik ikasitako edo imitazioz ekoiztutako esalmodeak ere. Hauek, aditz kopulatiboaren singularreko hirugarren pertsonari dagozkionak dira:

- (94) e(s) mia/o (1;11;29)
- (95) ya (es)tá (2;00;20)
- (96) este e(s) un tutu (2;00;20) Errepikapena
- (97) . dónde (es)tá ? (2;02;26)

### *Lehen pertsona*

Aditz lexema eta, formula hauekin batera, indikatiboko lehen adizki jokatuak ekoizten hasten da. Euskaraz ez bezala --gogoratu euskaraz hirugarren pertsonarekiko komunztadura dela lehen-- , hemen orainaldiko lehen pertsona singularrarekiko komunztadura da lehen agertzen dena. Hau, aditz iragankor batean gertatzen da:

- (98) no quiero xxx aqui ja! (1;11;29)

Ekoizpen honetako aditza, ordea, badirudi osorik ikasitakoa dela, kontuan izanik bakarra dela eta ikusiko dugunez, antzeko ezaugarriak dituen ondorengo aditza beranduago ekoizten duela. Bitartean, zalantzazkoa den aditza ekoizten du:

- (99) yo (quiero edo quiere) juga(r) (2;02;14)

Hilabete honetako bigarren transkribapenean azaltzen diren aditz iragankorrek, lehen pertsonarekiko komunztadura erakusten dute. Ekoizpen hauek garbiak dira, dudarik gabekoak:

- (100) hago asi (2;02;26)
- (101) xx pongo aqui ot(r)o (2;03;25)



Lehen pertsonarekiko komunztadura adizki iragangaitzetan, beranduago azaltzen da:

(102) no saco (salto) (2;05;12)

### *Hirugarren pertsona*

Pertsona honi dagokion lehen aditza, imitazio bat da:

(103) no cague (cabe) (2;02;26) Imitazioa

Hirugarren pertsona singularrekiko lehen komunztadura, lehen pertsonarekikoa azaldu eta hamabost egunera hasten da ekoizten haurra. Lehen aditz iragankor batean eta ondoren aditz iragangaitzetan gertatzen da, eta 104, 107 ekoizpenetan, aditz konposatuak azaltzen dira:

(104) ha pasa(d)o (2;03;12)

(105) asi baja esto (2;03;25)

(106) anda aqui (2;04;15)

(107) se ha salido el x (2;04;15)

(108) si t(i)ene (2;04;15)

### *Bigarren pertsona*

Bigarren pertsona singularrekiko komunztadura, Subjuntiboko aditz iragankor batean azaltzen da lehenik, lehen pertsonarekikoa baino hilabete beranduago:

(109) no chaques (bajes) es(o) (2;03;25)

Ikusi dugunez, aurrena azaltzen den pertsona-komunztadura lehen pertsonari dagokio, 2;02;26 adinean (100). Lehen kontrastea, hirugarren pertsonari dagokion komunztaduran aurkitu dugu, aditz iragankor konposatu batean 2;03;12 adinean (104).

Hemendik aurrera, singularreko hiru pertsonetikiko komunztadura erakusten dute gure haurraren ekoizpenek:

(110) no queda (2;05;27)

(111) si pinta (2;05;27)

(112) no pones be (bien) (2;05;27)

(113) tiene chicle (2;07;14)

(114) no, no quiere Amaya chicle (2;07;14)

(115) donde ha etau (estado) (2;07;14)

(116) quién ves tú (2;07;30)

(117) va Peru (2;07;30)

(118) ya no sabes (2;09;01)

(119) no se pone ojo (rojo) (2;09;01)

(120) no ent(r)a en tra(c)to(r) (2;09;01)

(121) se ha roto (2;09;01)

- (122) no he hecho (2;09;01)
- (123) te doy (2;09;22)
- (124) no te hago nada (2;09;22)
- (125) . no me dejas? (2;09;22)
- (126) casi me caigo (2;09;22)
- (127) me voy a mete(r) aqui (2;10;06)
- (128) no (me) vi(s)tes (2,10;24)

Bestalde, "pretérito imperfecto"ko lehen pertsona singularrekiko komunztadura ere azaltzen da behin:

- (129) yo ya pintaba (2;10;06)

### *Komunztadura plurala*

Pluralarekiko komunztadura ere azaltzen da aztertzen ari garen hurrak ekoizten dituen adizkietan, aditz iragankor zein iragangaitzetan, hasieran --singularrean gertatu den bezala-- lehen pertsonarekiko komunztadura adieraziz:

- (130) . pintamos? (2;05;27)
- (131) le timamos (tiramós) (2;05;27)
- (132) aqui pintamos u(n) tutu (2;05;27)
- (133) . subimos? (2;05;27)
- (134) . hacemos eso? (2;10;06)

eta beranduago, hirugarren pertsonarekikoa azaltzen da:

- (135) andan moscas (2;07;14)<sup>49</sup>
- (136) lo quitan los señores (2;10;24)
- (137) a mi m(e) asu(s)tan (3;01;03)

Ez dugu aurkitu bigarren pertsonari dagokion komunztadura pluralik.

### *Subjuntiboa*

Bigarren pertsonarekiko komunztadura, Subjuntiboan lehen aldiz 2;03;25 adinean azaldu dela adierazi dugu (109). Beste hiru ekoizpen aurkitu ditugu Subjuntiboan:

- (138) no (me) pegues (2;05;12)
- (139) lo que quieras (2;10;06)
- (140) no digas ..... (3;01;03)

### *Aditz kopulatiboak*

Adizki kopulatiboei dagokienez, hasierako formula eta imitazioaz gain, hirugarren

---

<sup>49</sup> Aditz honetan euskararen eragin garbia ikusten da.

pertsona singularri dagokion komunztadura da hasieran azaltzen den bakarra:

- (141) e(s)te e(s) Pe(r)u (2;00;20)
- (142) esa e(s) aaja (naranja) (2;02;14)
- (143) eso es grande (2;02;26)
- (144) mi(r)a e(s)to e(s) (2,03;12)
- (145) ese e(s) pequeño (2;04;15)
- (146) Piu (Peru) e(s) feo (2;05;12)
- (147) ésa qué fea es (2;07;14)

Ondoren azaltzen den pertsona-komunztadura, bigarren pertsona singularrari dagokiona da, eta bi aditzetan "ser, estar" azaltzen da:

- (148) eres un pollito (2;09;22)
- (149) . qué estás haciendo? (3;01;03)

Azkenik, "estar" aditzaren lehen-pertsona singularrarekiko komunztadura ekoizten du haurrak, eta hau ere ekoizpen bakarra da:

- (150) porque estoy enfadada contigo (2;10;24)

Bestalde, hirugarren pertsonari dagokion pluralarekiko komunztadura ere behin azaltzen da:

- (151) están en el otro cua(r)to (3;01;03)

"Preterito imperfecto" aditzari dagokion hirugarren pertsona singularrarekiko komunztadura ere ekoizten du haurrak. Baina "estar" aditza erabili beharrean, "ser" aditza erabili behar zuen, testuingurua kontuan izanik:

- (152) aqui estaba (habia) uno (3;01;03)

## B) Laburpena

Aztertzen ari garen haurrengan lehen agertzen den Subjektuarekiko<sup>50</sup> pertsona-komunztadura, (aditz kopulatiboetako hirugarren pertsona singularrarekiko komunztadura izan ezik) adizki iragankor bateko lehen pertsona singularrari dagokiona da, 2;02;26 adinean. Ikusi ahal izan dugunez, euskaraz ez da hau gertatzen, hizkuntza honetan lehen komunztadura singularreko hirugarren pertsonari dagokiona baita. Badirudi haur honentzat gaztelaniazko komunztadura ez-markatua lehen pertsonari dagokiona dela.

Lehen pertsonarekiko komunztadura azaldu eta, hamabost egun beranduago, hau da, 2;03;12 adinean, azaltzen da hirugarren pertsonarekiko komunztadura adizki konposatu batean eta azkenik bigarren pertsona singularrarekiko komunztadura subjuntiboetako adizki batean 2;03;25 adinean. Eraitza hauek erakusten dutenez, Subjektuarekiko komunztadura 2;03;12 adinean kokatu beharko genuke, adin horretan haurrak bi pertsona-marka ezberdinak kontrajarrita erabiltzen baititu. Euskarazko azterketan esan duguna aipatu beharko genuke berriro, hau da, gure datuen arabera aipatu adinarte komunztadura ikusi ez badugu ere, honek ez duela esan nahi haurrak egiten ez duenik.

Komunztadura pluralari dagokionez, 2;05;27 adinean ekoizten du haurrak lehen aldiz, singularrean gertatu den bezala, lehen pertsonarekiko komunztadura eta ondoren, hirugarren pertsonari dagokiona.

Adizki kopulatiboei dagokienez, hirugarren pertsonarekiko komunztadura izan da lehen azaldu dena, 2;02;20 adinean, eta ondoren bigarren (2;09;22) eta lehen (2;10;24) pertsonari dagokiona. Pluralean hirugarren pertsonari dagokiona besterik ez du ekoiztu haurrak, hiru urte bete ondoren.

### **10. 2. 1. - Gaztelaniazko aditz jokatuari dagozkion ondorioak**

---

<sup>50</sup> Gaztelaniaz, funtzioei dagokienez, aditzean Subjektuarekiko komunztadura besterik ez da azaltzen.

Gaztelaniazko aditz jokatueta pertsonarekiko komunztaduraren jabekuntza-bilakabidea aztertu ondoren, Subjektuaren komunztadurari dagokionez, ondorengo emaitzetara iritsi gara:

1.- Hasiera batean, aditz kopulatiboko hirugarren pertsona singularrari dagozkion aditzak erabiltzen ditu haurrak, hauetako asko errepikapenak edo formula gisara ikasitakoak direlarik:

(153) e(s)te e(s) Pe(r)u (2;00;20)

2.- Kopulatibo ez diren aditzen artean, singularreko lehen gramatika-pertsonari dagozkion aditzak dira haurrak lehen erabiltzen dituenak, 2;02;26 adinean:

(154) hago asi

Emaitza hau ez dator bat euskaraz lortutakoarekin, euskarazko emaitzek erakusten dutenez, lehen komunztadura hirugarren pertsona singularrari dagokiona baita. Badirudi, hortaz, gaztelaniazko komunztadura ez-markatua lehen pertsonari dagokiona dela haur honentzat.

3.- Bigarren azaltzen den pertsona-komunztadura, hirugarren pertsona singularrari dagokiona da, 2;03;12 adinean. Hau "pretérito perfecto" aditz konposatu batean gertatzen da.

(155) ha pasa(d)o

4.- Haurra gai denean bi pertsona ezberdinen komunztadura aditzean adierazteko, Subjektuarekiko komunztaduraz hitz egin daiteke. Gure haurraren, 2;03;12 adinean gertatzen da hori. Hemendik aurrera, hortaz, ziurta dezakegu Subjektuarekiko komunztadura azaldu dela.

5.- Bigarren pertsona singularrari dagokion komunztadura, 2;03;25 adinaz azaltzen da gure haurraren, Subjuntibozko aditz batean:

(156) no bajas esto

6.- Pluralekiko komunztadura bi hilabete beranduago azaltzen da, 2;05;27 adinean, eta, singularrean bezala, hemen ere lehen pertsonari dagokiona da:

(157) . pintamos?

Ia bi hilabete beranduago ekoiztuko du haurrak hirugarren pertsonari dagokiona:

(158) andan moscas

Ez du ordea ekoizten bigarren pertsona pluralarekiko komunztadurarik.

7.- Aditz kopulatiboetan, hasieran aipatutako hirugarren pertsona singularrekiko komunztaduraz gain, singularreko beste bi pertsonari dagokien komunztadura azaltzen da:

(159) eres un pollito (2;09;22)

(160) porque estoy enfadada contigo (2;10;24)

eta pluraleko hirugarrenari dagokiona ere bai:

(161) están en el otro cuarto (3;01;03)

Azalpena ordea, nahiko berandu gertatzen da, hiru urte inguruan.

8.- Aztertu ditugun beste ikerketetan ez bezalako emaitzak lortu ditugu haur honengan. Izan ere, aztertu ditugun lan gehienak (Meisel,1992 / Barreña,1994d/ H.Pina, 1984) bat datoz hurrek lehen erabiltzen dituzten aditzak, hau da, ez markatuak, hirugarren pertsona singularrari dagozkionak direla aipatzerakoan. Haur berari dagozkion euskarazko gure emaitzak ere bat datoz baieztapen honekin. Gaztelaniazko emaitzek erakusten dutenez, ordea, haurrak lehen erabiltzen duen aditza --aditz kopulatiboetako hirugarren pertsona singularrari dagokiona salbu-- lehen pertsona singularrari dagokiona da. Gainera, lehen pertsonaren lehentasuna, singularrean zein pluralean gertatzen da.

## 10. 2. 2. - TAULA

**30.-TAULA: ADITZEN LEHEN AGERPENA 3;01;03 ADINA ARTEAN**

ADINA	A.IRAGANKORRAK			A. IRAGANGAITZAK			A. KOPULATIBOAK		
	1 P	2 P	3 P	1P	2 P	3 P	1 P	2 P	3 P
2;00;20									X
2;02;26	X								
2;03;12			X(k)						
2;03;25		X (s)				X			
2;04;15			X			X(k)			
2;05;12		X (s)		X					
2;05;27	XX	X		X X					
2;07;14						X X			
2;09;01	X(k)								
2;09;22								X	
2;10;06	X(im)								
2;10;24			X X				X		
3;01;03									X X

X = Orainaldiko aditza

X(k) = Aditz konposatua

X(s) = Subjuntibozko aditza

X (im) = Imperfektoko aditza

XX = Plurala

**11. - KASU ETA PREPOSIZIOEN SISTEMEN BEREIZKETA GOIZTIARRA**

Hirugarren hipotesia, jadanik azaldu ditugun emaitza eta ondorioen bidez frogatu ahal izango dugu. Izan ere, hipotesi honek dioenez, jabekuntza-bilakabidean euskararen eta gaztelaniaren arteko nahasketarik ez da emango, haurrak bi sistemak ondo bereziko ditu elementu morfologiko eta sintaktikoak erabiltzen hasten denetik.

Esan dugunez, lan honetan zehar orain arte azaldu ditugun zenbait emaitza eta ondorio izango dira hipotesi honi erantzuteko erabiliko ditugunak. Alde batetik, bi hizkuntzetan Subjektuak gauzatzeko modua guztiz ezberdina da, kontuan izanik euskaraz bi kasutan ager daitekeela Subjektua, Absolutiboa edo Partitiboan --ezezko eta galderazko perpausetan-- eta Ergatiboan, eta gaztelaniaz, berriz, Subjektua beti Nominatibo kasuan agertzen dela, Izenordainetan edo Subjektu funtzioa betetzen duten izen-sintagmetan gauzaturik.

Objektuei dagokienez, euskaraz Objektu zuzena Absolutibo kasuan agertzeaz gain, Partitiboan ere azal daiteke, ezezko eta galderazko perpausetan. Zehar objektua, berriz, Datibo kasuan azaltzen da. Kasu guzti hauek, noski, posposizioen bidez gauzatzen dira. Gaztelaniaz berriz, Objektu zuzenak Izenordain klitikoak dira, eta Zehar objektuak, berriz, Izenordain klitiko edo atonoak eta tonikoak.

Bestalde, euskaraz, aditzarekiko komunztadura gordetzen ez duten kasuak posposizio bidez gauzatzen diren bitartean, gaztelaniaz erlazio hauek preposizio bidez azaltzen dira.

Aintzakotzat hartuko dugun beste puntu bat, izen-sintagmari dagokiona da. Izan ere, egitura hau oso ezberdina da bi hizkuntzetan, kontuan izanik gaztelaniaz izen-sintagmaren osagai guztiak daramatela numeroaren eta generoaren komunztadura, eta euskaraz izen-sintagma hersten duen elementua da mugatzen dena, ez osagai bakoitza. Bestalde, erakuslea eta zenbatzailea ere, modu ezberdinetan gauzatzen dira bi hizkuntzetan.

Horrela bada, puntu hauek banan-banan azaltzen saiatuko gara jarraian. Lehen esan dugun moduan, hemen azalduko ditugun emaitzak jadanik aurreko azterketetan aipatutakoak dira, eta jabekuntza-bilakabidearen hasierari dagozkion datuak besterik ez ditugu aipatuko.

## 11. 1. - SUBJEKTUAK.

### EUSKARA

Euskarazko Absolutibo eta Ergatibo kasuen azterketetan zehar ikusi duguna dakargu honara. Absolutibo kasuan, aditz kopulatiboa daramaten aditzek ekoiztutako subjektuak eta besteak bereizi ditugu. Horrela, lehen ekoizten duen subjektu absolutiboa aditz ez-kopulatibo batekin azaltzen dena da, 2;02;25 adinean:

(1) heme(n) eto (ez dago) kokea (traktorea) (2;02;25)

Aditz ez-kopulatibo batekin azaltzen den hurrengo subjektua, ia bi hilabete beranduago ekoizten du haurrak:

(2) hemen dato (dago) p(r)oblema (2;04;15)

Bitartean, ordea, aditz kopulatiboa daramaten ekoizpenetan azaltzen dira subjektuak:



- (3) hau da tutua (2;03;25)
- (4) mulinda (urdin da) hau (2;03;25)

Subjektu Ergatiboei dagokienez, lehenak 2;05;12 adinaz ekoizten ditu haurrak, aditzik gabeko zein aditza azaltzen den ekoizpenetan:

- (5) totokak? (dortokak?) (2;05;12)
- (6) hori Begok (2;05;12)
- (7) hau Piuk (Peruk) kottote (kotxe) ha(u)ndia (2;05;12)
- (8) holi (hori) nik ingot (egingo dut) (2;05;12)
- (9) nik eman behar diot (2;05;12)

Horrela bada, Subjektu Absolutiboak 2;02;25 adinean hasten da ekoizten eta Subjektu Ergatiboak 2;05;12 adinean. Esan daiteke hortaz, jabekuntzaren hasieran gaudela, eta ondorengo hilabetetan zehar osatuko den bilakabidearen hasiera besterik ez izan arren, adin honetarako, hau da, 2;05;12 adinerako jadanik ezagutzen dituela gure haurrak subjektua markatzeko bi moduak: Absolutiboa eta Ergatiboa.

## GAZTELANIA

Subjektuari dagokion gaztelaniazko azterketan ikusi ahal izan dugunez, lehen Subjektu Nominatiboak izen-sintagma batean gauzatzen dira. Subjektu funtzioa betetzen duten izen-sintagmen artean ere --gorago euskarazko subjektuen azterketan ikusi dugun moduan-- aditz kopulatiboa duten ekoizpenetan eta beste aditz-motak dituztenetan azaltzen diren Subjektuak bereizi ditugu. Horrela, erakusleak dira lehen azaltzen diren Subjektuak, aditz kopulatiboa zein ez-kopulatiboa duten ekoizpenetan:

- (10) asi baja esto (2;03;25)
- (11) ese baja (2;03;25)
- (12) este es gande(grande) (2;03;25)

Subjektu ez-erakusleak beranduago ekoizten ditu haurrak, lehen, aditz ez-kopulatiboa duen ekoizpen batean eta ondoren, aditz kopulatiboa duen batean:

- (13) Piu (Peru) no baga (. baja,llega?) (2;04;15)
- (14) . dónde ata (está) (la) pintula (pintura)? (2;05;27)

Subjektu Izenordainak dira azken azaltzen direnak gure haurraren, lehen Izen-sintagma Subjektua azaldu eta bi hilabetetara:

- (15) mira!, ése ha(h) pintau tú (2;05;27)
- (16) . (a) quién ves tú xxx? (2;07;30)
- (17) poe (pues) yo quielo (quiero) (2;09;22)

Horrela bada, gaztelaniazko Subjektuaren jabekuntza-bilakabidea 2;03;25 adinean hasten da, aditz iragankorra zein iragangaitza daraman ekoizpenetan, eta 2;05;27 adinerako ekoiztu ditu, bestalde, funtzio hau betez azaltzen diren aldaerak. Hemendik aurrera gaztelaniazko Subjektuari

dagokion jabekuntza-bilakabidea osatuz joango da. Ikus daitekeenez, euskaraz Subjektu Absolutibo eta Ergatiboak erabiltzen baditu ere, gaztelaniaz Subjektu Nominatiboak baino ez ditu ekoizten.

Bi hizkuntzak kontuan izanik, haurrak lehen ekoizten duen Subjektua euskerazko Absolutibo den arren, hilabete beranduago gaztelaniazko lehen Subjektu Nominatiboak ekoizten du. Orainarte esandakoa, taula honetan aurkituko dugu:

ADINA	EUSKARA		GAZTELANIA
	Subjektu Absolutiboak	Subjektu Ergatiboak	Subjektu Nominatiboak
2;02;25	+		
2;03;25			+
2;05;12		+	
2;05;27			+ (Izenordaina)

## 11. 2. - OBJEKTUAK

### EUSKARA

Euskarazko Objektu zuzenen eta Zehar objektuen azterketetan adierazitakoa gogoratuko dugu orain. Objektu zuzenak Absolutibo kasuan azaltzen dira, ezezko eta galdera perpausetan, berriz, Partitiboan, eta Zehar objektuak Datibo kasuan. Gorago ikusi dugunez, lehen Absolutiboak Subjektu funtzioa betetz azaltzen dira, eta Objektu funtzioan beranduago. Hauek dira, hortaz, lehen Absolutiboak Objektu funtzioan:

- (18) hori eztauka (ez dauka) haundia? (2;05;12)
- (19) holi (hori) nik ingot (egingo dut) (2;05;12)

Partitibo kasuan azaltzen dira, bestalde, ezezko- eta galdera-perpausetako Objektuak. Kasu hau ordea, aztertutako haurraren nahiko berandu azaltzeaz gain, oso urria da. Hori bera gertatzen da beste zenbait ikerketetan aztertutako haurraren ere (Barreña, 1993, Larrañaga, 1994). Gure haurraren corpusean azaltzen diren Objektu Partitiboak, hiru urte bete ondorengoak dira:

- (20) ez, Miguel Marik erdaka (ez dauka) belarrrik (3;03;07)
- (21) baña eleka (ez dauka) palalik (palarik) (3;04;04)

Objektu Datiboa, Absolutiboak baino beranduago ekoizten du aztertutako haurrak. Gainera lehen ekoizpena eta ondorengoaren artean ia bi hilabete eta erdiko epea dago:

- (22) gizonari (2;07;09)
- (23) etu (ez du) u(z)ten eneko(k) zuri (2;09;22)

Horrela bada, beti ere gure datuen arabera, lehen Objektu zuzena 2;05;12 adinean kokatu dugu, eta aurrena azaltzen den Zehar objektua, berriz, 2;07;09 adinean. Adin hauetan kokatu dugu, hortaz, funtzio hauen jabekuntza-bilakabidearen hasiera.

## GAZTELANIA

Hizkuntza honetan, Objektu funtzio betetzen duten izen-sintagmez gain, Objektuak Izenordainen bidez gauzatzen dira. Izenordain hauek, Klitiko Akusatibo zein Datiboak eta Datibo atonoak izan daitezke. Horrela, eta Objektu zuzenari dagokionez, hauetako lehenak, funtzio hau betetzen duen Izen-sintagmen bidez gauzatzen dira:

- (24) pongo aqui ot(r)o (2;03;25)
- (25) ahora a mete(r) esa (2;04;15)
- (26) aqui pi(n)tamos un tutu (coche) (2;05;27)

Ekoizpen hauetan ikus daitekeenez, Objektua, gaztelaniazko hitz ordenaren arabera, aditzaren ondoren azaltzen da. Azalpen hau, gainera, %92koa da, azterketa honi dagokion atalean ikusi ahal izan dugunez.

Funtzio hau, klitiko akusatiboaren bidez, beranduago azaltzen da:

- (25) no te veo (2;05;12)
- (26) y póntelo . eh? (2;09;22)
- (27) Itziar . me cojes? (2;09;22)
- (28) lo que quieras (2;10;06)

Zehar objektuaren funtzioa ere, lehen aldiz izen-sintagma baten bidez gauzatzen da:

- (29) y a Itziar (2;02;26)

Ondoren azaltzen den Zehar objektua, Datibo toniko bat da:

- (30) un nene . a tí? (2;04;15)

Eta azkenik, klitiko baten bidez Zehar objektua adierazteko gauza da haurra:

- (31) dime(lo) (2;05;12)

Gaztelaniazko Objektu zuzena, hortaz, 2;03;25 adinean hasten da ekoizten haurra izen-sintagma batean gauzatua, eta 2;05;12 adinean, klitiko Akusatibo baten bidez. Lehen Zehar objektua ere, izen-sintagma batean gauzatua ekoizten du haurrak, 2;02;26 adinean, eta ondoren Datibo tonikoa (2;04;15) eta Datibo klitiko edo atonoa (2;05;12) ekoizten ditu. Lehen aipatu dugun moduan, emaitza hauek jabekuntza-bilakabidearen hasiera besterik ez diren arren, funtzio hauek erabiltzeko gaitasunaren hasiera adierazten dute. Taula baten bidez adieraziko dugu orain arte esandakoa:

ADINA	EUSKARA		GAZTELANIA	
	Objektu zuzena	Zehar Objektua	Objektu zuzena	Zehar Objektua
2;02;26				+
2;03;25			+	
2;04;15				+ (tonikoa)
2;05;12	+		+ (klitikoa)	+ (klitikoa)
2;07;09		+		

Bi hizkuntzetako Objektuak kontuan hartuz ere, aztertutako haurrak lehen ekoizten dituenak gaztelaniazko bi Objektuak dira. Objektu klitikoak, ordea, beranduago azaltzen dira, euskarazko Objektu zuzena azaltzen den adin berean. Azken azaltzen den Objektua, euskarazko Zehar objektua da. Objektu zuzenen kokaguneari dagokionez, euskaraz %21ean bakarrik azaltzen dira aditzaren aurrean, hau da, euskararen hitzordenak eskatzen duena jarraituz. Hau, ordea, guztiz logikoa da, kontuan izanik euskararen ordena hori bada ere, nahiko ordena librea duen hizkuntza dela, gaztelania baino libreagoa behintzat. Gaztelaniaz, ordea, ia beti, objektu hauek aditzaren ondoren azaltzen dira, hizkuntza honetako araua gordez.

### 11.3. - KASUAK ETA PREPOSIZIOAK

Aditzarekin komunztadura duten kasuez gain --Subjektu/Objektu funtzioak-- komunztadurarik erakusten ez dutenak ere aztertu ditugu euskaraz, hauek gaztelaniazko preposizioei aurrejartzeko asmotan. Horrela bada, posposizio eta preposizioen jabekuntza-bilakabideari buruzko azterketetan azaldu diren emaitzak gogoraratuko ditugu jarraian.

Azterketaren hasieran haurrak preposizio bakar batzuk erabiltzen dituen bitartean, ez du pareko posposiziorik erabiltzen. Hala ere hasierako bi preposizioak zalantzazkoak dira:

(32) a jugar o no (1;11;10)

(33) aita, de ita (1;11;29)

Preposizioen jabekuntza-bilakabidean adierazi dugunez, bi ekoizpen hauek osorik ikasitakoak dirudite, ez lirateke ekoizpen originalen artean sartzeko modukoak izango.

Bi urte bete eta berehala, bi preposizio azaltzen dira haurraren korpusean, "de" eta "para" preposizioak:

(34) es de uri (Jurgi) (2;00;20)

(35) de piu (Peru) 2;01;03)

- (36) pa(ra)<sup>51</sup> uri (Jurgi) (2;00;20)
- (37) pa(ra) subi(r) (2;03;25)
- (38) palatras (para atrás) (2;05;27)

Bi preposizio hauen ondoren, euskarazko Inesibo kasua azaltzen da:

- (39) g(r)ua (gar)a(ra)jean (2;02;14)
- (40) hemen ongian (haundian?) bai (2;03;12)
- (41) hau atzean alolo (2;04;15)

Inesibo kasua ekoiztu ondoren, berriro ere gaztelaniazko "a" preposizioa ekoizten du haurrak:

- (42) y a Itzi(ar) (2;02;26)
- (43) ahora a mete(r) esa (2;04;15)

Preposizio honen ondoren, euskarari dagozkion lau kasu ekoizten ditu: Jabego-genitiboa, Ablatiboa, Adlatiboa eta Destinatiboa. Lehen ekoizten duena hauetatik, Jabego-genitiboa da:

- (44) nire tutua (kotxea) (2;03;25)
- (45) Peru(re)na (2;04;15)

Ablatiboa (46,47) eta Adlatiboa (48,49) adin berean azaltzen dira:

- (46) ...eta sa(r)tu atzetik (2;04;15)
- (47) ez, ni hementik (hemendik) (2;05;12)
- (48) joan da etxe(r)a (2;04;15)
- (49) itxasora (2;07;30)

Lau kasu hauetatik, Destinatiboa da azkena azaltzen dena:

- (50) Piueentzat (Perurentzat) (2;05;12)
- (51) al(d)apan oso zaila da niretzako (2;09;22)

Euskarazko lau kasu hauek azaldu ondoren, bi preposizio ekoizten ditu haurrak "por" eta "con" preposizioak hain zuzen, biak adin berean:

- (52) se ha quido (caido) por allí (2;05;27)
- (53) por aquí (2;07;14)
- (54) . con tomeno?(. tomate?)(2;05;27)
- (55) . con eso? (2;09;01)

Soziatibo kasua da preposizio hauen ondoren azaltzen dena haurraren korpusean:

---

<sup>51</sup> Hasierako ekoizpenetan preposizioaren azken silaba ahoskatzen ez badu ere --hau bera helduon hizkuntzan ere ikus daiteke-- berehala gai da preposizio osoa ahoskatzeko.

- (56) (ho)nekin? (2;07;09)
- (57) pilota(re)kin bai (2;09;05)

Honen ondoren, berriz, "en" preposizioaren lehen azalpena topatzen dugu:

- (58) en la pitina (piscina) (2;07;14)
- (59) en mi t(r)a(c)tor (2;09;01)

Euskarazko beste hiru kasu agertuko dira ondoren: Muga adlatiboa (60, 61), Leku genitiboa (62, 63) eta Instrumentala (64):

- (60) bai, itxasolaino (itxasoraino) (2;07;30)
- (61) olalano (horreraino) (3;00;17)
- (62) hemengoa (3;01;24)
- (63) bai zirkokoa (3;03;07)
- (64) kotxez (3;02;14)

Gure haurrak posposizio eta preposizioei dagokienez, azken ikasten dituenak, "hasta" eta "sin" preposizioak dira:

- (65) vale, hasta las ocho (3;03;07)
- (66) y suben hasta ahí (3;05;09)
- (67) ahora sin pistola te he mue(r)to (3;03;07)
- (68) sin guesos (huesos) (3;03;07)

Orain arte adierazi duguna, ondorengo taulan azalduko dugu, hau da, preposizio eta kasuen jabeakuntza, adina eta EBBL-ren arabera. Ezkerretan gaztelaniazko preposizioak agertzen

dira eta eskuinean pareko diren euskarazko kasuak.<sup>52</sup>

PREPOSIZIOA	ADINA	KASUA	ADINA
DE	2;00;20	J.Genitiboa	2;03;25
PARA	2;00;20	Destinatiboa	2;05;12
A	2;02;26	Adlatiboa	2;04;15 <sup>53</sup> 2;07;30
POR	2;05;27	Ablatiboa	2;04;15
CON	2;05;27	Soziatiboa	2;07;09 2;09;05
EN	2;07;14	Inesiboa	2;02;14
HASTA	3;03;07	Muga Adlat.	2;07;30
		L.Genitiboa <sup>54</sup>	3;01;24
		Instrumentala	3;02;14
SIN	3;03;07		

Ikusten denez, "sin" preposizioak ez du parekorik euskaraz haur honengan. Gaztelaniazko preposizio honi, euskaraz "gabe" posposizioa dagokio, baina gure azterketaren amaieran ere, ez dugu aurkitu posposizio hau aztertutako haurrarenan.<sup>55</sup>

Ondoren, kasu eta preposizio hauen jabekuntza adinaren arabera adieraziko dugu, hau da, ez ditugu bereiziko kasuak alde batetik eta preposizioak bestetik, jabekuntza ordena orokorra da

<sup>52</sup> Parekotasuna beti ez da hain garbia izaten, baina horrela adierazi ditugu, argi azaltzearren .

<sup>53</sup> Bi adin adierazten direnean, lehena zalantzakoa delako da, bigarrenean kokatzen da jabekuntza ziburra.

<sup>54</sup> Kasu hau ere "de" preposizioarekin parekatu behar da.

<sup>55</sup> Posposizioei buruzko gora-beherak, aurreko puntuan, hau da, aditzarekin komunztadurarik ez duten kasuak aztertu ditugun puntuan (9.7) adierazi ditugu.

adierazi nahi duguna, elebidunaren jabekuntza hain zuzen:

PREPOSIZIOA/KASUA	ADINA
DE	2;00;20
PARA	2;00;20
INESIBOA	2;02;14
A	2;02;26
JABEGO GENITIBOA	2;03;25
ABLATIBOA	2;04;15
ADLATIBOA	2;04;15
DESTINATIBOA	2;05;12
POR	2;05;27
CON	2;05;27
SOZIATIBOA	2;07;09
EN	2;07;14
MUGA ADLATIBOA	2;07;30
LEKU GENITIBOA	3;01;24
INSTRUMENTALA	3;02;14
HASTA	3;03;07
SIN	3;03;07

Azterketa honen bidez ikusi ahal izan dugu 3,03;07 adinerako, gure haurrak ikasi dituen erlazioak bi hizkuntzetan ikasi dituela.<sup>56</sup> Horrela, erlazio batzuk lehenago agertzen dira hizkuntza batean eta beste erlazio batzuk, berriz, beste hizkuntzan agertu dira lehenik. Baina aipatutako adinean, ikasi dituen erlazioak bi hizkuntzetan ezagutzen ditu. Erlazio hauen bidez adieraz daitezkeen adiera erberdinei dagokienez, nabariena lekua da. Bi hizkuntzetan --ikertu izan diren hizkuntza gehienetan bezala-- lekua denboraren aurretik adierazten du gure haurrak.

#### 11. 4. - IZEN SINTAGMAREN DETERMINAZIOA.

<sup>56</sup> Jadanik aipatu dugun euskarazko "gabe" posposizioa izan ezik.



## EUSKARA

Aztertutako haurrak, hasiera batean, "a" fonema dutela ekoizten ditu euskal hitz gehienak, Idiazabal-ek (1991) dioen bezala. Hasierako ekoizpen horiek, ordea, gramatika-ezaugarririk eta sintaxi-araurik gabeko aroari dagozkionak dira (Barreña, 1995a).

Euskal "a" artikulua, eduki formala duela, 2;02;14 adinean ekoizten hasten da gure haurra, ondorengo bi ekoizpenetan ikus daitekeenez:

(69) ves! autoa (2;02;14)

(70) ni auto punba (auto de choque) (2;02;14)

Lehen ekoizpenean, "autoa" hitza artikuluari dagokion morfemaz ekoiztu du; bigarreanean, berriz, hitz konposatua erabili duenez, morfema hitzaren amaieran baino ez du jarri.

Hilabete berean, lehen aldiz ekoizten du izen eta izenondo osatutako izen-sintagma, eta izenondoari bakarrik jarri dio artikulua, horrela determinatzaile bakarraren araua ezarriz:

(71) hau txutxu (kotxe) (hau)ndia (2;02;25)

Mota honetako ekoizpen ugari aurkitu ditugu, dagokion atalean ikus daitekeenez. Haurra determinatzaile bakarraren erregelaren jabe dela, ondorengo ekoizpenek ere garbi adierazten dute, kontuan izanik izenondo bikoitza erabili duela eta sintagma hersten duenari bakarrik ezarri diola determinatzailea (72) edo determinatzailea eta pluralgilea (73):

(72) ikusi kotxe handia, handi handia eh? (2;05;12)

(73) hemen gor(r)i gor(r)iak (2;11;25)

edo izenondoa graduatzailearekin ekoiztu arren, ez diola inoiz determinatzailearik jarri graduatzaileari:

(74) hori oso polita da (2;09;22)

(75) oso lodia (2;10;22)

Erakusleei dagokienez, ekoiztutako gehienak deiktikoak diren arren, batez ere hasiera batean, determinatzaile bezala ere azaldu dira:

(76) azal ha(u) gorria (da) (2;02;14)

(77) ikusi liburu hau (2;09;22)

Ekoizpen hauetan, izena artikulurik gabe ekoizten du, erakuslea erabiltzen duelako. Haur honen hiru urte bitarteko korpusean ordea, erakusle bidez determinatutako ekoizpen gutxi aurkitu ditugu, eta egokiak ez diren zenbait ere bai<sup>57</sup>.

Haurrak, sintagma zenbatzaileen bidez determinatzen duenean, egoki egiten du beti

<sup>57</sup> Puntu honi dagozkion zehaztasunak, 9.1.1. atalean aurki daitezke.

kokaguneari dagokionez, hau da, "bat" zenbatzailea erabiltzen duenean, izenaren eskuinean ekoizten du, eta beste zenbatzaileak, berriz, izenaren aurrean, hau da, ezkerrean jartzen ditu<sup>58</sup>. Zenbatzaileen jabekuntza-bilakabidea jadanik ikusia dugunez, hemen "bat" zenbatzaileari dagokiona besterik ez dugu aipatuko, bera baita gazteleraren parean ezberdin azaltzen dena, kontuan izanik gazteleraz zenbatzaile hau, beste guztiak bezala, izenaren ezkerrean azaltzen dela. Aipatu dugunez, "bat" zenbatzailea izenaren eskuinaldean azaltzen da beti:

(78) txotxia<sup>59</sup> (kotxea) bat (2;02;25)

(79) etxe bat (2;04;15)

Pluralaren morfema, sintagmaren azkenean baino ez da adierazten euskaraz. Pluralaren erabilera lehenago azaldu bada ere, bi hitzez osatutako sintagma pluralak --bat izan ezik, eta hemen pluralarekiko komuntadura ez du egoki adierazi-- hiru urte bete ondoren ekoizten ditu haurrak eta, gutxi badira ere, ondo eratuak daude:

(80) ez ha(r)tzeko zure gozak (gauzak) (3;00;17)

(81) jartzen badut<sup>60</sup> jostailu guztiak (3;05;09)

(82) nire jolasak ez dira apurtu behar (3;06;17)

Orain arte ikusi dugunez, haurrak ondo betetzen ditu euskal izen-sintagmaren arauak, hau da, determinatzaile bakarrarena eta determinatzaile hauen kokagunearena. Izen-sintagmaren jabekuntza-bilakabidea aztertu dugunean zenbait ez-egokitasun aurkitu badugu ere, hauek ez dute haurraren gaitasunik deusezten. Horrela, besteak beste, determinatzaile bakarraren araua 2;02 adinaz azaltzen da; determinatzaile-erakuslea eta "bat" zenbatzailea izenaren eskuinaldean ere adin berean ezarri ditu eta, hiru urtetik aurrera sintagmaren azkenean pluralgile bakarra erabiltzen du.

## GAZTELANIA

Hasierako datuetan ikus daitekeenez, hitz gehienak --substantibo zein adjektibotzat har daitezkeenak-- inolako determinatzailerik gabe azaltzen dira. Zenbait hitz, ordea, fonetikoki artikuluen itxura duen bokalez ekoizten du haurrak, eta bokal hau beti hitzaren ezkerrean azaltzen da:

(83) e tutu (coche) (1;11;10)

(84) u niño (1;11;29)

(85) a tuta (balón/pelota) (2;00;20)

Idiazabalek (1991b) "pseudo-artikulu" eta Barreñak (1996) "auredeterminatzailetzat" jotzen dituzten "e,u,a" bokal hauek, adina aurrera doan neurrian gutxitzen joango dira, azkenean desagertu arte. Beste zenbait ikertzailek ere gauza bera ikusi izan dute (Hernandez Pina, 1984;

---

<sup>58</sup> Zenbait euskalkitan "bi" zenbatzailea ere izenaren eskubialdean azaltzen da, baina ez aztertzen ari garen haurra ikasten ari denean.

<sup>59</sup> Determinazio bikoitzaren arazoa, dagokion atalean aipatu dugu.

<sup>60</sup> Aditzarekiko ez-egokitasunak atal honetan ez ditugu aipatuko.

López Ornat, 1994; Capdevilla eta Serra, 1995; Dore et al., 1976; Ramer, 1976)<sup>61</sup>.

Haur honek artikulua determinatu eta indeterminatuak goiz ekoizten ditu, hasieran gutxitan bada ere. Lehen azaltzen dena artikulua indeterminatua da:

(86) un tota ( . pelota?) (1;10;11)

Artikulu determinatua, ordea, berehala azaltzen da hauraren ekoizpenetan:

(87) el t(r)en (1;11;29)

Bi artikulua hauen ekoizpen erregularra 2;02;14 adinetik aurrera ikus daiteke. Aurre-determinatzailetzat jo ditugun bokalak bezala, artikulua hauek ere beti hitzaren ezker aldean azaltzen dira.

Euskaraz bezala, gaztelaniaz ere erakusle gutxi azaltzen dira determinatzaile funtzioa betetzen. Gutxi izan arren, gehienetan hitzaren ezker aldean azaltzen dira<sup>62</sup>:

(88) eze (ese) niño (2;01;03)

(89) esa paca (vaca) no (2;03;25)

Euskaraz eta gaztelaniaz kokagune ezberdina duen "uno" determinatzaile zenbatzaileari dagokionez, haurrak ekoiztu dituen adibideekin ezin dugu erkaketarik egin, kontuan izanik zenbatzaile hau azaltzen den ekoizpen guztietan, bera bakarria dela izen-sintagma osatzen duena:

(90) aqui falta uno (2,10;06)

(91) mira, se ha caído uno (3;04;26)

Gaztelaniaz --euskaraz ez bezala-- sintagma osatzen duten osagai guztiek daramate pluralgilea. Pluralgilea sintagmaren amaieran bakarrik azaldutako ekoizpenen portzentaia handia den arren, haurra gai izan da ekoizpen erditan pluralari dagokion morfema sintagmaren osagai guztiei jartzeko:

(92) doh<sup>63</sup> mo(s)cah (2;07;14)

(93) lo quitan los señores (2,10;24)

(94) a mi masutan (me asustan) loh payaseteh (3;01;03)

(95) por aqui se pasan los coches (3;02;14)

Haur honengan numeroari dagokion ez-egokitasuna altua bada ere, hori bera ikusi zuen Barreñak (1996) aztertutako haur elebidun batengan. Haur elebakarrak aztergai izan dituzten

---

<sup>61</sup> Zehaztasunak, gaztelaniazko izen-sintagmaren determinazioari buruzko azterketan azaltzen dira, 9.4.2. atalean.

<sup>62</sup> Gaztelaniazko izen-sintagmaren determinazioaren jabekuntza-bilakabideari dagokion atalean (9.4.2) aipatu dugunez, badirudi gaztelaniazko erakusle hauek deiktikoak direla.

<sup>63</sup> Ekoizpen batzuetan, txistukariaren ordean aspirazioa erabili du plurala adierazteko.

Hernandez Pina-k (1984) eta López Ornat-ek (1995) ere, numeroari dagozkion ez-egokitasun hauez mintzo dira.

Azkenik, generoaren erabilerari dagokionez, artikulua femeninoak maskulinoen ondoren ekoizten ditu aztertutako haurrak. Artikulu determinatu zein indeterminatuak erabiltzen ditu femeninoan:

- (96) la landa (?) (2;02;14)
- (97) una etsesa (estrella) (2;02;14)
- (98) la vaca (2;03;25)
- (99) una pinzanona (apisonadora) (2;05;27)

Artikulu determinatuarekin komunztadura arazorik ia ez duen bitartean, artikulua indeterminatuarekin --batez ere hiru urte bitartean-- arazoak ditu, %21ean generoarekiko komunztadurarik egiten ez duenez. Hori bera ikus daiteke H.Pinak (1984) aztertu zuen haurraren ere. Hiru urte bete ondoren, ordea, haurrak genero arazorik ez duela esan daiteke, kontuan izanik artikulua ez diren beste determinatzaileekin ere ez duela ia arazorik erakusten.

Euskaraz izen-sintagmaren determinazioaren arauak betetzen dituen bezala, gaztelaniaz ere betetzen dituela ikus ahal izan dugu. Horrela, bai aurredeterminatzaileak, bai artikulua --determinatua zein indeterminatua-- hitzaren ezker aldean ekoizten ditu haurrak bi urte bete aurretik. Erakusle determinatzaileak --euskaraz bezala gutxi badira ere-- gehienetan hitzaren ezker aldean azaltzen dira hauek ere. Bestalde, pluralaren komunztadurari dagokion ez-egokitasunaren portzentaia handia den arren, ekoizpenen erditan haurra gai da sintagmako osagai guztiei pluralgilea jartzeko, hau da pluralari dagokion komunztadura ondo adierazteko 2;07;14 adinetik aurrera. Azkenik, genero bereizketari dagokion gaitasuna ere erakutsi du haurrak, lehen kontrastea, hau da, lehen femeninoa 2;02;14 adinaz ekoiztuz. Horrela bada, goiztiarra da generoaren agerpena, euskaraz bereizketa hau egon ez arren. Bestalde numeroa baino lehenago azaltzen da. Emaitza berdina lortu zituzten H. Pina-k (1984) eta C. Aguirre-k (1995). Ez-egokitasun batzuk azaldu ondoren, hiru urtetik aurrera ez du inolako arazorik erakusten generoaren komunztadurari dagokionez.

## **12.- ONDORIO OROKORRAK**

12.1.-Lehen hipotesiari dagozkion ondorioak

12.2.-Bigarren hipotesiari dagozkion ondorioak

12.3.-Hirugarren hipotesiari dagozkion ondorioak

## **13.- MUGAK, IRADOKIZUNAK ETA GALDERAK**

## **14.- BIBLIOGRAFIA**

## 12. - ONDORIO OROKORRAK

Atal honetan, laugarren atalean azaldu ditugun hipotesiei erantzuten saiatuko gara.

Ikerketaren zati bakoitzean egindako emaitzen azterketen amaieran, zati horri dagozkion ondorioak azaldu baditugu ere, orain azterketa eta ondorio guzti horiek kontuan izanik, ondorio orokorrek azaltzen saiatuko gara, horrela azaldutako hipotesiei erantzuteko, hau da, hipotesi hauek baieztatu, ezeztatu edo zehaztu ahal izateko.

Aipatu laugarren atalean adierazi ditugun hipotesiak, hiru dira. Hipotesi hauei banan-banan erantzuteari ekingo diogu jarraian. Horretarako, lehenik, hipotesi bakoitza gogoraraziko dugu, ondoren hipotesi horri dagozkion behin-behineko ondorioak azaltzeko.

### 12. 1. - LEHEN HIPOTESIARI DAGOZKION ONDORIOAK

Lehen hipotesiak honela dio: *Kasu-markak eta preposizioa, eta beraien bidez gauzatzen diren funtzio eta erlazioak, adin berdintsuan azalduz joango dira bi hizkuntzetan, bi hizkuntza hauek jokabide guztiz ezberdina erakusten duten arren, kontuan izanik euskaraz kasu markak atzizki bidez ematen direla eta gaztelaniaz, aldiz, preposizio edo izenordainen bidez.*

Hipotesi hau probatu ahal izateko, bederatzigarren puntuan jabekuntza-bilakabideari dagozkion zenbait azterketa egin dugu bi hizkuntzetan. Beraz, euskarazko Absolutibo kasuaren azterketa egin ondoren, Ergatibo eta Datiboaren azterketak ere azaldu ditugu. Gaztelaniaz, berriz, Nominatibo, Akusatibo eta Datiboari dagozkion azterketak azaldu ditugu.

Azterketa hauen bidez, hizkuntza bakoitzean Subjektu eta bi Objektuei --Objektu zuzena zein Zehar objektua-- dagozkien funtzioen jabekuntza-bilakabidea erakutsi dugu. Horrela, euskaraz Absolutibo eta Ergatibo kasuan azaltzen diren bitartean Subjektuak, gaztelaniaz Nominatibo kasuan gauzatzen dira. Objektuei dagokionez, euskaraz Objektu zuzena Absolutibo kasuan eta Zehar objektua Datibo kasuan gauzatzen dira. Gaztelaniaz, berriz, Objektu zuzena Akusatibo kasuan eta Zehar objektua Datibo kasuan, besteak beste klitikoaren bidez.

Kasu hauez gain, alde batetik euskaraz komunztadurarik erakusten ez duten kasuen azterketa, eta bestetik gaztelaniazko preposizioena ere azaldu ditugu.

Hipotesian bertan adierazita dagoen moduan, kasu eta preposizio hauen bidez gauzatzen diren funtzio eta erlazioak euskaraz posposizio bidez egiten diren bitartean, gaztelaniaz klitiko eta preposizioen bidez adierazten dira.

Horrela bada, kontuan izanik aipaturiko azterketak, hauek dira lehen hipotesiari erantzuteko lortu ditugun ondorioak:

1.- Subjektu funtzioaren azalpena, bi hizkuntzetan, adinari dagokionez, berdintsu gertatu da aztertu dugun haurrengan. Azaldu den lehen Subjektua, euskarazko Absolutiboa izan da 2;02;25 adinean. Hilabete beranduago, 2;03;25 adinean gaztelaniaz Subjektu funtzioa betetzen duen lehen izen-sintagma ekoiztu du haurrak, lehen Subjektu Nominatiboa, hain zuzen. Ondoren, euskarazko lehen Subjektu Ergatiboa, 2;05;12 adinaz azaltzen da, eta azken azaldu den Subjektua, gaztelaniazko Subjektu Izenordain Nominatiboa izan da, 2;05;27 adinean.

ADINA	EUSKARA		GAZTELANIA
	Subjektu Absolutiboa	Subjektu Ergatiboa	Subjektu Nominatiboa
2;02;25	+		
2;03;25			+
2;05;12		+	
2;05;27			+ (Izenordaina)

Horrela bada, bi hizkuntzetan Subjektu funtzioa era oso ezberdinean gauzatzen den arren, aztertutako haurrak hiru hilabeteko epean erakutsi du gaitasuna bi hizkuntzetako Subjektuak ekoizteko, eta gainera bi sistemak bereizteko hasiera batetik.

2.- Lehen Objektu zuzena, gaztelaniaz ekoizten du lehenik haurrak, Objektu funtzioa betetzen duen izen-sintagma batean gauzatua, 2;03;25 adinean. Hilabete eta erdi beranduago, hau da, 2;05;12 adinean, euskarazko Objektu Absolutiboa eta gaztelaniazko klitiko Akusatiboen bidez gauzatzen diren Objektuak ekoizten ditu.

ADINA	EUSKARA	GAZTELANIA
	Objektu zuzena	Objektu zuzena
2;03;25		+
2;05;12	+	+ (klitikoa)

Berriro ere, bi hizkuntzatan gauzatzen den funtzioa erabiltzeko gaitasuna erakusten digu haurrak, oraingoan ere hasieratik hizkuntza bakoitzeko sistemen bereizketa gordez.

3.- Aztertutako haurrak gaztelaniaz ekoizten du lehen Zehar objektua ere, izen-sintagma batean gauzatua, 2;02;26 adinean. Datibo toniko eta atonoak, ordea, beranduago azaltzen dira; lehena 2;04;15 adinean eta bigarrena, hau da, Datibo klitikoa 2;05;12 adinean. Azkenik euskarazko lehen Datiboa edo Zehar objektua 2;07;09 adinean ekoizten du.

ADINA	EUSKARA	GAZTELANIA
	Zehar Objektua	Zehar Objektua

2;02;26		+
2;04;15		+ (tonikoa)
2;05;12		+ (klitikoa)
2;07;09	+	

Aztertu ditugun datuen arabera, gaztelaniaz eta euskaraz azaldu diren lehen Zehar objektuen artean lau hilabeteko epea egon arren, gaztelaniazko lehen klitiko Datiboa eta euskarazko lehen Datiboaren azalpenaren artean dagoen epea bi hilabetekoa besterik ez da. Euskaraz, bestalde, lehen Datiboa azaldu baino bi hilabete lehenago, Zehar objektuaren komunztadura azaldu da aditzean.

Hau guztia kontuan izanik, 2;07;09 adinetik aurrera, gai da aztertutako haurra, alde batetik, euskaraz Zehar objektuaren komunztadura aditzean islatzeko eta Datibo kasuaren bidez Zehar objektua gauzatzeko, eta bestalde, gaztelaniaz Zehar objektua gauza daitekeen hiru erataraz azaltzeko: izen-sintagmaren, Datibo tonikoaren eta Datibo atono edo klitikoaren bidez. Bi hizkuntzetan, bestalde, funtzio hau, aurreko biak baino gutxiago erabiltzen du.

Euskaraz eta gaztelaniaz Zehar objektua gauzatzeko prozedura ezberdin hauek erakusten digute haurra gai dela bi sistemak bereizteko.

4.- Funtzio hauek pluralean ekoizterakoan, zailtasunak izan ditu aztertutako haurrak. Lehen Subjektu plurala gaztelaniaz ekoiztu du izen-sintagma batean gauzatua, 2;07;14 adinean. Ez du, ordea, Izenordain Subjektu pluralik ekoiztu. Euskaraz lehen Subjektu Absolutibo plurala aditzarekin komunztadura eginaz, 2;10;11 adinean ekoiztu du. Subjektu Ergatiboek dagokionez, helduengan zenbait alderditan gertatzen den moduan, ez ditu bereizten.

Subjektu pluralen kopuruari dagokionez, azalpen urria erakusten dute bi hizkuntzetan. Gaztelaniazko Subjektu Nominatiboak %2a dira, eta euskarazko Subjektu Absolutiboak, %2,7a besterik ez dira. Portzentaia hauek, aditzarekin komunztadura gordetzen duten Subjektuei dagozkienak dira.

Lehen Objektu zuzen plurala ere, gaztelaniaz ekoizten du haurrak, 2,09;22 adinean, izen-sintagma batean gauzatua. Lehen klitiko Akusatibo plurala, ordea, 3;04;26 adinean azaltzen da. Euskaraz, berriz, lehen Objektu Absolutibo plurala 2;10;11 adinean azaltzen da.

Objektu zuzen pluralak, gaztelaniaz %11a suposatzen dute, eta euskaraz %10a. Euskarazko Objektu plural hauek, ez dute beti aditzarekiko komunztadurarik erakusten. Baina euskaraz azaldu diren Objektu Absolutibo plural guztiak adierazi ditugu portzentaia horretan, gaztelaniaz ez dagoelako aipatu komunztadurarik.

Ez da Datibo kasuari dagokion Zehar objektu bakar bat ere azaldu pluralean, ez euskaraz, ez gaztelaniaz.

Orain arte aipatu ditugun hiru funtzio hauen pluralak ere kontuan hartuz, ez dugu



ezberdintasun handirik aurkitu bi hizkuntzen artean, badirudi pluralean ikusten diren zailtasunak bi hizkuntzei dagozkiela neurri berdintsuan.

5.- Euskaraz aditzarekin komuntadurarik erakusten ez duten kasu eta gaztelaniazko preposizio gehienak ekoizten ditu aztertutako haurrak, gure azterketa amaitu aurretik, hau da, 3;06 adinerako.

- Hauek izan dira ekoiztutako preposizio eta kasuak:

PREPOSIZIOA	ADINA	KASUA	ADINA
DE	2;00;20	J.Genitiboa	2;03;25
PARA	2;00;20	Destinatiboa	2;05;12
A	2;02;26	Adlatiboa	2;04;15 <sup>64</sup> 2;07;30
POR	2;05;27	Ablatiboa	2;04;15
CON	2;05;27	Soziatiboa	2;07;09 2;09;05
EN	2;07;14	Inesiboa	2;02;14
HASTA	3;03;07	Muga Adlat.	2;07;30
		L.Genitiboa	3;01;24
		Instrumentala	3;02;14
SIN	3;03;07		

Lehen azaldu diren erlazioak, gaztelaniazko bi preposizio dira, bi urte bete eta berehala. Hemendik aurrera, eta 3;03 adina bitartean ekoiztu ditu haurrak taulan adierazitako erlazioak, bi hizkuntzetan. Erlazio batzuk hizkuntza batean lehenago ikasi dituen bitartean, beste erlazio batzuk lehenago azaldu dira beste hizkuntzan. Erlazio hauen jabekuntza elebiduna, hortaz, gure datuen arabera 3;03 adinean ziurta daiteke.

- Erlazio hauen bidez, gure haurrak ondorengo adierak azaldu ditu, bi hizkuntzetan:

- Lekua
- Denbora
- Jabegoa
- Tresna
- Kidetasuna
- Helburua

-Leku-denbora erlazioei dagokienez, lekua da lehenetarikoa azaltzen --euskaraz lehena--

<sup>64</sup> Bi adin adierazten direnean, lehena zalantzazkoa delako da, bigarreanean kokatzen da jabekuntza ziurra.

eta denbora, berriz, azkena azaltzen dena da, bi hizkuntzetan.

- Aditzarekin komunztadurarik ez duten kasu eta preposizioekin doazen hitzen azalpena pluralean, berankorra eta urria da bi hizkuntzetan. Horrela, euskarazko kasuak pluralean, ez dira %4ra iristen, eta ekoizpen bat izan ezik, beste guztiak hiru urte bete ondoren azaldutakoak dira. Gaztelaniaz, preposizioekin doazen hitz pluralen kopurua urriagoa da oraindik, %1a besterik ez baita, hauek ere euskaraz bezala, hiru urte bete ondoren azaltzen baitira.

- Zenbait kasu eta preposizioen azalpena urria izan bada ere, gutxitan gertatu da testuinguruak eskaturiko kasu edo preposiziorik gabeko ekoizpenak azaltzea, hau hasieratik gertatuz. Izan ere, euskaraz horrelako ekoizpenak %5era ez dira iristen eta gaztelaniaz, berriz, gutxiago dira %2,5a besterik ez. Datu hauen arabera, badirudi arras ezberdinak diren bi sistemen jabekuntza, nahiko finkatua dagoela haur honengan.

- Gaztelaniazko preposizioekin gertatzen ez den moduan, euskarazko deklinazioak dituen zenbait berezitasun ere adierazi ditu aztertutako haurrak. Horrela, mugatu singularra eta plurala erabiltzeaz gain, zenbait kasutan mugagabea ere ekoiztu du. Bizidun eta bizigabeei dagozkien atzizkiak ere bereizi ditu zenbaitetan.

- Orain arte azaldu ditugun ondorioak kontuan izanik, lehen hipotesian adierazitakoa baieztatzeko moduan gaudela dirudi. Izan ere, aztertutako haurraren emaitzen azterketetan ikus ahal izan dugunez, euskarazko Absolutibo, Ergatibo eta Datibo kasuak eta beraien bidez gauzatzen diren Subjektu, Objektu zuzen eta Zehar objektu funtzioak euskaraz eta Nominatibo, Akusatibo eta Datiboa kasuak eta beraien bidez gauzatzen diren aipatu funtzioak gaztelaniaz ere ekoizteko gaitasuna erakutsi digu. Eta gaitasuna adin berdintsuan adierazi du gainera, bi hizkuntzetan, hasieran gaztelaniazko lehenitasuna nabari bada ere.

Bestalde, bai euskaraz aditzarekin komunztadurarik ez duten kasu gehienak, bai gaztelaniaz preposizio garrantzitsuenak ekoizteko gaitasuna ere azaldu du gure haurrak. Hauen bidez adierazten diren erlazio batzuk lehenago azaldu dira hizkuntza batean; beste erlazio batzuk, ordea, beste hizkuntzan agertu dira lehenik. Baina gure azterketaren mugen barruan, kasu zein preposizio garrantzitsuenak bi hizkuntzetan ikasi ditu.

Horrela bada, eta lortutako datuen arabera, lehen hipotesian proposatzen genuena baieztatzen dugu, aztertutako haurraren kasu-markak eta preposizioak, eta beraien bidez gauzatzen diren funtzio eta erlazioak, adin berdintsuan azalduz joan direla bi hizkuntzetan.

## **12. 2. - BIGARREN HIPOTESIARI DAGOZKION ONDORIOAK.**

*Euskarazko Subjektu, Objektu zuzen eta Zehar objektuek markaketa bikoitza erakusten dute, alde batetik Izen Sintagman eta bestetik Aditzean. Bestalde, gaztelaniaz Subjektuak komunztadura erakusten du aditzean. Hau kontuan izanik, haurraren hizkuntzaren jabekuntza-garapenean aditz jokotua edo inflexioa azaltzen denean, aditzarekin komunztadura duten kasu eta izenordeak, eta beraien bidez gauzatzen diren funtzioak, azaltzen hasiko dira.*

Bederatzi eta hamargarren puntutan azaldu ditugun emaitzak eta azterketak kontuan izanik, hauek dira bigarren hipotesiari erantzuteko lortu ditugun ondorioak:

1.- Euskaraz, Subjektu Ergatiboarekiko komunztadura 2;05;12 adinean kokatu dugu, eta bera da lehen azaltzen den komunztadura euskaraz. Lehen Subjektu Ergatiboa ere adin berean azaldu da lehen aldiz. Horrela, bada, hipotesian proposatutako lehentasunik agertzen ez bada ere, lehen Subjektu Ergatiboa eta Subjektu Ergatiboarekiko komunztadura aditzean, adin berean azaltzen dira.

2.- Euskaraz, lehen Subjektu Absolutiboaren azalpena, 2;02;25 adinean kokatu dugu. Subjektu honi dagokion komunztadura, ordea, 2,09;05 adinean ziurta daiteke. Subjektu Ergatiboari dagokion komunztaduran parekotasuna aurkitu dugun bitartean, hemen ezin dugu gauza bera esan, aditzarekiko komunztadura sei hilabete beranduago ziurta daitekeenez, beti ere gure datuen arabera. Gorago aipatu dugun moduan, ordea, ezin ziurtatu izanak ez du esan nahi haurra gai ez denik komunztadura lehenago gauzatzeko.

3.- Euskaraz, lehen Objektu zuzenaren ekoizpena, 2;05;12 adinean kokatu dugu. Objektu honi aditzean dagokion komunztadura, ordea, bost hilabete beranduago ziurtatu dugu, 2;10;11 adinean, hain zuzen. Objektu zuzenari eta berari dagokion komunztadurari buruz, ez dugu aditzarekiko komunztaduraren lehentasunik aurkitu.

4.- Euskarazko Zehar objektu eta beraren komunztadurari dagokionez, hipotesian aldarrikatu duguna baieztatu genezake, kontuan izanik objektu honi aditzean dagokion komunztadura 2;05;12 adinean kokatu dugula, eta lehen Zehar objektua, berriz, 2;07;09 adinean azaldu dela.

5.- Gaztelaniazko Subjektu Nominatiboari dagokionez ere, hipotesian esandakoa baieztatu genezake, kontuan izanik Subjektu honen aditzarekiko komunztadura 2;03;12 adinean kokatu dugula, eta Subjektu honen lehen ekoizpena 2;03;25 adinean gertatu dela, hau da, aditzarekiko komunztadura lehenago azaldu da, funtzioa baino.

6.- Aditzarekiko komunztadurari dagokion lehentasuna, hortaz, euskarazko Zehar objektuan eta gaztelaniazko Subjektuan aurkitu dugu.

7.- Komunztadura eta funtzioaren arteko parekotasuna, bestalde, euskarazko Ergatiboan bakarrik ikusi ahal izan dugu.

8.- Euskarazko Subjektu Absolutiboa eta Objektu zuzena, funtzio hauei aditzean dagozkien komunztadurak baino lehenago azaldu dira aztertutako haurraren.

9.- Orain arteko ondorioen argitan, hortaz, bigarren hipotesian proposatu duguna, euskarazko Zehar objektuari eta gaztelaniazko Subjektu Nominatiboari dagokionez baieztatu genezake, funtzio hauei dagokion komunztadura, funtzioa bera baino lehenago azaldu denez.

10.- Ergatiboari dagokionez, funtzioa eta aditzarekiko komunztadura adin berean azaldu dira aztertutako haurraren. Emaitza hauen argitan bigarren hipotesia baieztatu badaiteke ere, badirudi adinarekiko horrelako parekotasun estua, kasualitateari zor zaiola gehiago, haurraren bilakabide logikoari baino.

11.- Euskarazko Subjektu Absolutibo eta Objektu zuzenari dagokienez, ordea, eta esku artean izan ditugun datuen arabera, hipotesian adierazitakoa ezeztatu beharrean aurkitzen gara, funtzio hauek lehenago azaldu baitira, beraiei aditzean dagozkion komunztadurak baino.

12.- Ezeztapena, ordea, beti ere erabilitako korpusean --honek erakusten dituen mugak kontuan izanik-- azaldu diren datuen arabera egiten dugu, kontuan izanik, korpusean ez azaltzeak ez duela esan nahi, nahi eta nahi ez, haurrak gaitasunik ez duenik.

### 12.3. - HIRUGARREN HIPOTESIARI DAGOZKION ONDORIOAK

Hirugarren hipotesiak honela dio: *Jabekuntza-bilakabidean, euskararen eta gaztelaniaren arteko nahasketarik ez da emango, haurrak bi hizkuntzak ondo bereiziko ditu elementu morfologiko eta sintaktikoak erabiltzen hasten den unetik.*

Bederatzi eta hamaikagarren puntutan azaldu ditugun emaitzak eta azterketak kontuan izanik, hauek dira hirugarren hipotesiari erantzuteko lortu ditugun ondorioak:

#### SUBJEKTUAK

1.-Euskaraz aurrena azaltzen den Subjektua, Absolutiboa da, 2;02;25 adinean. Subjektu Ergatiboa, berriz, ia hiru hilabete beranduago ekoizten du haurrak, 2;05;12 adinean, hain zuzen. Esan daiteke, hortaz, adin honetatik aurrera jadanik ezagutzen dituela gure haurrak euskaraz Subjektuak markatzeko bi erak: Absolutiboa eta Ergatiboa.

2.-Gaztelaniaz, haurrak 2;03;25 adinaz ekoizten du lehen Subjektu Nominatiboa, erakusle batean gauzatua, hain zuzen. Beranduago, 2;04;15 adinean, Subjektu ez-erakusleak hasten dira azaltzen. Lehen Subjektu Nominatiboa, Izenordain batean gauzatua, 2;05;27 adinean azaltzen da. Gaztelaniaz, funtzio honen jabekuntza-hasiera, hortaz, 2;03;25/2;05;27 adinen bitartean koka daiteke.

3.-Orain arte azaldutakoaz ikus daitekeenez, Subjektuaren gauzatzea bi hizkuntzetan arras ezberdina den arren, aztertutako haurra gai izan da bi sistemak bereizteko lehen Subjektuak ekoizten hasten den une beretik. Horrela, lehen ekoizten duen Subjektua euskerazko Absolutiboa da, 2;02;25 adinaz, eta hilabete beranduago gaztelaniazko Subjektua ekoizten du. Hemendik aurrera hizkuntza bakoitzari dagozkion Subjektuak ekoizten jarraitzen du, eta ez dugu inolako nahasketarik aurkitu bi sistemen artean. Hau da, haurra gai da Subjektu kategoria ekoizteko, eta era batera edo bestera gauzatzeko, hitz egiten ari den hizkuntzaren arabera da, hau da, Subjektuarekiko jabekuntza elebiduna lortu du.

4.-Funtzio hauek gauzatzen diren kategoriei dagokienez, ikusi ahal izan dugu, Subjektu funtzioa gehienetan Izenordainetan gauzatzen dela bi hizkuntzetan. Horrela, gaztelaniaz %51 Subjektu Izenordainak dira eta euskaraz berriz, %43<sup>65</sup>. Haurrak euskaraz ekoizten dituen

<sup>65</sup> Ergatiboaren jabekuntza-bilakabideari dagokion atalean, kasu hau gauzatzeko azaltzen den morfemarekin ikusi ditugun zailtasunak, portzentaia honetatik at geratzen dira. Hau da, hemen adierazitako %43an, gauzatutako Ergatiboak azaltzen dira.

Izenordain gehienak (%92), Subjektu Ergatiboak dira. Kontuan izanik gaztelaniazko Subjektu izenordain Nominatiboa "yo"<sup>66</sup> eta euskarazko Subjektu izenordain Ergatiboa "nik" ezberdinak direla formari dagokionez --euskaraz izenordainari "-k" atzizkia eransten zaio-- bi Subjektuen bereizketa, funtzio hau erabiltzen hasten den unetik bereizten duela erakutsi digu aztertutako haurrak.

### *OBJEKTUAK*

5.-Euskaraz, objektuen artean haurrak lehen ekoizten duena, Objektu zuzen Absolutiboa da, 2;05;12 adinean. Lehen Zehar objektu Datiboa, berriz, ia bi hilabete beranduago, 2;07;09 adinean, hain zuzen.

6.-Gaztelaniaz, objektuen azalpena horrela izan da aztertutako haurraren, adinaren arabera:

a) Zehar objektua izen-sintagma batean gauzatua (2;02;26 adinean)

b) Objektu zuzena, hau ere Izen-sintagma batean gauzatua (2;03;25 adinean)

d) Zehar objektua Datibo toniko baten bidez ( 2;04;15 adinean)

e) Objektu zuzena klitiko Akusatibo baten bidez eta Zehar objektua Datibo klitiko edo atono batean gauzatua (2;05;12 adinean biak)

7.- Euskaraz azaldu den lehena Objektu zuzena den bitartean, gaztelaniaz Zehar objektua da haurrak lehen ekoiztu duena. Gaztelaniaz, ordea, hasierako Objektuak Izen-sintagma baten bidez adierazitakoak dira. Bi funtzioak betetzen dituzten klitikoen lehen azalpena hizkuntza honetan, euskarazko lehen Objektu zuzena ekoizten duen adin berean azaltzen dira, 2;05;12 adinean, hain zuzen. Euskarazko Zehar objektua, ikusi ahal izan dugunez, beranduago azaltzen bada ere, 2;07;09 adinerako bai euskarazko Objektu Absolutibo eta Datiboak, bai gaztelaniazko klitiko Akusatibo eta Datiboak ekoizteko gai da aztertutako haurra. Eta hauetako objektu bakoitza, gainera, dagokion hizkuntzan besterik ez du erabiltzen.

8.- Objektu zuzenen kokaguneari dagokionez, gaztelaniaz, ia beti, Objektu hauek aditzaren ondoren azaltzen dira, hizkuntza honetako araua gordez. Euskararen ordenaren arabera, berriz, Objektuak aditzaren aurrean azaldu behar balu ere, %21ean besterik ez da hau gertatzen. Bestalde, ordea, guztiz logikoa da, kontuan izanik euskararen ordena hori bada ere, nahiko ordena librea duen hizkuntza dela, gaztelania baino libreagoa behintzat. Hemen ere ikus daiteke, haurra jabetu dela gaztelaniaz Objektuak leku jakina gorde behar duen bitartean, euskaraz ez dela beharrezkoa. Orain arte ikusitakoak kontuan izanik, Objektu funtzioari dagozkion bi sistemak ondo bereizten ditula esan daiteke.

### *KASU ETA PREPOSIZIOAK*

---

<sup>66</sup> Lehen pertsona aipatzen dugu, bera delako, dudarik gabe, bi hizkuntzetan ugariena.

9.-Azterketarako aukeratutako epe barruan, gure haurrak euskaraz aditzarekiko komunztadurarik ez duten kasu hauek ekoiztu ditu: Inesiboa, Jabego-genitiboa, Ablatiboa, Adlatiboa, Destinatiboa, Soziatiboa, Muga-adlatiboa, Leku-genitiboa eta Instrumentala.

10.-Epe berean, gaztelaniazko ondorengo preposizioak azaldu dira haurraren korpusean: de, para, a, por, con, en, hasta, sin.

11.-Ikusi ahal izan dugunez, 3,03;07 adinerako, gure haurrak ekoiztu dituen erlazioak bi hizkuntzetan erabili ditu. Horrela, erlazio batzuk lehenago erabili ditu hizkuntza batean eta beste erlazio batzuk, berriz, beste hizkuntzan agertu dira lehenik. Baina aipatutako adinean, erabili dituen erlazioak bi hizkuntzetan ezagutzen ditu. Atal honetan ere, ez dugu bi hizkuntzen arteko nahasketarik aurkitu, hizkuntza bakoitzari dagokion forma erabiltzen du testuinguruak eskatzen duen erlazioa adierazi ahal izateko, marka, posizio etab. ezberdinak izan arren. Bi sistemak ondo bereizita daude haurraren.

12.-Erlazio hauen bidez adieraz daitezkeen adiera ezberdinei dagokienez, nabariak lekua eta denbora dira. Bi hizkuntzetan --ikertuak izan diren hizkuntza gehienetan bezala-- lekua denboraren aurretik adierazten du gure haurrak.

## IZEN-SINTAGMA

13.-Haur honengan, gaztelaniaz ikusi ahal izan ditugu lehen determinatzaileak. Bi urte bete aurretik, artikulua indeterminatu zein determinatuak, eta bi urte bete eta berehala erakusleak. Determinatzaile hauek, gehienetan izenaren ezker aldean azaltzen dira.

14.-Bi urte bete eta berehala, euskarazko determinatzaileak ekoizten hasten da haurra: "a" artikulua elementu formal gisa, erakuslea eta "bat" determinatzailea, guztiak izenaren eskuinera azalduz. Determinazio bakarraren araua, euskaraz, 2;02;25 adinetik aurrera ikus daiteke.

15.-Izen Sintagma pluralaren komunztadura gaztelaniaz 2;07;14 adinaz azaltzen da, eta euskaraz, berriz, 3;00;17 adinean. Gaztelaniaz sintagmaren bi osagai morfema eransteko gauza dela erakutsi duen bitartean --nahiz erditan araua ez bete eta sintagmaren azkenean baino ez jarri pluralgilea--,<sup>67</sup> euskaraz sintagmaren azken osagaiari bakarrik ezartzen dio pluralari dagokion morfema.

16.-Gaztelaniaz, oso goiztiarra da generoaren bereizketa, 2;02;14 adinean ekoizten baitu lehen femeninoa, euskaraz genero bereizketarik ez egon arren.

17.-Guzti honen ondorioz, bi sistemen bereizketa goiztiar eta garbia ikus daiteke aztertutako haurraren, kontuan edukiz hizkuntza bakoitzean determinazioaren arau nagusiak goiz eta ondo bereizten dituela, gaztelaniaz sintagmarekiko barne-komunztadura dagoen bitartean, euskaraz ez dagoela, eta gazteleraz bakarrik adierazten den genero bereizketa goiztiarra ere egiten duela.

---

<sup>67</sup> Dagokion atalean aipatu dugu, agian euskararen eragina dela, nahiz gaztelaniadun haur elebakarretan ere numeroarekiko ez-egokitasunak aurkitu diren.

18.-Atal honetako emaitzen azterketek eskaini dizkiguten ondorioek erakusten dutena, bat dator gure hirugarren hipotesian azaldutakoarekin, hau da, jabekuntza-bilakabidean euskararen eta gazteleraren arteko nahasketa garrantzitsurik ez dugu aurkitu, haurrak bi sistemak ondo bereizten ditu elementu morfologiko eta sintaktikoak erabiltzen hasten denetik.

Ondorio hauetan azaldu diren datuen arabera, eta batzutan gaztelaniaren lehentasuna nabari bada ere, haur elebidun orekatu baten aurrean gaudela esan genezake, hau da, bere inguruko bi hizkuntzak orekaz jaso dituela.

### **13.- MUGAK, IRADOKIZUNAK ETA GALDERAK**

Ikerketa amaitu ondoren ikusi ditugun zenbait muga, sortu zaizkigun galdera eta bide honetan lanean jarraitzeko zenbait iradokizun eta proposamen aipatuko ditugu jarraian.

## MUGAK

- Azterketan zehar behin baino gehiagotan aipatutako muga, erabili dugun corpusari dagokio. Izan ere, hizkuntza bakoitzean hamabostean behin ordu erdiko iraupena duten grabaketak eskaini diguten corpusa erabili dugu. Honek dudarik gabe mugak ezartzen ditu, kontuan izanik hilabete guztian haurrak ekoiztu duenaren artean, ordubeteari dagozkion emaitzak besterik ez ditugula erabili.

- Grabaketen transkribatzaile izan garen aldetik, eta aldi berean transkribapen horietatik lortu diren emaitzen aztertzaile, transkribatzerakoan zenbait zailtasun aurkitu dugu grabaketaren kalitatea ez delako nahi bezainbat ona izan. Honek, zenbait ekoizpen bazterraztea bultzatu digu, eta batez ere jabekuntzaren hasieran, erabakigarriak izan zitezkeen.

- Metodologian aipatu dugunez, hizkuntz jabekuntzari dagokion literaturan --eta jabekuntza elebidunean bereziki-- ikerketa asko subjektu bakarrekoak izan dira ("case studies"). Hauen artean Ronjat, 1913; Leopold, 1939; A.E. Fantini, 1982; F. Hernandez Pina, 1984; Annick de Houwer, 1987; Hoffmann, 1989; Lopez Ornat, 1994; e.a.. Zenbait kasutan, metodologia kualitatiboak, azterketa sakon eta luze baten aukera ematen du, subjektu askorekin egin ezin daitekeena.

- Gure ikerlanean, hasieratik horrela planteatutako ikerketa izan da, beste arrazoen artean, baliabide eta denboraren mugak tartean direlarik.

- Aukera honek ordea, abantailak dituen bezala, bere mugak ere baditu. Horrela, azaldu ditugun ondorioak ezin dira hedatu, haur bakarrari dagozkionak diren neurrian.

- Gaur egun, euskal hizkuntz jabekuntzari buruzko tradizioa eskasa bada ere, zenbait lan egiten ari da<sup>68</sup>. Gure ikerketari hasiera eman genionean, ordea, esan daiteke hutsetik hasi ginela, eta gaur egun jabekuntza elebidunari --euskara-gaztelania-- buruz ezagutzen ditugunak ere gutxi dira. Beste herrialdeetako bibliografia erabili badugu ere, gure herrialdean ematen den elebitasunari buruzko lan eza, muga bat gertatu da.

## IRADOKIZUNAK

---

<sup>68</sup> Barreña, Ezeizabarrena, Idiazabal, Larrañaga,: Jadanik aipatuak



- Erabilitako corpora osatzeko, eta bertan sortzen diren hutsune eta zalantzei erantzuteko, interesgarria iruditzen zaigu gerora begira, behatuko diren haurren gurasoek, haurren hizkuntzaren bilakabidea erakusten duen egunkaria osatzea, edo ezinbestean, noiz behinka haurraren ikus daitezkeen lorpen berrien berri eman ahal izatea. Honek, noski, alor honetan prestatutako gurasoak eskatuko lituzke, konpromezu estuaz gain.

- Bideo-grabaketak egiterakoan, haurrari mikrofonoa jartzea gomendatzen dugu. Gaur egun, teknikoki litekeena da mikrofono txiki bat haurraren jazkian ipintzea, eta honek transkribaketa asko errazteaz gain, zenbait ekoizpenetan sortzen diren zalantzak ezeztatuko lituzke, eta batzuetan jabekuntza-bilakabidea zehazterakoan erabakigarriak diren ekoizpenak argitu.

- Grabaketak transkribatzerakoan aurkitu dugun zailtasuna gainditzeko, grabatzerakoan haurra beti kamerari begira egotea gomendatzen dugu, askotan lagungarri gertatzen baita ezpainen bidez irakurtzea, batez ere zalantzak daudenean haurrak ekoiztu duenari buruz.

- Egoera ezberdina erakusten duten haurrak ikertzea proposatzen dugu, gure herrian ematen diren hizkuntz egoera ezberdinen ispilu izango direnak, hain zuzen:

. Etxean guraso euskaldunak izan eta haurtzaindegi gaztelaniadun batean daude haurrak, edo beste senitartekoren batekin (aiton-amonak, izeba-osabak, etab.) zein haurra zaintzen duenarekin gaztelaniaz erlazionatzea.

. Etxean guraso gaztelaniadunak izan eta haurtzaindegi euskaldun batean dauden haurrak, edo beste senitartekoren batekin (aiton-amonak, izeba-osabak, etab.) edo haurra zaintzen duenarekin euskaraz erlazionatzea.

. Egoera hauetan, Euskal Herriko hainbat tokitan bizi diren haurrak, Tuteran edo Leitzaan bizitzeak dituen aldaerak kontuan izanik.

. Haur elebidunez gain, elehirudun gerta daitezkeen haurrak ere garrantzizkoak lirateke, kontuan izanik antzeko egoerak gero eta ugariagoak gertatzen ari direla gure inguruan (etorkinen seme-alabak, euskaldun eta atzerriko baten arteko bikoteen haurrak etab).

- Uste dugu, Euskal Herriko jabekuntza elebiduna aztergai duten ikerketen beharra dagoela, eta gure ikerketan eskainitako ondorioak sendotzeko, guk aztergai izan ditugun elementuen azterketak beharrezkoak ikusten ditugu.

## **GALDERAK**

- Ikerketan erabilitako datuak goi mailako egoera sozio-ekonomikoa duen familia bateko haurrari dagozkionak dira. Zein ondorio aurkituko genituzke erdi edo behe maila sozio-ekonomikoa duen famili bateko haurraren gain?

- Aztertutako haurraren familia, jatorriz euskalduna da. Haurrak gaztelania, batez ere, bere etxean zaintzen duen emakume baten bidez ikasi du. Zein ondorio izango genituzke alderantzizko egoera baten aurrean, hau da, jatorrizko familia gaztelaniadun batean, euskara ikasten duen haur batengan?

- Gure ikerketako haurrak, gaztelania etxe giroan ikasi du. Kontuan izanik gaur egun haur asko haurzaindegira eramaten dituztela gurasoek lan egiten duten bitartean, interesgarria izango litzateke ikustea, zer gertatzen den jatorriz gaztelaniadun familia bateko haurrek euskara haurzaindegian ikasten dutenean.

- Gure herrian orain arte eman ez diren egoerak sortzen ari direla kontuan izanik, orainarte ohikoa izan den elebitasuna alda egin daiteke. Horrela, beste herrialdeetako familiak inguratzen ari dira gure herrira. Gerta daiteke, hortaz, zenbait haur elebidun gertatzea, baina ez gaztelera-euskara elebidunak, X hizkuntza-euskara elebidunak baizik. Edo agian, hiru hizkuntza batera ikastea, gurasoetako bat gaztelaniaduna eta bestea atzerritarra izan eta haurzaindegi euskalduna aukeratzea haurrarentzat. Zer gertatuko da haur horien elebitasun edo elehirutasunarekin?

#### 14.-BIBLIOGRAFIA

ABKARIAN, G. G. (1983): "More negative findings for positive prepositions". *J. Child. Lang.*, 10, Manchester University. Dep. of linguistics. (415-429).

AGUADO, G. (1988): "Valoración de la competencia morfosintáctica en el niño de dos años y medio" *Infancia y aprendizaje*, nº 43 . Ed. Pablo del Río. Madrid (73-96).

AGUIRRE, C. (1995): *La adquisición de las categorías gramaticales del español*. Tesis Doctoral: Universidad autónoma de Madrid.

AKSU-KOÇ, A - SLOBIN, D.I. (1985): "The acquisition of turkish"- *The crosslinguistic study of language acquisition. Volume I: The data*. Slobin D.I. (Argit) Lawrence Erlbaum Associates Publishers, London.

ALCINA FRANCH, J. - BLECUA, J.M. (1982): *Gramática española*. Ed. Ariel. Barcelona

ALMGREN, M. ETA BARREÑA, A. (1991): "Aditzaren eta aditz-multzoaren jabeakuntz-garapena bi haur euskaldunengan, elebakarra bata eta euskara-gaztelera elebiduna bestea". *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz jabeakuntza haur elebidun eta elebakarretan*. I. Idiazabal argit. VIII Udako Ikastaroak Donostian. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitaralpen Zerbitzua (137-168)

AZKARATE, M (1988): "Zenbait egitura berri hitz elkartuetan". *II Euskal mundu biltzarra. Euskara biltzarra*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. I alea (169- 191)

AZKUE, R.M. (1969): *Gramática básica dialectal del euskera*. (Morfología vasca, I,II,III). La Gran enciclopedia vasca (Argit). Bilbao.

AZURMENDI, Mª J. (1980): "Dependencia lingüística." INSTITUTO DE CIENCIAS DE LA EDUCACION DEL PAIS VASCO: *La problemática del bilingüismo en el estado español*. 33-56 orr.

AZURMENDI, Mª J. (1982): "¿La mala preparación de los enseñantes en euskara causa del fracaso del bilingüismo?". *KIMU* aldizkaria, Abendua.

AZURMENDI, Mª J. (1983): *Elaboración de un modelo para la descripción social lingüística del bilingüismo y su aplicación parcial en la comarca de San Sebastián*. Caja de Ahorros Provincial de Guipuzcoa. San Sebastián.

AZURMENDI, Mª J. (1988): "Psicosociolingüística del contacto de lenguas". *II Congreso mundial vasco*. Servicio de publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria.

AZURMENDI, Mª J. (1991): "Psicosociología de la adquisición de las lenguas segundas." *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz jabeakuntza haur elebidun eta elebakarretan*. I. Idiazabal argit. VIII Udako Ikastaroak Donostian. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitaralpen Zerbitzua (233-249).

BAETENS, H. (1988): "¿Who's afraid of bilingualism?" *II Congreso mundial vasco*. Servicio de publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria.

BANDURA, A. (1984): *Teoría del aprendizaje social*. Espasa-Calpe,S.A. Madrid.

BANDURA ETA WALTERS (1987): *Aprendizaje social y desarrollo de la personalidad*. Alianza. Madrid.

BARREÑA, A (1993): *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabeakuntza-garapena: INFL eta KONP funtzio-kategorien erabileraz* . Doktorego tesia: Euskal Herriko Unibertsitatea. Gazteiz.

BARREÑA, A. (1994a): "Sobre la adquisición de la categoría funcional COMP por niños vascos" *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*. J.M. Meisel (org). Editorial Iberoamericana, Madrid.

- BARREÑA, A. (1994b): "Deklinabidearen jabekuntza-garapena haur euskaldun elebakar batengan". *Euskera* - Real Academia de la lengua Vasca, 39-2 (505-537)
- BARREÑA, A. (1994d): "Aditz-komunztaduraren jabekuntza-garapena haur euskaldun elebakar batengan". *Uztaro*, 12, Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo (67-88).
- BARREÑA, A. (1994e): "Funtzio-kategorien jabekuntza-garapenaz". *ASJU*, XXVIII. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.
- BARREÑA, A. (1994f). " Sobre la adquisición de la categoría funcional COMP por niños vascos". MEISEL, J.M (org) : *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*. Editorial Iberoamericana, B.1. Madrid.
- BARREÑA, A. (1995a): "Haur euskaldunen hasierako hizkuntzaren zenbait berezitasun" *Fontes Linguae Vasconum*, nº 68. Gobierno de Navarra. Departamento de Educación y cultura. (69-95).
- BARREÑA, A. (1995b): *Gramatikaren jabekuntza-garapena eta haur euskaldunak*. Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitarapen Zerbitzua. Bilbo
- BARREÑA, A. (1995d): "Desarrollo diferenciado de sistemas gramaticales en un niño vasco-español bilingüe". Salamancako Unibertsitatea. Esku-izkribua.
- BARREÑA, A. (1995e): "Ergatibitatea eta beraren jabekuntza". Salamancako Unibertsitatea. Esku-izkribua.
- BARREÑA, A. (1996): "Haur elebidunak eta gramatika-sistemen bereizketa izen-sintagmaren garapenean" *Fontes Linguae Vasconum*. Prentsan.
- BATES, E; MACWHINNEY, B. (1988): "Cross-linguistic research on language acquisition and language processing". *II Congreso mundial vasco*. Servicio de publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria.
- BATES, E. eta MCWHINNEY, B. ( 1982): "Functionalist approaches to grammar" E. Wanner eta L. Gleitman (Argit.). *Language Acquisition: The State of the Art*. Cambridge University Press.
- BAVIN, E. (1990): "Locative terms and Walpiri acquisition" en *Journal of Child Language*. 17. Manchester University. Dep. of linguistics. (43-66)
- BELLO, A. ( 1982) : *Gramática de la lengua castellana*. Edaf Ediciones, Madrid.
- BOHANNON, J; WARREN-LEUBECKER, A. (1985): "Theoretical approaches to language acquisition" GLEASON, J. B. *The development of language*. Charles E. Merrill (Argit). Publishing Company (173-226).
- BOWERMAN, M. (1973): *Early syntactic Development. A cross-linguistic study with special reference to Finnish*. Cambridge University Press.
- BRAINE, M; HARDY, J. (1982): "On what case categories there are, why they are, and how they develop: an amalgam of a priori considerations, speculation, and evidence from children" en WAINER, E.; GLEITMAN. *Language Acquisition. The State of the Art.*. L. Cambridge: Cambridge University Press.
- BRONCKART, J. P. eta VENTOURAS-SPYCHER, M. (1978a): "Le concept piagetien de representation et la conception sovietique d'autoregulation" *Development of self-regulation through speech*. G. Zivin (Argit). New-York.
- BRONCKART, J.P. eta BESTE. (1978b): *La genésis del lenguaje. Su aprendizaje y desarrollo*. Ed. Pablo del Río. Madrid.
- BRONCKART, J. P.; KAIL, M; NOIZET, G. (1983): *Psycholinguistique de l'enfant*. Delachaux eta Niestle. Paris.
- BRONCKART, J. P. (1985): *Teorías del lenguaje*. Herder. Barcelona.

- BRONCKART, J. P. eta IDIAZABAL, I. (1986): "Las estrategias de comprensión de los enunciados transitivos en vasco" Siguan M. (Koord). *Estudios de psicolingüística*. Pirámide: Madrid (165-194)
- BRONCKART, J. P. (1992): "El discurso como acción. Por un nuevo paradigma psicolingüístico". *Anuario de Psicología*, 54. Facultat de Psicologia. Universitat de Barcelona (3-48).
- BROWN, R. (1978): *A first language. The early stages*. Harvard University Press. Cambridge.
- BROWN, R; BELLUGI, U. (1974): "Tres procesos en la adquisición de la sintaxis por el niño" LENNEBERG y otros: *Nuevas direcciones en el estudio del lenguaje*. Selecta de Revista de Occidente. Madrid.
- BROWN, R; FRASER, C. (1964): "The acquisition of syntax". *The acquisition of Language*. B. and Brown (Argit).
- BRUNER, J. (1981): "De la comunicación al lenguaje: una perspectiva psicológica" en *Infancia y aprendizaje*. Ed. Pablo del Río. Madrid.
- BRUNER, J. (1986): *El habla del niño*. Paidós. Barcelona.
- BRUNER, J. (1987): *Comment les enfants apprennent a parler*. Retz. Paris
- CALERO VAQUERA, M.L. (1986) : *Historia de la gramática española (1847-1920) De A. Beelo a R. Lenz*. Ed. Gredos, Madrid.
- CAPDEVILLA, M & SERRA, M. (1995): *La adquisición de las categorías funcionales en niños catalanes*. I Encuentro internacional sobre Adquisición de las Lenguas del Estado. Santiago de Compostela.
- CAREY, S. (1982) : "Semantic development : the state of the art". *Language Acquisition: The state of the art*. WANNER eta GLEITMANN (Argit). Cambridge University Press.
- CARMICHEL, L (1974): "El desarrollo primario de la capacidad del lenguaje en el individuo" LENNEBERG Y OTROS: *Nuevas direcciones en el estudio del lenguaje*: Selecta de Revista de Occidente. Madrid.
- CHOMSKY, N. (1957): *Syntactic structures*. Mouton. La haya.
- CHOMSKY, N. (1976): *Aspectos de la teoría de la sintaxis*. Aguilar. Madrid.
- CHOMSKY, N. (1979): *Reflexiones sobre el lenguaje*. Ariel. Madrid
- CHOMSKY, N. (1980): *El lenguaje y el entendimiento*. Seix Barral. Barcelona
- CHOMSKY, N. (1981): *Lectures on Government and Binding*. The Pisa lectures, Foris Dordrecht.
- CHOMSKY, N. (1986): *El conocimiento del lenguaje*. Alianza. Madrid.
- CHOMSKY, N. (1988): *El lenguaje y los problemas del conocimiento*. Visor. Madrid
- CHOMSKY, N.; PIAGET, J.: (1983): *Teorías del lenguaje, teorías del aprendizaje*. Crítica. Barcelona.
- CLAHSEN, H. (1988): " Learnability theory and the problem of development in language acquisition". *II Congreso mundial vasco*. Servicio de publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria.
- CLARK, E. (1986) : "Building a vocabulary: words for objects, actions and relations" FLETCHER, P. eta GARMAN, M. (Argit) : *Language acquisition*. Cambridge University Press.
- CLARK, E - CARPENTIER, K (1989): "On children's uses of "from","by" and "with" in oblique noun phrases". *J. Child Lang.*, 16. Manchester University. Dep. of linguistic. (349-3649).

CLARK, E. (1982): "The young word maker: a case study of innovation in the child's lexicon". *Language Acquisition: The state of the art*. Wanner eta Gleitmann (Argit). Cambridge University Press.

COLLINGS, A. (1990): "The acquisition of morphology and syntax in German child language". *MEISEL, J. (argit.). Two First Languages: Early grammatical development in bilingual children*. Foris Publications. Dordrecht. Holland. (23-45)

COSERIU, E. (1977): *Principios de semántica estructural*. Gredos. Madrid.

CRYSTAL, D. (1981): *Lenguaje infantil, aprendizaje y lingüística*. Médica y Técnica (Argit). Barcelona.

CUMMINS, J. (1983): "Interdependencia lingüística y desarrollo educativo en los niños bilingües". *Infancia y aprendizaje*, 21. Ed. Pablo del Río. Madrid.

CUMMINS, J. (1988): "Research and theory in bilingual education: the Basque situation in international perspective". *II Congreso mundial vasco*. Servicio de publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria.

DAY, E. (1965): "El desarrollo del lenguaje en los niños mellizos" en PIAGET, J. y otros: *El lenguaje y el pensamiento del niño pequeño*. Paidós. Buenos Aires.

DIEZ-ITZA, E. (1992): *Adquisición del lenguaje*. Pentalfa Argit., Oviedo.

DOLZ, J; PASQUIER, A.; BRONCKART, J. P. (1993): "'L'acquisition des discours: Emergence d'une compétence ou apprentissage de capacités langagières diverses?". ELA

DORE, J; FRANKLIN, M; MILLER, T.T.; RAMER, A. (1976): "Transitional phenomena in early language acquisition". *Journal of Child Language* 3, Manchester University. Dep. of linguistics. (13-28)

DROMI, E. (1979): "More on the acquisition of locative prepositions: an analysis of Hebrew data". *J. Child Lang*, 6, Manchester University. Dep. of linguistics. (547-562)

DURKIN, K. (1981): "Aspects of late language acquisition: school children's use and comprehension of prepositions". *First Language ii*. Science History Publications Ltd. England. (47-59).

EGUZKITZA, A (1988): "Aditz eta predikatu faktiboak". *II Euskal mundu biltzarra. Euskara biltzarra*. Eusko Jaurkitzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia. I alea (335- 348)

EGUZKITZA, A. (1993): "Adnominals in the grammar of Basque". J. ORTIZ DE URBINA eta J.I. HUALDE (Arg): *Generative studies on Basque grammar*. Amsterdam. Benjamins.

ENGELKAMP, J. (1981): *Psicolingüística*. Ed. Gredos. Madrid.

ERVIN, S. (1974): "Imitación y cambio estructural en el lenguaje de los niños". LENNEBERG Y OTROS: *Nuevas direcciones en el estudio del lenguaje*. Selecta de Revista de Occidente. Madrid.

ESQUER TORRES, R. (1971): *Didáctica de la lengua española*. Ed. Alcalá. Madrid.

ETXEBERRIA, Felix (1994): *Educación y bilingüismo* Universidad del País Vasco. Ibaeta Pedagogía.

ETXEBERRIA, Feli. (1986): *Marco lingüístico del euskara de los niños de las diferentes situaciones sociolingüísticas en el ciclo inicial*. Tesi doctorala. U.P.V.

EUSKALTZAINDIA-GRAMATIKA BATZORDEA (1985): *Euskal gramatika. Lehen Urratsak. I.* (EGLU). Euskaltzaindia. Bilbo.

EUSKALTZAINDIA-GRAMATIKA BATZORDEA (1987): *Euskal gramatika. Lehen Urratsak. I. (Eranskina)* (EGLU) Euskaltzaindia. Bilbo.

EUSKALTZAINDIA-GRAMATIKA BATZORDEA (1987) : *Euskal gramatika. Lehen Urratsak. II.* (EGLU) Euskaltzaindia. Bilbo.

EUSKALTZAINDIA-GRAMATIKA BATZORDEA (1993): *Euskal gramatika laburra: Perpaus Bakuna*. (EGLU) Euskaltzaindia. Bilbo.

EZEIZABARRENA, M.J. (1991): "Ezeztapenerako formen bilakaera bi haur elebidunen eta elebakar baten hizkuntz jabekuntzan". *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. I. Idiazabal argit. VIII Udako Ikastaroak Donostian. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitaralpen Zerbitzua (183-195)

EZEIZABARRENA, M. J. (1991): "Adquisición del sistema verbal vasco". Hamburgoko Unibertsitatea: eskuizkribua.

EZEIZABARRENA, M. J. (1992): "Adquisición infantil de la triple concordancia verbal en euskera". Hamburgoko Unibertsitatea: eskuizkribua.

EZEIZABARRENA, M. J. (1994): "Primeras formas verbales de concordancia en euskera" MEISEL, J.M (org): *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*. Editorial Iberoamericana. Madrid.

EZEIZABARRENA, M.J eta LARRAÑAGA, M.P. (1994): "Ergativity: a problem for language acquisition" Esku izkribua.

EZEIZABARRENA, M.J. (1995): *Adquisición de la morfología verbal en euskera y castellano por niños bilingües*. Doktorego tesia. Hamburgoko Unibertsitatea.

FANTINI, A. (1982): *La adquisición del lenguaje en un niño bilingüe*. Herder. Barcelona.

FERGUSON, CH. (1977): "Baby talk as a simplified register". SNOW, C.; FERGUSON, CH. (Argit) *Talking to children. Language input and acquisition*. Cambridge Univ. press.

FERNANDEZ RAMIREZ, S. (1987): *Gramática española. El pronombre*. Ed. Arco libros, Madrid.

FISHMAN, J. (1982): *Sociología del lenguaje*. Cátedra. Madrid.

FRANCESCATO, G. (1971): *El lenguaje infantil*. Península. Barcelona.

FURROW, D; MURRAY, P; FURROW, M: (1985/86): "Spatial term use and its relation to language function at two developmental stages". *First Language*, 6. Science History Publications Ltd. England. (41-51)

GALLO, M.P. (1990): "Cómo el niño construye hipótesis sobre la gramática de su lengua" *Estudios de Psicología*, 41. Aprendizaje, S.A. Madrid. (73-92)

GARMENDIA, S. (1968): "Deklinazio" *Euskera*, XIII. Euskaltzaindia.

GARVEY, C. (1987): *El habla infantil*. Morata. Madrid.

GECKELER, H. (1984): *Semántica estructural y teoría del campo léxico*. Gredos. Madrid.

GILES, H; GARRETT, P; COUPLAND, N. (1988): "Language acquisition in the Basque Country: invoking and extending the intergroup model". *II Congreso mundial vasco*. Servicio de publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria.

GILI GAYA, S. (1972): *Curso superior de sintaxis española*. Biblograf. Barcelona.

GILI GAYA, S. (1974): *Estudios de lenguaje infantil*. Biblograf. Barcelona.

GLEASON, J. B. (1977): "Talking to children: some notes on feedback". SNOW, C eta FERGUSON, CH. (Argit). *Talking to children. Language input and acquisition*. Cambridge University press.

- GOENAGA, P. (1978) : *Gramatika bideetan*. Erein. Donostia.
- GOENAGA, P. (1991): "Izen sintagmaren egituraz". *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. J.A. Lakarra argit. ASJU Gehigarria, XIV (847-865)
- GOLDMANN-EISLER, F. (1974): "Exposición y comentarios posteriores". LENNEBERG Y OTROS: *Nuevas direcciones en el estudio del lenguaje*: Selecta de Revista de Occidente. Madrid.
- HAMERS, J.F. & BLANC, M. (1983): *Bilingüité et bilingüisme*. Pierre Mardaga Editeur. Bruxelles.
- HERNANDEZ-PINA, F. (1979): "Etapas en la adquisición del lenguaje: Estudio de un caso concreto". *Infancia y aprendizaje*. Ed. Pablo del Río. Madrid.
- HERNANDEZ-PINA, F. (1984): *Teorías psicolingüísticas y su aplicación a la adquisición del español como lengua materna*. Siglo XXI. Madrid.
- HERNANDEZ-PINA, F. (1988): "La adquisición de los términos cuantitativos en español. Estudio de un caso" *Infancia y aprendizaje*, 43. Ed. Pablo del Río. Madrid.
- HOFFMANN, CH. (1989): "Modelos de adquisición del bilingüismo infantil". *Actas del VI Congreso Nacional de Lingüística aplicada*. Adquisición de lenguas. Teorías y aplicaciones. AESLA, Santander.
- HOFFMANN, CH. (1992): "La evaluación de la producción lingüística del niño bilingüe" ETXEBERRIA, F. eta ARZAMENDI, J.: *Bilingüismo y adquisición de lenguas*. Actas del IX Congreso Nacional de AESLA. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco.
- HOUWER DE, A. (1987): *Two at a time: An exploration of how children acquire two languages from birth*. Free University of Brussels.
- HUALDE, J. (1986): "Case assignment in basque" *ASJU*, XXII-1 (313-330)
- HYMES, N. (1989): "The null subject parameter in Language acquisition". JAEGGLI AND K. SAFIR (Argit.). *The null subject parameter*. Kluwer Academic Publishers: Dordrecht (215-238).
- IDIAZABAL, I. (1983): *La comprehension des structures à fonction casuelle en basque*. Tesi doctorala. Ginebra.
- IDIAZABAL, I. (1984): "Conciencia bilingüe del niño bilingüe". I.C.E.: *Adquisición precoz de una segunda lengua*. Universitat de Barcelona ( 53-64).
- IDIAZABAL, I. eta BRONCKART, J.P. (1986): "Las estrategias de comprensión de los enunciados transitivos en vasco" Siguan M. (Koord). *Estudios de psicolingüística*. Pirámide: Madrid (165-194)
- IDIAZABAL, I. (1988a): "Euskarazko egitura iragangaitzen ulermena. Psicolingüistikako lan bat. *II Congreso mundial vasco*. Servicio de publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria.
- IDIAZABAL, I. (1988b): "Haur txikien hizkuntz heldutasuna neurtzeko baliapide bat: esaldien batatz besteko luzeera (EBBL) edo "MLU"". J.A. LACARRA argit: *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. Gipuzkoako Foru Aldundia- ASJU Gehigarria (1991). 1289-1295.
- IDIAZABAL, I. (1991a): *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebazarretan*. I. Idiazabalek zuzendua. VIII Udako Ikastaroak Donostian. Euskal Herriko Unibertsitateko argitarapen zerbitzua. San Sebastián.
- IDIAZABAL, I. (1991b): "Evolución de la determinación nominal en un niño bilingüe vasco-hispanófono". *"XII Conference on Spanish in the U.S. and Ist. International Conference of Spanish in Contact with other Languages"*. University of Southern, California, Los Angeles.



- IDIAZABAL, I. (1994): Elementos de cohesión y conexión en las primeras fases de la adquisición del lenguaje: Análisis de la producción verbal de un niño bilingüe vasco-hispanófono". MEISEL, J.M (argit.): *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*. Editorial Iberoamericana, Madrid.
- IDIAZABAL, I. (1995): "First stages in the acquisition of noun phrase determiners by a basque-spanish bilingual child". C.Silva-Corvalan argit.: *Spanish in four Continents.: Studies in Language Contact and Bilingualism*. Georgetown University Press.
- IMEZDADE, N. - TUIITE, K. (1992): "The acquisition of Georgian". SLOBIN, D. I. (Argit). *The crosslinguistic study of Language Acquisition. Volumen 3.* : Lawrence Erlbaum, Hillsdale.
- IRIGOYEN, A. (1978) : "Deklinabideaz" *Euskera, XXIV (2. aldia)*. Euskaltzaindia.
- JOHNSTON, J. & SLOBIN, I. (1979): "The development of locative expressions in English, Italian, Serbo-Croatian and Turkish". *Journal of Child Language, V.6* . Manchester University. Dep. of linguistics. (529-545).
- KARMILOFF-SMITH, A. (1988). "A model of representational change in language acquisition" *II Congreso mundial vasco*. Servicio de publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria.
- KATZ, J. J. eta FODOR, J.A. (1963): "The structure of sementic theory" *Language*, nº 39. Washington: The linguistic Society of America (170-210).
- KLINGE, S. (1989): "Prepositions in bilingual language acquisition (123-154)". MEISEL, J. argit.: *Two first languages: Early grammatical development in bilingual children*. Foris: Dordrecht.
- LAFON, R. (1980) : *Le systeme du verbe basque au XVIe siècle*. Elkar. Donostia.
- LAFON,R. (1948): "Sur le suffixes casuels "ti" et "tik" *Eusko-Jakintza*. Vol. 2, n. 2-3. Société Internationale d'Etudes Basques. Gernika.
- LAMBERT, W.E. (1978): *Bilingual education of children: The St. Lambert experiment*. Rowley. Massachusets.
- LAMBERT, W.E. (1982): "Algunas consecuencias cognitivas y socioculturales del bilingüismo". *Revista de Occidente*. 10-11. (145-165)
- LANDA, A. eta FRANCO, J. (1992): "Objetos nulos en el castellano del País Vasco: dos estatus para dos interpretaciones" *ASJU, XXVI-3*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- LARRAÑAGA, P. (1994): La evolución del caso en euskera y castellano. MEISEL, J.M (org) *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*. Editorial Iberoamericana, Madrid.
- LAZARO CARRETER, F. (1973): *Diccionario de términos filológicos*. Gredos, Madrid.
- LENNEBERG, E. (1974): "Una perspectiva biológica del lenguaje". LENNEBERG y otros. *Nuevas direcciones en el estudio del lenguaje*. Selecta de Revista de Occidente. Madrid.
- LENNEBERG, E. (1975): *Fundamentos biológicos del lenguaje*. Alianza. Madrid.
- LEOPOLD, W.F. (1939): *Speech development of a bilingual child*. Norwest University Press. Eranston. Illinois.
- LIPP, E (1977):" The acquisition of Estonian inflections" *J. Child Language*, nº 4. Manchester University. Dep. of linguistics (313-319)
- LOPEZ GARCIA, A. (1990): *Nuevos estudios de lingüística española*. Secretariado de Publicaciones de la Universidad de Murcia.

- LOPEZ ORNAT, S. (1988): "On data sources on the acquisition of Spanish as a first language" *Journal of Child language*, 15. Manchester University. Dep. of linguistics (679-686)
- LOPEZ ORNAT, S. (1990): "La formación de la oración simple: las omisiones sintácticas (S-V-O) en la adquisición del español" *Estudios de psicología*, 41. Aprendizaje, S.A. Madrid (41-72)
- LOPEZ ORNAT, S. (1994): *La adquisición de la lengua española*. Siglo XXI. Madrid.
- LURIA, A.R. (1979): *Conciencia y lenguaje*. Pablo del Río. Madrid.
- LURIA, A. R. (1980): *Lenguaje y pensamiento*. Fontanella. Barcelona.
- MACKEY, W.F. (1976): *Bilingüisme et contact des langues*. Klincksiek (Argit) Paris.
- MACKEY, W.; ANDERSSON, T. (1977): *Bilingualism in early childhood*. Papers from a conference on child language. Newbury house. Massachusett
- MACWHINNEY, B. (1976): "Hungarian research on the acquisition of morphology and syntax". *Journal of child language*. V.3. Manchester University. Dep. of linguistics. (279-410)
- MADRAZO, P.G - MORAGÓN, C. (1989): *Gramática*. Ed. Pirámide, Madrid.
- MAHLAU, A. (1991): "La modularidad de la mente y la teoría de los parámetros en la adquisición del lenguaje". *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. I. Idiazabalek zuzendua. VIII Udako Ikastaroak Donostian. Euskal Herriko Unibertsitateko argitarapen zerbitzua. San Sebastián.(53-73)
- MAHLAU, A. (1991) : "La adquisición del orden de palabras del castellano por niños bilingües" *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. I. Idiazabalek zuzendua. VIII Udako Ikastaroak Donostian. Euskal Herriko Unibertsitateko argitarapen zerbitzua. San Sebastián.(75-97)
- MARCOS MARÍN, F. (1980): *Curso de Gramática española*. E. Cincel. Madrid.
- MARCOS MARÍN, F. (1980): *Aproximación a la gramática española*. E. Concel. Madrid.
- MARTI, E. (1988): "Primeras creaciones en el lenguaje infantil. El caso de las metáforas" en *Infancia y aprendizaje*, nº 43. Ed. Pablo del Río. Madrid.
- MC.CONNELL, G.D. (1988): " Language contact and language development: an application to Basque". *II Congreso mundial vasco*. Servicio de publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria.
- McLAUGHLIN, B. (1985): *Second language acquisition in childhood: Volume 2. School-age children*. Lawrence Erlbaum Associates, publishers. Hillsdale, New Jersey.
- MEILLET, A. (1970): *La méthode comparative en linguistique historique*. Honoré Champion. Paris.
- MEISEL, J. (1986): *Adquisición del lenguaje*. Jürgen M. Meisel (Argit.). Ed. Iberoamericana Vervuert, Frankfurt
- MEISEL, J. eta MAHLAU, A. (1987): "La adquisición simultánea de dos primeras lenguas. Discusión general e implicaciones para el estudio del bilingüismo en Euskadi". *II Congreso Mundial Vasco*. Servicio publicaciones Gobierno Vasco. Vitoria.
- MEISEL, J. (1987): "Early differentiation of languages in bilingual children". *Bilingualism across the Lifespan: Aspects of Acquisition, Maturity and Loss*. K. Hylténstam eta L. Opler (arg.) Cambridge University Press (13-40).

MEISEL, J. (Argit.) (1990): *Two first languages. Early grammatical developement in Bilingual Children*. Foris publications. Dordrecht. Holland.

MEISEL, J. (1991): "El desarrollo de las nociones de tiempo, aspecto y modo de acción". *Adquisición del lenguaje en niños bilingües y monolingües - Hizkuntz jabekuntza haur elebidun eta elebakarretan*. I. Idiazabalek zuzendua. VIII Udako Ikastaroak Donostian. Euskal Herriko Unibertsitateko argitarapen zerbitzua. San Sebastián (11-51)

MEISEL, J. (1992): "Getting fat finiteness, agreement and tense in Early grammars". MEISEL (arg.): *Bilingual first language acquisition: french and german grammatical development*. Amsterdam. Benjamins.

MEISEL, J. M. (org) (1994): *La adquisición del vasco y del castellano en niños bilingües*. Editorial Iberoamericana, B.I. Madrid.

MENENDEZ PIDAL, R. (1973): *Manual de gramática histórica española*. Espasa-Calpe. Madrid.

MILLER, G. (1974): "Lenguaje y psicología". LENNEBERG y otros. *Nuevas direcciones en el estudio del lenguaje*. Selecta de Revista de Occidente. Madrid.

MOREAU, M. L; RICHELLE, M. (1981): *L'acquisition du langage*. Pierre Mardaga. Bruxelles.

MUÑOZ, C - VILA, I (1985): "Adquisición y uso de los pronombres de primera y segunda persona en castellano" *Actas del IV Congreso Nacional de lingüística aplicada*. Valencia 16-20 Abril.

MUÑOZ, C: (1986): "Los pronombres personales". Miquel Siguan coord. *Estudios de psicolingüística*. Ed. Pirámide. Madrid. (117-133)

OMAETXEBERRIA, I. (1962): "Declinación Vasca" *Euskera, VII*. Euskaltzaindia.

ORTI, C. (1987): "Producción verbal y bilingüismo" en *Revista de psicología*. Universitas Tarraconensis. Volumen IX (2). (129-136)

ORTIZ DE URBINA, J. (1987): "Kasu ezarketa eta ergatibitatea euskaraz". Salaburu zuzend.: *Sintaxi arazoak*. Donostiako Udako VI. Ikastaroak. Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzuak. Donostia. (35-48)

OSGOOD, CH. (1979): *Curso superior de psicología experimental. Método y teoría*. Trillas argit. México.

OSGOOD, CH (1986): *Conducta y comunicación*. Taurus argit. Madrid

OSHIMA-TAKANE, Y. (1988): "Children learn from speech not adressed to them: the case of personal pronouns". *J. Child Language, 15*. Manchester University. Dep. of linguistics. (95-108).

OSHIMA-TAKANE, Y. (1992): Analysis of pronominal errors: a case-study. *J. Child Language, 19*. Manchester University. Dep. of linguistics (111-131).

PARODI, T. (1989): "The acquisition of word order regularities and case morphology". MEISEL J. (Argit.): *Two first languages: Early grammatical development in bilingual children*. Foris: Dordrecht. 157-190 orr.

PAVLOV, I. (1968): *Fisiología y psicología*. Alianza. Madrid.

PEREIRA, H. (1986): "Desfase entre la producción y la comprensión del léxico en niños de 24 a 36 meses de edad" *Infancia y aprendizaje, 35-36* Ed. Pablo del Río. Madrid. (11-24).

PEREZ, M.; SINGER, D. (1984): "Adquisición de morfemas del español". *Infancia y aprendizaje, 27/28* Ed. Pablo del Río. Madrid. (205-221).

- PEREZ, M; CASTRO, J. (1988): "Fenómenos transicionales en el acceso al lenguaje". *Infancia y aprendizaje*. Ed. Pablo del Río. Madrid.
- PERONARD, M. (1985): "Spanish prepositions introducing adverbial constructions". *J. Child Lang*, 12. Manchester University. Dep. of linguistics. (95-108)
- PETERFALVI, J. M. (1979): *Introducción a la psicolingüística*. Alcalá (Argit). Madrid.
- PIAGET, J. eta beste (1965): *El lenguaje y el pensamiento del niño pequeño*. Paidós. Buenos Aires.
- PIAGET, J. (1977): "El lenguaje y las operaciones intelectuales" PIAGET, J. y otros: *Introducción a la psicolingüística*. Nueva Visión. Buenos Aires.
- PIAGET, J. (1981a): "Comentarios sobre las observaciones críticas de Vygotsky". *La adquisición del lenguaje*. Infancia y Aprendizaje. Pablo del Río (Argit) (37-48)
- PIAGET, J.; INHELDER, B. (1981b): *Psicología del niño*. Ed. Morata. Barcelona.
- RADFORD, A. (1988a): "Small children's small clauses" *Transactions of the Philological Society*, 86 (1-43)
- RADFORD, A. (1988b): *Introducción a la sintaxis transformativa (Teoría estándar extendida)*. Ed. Teide. Barcelona.
- RAMER, A. (1976) "Syntactic styles in emergency language". *Journal of Child Language*, 3, Manchester University. Dep. of linguistics. (49-62)
- REAL ACADEMIA ESPAÑOLA (1982): *Esbozo de una nueva gramática de la lengua española*. Espasa Calpe, Madrid.
- RIES y otros (1932): *El bilingüismo y la educación. Conferencia internacional de Luxemburgo*. Espasa-Calpe. Madrid.
- RIJK, de R.P.G. ( 1972 ) : "Partitive assignment in basque" *ASJU*, VI (130-173) Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.
- RISPOLI, M. (1994): "Pronoun case overextensions and paradigm building". *J. Child Language*, 21. Manchester University. Dep. of linguistics. (157-172)
- ROM, A - DGANI, R (1985): "Acquiring case-marked pronouns in Hebrew: the interaction of linguistic factors" *J. Child Language*, 12. Manchester University. Dep. of linguistics. (61-77)
- RONDAL, J.A. (1980): *Lenguaje y educación*. Ed. Médica y Técnica. Barcelona.
- RONDAL, J.A. (1990): *La interacción adulto-niño y la construcción del lenguaje*. Ed. Trillas. México.
- RONJAT, J (1913): *Le développement du langage observé chez un enfant bilingue*. Champion Paris
- ROSENGREN, P. (1974): *Presencia y ausencia de los pronombres personales sujetos en español moderno*. Estocolmo: Almqvist & Wiksell.
- SAGUES SUBIJANA, M. (1983): *Manual de gramática española*, Txertoa. San Sebastián.
- SALABURU, P. (1985): "Mario Bunge-ren hizkuntzalaritza". *Euskera*, XXX (2.aldia) Euskaltzaindia (297-330)
- SALABURU, P. (1986): "Euskal perpausaren egitura". SALABURU argit.: *Euskal morfosintaxia eta fonologia. Eztabaida gaiak*. Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzuak: Donostia (103-128)
- SALABURU, P (1991): "Euskal perpausa: zenbait ohar sintaxi eta mintzagai egiturez". J.A. LAKARRA argit.: *Memoriae L. Mitelena Magistri Sacrum*. ASJU Gehigarria (927-946)

- SALVÁ, V. (1988) : *Gramática de la lengua castellana I - II*. Arco libros. Madrid.
- SAN AGUSTIN (1984): *Confesiones*. Bruguera argit. Barcelona.
- SARASOLA, I. (1977): "Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes". *ASJU*, XI . Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia (51-90).
- SARMIENTO, R. - SANCHEZ,A.(1989): *Gramática básica del español*. Sdad. General española de librería, S.A. Madrid.
- SAUSSURE, F. de (1973): *Curso de lingüística general*. Losada. Buenos Aires.
- SCHLESINGER, J.M. (1971): "Production of utterances and language acquisition". SLOBIN, D.I. argit.: *The ontogenesis of grammar. A theoretical symposium*. New York. Academic Press (63-101)
- SECO, M. (1989): *Gramática esencial del español. Introducción al estudio de la lengua*. Espasa Calpe, Madrid.
- SECO, R. (1985): *Manual de gramática española*. E. Aguilar. Madrid.
- SERRA, M; SOLER, R; TRIADO, C; CORTES, M. (1988): "Diferencias individuales en la lexicalización inicial". *II Congreso mundial vasco*. Servicio de publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria.
- SHUM, G. (1988): "La influencia del contexto de la interacción en la adquisición del lenguaje". *Infancia y aprendizaje*. Pablo del Río (Argit). Madrid.
- SHUM, G (1993): "El pronombre en el lenguaje formal del niño". *Infancia y aprendizaje*, 61 Pablo del Río (Argit). Madrid.(107-121).
- SHUM, G.; CONDE, A.; DIAZ, C. (1989) "¿Cómo se adquieren y usan los términos deícticos en lengua española? Un estudio longitudinal". *Infancia y Aprendizaje*, 48. Pablo del Río (Argit.) Madrid (45-64).
- SIGUAN, M. (1978): "De la comunicación gestual al lenguaje verbal". *La génesis del lenguaje. su aprendizaje y desarrollo*. Pablo del Río. (Argit.). Madrid (23-50)
- SIGUAN, M. (1983): *Metodología para el estudio del lenguaje en la infancia*. Universitat de Barcelona.
- SIGUAN, M. (1984a): *Estudios sobre psicología del lenguaje infantil*. Pirámide. Madrid.
- SIGUAN, M. (1984b): *Adquisición precoz de una segunda lengua*. Universitat de Barcelona.
- SIGUAN, M (Coord) (1986): *Estudios de psicolingüística*. Pirámide. Madrid.
- SIGUAN, M. (1987): *Actualidad de Lev. S. Vigotski*. Anthropos. Barcelona.
- SIGUAN, M.; COLOMINA, R.; VILA, I. (1990): *Metodología para el estudio del lenguaje infantil*. Ed. Abril. Barcelona.
- SINCLAIR DE ZWART, H. (1977): "Estudios comparativos". *La génesis del lenguaje. Su aprendizaje y desarrollo*. Pablo del Río (Argit). Madrid.
- SINCLAIR DE ZWART, H. (1978): *Adquisición del lenguaje y desarrollo de la mente. Subsistemas lingüísticos y operaciones concretas*. Oikos-Tau. Barcelona.
- SKINNER, B. F. (1975): *Sobre el conductismo*. Fontanella argit. Barcelona.
- SKINNER, B. F. (1981): *Conducta verbal*. Trillas argit. Mexico.

- SKUTNABB-KANGAS, T. (1988): "Multilinguisme and the education of minority children". SKUTNABB-KANGAS eta CUMMINS (ed): *Minority education: from shame to struggle clevedon: multilingual matters*,
- SLOBIN, D. I. (1973): "Cognitives prerequisites for the development of grammar". Ch.A. Ferguson eta D.I. Slobin (argit.): *Studies of Language Development*. New York: Holt, Rinehart eta Winston (175-208).
- SLOBIN, D. I. (1974): *Introducción a la psicolingüística*. Paidós. Buenos Aires.
- SLOBIN, I. (1985): *The crosslinguistic study of language acquisition. Volume I: The data. Volume II: Theoretical Issues. Volume III*. Slobin D.I. (Argit) Lawrence Erlbaum Associats Publichers, London.
- SNOW, C.; FERGUSON, CH. (1977): *Talking to children. Language input and acquisition*. Cambridge Univ. press. Cambridge.
- SOCARRÁS, C.J. (1967) : *Gramática de la lengua española*. Las Américas Publishing company. New York. Talleres gráficos ibero-americanos,S.A. Barcelona.
- TABOURET-KELLER, A. (1977): "La adquisición del lenguaje hablado en un niño criado en medio bilingüe". PIAGET, J. eta beste: *Introducción a la psicolingüística*. Nueva Visión. Buenos Aires.
- TABOURET-KELLER, A. (1976): "Bilingüisme i educacio social". *Bilingüisme i educacio*. Teide. Barcelona (145-152).
- TABOURET-KELLER, A. (1977): "Comparaciones interlenguas y problemas de bilingüismo" *La génesis del lenguaje. Su aprendizaje y desarrollo*. Pablo del Río (Argit) Madrid.
- TABOURET-KELLER, A. (1988): "La nocivité mentale du bilinguisme, cent ans d'errance". *II Congreso Mundial Vasco*. Servicio de publicaciones del Gobierno Vasco. Vitoria.
- TAESCHNER, T. (1983): *The sun is femenine: A study on language acquisition in bilingual children*. Springer-Verlag. Berlin.
- TITONE, R. (1975): *Bilingües a los tres años*. Kapelusz. Buenos Aires.
- TITONE, R. (1976): *Psicolingüística aplicada*. Kapelusz. Buenos Aires.
- TITONE, R. (1977): "Ontogénesis del habla: Perspectivas metodológicas" *La génesis del lenguaje. Su aprendizaje y desarrollo*. Pablo del Río (Argit) Madrid.
- TOMASELLO, M (1987): "Learning to use prepositions: a case study". *J. Child Lang*, 14. Manchester University. Dep. of linguistics. (79-98).
- TXILLARDEGI (1981): *Euskal Gramatika*. Erein. Donostia
- TXILLARDEGI (1977): *Oinarri bila morfosintasian eta fonologian*. Alvarez-Lorea. San Sebastián.
- URRUTIA CARDENAS, H.; ÁLVAREZ ÁLVAREZ, M. (1983): *Esquema de morfosintaxis histórica del español*, Universidad de Deusto (Argit). Bilbao.
- URRUTIA, H. (1988): "Fundamentos lingüísticos en la enseñanza de la lengua materna" *Actas del VI Congreso Nacional de Lingüística Aplicada*. Santander.
- UZEI (1982): *Hizkuntzalaritza hiztegia*.
- VAN GEERT, P. (1985/86): "In, on, under: an essay on the modularity of infant spatial competence". *First Language*, 6. Science History Publications Ltd. England (7-28).
- VARIOS (1981): *La adquisición del lenguaje*. Infancia y aprendizaje. Pablo del Río (Argit). Madrid.

- VEZ, J. M eta ORO, J. M. (1986): "Aplicaciones didácticas de la gramática de casos a las oraciones de relativo en inglés". *Actas IV Congreso Nacional de lingüística aplicada*. Volumen II. Asociación Española de lingüística aplicada. Córdoba, 1986.
- VILA, I. (1983): "Reflexiones en torno al bilingüismo y la enseñanza bilingüe". *Infancia y aprendizaje*, 21 Pablo del Río (Argit). Madrid (4-22).
- VILA, I; BOADA, H; SIGUAN, M. (1982): "Adquisición y desarrollo del lenguaje en bilingües familiares: primeros datos de una investigación". *Infancia y aprendizaje*, 19 -20. Pablo del Río (Argit). Madrid (89-99).
- VILA, I. (1984): "Yo siempre hablo catalán y castellano". SIGUAN (Koord): *Adquisición precoz de una segunda lengua*. Universitat de Barcelona. 29-51 orr.
- VILA, I; ELGSTROM. (1987): "Imitación y adquisición del lenguaje". *Infancia y aprendizaje*, 38. Pablo del Río (Argit). Madrid (1-8)
- VILA, I. (1990): *Adquisición y desarrollo del lenguaje*. Graó de Serveis Pedagògics Barcelona.
- VILLASANTE, L. (1972): *La declinación del vasco literario común*. Ed. Franciscana. Aránzazu.
- VILLASANTE, L. (1974): *Palabras vascas compuestas y derivadas*. Ed. franciscana. Aranzazu.
- VILLIERS, P.; VILLIERS, J. ( 1980): *Primer lenguaje*. Morata. Madrid.
- VILLIERS, P.; VILLIERS, J. ( 1985): "The acquisition of English". SLOBIN D. I. (Argit): *The crosslinguistic study of language acquisition. Volume II: Theoretical Issues*. Lawrence Erlbaum Associats Publichers, London.
- VOLTERRA, V.; TAESCHNER, T. (1983): "La adquisición y el desarrollo del lenguaje en niños bilingües". *Infancia y aprendizaje*, 21. Pablo del Río (Argit). Madrid.
- VYGOTSKY, L. (1981a): *Pensamiento y lenguaje*. La pléyade. Buenos Aires.
- VYGOTSKY, L. (1981b): "Pensamiento y palabra". PABLO DEL RIO (Argit): *La adquisición del lenguaje*. Infancia y Aprendizaje. ( 15-35)
- WANNER, E. eta GLEITMAN, L.R. (1982): *Language acquisition: The state of the art*. WANNER eta GLEITMAN (Argit). Cambridge University Press.
- WEIST, R. (1991): "Spatial and temporal location in child language" *First Language*,11. Science History Publications Ltd. England.(253-267)
- WEISSENBORN, J.; KAIL, M.; FRIEDERICI, A. (1990): "Language particular or language independent factors in acquisition? Children's comprehension of object pronouns in Dutch, French and German". *First language*, 10. Science History Publications Ltd. England.(141-166).
- WYATT, G. (1973): *La relación mère-enfant eta l'acquisition du langage*. Pierre Mardaga. Bruxelles.